Euskararen bilakabide hau, berriki utzi gaituen euskaltzain aipagarri Anjel Irigaray-k zioenez, frantzetsadaren ondoren hasi omen zen indartzen: «Esta pérdida del Vasc. en cientos de pueblos de la zona media, ocurrió en sólo cincuenta años, de 1813 a 1863 aproximadamente. Lo que no había ocurrido anteriormente en siglo y medio sino muy lentamente y sólo por el límite meridional».<sup>2</sup> Ehundaka herrik! Aisa erraten da, gero! Hala eta guztiz ere, Bonaparte Printzeak mendearen bukaera aldean eginiko euskalkien mapan, Hegoaldeko Goi-Nafarrerak Goñibartik Gareseraino hartzen zuen.

Fetxa haietatik ehun urtetara, 1962an, Blas de Fagoagak Euskaltzaindiko *Euskera* aldizkarian lan bat argitaratu zuen. Lan honetan, Iruñeko Apezpikutegiko eleiz-gidan jasotako datuetan oinarriturik, 1904ean Nafarroan euskaraz egiten zuten herrien zerrenda ematen zuen. A. Irigaray-k 1974ean, 70 urte geroago, beraz, lan hori azaltzen ari zelarik, hitz gutti aski ditu erran nahi duena bipil agertzeko: «Se ha barrido *totalmente* el euskara de 12 valles, desde Ollo-Goñi y Olza hasta Roncal, pasando por Lónguida y Arce (en su *mayor parte*) desde la Burunda y Araquil hasta Salazar; y *parcialmente* en 4, (Ulzama, Ymoz, Basaburua y Araiz)».<sup>3</sup>

Datu hauek, bere soilean ere, benetan ikaragarriak dira, eta ez dute aukearik ematen esaldi politetan astia galtzen ibiltzeko, bai, ordea, lanean ganoz hasteko.

Berriro ere Irigaray izan zen berak 1935ean bildutako datuak Sánchez Carrion-ek 1970ean jasotakoekin erkatu zituen, eta ohizko ondoriotara iritsi zen: «Resumiendo, en estos 38 años se han perdido para la vieja lengua, aparte del N. roncalés, la casi totalidad del Valle de Salazar (pues en 1935 se oía el euskara en Igal), val de Arce, Esteribar, Anué, Juslapeña, Gulina, Odieta, Atez, Araquil y la Burunda».<sup>4</sup>

Gero ere lanak egin dira, eta horietan Irizar-ek eta Siadeco-k Euskaltzaindiaren eraginez egindakoak izan daitezke aipagarrienak,<sup>5</sup> baina gehiagorik ere bada, tokiz mugatuagoak badira ere. Hori bai, denak bide beretik datoz eta ondorio berdinetara garamatzate. Hitz batez esateko: euskara Nafarroan zatika erortzen ari da. Eta jakintsuak eta ikertzaileak eta egoera hau sentitzen dugunok, etxeko jaunaren eriotzean uluka ari den txakurra bezala gara: gure oi-huak gau ilunean galtzen dira.

Halaz ere, denak ez dira kontrako datuak, baikorrik ere bada, edo, guttinez, baikortzat har daitezkeenak, batez ere irakaskuntz alorrean. Baina, era

<sup>2</sup> APAT-ECHEBARNE, A.: *Una Geografía Diacrónica del Euskara en Navarra*, Pamplona, 1974, 28. or.

<sup>3</sup> APAT-ECHEBARNE, A.: *Ibidem*, 23. or.

<sup>4</sup> APAT-ECHEBARNE, A.: *Ibidem*, 16. or.

<sup>5</sup> YRIZAR, P. de: «Los dialectos y variedades de la lengua vasca», *BSVAP* 1, 2, 3 (1973), 3-78. or.; Informe SIADECO: «Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del euskara», 1978.

honetako datuak aunitzetan kaltegarri gertatzen dira: bere errealitate osoan ez aztertuz gero, iruzurti izan ohi dira.

Hogeitasei ikastetxe publikotan euskaraz irakasten dela edo berrogeitabatetan euskara ematen dela errateak iduri pozgarria sortarazten du. Baina ikusi behar dena da zein plangintza eta koordinaketarekin eramaten diren aintzinerak ekintza hauek, nolako materialak eta arreta espezializatua eskeintzen zaizkien, zer jarraipen egiten zaien, edo euskararen irakaskuntzari zenbat ordu eskeintzen zaizkion: izan ere, bi ordu astean mesedegarri izan beharrean kaltegarri ere bihur daiteke.

Beste ikuspegi batetik ere, zenbakiak sobera erabiltzeak gaitz egin diezaioke euskarari. Zenbakiak zenbakizko pentsamoldea sortzen dute eta geure hizkuntza eta komunikabide biziak ari garela ahantzarazten digute. Eta, gainera, zenbakiak onartzen ditugun neurrian, etsaiei ere egunetik egunera zorrotzagoa den nabala eskeintzen diegu.

Nafarroako zenbait bailada eta herrietan ibiliz gero, bizi-bizi sentitzen da norberaren hizkuntza ez daitekeela gehiengoaren eta guttiengoaren oinpean joka, hori muin-muinetik zuzenaren kontrako izango litzatekeela. Komunitate bateko komunikabidea ez da botutan sartzen, eta berez zor zaizkio laguntza denak, eta hainbat gehiago egoera hestuan arkitzen bada.

Politikoez ez dute hau ongi ulertzen, betiere zenbakien eta berehalako emankortasunaren arabera mugitzen bait dira. Ez dira ohartzen komunitateko hizkuntza joku politikotik at gelditzen dela.

Aristotelek zioen bezala, gizakia abere politikoa da, eta horrela den heinean hizkuntza ere politikoa bilakatzen da. Hizkuntzak gizartea kanpo eta barne asetzen du, urak belakia bezala, eta hori horrela izanik, egiazko politikoa gizarteari eskeintzen dion zerbitzua politikazko irizpideetara lotzen ez den bezala, hizkuntzari zor zaiona ere ez da irizpide horietara lotu behar. Londres-ko Hyde Park entzutetsuan ertzainak hizlaria defenditzen du, alde edo aurka duenentz kontutan hartu gabe. Gobernariak ere zuzentasun berdinez eta bereizkeriarik gabe begiratu behar dituzte bere herriko hizkuntza denak. Hizkuntzetara ez litzateke inor ikuspegi politikoz hurbildu behar. Jokabide horrek hizkuntzaren eta hiztunen eskukaketa berekin darama, eta laguntzeko asmoz hurbildurik ere egun eta munduko kaltea egiten dio hizkuntzari.

Ez da gaurkoa euskararen erabilera politikoa arpegiratzea. Beste edozein hizkuntzaz gauza bera esan daitekeen arren, eta hizkuntza indartsuagoa eta areago, gauza bat utzi behar genuke arras garbi: gu geu gara aurrenak erabilera politikoa hori salatzen eta horren kalteak jasaten. Eta aukera bikaina da hauxe Euskaltzaindiak puntu honetan duen jokabide eredugarria aldarrikatzeko, beti ere bere lana inoiz politikarekin nahas ez dadin. Irigaray jaunak bere egiten zituen Ponpeu Fabraren hitz hauek: «El pueblo está convencido siempre de que defender la lengua y la cultura es compatible con cualquier posición poli-

tica», eta baita Basarriren beste herrikoiago hauek ere: «amorru ikaragarria ematen dit euskara politikarekin naasteak».<sup>6</sup>

Legeek izan behar dute jokabideen oinarri, haiei eman behar zaie garrantzia. Orainartekoan, egia aitortu nahi bada, hezkuntz alorrari zegozkion aipamenak ezik, deus gutti arkitzen genuen legeetan. Eta hezkuntzakoak ere -70.eko Hezkuntz Lege Orokorra eta 75.eta 76.eko Dekretuak, hain zuzen- ez bereziki aldekoak. Nafarroan, eta hau ere erran behar da, hezkuntz autonomia-ri esker, 67.etik euskara zaindu eta indartzeko zenbait arau eman ziren. Baina, beti, hizkuntz ofiziala bat zen, eta, beraz, bertzeei uzten zitzaiena haren esku-zabalari esker baino ezin zitekeen izan.

Gaur egun Forua Hobeagotzeko Legea dugu. Atariko atalburuak bederatzik artikulatu ditu. Artikulu horiek atarikoak direnez, bertze gainerako artikulatu guzietan ere badute zerikusirik, nolabait, denetan sartzen dira. Bederatzigarrenak honela dio:

«1. El castellano es la lengua oficial de Navarra.

2. El vascuence tendrá también carácter de lengua oficial en las zonas vascoparlantes de Navarra.

Una ley foral determinará dichas zonas, regulará el uso oficial del vascuence y, en el marco de la legislación general del Estado, ordenará la enseñanza de esta lengua».

Lehena-lehen, hauxe erran behar da artikulatu honi buruz: ezin da onartu inondik ere Nafarroa bi hizkuntzetan zatikatzea. Ezin da onartu, euskara Nafarroan alderdi batzutura mugatzea. Ezin da onartu nafartarren eskubideak ukatzea, horixe baizik ez delako, azken batean, artikulatu horrek suposatzen duena.

Azken honetan agindu berria dute gure agintariek Nafarroan hizkuntzaga-  
tik ez dela lurralde zatiketarik eginen.\* Dena den, hori ez da aski. Legea beti lege, eta 9. artikulatu hori sustraitik aldatu behar da, eta aldatzen ez den bitartean, hizkuntzari dagokionez, nafartarren eskubideak zapalduzik egonen dira.

---

<sup>6</sup> APAT-ECHEBARNE, A.: *Noticias y viejos textos de la 'Lingua Navarrorum'*. San Sebastián, 1971, 100-101 or.

(\*) Urralburu Jaunak, Nafarroako Gobernu Foraleko Lehendakariak, hori garbi utzi zion Euskaltzaindiari, eta publikoki ere, Telebista Espainolean, gauza bera agindu zuen. Bertzalde, maiatzean izan zuen hizketaldi baten errandako hitz hauek jaso nahi genituzke bereziki:

*«Con independencia de los demás problemas políticos, el tema del euskera es un tema navarro, que ha encontrado ya el camino institucional para su integración en las enseñanzas oficiales. Y por ese camino vamos a continuar»*, Deia, 1984 Maiatzak 13.

Besterik dugu, ordea, hizkuntzaren egoera sinkronikoa kontutan hartuz, tokian tokirako eman beharko den tratamendu berezia. Hori Hezkuntz eta Kulturako Sailburuak 1985erako emanen den Euskararen Lege Foralean zehaztea agindu berria du.

Nolanahi ere, euskara ofiziala izatean datza gakoa. Honen garrantzi izugarria bistan da, non eta, ofizialtasunak eskatzen duenez, euskara administrarritza publikoko sail guzietara hedatzen den.

Erabilera legez finkatzeak badu bere alderdi onik. Lege idatziak indar berezia du eta horrela erabilera hori ez da aurretik datozen indarren eta jokabideen mende uzten. Ez ahantz, orainarteko usuario bakarra gaztelararena izan dela. Ikuspegi sozialaren aldetik ere, oso mesedegarri gertatzen da hizkuntzaren poza eta harrotasuna pizten duelako. Orain arte bigarren mailan zokoratua egon den hizkuntzak bere duintasuna eskuratu behar du mintzaleengan eta gizartean. Dena den, azken urteotan aldaketa ttiki bat nabaritu izan dut: jendea bertze estima batez hartzen ari da bere hizkuntza.

Denok badakigu, hizkuntzarekiko iritzi ona galduz gero, alferrikako gertatzen direla asmo on eta ekintza gehienak. Zentzu honetan jokabide asmakorra eskatuko nuke, jendearen beldur eta susmo txarrak –euskaldunenak eta guztienak– bazter dezakean jokabidea. Jokabide gogorregiak, bertzalde, ez dugu uste onak direnik, kaltegarriak baizik, batez ere horrelako jokabideak herri xehean izaten dituen ondorio txarrak ikusi ondoren.

Entzungarriak dira Gaztelera Akademiako Manuel Seco ospetsuaren hitzak. «Romance de la conquista de Alhama» -ko bertsoez hasten da:

*«Cartas le fueron venidas / cómo Alhama era ganada:/  
las cartas echó al fuego / y al mensajero matara».*

Eta Seco Jaunak honela iruzten du:

*«Una de las víctimas más habituales de este deporte es el mensajero por excelencia: el lenguaje. De mil modos se le ha hostilizado y se le hostiliza un día tras otro; de mil modos se le violenta y se le mata para que no cumpla su misión... El mensajero, el medio de comunicación, el lenguaje que nos hace seres humanos, se ve convertido, sin culpa suya, en protagonista de conflictos, en víctima o en verdugo, cuando los verdaderos contendientes son los hombres que no saben convivir ni saben usar adecuadamente del instrumento supremo de convivencia que es, por naturaleza, toda lengua. Las lenguas son siempre inocentes, nunca agresivas, nunca tiránicas. El recelo, la agresividad y la tiranía son actitudes estrictamente humanas: de los señores, no de los mensajeros».<sup>7</sup>*

<sup>7</sup> SECO, M.: «La enseñanza bilingüe», «El futuro de la enseñanza en el País Vasco (1983)» gaiari buruzko mahai inguruan izan zuen eskuhartzea, *Aula de Cultura «El Correo Español-El Pueblo Vasco*, Bilbao, 1983, 81-82 or.

Gure kasuan ere hizkuntza bera izan behar da helburua, helburu bakarra, eta ez bertze asmo batzutarako aitzakia. Hau da, mezularia errespetatu eta ez erahil. Horregatik bilatu behar da jokabide ausarta, adoretsua, nahi balitz baita baikorra ere, baina beti gizalegezkoa. Honek inola ere ez du erran nahi aspalditik datozen ohitura txarretara makurtu behar denik; betiko kontu gogai-karria da, euskara ez dakitenean errespetuz eta gizatasuna zaintzeagatik erdara beti garaile atera ohi dela.

Orain arte erranak zahazten hasiko bagina, hiru alorretan edo mailatan arituko ginateke batez ere: Irakaskuntza, Administralgoa eta, azkenik, beti aitortu izan zaion eraginagatik, Elizari buruz ere mintzatu behar da.

Has gaitezen irakaskuntzaz. Datu faltarik ez da Batxiller eta Lanbide Heziketa aurreko maileri dagokienez.<sup>8</sup> Ikastetxe publikoetakoak nahiko zehatz jaso dituzte Larraza, Nafarroako Ikastolen Elkarteko Idazkariak, eta Ruiz Castillo, Goizuetako Eskola Publikoko Zuzendariak. Diputazioko Euskara Zerbitzuak ere eguneratuak omen ditu bere datuak. Ikastoletakoak, berriz, Ikastolen Elkartek urtero jartzen ditu egunean. Hala eta guztiz ere, datu orokorren falta ageria da, beharrezkoak bait dira, erkaketen bidez, ondorio nagusiak atera eta euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren ikuspegi osoa edukitzeko. Datuen bilketak berak ere garbi uzten du irakaskuntza mota hau bere kasa mugitu dela, benetako plangintza eta koordinaketarik gabe.

Ihazko datuen arabera, euskarazko irakaskuntza Nafarroako Eskolaurre eta O.H.O.-eko ikasleen kopurutik % 11'4-k hartzen du. Hauetatik gehienak, % 82-tik gora, ikastoletan dabilta eta gainerakoak eskola publikoetan. Euskara bera asignatura bezala bertze % 8 batek ikasten du. Ikastetxe pribatuetako datu-rik ez da ezagutzen. Hau bera ere nahiko esanguratsua da; edozein gisatan, badakigu gauza aunitzik ez dela egiten.

Ikus daitekeenez, datu apur hauek ere azaltzen dute euskararen irakaskuntzaren egoera murrizta, baina okerrena M. F. Zabaletak aitortzen duena da: «...pero por la problemática en que se desenvuelve esta enseñanza, estas cifras son más simbólicas que reales; pues en muchos casos las condiciones en que se lleva a cabo hacen que su eficacia sea mínima».<sup>9</sup>

Egoera hau gaingituko dela uste dugu, arestian aipatu den lege forala atezratzen denean, irakaskuntza ere lege horrek zuzendu eta bideratuko bait du. Forua Hobeagotzeko Legeak, gainera, badu irakaskuntzari bereziki zuzendutako artikulua, 47; alegia: «Es de la competencia plena de Navarra la regulación

<sup>8</sup> LARRAZA LAKUNZA, J.L.-RUIZ CASTILLO, I.: *Euskararen arnas hestua irakaskintzan. La difícil situación del euskara en la enseñanza (offset).*

ZABALETA, F.M<sup>a</sup>.: «Pluralidad lingüística en el sistema educativo de Navarra», Santiago de Compostela-ko 1984-ko Pedagogiako Kongresoan aurkeztutako txostenaren laburpena (offset).

Ikus baita ere: YRIZAR, P. 5. notan eta SIADECO ere nota berean.

<sup>9</sup> ZABALETA, F.M<sup>a</sup>.: *Op.cit.*

y administración de la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados...» Euskal irakaskuntzari buruzko Lege Forala artikulua honekin elkartu beharko da, helburuak ongi finkatuz, ez bait dago euskararen irakaskuntza irakaskuntza orokorretik kanpora atera beharrik. Lege Foral horrek ez luke eragozpenik ipini behar euskara Nafarroako edozein tokitan irakasteko, eta bideak zabaldu beharko liriateke eskatzen den tokietan eskeini ahal izateko.

Han-hemenka badira hamaika lan orientabidez, aholkuz eta eskakizunez beterik; gure asmoa ez da, bada, gauza berririk erraterik, baina legea oraindik ateratzeko dagoenez gero, beharrezko jotzen ditugun bizpahiru artezari edo ardatz nagusi gogoratuko genituzke.

Lehenengo puntua kontutan hartuko genukeena irakaslegoarena izango litzateke. Ezin daiteke irakaskuntzan aldaketarik egin irakaslegoa alde aurretik ongi prestatu gabe. Euskaraz, ordea, premiak eraginda eta ezinbestez ez dugu beti lege hori bete. Euskaraz jakitea ez da aski euskara irakasten hasteko; eta irakaskuntzan hizkuntza aldatzea, komunikabide hutsa aldatzea baino hagitik ere gehiago da, batez ere Eskolaurreko eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko adinetan. Horregatik, gogor eutsi behar zaio honi. Arlo honetan edozein hutsegite oso kaltegarri gertatzen da, eta hitzetik hortzera euskararen eta hezkuntz helburuen aurkako.

Irten berria da Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Irakaslego Eskolei buruz Euskal Herriko Unibertsitateko HEZI-k eginiko ikerketa lan bat. Euskarazko prestaketaz ateratzen dituzten ondorioak Nafarroarako ere onargariak izan daitezke. Espezialitateak euskara hutsean edo hizkuntza bietan egiten diren arren, euskara eta euskaraz irakasteko prestaketa didaktiko berezia eta hobea eskatzen dute. Besteren artean honela diote:

*«Consideradas las necesidades, hay que pensar que se dedica mucho menos tiempo del necesario a la preparación en didáctica del euskara. Igualmente, hay que pensar que este profesorado necesita mayor preparación en euskara, fijando el nivel no por aspectos circunstanciales sino por las necesidades reales con las que se vaya a encontrar».*<sup>10</sup>

Irakaslegoari buruz ez dago gehiago ihardun beharrik, denok ezaguna bait dugu haren garrantzia. Bigarren ardatza, berriz, plangintza oso eta zehatzarena da. Euskaraz irakastera pasatzea edozein hezkuntz berritze baino aldaketa erabatekoagoa da, eta ez da posible probetxuz egiterik alderdi guztiak kontutan hartu gabe. Kurtsoz-kurtsoko eta mailaz-mailako plangintza egin behar da, helburuak, edukiak, orduak, materialak, arreta espezializatua, barnean sartuz.

<sup>10</sup> URIBEETXEBARRIA, T.: «Situación general del euskara», in *Análisis de la estructura educativa en las Escuelas Universitarias de F.P. de E.G.B. en la Comunidad Autónoma Vasca*, Bilbao, 1984, 629-630. or.

Horrekin batera, bilakabidearen jarraipenak sekulako eragina du. Martxan ipintzea ez da aski, gero jarraitu egin behar zaio. Bilakabide osoa ebaluatu, helburuak zenbateraino erdiesten diren zainduz, eta beharrezko ikusten diren zuzenketak sartuz.

Bistan da guzti honek diru aunitz eskatzen duela. Pentsatzen dugu, hainbeste urtetan aurreratu denaren gain, orain aisago eskeiniko dela beharren arabera. Astiarena okerragoa da, ez baita astirik gelditzen. Trebetasunik behar izanen dugu arreta eta premia elkarrekin uztartzeko: ez mantsoegi dena ongi egiteagatik, ez itzulipurdika gudo ibiltzeagatik.

Administralgora pasatuz, lehen erran dugun bezala, ofizialtasunak hizkuntza zerbitzu denetara darama. Udaletxeek, Foru Aldundiak eta erakunde publiko denek (diru-etxe, seguru-etxe, denda, taberna, dantza-leku...) euskaraz ere eskeini behar dituzte zerbitzuak. Honetarako ez da aski, orain arte egin den bezala, plazak betetzeko euskaraz dakitenei puntuak ematea. Aurretik datorrigun egoera kontutan harturik, euskara ikasteko aukera eta laguntzak ere eskeini egin behar zaizkie, eta, ahal den neurrian, horretara bultzatu ere bai.

Herri euskaldunetan beharrezkoa da zentru ofizialak eta publikoak euskalduntzea, hortik sortzen delako gizartean hizkuntzaren estima eta, azken batean, euskal giroaren aldeko jokabidea. Ikusten denez, bide guziek eramaten gaituzte helduen alfabetatze eta euskalduntzera. Ezinbestekoa da ekintza hau ere antolatzea edo horrelako ekintzetan dihardutenei laguntzea. Forua Hobeagozko Legeak 44garren artikuluko 8garren puntuan kulturako konpetentzia osoak Nafarroari pasatzen dizkio. Honek erran nahi du gure esku dugula ekintza guzti hauek arautzea.

Euskal giroa komunikabideetan ere lortu behar da. Hizkuntza arazotan gaur ez dago aintzina pausurik ematerik egunkari, irrati eta, bereziki, telebistaren laguntzarekin kontatu gabe. Aukera hau hartuko nuke laguntza ofizial oparoa eskatzeko, orain arte eskeintzen dutena baino askoz gehiago eskeini dezaten.

Eta azkenik, ahalegin denak egin behar dira ikastetxeetako giroa orekatzeko. Mundu guziak salatzen duen bezala, kontzentrazioek gaitz haundia egin diote euskarari eta hau gertatzen da, batez ere, kontzentrazioetako giroa eralduna delako. Klaseetan euskara erabiltzeak beste eragin du giroak. Harreman arruntetan erdara bakarrik erabiltzearekin, bera bilakatzen da goi mailako eta komunikaziorako hizkuntza bakarra. Irakaslegoaren egoera aldatzea zaila da, baina ez daiteke elebitasun orekatu eta errespetuzkorik irakaslego eta pertsonal elebidunik gabe. Ahal dena egin beharko da, mila kontraesanetan erortzerik nahi ez bada.

Orokorki hartuta beharko litzatekeen jokabidea Sánchez Carrión-en hitz hauetan egoki azaltzen da: «La adquisición de la lengua en el niño debe simultanearse, en lo posible, con una enseñanza de dicho idioma al adulto con el



que aquél entra en relación. En cualquier caso, debe estar sostenida por una política lingüística que sea individual, social y especialmente coherente».<sup>11</sup>

Eta akitu baino lehen, euskararen iraupenean eta galpidean Elizaren eta herrietako apezten eraginaz mintzatuko gara. Ez da gaurko kontua: XVI. mendetik Elizak agertzen du elizkizunak herriaren hizkuntzan egiteko kezka. Gaurko mendera hurbilduz, «Euskeraren adiskideak» «Euskal-Esnalea» aldizkarian behin eta berriz agertzen dute apezten eragina hainbat herritan.<sup>12</sup> Eta egunera etorritz Sánchez Carrión-ek dioen bezala: «Los párrocos navarros son héroes desconocidos que con verdadero tesón, entrega y abnegación han luchado con todas sus fuerzas para defender nuestro tesoro lingüístico. Que la situación no esté en muchos puntos más empeorada, a ellos se lo debemos».<sup>13</sup> Izan bitez hitz hauek gure eskerronik minenaren adierazle. Baina ez genuke erran gabe utzi nahi bertze herri aunitzetan izan duten eragin kaltegarria ere haundia izan dela.

Orain indarrean dirauten orientabide pastoralak 1974.go abuztukoak dira.<sup>14</sup> Irizpide goresgarri eta funtsezkotan oinarritzen dira. Aurrena, euskara Nafarroako komunikabide dela erraten da; gero, berriz, gure historia eta kultur ondasun bezala ere hartzen da; eta azkenik, haren egoera larria ere bai, ukorik egin gabe, gainera, egoera horretan Elizak berak izan dezakeen erantzukizunari. Horregatik, dio, «egoki jokatu bearra dugu gure izkuntzaren geroari buruz».

Bigarren pausu bezala, ebanjelioa zabaltzeko agindua bete beharra aztertzen du, eta, bertan erraten diren hitz propiotara atxikiz, «erriari zor dion leialtasunagatik» eta «are geiago: gogoan izanik euskerak gure artean dituen oztopoak», garbi uzten du euskara erabiltzeko, begiratzeko eta indartzeko duen obligazioa.

Hirugarren sailean ekintzak arautzen ditu. Arauok dena edo gehiena hartzen dute, baina ez dira orokortasun elkorrean gelditzen, nahiko zehatz eta ekintza konkretura lotuak bait dira.

Hitz batez, erran daiteke orientabide horiek hagitz estimagarriak direla, azalez ez-ezik baita muinez ere, garbi azaltzen dutelako euskara gure hizkuntza dela eta eliz-behar denetan erabili behar dela. Eta guk ikusi dugunez, arauak betetzen ere saiatzen dira. Halaz ere, esan behar da zenbait tokitan arauen betebeharra itxura hutsetan gelditu ohi dela, esaterako, euskal meza –bat baino gehiago denean– ordu desegokitan ipiniz edo mezetako euskara guzia bizpahiru abestitara murriztuz.

<sup>11</sup> SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M.: «El marco sociológico y espacial de una situación bilingüe», *La problemática del bilingüismo en el estado español*, Bilbao, 1980, 31. or.

<sup>12</sup> Abaurrea, Mezkiritz, Garaioa, Zilbeti, Orbara, Auritzen eta bertze batzutan. Ikus: *Euskal-Esnalea* XIX (1929) 52-53. or. eta 94-95.

<sup>13</sup> SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M.: *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)* Pamplona, 1972, 207 or.

<sup>14</sup> Ikus: *Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela*, n.º 9, año 117, 15 de Septiembre 1974.

Akitu dezagun behingoan. Badugu itxaropenik Nafarroako egoera berrian. Ezer eskatzekotan, eskatu beharrik ere ez dagoen zerbait eskatuko nuke: Forua Hobeagotzeko 9. artikulua hori, lehen erran bezala, aldatzea, eta sarri egingo den Euskararen Lege Forala ikuspegi hobereenez egitea; eta, horrez gain, euskararen arazoa agintari orok berea bezala izatea, izan ere horrela bait da.

Euskarak irrist egiten digu eskuetatik, eta mingarriegia da herri eta bailadetatik etengabe lekutzen ari dela ikustea. Bihotz haundi eta zahar bat hiltzen ari zaigu gure baitan eta horregatik onartezina egiten zaigu honelakoak entzutea: «Mendebalak bere altxorrik ederrena galduko luke euskara galduko balu». Guri Mendebalak axola gutti, gu eta gure herria hatsik gabe gelditzeko arriskutan dagoanean. Denok saia gaitzen, eta aterako dugu aintzinerara.

**Iruñea, 1984-IX-26**



## CAMPIONEN «GRAMATICA» ETA BESTE

Koldo Mitxelena

Campionen hizkuntzalaritza lanez mintzatu behar badut hemen, beharrezkoa izango dut noraezean Campionez beraz ere zerbait esatea.

Jendea hasia dugu don Arturoz mintzatzen eta ordu ere bazen: zenbait lan irakurri ditut behintzat han eta hemen. Badirudi, nolana ere, ez dela oraindik aski den adina esan Campionez beraz. Pertsona baino giroa eta ingurunea gogokoago izan ditzake norbaitek. Ni, berriz, bestetara ninderaman haizeak: ezagutu nahi nukeen eta behar litzatekeen neurrian ezagutzen ez dudana (gehientsuok ez dugun?) pertsonagana.

Campionen bizitza nolazpait itxuratu behar baldin banu, zaharragoak eta berriagoak bereziko nituzke. Ez noski bata, lehen aldia, bestea ez bezalakoa delako guztiz, baizik eta bata eta bestearen artean halako giro-aldatzea, tenperatura aldetik batez ere, nabari uste dudalako. Borroka bideak (eta *cat' exochen* borrokabide den politika) saiesten ditu eta alderantziz gero eta emanago agertzen zaigu abia-abiatik hain gogoko zituen ikerlanei. Gradu kontuan gabilta, berriz ere diot, eta ezta inola ere bai-ala-ezko arazoa.

Hogeitabi urte zituen 1876an, ebakondoz hain beterik utzi gintuen gerraren azkenean. Nondinahi hartzen ditugun horren ondorioak, ez ziren inolaz ere hemengo jende asko eta askoren buru-bihotzak asebetetzeko modukoak izan. Ezta Campionenak ere. Horrelako lehia urrikigabeen ondoren, askok, ez zenbaitek, pentsatu ohi du bide okerretik, malkarrik malkar, ibiliak garela eta, egin direnen kalteak eta hutsaldeak ageri direnez gero, erraz genukeela bestelako kamioren batetik, lehenagoko kutsurik ez duenetik, abiatzea. Uste horiek, ordea, gainerako usteen pare, ustela dute erdia.

Karlista-liberalen arteko gerra aski alferrikakoa, noragabea, iruditzen zitzaion Campioni, Nafarroari (eta Nafarroa ez da nafarren bilduma baizik: lehengo eta oraingo nafarrena, etorkizun direnak bestalde) eta Campionentzat eta besterentzat Nafarroaren sorkari eta eraskin baizik ez zen gainerako Euskal herriari ez zion deus eskaini, kaltea baizik. Lehengo ustebideak ahitu ondoan, berriak behar ziren bilatu. Eta hori ez zitzaion neke gure gizonari amaituberria zen gerratean ez zelako gehiegi lotu, bihotzez eta asmoz ez behinik-behin, ez batzuen ez besteen alderdiari.

Borroka bukatu bezain sarri, beraz (eta amets hau berau egin du geroko zenbait amesgilek), deseginak ageri ziren behaztopabide zitezkeenak; prest, berriz, orubeak nahi-eta-ezko genituenak eraikitzeko. Esan beharrik ez amets hori aurki aienatu zitzaiea. Lehengo lepotik zuten burua lehengo alderdiek eta ez zebiltzan bereganatua zuten eremua inori uztekotan. Lehen, egia esan, gobernubideak erabat aldatzeaz eta mantentzeaz ari ziren ardailan; gero, berriz, kargutxoak eta boto-mordoxkak gordetzeaz. Hitzak hitz, ordea, ez zen funtsean deus aldatu. Ondorio horien zain mingotsaren irudia jaso nahi duenak ez du, urrutira gabe, gurearen *Blancos y negros* irakurri besterik. Gogoan duelarik, gainera, *gure* orduko literatura ez dela soil-soilik euskal literatura, baizik eta horretaz gainera gurean sortzen den erdarazkoa. Navarro Villosladaren gerrate ondoko *Amaya* (1876), esate baterako, ez zuen Campionek, hain gurea zelarik, baztertu. Ikus, bestela, honek *Revista Euskara*-n egin zion kritika edo, hobeki esan, aditzera ematea. Eskumenean dugu orain Otatzu jaunari eskerrak.

Nafarroari zinetan eta benetan zegokion joera, besterenganako grinena mirabe ez zena, nahi zuen Campionek, eta honekin batean beste batzuek: Nafarroaren lehenaldian finkatua, honen historia sendoan oinarritua... Eta, oraindik bizi zelarik, aldi igaroan lur horietan hedatuago eta indartsuago ageri zen hizkuntzan.

Gogo-iritzi horiek ez ziren, esan den bezala, Campionenak bakarrik, ezta alderatzeko ere. Hor bazkatu ziren 'Asociación Euskara' eta *Revista Euskara* zirelakoak, Iturralde, Oloriz, Altadill, D. Irujo, E. Aranzadi, beste hainbestekin Campion bera lagun.

Zenbait urteren buruan, sugar horiek ez ziren ito, bai ordea epeldu eta are ilarandu. Euskarak, Nafarroako euskarak buruenik, ez zuen burua jasotzen, behetik beheitiago zihoan. Hortik zetorkion haragian josia beti eraman zuen arantza, gero eta barrenago, Donostiako azken orduetaraino. Politikarako isuria, berriz, eta isuri euskaltzalea, lege zaharren aldekoa nolazpait esan, indarberritu zen. Bestetan areago, ordea, Nafarroan baino, bide berriok ez zirela, gainera, Campionen arraz gogokoak. Bere usteen alde gatazka bizian ibili ondoren (ikus, esaterako, *RIEV*-en lehenbiziko urteak), berera itzuli zen eta, bere horretan, lagun eta adiskide ospatsuz inguraturik, hainbat euskal elkarteren partaide eta buru zelarik, lanean iraun zuen kemenak agortu arte, bista aurrenik.

Badakigu euskal idazle izan zela, erdal idazle ez ezik, maizago eta ugariago hasiera hartan gero baino. Beste horrenbeste egin zuten, egia esan, Etxegarai anaiak eta hauei ez zaie nabari Campionek nabarmen duen ajea. Ez baitzuen honek sekula euskarazkorik idatzi erdarazkoen aldamenen jar dakiokeenik. Erdarazkoek izan zuten beti garra eta giharra, orain (Otatzu jauna agertu arte, bederen) zokoratuxe badaude ere.

Erdarak gogorazi dit, zehar bidez, Campioni, Broussainekin batean, Euskaltzaindiak egotzi zion eginbide larria, euskararen batasunerako bide bila. Egin zuten lana, ederki egin ere, ikusteko ondoriorik gabe, haatik: inolazko ondoriorik ez zuela izan esan baitaiteke. Gogoia da, gura, uste eta asmoak maitzen eta gauzatzen dituen noski eta ez zegoen, ez orduan eta ez frankoz geroago, gogorik, gogo eragingarririk esan nahi nuke, jende samalden artean, harrak burutapen hutsalak burutzera daraman horietakorik. Entzun berria diot Charritton jaunari Broussain azkarrago izan zela eta bere laguna nagiago egiteko horretan, Lacomberengandik datozen gutun agertu berriek adierazten omen dutenez. Horrela bide da, izan, baina ez dakit bietarik inork, ez bata ez besteak, xede-helburuak hurbil eta eskuragai ikusten ote zituen. Ezetz nioke nik.

Buruia eta eskuak erabiliak zituen gazte-gaztetandik herriari dihoazkion arazoetan, gerra amaitu baino lehenagotik, hain zuzen. Eta Bonapartek sorrerazi ez zion grina hori ez zitzaion sekula ihartu, urritzen eta bakantzen joan bazitzaion ere, bizi eta herioaren legez. Euskal bideak, ordea, Printzeaganik jaso zituen, batipat, eta euskalkietarako isuria lehenbizi, *Orreaga*-rekin, 1880. Mintzabeharra ere berekin zekarren, ordea, eta ez huts-hutsik besteri jaulkia jasotzekoa. Horrexegatik beragatik ez zaio noski iraingarri irudituko inori, berri ere badiot Nafarroako euskal erakusgarri horien iturburu txukun eta txarri (erdaraz ez ote, gainera?) idatzi nahiak ondorioak ahuldu eta indargabetu zituela. Galduan irten zen euskalkien ezaguera eta ez genuen, galera horren truk, Altabizkarko kantuaeren kimu berri bat, Hiribarrenenaren ondoan, irabazi baizik egin.

\* \* \*

Besterik mintzatu da hemen *Gramática*-z eta ez nuke zaharrak berritzen abiatu nahi. Obra hori ere, nolazpait, Bonapartegandik dator, baina Campionek eginak ezina zirudien Printzearentzat. Honek, izan ere, bildu eta metatuko zizkizuen hango eta hemengo aberastasunak, baita bata bestearen hurren ipini ere argi eta garbi. Elkarretaratze huts hori baino goragoko lotura eta joskera ematea gaitz zitzaion haatik, Schuchardt-ek gero esango zuenez. Prest zeukan lana (harriak, adriluak, karea eta zurajea baturik daudenean etxea prest dauden modutsuan) ondorengo leialak burutu zion. Bai iaio burutu ere.

Badakit oraindik orain don Manuel Lekuonak goraiatu duela liburu hori, ikas – eta irakasbide izan zuen aldetik, baina ez naiz gauza igertzeko norainoko eragin eta ondorioa izan zuen. Askok irakurri dugu —ikuskatu behintzat, bai—, lehenago edo beranduago, baita erosi ere, egokierak eskura badigu. Ez dirudi, orratik, maizegi erabili dugunik, aipatzea baita erabili izanaren seinalerik nabarmenena, eta aski urriak dira *Gramatika*-z aurki daitezkeen izena baino urrunagoko aipamenak. Horrela iruditzen zait behintzat niri.

Euskal etxeko borroken kondairak ez digu argitasun larrikeria eskainiko Campionen erabateko iritziez, hizkuntzalaritzari dagokionez. Zaharrago zen

Bonaparte, 1813an jaioa, ez zen beti ongi moldatu gazteago zituen van Eys (1825) eta Vinson-ekin (1843), ezta hauek ere harekin. Etsai van Eys izan zuen batipat, beldurgarri itxurako etsai, sinesgaitz badirudi ere orain. Gure egunotan, izan ere, ez baitzaizkigu ez van Eys ez honen Gramatika-Hiztegiak halako erraldoi itxuran agertzen.

Ez dago esan beharrik Bonaparteren borroka-lagun sutsu izan zela gure nafarra, maizenik guttieneko kontuan. Ez dut inolaz ere esango, gainera, okerbidetik ibili zela horrela jokatzean. Argitasun pila bildurik hartu zuen Printzearengandik eta, gehiago axola zaiguna, azterbideak ere ikasi zituen honengandik bilduak ugaritzeko: ikasi ez ezik, gure arteko besteri irakatsi ere bai. Bonapartek, haatik, zenbait aburu eta uste ere, hainbeste argibideren aldameanean, eman zion bere irakasleari. Orotariko eta erabateko iritziak, esan nahi dut, horrelakorik gabe (estari nahiz nabari) ez baita azterlanik xumeena ere egiteko modurik. Bonapartek berak ere, bada, zein ere teorizekena zen, ezin-itzurizko zorra kitatu zuen, noiz edo noiz.

Lacomberi esker, badakigu ze oinarrizko (horrela baderiztegu) liburu eskaini zizkion Bonapartek Campioni hizkuntzalaritza orokorrerako edo. Louis Benloew, *Aperçu général de la science comparative des langues pour servir d'introduction à un traité comparé des langues indo-européennes*, Paris 1858 (lehenbiziko argitaraldi hau da, hain zuzen, *Gramática*-ren obra-zerrendan, Ixix hh., ageri dena; ez bigarrena), eta Hovelacque-ren *La linguistique*. Azkeneko hau adiskidea ez dakit, baina Vinson-en laguna zen, batez ere *Revue de Linguistique et de philologie comparée* hartan. Benloew-en liburua, Printzeak dioenez, «ne me paraît pas trop mauvais». Nekez pila dezakegu egungo egunean iritzia iritziaren gain, Benloew-en izena, omena ez ezik, aspaldi suntsitu baitzen, esateko moduan.

Delako zerrendan ikus dezakegu Campionek ikusiak zituela Bopp eta Diez-en liburu sonatuak: *frantsesera itzuliak*. Whitneyrena ere, frantsesez *La vie du langage*, arima erratu bihurturik bizi zenean baino ospatsuago duguna (badakizue zergatik), lista horretan aurki dezakegu.

Itzulpenak hartu ditut ahotan Bonapartek 1881ean, aldatu berria dugun kontseiluarekin batean, esaten zizkion hitz hauek direla bide: «Vous me demandez des renseignements sur des ouvrages écrits en français sur la linguistique en général. Eh bien, je vous étonnerai sans doute en vous disant que nous ne possédons rien qui puisse se comparer aux ouvrages des Allemands et même, selon moi, des Anglais, qui, eux aussi, ne possèdent rien de plus que les Allemands.» Lerro hauek, jakina (aski da urteari begiratzea), Londrestik datoz.

Dena den, Campionek ez zituen itzulpenetan baizik ezagutu artean alemanen lanak. Eta itzulpenetan ere, berandu. Ez dirudi Schleicher irakurri zuenik: Sayce ingelesa, bai, behar bada. Eta 'gramatiko berri' edo 'gazte' zirelakoek *the wonderful seventies* haietan zabaldu zituzten bideak ez zituen begitatu.

Bi pasarte atera nahi nituzke hemen, Campionen lehenbizi hartako eta ge-



roko ideiak azaltzeko. Ez dakit ongi ze ondorio atera dezakegun iturburu horietarik: dena den, ez zaigu behintzat kaltegarri gertatuko bata bestearekin erkatzea, argi-izpiren bat sor daitekeelakoan. Erdaraz utzi ditut, ez baitut este nigandik datorren euskara don Arturoren erdararen pareko izango denik.

Lehen puntua *Gramática*-tik dator, 11 hh.: Lubbock-en *L'homme préhistorique* aipatuaz:

«El progreso de un lenguaje está íntima y esencialmente ligado al desarrollo intelectual del pueblo que lo habla. Las lenguas de las razas más inferiores no contienen palabras que indiquen idea alguna abstracta y genérica. Las tribus australianas [Australiakorik eta batez ere *aboriginal* direlakoetarik aurrean ez dugulakoan ari naiz], que pueden considerarse como las más salvajes del globo, en los idiomas que usan, carecen de términos para indicar ideas de aquellas clases como *árbol, pez, pájaro*, etc., y únicamente poseen términos específicos aplicados a cada variedad particular; son incapaces de contar más arriba de cinco, y la palabra que expresa este último número representa en su espíritu la idea de muchos objetos, como entre nosotros los vocablos cien ó mil.»

Badirudi, nolanahi ere, gu *hamaika*-n gelditu garela Cantor-en kontagai diren azkengabeak aditzera emateko. Nork esan behar ziokeen Campioni horixe berori egotziko ziotela luzaro gabe euskarari, *arbola* (*zuhaitza, zuhamua, aretxa, errexala*, etc.) zela eta, don Miguel de Unamuno argiak eta Verdes Montenegro hagitz ilunak.

«Pero á medida que progresa la inteligencia del pueblo y se ejercitan con lentos y continuados trabajos las funciones de generalización y abstracción [baina hori, Aristotele eta San Tomas lekuko, *noûs poiêtikós* edo *intellectus agens* dela medio, berezko du gizon orok], se crean vocablos nuevos que corresponden á las nuevas ideas. Cuanto más compleja se torna la organización social, más necesidad hay de aumentar su vocabulario.» Horrela, gure haurren haurrek *herriak behar zaitu* idatzi beharrean, zahar kaskailduen antzera, *herria behar zaitu* ipiniko dute atzeman berria dugun goragoko mailan. Ez ote da hor, *avant le mot*, harako *stadial'nost'* zelako 'dotrina berri' haren zantzurik?

«Acontece también que las lenguas presentan grados de parentesco unas con otras; que proceden, por derivación, unas de otras, y la clasificación científica constituye grupos con ellas, y busca su filiación, y establece, á veces conjuntamente, á veces positivamente, su generación y evolución, y consigue, no solo referirlas á un cierto tipo de organización general [tipo edo egitura modu batera, guretzat], sino también á un tronco común del cual proceden varias ramas, ó mejor dicho, á *una matriz* [lehen-hizkuntza, *Ursprache* alemanez]. Así sucede con las lenguas indo-europeas, cuyo progenitor ha sido hallado por los lingüistas merced á sapientísimos trabajos de reconstrucción, tan delicados como exactos...»

Illo beretsutik, 22 eta hh.:

«La más alta generalización á que se ha llegado en materia de taxonomía lingüística ha sido la de constituir tres grupos en que pueden entrar todas las lenguas conocidas...: lenguas monosilábicas..., lenguas aglutinantes..., lenguas de flexión. Esta clasificación es en lingüística lo que las tan conocidas de Bäuier y Cuvier en zoología, los cuales dividieron á los animales en vertebrados, moluscos y zoófitos... Cada uno de los grandes grupos lingüísticos mencionados revela una diferencia verdaderamente *orgánica* [orain, segur aski, 'estructural' litzateke], y según el común sentir de los lingüistas contemporáneos, el tercer grupo procede de los anteriores por evolución, debiéndose indudablemente este punto de vista á la influencia avasalladora que ejercen actualmente las teorías transformistas de Goethe, Lamarck, Darwin y Haeckel, muy en boga en la actualidad, tanto que por todas partes rompen las fronteras de las ciencias naturales. Sin embargo, en estos últimos tiempos se ha iniciado una reacción notable contra los principios de la escuela lingüístico-naturalista representada por Bopp, Grimm, Schleicher, Hovelacque, cuyas teorías a pesar del tinte eminentemente positivo de que quieren revestirlas sus adeptos, son en más de una ocasión completamente arbitrarias».

Kontrako ikuspuntu hau, dirudienez, Saycegan aurkitu zuen. Nik, aurrera gabe, puntu bat markatu nahi nuke. Etsaiak sortu zaizkion eskola «escuela lingüístico-naturalista» deritza hemen; ez «naturalista» eta kito. Horrela bada, nahiz Campion ez den sekula Darwin eta kideen iritzien alde agertzen (Goethe gaizki sartu du andana horretan, honen *Urpflanze*-ak ez baitzuen zer ikusirik ezta geroko *Ursprache* umilarekin ere), ezta ere mintzatzan bizidunen arteko «sortze eta bilakaera»-ren aurka. Alde ez bazegoen (bere sailetik kanpora ari zen, nolnahi ere), ez zuen gure artean irakur daitezkeen itxuragabekerien antzekorik idatzi.

Hona bat, etimologiari eta Arratia eta Agarre'tar Jon Mikaili, *Euskadi* 10, 1913, 34, zor dioguna, *areitz*-en sorrerarekin borroka bizian: «¿Sería completamente improbable suponer que el vasko en alguna época de su historia se alimentara de la fruta de este árbol? Sería verdaderamente sugestiva una tal etimología para un defensor del estado salvaje del hombre primitivo [egoera horri ere ez dio muzin egiten Campionek, ikusi dugunez]. Mas no para nosotros que en el salvajismo descubrimos indicios claros de degeneración, y damos fe incontrastable a documentos divinamente auténticos que nos vedan tales aberraciones.»

Gogoko zuen (edo, guttienez, sekula baztertu ez zuen) sailkatze modu horretarik ez zuen, ezin zezakeen, ondorio larririk atera euskarari buruz. Ik. 25. orr. Hizkuntzarik gehienak bezala euskara «pertenece al grupo de las lenguas aglutinantes; esto no ofrece duda alguna y es por todos los lingüistas reconocido; pero en cambio las dudas aparecen en cuanto se trata de designar puesto al euskara dentro del grupo ya nombrado... me contentaré con expresar la opinión que me parece más fundada, y es la que coloca al euskara, dentro de la clasificación general de las lenguas aglutinantes, entre las lenguas uraloaltaicas y las americanas.»

Eman dion kokalekua zabal baino zabalagoa da, ikusi duzue: Amerikan bada guztitakorik. Ez dio ezer, bestalde, ahaidetasunaren aldetik. Kaukasoko bazterrak ez ditu aipatzen, nahiz eta Fitaren *El Gerundense y la Española primitiva* 1879koa izan. Orduko 'iberikoa' ere ez du ukitzen. Hübner-en *Monumenta*, egia da, ez dira 1893 arte irtengo.

\* \* \*

Urteen buruan, luzaroan ikasi eta aztertu ondoan, iritziak aldatu zituen, ez bide gehiegi. 1931ean agertu zen, lehenago prest bazegoen ere, *Origenes del pueblo euskaldún* (*Euskariana* 10.<sup>a</sup> serie), 2-3, 3<sup>a</sup> parte, *Testimonios de la lingüística* vol. 1. Sailkatze lanari ekiten dio hemen ere, 106 hh:

«Los lingüistas de antaño clasificaron a las lenguas mirando a una forma o tipo que estimaron fundamental y característico, y crearon tres grupos: el de las lenguas monosilábicas, el de las aglutinantes y el de las de flexión; los de hogaño, impresionados por las imperfecciones, inconvenientes e inexactitudes de dicho encasillamiento taxonómico, le repudiaron sañudamente y buscaron el modo de sustituirle. Según Mr. Meillet, uno de los corifeos franceses de las nuevas teorías, la única clasificación lingüística que goza de valor y utilidad es la clasificación genealógica, fundada en la historia de las lenguas; pero esta clasificación sólo explica la sucesión de las lenguas y de los dialectos diferentes. Mr. Meillet viene a confesarlo...; una *familia* de lenguas es el conjunto de hablas más o menos diferenciadas entre las que continúan una misma lengua común... En puridad, estimo yo que el nuevo método viene a expresar determinaciones geográficas; no pasa de ahí. Pero teóricamente considerado, y salvas sus imperfecciones, es superior al fundado exclusivamente sobre los datos de la geografía... algo semejante llevan a cabo los actuales lingüistas, que renuncian a las clasificaciones orgánicas en vez de mejorarlas o sustituirlas ventajosamente. De no haber clasificación mejor, se habrá de confesar antes que en la Lingüística no existe verdadera materia susceptible de conocerse científicamente.»

Jakitearen aurrerakuntzak, lasai zeudenak lotuaz, ez zuen, bistan da, Campionen gose-egarria apaltzen: biztu egiten zuen, izatekotan ere. Brugmann-ek edo Meillet-ek hautetsi zuten bidea, izaerari baino bilakaerari itsatsiagoa, ez zen zenbait berrizalaren apeta burugabea: jadanik hartua zuten biologoek eta ez dute utzi geroztik hona. Bakar-bakarrik, ezin uka arrazoi honen indarra Campionen pentsabideak ulertu nahi baditugu, biologia askotaz ere urrutiago, aspaldirantzago, heda daiteke hizkuntzalaritza baino. Hizkuntzek, idazkerari hain lotuak daudelarik, opa dizkiguten mugak ez dira behar genituzkeen bezain zabalak. Eta nekez aurkituko dugu hizkuntzetan, bizidunen artean bezala, denboraren zedarriak atzeraziko dituen aztarnarik.

Hizkuntzetan geureari gagozkiola, gainera, euskararen zurztasunak, ahaidetik ezak, irtenbideak moztzen zizkion Campioni eta moztzen dizkigu geuri, ez

baitugu aurkitzen lekurik horrentzat sailkatze modu honen bitartez. Ezin lor dezakeguna lor lezakegu, behar bada, ez dakigun zerbait gertatuko balitzaigu. Nolanahi ere, hobeko dugu egona ezinegona baino, ustekabekoen begira gaudeino.

Esan beharra dago, azkenera gabe, ez zuela sekula Campionek historia ahazturik eduki, aurre-historia ez ezik. *Gramática*-n, 13. orrialdeko oharrean, aipatzen digu bidenabar nolako fruitua atera zuen aspaldisko Mommsen-ek hizkuntzaren emaitzetarik Erromako Historiaren lehen tomoan. Eta *Origenesen*, 129 hh., saiatu zen bere kabuz bai hizkuntzaz baliatzen bestetarako (ik. «El baskuenze, instrumento de la llamada paleontología lingüística»), bai hizkuntzaren historia lantzeko lekuko zahar eta aski atzenduak zein genituen erakusten. Eske hori entzun zuen beste inork baino biziroago agian eta, eskeak eraturik, azterbideak agirian utzi zituen. Ondorengo lana ez zegokion berari.

Daramadan ildotik itzuri, beste zerbait, inork eskatu ez didana, ukituko dut bukatzeko. Campion idazleaz, idazleaz *ut sic* Larramendik ziokenez, ez da inor gehiegi mintzatzen; han-hemenka entzun dut, gainera, hantua, puztua zela haren idazkera. Ez zuten horrela uste bere garaiko eta gerotsuko batzuek, hala nola don Boni Etxegaraik, aski zirikatzaile jaulki zitzaion *La Bella Easo*-ren berrian, *RIEV* 3, 1909, 532-537: «El nombre de don Arturo Campión es el más prestigioso de cuantos hoy cultivan las letras en el país vasco-navarro.»

Gordinegia aurkitzen du, halaz guztiz: «Un reparo hemos de oponer á *La Bella Easo* y es el excesivo uso que su autor hace de ciertos procedimientos naturalistas, que si fueron discutibles siempre, hoy están desacreditados y pasados de moda.» Beraz, beheraka zihoan 'naturalismoa' Etxegarairen ustez, hizkuntzalaritzan Campionen ustez zihoan bezalaxe. Ez zait iruditzen, ordea, okerreko bidetik zebilenik kritika, joera hori arras nabari baita Campionen elaberri eta kondairetan erabat. Gure arteko guttiren gan adina, eta ez naiz euskal idazleaz ari.

Horren aldamenean, beste ixuri garbia ageri duela, goitarragoa, epika kutsukoa, antzineteari lotzen zaionean: niri, zuzen nahiz oker, Hebbel gogorazten dit elkar-hizketan hasten denean. Baita Flaubert ere, eta ez *Madame Bovary*-koa.

Hau ongi irakurria zuen, noski, eta behin bederen badirudi nolazpaiteko lotura aurki daitekeela bataren eta bestearen artean. *Sancho Garcés* berriz irakurri dudanean *Salambô*-ren VII. kapitulua etorri zait gogora. Kapitulu horren pasarte bat, hobeki esan: Hamilkarri semeak arranoa garaitu duen borroka kontatzen dion hura.

# HITZEN ORDENA ERABAKITZEKO FAKTOREAK

Suzuko Tamura

## 0. Sarrera

Orain bost urte, euskara ikasten hasi nintzenean, ez nekien ezer hizkuntza honetaz, hitzik ere ez. Hitzen ordenari dagokionez, hona etorri aurretik, Japonian, ipuin eredu bat irakurria nuen, Mitxelenak idatzi eta Shimomiyak japonieratua (Izui 1972), baina ez nuen erregularik ikusi. Nahaste borrhatea iruditu zitzaidan euskarazko hitzen ordena.

Euskal Herrian, eguneroko bizitzan euskara entzun eta hitzeginez ikasten ari nintzen bitartean, konturatuz nindoan, hizkuntza honek gure japoniera eta ekialdeko beste hizkuntza askoren antzeko egitura duela, eta askotan japoniera bezalako hitzen ordena gertatzen dela, gainera; eta japoniera idatzian baino lagun arteko elkarrizketa informalean gertatzen diren hitzen ordenen antzekoak, ikusten direla euskaran. Orduan, zera esan beharko da: euskaran eta japonieran (eta ainueran, koreanoan,...) gertatzen diren hitzen ordena hauek hizkuntza-unibertsalarekin zerikusia izan behar dutela.

Lagun artean, hizketa errepikatu, probatu, batez ere hitzen ordenak probatu, lagunek zuzendu,... eta horrela nenbilenean, piskanaka piskanaka sortu zitzaidan «hizkuntza-zentzua», eta oinarrizko ordena eta kasu konkretuetan lan egiten duten ordena-aldaketa erregelak gero eta garbiago bereiztera zihoa-zen nire baitan.

Gai honi buruz, 1980.eko Abenduan eta hurrengo Urtarrilean Japoniako Waseda Unibertsitatean hitz egin nuen. Gero, lehenengo zatia japonieraz azaldu nuen bertako aldizkarian, eta bigarren zatiaren laburpena ere bai (Tamura 1981, 1983).

Hizketa konkretu batetan hitzen ordena konkretua sortzeko, hiru mailatako faktore daude:

- I Oinarrizko ordena
- II Egitura mailako ordena aldaketa: Egiturak sortzen duena
- III Estilistika mailako ordena aldaketa: hiztunaren asmo estilistikoak sortzen duena.

Noda-k (1982), gaztelania eta japonieraren arteko gonbaraketa kontrastibo bat eginda, lehena «egitura faktorea» deitzen du eta hirugarrena «informazio faktorea». Bigarrena ez du aipatzen berak.

Gaurko honetan, estilistika mailako ordena aldaketari (§3) zuzenduz, japoniera eta Asiako beste hizkuntza askotan ikusten diren antzeko ordena aldaketekin gonbaraketa batzu egin nahi ditut.

### *Informatzaileak:*

Lan honetan aipatzen diren adibide perpaus gehienak, honako hauek eginak dira: jaiotzez bizkaierazko hiztunak eta nirekin batuaz hitz egiten dutenak. Haietariko bi zehatzago aipatuko ditut:

- (1) Gotzone Elu Elu: Ondarrutarra, emakumezkoa, 29-33 urtekoa, euskal irakasle
- (2) Josu Barrena Idigoras: Antzuolatarra, gizonezkoa, 23-27 urtekoa, euskal irakasle

Beste euskalkien hiztunak emandako adibideetan, oharra jarriko dut.

Hala ere, lan honetan aipatzen ditudan ordena aldaketari buruz dauden erregelari dagokienez, bizkaieraz ez ezik beste euskalkietan ere berdin berdin gertatzen dira, nahiz eta puntu txiki batzutan ezberdintasunak izan (Zuberoko euskalkiaz ezin dut hitz egin, ez baitut ezagutzen).

## 1. Oinarritzko ordena

### 1.1. Oinarritzko perpaus moldeak

Ondoko bost perpaus molde oinarrian. Holaxe da oinarritzko ordena, eta hau da, nire ustez, ordena ezmarkatua.

- |           |          |            |                           |       |        |
|-----------|----------|------------|---------------------------|-------|--------|
| (1) NP    | _____    | VP         | NP                        | _____ | VP     |
Azkenik, eskerrak eman nahi nizkieke kongreso honetara gonbidatu nauen Euskaltzaindiari eta euskara ikasten lagundu nauten irakasle, adiskide eta informatzaileei. Batez ere izen batzu azaltzea beharrezkoa da: nire irakasle eta zuzendari J.M. Satrustegi jauna, Endrike Knör, Patxi Goenaga eta Koldo Aldalur. Haien laguntza gabe, ezin izango nukeen lan hau bukatu.

### Bibliografia (aipatutako lanak)

- AKESOLO, Lino, «Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste», *EUSKERA*, XXV-2, 1980.
- ALTUBE, Sebero, *Erderismos*, Bermeo, 1929<sup>1</sup> Bilbao, 1975.<sup>2</sup>
- AREJITA, Adolfo, *Euskal Joskera*, Durango, 1980.  
—, «Aditzaren galdegaitasunaz», *EUSKERA*, XXV-2, 1980.
- DONZEAUD, Françoise, «The expression of focus in Basque», *Anuario del Seminario de filología vasca «Julio Urquijo»*, VI, 1972.
- GOENAGA, Patxi, *Gramatika bideetan*, Donostia, 1978,<sup>1</sup> 1980.<sup>2</sup>
- HOTTA, Satoshiro, «Basukugo no tambun ni okeru gojun no buntaiteki kachi ni tsuite (Hitzen ordenaren balio estilistikoa euskarazko perpaus bakanen)», *Joosai Jimbun Kenkyuu*, 2, Joosai Univ., 1975.  
Irakasle talde batek, *EUSKALDUNTZEN*, 3, Bilbao, 1973.
- IRIGOYEN, Alfonso, «Sebero Altuberen Galdegaitasunaz», *EUSKERA*, XXV-2, 1980.
- IZUI, Hisanosuke, *Sekai no gengo (Munduko hizkuntzak)*, Tokyo, 1972.
- MITXELENA, K, «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Univ. de Deusto, 1981.
- NODA, Hisashi, «Goju no genri (Hitzen ordenaren printzipioa)», Japoniako Linguistika Kongresoan egindako komunikazioaren laburpena, *GENGO KENKYUU Journal of The linguistic Society of Japan*, 82, 1982.
- DE RIJK, Rudolf P. G., «Is Basque an S.O.V language?», in *Fontes Linguae Vasconum*, 3, 1969.  
—, «Relative Clauses in Basque: a guided tour», *The Chicago which hunt*, Chicago, 1972.  
—, «Topic fronting, focus positioning and the nature of the verb phrase in Basque», Frank Jensen (ed.), *Studies in fronting*, Lisse, 1978.
- TAMURA, Suzuko, «Report of The Study Group on Northern Languages and Cultures», 7, *Bulletin of The Institute of Language Teaching, Waseda University*, 23, 1981.

«Basukugo no gojun ni tsuite (Word order in Basque, Hitzen ordena euskaraz), 1», *Bulletin of The Institute of Language Teaching, Waseda University*, 26, 1983.

TXILLARDEGI, *Euskal gramatika*, San Sebastián, 1978.

WILBUR, Terence H., «Basque syntax», *IKER*, 1, Bilbao, 1981.



## BEHAKO BAT EZEZKO ESALDIERI

B. Oyharçabal

0. Nahiz ez den izan orain artino, nik dakidala bederen, ikerketa berezirik euskarazko ezezko esaldiez, gai honen ikertzen hasteko tenorean, ez gara hutsetik abiatzen. Euskal joskera funskienik aztertzen duten lanetan alabaina, oinarri sendoa aurkitzen baitugu gisa horretako ikerketa baten bidean emateko. Bi gramatikolari bereziki aipatu behar direla uste dut, S. Altube lehenik, euskal joskeraren ikertzaile trebea, eta P. Lafitte bigarrenekorik, gramatika gauzetan hoinbeste zor diogun euskaltzalea.

Bada, euskarazko ezezko esaldieri behako bat eman aurretik, bi gramatikolari horiek gai horretaz zer dioten hurbiletik ikustea eta oroitaraztea, beharrezko eginbidea iruditzen zait.

### 0.1. *Altuberen azterketa*

Altubek, egia erran, ez zien ezezko esaldieri toki handirik eskaini. *Erderismos* deitu bere idazlan famatuan, hitz ordenaren arazoa, eta honetan galdegaiak duen garrantzia, ikertu duenean, kasik beti baiezko esaldien arabera ari izana da, ezezkoen kasua, aparteko atal batetan baizik aipu ez zuelarik, galdegaia eztasunean gorputzen den egoera aurkeztean, hain zuzen ere.

Gisa zen harentzat gauzak hola gerta zitezen. Haren ustez, ezezko perpausetan ezetza bera izaten baita arduenik galdegaia. Hona zer dioskun: «Las oraciones en cuya flexión verbal va prefijado el negativo *ez*, presentan casi siempre como elemento inquirido, ese morfema *ez*, o sea la cualidad negativa del verbo».

Altuberentzat, beraz, gutiz gehienetan, ezetza beste elementu guztieri nagusitzen zaie ezezko perpausetan galdegai izateko, irudi bailuke, haren aburuz, esaldi horietan aditza bera edo beste sintagma bat ez daitezkeela biziki nekez baizik galdegai izan, eta gertatzen bada biziki bakan egiten dela. Azken egoera hau aipatzen duenean hauxe dio; «Sin embargo acontece a veces (aunque muy excepcionalmente) que sobre esa clase de flexiones negativas ostenta claramente su carácter inquirido un miembro nominal (...), estas frases se distinguen

por el acento que recae en la primera sílaba de la flexión cuando ésta es bisilábica (*éztá*) y, en la segunda, cuando contiene tres o más sílabas (*eztáuko*, *eztáukagu*).»

Ikusten dugunaz, Altubek ez du arras baztertzen, ezezkoetan negazioaz beste elementu bat galdegai izateko posibilitatea, orduan, hitz ordena gabe, akzentua omen delarik egoera horren adierazlea. Adibide gisa (1) eta (2) ematen dizkigu:

- (1) *Zergatik eztatoz?*
- (2) *Dirurik ezdaukalako eztatoz.*

Derragun oraino, Altubek ohartarazi nahi digularik adizkera lagunduekin jazoten diren zenbait eraikiduraz —hala nola aditz laguntzailearen eta aditz nagusiaren artean zenbait elementuren kokatzeko joeraz—, ez diola gertaera hori, galdegai markatzeari lotzen, eta azalbiderik gabe uzten duela.

## 0.2. *Lafitte-ren azterketa*

P. Lafitte-k, bere *Grammaire basque* liburu preziatuan, Altuberen emaitzak aberasten eta doi bat zuzentzen ere ditu, nahiz oinarri bera atxekitzen duen.

Oinarri bera gordetzen duela diogu, zeren baitauka hark ere, ezezko esaldietan ezetza dela galdegai nagusia, hots, haren hitzak harturik, hura dela haietan lehen baliodun hitza («le mot de première valeur»). Hain zuzen, horregatik omen zaio *ez* aurrizkia adizkera jokatuari erantzen: «Dans une proposition négative indépendante, la négation est considérée comme mot de première valeur, on la met donc immédiatement devant l'auxiliaire». Hitz adierazgarria erabiltzen du ezetzaren indar berezi horren itxuratzeko: ezetzaren abantaila («le privilège de la négation»).

Hala ere, Lafitte-k, Altubek baino argikiago ikusten baitu ezezko perpau-setan ezetzaz beste galdegairik izan daitekeela, lehen baliodun hitzaren ondoan, bigarren eta hirugarren baliodun hitzak ere aipatzen dizkigu. Hona nola bil daitekeen haren aurkezpena puntu honetaz:

- a) *Aditza (ere) delarik galdegaia.*  
Aditz nagusia, aitzinean duen aditz laguntzaileari segidan darraikio.

### (3a) *Aitak ez du aurdiki.*

Aditz nagusia indartu nahi bada, esaldiaren hastapenean ematen da.

### (3b) *Ez du ukatzen Zizeronek.*

- b) *Beste elementu bat (ere) delarik galdegaia.*

Galdegaia orduan aditz laguntzailearen eta nagusiaren artean ematen da.

Elementu bat baino gehiago agertzen direnean molde horretan, lehenbizikoa da, Lafitte-ren arauera, galdegaia.

(3c) *Aitak ez du untzia (leihotik) aurdiki.*

Galdegai hori indar berezi batez markatu nahi bada, beste itzuli bat oraino erabil daitekeela dio Lafitte-k: ez morfema atzean, aditz nagusiaren ezkerrean, ematen da, eta galdegaia aditz laguntzailearen aurrera pasatzen da.

(3d) *Aitak du leihotik ez aurdiki.*

Horra beraz, aski xeheki emanez, zer dioten Altubek eta Lafitte-k. Azterbide horietako zenbait gauzarekin guztiz akort ez izanik, badut uste gaia oraino gehiago jorratu behar den, ezezko perpausak euskaraz nola darabiltzagun hobeki ulertzeko. Horretarako bi punduz bereziki nahi nuke hemen mintzatu, biak ezezko esaldien egituren argitzeko baitezpadakoak baitzaizkit:

- ezetza eta asertzio modalitatea;
- ezetza eta galdegaia.

Ikerlan honek ipar aldeko euskalkietan bereziki hartzen du oinarri.

## 1. Ezetza eta asertzio modalitatea

Ikusi ditugun azterketetan, ezetza zer mailatako elementua den ez da ongi ageri, eta haste-hastetik, ondotik zenbait nahasketamendu sor ez dakizkigun, pundu hau ontsa finkatu behar dela uste dut.

1.1. Esaldietako beste elementuen artean, besteak ez bezalakoa dugu ezetza, asertzio modalitatea denaz gero, ez baitu zuzenean parte hartzen erlazio predikatiboan. Asertzioak, dakigun bezala, bi balio ukan ditzake: positiboa eta negatiboa (eta bien arteko konbinaketak). Bi balio horiek, ordea, gisa batez elkarren parean eman badaitezke ere, ez dira egiazki elkarren bete, bigarrena, nolabait, lehenak duen oinarriaren gainean eraikia baita.

Hiztunak, ezetza erabiliz, erlazio baten egiespena («validation» frantsesez) bere gain hartzen ez duela adierazten du, erraten balu bezala, «badiot nik, erlazio hau ez dela betetzen». Horra zergatik, komunikazio egoera berezi batzutan bestela badirudi ere, ezetzak kontrarioa adierazten duen, eta ez aurkakoa edo kontradiktorioa. Gauza bati buruz, «ez da papera» diodanean, gauza horren eta paperaren artean (hiztuna hizkuntz izaerekin aritzen dela ahanzi gabe) izan daitekeen idendifikatze edo apartenanzia erlazioa ukatzen dut besterik gabe; gauza hori zer den ez dut adierazten, eta zer ez den erratean ere, ezezkako asertzioa lekarketen azkenik gabeko posibilitateen artean, bat baizik ez dut aukeratzen.

Ongi berezi behar dira beraz, asertzioa eta erlazio predikatiboa, baitezpa-

dakoa baita esaldi batetan negazioa agertzen delarik, zer mailatakoa den eta zeri zuzen dagokion ikustea: egiten den asertzioari ala negazio baten gainean moldatu erlazio bati? Ondorio zehatzak dakartzan galdea dela ikusiko dugu geroago (ikus 2.2. eta 2.3.) Halaber ezezko esaldien egituraren ongi ulertzeko, asertzioak eta erlazio predikatiboak zer harreman mota duten argitzea beharrezkoa da. Ez dut uste alde horretarik, ezetza berez galdegai dela errateak gauzak batere argitzen dituen. Galdegaiaren inguruko jokuak, erlazio predikatiboaren izaerari eta egiturari loturik daude, ezetzak ez duelarik horretan zer egin berezirik (hots, baieztokoak ez lukeen zer eginik). Ezetza galdegai dela errateko, arrazoi nagusia, eta argumentu aipatuena, *ez* adizkera jokatuari ezkerretik lotu behar izatea da. Baina ez ote da hori asertzio markatzaileen berezko tokia? Baieztoketan, egia da, gehienetan ez da agertzen (non ez gatzakion zorroneko Øri helka hasten); agertzekotan, ordea, hor egiten da komunzki; ezetzak ez du horretan berezko pribilejiorik edo abantailarik. Ezetza galdegai dela erranez, nola esplika haren estalgunea («*champ, portée*» frantsesez, «*scope*» ingelesez) erlazio predikatuaren egiturak duela mugatzen, honen galdegaiek preseski? Kontraesan horretarik ateratzeko, azkenean, edo Lafitte-ren bidetik jo behar da, galdegaiek ordenatuz («*mots de première, seconde, troisième valeur*»), edo G. Rebuschi-k berrikitan proposatu aterabidea hartzen da, bi galdegai mota berezirik: F eta Q. Ez ote litzateke hobe, bi gauzak, izaeraz hoin desberdinak, elkarretarik berezteak?

Garbi izan bedi: ezetza, baietza bezalaxe, esaldi baten muina izan daiteke informazioaren aldetik. Maiz horrela gertatzen da, galdera osoetan eta haien ihardespentetan adibidez. Alde horretarik, galdegai —galdearen gaia— izan daiteke ezetza (berriz ere, baietza izan daitekeen neurri ber-berean). Galdegaia, ordea, ez da soilik informazio edukinaren aldetik mugatzen. Euskararen kasuan, esaldiaren egitura marka dezakeelako da bereziki garrantzi handikoa. Ikuspuntu horretarik haatik, ezetzaren eragina eta galdegaiarena, bi dira, elkarri lotuak, baina desberdinak.

1.2. Ezetzaren eragipena esaldien egiturari dagokionaz, ez datza *ez*-ezezkariaren aditz jokatuari ezkerretik eransteko joeran (focus-posizioa kontsideratzen dena, asertzio markaren berezitasuna eta bestelakotasuna bazterrean utzirik), baina errema (hemendik goiti, Azkueren omenez, irazkina) beste gisaz markatzeko joeran, hau da baieztoketan usaian aurkitzen ez dugun molde batean. Ezezkoetan alabaina, asertzio marka + aditz laguntzailea (edo trinkoa) ez ohi dira irazkinaren hondarrean agertzen, baina hastapenean. Dakigun bezala, ikusmolde transformazionalista batetan, aldaketa hori, de Rijk-ek «Aux Movement» deitzen duenaren bidez adierazia izan da (ezetzak nahiz galdegaia enfasiak sortez lezaketena de Rijk-en arauera).

Ezezkoetan ia sistematikoki azaltzen zaiguna, gutiago gertatzen da baieztoketan, eta bakanago oraindik aditz lagunduak direlarik. Hala ere zenbaitetan hola egiten dugu. Ezagunak dira literaturan horrelako esaldiak, zeinetan ezezkoetan guztiz hedatua den egitura, baieztoketan ere aurki baitaiteke (*ba-*ez*-en* ordez izanki, naski):



- (4a) *Mundu honetan badirogu batak bertzia engana* (B. Etxepare, I, 139).  
 (4b) *Oh Elcho chipia / Bahiça ausartçen / Enne desafiâtçera* (Charlemagne pastoralala).  
 (4c) *Oh ferragus urguluxia / Baçaiç ounxa doluturen* (idem).

Galduxeak ditugu holako formak ipar aldean, salbu partizipioa perfektuan delarik. Hona bi adibide (hauek ere, aitzinagikoez bezala, bai-ala-ez-kako testu-ingururik ez dute):

- (5a) *Egia erran; bazuen ainhitzeri bizia salbatua* (J-B. Etcheberry, *Han hemenka*).  
 (5b) *Orai baditiat erosiak estalgi batzu* (J. Etchepare, *Buruxkak*).

Zenbaitek ezezkoetako itzuli berezia, erlatiboki, aski berria datekeela diote. Altube adibidez eritzi horretakoa zen. Haren ustez, lehenago, ezezkoetan ere, aditz laguntzailea (edo adizkera trinkoa) esaldiaren hondarrean ematen baitzen. Zentzuzko hipotesia dirudi. Alde batetik, gisa horretako adibideak aurkitzen dira literaturan (mendebaldekoan bereziki), bestaldetik perpaus xertatu zenbaitetan eredu hori atxekitzen da (erlatiboetan oroz gainetik). Hona bi adibide Añibarroren *Escu-librua* obratik:

- (6a) *Berein aldiz jagotan deies, baña bein-berè erantzun, ta jaramon ez neutsan!*  
 (6b) *Besterik gura ezto, ta ezto bear berè.*

Funtsean, euskaraz dokumentaturikako lehen esaldia ez ote da molde horretakoa: *guc ajutu ez dugu?*

Hemen ere ohargarri da nola testu zaharretan, zenbaitetan bederen, baiezkoean ere asertzio marka agertzen den:

- (7a) *Nihaurk ere gerthuz maite bazitut* (B. Etxepare, X, 11).  
 (7b) *Nahi bada ez nizan diñe / egünko pheredikari baniz* (*Phantzart fartza*).  
 (7c) *Ene copà edanen baduçue* (Leizarraga, Mat. XX, 23).

## 2. Galdegai ezezkoetan

Badakigu zer garrantzia duen euskaran galdegaiak. Badakigu halaber, baiezko perpausetan, aditzaren aurrean ezartzen ohi dela. Ezezkoetan berriz, Lafitte-k erakutsi bezala, ez da toki berean agertzen, itxuraz bederen. Bada, nola muga daiteke galdegaiaren tokia ezezko perpausetan? Galde horri erantzuteko bi egoera aipatuko ditugu, l.l. punduan ikusi berezketaz baliatuz:


- ezetza asertzioari berari dagokiolarik;
- ezetza erlazio predikatiboan aurretik sartua delarik.

2.1. *Ezetzta asertzioari berari dagokiolarik*

Galdegaia garrantzi handikoa baldin bada euskal joskeran, ez du erran nahi esaldi guztietan indar berarekin agertzen dela. *Zer gertatzen da?* galdeari, *Jendea zinematik ateratzen da* erantzuten badiot, eta esaldi bera *Jendea non-dik ateratzen da?* galdeari ihardetsiz erraten badut, *zinematik* hitzak ez du bietan ber-indarra. Bigarren erantzunean galdegai dela ez da dudarik, lehenbizikoan, berriz, ez du irudi; elementu errematikoa edo irazkinkoia, bai, baina galdegaia, ez, azken hitz honi usaian ematen erran nahiarekin behinik behin. Beste aldetik, lehen erantzunean, *jendea* gisa batez mintzagai baldin bada, ez dut uste irazkinetik kanpo dagoen (informazioari dagokionez, elementu berria da adibidez).

Bada ezezko esaldietan ere, arazo bera sortzen zaigu. Zenbaitetan, izkiriotan bereziki, ez da ikusten galdegairik badenetz. Beste batzutan, aldiz, ongi ezagun da badela, galde bati erantzutean, irazkinean elementu bat baizik ez denean, edo koordinazio edo kontraste bat denean. Halaber, alde batetik mintzagai den sintagma bat, irazkinean ere egon daiteke.

Altubek baiezko esaldientzat proposatu eredia onartzen badugu, (8) bezalako egitura molda daiteke euskal esaldiarentzat. Ez ikus horretan sakoneko egiturarik, ez eta ezetzta transformaketa baten bidez azaldu nahi lukeen eske-marik. Kontutan har bedi halaber, ez dakiekeela (8) euskarazko esaldi guztieri aplikatu; egitura askoz abstraktoagoa behar bailitzateke horretarako. Hala ere, euskaldunek nolabait geure baitan neutro edo ez-markatua sendi dugun egitura kanonikoari dagokiola uste dut. (8)k adierazten duena hauxe da: ezezkoek eta baiezkoek elkarren egitea badutela, galdegaiaren tokiari dagokionaz bereziki, aldakuntza bakarra adizkera jokatuaren leku desberdinean ematean datzalarik.



Mintzagaia, gehienetan ez da markatua; enfasian delarik, kontraste batean adibidez (*aitzitik, aldiz*, edo holako batek jorik) aurrean izan behar du, irazkinaren ezkerrean; ikus O.

XYZ ordenatuak dira (eskuinago eta irazkinkoiago), ordena hori, gramatika funtzioen eta aditzaren arabera ematen delarik; ZYX edo XZY ordena batek zerbait adierazten du beraz hemen aipu dugun egiturarentzat.

XYZ ordena ez markatuan ere, ezkerrago joanez eta ahultzenago da, irazkinaren indarra, mintzagaiarenaren fagoretan: graduazio horretan,, anbiguo izan daiteke elementuen izaera, mintzagaia / irazkina oposaketari dagokionaz (ikus eskemako marrak, etendunak eta etengabeak).

Galdegai izaera Z-en posizioari dagokio lehenik, salbu 4ean zeinetan Z mintzagai baita. Azken egoera honetan, baiezkoetan bereziki, *egin* sartzen dute erdialde eta mendebaldeko euskalkiek.

Aditz trinkoekin eskema bera dugu oro har (aditz nagusirik gabe erran gabe doa); XYZ mintzagaiari dagozkiolarik, eta aditza elementu errematiko bakarra (ikus 4), *ba-* obligatuzki eransten zaio adizkera trinkoari; bizkaieraz bereziki, aditza errepika ere daiteke orduan; aditza mintzagai delarik ere, joku bera dugu: *Aita, aldiz, dator*

*Aita, aldiz, badator, ez dator.*

*Aita, aldiz, etorri dator*

*Aita, aldiz, etorri (ere) badator, ez dator.*

Ikus dezagun (8) adibide batetan:

Baiezkoa:

**Denbora hartan aitzitik zaharrek haurreri otoitzak erran arazten zizkieten.**

	T	X	Y	Z	A. nag.	A. lag.
Ezezkoa:						
0	/° ez zieten					
1		/ ez zieten				
2			/ ez zieten			
3				/ ez zieten		
4					/ ez zieten	
5						/ ez zieten

5 arkaikotzat jo daiteke; baiezkoen eredura igortzen gaitu.

- 0.: *\*Ez zieten denbora hartan aitzitik zaharrek haurreri otoitzik erran arazten.*  
 1.: *Denbora hartan aitzitik, ez zieten zaharrek haurreri otoitzik erran arazten.*  
 2.: *Denbora hartan aitzitik, zaharrek ez zieten haurreri otoitzik erran arazten.*  
 3.: *Denbora hartan aitzitik, zaharrek haurreri ez zieten otoitzik erran arazten.*  
 4.: *Denbora hartan aitzitik, zaharrek haurreri otoitzik ez zieten erran arazten.*  
 5.: *Denbora hartan aitzitik, zaharrek haurreri otoitzik erran arazten ez zieten.*

1 eta 2 oso hurbil dira, bai eta 2 eta 3 ere. *Zaharrek eta haurreri biziki egoera dudazkoan baitira irazkina eta mintzagaiari buruz. Uste dut mintzagai direla gehienik, lean ere bai irakurketa neutro batetan, baina asertzio morfe-ma eta aditz laguntzailea aurretik emanaz nolabait irazkinaren barnean ere sartarazten dira. Ikusmolde honetan beraz, mintzagai / irazkina oposaketa jarraipen batetan ematen da, mintzagai den elementu bat ere irazkinean sar daitekeelarik.*

Ez dut uste, bada, Lafitte-k arrazoi duen aditz laguntzailearen eta aditz nagusiaren artean elementu bat baino gehiago delarik, lehena (aditz laguntzaileari hurbilena) galdegai nagusia izaten dela dioenean. Ene eritziz, ezezko per-pausak baiezkoen ereduari darraizkio puntu horretan: eskuinago eta irazkin-koiago, galdegai izateraino. (9-12) adibideak ikusiz, joera hori ongi egiaztatzen da:

- (9) *Ez du erlisioneak guri plegatu behar, bainan guk hari (P. Larzabal, Hilla esposatu).*  
 (10) *Ez da hori xakur, bainan zakur (Larzabal, idem).*  
 (11) *Ez dut liburutto haur letratu handientzat egiten (Axular).*  
 (12) *Ez dituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat (Axular).*  
 (13) *Ez dira halakoak bere kontzientzetan mundu hunetarik segur partitzen (Axular).*

(9-13) adibideetan aditz laguntzaileari darraizkion sintagmak, baiezkoetan ere erabiltzen ohi den ordenan ditugu, eskuinean ezarriz irazkin izaera gehienik daukan elementua, galdegai ere izan daitekeena. Adibidez, (11) enfasi joku bati baitagokio, honela du segida: *Eta ez xoil, deus eztakitenentzat ere.* Halaber (10) adibidean.

Lafitte-k ordea ongi ohartarazten digu galdegaia markatua delarik, ardura, bera dela aditz laguntzailea eta nagusiaren artean. Aditz trinkoekin gauza bera dugu, aditz nagusirik ez izanik ere.

- (14) *Ez dut familia enterratzen baina errienta (P. Larzabal, Hilla esposatu).*  
 (15) *Erlisioneak ez da hilen baina bizien batasun bat (idem).*  
 (16) *Ez nukelik mintzatu behar prediku alki huntarik, bainan, han gerlan sekulakotz gelditu diren hetarik batek (idem).*

Garbi gera bedi gure azterketaren arauera galdegaiaren tokia, baiezkoen

ereduan ere aurki daitekeen hura bera dela. Aditz laguntzailea soilik da beste toki batetan agertzen. Konpara (17)ko baiezkoko eta ezezko esaldiak.

- (17) *Betiko egia, barne tzarreko jendeak onik ez duela bertzetan atxemaiten; piru oneko jende prestuak aldiz, dohain edo kalitate hoberenak bertzetan kausitzen.* (J-B Etcheberry, *Han hemenka*).

Hemen azaltzen duguna joera baizik ez da. Baiezkotan bezala intonazioa lagun, usaiako ordena hauts daiteke. Adibidez, badakigu batzutan, atributoa kopularen eskuinean ematen dela (nahiz zenbaiti ez zaion itzuli hori biziki jatorra). Bada, gauza bera gerta daiteke ezezkoetan: (*Oharra*: Larzabalen antzerki hau gipuzkeraz egin itzulpen batekin argitaratua izan baita, derradan hartan (18) «zuzendua» dela: *ez da kattu izan bear, katu zar baizik*).

- (18) *Horri ihardokitzeko ez da behar izan gattu, bainan gatu zahar* (Larzabal, idem).

Ezezkoaren marka irazkinaren aurrean emateko joera, aditzik gabeko (ezabaturikako) esaldietan ere aurkitzen dugu; ikus (19) eta (20).

- (19) – *Jende anitz bazena autobusean?*  
– *Ez dakit ori. Oinez jin niz, ez autobusez. (autobusez ez).*
- (20) – *Berant nizateke. Zer tenoretan da Pariseko trenan?*  
– *Ez eni galda, Tolosarat johan bainiz, ez Pariserat (??Pariserat ez).*

Ikusten ahal dugun bezala, elementu bat baizik ez dugularik irazkinean, hau da galdegaiaren denean, zaila da ez-en aurretik ematea. Gisa den bezala, elementu bat mintzagai delarik, nekez agertzen ahalko da ez-en eskuinean, beste elementu irazkinkoirik ez bada.

- (21) – *Aita bakantzatarat joan zaiku.*  
– *Eta ama zer?*  
– *Hura ez / Hura ez da joan (??Ez da hura joan)*

2.2. *Ezetzaren hiztunak egiten duen asertzioari berari ez dagokiolarik (erlazio predikatiboan aitzin eraikia baita)*

Orain artino ikusi adibideetan, ezetzaren asertzioari berari zegokion, asertzioak berak sortua nolabait errateko. Ez da beti horrela gertatzen. Zenbaitetan, nahiz ezetzaren agertzen den, hiztunaren asertzioa ez da egiazko ukapena, baina ezezko erlazio baten gainean (lehenagotik eraikia) funtsatzen den asertzio positiboa. Ikus ditzagun (22-24) adibideak.

- (22) – *Nor ez da oraino etorri?*  
– *Aita ez da oraino etorri.*

(23) – *Nori ez zaio gertatu?*  
– *Eni ez zait gertatu.*

(24) – *Nork ez daki bidea?*  
– *Nik ez dakit.*

Adibide horietan, ezezkoa ez da asertzioaren mailakoa. Asertzioak oinarri duen erlazioa ez da ukatua («invalidée» frantsesez) baina egietsia («validée»). (22) adibidean, hiztunak hauxe dio guti gora behera: «oraino etorria ez dena, aita da». Hots, «norbait bada etorri ez denik, hura aita da».

Bizkitartean (22-24) adibideetan aurkitzen diren erantzunek beste interpretaziorik ere ukan dezaketela ez da dudarik. Eman dezagun (22)rentzat:

(22') – *Zure aitaren ikusterat jina niz.*  
– *Aita ez da oraino etorri.*

(22) eta (22')n agertzen diren ihardesprenak oso diferentak direla sendi du euskaldunak, batean *aita* galdegai delakotz, bestean, berriz, mintzagai. Ipar aldean, (22-24) bezalako perpausetan, badugu itxurazko berdintasun horren hausteko bidea, galdegaia oraindik gehiago markatuz:

(22'') *Aita da oraino ez etorri.*

Gisa horretako ezetza Lafitte-k aipatzen du (cf. gorago (3d)), eta Inchauspek ere joan den mendean zubererarentzat altxatu zuen:

(23) *eni dúzü ez eman*

(24) *nik düt ez nahi*

Lehenago ikusi ezetzak (2.1. punduan, hala nola (14-17)) eta oraikoak, (22-24)koak, ez dira batere mota berekoak. Oker dabil ene ustez, bien arteko aldea indarrean finkatu nahi duena. *Ez dut nik eman*, eta *nik dut ez eman*, nahiz bietan *nik* galdegai den, nahiz biek osagai ber-berak dituzten, ez dira elkarren parekoak, eta inola ere ez daiteke erran bigarrena lehenbizikoaren forma indartua dela. Lehena, (25) bezalako testu inguru batetan erabil daiteke, bestea (26) bezalako batetan, kasu bietan trukagaitzak direlarik.

(25) – *Nolaz du haur horrek hoinbertze sos? Zuk eman dakozuia?*  
– *Ez, ez; ez dakot nik eman, bainan osabak.*  
– (*Ez, ez; \*nik dakot ez eman*).

(26) – *Zure haurra, holako hotza delarik, atorra txar batekin? Ez duia trikotarik?*  
– *Ene falta duzu horra. Nik dakot ez eman.*  
(\**Ez dakot nik eman*).

(25) eta (26) konparatuz, garbi da egitura desberdinen aurrean garelara, eta ezetzen arteko diferentzia ez datzala indar gehiago edo gutiago ukaitean.

(25) adibidean, asertzioaren mailako ukapena dugu. / ( ) haurrari sos eman/ erlazioa dugu oinarrian. Ordean, ( )ri /nik/ balioa ematen bazaio, erlazioa ez da betetzen. Xehekiago erranez, hiztunak ( ) eta /nik/en artean identifikaziorik ez dagoela asertatzen du, hots identifikatze hori ukatzen du (beste bat egietsiz, /osabak/ balioarekin).

(26) adibidean, ez dugu asertzioaren mailako ukapenik. / ( ) haurrari trikota ez eman/ dugu oinarrian, eta hiztunak /nik/ eta ( )ren arteko identifikazioa baieztatu egiten du (ez ukatzen). Bistan dena, / ( ) haurrari trikota ez eman/ erlazioa bera negazio bat barneratuz eraikirik dago; negazio hau haatik ez da asertzioaren mailakoa aitzin eraikia denaz gero (hots, bestela erranez, aurre-suposatua).

Ildo beretik, oroitaraz dezagun, *\*ez du nork eman?* ez dela euskarazko esaldia (non ez den asertzio baten ondoko oihartzuneko galdea). Galdekaria erlazio predikatiboaren elementu bat izanik, ez dezaket, erlazio hau egiets dezakeen termino baten determinatzeko galdea egin, eta denbora berean, erlazio hura uka. Galde partzialek erlazio predikatiboaren oinarria beharrezkoa dute (izan dadin positiboan edo negatiboan eraikia).

2.3. Ezagunak dira ipar aldean baiezko perpausetan erabiltzen diren forma enfatikoak, zeinetan galdegaiaren ondotik aditz laguntzailea heldu baita, aditz nagusia atzean egonik: *nik dut ikusi*. Paralelismoa bistakoa da hemen ezezkoetan aurkitzen dugun itzuliarekin: *nik dut ez ikusi*. Uste dut azterbide bera erabil daitekeen bietan. Hala ere, baiezkoetan, erlazio positiboekin ari izanez, ezezkoetan agerian ezarri dugun kontrastea, ez da berdin agertzen; ororen buru, pratikan, maiz indarrean baitatza baiezkoetan bi egituren arteko alde.

<p><b>A</b></p> <p>(27) lan hori nik egin dut</p> <p>(28) lan hori ez dut nik egin</p>		<p><b>B</b></p> <p>(27') lan hori nik dut egin</p> <p>(28') lan hori nik dut ez egin</p>
--	--	--

A eta B-ko adibideetako erlazioak, G. Rebuschi-k egin dizkidan zenbait proposamenez baliaturik, formulabide honetan bilduko nituzke:

<p><b>A</b></p> <p style="text-align: center;">=</p> <p style="text-align: center;">┌──────────┐</p> <p style="text-align: center;">/nik/      / ( ) r b/</p> <p>(27) asertzio positiboa</p>		<p><b>B</b></p> <p style="text-align: center;">=                      =</p> <p style="text-align: center;">┌──────────┐    ┌──────────┐</p> <p style="text-align: center;">/nik/    / ( )/    / ( ) r b//</p> <p>(27') asertzio positiboa</p>
--	--	---

$$\begin{array}{c} \text{ez=} \\ \text{---} \\ /nik/ \quad / ( \quad ) r b/ \end{array}$$

(28) asertio  
negatiboa

$$\begin{array}{c} = \quad \quad \quad \text{ez=} \\ \text{---} \quad \quad \quad \text{---} \\ /nik/ \quad / ( \quad ) / \quad / ( \quad ) r b// \end{array}$$

(28') asertzio  
positiboa

A-ko adibideetan, / ( ) lan egin/ erlazioa egiazta dezaketen balioen klasean bat berezten da, balio horren eta ( ) ren arteko identifikazio erlazioa asertutua delarik, (27)an positiboki, (28)an negatiboki.

B-ko adibideetan, berriz, bi asertzio positibo ditugu, bietan /nik/ eta ( ) ren arteko identifikazioa baieztatzen baita. Ordean, asertzioak oinarri duen erlazio predikatiboak beste eragiketa bat jasan du, negazioa ekarri duena (28')an. (27') adibidean honelako zerbait dugu: «norbait bada lan hori egin duena, ni naiz norbait hura», eta (28')an, «norbait bada lan hori egin ez duena, ni naiz norbait hura».

(27) eta (27')ren arteko baliokidantza ongi ulertzen da, ber-erlazioa bietan baieztatua baita. Bigarrena indar gehiagokoa izatea ere esplikatzen da, erlazioa lehenagotik eraikia izanik (asertzioaren eremutik kanpo dago) perpausaren muin semantikoa guziz *ni*-ren baitan baitatza.

Bi egituraren aurrean gaudela beste gizaz frogatzeko, zenbaitzaile orokorrez ere balia gaitzke.

Badakigu zenbaitzaile orokorrak ezezkoetan darabiltzagularik, ez dutela logika hutsean duten jokabidea.

(29) *Denak etorri dira*

(30) *Ez dira denak etorri*

Logikan (29)ren negazioa ez dagokio (30)ri. (29)k erran nahi badu, ( $\forall x$ ) ( $\text{Ex}$ ) (edozein  $x$ -entzat,  $x$  etorri da), logikaz negazioa hau genuke:  $\sim (\forall x) (\text{Ex})$  (ez da hala, edozein  $x$ -entzat,  $x$  etorri dela). (30)k, ordea, ez du hori erran nahi; (30) esanez, baitiot nolabait batzu bederen etorri direla (gehienak ere erran daiteke); hots (30) ez doa honen aurka: ( $\exists x$ ) ( $\text{Ex}$ ) ( $x$  bat bederen bada, etorri dena).

Orai ikus dezagun (31), eta konpara (30)rekin.

(31) ?? *Denak dira ez etorri.*

*Denak* ezezko asertibo batetan dugularik, hala nola baita (30), lehen aipatu erran nahia dugu: parte bat jin da, bestea ez.

*Denak* beste esaldian agertzen delarik, (ikus (31)), berriz, ezinezkoa dugu, edo arraz zaila gertatzen zaigu haren onartzea: eni bederen, biziki min handia



egiten didate (31) bezalako esaldiek. Kontextu berezi batzutan, menturaz, errazkiago onar daitezke halere: (32) *Haur guzietz dute eskola ez maite*. Gisa guztiez, onartzekotan, eta batzuk onartzen dute (32), interpretapena ez da zenbatzaile orokorrekin hizkuntzetan aurkitzen ohi duguna: (32)k ez du erran nahi *Ez dute haur guzietz eskola maite*, baina *Ez da haurrik eskola maite duenik*.

Lehen (30)etik, interpretapen hau atera daitekeela ikusi dugu:  $(\exists x)(Ex)$ . Ez, ordean, (31)etik, zeinek bestaldera baitio:-  $(\exists x)(Ex)$ , hau da,  $(\forall x)(\sim Ex)$ .

(31) gisako esaldietako asertzioak funtsez positiboak direla frogatzen digu horrek.

Horra beraz zenbait gogoeta ezezko perpauseri buruz, eta haietan galde-gaiak hartzen dituen itxurez. Bistan dena, ez dugu problemaren itzuli guztia egin, eta erabili ditugun punduetan ere, anitz errateko gelditzen da oraino. Adibidez, ez naiz segur euskalki guztiek arras jokabide bera duten beti. Bestalde, hein batetan, joerak baizik ez dira hemen agerian eman ditugunak. Eman dezagun, hitz ordena elementu garrantzizkoa baldin bada, zenbaitetan, intonazioak eta elementu suprasegmentalek lagunt gaitzakete orden eredu batetarik ateratzen. Ez da dudarik, halaber, bortxaketak ere ez direla berdin agertzen elementu guztien gainean, eta perpaus txertatuek jokabide berezia ukan deza-ketela.

Ez daiteke ahantzbestalde, ele egiteko aukera pragmatikoetan, era batez baino gehiagoz adieraz ditzakegula gauzak, eta aukera horiek oso lotuak zaizkiela ele egiten den moldeeri (elkar hizketa, hitzaldia, kondakizuna, etab...). Anitzetan, adibidez, *nik ez dut egii erraten ahalko du hiztunak. Nahiz gure lanaren arabera egitura desberdinak diratekeen bietan, pratikan, diferentzia horrek, komunikazio textu-inguru askotan ez du munta handirik. Horrek gure azterketari mugak ematen badizkie, kontutan har bedi, ez diela beren funtsa (batere funtsik baldin badute, naski) kentzen*.



# POSITIONS, CONFIGURATIONS ET CLASSES SYNTAXIQUES. ASPECTS DE LA CONSTRUCTION DE LA PHRASE SIMPLE EN BASQUE

Georges Rebuschi

1. Le but de ce travail<sup>1</sup> est de tenter d'apporter une solution à la contradiction qui oppose l'approche fonctionnelle de la phrase basque et celle que, faute de mieux, je baptiserai catégorielle. La première a bien sûr pour source *Erderismos*, mais il faut insister sur le fait qu'il ne s'agit pas, sur le plan conceptuel en tout cas, d'un effort isolé: au milieu du 19<sup>e</sup> siècle, Sámuel Brassai effectuait des travaux du même type sur le hongrois,<sup>2</sup> et depuis les années 30 de ce siècle, les travaux de l'École de Prague, repris depuis un peu partout dans le monde, ont fait progresser notre connaissance théorique des phénomènes impliqués. Faute de temps, je n'entrerai pas ici plus qu'ailleurs dans trop de détails, et résumerai cette analyse fonctionnelle (anglais *functional sentence perspective*) par la formule suivante, censée représenter l'ordre des grands constituants de la phrase, ou plutôt de l'énoncé, basque:

(1) E → (T) (F) V AUX...

[E: énoncé; T: topique (basque *mintzagaia* depuis Michelena 1981); F: focus (*galdegaia*); V: verbe; AUX: auxiliaire; les points de suspension indiquent qu'à droite de ce dernier peuvent apparaître des constituants qui, en langue standard du moins, sont neutres du point de vue de la distinction entre topique et focus.]

Il faut peut-être rappeler que les positions à gauche de V sont dédoublables (T en particulier), que la notion de topique recouvre deux concepts distincts (élément contextuellement soit donné, soit nouveau, mais servant alors de délimitateur d'un nouvel univers de discours), et enfin qu'un constituant en F n'est pas nécessairement contrastif: il peut être simplement rhématique (information nouvelle) sans plus, toutes choses qui ont déjà été clairement expliquées par R. de Rijk (1969; 1978).

---

<sup>1</sup> Je tiens à remercier B. Oyharçabal pour les remarques très constructives qu'il a faites sur «On the Non-Configurationality of Basque...» (à par.), dont je reprends ici de manière très différente la première partie; toutes les erreurs de fait et d'interprétation ne m'en restent pas moins dues.

<sup>2</sup> Voir les références dans Kiss (1981), qui développe une analyse du hongrois très proche de celle que je vais présenter ici pour le basque.

L'analyse catégorielle de la phrase repose, quant à elle, sur une adaptation locale au modèle proposé par N. Chomsky (1957; 1965) pour l'anglais puis par N. Ruwet (1968) pour le français. Diverses variantes sont possibles, et je reprendrai ici les règles de base de Goenaga (1978), inspirées de Sarasola (1977):

- (2) (a) P → GN GV
- (b) GV → SV AUX
- (c) SV → GN(Df) GN V

[P: phrase; GN: groupe nominal; GV: groupe verbal; SV: syntagme verbal; Df: datif.]

L'idée centrale ici, c'est qu'il existe un sujet syntaxique profond unique, en dépit de la morphologie qui nous fait distinguer entre un sujet transitif ou agent (marqué par le suffixe ergatif *-k*) et un sujet intransitif ou participant unique (suffixe absolutif zéro). Bien qu'il y aurait beaucoup de choses à dire sur ce point, j'admettrai ici l'existence de ce sujet profond sans chercher à savoir si sa définition n'est pas plutôt sémantique que syntaxique.<sup>3</sup>

La question qui se pose est donc de savoir si, et si oui comment, l'on peut intégrer les règles (1) et (2) ou plutôt leur contenu intuitif: en effet, poser *a priori* qu'il s'agit de deux niveaux d'analyse à la fois opératoires et inarticulables entre eux ne peut guère être considéré comme une attitude scientifiquement sérieuse.

2. Prenons un exemple concret. En fonction de la situation et du contexte, les six phrases suivantes peuvent devenir des énoncés acceptables:

- (3) (a) Arantxak Peio ikusi du  
      Arantxa-*k* Peio vu elle-l'a  
      'Arantxa a vu Peio'
- (b) Peio ikusi du Arantxak
- (c) Peio, Arantxak ikusi du
- (d) Arantxak ikusi du Peio
- (e) ikusi du Peio Arantxak
- (f) ikusi du Arantxak Peio

Ceci est bien connu, et je laisserai de côté l'analyse détaillée de la valeur fonctionnelle (éventuellement ambiguë) de chacune de ces phrases, analyse qui demanderait d'ailleurs une révision de la formulation de (1), de façon à ce que l'unique terme à gauche de V en (b) et (d) soit bien interprété comme occupant la position F plutôt que la position T par exemple (sous intonation neutre évidemment).<sup>4</sup>


<sup>3</sup> Pour une revue critique des arguments de Heath (1974), voir Rebuschi (1982, chap. 5).

<sup>4</sup> Voir Rebuschi (1983) pour une analyse plus détaillée et tenant compte des différences dialectales.

Mon problème ici est plutôt de savoir si les variantes (b) à (f) doivent être considérées comme *dérivées* de (3a); si cela était possible, on pourrait dire que les règles (2a-c) permettent de construire la structure profonde commune à (3a-f); des transformations de déplacement s'appliqueraient ensuite éventuellement: si aucune n'est appliquée, on obtient (3a), sinon une des autres variantes est finalement construite.


Dans cette perspective, (1) pourrait être considéré comme une règle d'interprétation de structures de surface obtenues par application de ces transformations de mouvement –cf. de Rijk (1969) et Donzeaud (1972). Une telle approche se heurte malheureusement à des difficultés insurmontables. Sans entrer dans le détail des contraintes sur les transformations élaborées par la grammaire générative depuis une dizaine d'années [cf. Chomsky (1981)<sup>5</sup>], on peut illustrer très rapidement ce problème.

Soit par ex. la structure (4) obtenue à partir de (2a-c):



(4) serait à la fois (à quelques détails morphologiques près) la structure profonde de (3a-f) et la structure de surface de (3a), puisqu'aucune transformation n'aurait été appliquée. En conséquence, la structure de surface de (3a) comporterait des spécifications liant, au moyen de la configuration décrite, les fonctions syntaxiques et la catégorie ou classe syntaxique des constituants. Considérons maintenant (3c). A première vue, deux solutions sont possibles pour construire cette phrase à partir de (4). Premièrement, moyennant recours à des transformations absolument illicites en grammaire générative (voir la note 5), théorie dont les partisans de (4) se réclament pourtant, on a «simple-ment» permuté *Arantxak* et *Peio*, d'où, comme structure de surface:


<sup>5</sup> Dans ce qui sera proposé ci-dessous, ou bien on permute directement deux éléments, ce qui est impossible, ou bien on fait passer un élément d'une position argumentale à une position non-arg.. de




L'absurdité d'une telle solution est évidente: au sens syntaxique du terme, *Peio* n'est pas plus le sujet de *ikusi du* dans (3c) que dans (3a), et *Arantxak* n'en est pas plus l'objet dans (3c) que dans (3a), ce que Sarasola avait bien vu il est vrai.

Voyons maintenant un couple de phrases comme (6a-b), dont l'origine, selon les mêmes hypothèses de travail, serait (7a), (7b) illustrant la soi-disant structure de surface de (6b):

- (6) (a) Miren soroetan zehar etorri da  
 Miren champ-pl-loc à-travers venu elle-est  
 'Miren est venue à travers champs'  
 (b) soroetan zehar, Miren etorri da  
 'à travers champs, c'est Miren qui est venue'



façon à ce que l'autre vienne prendre sa place. Mais alors, ce deuxième terme vient occuper une position qui donne un rôle sémantique ou «rôle» indépendant, ce qui est illicite; enfin, le premier repasse d'une position non-arg. à une position argumentale, violant maintenant deux contraintes à la fois.



Il va de soi qu'une analyse qui revient à faire de *soroetan zehar* un GN, et de *Miren* un GP (groupe postpositionnel) ne mérite guère que l'on s'y arrête.

3. Considérons donc l'autre solution disponible. Constatons d'abord que les positions occupées par *Peio* et *Arantxak* dans (3c), ou par *Miren* et *soroetan zehar* dans (6b), ne sont pas des positions argumentales correspondant à des catégories ou classes, et à des fonctions, syntaxiques définies. Mais si cela est vrai pour (3b-f) ou (6b), cela doit aussi être vrai pour (3a) ou (6a). En d'autres termes, les positions occupées par les GN, les GP (ou encore les groupes adverbiaux, adjectivaux, etc.) en surface ne correspondent jamais aux positions qu'ils sont censés occuper en structure profonde d'après (2a-c) et autres règles du même type.

Or l'on admet généralement en grammaire générative que les positions non argumentales sont extérieures à la phrase même. Sans entrer dans le détail de la hiérarchisation relative de T et F (j'y retournerai), on voit que l'on a ici un début de solution. En effet, au lieu de (1), on pourrait poser:


$$(8) E \rightarrow (T) (F) P...$$

règle qui serait suivie de (2a-c) etc.

Ceci rend l'analyse plus homogène, mais à un triple prix:

a) d'une part, même dans le cas des phrases dites non marquées comme (3a) ou (6a), une double opération de mouvement serait nécessaire (je simplifie en laissant AUX de côté):


(9)



De ce point de vue, il n'y aurait donc jamais de phrase noyau (au sens des *kernel sentences* de Chomsky (1957)), deux transformations devant s'appliquer si P contient deux arguments etc.

b) D'autre part, pour construire des phrases comme (6e-f), il faudrait postuler d'autres transformations, dites d'extrapolation: le GN sujet et le GN objet devraient à nouveau être expulsés de P, et venir se placer à droite de P sous E, comme en (10):

(10)



c) Enfin, de façon plus abstraite, on crée par ces mécanismes une configuration syntaxique à l'intérieur de P, au niveau dit profond, pour n'en avoir finalement *aucune trace* tangible en surface, ce qui rend à nouveau cette analyse un peu douteuse.

4. Ces difficultés peuvent être évitées si l'on adopte le principe que le basque est, au sens précis de la grammaire générative, une langue *non-configurationnelle*, c'est-à-dire une langue dans laquelle le sujet et l'objet (ou,



alternativement, l'agent et le patient) ne sont pas définis en termes de configuration (X est «soeur» de Y et dominé par Z etc.), et si l'on pose par ailleurs que les positions occupées par ces constituants en structure profonde doivent au moins parfois être visibles en surface. Puisque l'hypothèse selon laquelle le sujet et l'objet sont, en structure profonde, à gauche de V, rend leur position opaque, il ne reste qu'à postuler qu'ils doivent se trouver, à ce niveau abstrait de représentation, à sa droite.


En première approximation, il faut donc faire suivre (8) de:

$$(11) P \rightarrow V \text{ AUX } \text{GN}_0^n \text{ GP}_0^n$$


[où le nombre de GN et GP est quelconque, ce qu'indiquent les indices.]

Laissant de côté la question de savoir si les GN et GP (qui recevraient leur cas du verbe et en fonction des propriétés sémantiques de leur constituant principal – le nom par ex.) seraient ou non ordonnés en structure profonde les uns par rapport aux autres, et tenant compte du fait que les positions T et F son optionnelles, on pourrait ainsi associer (12) à (3e) et (3f), et (13) à (3a) et (3c):

(12)



(13)



Bien qu'une telle analyse me semble être, dans ses grandes lignes, la seule compatible avec les données vues jusqu'ici,<sup>6</sup> il faut l'affiner sur plusieurs points.


5. Considérons d'abord les constructions négatives. Si l'AUX est à droite

<sup>6</sup> La notion de marque est trop imprécise pour que l'on puisse soutenir que (3a), qui contient un item marqué comme topique, et un autre marqué comme focus, soit non marquée par rapport à (3e-f).

du verbe en structure profonde, il faut postuler un mouvement de celui-ci pour rendre compte d'exemples comme:

- (14) (a) Arantxak ez du Peio ikusi 'A., ce n'est pas P. qu'elle a vu'  
 (b) Arantxak ez du ikusi Peio 'A. n'a pas vu P.'

Un traitement unifié de ces deux phrases pourrait bien être que *ez* + *AUX* viennent se placer immédiatement à droite de T, ce qui donnerait pour (14a), où F est instancié (*Peio* est utilisé contrastivement):




(*Peio* serait «soeur» de V sous P dans la représentation superficielle correspondante de (14b)).

Cette analyse est malgré tout problématique, car il n'est pas naturel qu'un *AUX* sorte de sa proposition. De plus, elle s'oppose à l'intuition d'Altube qui voyait dans *ez* le focus ou *galdegai* de l'énoncé. Or il est un autre cas où un item grammatical ne peut pas non plus occuper la place F de (15): il s'agit des interrogatifs. Ainsi, on a (16a) et non (16b):

- (16a) Peio, nork ez du ikusi? 'Peio, qui ne l'a pas vu?'  
 (16b) \*Peio, ez du nork ikusi?

Ces faits semblent révéler qu'en fait, sans tenir compte de l'*AUX*, il y a en basque *trois positions non-argumentales* à gauche de V: il faut postuler, entre T et F, une position Q que les interrogatifs devraient venir occuper; à (16a) correspondrait donc:



6. Il est rare cependant que l'on ait affaire à des structures si plates, sans regroupement des différents noeuds ou catégories. Or il semble bien qu'il faille de toute manière distinguer entre F et AUX d'un côté, et T et Q de l'autre: les constituants dominés par ces derniers ont une mobilité que n'ont pas ceux dominés par les premiers. Ainsi, dans les constructions complexes (avec subordination ou enchâssement), les éléments topiques peuvent, et les interrogatifs doivent (si le verbe de la matrice a certaines propriétés particulières), remonter et occuper les positions correspondantes de la proposition principale, alors que les simples éléments rhématiques, et bien entendu les AUX des subordonnées, ne le peuvent jamais. C'est ce qu'illustrent les ex. suivants:

(18) montée optionnelle de T:

- (a) ongi oroitzen naiz [E [T zu] [F oinez] [etorri zinela]]  
 bien souvenant je-suis vous à-pied venu que-vous-fûtes  
 'je me rappelle bien que vous, vous êtes venu à pied'  
 (b) zu, ongi oroitzen naiz oinez etorri zinela  
 'vous, je me rappelle bien que vous êtes venu à pied'

(19) montée interdite de F:

- (a) oroitzen naiz [E [F oinez] [etorri zinela]]  
 'je me rappelle que vous êtes venu à pied'  
 (b) \*oiniez oroitzen naiz etorri zinela

(20) montée obligatoire de l'interrogatif:

- (a) \*uste duzu [E [Q nor] [etorri zela]]  
 pensée vous-l'avez qui venu qu'il-est  
 (b) [Q nor] uste duzu etorri zela?  
 'qui croyez-vous qui soit venu?'

Si, comme on a de bonnes raisons théoriques de le penser, tous les exemples de mouvement vers une position non-argumentale relèvent de la même règle, soumise aux mêmes contraintes générales, il faut donc que le blocage de (19b) soit dû non au mouvement lui-même, mais aux conditions structurales, ou à la configuration, dans laquelle il aurait lieu. En d'autres termes, on peut penser que le passage de (19a) à (19b) viole une contrainte cruciale régissant la transformation – à savoir, sans doute, celle dite de sous-jacence, selon laquelle un élément déplacé vers une position non-argumentale ne peut franchir en un bond qu'une seule frontière de GN, P ou E.<sup>7</sup>

Le passage du topique *zu* de sa position en (18a) à sa nouvelle place en (18 b) ne représente ainsi que le franchissement d'une seule frontière, la borne E de la proposition enchâssée, puisque T est extérieur à P d'après (8). Il en va de même pour l'interrogatif *nor* dans (20): si Q est extérieur à P, la contrainte de sous-jacence est respectée. Supposons maintenant que F soit dominé par P

<sup>7</sup> Plus techniquement, de P ou d'un projection maximale de N ou de P.

—concrètement, que *oinez* dans (19a) est à droite de la borne P; le mouvement impliqué serait alors représentable par:

(21) \* [ F ]      oroitzen naiz    [E    [P    [F oinez]    [etorri zirela]]]

Le blocage de la montée du focus, comme celui de l'auxiliaire d'ailleurs, s'expliquerait ainsi très bien: deux frontières cruciales sont franchies au lieu d'une seule permise.

7. En conséquence, les règles proposées plus haut doivent encore être modifiées: F doit être interne à P. Par ailleurs, mai je n'ai pas la place de le justifier ici, il y a de bonnes raisons de penser qu'en basque comme dans peut-être toutes les langues, AUX est un constituant non pas soeur de V et de ses arguments (les GN et/ou GP de la phrase), mais de l'ensemble que ceux-ci forment, c'est-à-dire du groupe verbal. Il en résulte, vu le contraste entre (14a) et (14b), qu'en structure profonde, AUX doit précéder F; au lieu donc de faire passer l'auxiliaire à gauche du verbe dans les constructions négatives, il faudrait plutôt postuler l'inverse, à savoir, que l'auxiliaire, originellement à gauche de V, passe à sa droite quand certains éléments présents à sa gauche, comme la particule négative *ez*, ne bloquent pas ce mouvement.

On notera que cette analyse devrait permettre de rendre compte de façon plus cohérente de certaines constructions dites à tort «à inversion» de l'auxiliaire et du verbe dans les dialectes du nord, du type:

- (22a) Arantxak du ikusi Peio 'c'est Arantxa qui a vu Peio'  
 (22b) Arantxak du Peio ikusi (id.)  
 (22c) Nork du ikusi Peio? 'qui a vu Peio?'

En effet, comme le montre (22b), un terme comme *Peio* peut occuper la position F: l'élément contrastif *Arantxak* serait ici adjoint à AUX, à la manière de *ez* dans (15), et bloquant, tout comme *ez*, le mouvement d'adjonction d'AUX à droite de V.

Ces trop rapides considérations peuvent se résumer par les règles suivantes:

- (23) (a) E! → (T) (Q) P  
 (b) P → AUX (F) GV  
 (c) GV → V GN<sup>m</sup> GP<sup>n</sup><sub>o</sub>

- (24) Transformation: déplacer les constituants en respectant les contraintes générales sur les opérations de mouvement.

J'ai bien conscience de ce que ces règles peuvent étonner les bascologues, peu habitués à manipuler des représentations dites «profondes» aussi éloignées de la surface que ce que ces règles permettent de construire; mais elles me

semblent, dans leur esprit du moins, être les seules proposées jusqu'ici qui tout à la fois permettent de rendre compte des données et soient conformes aux développements récents d'un certain courant théorique: les configurations «syntaxiques» ne représentent pas nécessairement des positions de catégories, si bien que les fonctions grammaticales ne peuvent pas toujours être définies en termes de positions.<sup>8</sup>

## BIBLIOGRAPHIE

- ALTUBE, S. (1929) *Erderismos*, rééd. Bilbao, Indauchu, 1975.
- CHOMSKY, N. (1957) *Syntactic Structures*, La Haye & Paris, Mouton.  
 – (1965) *Aspects of the Theory of Syntax*, Cambridge (Mass.). MIT Press.  
 – (1981) *Lectures on Government and Binding*, Dordrecht, Foris.
- DONZEAUD, F. (1972) «The Expression of Focus in Basque», *ASJU* 6, 29-34.
- GOENAGA, P. (1978) *Gramatika bideetan*, Saint Sébastien, Erein.
- HEATH, J. (1974) «Some Related Transformations in Basque», *Papers from the Tenth Regional Meeting*, Chicago, C.L.S., 248-258.
- KISS, K. (1981) «Structural Relations in Hungarian, a 'Free' Word-Order Language», *Linguistic Inquiry* 12, 185-213.
- MICHELENA, L. (1981) «Galdegai eta mintzagaia euskaraz», in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbao, Editorial Vizcaina, 57-81.
- REBUSCHI, G. (1982) *Structure de l'énoncé en basque*, Paris, Coll. ERA 642, N.° special 1982; nueva ed. Paris, SELAF, 1984.  
 – (1983) «A Note on Focalization in Basque», *Journal of Basque Studies*, 4, 29-42.  
 – (à paraître) «On the Non-Configurationality of Basque an Related Phenomena».
- RIJK, R. (1969) «Is Basque an S.O.V. Language?», *FLV* 1, 319-352.  
 – (1978) «Topic Fronting, Focus Positioning and the Nature of the Verb Phrase in Basque», in F. JENSEN LISSE (éd.) *Studies in Fronting*, Leiden, Peter de Ridder Pres, 81-112.
- RUWET, N. (1968) *Introduction à la grammaire générative*, Paris, Plon.
- SARASOLA, I. (1977) «Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes», *ASJU* 11, 51-90.

---

<sup>8</sup> J'ai tenté de montré de montrer dans le travail cité à la note 1 que l'analyse (23c) du GV trouvait une justification indépendante dans la mesure où certains faits relevant de la théorie du liage ne peuvent s'expliquer que si les GN sujet et objet se c-commandent respectivement.

## ABSTRACT

### **Positions, Configurations and Phrase-Structure in the Basque Simple Sentence**

Since the traditional (configurational) treatment of subjects and objects in Basque is apparently altogether incompatible with respect to the transformational derivation of the superficial order of constituents and the functional interpretation of sentences based on the latter, it is proposed to analyze the Topic and WH slots to the left of V as positions not dominated by S but rather as non-A positions dominated by some projection of S, the various NPs and PPs all being sisters of V under VP at D-structure. On the contrary, it is argued that the Focus position *is* dominated by S, although external to VP, just in the way AUX (or INFL) must be: Basque may thus be clearly defined as a non-configurational language.

## EUSKARAZKO IZEN SINTAGMA MUGATZAILERIK GABEKOEZ

Alfonso Irigoyen

Uste dut on litzatekeela numeroaren edo numerorik ezaren ezaugarri bereziak zein diren, euskarari dagokiola, finkatzea.

Izan ere gure hizkuntzan sustantiboa, adjetiboa, eta abar, gramatikazko numerorik gabeak dira, hizkuntza indoeuropeoek ari garela ulertzen denari bagozkio, eta baita genero eta kasu gabeak ere, eta arrazoi horregatik ez da posible komunztadurarik garatzea izan haien eta izen sintagma osatzen duten elementu desberdinen artean.

Hala ere, erakusleak historikoki singularraren eta pluralaren arteko oposizioa dutela agertzen baitira, hauetan oinarri harturik euskal artikulua sortu dira, alboko hizkuntza erromanikoetan paraleloki gertatu den erara, eta egungo egunean *-a / -ak* eta (*-o-*) / *-ok* dira, bietarik azkenak gradu hurbilekoak, lehenengo eta bigarren hartzen dituztela, *-singularrari dagokionez urritua-*, eta kontuan hartu behar da pertsoenez ari garenean hitzuna bera ere barruan sar daitekeela, eta baita ez sartu ere.<sup>1</sup>

Gradurik gabekoek, ordea, *-a / -ak*, alegia, terminologia tradiziozkoaren arauera artikulua determinatu izanez gainera, maiz besterik gabe singularitasuna edo pluralitasuna seinalatzeko balio dute, eta hizkuntzak numerorik eza erakusten duen neurrian eredu erromanikoen erara garapen paraleloak egiteko euskarri modura erabili izan dira, eta usuario hau historian zehar apurka apurka ugaltzen joan da, komunztadura berriak sortuz, eta arrazoi horregatik euskal artikulua erabiltzea ez dator bat haienarekin.

Nabarmen ageri denez artikuluoek, edo beste edozein elementu mugatzaile modura erabiltzen dena, eta ez zaigu komeni tradiziozko gramatiketako determinatu eta indeterminatekin nahastea, izen sintagma osoari ezartzen zaizkio, eta hain zuzen ere horregatik beragatik singularitasuna edo pluralitasuna, eta

---

<sup>1</sup> «Gizonok esaten dudanean ni tartean egon naiteke edo ez, *gu gizonok* izan daiteke, edo *zuek gizonok* edo *zuok gizonok*», Alfonso Irigoyen, «Done Miliaga Kukullakoa eta euskara», *Euskera*, XX (1975), 170 orr.

baita beste edozein mugatzaile moetak adierazten duena ere, edo haren ez izate absolutua, multzo osoari dagozkio.

Bada pluralerako *-ek* aldaera ere, batez ere izen sintagmaren zeharkako kasuetarako erabilia, baina ez horretarako bakarrik, zeren *zuek* ere, *zu* formaren plural berria, edo *batzuek* ere, jatorriz *batzu* formatik berezia artikuluduna zelako, baitaramate, eta gainera nominatiborako nahiz ergatiborako balio duela.

Euskaraz, ikusi berri dugunez, *bat* formaren plurala ere inguruko hizkuntzen eradura garatu zen, biak artikulatu indeterminatu moduan korritzen dutela, eta horretarako oraindik hizkuntzan bizirik dirauen *-zu* berrekailu kolektiboa erabili zen, eta toponimia gogoan hartzen baldin badugu bizi bizirik zegoen aintzinatean, hau da, *batzu*,<sup>2</sup> eta forma hauek, gainera, artikulua har zezaketen, modu horretara ez zeramatenekin berezirik eta eremurik zabalenean, pluralari dagokiola, ez ordea singularrari, baseari zeharo loturik gelditu zitzaion, *batzu* forma desagerturik gertatu zela, hizkera batzuetan izan ezik. Horrela *batzuek* (*batzuk*) edo *batzuok*, eta *batzuak* ere bai, artikulatu plurala itsatsirik dute, eta *batzuek* formari dagokiola halako balioz berezirik dokumentaturiko kasu batzuetan baino ez. Erronkariaraz *banak* sortu zen, ikus *berze itz banak* 'beste hitz batzu', artikulatu plurala daramala *bana* oinarriari itsatsirik, eta *banek* kasu ergatiboan, *banek erraitenzein zazpiein gizon, eta verze banek erraitenzein milla*.<sup>3</sup>

Dударик gabe menderik mende garapen hauek hizkuntza moldatzen joan dira, hari fisionomia berezia emanik, eta hala ere ez zen kondizioak sortzea

<sup>2</sup> Pluralaren erabilera ez dator bat eredu frantsesarekin, hizkuntza hartan *uns* ez baita artikulatu indeterminatu moduan erabiltzen, baina arrunta da *les uns et les autres*, alemanez bezala, *die Einen und die Anderen*, eta bigarren honek ere ez du beste funtziorako garatu. Bearnesez, hala ere, egungo egunean euskal eremutik hurbil, *ús* frantsesezko 'uns' edo 'des' berdin izan daiteke, eta gauza bera gertatzen da *ues* femeninoarekin, 'unes', 'des'.

<sup>3</sup> Rafael Micoleta-k, *Modo breue de aprender la lengua vizcayna*, 1653-garren urtekoa, Sevilla 1897, E. S. Dodgson-ek argitara emana, *batzuk*, *batzuok* eta *batzuak* bereizten ditu, ikus: *Ecargussu pastel basuc*, 'trae vnos pasteles', 26 orr., *D.J. Angoac edo dirá pinturoc edo erretratuoc. D.P. Basuoc, seren besteoc dira Ytaliaric etorriac*, 'D.J. Tambien deuen de ser de allá los lienços o pinturas o retratos. D.P. Algunos dellos; otros son de Ytalia', 26 orr., ..., *serren dauquan-ean guisonac criadu asco, basuac beste acayti estaude gausaric eguiten artez*, '...', que quando el hombre tiene muchos criados, vnos por otros nunca hazen cosas derechas', 30 orr.

Ivan de Tartas-ek, *Onsa hilceco bidia*, Orthezen 1666, *RIEV*, I (1907), 30 orr., berezi egiten ditu, *gendé hec consideraturic batçia gora, bertçiac behera ioaiten çirela*, ..., hau da, *batziak* < \**batziak* < *batzu* + *-ak*, artikulatu plurala nominatibo kasuan duela, baina beste alde batetik, *baitçieç* [sic] *saluatu dela, bertçieç ezteela*, ..., ergatibo kasuan, *RIEV*, II (1908), 574 orr., eta artikulurik gabe, *irakhuritzen dira hitz eder batçu*, 573 orr., *id.*

Aita Agustín Cardaveraz-en *Christavaren bicitza*, Iruñean 1760, 15 orr., ikus *Obras completas*, Bilbao 1973, liburuan hurrengo hau irakur dezakegu: *ceren gaizqui irabacitaco ondasun batzuec beren jabeai biuriceco gogoric etceucan*, eta hor *ondasun batzuec* nominatibo kasuan dago, eta berdin balio du ergatiborako, eta, beste alde batetik, *batzuec* formaren azken posizioako artikulua ez da gehigarritzko pluralizatzailea baino.

Erronkariko formetarako ikus Alfonso Irigoyen, «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue», *Euskera*, II (1957), 125 eta 138 orr.



posible izan oinarritik alda zedin, desberdintasun sustraizkoa numerorik ezari baitagokio. Derragun egungo eguneko gauzen egoitza neurri batean euskarazko sistema propioaren eta kanpoko eraginez numeroa garatzeko joeraren artean izan den gurutzatzetik datorrela, kanpoko eraginok oinarritz konpatibilitaterik gabekoak izanik ere.

Hizkuntzan badira zenbait elementu izen sintagma mugatzeko erabiltzen direnak eta gramatikazko numerorik ez dutenak, baina esan nahiaren aldetik ideia kolektiboari loturik daudenak. Izaera honetan dago, adibidez, *oro*, gaztelaniara 'todo, -a, -os, -as' itzultzen dela, ikus *oro docu ardura bat, ta guztia tachoentat*, 'todos tenemos vn cuydado y todo para el para', *RS 1596*, n° 533, *Heuscaldun den guiçon oroc alcha beça buruya*, «Sautrela», Dechepare,<sup>4</sup> eta nola paraleloki singularraren eta pluralaren arteko oposiziodun formak garatu diren, oposizio horretarako artikulua bera oinarri harturik, Euskal Herri gehienean arkaiko ta zahar kutsuko izatera heldu da, fosil bihurturik bizi dela, ordea, *egunero* erako zenbait formatan, eta arkaiko bilakatu ez den alderdietan ere gehienetan artikulua pluralezko mugatzailea daraman izen sintagma bati lagundurik joaten da, ikus *gizonak oro*.

Ordez distribuzio konplimentarioan *dena / denak* eta *guz(t)ia / guz(t)iak*, erabiltzen dira, lehenengo multzoko *dena / denak, dana*, gaztelaniaz 'lo que es' / *diranak*, 'los que son', formak fosil bihurtetik, gero adaptazioa jasanik, sortu zaizkigula, hain zuzen ere *diranak* delakoaren ordez, kontestu batzuetan bere zentzu jatorrizkoa galdurik eta erdarazko 'todos, -as' balioa harturik erabiltzen zenaren ordez, *denak* eta *danak* aldaerek bete baitzuten lekua, singularraren eta pluralaren arteko oposizioa kasu bietan oinarri bakarrari artikulua itsatsirik sortu zela, ikus 1823-garreneko *Iriarte, Soroa, / bijac ce mutillac!* / *Esanic dirianoc / guiñala servillac*. Izan ere *dirianoc* forma aipatu den kontestuan fosil bihurturik dago, erdarara itzulirik 'todos' litzateke, eta euskaraz, berez, horren ordez, pertsonen komuntadura eginez gero *guiñanoc guiñanla* izan beharko luke, baina jadanik beste zentzua zuen.<sup>5</sup> Ifarraldeko hizkera batzuetan *oroek*, -datibo pluralean *oroer-*, eta halako formak ere badabiltza egungo egunean, artikulua plurala itsatsirik daramatela.

Pluralaren garatzea *zein* forman ere agertzen da Euskal Herriaren zati baterako, erdaraz 'cual, cuales', eta forma hori pertsoneri edo gauzei berdin dagokie eta jatorritz ez zuen numerozko moziarik, eta, horregatik, kontestuen arauera, berdin balio zuen singularrari naiz pluralari begira. Derragun numerorik gabekoa zela, eta hau hala zen Euskal Herri osoan, ikus *Gamboarroc su emaytean / asi dira, ta onegaz vrten daude beralan / oñeztar barruangoac. /*

<sup>4</sup> *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence*, Pamplona 1596, W. J. van Eys-ek argitara emana *Proverbes basques espagnols* titulua daramala, Genève et Bale, 1896.

Dechepare, *Lingvæ vasconvm primitiæ*, Bordelen 1545, erretratuzko edizioa, *RIEV*, 24 (1933), 523-578 orr.

<sup>5</sup> Alfonso Irigoien, «Konstituzioko dama eta beltzak 1823-garren urteko Markina, Xemein eta Etxebarrin», *Zehatz*, II, 3-4, 1978-ko Uztaila-Abendua, 58 orr.

*çein erre ez citeçan*.<sup>6</sup> Ikus daitekeenez *çein erre ez citeçan* aurrekoari loturiko azken frasean *çein* bat baino gehiagori dagokio, eta zeharo argi jartzen du hori *erre ez citeçan* berboak.

Nabarmen denez, mendebal aldean pluralerako *zeintzuk* esaten da, *batzuk* formaren analogiaz sortua, eta arrazoi horrexegatik automatikoki *zein* singularizat hartzen da, baina historikoki, ordea, plurala sortu ondoan, pluralaren eta singularrik ezaren edo numerorik ezaren arteko oposizioa litzateke. Beste alderdi batetik *edozein* forma deribatuan, hau ere izen sintagmari itsasten baitzaio mugatzaile modura, ez da pluralik batere garatu.

Kasu berean dugu *nor*, erdaraz 'quién, quien, quienes', termino markatua izanik pertsoneri dagokiela baino erabiltzen ez dena, eta izen sintagmaren mugatzaile modura korritzen ez duena, eta baita ere *zer*, eta pluralak *nortzuk* eta *zertzuk* dituzte, eta Bizkaian badira baita *bitzuk* eta *irutzuk* ere, *bi* eta *iru* oinarritzat dutela. Hemen, beste alderdi batetik, adierazi behar da gaztelaniaz ere *quien* formak ez zuela pluralik eta XVI-garren mendean agertu zela *quienes*, ikus M. Pidal, *Gram. hist.*, § 101.1, 263 orr.<sup>7</sup>

Artikulua, gainera, euskaraz apurka apurka posizio predikatiboan agertzen zen adjetibora iragan zen, hark jatorriz ez baitzuen hartzen, nabari daitekeenez, eta horrela haren bidez numerozko komunztadura egin ahal izan zen, inguruko hizkuntzetan gertatzen den bezala, baina haiek ez dute artikularen beharrik, korretarako numeroaren mozioarekin aski baitute, -euskaraz generoarena egitea ez zen posible inondik ere-.<sup>8</sup> Euskal artikulua ez da kontestu honetan, historikoki ari garela, numero *gramatikazkoaren* ordezkoa baino, hizkuntzak ez baitu besterik. Artikulu gabeko predikatu nominalarentzat ikus Axular, «Gomendiozco carta», *RIEV*, IV (1910), 424 orr.: *Çu içan çara Echaus, mendi Pyrinioetan, Alduideco hegaletan, bethiere centinela, eta beguiraille beçala, iraiçarriric dagoen iauregui eta gaztelu handi, eder, noble hartaco seme*. Egungo egunean joera handiagoa nabari da *semea* artikulua eta guzti erabiltzeko. Axularren baitan artikulurekin ikus, *id.*, 423 eta 424 orr.: *Çu içan çara, eta içanen çara, euscaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta cantabres fina, naturala eta eguiazcoa*, predikatu nominalak artikuludun direla, *çu* bigarren pertsonarekin, jadanik singularraren balioz, numerozko komunztadura egiten dutela.

Beste horrenbeste gertatzen da partizipioak funtzio predikatiboa duenean, eta, horrela, alderdi batzuetan hurrengo erakoak garatu dira: (*mutikoa*) *et(h)orria da* edo (*mutikoak*) *et(h)orriak dira*, alboan *et(h)orri da* eta *et(h)orri dira* dituztela, eta azken hauetan *et(h)orri*, artikulua gabe, berdin joan daiteke singularrekin naiz pluralarekin. Zuberoan bada azkenengoaren era bereko den

<sup>6</sup> Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, 83 orr. Lab.: *TAV*.

<sup>7</sup> R. Menéndez Pidal, *Manual de gramática histórica española*, decimotercera edición, Madrid 1968.

<sup>8</sup> Luis Michelena, «Miscelánea filológica vasca», *FLV*, n.º 29 (1978), 208 orr. eta hurrengoak.

*joánik da ere, eta ethorri erabil baledi ethorririk da.*<sup>9</sup> Gaztelaniaz *venido*-ren kasuan, *he venido, hemos venido*, eta abar, esaterako, (Frantsesez *il est venu, elle est venue, nous sommes venus*, eta abar), fosil bihurtzearekin bakarrik gertatzen da, perifrasi bere autonomia indartzera iritsi zenean. Edozein modutan ere gaztelaniaz *venido* berez neutro edo maskulino singularra besterik ez da. Komuntadurazko artikulua duen partizipioarentzat ikus Axular: *Hango Bizcondeac eta seme guztiac içatu dira bethi ere, egundaiñoz guero, erreguez emplegatuac, estimatuac, fin eta leyal frogatuac*, «Gomendiozco carta», *id.*, 424 orr., erdarazko boz pasiboaren eradura moldaturik.

Batzuetan forma bikoitzak gelditu dira eta ñabardura bereziak hartzera etorri dira, hala nola *hobe da ez egitea / (hori) hobe da bestea baino, (horiek) hobeak dira*, lehenengoa egungo eguneko hizkuntzaren egoitzan *hobe izan* berbo multzotzat nolabaiteko autonomiaz har dezakegula, iragankor erara ere erabilirik, futuroa *hobeko dugu* laburturik, *hobe izango dugu* osorik, ikus RS 1596 n.º 322: *Obe da aurpegui gorri ze ez bioza balzqui*, 'mejor es cara colorada que no coraçon denegrado', baina n.º 542, TAV, 174 orr.: *Vrrineric ospea, erricoa obea*, 'la fama del País es mejor que la que viene de lejos', eta *on* artikulua gabekoa duela, hauda, *on izan* multzoa eginik, Axular, *id.*, 450 orr.: *eta on liçate orai ere, halacoequin, hala eguin baledi*.

Artikuluaz esan behar da, gainera, badela joera bat baiezko kontestuetan orokorki erabiltzeko, eta horrela, XVI-garren mendean bertan, euskal hitz guztiak *-a-z* amaitzen zirela esatera iritsi ziren,<sup>10</sup> hain zuzen ere erdara ere bada-kien euskaldun bati galdetzen baldin bazaio nola esaten den *pan* bere hizkuntzan inolako dudarik gabe *ogia* erantzungo baitu, artikulua ondorik duela, eta, horrela, alderantziz, kasu honetan behintzat, *ogia* 'pan' modura itzul daiteke, *ogia jan du* 'ha comido pan', baina baita ere 'ha comido el pan', eta arrazoi horrexegatik ez da beti eta halabeharrez artikulua determinatua, terminologia tradiziozkoan erdaretarako korritzen duen zentzuan, gauza determinatu batez ari izanik (*el libro*) edo indeterminatu batez (*un libro*), alegia, eta hau frasea baiezkoa denean normalki gertatzen bada ere, ez da hala, ordea, jokabide nagusi modura, hurrengo kasuetan: frasea ezezkoa denean, baiezko edo ezezko galdera adierazten duenean, baiezko edo ezezko duda erantzunik espero ez dela agertzen duenean, baiezko edo ezezko baldintza adierazten duenean, eta abar, *ogia ez du jan*, eta berezirik, *ogirik ez du jan*, galdera baiezkoak: *jan du ogia?*, eta berezirik, *jan du ogirik?*, ezezkoak: *ez du jan ogia?*, eta berezirik, *ez du jan ogirik?*, duda agertzen duten baiezkoak: *jan ote du ogia?*, eta berezi-

<sup>9</sup> L'abbé Inchauspe, *Le verbe basque*, Paris 1858, 13 orr. Bada erretratatzko edizioa ere Hordago-k egina, Donostia 1979. Honelako ñabarduraz bereizten ditu: «Parfait: *joánik da* 'il est allé', alde bate-tik, eta «Parfait absolu: *joánik da* 'il est (tout à fait) parti'», bestetik.

<sup>10</sup> Garibay, Zaldibia, Echave eta Lucio Marineo Siculo, ikus R. M<sup>a</sup> Azkue-ren *Morfología vasca*. Bilbao 1925, § 428, eta <sup>8</sup> notako lana. Hau Rafael Micoleta-ganaino heltzen da, eta honek 1653-garren urtean, ikus <sup>3</sup> nota, honela hasten du bere *Modo breue de aprender la lengua vizcayna*: «Aduierte-se que todos los nombres substantivos y adjectivos de la lengua Vizcayna se acaban en A. y sus plurales en AC, ...».

rik, *jan ote du ogirik?*, ezezkoak: *ez ote du jan ogia?*, eta berezirik, *ez ote du jan ogirik?*, baldintzazko baiezkoak: *ogia jan baldin badu ez da gose izango*, eta berezirik, *ogirik jan baldin badu ez da gose izango*, ezezkoak: *ogia jan ez baldin badu gose izango da*, eta berezirik, *ogirik jan ez baldin badu gose izango da*, ikus Leic., «S.Lvc.», III, 11: *eta iatecoric duenac halaber eguin beça* 'Vulg.: et qui habet escas, similiter faciat', baiezko frase nominalizatua bere balioz baldintzazkoari hurreratzen zaiola, eta abar, eta horrela, baiezko frasean alderantzizko beste joera bat sortzen da gramatikazko kasuei dagokiena, izen sintagma mugatzailerik gabekorik ez erabiltzearena, eta, adibidez, partitibo kasuan daudenekin hala gertatzen da, beste erako fraseetan bete bete erabiltzen badira ere. Salbuespen modura, alabaina, azkenengo aipatu diren partitibo kasukook baiezkoan urriturik ager daitezke zenbait kontestu adierazkorretan, eta baita ondar gisako direnetan ere, azkenengo hauetan partitibozko ez direla ere bai.

Izen sintagma batere mugatzailerik gabekoez ohar bat argitara nuen *Anaitasuna*-n, 365 zenbakia, 1978, ekainaren 15-30, eta <sup>11</sup> notan aldatzen dut.

Zenbait gehiago erants genitzake, Axular, *id.*, 441 orr.: *Contatcen du Casianoc, Paulo abade çahar hura, Palma adar baiçuc harturic, heçaz, çare, sasqui eta otharre eguiten haritcen cela*, osagarri zuzen modura *çare, sasqui eta*

<sup>11</sup> «IZEN SINTAGMA MUGATZAILERIK GABEAK.

«1. *Guero Davitec eman cion bere semeari urhe eta cilhar Jaunaren temploan beharco ciren baso sacratuentzat*. Etcheberry (1), 117 orr.

«2. *Yrezat naztoana besteri ez opaesi* 'lo que para ti no quieres no ofrezcas a otro', *RS 1596*, n° 470.

«3. *Cerbitzaric batec-ere ecin bi nabusi cerbitza ditzaque*, Leizarraga, S. Luc. XVI, 13.

«4. *Azaga onic estau mandazaic* 'postrimeria buena no la tiene mulatero', *RS 1596*, n° 302.

«5. *Esacussan beguic nigar esteguic* 'l'oeil qui ne te void pas, ne te pleurera pas', Oihenart, 153.

«6. *Harri erabilic estu bilzen oroldiric* 'vne pierre souuent remuée n'engendre point de mousse', Oihenart, 211.

«7. *Herric bere legue, exec bere astura* 'chaque país a sa loy, et chaque maison a sa coustume', Oihenart, 229.

«8. *Mendiz joan da diogunean ez da adierazten mendi bat den ala gehiago iragan beharrekoa*, gramatikaren aldetik *mendi* ez baita ez singularra, ez plurala, ez kolektiboa, izen sintagma mugatzailerik gabea baino.

«9. *Ez dut etxerik erosi diogunean ere berdin gertatzen da eta etxerik izen sintagma ez da ez singularra, ez plurala eta ezta kolektiboa ere*, mugatzailerik gabea baino. Izan ere erdarara modu bitara gutxienez itzul daiteke: a) 'no he comprado casa', b) 'no he comprado casas'. Batean *casa* mozio singularrez agertzen da eta bestean *casas* pluralez, baina euskarazkoak ez du horretaz informaziorik ematen, euskaraz ez baitugu oinharritzko numerozko moziarik sustantiboetan, adjetiboetan eta abar, generozkorik eta kasuzkorik ez dugun bezala.

«10. Mugatzailerik gabeak ezin egin dezake sekula pluralezko konkordantziarik. Irakurlea goian datozen fraseetako berboetan kondordantziarako pluralak ipintzen saia daiteke, mugatzailerik gabekoei begira daudenetan alegia, eta hasi orduko konturatuko da gramatikalitatega galtzen dutela. Hori ez da gertatzen, ordea, mugatzaile kolektiboekin, konkordantzia *ad sensum* eginik plurala ere har baitezakete: *gizon asko etorri da* edo *gizon asko etorri dira* edo *gara* edo *zarete*, baina ez *\*ez ditut sagarrrik jan* eta ezta ere *\*harri erabilic ez dute biltzen oroldiric* edo *ez dituzte*.

«Bergararako, 1978-IV-22

«(1) Etcheberry, *Testament zaharreco eta herrico istorioa*, Bayonan 1874».

*otharre* duela, eta hiru moietako izanik, eta gainera ohituraz, ez zen bakarra egiten zuena, baina gramatikaren aldetik ez du formalki mugatzaierik; *Pero Periz Garidario* (1366, *PN-XIV, F.Est.*, 590 orr.), *Echarren-en, Val de Mayneru*,<sup>12</sup> *gari + dario*, erdaraz 'le mana trigo', osagarri zuzena inolako mugatzaierik gabe duela. Beraz, singularrik eta pluralik adierazten ez duela, eta kasu honetan, zentzuagatik, gariak korritzen ez badu ez dario. Egungo egunean *garia dariola doa* esango genduke, artikulua singularra duela, eta *garia* ale multzoari dagokio, eta badira, Bizkaian bederen, baita ere *garijotea*, alderdi batetik, baina *garia jo*, bestetik, lehenengoa lexikalizaturik.

Hau honela da *-dun* berrekailua daramaten formazioetan ere, normalki elementu hori izen sintagmei eransten zaiela, eta azkenengo hauek adjetiborik ez dutenean sustantiboari. Honen jatorria *duen* flexio nominalizatuaren fosil bihurtzean bilatu behar da, horrela posizio enklitikoan kokatzen dela, eta beste alde batetik esan behar da hastapeneko erabiltzearen berezitasunak gorde dituela orainarte. Horrela, *ate gorridun etxea* esan dezakegu, eta ez da argi gelditzen zenbat *ate gorri* dituen *etxeak*, baina edozein modutan ere bat gutxienez badu, baiezkoa baita, eta arrazoi horrexegatik egungo eguneko hizkuntzaren egoitzan egitura sakonean *ate gorridun etxea* delakoan *etxeak ate gorria du* frasea dago, alderdi batetik, eta *etxeak ate gorriak ditu*, bestetik. Izan ere, *ate gorri* ez da ez singularra eta ez plurala, numerorik adierazten ez baitu, eta arrazoi horrexegatik beragatik bietarik edozein kasutan erabil daiteke.<sup>13</sup> *Aipatu dugun eredu*an *ate gorri* izen sintagmari, gainera, mugatzaile numeralak gehi dakizkioke, *bat* izan ezik, baina *bakar* erabil liteke, ordea, edo singularraren eta pluralaren arteko oposizioerik ez duten kolektiboak. Eta horrela, esan dezakegu: *hiru ate gorridun etxea / ate gorri askodun etxea / zenbat ate gorridun etxea?* galdera egiten baldin bada ondo ulertu ez delako zenbat diren, eta abar. Gramatikaltate osoa du *hiru etxe ate gorridun* formazioak ere, hor *ate gorridun* adjetibo modura erabiltzen dela, hain zuzen ere sustantiboarekiko posizioagatik horietarikitzat markaturik gelditzen baita, eta abar.

Singularraren eta pluralaren arteko oposizioa duen mugatzailea baldin bada *ate gorri*-ri ezin erants dakioke berboaren flexioa aldatu gabe, eta horrela *ate gorria duen etxea* esan beharko litzateke, eta *ate gorriak dituen etxea / Gernikan eginiko hiru ate gorriak dituen etxea*, eta abar, komunztadura beharrezkoa dela, eta ikusten denez oposizio plurala / plurala ez dena duela, hau da, plurala da osagarri zuzenarekin numeroaren komunztadura sortzen duena, osagarri zeharkakoarekin ere gertatzen den bezala.

*Ate gorridun etxea*-ren ezezko forma *ate gorri gabeko etxea* da, eta *gorri* adjetiboaren daramanez gero *ate gorria* edo *gorriak* dituela zeharo ezeztatzen du, baina ez da ukatzen ezin izan ditzakeela bat edo bat baino gehiago beste kolo-

<sup>12</sup> Juan Carrasco Pérez, *La población de Navarra en el siglo XIV*. Pamplona 1973. Lab.: *PN-XIV*.

<sup>13</sup> Alfonso Irigoien, «Crítica sobre prefijación y sufijación en lengua vasca». *FLV*, n° 32 (1979), 255 orr. eta hurrengoak.

re batekoak. Baina ezetza adjetibo gabeko izen sintagma bati eransten baldin bazaio ezezko absolutua sortzen da, *ate gabeko etxea*, ate bat bakarra bera ere ez duena, den kolorekoa edo den kalitatezkoa dela. Hau honela formula daiteke: Izen sintagma mugatzailerik gabekoa eta adjetiborik ere ez duena ezezko frase baten barruan agertzen baldin bada, delako izen sintagmak duen sustantiboaren edukia zeharo ezeztaturik gelditzen da. *Ez dut etxerik*, ez dut bat bakarra bera ere, baina *ez dut etxe egokirik*, egokia edo egokiak ditudala ukatzen da, bat edo bat baino gehiago badut edo ez badut ere egoki ez denik.

Izen sintagmak mugatzaileraren bat duenean, ordea, ezin sor daiteke inoiz ezezko absolutua. Hau gerta dadin beharrezkoa da mugatzailerik batere ez izatea, ikusi dugunez. Izan ere, ezezkoan ipintzen baldin badugu *haur asko solfeo ikasten ari da* frasa, honela, *ez da haur asko solfeo ikasten ari*, honek ez du esan nahi haurrik solfeo ikasten ari ez denik, gertatzen dena da hiztunaren eritzirako gutxi direla. Eta galdetzen baldin bada *atzo zein ikasle ez zen etorri?*, beste guztiak etorri zirela adierazi nahi da, eta *atzo hiru ikasle ez ziren etorri*, hiru horiek izan ezik beste guztiak etorri zirela, hiztuna erratzen ez baldin bada, baina mugatzailerik batere gabe *atzo ikaslerik ez zen etorri*, bat bakarra bera ere ez zela etorri.

Konposatuen lehenengo atala ere iker liteke. Hauetan erregela orokorrena da delako lehenengo elementu horrek bigarrenari zerbait eransten diola. Lehenengo hori beti inolako mugatzailerik gabeko elementua izaten denez gero, ez da, berez, ez singularra eta ez plurala, eta batzuetan zenbatzea logikaren aldeetik garbi agertzen denean gaztelaniara edo frantsesera singularrez naiz pluralaz itzul daiteke. Ikus dezagun: *aberri eguna*, mundu guztiak aho batez 'día de la patria' modura itzultzen du, eta *aberri* hitza denez gero, dituen konnotazioakatik Euskadiri edo Euskal Herriari dagokiona da, Sabino Arana-k hitza, mogimendu abertzaleaz batera, sortu zuenetik hona. Baina konnotazio moeta guztiak kendurik huts hutsik ikertzen baldin badugu, eta gainera suposatuturik mundu guztikoak ere *aberri* direla eta jai bat aberri guztientzat batera egiten dela, erraza ez bada ere gizonaren izate moduagatik, ez litzateke inolako eragozpen hizkuntzazkorik izango 'día de las patrias' gaztelaniara itzultzeko, *txarritoki* 'lugar de cerdos' literalki itzuliko bagendu bezala, eta bat bakarra balitz ere ez litzateke eragozpenik izango 'del cerdo' egiteko, *txarrikorta* hitzean legez. Numerorik ezaren arazoa zeharo desagertzen da, ordea, lehenengo elementua genitibo edutezkoaren bidez artikulua singularra edo plurala duela nominalizatzen baldin badugu: *aberriaren eguna* / *aberrien eguna*, eta mugatzailerik batere gabe nominalizatzen baldin bada hurrengo sintagma moeta sortzen da: *aberriren baten eguna*, singularitasuna *bat* formak ornitzen duela eta aurrean daramana mugatzailerik gabekotasunez markatua dagoela. Berdin esan genezake *txarriaren tokia*, *txarrien tokia*, *txarriren baten tokia*, eta abar.

Beste alde batetik aipatzea merezi du izen sintagmen deklinabideko paradigmatan artikulua mugatzaile direnean gertatzen dena. Singularrari dagokion lerroan leku denborazko kasuetan ez da artikulurik agertzen, inesibo kasuan izan ezik, eta honek biak eramaten ditu, edo *-a-* edo *-o-*, lehenengoan fosil bi-

hurtzearen sintomak nabari badira ere, hain zuzen ere hiztunek multzo hone-tako kasuak berdintzeko joera baitute. Pluralean, ordea, normalki erabiltzen dira, bai *-e-* (eta *-ta-n* desinentzia), eta bai *-o-* (eta beste horrenbeste). Arazo honek beste hurrengo hau sortzen du, singularrean erabiltzen diren desinentziak eta zenbait kasu mugatzaile gabekotan korritzen dutenak berdinak izatea, —*Durango-ko-a, atzo-ko-a, bizitza gaizto-ko-a*, eta berbo flexioa bera nominalizaturik *balizco oleac burdiaric ez*, 'la erreria de si fuesse no aze fierro', *RS 1596*, n°15, hau da, *baliz-ko-a*, eta Arratian gure denboretaraino honela irau duen errefaua: *balizko erroteak urunik ez*, eta euskaraz bi geniti-boek berezko duten berriz errepikatzea garaturik *nire ama, [goian bego], Upa-nerdikokoa zan*, hau da *Upa(ra)n erdi-ko-ko-a*, historiaren aldetik hala dela izan ere—, azkenengo kasu hauek distribuzio konplementarioz, eremu geografikoaren arauera, desinentzia berberak *-ta-* berrekailua aurretik daramatela badituzte ere, —*ecen vicitze gaichtotacoec-ere bere onhesleac onhesten dituzté*, Leiz., «S.Lvc.», VI, 33,<sup>14</sup> hau da, *bizitze gaixto-ta-ko-ak-*. Forma bikoitz horiek mugatzailea *-a* artikulua ez denean ere agertzen dira, —*sei etxetako garia*, hau da, *sei etxe-ta-ko-a*, baina hala ere *sei urtekoa da*, hau da, *sei urte-ko-a*, eta *bost ogerlekokoa*, hau da *bost ogei erle-ko-ko-a-*, eta *-ta-*, ikusi dugunez, artikulua pluralarekin ere joaten da. Leku denborazko kasu hauei dagokiela esan dezakegu artikulua numerozko oposizioa plurala / plurala ez dena dela.<sup>15</sup>

Eta azkenik hizkuntzaren oraingo egoitzan izen sintagmen klasifikazio bat egin dezakegu mugatzaile moeten edo batere ez izatearen arauera:

a) Izen sintagma batere mugatzaile ez dutenak.

b) Mugatzaile zentzu kolektibokoa eta singularren eta pluralaren arteko oposiziorik gabekoa daramaten izen sintagmak. Kontestuaren arauera ez da ezinezkoa inoiz kasuren batzuetan joera orokorretik aldendurik batekin identifikatzeraino heltzea.

c) Numerozko edo distribuziozko mugatzailea daramaten izen sintagmak.

d) Singularren eta pluralaren arteko oposiziorik gabeko mugatzailea daramaten izen sintagmak.

e) Singularren eta pluralaren arteko oposiziodun mugatzailea daramaten izen sintagmak.

Guzti honek ez du esan nahi gero ezin egin daitezkeenik aipatu diren

<sup>14</sup> I. Leizarragas *baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*, Estrasburgo 1900. Th. Linschmann eta H. Schuchardt-en edizioa, azkenengo honen sarrera batekin. Bada erretratuzko edizioa ere, Hordago-k egina, Donostia 1979, baina sarrerarik gabe.

<sup>15</sup> Ikus «Deklinabideaz» nire lana, *Euskera* XXIII (1978), 737-759 orr., eta baita ere «Deklinabidea. Euskaltzaindiak deklinabideaz eskaintzen duen erabakia», *Euskera* XXIV (1979), 633-657 orr., Euskaltzainbureauen eskabidez prestatu nuena eta gero oso osoan aho batez, boto bat zuri izanik, ontzat hartu zena.

multzo desberdinetako mugatzaileen artean beste klasifikazioren batzu ba-koitzaren berezitasunak, zentzuari eta usuarioari dagozkiola, gogoan harturik.

Goiko *b)* multzoari dagokiola on litzateke adieraztea berboarekin komunztadura pluralean ere egin dezaketela, *ad sensum*, eta batzuetan, hala eskatzen duten inguruko beste elementu batzuen eraginez, hau ezinbestekoa gerta daiteke, ikus *liburu horiek dolar asko kostatu zaizkit*, eta lehenengo pertsona, *gu*, denean, edo bigarrena, *zuek*, kasu bakoitzean dagokion berbo flexioarekin. Numerozko eta distribuziozkoetan, *c)* multzoa, berboarekiko komunztadura orokorki pluralean finkaturik dago, bai tradiziozko literaturan eta bai usuarioan, *bat* forman izan ezik, berezkoa denez. Gainera numerozkoak suplementu modura artikulua plurala har dezakete.<sup>16</sup> Bakarka, mugatzaile zeregina utzirik, singularra ere bai, baina orduan sustantiboaren balioz betetzen dira, *hirua*, erdaraz 'el tres'. *Bat* eransten baldin bazaie, ordea, mugatzaile moduan gutxi gora beherako zifra adierazten dute, *bost bat liburuskak berri*, erdaraz 'unos tres folletos nuevos'. Toki bi hartzen dituzten *b)* eta *d)* multzoak bat egirik ere ipin daitezke, dituzten desberdintasunak, zentzuari dagozkiola berezi direnez gero, nabarmenegiak ez baitira. Izan ere *d)* horretan *zein* eta bere deribatua den *edozein* sartuko lirateke. Numerorik gabeko *zein* mugatzailea singularraren eta pluralaren suposatze bietan erabil daiteke, berboarekin komunztadura singularrean edo pluralean, bat edo bat baino gehiago izatearen arauera, egirik. Baina mugatzaile kolektiboek pluralik eza ere har dezakete komunztaduratzat bat baino gehiagori begira gertatuarren. Jakina, *zeintzuk* plural bihurtua erabiltzen den alderdietan jatorrizko den *zein* forma singularratzat hartzen da.

Ezin utzi daiteke, beste alde batetik, aipatu gabe zenbait kontestutan mu-

<sup>16</sup> Larresoro-k, *Sustrai bila*, Donostia 1970, eta geroago *Oinarri bila*, Donostia 1977, bigarrenean Txillardegiri erabilirik izenez, honezaz eritzi bat zabaldu zuen nahikoa hedatu zena eta ene ustez ez aski landua. *Mugagabe* edo *indeterminatu* hitza erabiltzen du honela definiturik: *hiztunetik ez ezagun edo mugagabea*, 40 orr., eta tradiziozko gramatikaren terminologia da, hark artikulua determinatua eta indeterminatua bereizten baititu, eta oinarri honetarik abiatzen dela, *indeterminatu* guztietan berboarekiko komunztadura, numerozkoak ere tartean sartzen dituela, singularrean proposatzen du, «mugagabeak *singularra* behar du aditzean beti» dioela, baina bereziki numerozkoetan euskaldun gehienek arteko ohituraren kontra doa eta baita tradiziozko literaturaren kontra ere, alderdi batera utzirik leku bateko edo besteko erabiltzeak edo ardurak asko hartu gabekoak, batez ere berboaren ondorik doazenean, eta hizkuntzaren antzinatoko garaietan gertatu ahal izan dena, horrezako literaturarik ez baitugu, ikus *op. cit.*, «2.2.—Muga-gabea eta aditza», 58 orr. Uste dut ohitura berri hori, batzuen artean artez eta jator balitz legez hedatu zena, zuzendu egin behar dela, sekula lokatu behar ez zen pundura itzulirik. Txillardegiri bera bere *Euskal gramatika*-n, Bilbao 1978, «4. Mugagabearen komunztadura», 35 orr. eta hurrengoak, geroago honela mintzatzen da, ordea: «Nahiz erdalkeria hau ez oso zaharra izan (ikus «Sustrai Bila» 62/69), badirudi bi komunztadurak eman beharko direla ontzat: *bi liburu erosi dut / bi liburu erosi ditut*. Baina ez dut uste norma nagusitzat hori horrela formulatzea zuzena denik, zeren euskaldunik gehienek berez bigarren arauera jokatzeko eta jokatu izan baitute, eta ohitura hori baita oinarritzat hartu behar dena, salbuespenak, bai eremu geografikoaren arauera eta bai kontestuen arauera, salbu.

Txillardegiri-k badu beste lan bat ere: José Luis Alvarez Enparantza, «L'emploi de l'indéfini en souletin (à travers l'oeuvre du poète Etxahun)», *FLV*, n° 25 (1977), 29-55 orr.



gatzaillearen funtzioa beste izen sintagma batek bete dezakeela. Halako kontes-  
tuak normalki kantitatearekin eta neurriarekin zer ikusia dutenak izaten dira.  
Horrela, gramatikaltate osoa dute hurrengo hauek: *hiru kilo mahats zuri, lau  
litro ardo beltz, bost botila txakolin zuri, sei zaragi txiki ardo zuri, burdi bete  
sagar gorri, burdikada bat oilasko lumatu*, eta adjetiboa duela, *burdikada  
handi bat meloi ustel*, ergatibo kasuan honela egingo lukeela, *burdikada handi  
bat meloi ustelek hatsa zabaltzen zuen*, eta datiboan, *burdikada handi bat  
meloi ederri eskolako haurrek ez diote aurpegi txarrrik jarriko*. Bide honetarik  
agertu dira, noski, hurrengo hau bezalako esaldiak, *makina bat gizonek egin  
du bide hori orainarte!*, askok egin duela adierazi nahirik, eta Bizkaian sarri  
*karro bete* ere entzuten da zentzu berdintsua duela, *karro bete ume dago han*.  
Multzoz berean sartzen dira *jan ahala okaran eman dio, nahi den beste esne  
edan du, nahi a(d)ina boligrafo beltz eros daitezke dendan, ez da nahikoa  
entzule gazte etorri / ez da entzule gazte nahikoa etorri*, azkenengo honetan  
agertzen den *nahikoa* delakoa adjetiboei edo adberbioei ere eransten zaiela,  
*oso* elementua bezalatsu, *nahikoa ona da, oso ona da, oso entzule ona da*, eta  
hau honela da erabiltzen den Bizkai-Gipuzkoetako eremuan, gutxienez egungo  
eguneko hizkuntzaren egoeran, zeren Azkue-k bere Hiztegi nagusian esaten  
baitu: «exige que la palabra á que se agrega lleve también su artículo, y se po-  
pone siempre,... *mutilla naikoa* 'bastantes muchachos'», eta hainbat urte ge-  
roago bere *Morfologia*-n, 463 orr., izkribatzen baitu: «*naikoa* ( B, G) como  
*aski*; *gizona naikoa* (mejor que *gizon naikoa*) como *gizonik aski* 'bastantes  
hombres'; también se oye *gizonik naikoa*», baina gauza argia da, orain entzu-  
ten denez, ez dela erabiltzeko modu bakarra, eta, beste alde batetik, ez da  
ikusten zergatik *gizon naikoa*, korritzen duenetarikoa izanik, nolabait bazter-  
garri bihurtu behar dugun, jatorriz posizio predikatibokoa izatetik *nahikoa*  
erari artikulua itsatsirik gelditu bazaio ere, eta abar.

Bilbon 1984-garreneko iraila.



# ZALANTZAZKO HAINBAT PUNTU MORFOSINTAKTIKO

Hizpal \*

## 0. Sarrera

Kongresu honetako aztergaien zerrendari begiradaxo bat egitea aski da, aipatzera goazen «zalantzen zerrenda» honen arrotzasuna berehala sumatzeko; arrotzak, jakina, ez dira gaiak, hauek azaltzeko eta aztertzeko modua baino. Azalpenen baten eske bait dago arrotzasun hori, saia gaitetzen bestetara baino lehen, eta besteok beren testuinguruan har daitezen, gure hemen agertze honen nondik-norakoen berri ematen.

Talde baten lana aurkezten dugu, argialetxeetan zuzentzaile-lanetan edo dihardugunon talde batena. Talde honen zereginik behinenetakoa, hain zuzen, taldea bera eratzea da; elkartzea, alegia, batera edo bateratsu jokatu ahal izateko euskarari dagozkionetan.

Euskal idazlegoarengan historia luzea du elkartu beharraren kontzientziak, eta hor dago, lekukorik aipatu beharrik izanez gero, euskara batzeko ahaleginen bide luzea eta lortu diren helburuak. Idazleen ahaleginen hari horretan txertatzen da, maila berean ez bada ere, zuzentzaileon elkartu nahi eta beharra ere. Idazleek bezalaxe sumatzen bait dugu zuzentzaileok batzeko premia eta, esango genuke, areago sumatzen dugula: idazle askoren eta joera desberdinetako idazlanak iristen zaizkigu esku artera; eta, horiek nolabait bateratzea denez gure zeregina, ezinbestekoa dugu arauarekiko erreferentzia: norberaren gustuak ez baino batetik eta bestetik datozkigun arauak bete eraztea da gure egitekoa.

Premia horrexek eragindako hainbat saio egin izan da, Euskaltzaindiak erabaki gabekoetan batasuna lortu nahirik. 1968ko Arantzazuko bileraren ondokoetan, adibideren bat edo beste aipatzeko, gogora ditzagun «Anaitasuna-k bere idazleei proposatzen dizkien zenbait idaztarau» (1975), 1977an Eibarren

---

(\*) «Hizkuntz Puntu arruntan lanketa» zeritzan hasierako gure langaien zerrendari, eta deitura hori laburtu beharrez sortua da «Hizpal» akronimoa: lanketa horretan ari gara J.R. Aizpurua eta T. Barronetxea (Elhuyar), J.A. Ormazabal (Elkar), M. Murua (Erein), G. Nazabal (G.I.F.), I. Zubeldia (G.I.L.E.), A. Ibarzabal (Itzultzaile-Eskola) eta J.A. Aduriz (UZEI).

«ontzat edo eman zen zenbait puntu», FIBIZEk moldaturiko «Bikoizketako euskararen arazoak», eta beste.

Duela urtebete hasi zen gure taldea elkartzen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailordetzako M. Zalbide eta R. Berriozabal jaunen deiari erantzunez: «euskal ikasliburugintzan diharduten argialetxeen eta Hezkuntza Sailordetzaren arteko harreman-bideak argitu eta arautu beharra» agertzen zuen dei honek, «ikasliburuen onespren-prozedurak ahalik era zuzen, azkar eta egokienean burutu ahal izateko»; eta «erabilmaiztasun handiko hainbat puntu arruntan idatzizko erabilera oraindik arautu gabe egotea» aipatzen zuen horretarako «trabarik ohargarriena» bezala.

Eginkizun aski zehatzak ezartzen zizkion deiak taldeari: gure lanean sortzen zaizkigun «kezka, oztopo, auzi eta zalantza» *jasotzea*, batetik, eta, bestetik, horiek nolabait *sailkatzea*. Horrezaz gainera, gure «ikuspegi eta hobespenak» azaltzea eskatzen zitzaigun. «Euskara Zerbitzuak, azkenik —zioen deiak—, Euskaltzaindiari aurkeztuko dizkio, argibide eske, auzigai nagusiak».

Hasiak gara egiteko horiei poliki-poliki aurre ematen: egindakoen eta eginkizunen berri ematerakoan, bilketa- eta hustuketa-lana aipatu behar da lehenik: Euskaltzaindiak arautu gabeko forma eta erabilerak —eta baita arauturik dauzkanak ere— jasotzen ari izan gara: idazle batek batera eta bestek bestetara darabiltzanak, gure lanean sortzen zaizkigun auziak, geuk egiten ditugun «zuzenketak», etab. Pentsatzekoa denez, hitzen (eta esamoldeen) formari dagozkio jaso ditugun milaka fitxetatik asko eta asko; baina morfosintaxiari dagokionik ez da falta.

Datuok pixka bat sailkatzen eta sistematizatzen saiatu gara ondoren. Hainbat kasutan unean uneko irtenbidea eman beharra izaten dugu; baina, horrekin batera, bazter ezina dugu oinarri teoriko-sistematikoak lantzeari heldu beharra, geure buruak argitzeko, erizpideak finkatuz joateko, joerak nabarmentzeko, etab.

Kasuren batzutan posible gertatu zaigu, horrela, forma edo erabilera batu nahiz bateratu bat hobestea. Hobetsi, ordea, esan gabe doa, *guk* eta *guretzat* hobetsi ditugu, eta Euskaltzaindiak besterik erabaki arte hobetsi.

Lehen urrats batzu baino ez dira horiek, bistan da. Baina ukaezina da, era berean, argitasun-bide gertatu zaizkigula: bai hiztegian eta bai morfosintaxian Euskaltzaindiak jadanik erabakiak dauzkanak ikusteko eta berrikusteko aukera eskaini digute, arrazoi bategatik zein bestegatik «eredu»tzat har daitezkeen gaurko idazleen joerak ezagutzekoa, hiztegi, gramatika eta gisakoetan proposatzen direnen berri izatekoa, bakoitza geure aldetik ibiliz sortu dugun anabazaz ohartzekoa...

Bildu ditugun arazo horiek dakartzagu gaur hona, Gramatika Batzordeak eskaini digun paradaz baliaturik. Nolabait sistematizatzen saiatu gara, geroen gorago: jakina, auzirik sortzen ziguten puntu eta puntutxoak ekarri ditugu *guk*, auzirik sortzen zigutelako, hain zuzen. Arazo hauek ez daude, beraz,

gramatika batek bere osotasunean ikusten dituen arlo bezala antolatua: oso noizbehinka aurkez dakigukeen forma edo erabilera zalantzakoren bat edo beste tartekatzen inoiz ahalegindu garen arren, oro har, beren maiztasunagatik —eta, ondorioz, irakaskuntzan eta izan dezaketen eragin nahastaileagatik— erabakitzeo premiarik larriena dutenak —hots, halakotzat jo ditugunak— aurkituko dira hemen.

Idazkerari eta hiztegiari dagozkionak, batetik, eta adibidez osaturiko forma-aniztasunen zerrenda luzeagoa, bestetik, hurrengo baterako utziz, arautu beharrekoen ikuspegi zabal antzeko hori eskainiko dugu gaur, hiru sailetan banatuz gure zalantzak. Ez da oso akademikoa, agian, banaketa hau; baina ez dauka zertan izanik ere: gure eginkizuna, Gramatika Batzordeak zioenez, «problema —txikiak nahiz handiak— non dauden» seinalatzea bait da, eta ez besterik, besteak besteri dagozkionez.

## 1. Izenaren morfologia

### 1.1. Deklinabide-kasu batzu

Euskaltzaindiak erabakiak dauka «hizkuntza baturako hobetzat etxekitzen dituen formak» deklinabideari dagokionean. Kasu edo atzizki batzu noiz eta nola erabil erabakitzerakoan, hala ere, dudarik sortu ohi zaio idazleari. Adibidez, zein kasutan dira zilegi edo/eta erabili beharrezko *-ko*, *-tik*, *-(r)aino* forma arautuen aldaerok: *-go*, *-dik*, *-danik*, *-daino*: «hurrengo» (baina «hurrenez-hurreneko»), «egungo gizartea» (baina «eguneko aztergaiak»); «barrendik», «ehundik/ehunetik gora» (cfr. «ehuneko»); «Errezilgo», baina «Israelgo»?; «Afghanistandik»?; «oraindanik», «betidanik»; «oraindaino(koan)», «egundaino(koan)».

Kontsonantez bukatutako hitzen ondoko *-e*-epentetikoaren erabilera ere ez da beti argiegia: «gaurko», «biharko» etab.; baina «mendian zeharko» ala «zeharreko»?

Ez da argi ikusten *-tzat* atzizkiaren txertaketa nola egin, izen batzuren bukaerako eta atzizki honen hasierako hotsak elkargaitzak direnean: bat+tzat, arrunt+tzat, aberats+tzat, etab. (Bidenabar, atzizki honetan sortzen den beste arazotxo bat aipa daiteke: superlatiboaren *-en* markari lotzen zaionean, kasu destinatiboko forma bera suertatzen da izenean; zilegi ote da, anbiguitatea desegiteko, *-a-* tartekatzea (onenatztat hartu, txarrenatztat, ederrenatztat...)? Haurhizkeran egiten (omen) den *-a-*ren tartekatzea legoke hemen auzitan (Cfr. «hortzatxikiak erakutsi») edo P. Lhande-ren hiztegian datozen *zurtzatasun*, *zurtzategi*, *zurtzatu* formetan ageri denarena).

Adlatibo bukatuzko *-rarte* eta *arte* formen «distribuzio konplementarioa» xehekiago argitzea komeni litzateke, adibide batzuren bidez edo: «oraintsu arte», «hamazazpi urte arte», «1900 arte», «hurrengo egunerarte», etab.

Azken galdera formari dagozkionetan: *-ehe* bukatu hitzak (xehe, mehe) salbuespen al dira pluraleko deklinabidean eta *-en* superlatiboaren marka hartzean? Cfr. «paperik mehe(E)na», «abere xehe(E)i dagokienez».

Kasu batzuren banaketa izan daiteke beste zalantza-iturri bat: «noizko», «biharko» [egingo dut lana] daude batetik; «etzi(ra)ko» «zerta(ra)ko» bestetik. Nola esan behar da, hortakoz: «Merkataritza eta Turismoko kontseilaria», ala «...Turismorako...», «lana bukatu nueneko berandu zen», ala «...nuenerako»?

Are zalantzazkoagoa da instrumentalaren eta sozietiboaren (eta inesiboaren) banaketa: «filmeaz hasiera eman», «kasu-atzizkiez erabili»; «lurra, zerua-rekiko oposizioaz».

Noiz eta zein baliorekin erabili behar da *-tik* ablatiboa, zein murrizketarekin? 'Desde', 'origine' gisa definitu ohi da, baina cfr. «jauregi aitzinetik iragan», «aho itxitik ez da sartzen eulia», «herritik agertuko gara».

## 1.2. Birdeklinabidea

Deklinabide-kasu batzuri *-ko* atzizkia eranstean gertatzen den kontsonante-elkarketaren ondorioa arautu beharra legoke: *-tzat + -ko* («aitatzako», «bukatutzatko»), *-(r)antz + -ko* («goranzko», «baturanzko»), *-ganantz + -ko* («zuregananzko»); *-tik*, *-gandik* dira ablatiboaren forma hobetsiak, baina horiei *-ko* gehitzean, *-tikako* (eta *-gan(d)ikako*, *-danikako*) formak ere agertzen dira, *-tiko*, *-gan(d)iko*, eta *-daniko* formen ondoan. Ontzat ematekoak al dira forma guztiok eta, baiezkoan, bai al da hobestekorik?

Zein neurritan da zilegi eta gomendagarri *-n + -ko* elkarketatiko *-ngo* forma, *-ko* soilaren ondoan? Cfr. «hemengo eta bestetango arazoak».

Ikustekoa litzateke beti hain nabarmena ote den *-(r)entzat* eta *-(r)entzako*, adizlagunaren eta izenlagunaren arteko banaketa.

Lanak ematen ditu, azkenik, *-(r)ekiko* atzizkiaren balioa mugatzeak ere. Cfr. «gurasoekiko harremanak», «euskalkiekiko argibideak».

## 1.3. Deklinabide-paradigmak osatzeaz

1.3.1. Osatu, zalantzak sortzen dizkiguten formen deklinabide-ereduak osatzea, edo ugaritzea, eskatzen da hemen, forma berezi horien arabera. Adibidez:

Diptongoz amaituriko hitzak nola deklinatu behar diren dago auzitan: zeintzu doaz bokalez bukatuak bezala eta zein kontsonantez bukatuak bezala? Cfr. «mahai(E)an», «gai(E)tik», «kartoi(E)an», «hodei(E)tik»; «gau(R)ik beltzena», «lau(R)i entzun diet gauza bera».

Nola egiten da *-a* organikoz amaitu hitzen deklinabidea, artikululu gradu hurbilekoa hartzean? Cfr. «aldaer(A)ok», «form(A)oi», «joer(A)on».

Izen propio arrotzekin, galdetua dugu zilegi al den *-ko* eta *-tik* atzizkien hasierako kontsonantearen ozenketa (adib. Iran + *-ko*, *-tik*). Eta zein da izen arrotzok bokalez ala kontsonantez amaituriko hitzei dagozkien atzizkiak hartu behar dituzten erabakitzeko erizpidea, grafia ala ahoskapena (adib. Lacroix + *-en/-ren*)? Izen propioen «itxura» dela eta ere gertatzen da bikoiztasunik *r-z* maitutakoetan: Axularrengan vs. Kreutzer-entzako.

Sigla eta laburdurei zein atzizki erantsi erabakitzeko, horiek «berez» nola bukatzen diren jakin beharra legoke, zeren ordezk dauden; nola irakurri behar da, adib., EAJ: [eax] ala [eaxota]? Zer ordezkutzen du *iz.* laburdurak: «izen» ala «izena»? Bestela esan: EAJek ala EAJk, *iz.ak* ala *iz.k* dira horien ergati-boak? Gogora pluralean ere agertzen direna: ISek (Izen-Sintagmek), *iz.ei*. Ikustekoa litzateke *-a* mugatzailearen kontu hau izen propioetan ere: «Hezkuntza Sail-*a-ko*», «Marx-en Kapitala-*n*», «Pariseko Eskuizkribuak-*e.(ta)n*», «Inozentzio XI./XI.a Aita santua», etab.

1.3.2. Erakusleen deklinabide-paradigma jadanik erabakia «osatzeko», komenigarria litzateke oharretako forma ontzat emanak zerrendan bertan jasotzea, honetara jotzen bait dugu argi bila. Gero, horiekin zerikusirik baduten beste formak erabakitzea legoke.

*ber-*, *-xe-*, *-bait-*, *-nahi-* aurrizki eta ertizki edo/eta atzizkiak daramatzaten erakusleen deklinabidean hainbat forma desberdin agertzen da: bero(r)iek, hone(t)xekin/honekintxe, norbaiti/noribait, nornahiri/norinahi. Orobat, morfema berak daramatzaten adberbioetan: hortxetik/hortixe(k), nonbaitetik/nondibait, non(n)ahira/noranahi.

Está también en marcha la gran obra del Diccionario General Vasco bajo la dirección de los Sres. Michelena y Sarasola, y la realización del Atlas del euskara, viejo proyecto que hasta ahora no ha sido posible realizar, pero cuya preparación nuestra Comisión de Dialectología tiene muy adelantada. Siendo el euskara una lengua de contextura muy distinta de las usuales en el Occidente europeo, si queremos que el Atlas refleje esta originalidad, es claro que poco nos pueden servir los cuestionarios que se han utilizado para confeccionar los Atlas de las lenguas románicas u otras. Había que confeccionar un cuestionario que tuviera en cuenta la idiosincrasia de esta lengua, y así lo ha hecho la Comisión de Dialectología, cuyo presidente es el académico navarro P. Ondarra, profesor de Lecároz, el cual tiene por asesor al también navarro, aunque de Ultrapuertos, M. Jean Haritschelhar, catedrático de la Universidad de Burdeos.

---

(8) MENENDEZ PIDAL (RAMON), *En torno a la lengua vasca*; Col. Austral 1301.

A la verdad, es una obra titánica ésta de la restauración, pervivencia y puesta al día del vascuence. Michelena ha dicho alguna vez que nuestros antepasados nos han dejado en herencia una carga harto pesada y excesiva para nuestros hombros. Además la Academia no deja de ver que hay muchos ámbitos que desbordan su competencia. Una lengua en las circunstancias en que se encuentra el euskara, a la que disputan el terreno dos lenguas poderosas de cultura, no puede abrirse paso en el mundo actual ni tiene posibilidades de sobrevivir sin un status legal que de algún modo la proteja, si no tiene entrada en la escuela, en los medios de comunicación, en la Administración, etc. Queremos aprovechar esta ocasión para hacer un respetuoso ruego al Gobierno de Navarra en este sentido.

Y puesto que en Navarra se celebra este acto, no estará de más recordar brevisísimamente la parte importante que al viejo reino le ha cabido en la historia literaria de esta lengua. La primera obra impresa en euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, libro de poesías de Bernardo Dechepare publicado en 1545, es obra de un navarro de Ultrapuertos. Y la segunda, la traducción del Nuevo Testamento de Joannes Leizarraga, aparecida en 1571, fue realizada por encargo y publicada a expensas de la reina Juana de Albret. Y el príncipe de los escritores en lengua vasca, Pedro de Axular, que publicó su obra *Guero* en 1643, era un navarro, hijo de la villa de Urdax, que hizo sus estudios en Salamanca cuando aquella Universidad se hallaba en el mejor momento de su historia; que incluso cita a su profesor, Zumel, y a Domingo de Soto, y aunque no le cita, ha manejado también las obras del P. Granada y de otros. Navarro fue también el escritor Juan de Beriain, abad de Uterga, en el mismo siglo XVII; Joaquín de Lizarraga, cura de Elcano entre los siglos XVIII y XIX; el baztanés Bruno Echenique, que ha sido editado por nuestro neo académico Pello Salaburu, y tantos otros que no me es posible citar por no alargarme.

\* \* \*

Toda esta empresa, magna empresa, de la salvación del euskara, la Academia la realiza al margen de toda política. Yo bien sé que esta labor, a los ojos de muchos, se halla como entintada por las salpicaduras políticas. Esto hace que con frecuencia sea incomprendida, y nos coloca a nosotros en una situación difícil. Lo dije muchas veces en el régimen anterior y veo que es necesario decirlo también ahora: el euskara pertenece al tesoro común del pueblo, es un bien de todos, que está por encima de las opciones políticas, que nadie debe apropiárselo en exclusiva ni repudiarlo. En esta línea ha trabajado siempre la Academia y quiere seguir trabajando. Para ello necesita relacionarse con las autoridades, recabar su ayuda etc., siempre con la mira puesta en algo que es de todos, sin engancharse a ideologías ni partidos y respetando el pluralismo político, que es normal y deseable en un pueblo. Sinceramente creo que la politización del euskara a la larga no le hace a éste ningún bien.

Pero esto vale, claro, en ambos sentidos: para los que quieren usufructuarlo en solitario, y para los que por reacción lógica —o ilógica— sienten la

tentación del repudio. Lo que es patrimonio común nadie lo debe ni monopolizar ni repudiar.

\* \* \*

Tampoco puedo en estos momentos dejar de decir una palabra de condolencia y de evocación hacia la figura del viejo académico Pierre Lafitte, que con tanta asiduidad y durante tantos años participó en los actos y sesiones de la Academia y que nos dejó el pasado 23 de febrero (q.e.p.d.). El era el patriarca de las letras vascas en el vecino país vascofrancés. El ha realizado una labor sumamente fecunda y polifacética como profesor de euskara, lexicógrafo, autor de una Gramática muy consultada, periodista, crítico literario, editor de textos, biógrafo de los viejos cultivadores del euskara, etc. Pero no puedo extenderme más, pues por exigencias de nuestros Estatutos debo dejar para la próxima sesión la mención más detallada de los méritos del finado y la apertura del plazo trimestral hábil para la presentación de propuestas para cubrir su vacante.

En este acto se va a proceder, como todos saben, a la recepción de Pello Salaburu en la Academia.

Pello Salaburu es hijo de este pueblo. Tiene 33 años (creo que es, con mucho, el más joven de los académicos). Su hoja de estudios, títulos y trabajos es particularmente brillante. Licenciado en Ciencias Políticas y Sociología, Doctor en Filología Vasca, miembro de varias Sociedades lingüísticas norteamericanas, ha estudiado en Universidades de España y de Norteamérica, ha sido profesor en la Universidad de Deusto y actualmente lo es en la Universidad del País Vasco. Ha ganado diversos concursos y obtenido becas. En la Real Academia de la Lengua Vasca ha trabajado como miembro particularmente activo y eficiente en la Comisión de Gramática. Ha escrito sobre Chomsky, de quien es discípulo. Ha publicado obras sobre el euskara del Baztán, una gramática manual del aprendiz de euskara y la obra en dos tomos sobre Fonología (*Hizkuntzaren soinu egitura* y *Arau Fonologikoak*).

Como véis, Pello Salaburu es ya algo más que una promesa, sin dejar también de ser eso.

Y pasamos sin más al acto de recepción propiamente dicho.

## MARIO BUNGE-REN HIZKUNTZALARITZA

*Arizkun, 1985-III-31*

*Pello Salaburu*

Jaun andreak, egunon!

Arras gauza guti egiten ditu batek bere bizian behin bakarrik, denek ongi aski dakizuenez. Eskuko behatzekin kontaktzen ahal diren horietako bat, Euskaltzaindian sartzea da, euskaltzaingoa behin bakarrik hartzen ahal bait da, hain xuxen ere. Egia errateko, ezkai honi ez zitzaion burutik ere pasatu halako batean euskaltzain izendatuko zutenik eta hala gertatu zenetik kezka eta beldur pixka batez ere bete nintzen, nere gizartearekiko erantzunkizunaren zamak bertze neurri bat hartu bait zuen egun hartan. Ez dakit, bada, nere baitan paratu duten kofidantzari behar adinako erantzuna emateko gai izanen naizen. Nolanahi ere, ahaleginak egingen ditu.



Koldo Mitxelena eta Pello Salaburu

Kezka guzi horiek haunditu egin ziren nere aitzinean zegoen euskaltzain ezagunak egin zituen lanen berri zehatzagoa izan nuenean, Aingeru Irigarai ospe haundiko gizonaren maila eta neurria ez bait da, ez, erraz ematen. Dakikezueenez, Nafarroako hizkuntza bihotz bihotzez maite zuen guti den bezalako euskaldun zintzo haren hutsunea betetzera heldu naiz, arteka hori modu egokian hornitzeko hilargi zuritan lan egin beharra baldin badut ere. Eta hau erratea ez da batere ahalkea.

Nik baino hobeki ezagutu zutenek diotenez, jende-hartzeko politekoa omen zen bera. Eta diot nik baino hobeki, zeren eta berriki arte uste bait nuen nik ez nuela egundaino ere ikusi. Baina, nonbait, ez da egia: hameka urte nituelarik ikusi nuen behin Arizkungo gaineko eskolan eta erranen dizuet, gainera, zer zela eta suertatu nintzen berarekin. Garai hartan ibiltzen ziren Nafarroako Diputazioko Principe de Vianako ordezkari batzuk eskolaz eskola, jakin nahian herrietako mutiko eta neskatiko koxkor haien artean, zenbat mintzaten ziren euskaraz. Eta euskaraz bazekitenei halako diploma bat eskuratzen zieten eta diplomarekin batera, diru-kontu bat edeki ere Nafarroako Aurrezki Kutxan, hiruetan hogeituro inguru edo sartuz. Kanpotik hurbildu zaretanak ez harritu, jakin erazten badizuet Diputazioak ematen zigun ageri hura euskaraz —eta euskara hutsean gainera— eskribiturik zegoela; ongi aski dakit hau, oraino ere etxean bait dut altxatua garai hartan neureganatzeko aukera izan nuen paper horixta hura.

Beti galde egin izan diot nere buruari nor arraio ote ziren Diputazioaren izenean heldu ziren lagun serio haiek: ez dut uste oker nabilen haietako bat Aingeru Irigarai zela baldin badiot. Bigarrena, ez ote zen, bada, gure artean dagoen Jose Maria Satrustegi? Berak erraten ahal du. Beraz, bada, hala suertatzen dira gauzak, 1962ko abenduan, Eguberri egunean ez bazen hortxe hortxe ibiliko zen, ezagutu nuen, hain segur ere, lehenbiziko aldiz.

Euskaltzale bihurtzeko ez da aski izaten euskaraz mintzo den familia baten barnean sortzea edo euskaldunen artean haztea, gertatzen ahal bait da batek euskara erabiltzearen nahitaezko beharra izatea, bertze erremediorik ez duelako. Orduan, bertze aukerarik ez dagoenean, euskararekin batera, hizkuntza hau gorrotatzen ikasteko arriskua izaten ahal da. Ez zen hori, zorionez, Aingeru Irigaraien kasua: 1898. urtean Beran sortu zen, XX. mendean bere itzulia, batek ez dakiela nola, hartu hurrera zuelarik. Gero, Barcelona, Paris eta Alemania aldean egin zituen mediku-ikasketak, ongi ikasiz, bada, hemengo erdaraz aparte, frantsesa eta alemana ere. Euskara, berriz, italtalitik ikasia zuen: Aingeruren aita —Arizkunen mediku izan zena— nahikoa ezaguna zen euskaldunen artean, periodikoetan eta eskribitzen bait zuen “Larreko” ezizena erabiltzen zuela. Euskararekin zuen zaletasuna, bada, bertze gauzak ikasi eta ikusi ondoren, askatasun guziarekin zuen hautatua.

Ez naiz luzetuko sobera nere aitzenekoaren merituen aipamenean: hemen erraten ahal dudana guzia, beti ere, bertzek errana bait du neronek erran dezakedana baino hobeki. Hor daude, konparazione, Satrustegi eta San



Martin-en artikulua euskal aldizkarietan. Xehetasun gehiago nahi duenak, han begiratu beharko du. Erran dezadan labor labor, hori bai, gure hizkuntza hau izan zela Irigaraien kezka haundienetako bat: aunitz gauza idatzi zuen “Príncipe de Viana” eta “Egan” aldizkarietan. “Diario de Navarra” egunkarian ere bazuen, hil arte, euskal orri bat, berarekin bildu zuena hilobira. Idazlan guziok “Apat-Etxebarne” edo “Irular” izen faltsuekin firmatzen zituen.

Aztertu zituen ongi aski zein diren euskararen mugak Nafarroan eta nola ari zaigun joaten hizkuntza hau beti gibelat, pixkaka pixkaka batzutan, salto ikaragarriak eginez bertzetan, baina inoiz ere gelditu gabe, aratze hoberekin ere gertatzen den moduan, arrotza zaigun erdara hau bakarrik utziz aitzinerako.

Orai dela urte bat t’erdi begiak betiko hetsi zituen artio, indarrean zegoen jaun honek, euskaldunen ohiturak, gure aitzinekoek erran zituztenak eta herri haundi nahiz ttalletan biltzen zituen kontuak ederki utzi zizkigun paperetan paratuak, iduri bait zuen nekeak ez zuela pisurik gizon harendako. Hor ditugu, lekuko, euskal artikuluez aparte, liburuetan ere erdaraz —euskaraz ez dakitenei begira— eskribituta utzi zizkigunak: *Geografía Lingüística de Navarra* eta *Noticias y viejos textos de la “Lingua Navarrorum”*, bertzeak bertze. Gera bedi, bada, erran dudan guzi hau, nekez atzunduko dugun ospe haundiko euskaltzalearen oroimen koxkor moduan. Eta utz bedi honela, hitzik bihozkorrenekin, Euskaltzaindia eta haren arteko eztabaidak azkeneko urteetan, beroaldien ondorio aunitzetan, ongi ezagunak badira ere. Badugu non eta norengandik ikasi, dudarik ez. Eta Aingeru Irigarai ez da batere erakusle txarra.

Berehalaxe ikusiko duzuenez, egun honetako hautatu dudan solas-gaia ez da Euskaltzaindiko hitzaldi-sarreretan normalean hartzen denetakoa. Ez naiz literaturako kontuez ariko, ez eta filologiaz ere, aunitzetan ohi izan den bezala. Patxi Altuna euskaltzain izendatu zutelarik, Koldo Mitxelena oroi erazten zizkigun Homeroren ametsaren atea eta Xenpelar harturik lagun, baita zeruarenak ere. Bi ate omen ditu lehenbizikoak eta hamabi, berriz, bigarrenak. Euskaltzaindiak ere bi ate bertzerik ez omen du, nonbait: lan kreatzailea eta filologilana edekitzen dituenak, hain xuxen. Hona hemen, bada haren hitzak: “Hain gauza erabakia ote da Euskaltzaindiaren atarian zabalik dauden atea bi bakarrik direla?” Iduri du, orduan, nere sarrera honekin ez zaigula betetzen Mitxelena irakaslearen errana, ez bait dut nik ate horietako bat bakarren giltza ere bueltatu. Arras zaila izanen litzateke zuzen asmatzea zenbat ate dituen ametsak eta zaila, halafede, S. Pedrok zaintzen omen dituenak kontatzea. Hala ere, erraten ahal da Euskaltzaindiak aipatu diren bi ate horiek baino gehiago ere badituela: norbaiten ustez, hirugarrenak ez baldin badu ate aroso baten neurria ematen, zirritoa gutienez, bai, badela erran daiteteke. Hortxetik, zirrito horretarik sartu naiz ni, antza. Hortaz, bada, erran beharra da lan hau eta aspaldi honetan egin ditudan bertzeak ere ez direla filologia edo literaturaren barnean sailkatzen. Lan honi paratu diodan izenak berak ere —*Mario Bunge-ren hizkuntzalaritza*— ez dio aunitzi deus erranen,

entzulegoaren artean zenbaitek ez bait daki hizkuntzalaritza linguistikari erraten zaiola alde batetik eta segur bait naiz, bertzetik, gehientsuenok ez duzuela inoiz ere aditu Mario Bungereen izena. Gaia, bada, linguistikarekin lotzen da eta hau erratean, burura heldu zaizuen lehenbiziko pentsamendua kendu nahiko nizueke, saltsotan ez daudenek berehala pentsatzen bait dute hizkuntzalaria dela hizkuntza aunitz dakiena. Baina hori ez da nahi eta nahi ez horrela suertatzen, hizkuntzalari aunitzek, munduaren zabaleran, beren amahizkuntza edo hizkuntza ama aztertzen pasatzen bait dute bizia, nola diren kontuak.

Euskaltzaindiaren elkartekide izendatzen minduten garai berean argitaratzen zuen Mario Bunge filosofo eta zientzialari ezagunak, gaur egun hizkuntza kontuetan indarrean dagoen korrante baten kritika egin nahian edo, uste baino arrakasta eskasagoa —ez dut inon ere ikusi aipaturik— izan duen eta gaur zuen aitzinean berrikusi nahiko nukeen idazlan bat. Liburuaren izena: **Linguística y Filosofía**; liburuaren gaia: Noam Chomsky hizkuntzalariren teorien aurkezpena eta kritika, sarreran dioenez. Nahiz eta liburua bera nahikoa txikia den, ez da aipatu dudan aurkezpen eta kritikara mugatzen eta horrela, hantxe agertzen diren lerroak direla medio, Bungek berak hizkuntzalaritzari buruz dituen iritziak eta iduriak ezagutzeko aukera ere ematen zaigu, liburuaren orrialde aunitz horretaraxe zuzenduak bait daude. Erraten ahal da, bada, hasieran aurkezten dituen helburuak —10. orrialdean dio hizkuntzalari sortzaileek plazara dituzten metodologi eta filosofi arazo zenbait aztertu nahiko litzuzkeela— gainditurik gelditzen direla liburuaren irakurketa amaitu orduko.

Ez dut deus ere erranen hemen Chomsky-ri buruz, haren fama inguratzeko gaituzten paretotara oraino ailegatu ez bada ere, Estatu Batuetako amerikar hau bait dugu momentu honetan hizkuntzalari ezagunenetako bat eta berak idazten dituen lanak bait dira munduan gehien nabarmentzen diren horietakoak. Larderia gogorrekoa dugu bera, eta argentinarrak eman nahi izan dion zafraldiak ez du norabaiteratua utzi, ez pentsa.

Hori dela eta, mintzaldi hau Bungereen liburu honen irazkina egiteko probetxatu nahi dudanez, bi kontu berezi nahi nituzke hasiera hasieratik: alde batetik, liburuan dago Bungek ematen duen Chomskyren teorien interpretazio pertsonala eta arront eztabaidagarria; bertzaldetik, Bungereen beraren iritziak eta teoriak, haren ustez nola antolatuta beharko litzatekeen hizkuntzaren ikerketa eta horrelakoak ere aunitzetan aurkitzen dira. Nere azterketaren gaia, aldeztetik diot, lehenbiziko puntura mugatuko da, bertzea ere bildu nahi izanez gero lan hau ikaragarri luzatuko bait litzateke. Baina hasi baino lehenago erran dezadan hitz pare bat Mario Bungereen gainean.

Filosofiaz eta, batez ere, zientzia-filosofiaz arduratzen direnen artean aspaldiskotik ezaguna da: Zientzia Fisiko-Matematiketan Doktore, fisika eta epistemologiaren oinarrietan espezializatu da; ehundaka lan eta liburu baditu argitaraturik eta Buenos Aires, Mexico, Pennsylvania, McGill University eta bertze zenbait Unibertsitatetan erakutsi du; mundu guziko hainbat eta hain-

bat elkarte eta erakunde zientifikoren elkartekidea da eta berritsuki Principe de Asturias Saria ere bereganatua du. Horrela, fisikaren filosofiaz, epistemologi-az, materialismoaz eta abarrez idatzi du eta, neronek ezagutzen ditudan lanen artean baten bat aipatzekotan *La investigación científica* (ikus bibliografía) seinatu beharko nuke: liburu mardul honek biltzen bait ditu, antza denez, ordu eta urte luzeen ikerlanek eman dituzten ondoreak eta berau bait da, bertze batzuen artean, ikerlanak egin nahi direnean, eredutzat jo beharko genukeen horietako bat. Oraingoan, garatu duen epistemologia hori hizkuntzalaritzan egiten den lanari ezarri dio, zientzi-ortodoxia betetzen ote duen edo ikusi nahirik. Ez da zuzenean bere espezialitatekoak izan daitezkeen gaietatik urruntzen den lehenbiziko aldia. Bertze lanetan ere (ikus, adibidez, Bunge 1980) eginak ditu horrelakoak, fisika, biologia, psikologia, gizarte zientziak e.a. aztertuz. Batek galde diezaioke bere buruari nola izan daitekeen honenbertze eta, itxuraz soilik, hain diferente diren gaiet buruz, beldurrik gabe idaztea: seguraski, berak eskribitu duen liburu baten eskeintzan (Bunge, 1980) aurki dateke, agian, erantzuna, honela definitzen bait du bere aita: “Médico, primer higienista social de Latinoamérica, sociólogo, legislador, adalid de causas populares y democráticas, profesor, periodista y poeta”. Badakigu: “beliak, bera bezalako umiak”, hurbil hauetan maiz erraten den bezala.

Gaiarekin zuzenean hasi aitzinetik ikus dezagun nola dagoen antolaturik *Lingüística y Filosofía* izeneko liburua: sarreraren ondoren, Chomskyk garatu duen teoriaren tesi nagusiak laburbiltzen saiatzen da egilea bigarren kapitulu- an eta, gainera, gero ateratzen dituen konklusio zenbait aurreratzen ditu hemen. Hurrengo kapituluetan gramatikaren bi ardatz nagusi ukitzen ditu (sintaxia eta semantika, hain zuzen) bertze bi kapitulu eskeiniz segidan hizkuntzalari sortzaileak kezkatu izan dituzten bi gai nagusiri: hizkuntzaren uni- bertsalak eta hizkuntzaren ikasbidea edo hazkuntza, h.d., jakin nahi da, azken batean, nola hazten den hizkuntza gure baitan. Azkeneko kapituluetan hizkuntzalaritzan egin beharko lirakeen ikerlanen izaera eta hizkuntz-teoria egokiak garatzeko hautabideak eztabaidatzen dira. Aipatu kapitulu horietaz aparte baditu liburuak bertze hiru eranskin, alde aurretik irakurlekoaren begien bistan agertu diren zenbait kontzeptu hobeki argitzeko asmoekin emana- nak. Bungerean gainerako lanekin gertatzen den moduan, liburu argia da, errez eta arinki idatzia, baietzapenak ez bait dira zehar-meharka agertzen oso osoan eta zuzen zuzenean baizik eta horrexek ematen dio liburuari eztabaida- garri bihur daitekeen zerbaiten aitzinean gaudelakoaren halako kutsu berezi hori. Baina horrexek bete erazten du, baita ere, kontuan hartua izateko merituak egin nahi dituen edozein liburuk bete beharko lukeen oinarrizko baldin- tza: edonoren alde nahiz kontra erraten dugun zerbait hori argia eta zehatza den neurri berean gezurta daiteke, faltsa daiteke (bertze zientzia-pentsalari ezagunaren hitzak erabiltzeko) eta hori, halaxe diote zientzialariek, aitzin pausatzat jo behar da. Hauxe dugu, hain zuzen ere, Mario Bungerei eskertu behar zaion lehenbiziko puntua. Argi dago, bertzaldetik, ez dela erori Bunge Chomskyren hainbertze eta hainbertze irakurle erori diren zulo berean eta ederki berezi dituela berak zein diren teoria honen aztergai nagusiak. Ez dugu

irakurriko liburuan, adibidez, Chomskyk liburuz liburu aldatzen duela teoria, bere burua hizkuntzalaritzat jotzen duen bat baino gehiagori iduritu eta iduritzen zaion moduan. Hori ere aipatu beharra dugu Bungenen alde, ezin hobeki ikusi bait du hizkuntzalaritza sortzailean hasiera hasieratik gaur egun arte badela halako hari gidari bat, teoriaren axalean aldaerak behin eta berriz suertatzen badira ere.

Halaz guztiz, aipatu nahiko nituzke hemen liburuaren azterketa zehatzagoa pasatu aurretik, bigarren mailako diren bi puntu, biak ere Bungenen kaltetan: alde batetik, erabiltzen duen bere-ustezko estilo harroa (ikus hemen 1. Eranskinean bildutako aipamenak); bertzaldetik, hau ere estilo kontua dateke, bertzeren iritziak ematen direnean ez daki batek non hasten diren Bungenenak, nahasi egiten bait dira aunitzetan teoriaren aurkezpen hotza eta egin nahi duen kritika (ikusi, konparazione, 41. orr.). Baina huskeriak huskeria, badira aipatu beharko lirakeen funtsezkoago diren puntuak eta horietara itzuli nahi dut berehala. Zerrendatuko ditut horretarako lehenik zein diren Chomskyren teoriaren tesiak nere interpretazioan, eta aipatuko ditut gero Bungenen huts eta gaizki ulertzerik handienak, beti ere berak egiten duen interpretaziora mugatzen dudalarik lana. Ez dut eztabaidatuko hemen Bungenen teoria, Bungek Chomskyri buruz egiten duen interpretazioa baizik, muga irristakor hori ahal dudanean ongi zainduz. Errateko guziak aipamenekin lagunduko ditut, baina batzutan beldur naiz, ordea, aipamen horiek sobran ez ote diren, hain dira oinarrizkoak Bungek egiten dituen interpretazio-hutsak, ederki gostarik eginak badira ere.

### **Chomskyren teoriaren tesi nagusiak**

**CH.1.** Giza-espezieak hitz egiten ikasten du eta, bertze zenbait gauzaren artean, horregatik bereizten da gainerako animalietatik. Giza-espeziekoak ez diren animaliek ez dute mintzorik (loroek ahozkatzen dituzten hitzek eta, hainbertze ere hainbertze esperimentu egin ondoren zenbait primatek —ikus, hemen, Lancaster (1975), Altmann (1962, 1965, 1968), Jolly (1972) eta, batez ere, Premack (1978, 1980) ikerlarien lanak— garatu dituzten komunikazio-sistemek, hala nola erleek eta xoriek elkarren artean solas egiteko erabiltzen dituzten sistemek (ikus Akmajian eta bertze 1979), ez dute zeri-kusirik lengoia edo hizkuntza deitzen dugun sistematasunaren konplexutasunarekin), komunikaziorako garatzen dituzten sistemak arras elementalak direlarik, eta neurri horretan, zientzialariek nahikoa errez deskribatzen dituzte. Ez da horrelakorik gertatzen giza-hizkuntzarekin.

**CH.2.** Gizarte, arraza, talde eta herri guzietako haurrek, baldintza sozial arrontak ematen diren bitartean, epe mugatu batean abiatzen dira solasean. Hizkuntza hori, gainera, eragikorra da eta gerta daitezkeen baldintza berriei behin eta berriz egokitze gaitasuna erakusten du. Hizkuntzaren erabilera ez da, hortaz, mekanikoa edo automatikoa, eragikorra baizik, Descartes eta bertze pentsalari aunitz ongi aski konturatu zirenez (ikus Chomsky

1966). Horrexegatik uler daitezke lehenbiziko aldiz entzuten diren erranaldiak eta inoiz ere erran ez diren gauzak ere ahozkatu.

**CH.3.** Esperientziaren datuak ez dira nahikoak hizkuntza ikasteko, mintzatzen ikasteko:

a) Esperientziak ez digu —zuzenean behintzat— erakusten zein den perpaus batean txerta ditzakegun mendeko perpausen kopurua. Ez digu erakusten, adibidez, erlatiboazko zenbat perpaus kateatzen ahal ditugun bata bertzearen ondoren, e.a.

b) Behin hizkuntza ikasi ondoren, nahikoa arronta da hutsak egitea eleketan. Ez ditugu ematen erranaldiak biribil biribilak, baizik eta moztuak, erdi-purdizka, e.a. Saiatzen bagara magnetofoi baten bidez biltzen elkarrizketa bat, arras zaila izanen zaigu hor agertzen diren erranaldiak gramatika aldetik aztertzea, zeren eta, stricto sensu, perpaus horietako aunitz eta aunitz ezgramatikalak bait dira. Ohar gaitezen hizkuntza ikasten ari denak ez dakiela zein diren, entzuten dituen guzi horien artean, gaizki erraten diren erranaldiak. Ez jakiteagatik, ez daki ez eta gaizki erraten diren ere. Hala ere, hitz egiten ikasten du eta itxurazko zailtasunik gabe, gainera.

c) Euskaraz eta bertze hizkuntza aunitzetan hitzen hurrenkera edo ordena nahikoa askea da eta perpausaren barnean lekuz alda daitezke. Nola-nahi ere, aldaketa horiek muga batzuen barnean gertatzen dira beti:

(1) *Patxikok erran du zakurra bidetik etorri dela*

Perpaus horretan hitz aunitzen ordena aldatzen ahal da gramatikaltasunari kalterik egin gabe. Honako perpaus hau, ordea, ez dugu gramatikala:

(2) *\*Etorri dela bidetik, zerria erran du Patxikok*

Iduri du hizkuntzaren barne-logika eta adiera galtzen ez diren neurrian bakarrik truka daitezkeela hitzak eta ordena aldatu. Baldin logika hori hausten bada edo erranahiaren zentzua aldatzen, hiztunak ez du perpaus berri hori onartuko. Baina, hona hemen argumentazioaren indarra, badira logika desegin gabe eta erranahia ere aldatu gabe egiten ahal diren aldaketa aunitz eta hiztunak ez ditu *sekula* ere egiten, hau da, logika eta erranahi aldetik arrot onargarri diren perpaus aunitz sor ditzake hiztunak, baina ez ditu inoiz ere erraten eta, gainera, hori ezin duela egin ez dio inork ere erakusten. Antza denez, fenomeno hau hizkuntza guzietan suertatzen da. Hemen ez dut adibiderik emanen argumentazioarekin segitzeagatik baina 2. Eranskinean (321. orr.) ikus daitezke zenbait argibide. Ikus, baita ere, Lightfoot 1982.

Haurrak hizkuntza ikasten duenean garatzen dituen ezagutza sistemen, propietateen, ezaugarrien eta berak izan duen esperientziak erakusten dituen ezaugarrien artean hutsarte haundi bat dago: hutsarte honen esplikazioa izan liteke pentsatzea sortzetik daukala haurrak hizkuntza ikasteko gaitasuna edo "hizkuntz gaitasuna". Bertzenaz, arrot zaila izanen litzaziguke fenomeno hau azaltzea eta guregandik kanpo dauden indarretara jo beharko genuke argi bila.

**CH.4.** Gure artean komunikatzeko erabiltzen dugu hizkuntza, bihotza ere zainetara odola igortzeko erabiltzen dugun moduan. Horrek, ordea, ez du erran nahi hizkuntza eta komunikazioa gauza bera direnik: alde batetik, komunikabide diferenteak ere ezagutzen ditugu gure artean (keinuak, ixilu-neak, nigarra, irria, ospakizun sozialak, e.a.) eta, bertzetik, hizkuntza erabiltzen dugu aunitzetan jakinaren ganean ez dugula deus ere komunikatzen eta gure pentsamendua adierazteko erabiltzen dugula. Baina azkeneko kontzeptu hau komunikazioarena baino zabalagoa da eta harekin bat egiten baldin badugu “komunikazioa”-ren adiera hustu egiten dugu: norbaitek bere buruari zerbait erraten dionean, ez du deusik komunikatzen (ikus Chomsky 1975, 52 eta 1979, 88).

Nolanahi ere eta komunikazioa balitz hizkuntzaren funtziorik nagusia ere, komunikazioa-hizkuntza bikotearen arteko harremanak atzendu gabe, metodologikoki ongi bereiz daitezke biak eta berezi ere egin behar, hizkuntzaren natura eta egitura ikertu nahi izanez gero: hizkuntz gaitasunaren egitura bere aldetik estudiatu behar da, biologo batek bihotza ikertzen duenean anatomia (bihotzaren egitura) eta fisiologia (bihotzaren funtzioa) bereizten dituen bezalaxe. Hizkuntzalariak ere, neurri batean, hizkuntzaren “anatomia” aztertu behar du.

**CH.5.** Hizkuntza ez du, jakina, “hizkuntz gaitasuna” deitu dugunak bakarrik osatzen eta sistema aunitzen elkarreragiketaren ondorioa dugu: sinesmenak, pertzepzioa, memoria, munduarekiko ezagutza, e. a.. Sistema horiek beren lege propioak dituzte, hizkuntz gaitasunarekin zuzenean erlazionatzen ez direnak eta, beharbada, sistema horiek badituzte ere beraien gaitasunak, sortzetik eta inork erakutsi gabe, emanak. Beraz, bada, bi gauza berezi behar dira: lengoia eta hizkuntz gaitasuna. Azken honi gramatika deituko diogu eta, hortaz, *lengoia* (edo hizkuntza) eta *gramatika* desberdinduko ditugu, lehenbizikoa bigarrena baino aunitzez zabalagoa delarik, eman ditugun arrazoiaren arauera. Iduri du hizkuntzalariaren lana dela gramatika —edo, hizkuntz gaitasuna— aztertzea, nahiz eta horrek ez duen erran nahi soziolinguista batek egiten duena ez dela hizkuntzalaritza (ikus Chomsky 1979, 54. orr.), baina azken honen lanak esplanatorioa —eta ez deskribatzailea bakarrik— izan nahi duen neurrian, aise konplexuago gertatzen da, sistema bat ez, baizik eta sistema aunitzen elkarreragiketa estudiatu behar bait du. Arrazoi horregatik hizkuntzalari sortzaileak hizkuntzaren gramatika zehazten saiatzera mugatu dira (Chomsky 1981).

**CH.6.** Gramatikan hiru osagai bereizten ditugu: osagai fonetikoa, sintaktikoa eta logikoa (ikus beheitiago) eta anbiguetate jakin eta ezagunarekin erabiltzen du Chomskyk kontzeptu hau, erranahi guzi hauek dituelarik:

a) Hizkuntz gaitasunaren egitura. Inork ere erakutsi ez digun horren egitura. Gramatika Unibertsala deitzen zaio honi. Ikus CH.7.

b) Hizkuntz gaitasunaren egituraren modelua. Hizkuntz gaitasun Unibertsal horren berri eman nahi dugunean, bide diferenteak erabil ditzakegu,

eredu diferenteak proposatuz. Eraiketa teorikoa dugu hau eta honen izena ere Gramatika Unibertsala da.

c) Gramatika Unibertsala giza-gogoan inprimaturik dago eta ezin deza-ke hiztunak bere baitarik baztertu. Zentzu horretan erraten dugu GU gizaki guzietan dagoela aurkezturik, benetazko zerbait dela.

d) Edozein hizkuntza naturalen osagai linguistiko hutsaren (aipatu ditugun bertze sistemetatik berezirik) egitura. Gramatika partikularra deitzen dugu haatik.

e) Egitura horren modelua: euskara edo gazteleraren gramatika bakar hori (egitura hori) deskribatzeko, gramatika diferenteak (modelu desberdinak) proposa daitezke, eraiketa teorikoak eginez.

f) Behin hiztunak hizkuntza ikasi ondoren, hizkuntza horren gramatika haren gogoan dago aurkezturik eta, hori dela bide, hizkuntza horretako per-paus gramatikalak eta ez-gramatikalak bereizteko gai da. Lan hau egin deza-ke argibidez (hizkuntzalariak egiten duena) nahiz ohargabeki (ofizioko ez direnek egiten dutena), Chomskyren lanetan ikus daitekeenez (1980, 4).

**CH.7.** Eman ditugun adibideetan ikusten denez (2. Eranskina) espe-rientzia ez da nahikoa hizkuntza ikasteko. Ikasketa horretan bada zerbait sortzetik heldu dena: hori da, hain zuzen ere, Gramatika Unibertsala. Gramatika Unibertsala ez da ikasi beharrik, heredatu egiten bait da eta giza espe-ziearen genotipoan kodifikaturik bait dago. Horretaz aparte, jakina, espe-rientzia ere behar da: oihanean biziko balitz haurra bakar bakarrik ezin izan-nen luke solasean ikasi. Esperientzia da, bada, beharrezko baldintza baina ez nahikoa eta GU-arekin ere antzera suertatzen da. Biak elkaturik, ordea, ditu-gu baldintza beharrezko eta nahikoak. Esperientzia hori bizitzaren lehenbizi-ko urteetan gertatu behar da.

Gramatika partikularren guneak GU-ak markatzen duen bide hertsian eraikitzen ditu haurrak, hizkuntza bere baitan hazten den bitartean. Hizkuntz gaitasunaren mugak, bada, GU-ak markatzen ditu eta esperientziak ez ditu muga horiek hausten ahal. Programa genetikoan bada, hortaz, parte egituratu eta aldaezina (agintzen duena) eta alda daitekeen bertze bat ere (geneek “utzi” egiten dute), Jacob-ek bezala errateko. Hori dela eta, 2. Eranskinean paratu ditugun adibideen ez-gramatikaltasuna, GU-ak esplika lezake agian. Gramatika partikularrak aldatzen ahal dira eta ezagutzen ditugun hizkuntzen gramatikak posible izan daitezkeen guzi horietako parte tiki bat bertzerik ez dira, beti ere muga jakin —baina asmatu behar diren— horien barnean bil-duak, hizkuntza batetik bertzera aldatzen direlarik. Hizkuntza beraren bar-nean ere aldatzen da gramatika eta hori ikerketa diakronikoen bidez ikus dai-teke, hizkuntzaren historia aztertuz.

Heredentzia onaturik eta esperientziaren beharra ere —hiztegia ikaste-ko, adibidez— ikusirik, errezagoko konprenditzen ahal dugu zergatik eta nola ikasten duen hain laster hizkuntza haurrak eta nola den gai hizkuntzaren eza-

gutza sistema konplexu hori garatzeko. Gainerako gorputz-organoekin ere gisa honetara gertatzen da: haurrak ez du “ikasten” nola sortu behar dituen besoak, hau bere kode genetikoan bait dago ezarririk. Esperientziaz baliaturik (elikadura, konparazioe), besoak hazi egiten dira eta esperientziak fenotipo diferentea garatzen du batetik bertzera, hizkuntzetan bezalatsu.

Gramatika Unibertsala garapen ontogenetikoaren ondorioa da eta giza-bilakabidean gertatutako emergentzia horietako bat (ikus Popper-Eccles 1980). Hortaz, gizakia ezaugarritzen duen tasuna da, lehenago erran den moduan.

**CH.8.** Hizkuntz-gaitasuna “gogoaren” organoa da, bihotza eta besoak “gorputzaren” organoak diren bezala. Baina, zer da “gogoa”? Erran dezagun, hasteko, gogoa eta burmuina ez direla bi gauza diferente (Chomsky 1979, 81. orr.) nahiz eta berak, teoriaren aurkezpen argiagoa egin nahiak eramanik, bereizten dituen. Argi dago, biologiaren ikuspuntutik, burmuinak bere egitura “materiala” duela eta gaur egun neurobiologoak arduratzen direla egitura horren azterketaz eta neuronon funtzionamenduaz. Hizkuntza, jakina denez, burmuina eta bertze organo aunitzen lanaren (zintzurra, birrikak, belarria) ondorioa dugu. Hizkuntzaren gramatikak —edo, bertze hitzetan paratze-ko, inork ere erakutsi ez digun gaitasun horrek— ere badu bere egitura, noski, eta erran daiteke egitura honen elementuak (arau sintaktikoak adibidez) burmuinaren memorian daudela metaturik eta horrexegatik badugula mintzoa. Badirudi, halaz ere, eta nahiz eta arau sintaktikoak burmuinean “dauden”, ez dela neurobiologoaren eginkizuna arau sintaktiko horiek behar bezala zehaztea eta nola formaliza daitezkeen erakustea. Hori hizkuntzalariaren (hizkuntzalari psikologo fisiologiko bihurturik) lana dugu. Chomskyk aipatzen duenez, aski interesgarria litzateke ikustea nola suertatzen diren eragiketa horiek neuronetan (in Piattelli-Palmarini 1980, 263. orr.). Azterbide bat izan liteke, erraterako, begiratzea ea gramatikaren osagai diferentek ere leku diferentetan aurkitzen diren burmuinean: afasiek eta eman liezagukete argia kontu honetan. Akmajian eta bertzek (1979, 323. orr. eta jarr.) hauxe bera seinalatzen dute. Nolanahi ere ez dago a priori-rik “gogoa” eta “gorputza” bi modu diferentetara ikertzeko eta bietan premisa biologiko berekin jokatu behar dugu.

**CH.9.** Sortzetik dugun Gramatika Unibertsalari esker (ahalbidezko hizkuntzak mugatzen ditu eta espeziearen genotipoan dago) eta esperientziaren datuez baliaturik hitz egiten ikasten dute haur guziek, ezagutza sistema konplexu bat garatuz. Erratan dugu konplexua dela, arront zaila bait zaigu ezagutza hori formalizatzea eta ezagutza hori agintzen duten legeak behar bezala zehaztea. Baina, jakina denez, ezagutza hau ez da gizakia karakterizatzen duen bakarra eta bertze ezagutza sistemak ere garatzen ditugu, hala nola, ikusmenarena, eragiketa logikoak egiteko gaitasuna, mugimendu koordinatua eta bertze aunitz. Zenbait eskolak (batez ere Piaget eta Ginebrarrak aipatu behar hemen) mantentzen dute ezagutza guzi horiek batera garatzen ditugula eta sentimen-motorezko gaitasunei esker, haurrak gero eta aberatsago diren ezagutza sistemak eraikitzeke gai direla. Piaget-en ustez, bada “gogoa” (edo



“burmuina”, bertze ikuspuntu batetik) ez da modularra eta garatzen dituen ezagutza sistemak erlazio hertsian daude.

Chomskyk uste duenez hau ez da honela gertatzen: argi dago ezagutza horien artean badirela erlazioak —bihotza eta gibela ere erlazioan daude, dudarik ez— baina sistema guzi horiek autonomoak dira —bihotza eta gibela ere autonomoak diren neurrian— eta horregatik, independienteki ikertu eta estudiatu behar dira, bakoitzak bere egitura propioa bait du. Gaur egun ez dago daturik hizkuntz gaitasuna eta mugimendu koordinatua, konparazioe, printzipio berak agintzen dituela pentsatzeko. Hizkuntz datuek erakusten digute hizkuntz gaitasuna baldintzatzen duten legeek ez dutela parekorik gainerako sistemetan. Horregatik erran daiteke burmuina modularra dela. Gorputzaren organoak autonomoak diren moduan, gogoarenak ere autonomoak ditugu.

**CH.10.** Behin onartuz gero hizkuntza natural guziak printzipio unibertsal zenbaiten azpian biltzen direla, printzipio horiek edo gramatika unibertsala formalizatzeko bi bide segi daitezke:

a) Hizkuntza bat hartu eta hizkuntza horrek aurkezten dizkigun datuetatik haratago jo, hizkuntza horren lege partikularrak eta hizkuntz gaitasunaren legeak bereziz. Azkeneko hauek hizkuntza guzietan ageriko dira. Lehenengoak, ordea, hizkuntza horretan bakarrik, nahiz eta lege orokorrek markatzen dituzten mugak ezin diren hautsi.

Sistema honek duen eragozpena da aunitzetan lege orokorrak ikusteko arriskua dagoela, lege partikularrak dauden tokian. Oso zaila gertatzen ahal da batzuk eta bertzeak bereztea.

b) Hizkuntza aunitz hartu eta elkarren artean erkatuz, lege orokorrak eta unibertsalak atera. Honek ere badu, ordea, bere eragozpena: azaleko antzekotasunetan gelditu gaitzake eta zenbait hizkuntzalarik azaleko antzekotasun hauek deitzen dituzte hizkuntzaren unibertsalak (Chomsky 1982, 111).

Hizkuntzalariek bide bat nahiz bertzea hautatzen ahal dute baina, dituzten mugak ezaguturik, biak hartzea litzateke egokiena. Ohar gaitezen lege horiek oso abstraktuak direla eta ez ditugula berehalakoan aurkituko. Lege horiek edo gramatikaren formalizazio egokiak proposatzeak hizkuntzaren teoria formalizatzeraz garrantzitsuak. Ikus, dena dela, **B 6** puntua beheitiago.

**CH.11.** Hizkuntza bat nahiz aunitz hartzen ditugun aztergai, metodo hipotetiko deduktiboak erabiliko dira: honegatik, itxuraz legeen kontra daudekeen datuak bazter daitezke eta horrek ez gaitu kezkatu beharrik (Chomsky 1979, 107 eta 188). Ohargabeki ezagutzen dugun Gramatika Unibertsala formalizatzeko hizkuntza partikularretako datuak erabili behar ditugu eta hau egitean, nola hautatu eta nola berezi datu onak eta txarrak? Perpaus gramatikalak ez dira *interpretatu daitezkeen* perpausak, errez interpretatzen ditugun perpaus aunitz ez bait dira gramatikalak; ez dira norbaitek eman dituen *arau normatibo*en barnean sartzen direnak, hizkuntza aunitzetan ez bait dago

ageriko arau normatiborik; ez dira *estatistikoki* errateko edo entzuteko gerta-kortasun handiago duten perpausak, hainbertze aldiz erraten bait ditugu inoiz ere erran ez diren perpausak; ez dira, ez, corpus batean bil daitezkeenak: halako testu zati hau halako hizkuntzaren aurkezpen fidagarria dela diogunean, ohargabeki erabili dugu gure ezagutza eta gaitasuna corpus hau, eta ez bertzerik, aukeratzeko. Ez dugu aukeratzeko corpus bat eta hizkuntza horrek izan ditzakeen legeak handik deduzitu; ez, corpusa hautatzen dugu bai bait dakigu hizkuntzaren legeak betetzen dituela. Informazioa, orduan, hiztunaren baitan aurkitu behar da. Metodo hau ez da, bada, enpirista, datu enpirikoak erabiltzea nahi eta nahiezkoa baldin bada ere.

**CH.12.** Gramatikaren osagai nagusienetako bat sintaxia dugu eta automoki iker daiteke berau. Sintaxiaren ikuspuntutik gramatika arau sistema dela erran daiteke: honela, sintagma guneez leku hau edo bertze hura hartzen dute sintagmaren barnean, ahalezko leku horiek ere nahikoa mugaturik daudelarik GU-ari esker. Erran daiteke, baita ere, perpausetan kategoria zenbait lekuz truka daitezkeela toki batzuetara bai baina bertzeetara ez, ondoko adibide hauetan ikus daitezkeenez:

- (3) *You saw the man*  
 (4) *Who did you see—?*  
 (5) *\*Did you who see—?*
- 
- The diagram shows two horizontal lines with arrows pointing from (5) to (4). The top line starts under 'who' in (5) and ends under 'see' in (4). The bottom line starts under 'X' in (5) and ends under 'see' in (4).

Gramatika Unibertsalak gero eta hertsiago diren aukera hauek zehazten dizkigu:

- a) Hizkuntza naturaletan mugimendua gerta daiteke ala ez?
  - b) Gerta baldin badaiteke, edozein kategoria mugi daiteke?
  - c) Kategoria jakin bat mugi baldin badaiteke, edozein lekutara mugi daiteke?
- e.a.


Hautabideak ditugu, ikusten denez, eta hori teoria simple bat dela medio formalizatzea aurrerapausu haundia izanen litzateke. Erran dezadan, bide batez, perpaus batean zerbait “mugitu” bada, perpaus horren eratorpenean bi (edo gehiago) egitura edo analisi maila bereizten direla: horri deitu ohi zaio “sakoneko” eta “azaleko” egitura.

Baina gramatika ez da hori bakarrik. Gramatika dugu, baita ere, Printzipio-sistema bat eta printzipio soil batek esplika ditzake, aunitzetan, itxuraz arras diferente diren datuak. Printzipio berak (X-barraren sistema) azaltzen digu zein den sintagmen barneko osagaien egitura eta zergatik gertatzen diren azaleko desberdintasun ikaragarri horiek hizkuntza batetik ber-

tzera. 2. Eranskinean eman ditudan adibideak ere Printzipio abstraktu batek azal ditzake eta berdin suertatzen da honako adibide hauekin:

(6) *Nire semea mendira joaten da*


(7) *Nora joaten da nire semea —?*



Halaz guztiz, ezin egin ondoko hau:

(8) *Nire semea mendira eta hondartzara joaten da*

(9) *\*Nora joaten da nire semea mendira eta —?*



(ikus hemen 3. Eranskina. Ohar gaitezen, dena den, adibide guziak perpausak direla eta termino hau definitu gabe utzi dugula, teoriaren lehengaita bait da).

CH.13. Erranahia da gramatikaren bertze osagai nagusi bat eta osagai honen barnean bereziki aipatu behar da hiztegia deitzen duguna. Hiztegiarekin erlazionatzen dira zuzen zuzenean linguistikoak ez diren bertze sistema aunitz: sinesmenak, munduarekiko ezagutza, e.a. Irakasle batek, militar batek edo apez batek, hiritarrak edo herritarrak, langileak edo lantegiko nagusiak erabiltzen duten hiztegia diferentea da. Hitz kopuru mugatuak osatua, talde sozial batetik bertzera edo toki batetik bertzera errez aldatzen da, bakoitzaren munduarekiko esperientzia ere diferentea dugulako. Beraz, bada, osagai hau ulertzeko eta azaltzeko sistema aunitzen azterketa xehea egin beharko genuke, nahiz eta gauzei izena emateko eta, arau semantiko unibertsalak erabiltzen ditugula ematen duen (ikus, erraterako, Russell 1961 eta Chomskyk honetaz dioena in Piattelli-Palmarini 1980, 139). Bertze kontu bat da nola antolatzen ditugun hitzak: haurrak “ikasi” behar ditu —gero ere, ez dira horrenbertze- baina sistema Unibertsal batez baliaturik ordenatzen ditu (X-barra) sintagmetan eta perpausetan.

Halaz ere, sintaxiak berak bakarrik ere ematen digu erranahiaren informazioaren parte bat, erreferentziatasunarena, hain zuzen ere. Orain arte erabili ditugun adibideak kontuan hartuz gero (ikus 3. Eranskina):

(10) *Mattinek Mattin ikusi du*

Badakigu jakin bi Mattin direla nahi ta nahi ez, nahiz eta guk dugun Mattin-ekiko ezagutza perpaus idatzi honen mugetan akitzen den. Arrazoi beragatik badakigu “bere burua” hitzaren erreferentzia “Mattin” dela ondokoan, eta ez bertze norbait:

(11) *Mattinek ez du bere burua ezagutzen.*

Informazio guzi hori perpausaren sintaxiak ematen digu eta Gramatikaren forma Logikoak interpretatzen du.

**CH.14.** Orain arte emandako hipotesi guziek erran nahi dute, bada, hizkuntzalariaren lehenbiziko lana (eta, intelektualki ernagarriena, zeren eta gizakiekin ez bait dugu animaliekin egin genezakeen aprobarik egiten ahal) da hiztunaren *gaitasun* linguistikoaren berri ematea. Hizkuntz gaitasunak eta gainerako sistemen gaitasunak —herendentziaz emanak— ahaltzen dute hitz egitea, hitza ez bada ere hain ispilu neutro eta gardena, gure eguneroko *arike-tan* bertze elementu aunitzek hartzen bait du parte: nekeak, egoera psikologikoak, lekorapenak, adibidez. Aitzineko pentsalariek behin eta berriz bere buruari galdetu ziotena eta Russell-ek hain ederki paratu zuenari erantzuna emateko modua dateke guzi hau:

“How comes it that human beings, whose contacts with the world are brief and personal and limited, are nevertheless able to know as much as they do know?”

(Russell, 1948, 5)

### Mario Bungearen oinarritzko hutsak

Nik ez dakit, bada, eman dudan Chomsky-rekiko interpretazio hau ortodoxoa den ala ez, baina hori egiten saiatu naiz, berak liburuetan idatzitakoak eta eskoletan erranak irakurri eta aditu ondoan. Erraten ahal dut, nolana ere, interpretazio hau Bungek bere liburuan ematen duena baino zuzenagoa dela. Honetan ez daukat inolako zalantzarik.

Ikus ditzagun orduan zein diren Bungek ematen digun interpretazioan, goiko tesi horiekin bat ez datozenak:

**B.1.** Abiapuntuan berean adierazten digu bi galderari eman nahi diola erantzuna: lehenbizikoan zer den lengoia jakin nahi du; bigarrenean, berriz, ikusi nahi du hizkuntzalaritza sortzailea Chomskyren filosofia osoarekin —eta, bereziki, sortzekotasuna eta mentalismoarekin— loturik dagoenez ala ez.

E. Bigarren galderari erantzuna emateko ez da libururik idatzi behar: hor daude ehundaka artikulua, tesiak, azkeneko 25 urte honetan idatzi diren liburuak, e.a.. Guzi horietan ikusten da aunitzetan gramatikalari sortzaileek ez dutela aipatu ere egiten deusetarako Chomskyren filosofia. Areago, berak aitortu duenez, ikasleak aspertu egiten zaizkio gai horiekin eta gehienetan tekniko on batzuk izatera mugatu nahi dute, horrelako eztabaidetan sartu gabe. Gehienetan, bada, CH.12 eta CH.13-ra mugatzen dira hizkuntzalari hauen lanak, horietan aipatzen diren Printzipioak sortzetik edo bertze nonbaitetik heldu diren galde egiten ez dutela.

Ez hori bakarrik; Chomskyk berak argibidez emana du erantzuna Bungearen galderari, azken honek, nonbait, ezagutzen ez duen liburu batean:

**“I think a linguist can do perfectly good work in generative grammar without ever caring about questions of physical realism or what this work has to do with the structure of the mind. I do not think there is any question that that is possible”.**

(Chomsky 1982, 31)

**B.2.** Chomskyren “gaitasuna” eta “ariketa” Saussureren “hizkuntza” eta “hizketa” bikotearen parekoak ditugu (20 orr.), omen.

E. Ez; hauxe da, hain zuzen ere, hizkuntzalari aunitzek egin izan duen interpretazio oker ezaguna, baina goian paratutako tesietan ez banaiz mintzatu Saussureren bikote horretaz ere, interpretazio hori guziz eztabaidagarria dugu bertze aunitzen ustetan:

**“En este punto es donde la distinción chomskyana de la competencia y la actuación se opone radicalmente a la dicotomía saussuriana de lengua y habla. En efecto, para Saussure, (...) la lengua es, esencialmente, un inventario, una taxonomía de elementos (...), en rigor no hay sitio para una sintaxis (...). Para Chomsky, por el contrario, es la sintaxis la que se convierte en el componente central...”**

(Ruwet 1978, 67-69)

**B.3.** Hizkuntzalari sortzaileek uste dute beraiek egiten duten lana, hau da, hizkuntzaren azterketa abstraktua, hori dela lanik garrantzizkoena, baina hizkuntza landu nahi duenak, hizkuntzaren alderdi aberats guziak aztertu beharko lituzke, erran nahi baita, psikolinguistika, soziolinguistika, e.a. (25. orr.).

E. Chomsky, ikusi denez (CH 5, CH 9, CH 13, CH 14), ez litzateke horren kontra agertuko, nahiz eta berak ikusten dituen lehentasunek bertze bideak hartzen dituzten: honen ustez, hizkuntzaren gaitasunei buruz gramatikaren azterketan agertzen dira daturik argienak eta gramatikaren barnean, gainera, badirudi sintaxia dela atalik emankorrena... orain arte ditugun datuak kontuan harturik. Egoera hau, ordea, alda daiteke datu berrien argian.

**B.4.** Hizkuntzalari sortzaileek gramatika kanonikoa edo estandarra ikertzen dute. Baina, argi dagoenez, hizketa zuzenaren estudio gehiago egin beharko lukete eta hizkuntza guzietako dialektuak ere ongi landu (3. kapituluaren eta, bereziki, 50. orr.).

E. Puntu honetan Bungerean ezjakituria nabarmendu egiten da eta, lerro hauek luzeegi gertatu gabe eta berak ematen duen adibide berbera erabiltzeagatik, hauxe erran nezake: haren ustez, gaztelera ikertu beharrean, Argentinako hizketa ere aztertu beharko litzateke (50. orr.). Hortxe dago, adibidez, O. Jaegglik, Chomskyren zuzendaritzapean, La Plata-ko hizketaren klitikoez burutu duen tesia (Jaegli 1980). Chomsky eta Halleren (1968) lan klasikoak ere, bertze adibide bat emateagatik, Estatu Batuetan mintzatzen den ingelesaren Ipar Ekialdeko dialektua deskribatzen du, Kenyon eta Knott-ek (1944)

egindako lanaren arabera. Oinarrizko liburu hau ez du aipatzen Bungek. Adibide horiek osa daitezke mintzaldi honetan aipatuko ditudan bertze aunitz egileren lanekin.

Baina ez da hori bakarrik: kanpo-hizkuntzalariak ere aukera egin behar du, ez hizkuntza eta dialektuaren artean, baina dialektu edo aztertu nahi duen lurraldeko hizketa eta hiztunen idioleko partikularren artean. Beraz, abstrakzio mailaren kontua da guzi hau. Huts bera aipatu behar da Bungek egiten duen “hizkuntza”/“hizketa” kontzeptuen arteko interpretazioan, biak bait ditugu eraiketa teorikoak eta, neurri horretan, bat bertzea bezain “reala” edo “irreala” (ikus Bunge 1983, 19-20. orr.).

**B.5.** Sinkronia eta diakroniaren maila ez dira berezi behar, lehenbiziko hura azkenekoaren zordun bait da (74. orr.).

E. Edozein hizkuntzalari, sortzaile nahiz bertze eskolakoa, bat letorke honekin. Nabarduretan hasten dira diferentziak, batek ez bait du bertzea kentzen: baieztapenarekin konforme egoteak ez du adierazi nahi ezinbertzekoa dugula historiara jotzea behin eta berriz hizkuntzaren edozein fenomeno aztertu nahi dugunean. Gazteleraren sintaxia azaltzeko latinera (edo urrunago?) jo behar dugu?

Nolanahi ere den, hizkuntzalari sortzaileen artean aurkitzen dira hizkuntzaren historiari arduratzen direnak: Kiparsky-ren (MIT-eko irakaslea bera) azkeneko lanetako batek (1979) Panini eta sanskritoaren gramatika aztertzen du (“a landmark publication in the field of Sanskrit grammar” dio M. M. Deshpande-k *Language* aldizkarian). Chomsky eta Halleren lana ere (1968) ingelesaren historiari arduratzen da, Lightfootekin (1979) gertatzen den bezala. Hurbil honetako hizkuntzak aipatu nahi baditugu hor dago, baita ere, Otero-ren (1971 eta 1976) lana erromantzeari buruz.

**B.6.** Hizkuntzalari sortzaileek aukeratu duten bidea hizkuntzaren gaitzuna aztertzeko hizkuntza bat bakarrik (ingeleza, hain zuzen ere) hautatzea izan da eta horrela hizkuntzaren unibertsalak aurkitzen saiatu dira (71. orr.).

Bungek ‘porteñoiz’ *chapurrado* deitzen duena Espaini aldeko *chapurreado* da, noski: ahuntz-erdara nahiz asta-euskara moduko zerbait, horrenbestez. Badakigu, ordea, *pidgin* batean ari denak badakiela beste hizkuntza bat guttienez. *Pidgin* hori, besterik ez dakienean, *créole* bihurtua baita: zenbaiten lehenbiziko hizkuntza eta hizkuntza bakarra gainera.

Eta hizkuntza oso ta betea, gainera, hizkuntzarien ozteak aho batez errepikatzen duenez; edozertarako gauza, goikoetarako eta behekoetarako, gertatuek eta gertatzen ari direnek erakusten digutenez. Landuak eta landugabeak izan daitezke hizkuntzak. Hizkuntzak dira halere eta ez dugu ahaztu behar herri basatienek ere aski landuak direla, hitzez eta oroitzapenez, izkribuz eta irakurriaz ez bada ere.

Aho betean onartzen du iritzi hau arestiko Lenneberg-ek, inondik ere ez delarik hizkuntzalaria. Ik. 298 or.: “Hoy día podemos estudiar culturas que son esencialmente neolíticas en su estado de desarrollo, así como culturas lo suficientemente avanzadas como para desintegrar el átomo y explorar el espacio interplanetario. Sorprendentemente, los lenguajes naturales que se hablan a lo largo de este margen de culturas parecen estar basados en principios similares. Es un hecho empírico que, hoy día, ni los instrumentos utilizados ordinariamente en una cultura dada ni la estructura social asociada a esa cultura pueden proporcionarnos pistas sobre la complejidad de la estructura del lenguaje que ahora hablan los individuos de esa cultura. Los lenguajes naturales no pueden ordenarse en términos de complejidad”. Diren hizkuntza naturalak, jakina, ez izan zitezkeenak. Azkeneko hauetaz, haatik, irudimena bakarrik mintza daiteke, arrazoizko makuluen laguntzaz, onenean ere. Makuluak, damurik, ez dira gorputzaren atal naturalak.

\* \* \*

Zerbait esan nahi nuke eta zerbait esan behar dut, hitzaldia burutu baino lehen, Salaburuk ahotan hartu dituen goragoko auziez. Materialismoarekiko ez zait, egia esan, gehiegi axola eta, oinarriak aukeratzekotan, ez nituzke nik behintzat hor aukeraturiko. Gogoeta bera ere ez da, nik uste, garbiegia egungo egunean; bakuna, behintzat, ez. Ezin izan daiteke inor orain materialista Holbach edo are Engels izan zitezkeen moduan.

Ez dut ezagutzen puntu horri buruzko Chomsky-gandik datorren aitormen zuzenik: Salaburuk, ordea, nik baino hobeki ezagutzen du, aise hobeki, eta bere esanari nagokio. Bunge da, dudarik gabe, materialista, delako jarrera horren oihukari ozen han eta hemen, lehen eta orain, ageri denez gero.

Ukitu nahi nukeen puntua eztabaidagai bihurtzeko, egoki iruditzen zait Popper-en iritzia bidenabar bederen aipatzea. Hiru ‘mundu’ bereizten ditu,

bestek bezala: berriak, izenak dira, nik uste. Lehenbizikoan daude, besteak beste, bota dugun harriaren ibilera, eta harria bera, elurteak eta euri-jasak, landarearen loratzea, odolaren gorabeherak, baita gure garaun eta bizkar-muinean gertatzen diren gertari ezkutuagoak. Sentierak, halaz ere, irudipenak, oroitzapenak, pentsaketak eta horien gisakoak bigarrenekoak genituzke. Hirugarrenean, handizki jendea aurki daiteke: zenbaki-teoria eta zenbakiak berak, poemak, sinfoniak, gogoetak, filosofiak... Ik., Espainian oraintsu agertu delako, *El universo abierto*, 1984, 135.etik aurrera.

Pentsamolde bat baino gehiago izan daitezke honetaz, aldaera eta ñabardurak kontutan hartzen baditugu, batipat. Nik, egia esan, ontzat hartuko nuke Popper-ena, berak xedaturik utzi duen gisan. Ez da, noski, goragokorik beheragokorik gabe ete lehenbiziko mundua da gainerakoen funtsa. Ez du horrek esan nahi, ordea, ez direla goragokoak zein bere autonomiaren jabe. Ez zait zuzen iruditzen, har dezadan erakusgarri bakar bat, Bungek *Epistemologia*-n, 50 orr., dioena: “Hacemos de cuenta que hay conjuntos, relaciones, funciones, números, estructuras, proposiciones, teorías, hadas, brujas, etc. O sea, no sólo inventamos los objetos conceptuales sino también su modo de existencia...” Urrutitik ere ez dute eite gehiegirik zenbakiak, alde batetik, eta Tartaloak, bestetik. Batzuen izaera eta ibilera asmatu egiten ditugu, izan ere, besteak aurkitu. Albadadi, hor baitago, ezin konta ahaleko multzoan, Fermat-en ‘teorema handia’, XVII. mendez geroztik frogatzeke daukaguna.

Azterbide bezala arras probetxuzkoa delarik, hainbeste aurrerapen eta hobekuntza zor dizkiogunez gero, ez du halaz ere uste Popper-ek goragokoaren beheragokora soilte eta murrizterik dagoenik hondar eta apurrik utzi gabe. Mundu bakoitzaren barruan ere, badira horrelako jauziak: ez du uste, adibidez, kimika bera fisika huts bihur daitekeenik. Mailaz maila igotzean ohiturazko da zerbait berriren irteera eta azaleratzea. Soilketa eta murrizketa dugu beherakoan; nabarmentzea, beriz, gorakoan.

Nolanahi ere, hemen dihoakiguna bigarren mundua da, ez guztiok aho batez aitortzen dugun lehenbizikoa, ezta ere urrunegi dugun hirugarrena. Hortik dator Bungenen erasorik gogorrenen bat, 31. orr.: “El lenguaje está en la mente, no en el cerebro, y menos aún en la sociedad. Por consiguiente, todo fenómeno lingüístico debe explicarse en términos mentalistas. (Sin embargo, de cuando en cuando Chomsky rinde tributo a la neurociencia del futuro)”.

Portaeraz baizik (*behavior* delakoaz) kezkatzen ez denak ez du gogorik behar deusetarako. Gogoaz ez baita inondik arima, baizik eta ingelesez *mind* deritzana, eta *Language and mind* liburu baten azalean ipini zuena mentalista da, nolazpait ere. Ameriketan, ez zuten aurrekoek Bloomfieldez gero hitz hori gogoko ezta nabari denez Bungek ere, garaunen etsai ager daitekeelakoan edo. Nik neronek nonbait idatzi nuen: “Ahora que se ha levantado la veda que prohibía mentar la mente...”, eta Chomsky-z ari nintzen zuzen nahiz oker.

Pentsakizun kiribilduetan murgildurik ez dabilen edozeinek badaki, edo bederen uste du, baduela bere baitan barrunbe bat oharmentaren bidez (honela mintza banaiteke) ezagun duena. Berak (gutariko bakoitzak), bai; ez, ordea, bestek. Honela mintzatzen da Etxepareren *Amoros sekretuki dena* bere mai-teaz ari dela (5, 13):

*Ene gogoa balyaqui mayte vide nynduque,*

Eta bistan da ez dakiela, parean datorren perpausak argi baino argiago adierazten duenez:

*Ni erregue valin baninz erreguina liçate.*

Etxeparek ezpainetan duen “ni” horrek badaki, baita jakin behar ere, bere gogoa, berea delako. Ez, ordea, maiteak, besterena delako, hain zuzen, ez berea. Bera errege ez den bezalaxe, besteak ezin begiets dezake ezkutaria-ren gogoa, zehar bidez ez bada, honen esanak eta eginak direla medio. Gogoa nabari da norberarentzat; estari, beste nornahirentzat.

Nor geure baitan gaudeino, ez zaigu behin ere neke, eskolan ibili gabeak izan arren, “izkutu hondar” horretara daraman bidea aurkitzea, zabal-zabalik baitaukagu. Izena ere badu bideak, orain atzenduxe dabilena, haatik. Liburu ezagun bezain mardul eta trinko batek dioenez, “By 1940 both the concept of dualism and the word introspection [honen bila nenbilen] had largely disappeared from scientific psychology in the U.S., where behaviorism ruled.”

Ez zait aski arrazoi iruditzen, U.S. horietakoa ez naizelako, behar bada, izena baztertzeko. Are guttiago izenak izendatzen duen bidea, horretaz baliatzen garenez gero behin eta berriro: hizkuntz-intuiziora, gure nahiz bes-terena, jotzen dugun bakoitzean, urrutirago gabe. Chomsky-k, oker ez baldin banabil (ez baitut aurkitu bilatzen nuen pasarte), ez du funtsezko arazotzat hartzen, Bloomfield-tarren eta Bungerean gisan.

Hizkuntzalariari ezin eska diezaioke neurofisiologiari buruzko inolazko ezaguerarik, zerbait jakiteak kalterik egingo ez badio ere. Entzun eta (albal-di) uler daitezkeenez ari da, baita horrelakoak entzun eta ulerterazteko moduez ere. Badaki, nola ez ba?, garaunek, bizkarmuinak eta are horietan sortzen diren hari eta sareek, ahotik belarrira eta belarritik barrenago zabal-zen diren uhin eta zirrarekin. Hor konpon. Eginbide hori ez dagokio berari.

Har ditzagun Iztueta eta *Gipuzkoako dantzak*, eta berdin genuke antze-ko Aita Barandiaranen edo besteren lanak irakurtzea. Hor esaten zaigu, esa-terako, ezkerreko oina altxatzen duela dantzariak honeraino edo haraino, agur egiten duela ezker-eskuin txapela eskuan duela, ez dakit nolako kurpila josten duela hankekin... Eta azpian datzan neurofisiologia, zer? Zergatik ez esan nola dauden edo dabiltzan atergabe hezurak, zainak, nerbioak? Hori berori, jakina, hobe genuke molekula mailan ezagutu, eta ez dugu oraindik azken mugarririk jo. Iztuetari ez dio inork horrelakorik eskatu eta Bungek ez



du eskubiderik horrelakorik Chomsky-ri, nahiz gutariko edozeini, eskatzeko. Bestela ere, badugu eginkizunik aski eta gehiegi.

Azken-azkenik. Bat natorrela esango nuke Salabururekin, arazorik nagusienetan behintzat. Berdin du, gainera, horrela izan nahiz ez izan. Guri dagokiguna, ber-bertatik ukitzen gaituena, hemen (eta hemendik kanpo) erakutsi duen jakitea, gaitasuna eta prestasuna da. Hori baino hoberik Salaburuk befi erakusten duen prestutasuna da. Eta prestutasun hori dela medio, izango dugu irabazpiderik franko doai haietarik euskaldun guztiok. Eta erdal-dunek ez dute deus galduko.



**IGNACIO M.<sup>a</sup> ETXAIDEREN  
MENDEURRENA**

*Donostia, 1984-XI-30*



## INAZIO M.<sup>a</sup> ETXAIDE JAUNAREN MENDEURRENA

*Donostia, 1984, Azaroak 30*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren hitzak**

Jaun-Andreak:

Bihar, juxtu, beteko dira ehun urte Inazio M.<sup>a</sup> Etxaide jauna hemen Donostian jaio zela. Jaun honekin zorretan da gure Elkarte. Horregatik, eta zor hori aitortuz, aipamen hau egin nahi izan dugu haren oroitzapenetan.

Nik esango nuke kristautasuna, telefonoa eta euskara, hiru hauek izan zirela Etxaide zaharraren kezka nagusiak. Hala dirudi, behintzat, haren idazlanen kopurua ikusiz gero.

Azkue hil zenean, euskaltzainburua izendatua izan zen eta kargu horretan hil arte iraun zuen (11 urtez).

Urte txarrak ziren. Gauza asko egiteko ez zuen aukera handiegirik izan. Hala ere, haren garaian hasi zen Euskaltzaindia Biltzar ageriak antolatzen eta berrietan euskararen aldeko edo euskarari buruzko gaiak azaltzen eta aztertzen. Guztiok dugu gogoan X. Biltzarra, Euskaltzaindiak Iruñean eginberri duena. Orain bada, hamar Biltzar horietarik lau —lehenbiziko lauak—, Inazio M.<sup>a</sup> Etxaide jauna euskaltzainburu zela egin ziren. Lehenbizikoa 1956. urtean Arantzazun. Handik bi urtera bigarrena Bilbon. Hurrengo urtean hirugarrena Eibarren. Eta laugarrena 1961ean hemen Donostian.

*Euskera*, Euskaltzaindiaren aldizkaria ere, anitz urtez mututurik egon ondoren, haren garaian berpiztu zen.

Gizon zuzena, zintzoa, apala, eramapen eta fede handikoa: halakoa eza-gutu genuen guk Etxaide jauna.

Zuretik ezpala, dio Oihenartek. Aitaren euskal zaletasuna seme-alabetara isuri da. Hemen ditugu gaur Jon Etxaide eta Ana Mari Etxaide, biak euskaltzain urgazle eta lan bikainen egile.

Jon Etxaideren euskal lanen zerrenda oso luzea da, guztiok dakiten bezala. Ipuin, olerki, elaberri, historia lanak: denetarik egin du. Anitz urtez,

eta euskal literatura ia basamortu idor zenean, han ageri ziren Jon Etxaide-  
ren idazlanak oihu eta deiadar izan nahirik.



Ana Mari Etxaidek, berriz, urte luzetako nekea beregain hartuz, Atlas moduko inkesta famatu hura, hots, *Erizkizundi Irukoitza*, behar bezala oharreztatua eta Mapez hornitua, bi tomotan prestatu eta argitaraberi du, euskal Dialektologiaz arduratzen direnei tresna guztiz baliotsua eskainiz.

Bioi eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiet.

Eta nor biok baino egokiagorik Inazio M.<sup>a</sup> Etxaideren oroitzapen honetan mintzatzeko? Biek kontatuko digute laburzki nor zen Inazio M.<sup>a</sup> Etxaide jauna eta zer egin zuen.

## INAZIO MARIA ETXAIDE LIZASOAINen BIZITZA ETA LANAK

*Donostia, 1984-XI-30*

*Yon Etxaide-Ithartek*

### **TXIPI-AROA**

Ene aitaren jaiotzaren ehunurrena dela-eta (1884-1962), Euskaltzaindiak nire aita zenaz lerro batzuk eskatu dizkit. Saia gaitezen, bada, gure egin-beharrarekin betetzen.

Inazio Etxaide Etxebeste eta Maria Pilar Lizasoain Minondoren ezkontzatik sei seme-alaba jaio ziren Josefina eta Asuncion bi urtetsuko hilak. Ondoren: Maria, Inazio Maria, Elbira eta Ladislao.

Besteak beste, gure aita Donostian jaio zen 1884-ko Abenduaren lehenengoan eta biharamonean bataiatua izan zen Andre Mariaren (Santa Maria) elizan.

Bere txipi denbora aldizka Donostian eta aldizka Bergaran egin zuen, hiri honetan bere aitak oihal fabrika bat baitzuen —“La Algodonera de San Antonio”— zenbait soziorekin eresia. Gure izeba Elbirak honela dio garai honetaz: “Zuen aita beti izan zen onenik-onena, elizkoia, saiaturā, txit argia eta apaltasun haundikoa. Haur zela, estudioz kanpoko ordutan, edozer gauza ernegarrien bilgumak egiten lehiatzen omen zen. Bere adinari zegozkion liburuak erosten zituen eta geroni uzten zizkigun. Anaia zaharrena zēn aldetik, maiteki arduratzen zen zuen osaba Ladisez eta nitaz, aita baten moduan, gu nola atseginduko, batez ere Bergaran egiten genuēn bolaretan”.

Euskaraz mintzatzen al ziren Etxaide-Lizasoaindarrak? Ez dirudi senar-emazteek euskaraz egiten zutenik, eskuarki behintzat, baina haurrei erakusten franko saiatu ziren. Izeba Elbirak honela diotsa hitzez hitz: “Etxean dena euskaraz egiten genuen gure hartzaroan eta zure aita ez zen bere senideetatik gailendu honetan. Familian ongiena egiten zuena euskaraz ama zen. Ustedut, zure izeba Maria eta zure aita izan zirela gure senitartean euskarari luzaroena eutsi ziotenak”. Baina, gure aitak zioenez, erabat ahaztu omen zitzaion euskaraz hitz egiten, eta ulertu ere hutsaren urrengoa ulertzen omen zuen berriz ikasten hasi zenean. Ekin ere, 1907-gn. urtean ekin baitzion gure hizkuntza ikasteari, hogeitahiru urte zituelarik.

## IKASKUNTZAK

“Batxileratua bakarki egin zuen —dio gure izeba Elbirak—, zeren, urte erdia Donostian eginik eta beste erdia Bergaran, zaila egiten baitzitzaion ikastetxera joaten. Ikasle gorengoa izan zen, baina hala guztiz ere, apaltasuna izan zen beti haren ezaugarri. Sarritan, berak ezkututzen zuelako, gurasoek kanpotik jakiten zuten haren nota bikainen berri. Lagunen artean apostoladutza haundia egin zuen, batez ere karrera estudiantzerakoan”.

Beraz, batxileratua libre egin zuen eta 1894-ko urrian hasiz —hamar urte bete gabe—, 1900-garren urteko ekainean amaitu zuen, hamabost urtekoa zelarik. Aldi hartan batxileratuak sei urte zituen eta hala guztiz ere, bere adinari urtebete aurreraturik, 15 urtekin amaitu zuen, notarik bikainenak ateraz.

1900-gn. urteko Urrian hasi zen estudiantzen injinadore karrera, Bilboko eskolan sartzeko. Erakustetxe honetako Irazkaritzak, nik eskatutako argitasunak emanaz, honela erantzun zidan “El plan de estudios en vigor en los años comprendidos entre 1900 y 1906, comprendía una serie de asignaturas de Ingreso que su fallecido padre, Ignacio María Echaide Lizasoain aprobó en el curso 1900-1901. Los años de carrera que comprendía el citado plan de estudios eran cinco”.

Izeba Elbirak honela dio: “Zure aitak batxileratua eta karrera harrigarriko moduan egin zituen, Jaungoikoak talentu haundi baten jabe egin baitzuen eta iraukorra eta saiatua baitzen bidebatez. Industrietako injinadorea egiteko erabakia, matematiketarako zekarrèn gaitasunagatik hartu zuen, noski; halabaina, erabaki hau hartzeko sakon pentsatu zuen eta horretarako Gogo-Jardunak egin zituen Loiolan.

“Haren bizimodua Bilbon hiru ardatzen inguruan ari zen: Ikastetxera joan, buru-belarri estudiantzen jardun eta apostoladutza lanak egin bere buruari libro irizten zion txolarte guztietan. Luistarra zen eta lagunarte honen barruan, Jaun-done Bikendi Paulekoaren garitate lanetara emana zegoen, ohiturazko bisitak eginaz pobreen etxetara”.

Horrela, 1906-garren urtean, Abenduz, Industrietako Injinadoreen titulu jabe zen, 22 urte bete berriak zituelarik.

Karrera bukatuta atzerrira joan nahi izan zuen hizkuntzak ikasteko, baina bere gurasoek, arima gal zezakeen beldurrez ez zioten utzi eta berak burua makurtu zuen gurasoen esanetara. Ukapen hau ulertzen ez da zaila, senitarte integrista batez ari garela ausnartuz gero. Gurasoak beldur ziren mutila okertuko ote zen fedegiro eta moralgiro urriko herrialdetan, eta gure aitaren borondatea burdinezkoa izanarren gai horietan, ez zioten utzi joaten.

## GIPUZKOAKO TELEFONUAREN ZUZENDARI

1907-ko Agorrilaren (Abuztuaren) 29-an eman zion Diputazioak Injinadore kargua “Catastro Industrial” zeritzan sailaren buru egiteko. Nola sartu



zen Ahaldundegian? Oposizioz ala izendapenez? Don Constantino Aginaga jaunak argi eta garbi aditzera eman zidan gure aita oposiziorik gabe sartu zela Ahaldundegiko Injinadoretzan, eta orduko liberalek —asko edo gutxi—, kanpaina bati ekin omen zioten, Donostiako “La Voz de Guipúzcoa” egunorokotik batez ere, Josepe Itarte gure aitona —diputatu baitzen aldi hartan integristen izenean—, bere sui-gaiari gorde ziola-eta txoko eder hura. Honetaz gehieneko esan daitekeena da —eta gehitxo esatea deritzat—, “suigai nahi zezakeenari” gorde ziola, ene gurasoak ez baitziren aldi hartan senar-emaztegai ere. Ezkondu, 1915-eko Jorrail/Apirilaren 29-an ezkondu baitziren eta hiru hilabete bakarrik egin zuten nobiotzan. Gainera, 1907-an amak 14 urte besterik ez zituen. Beraz, gure aitona Itarte aitaren alde saiatu bazen, bi familiek zuten elkarrenganako adiskidetasunagatik izango zen baitipat eta beste zedozer integristuaren gogaidetasunak eraginda.

Dena dela, dio D. Constantino Aginaga jaunak, esku hobetan ez zitekeen eror Diputazioko injinadoretza. Alegia, gure aitona jokabidean aipatu dugun ahuleriarik izan baldin bazen ere, ez zutela Gipuzkoa guztian, injinadore azkarragorik, prestuagorik eta egokiagorik aurkituko. Hauetxek dira, politikaz liberal zèn jaun agurgarri baten hitzak eta iritziak gure aita integristaz.

Urrengo urtean, hots, 1908-ko Urtarrilaren 3-an, Probintzi-Mandatalgoak (Comisión Provincial) agindu zion Inazio Maria Etxaide jaunari, Probintzi Telefonu Sarearen (Red Telefónica Provincial) aurrekontu-estudio bat egin zezala.

Hemen kontu ez ditzakegun borroka eta istilu gogorren ondoren, Madrilgo Gobernariak baimena eman zion Gipuzkoako Ahaldundiari, Probintziaren lurralde osoan Telefonu Sarea hedatzeko eta esplotatu ahal izateko 35 urteko epean. Lege hau 1908-ko Hazaroaren 25-ean eman zen.

Ahaldundiak 1909-ko Epail/Martxoaren 9-an hartutako erabakiz, Inazio Maria Etxaide jauna, Probintziako Industria Injinadore eta Telefonu-Sare-Zuzendari izendatua izan zen. Hau, berez zetorrèn erabakia zen, zeren, gure aita 1908-garren urte haseratik okupatzen baitzen telefonuaren opaespenez (concesión) eta Sare hedatzeaz, eta aurrerantzean buru-belarri jardun beharko zuen telefonuaren planeamendu eta instalazio lanean, “urrutziketa” Gipuzkoako bazter guztietaraino iritsiko bazen.

Telefonua automatizatzeke garaia heldu zelarik, estudio sakon bat egin ondoren, Estokolmoko “Ericsson”en sistema onartzea erabaki zen eta Gipuzkoako Ahaldundiak pentsatu zuen beharrekoa zela nire aita eta bere ekipoko gizonak Estokolmora joatea eta halaxe joan ziren 1923-ko udazkenean, 1924 udan eta 1925-ko udaberrian, hogeitalauan gure aita buru zela eta beste bi urtetan Jenaro Mitxelena (Jefe de Construcciones) buru zelarik. Luzaro gabe, 1926-an alegia, automatizatua gelditu zen Donostia eta beronen 15 kilometroko ingurunea. Donostia Telefonu Munizipalak automatizatu zuen, Vicente Pradoren zuzendaritzapean.

Caballero-Arzuaga Ahaldundiburu izanak dio: “Denon begipean dago zer izan den Telefonua Gipuzkoan joandaneke 35 urtetan. Ez da izan hirixkarik, txipietan txipiena izanik ere, ez eta apartekoenik ere, telefonu zerbitzurik gabe. Esaera bazen Gipuzkoan, mendirik goituenetik hitz egin zitekeela telefonuz, eta halaxe da, izan ere, zeren Aizkorriren tontorpean, telefonu jabe den ostatu apal bat baitago.”

1944-garren urtean amaitu zen Gipuzkoako Ahaldundegiaren opaespina (konzesioa) eta Frankismoaren denbora beltz haietan ez zen berritu ahal izan. Telefonuaren buruzagitza 1949-ko Maiatzaren 9-an utzi zuen —edo hobeki esateko, utziarazi zioten— urte bereko Jorral/Apirilaren 14-ko Ministerio aginduz, zeren, “Compañía Telefónica Nacional”i eskuratu baitzitzaion beronen jabetasuna eta administrazioa. Gipuzkoako telefonuaren buru 41 urte egon zen eta 48 Ahaldundegiaren zerbitzuan. Telefonua eskuz aldatu aurretik, “Compañía Telefónica Nacional”en hitza lortu zuen, lagunarte honek bere karguko lehenen hamar urtetan, zatika-zatika, Gipuzkoa gutzia automatizatuko zutela. Aitortu behar da, agindutako urte mugan lortu ez bazuten ere, “Nacionalak” bere hitza betetzen jakin zuela.

Gipuzkoako Telefonuaren jabetasuna Espainiako Estatuari utzi beharra zeinen mingarri izan zitzaion ikusteko, D. Constantino Aginagari zuzendu zion eskutitz bat aldatuko dugu hitzez-hitz jatorrizko hizkuntzan. Hemendik igarri diezaiokegu, benetako momentutan, gure aitak lehengo lepotik zuela burua, gerlaz geroztik mututua bizirudien ere, gure Herriaren eskubideei zegokionetan.

“San Sebastián, 28 de diciembre de 1949”

Sr. D. Constantino Aguinaga  
(Abogado)  
ZARAUZ

“Mi querido amigo y expresidente:

*Acuso recibo de su cariñosa felicitación de Pascuas y Año Nuevo así como a su condolencia por los tragos amargos que estamos sufriendo con motivo del traspaso del teléfono a la Compañía Telefónica Nacional. Correspondo a las felicitaciones, deseándole toda clase de bendiciones del cielo para estas Navidades y año 1950.*

*En cuanto al dolor que estos acontecimientos producen, quizás sea el gipuzcoano (entre los que merecen nombre de tal) que mejor los sobrelleve, porque esto lo venía digiriendo desde el final de la guerra civil; y fui viéndolo todo; la ambición sin escrúpulos de una parte, el pesimismo, la falta de inteligencia, la falta de interés, la ausencia total de patriotismo de la otra. Pude comprobar con qué armas tan desiguales íbamos a luchar. Fuera de don José Múgica y algunas otras honrosas excepciones, de más mérito que peso, he*

*luchado solo. Así que el desenlace sólo ha sido la ceremonia de descubrir la lápida cuyo texto se conoce de antemano.*

*Aun así se podría hacer mucho pero creo que no se hará nada eficiente. Si siquiera constase una protesta firme y viril, me vería satisfecho.*

*Un abrazo de su antiguo y buen amigo, q.e.s.m.*

*Ignacio M.<sup>a</sup> Echaide”.*

Eskutitz honetatik igartzen zaio, beste agintekera baten mendean eta beste gizonekin Ahaldundegian, Telefonuaren jabetasuna salbagarri zela Gipuzkoarentzat, opaespen-legea berritu-araziz.

## GAZTERIA INTEGRISTAKO GUDARI ETA BURUZAGI

Antolin Mendiola jaunak dioenez (“Reseña histórica documentada sobre la formación de las Juventudes Integristas en Guipúzcoa”), Gipuzkoako izan zen Peninsula guztian eratu zen lehendabizikoa. Asmo honen dehardarra D. Jose Beñaranek bota zuen “La Constancia” zeritzan Integristen egunkarian, 1909-ko Agorri/Abuztuaren 20-an. Berehala berotu zen honetarako giroa eta Irailaren lehenengoan ezagutarazi zuten “Junta Organizadora” izenez osatutako taldea. D. Juan Olazabalek Gazteriaren araupidea oretu zuen.

Gipuzkoako “Junta Regional” zeritzana lau zatitan egin zuten, eskualde honen Epaikaritzatik arabera; hots, Donostia, Tolosa, Azpeitia eta Bergara.

1909-ko Irailaren 8-an egindako batzarrean eman zitzaion sortzea Integrista Gazteriari. Buru, D. Juan Olazabal egon zen. Batzarkideen artean jaun hauen izenak aipa ditzakegu: Inazio Maria Etxaide, Jose Beñaran, Bizente Zulaika, Seberiano Gorostidi, Luis Miner, Melkiades eta Luis Gorrotxategi, Jose Antonio Sánchez Guardamino, Franzisko Arizmendi, Luis Lizarraga, Antolin, Rufino eta Isidoro Mendiola (hirurak anaiak) eta Antonio eta Felipe Pérez Ormazabal. Batzar hartan Etxaide jauna Lehendakari aukeratua izan zen eta Beñaran jauna Lehendakaripeko.

Gure aitaren arikizuna, izugarria ez-ezik, neurritz gainekoa izan zen ezkongai denbora honetan; baina, ezkondata gero ere, jardunkizun batzuk baztertu beharrean aurkituarren, ez zuen atsedernaldi haundirik ezagutu. Izan ere, telefonuaren erakuntza lan itogarriaz gainera, Integrismuaren eta euskararen kausari ekin baitzion buru-belarri.

Haren artikuluak, gonferentziak, bilerak eta gazteen arteko apostoladu lanek ez zuten azkenik. Gau eta egun etengabe lanean aritzen zen, lo atsedinari ahalik eta denbora urriena eskainiz. Aldi hartan kolaboratu zuen, aurrena Donostian eta gero Santanderren ateratzen zèn “Cruz y Verdad”en,

Donostiako “El Pelayo”n eta “La Constancia”n, Barzelonako “El Integrista”n eta Madrilako “Biblioteca Lux” liburu sailean. Zoritxarrez, albistari horietatik “La Constancia” bakarrik aztertu ahal izan dut zenbakiz-zenbaki. Bestetatik ale bakar batzuk eskuratu ahal izan ditut. Donostiako “Cruz y Verdad”, eginahalak eginarren ez dut lumero bat bakarra topatu ahal izan. Badakigu, ordea, Beñaran jaunak adierazirik, aldizkari integrista honetan, nahiz Donostian atera zenean, nahiz Santanderrera aldatu zenean, gure aitak oparo kolaboratu zuela. Gaurkoz, soil-soil dakiguna da, “Cuentos contra el dinero” izenburuz iskribu sail bat argitara eman zuela 1918-ko Urriaren 10-etik 1919-ko Jorrail/Apirilaren 30-eraino. Honetaz gainera, ezkontaurre honetan gonferentziak eta mitinak eman zituen Gipuzkoa guztian zehar.

Alderdi Integristak, gure aitaren ezkontzaurre denbora honetan bi baztar (asamblea) hotsaundiko egin zituen, euren etxebarruko erakundeaz eta arikizunaz jarduteko. Lehenbizikoa Gasteizen egin zuten 1913-ko Agorrilaren 8-an, 9-an eta 10-ean. Bigarren bilera (asanblada) Donostian egin zuten 1914-ko Agorrilaren 14-an, 15-ean eta 16-an, idetsuko eginkizunez jarduteko. Gure aitaren gain zama gogorra jausi zen bietan Donostiako gazteriarren aurkezleri bezala, eta Donostiakoan bederen, dotrina integristaren alde hitzaldi bero bat egin zuten. 1915-eko Jorrail/Apirilaren 29-an, M. Dolores Itarte Alberdirekin ezkondu zen Zumarragan, hots, emaztearen jaioterrian. Irugarren “Asanblada” integrista Iruñean izan zen 1916-garren urtean eta gure aita han egon zen, baina 1917-garren urtean Barzelonan egindakoan ez zen egon. Bere ordez Beñaran joan zen lehendakari bezala.

Baina, Integrista gazterian, ez zuen integrismuaren alde bakarrik lan egin, neurri berean euskararen alde saiatu baitzen. Adigarri bezala aipa dezagun 1911-ko Ekainaren 22-an egin zuen gonferentzia, euskal hizkuntza zabaltzeko eta birpizteko jarraitu behar ditugun bideak erakutsiaz.

1910-ean, euskal-ikastaldiak ezarri zituen Integrista Gazterian, eta bera ta On Ramon Intzagarai, Euskaltzaindikoa izango zen apez jauna, aritzen ziren irakasle. Uste dut, erakustaldiok, ezkonduetakoan utzi behar izan zituela lehendakaritzarekin batera. Gure aitaren buru argiari eta burdinezko borondateari igarri ahal izateko, ohar gaitezen, 1907-gn. urtean ez zekiela, esate baterako, tutik ere euskaraz eta handik hiru urte barru, euskara erakusten ari zen integrista gazteen artean. Berak, ordea, ez zuen maisurik behar izan gure mintzaira ikasteko. Honetan eta beste zernahi ikasgaietan autodidakta bat izan zen gure aita.

Ez zen, ordea, honetan bukatu gure aitaren lana euskararekiko. Lehenengotik eratu zuen euskal-antzegile talde bat (gizonezkoena soilki, zeren integristek ez baitzuten onartzen inolaz, gizasemeak eta emakumeak elkarrekin jardutea), bera ere tarteko zelarik, eta horrelaxe, bera lehendakari egon zèn bitartean beinepein, obra bat euskaraz eta beste bat erdaraz ematen ziren negualdiko jaiegunetan. Gero, gure aitaren integrista taldea D. Juan Olazabalen partidutik separatu zenean, “La Cruz” asterokoaren lokaletan (Centro de

Actuación y Propaganda Católica) jarraitu zuten teatrua ematen. Egia esan, gerla aintzineko urtetan euskal emanaldiak aunitz urritu ziren, baitipat euskaldun publikua falta zitzaielako eta gure aita arikizun hauetatik atzeratua zegoelako.

Gure aitak, ordea, euskaltasunaren zutoin izan zèn bitartean Integrista Gazterian, ez zuen etsi garai hartako euskal-antzegintza far eragile eta funts urrikoak aurkezte hutsarekin. Gure antzegintzari goitasun eta kategoria haundiago bat eman nahirik, euskal-eres-antzegintza (musikadun antzegintza, zarzuela tankeran) sortzea gogoratu zitzaion. Asmo hau D. Manuel Lekuona apez jaunari agertu zion eta honela sortu ziren gure aitaren musikaz eta Lekuona jaunaren letraz “Azienda Publikua” eta “Eun dukat”, eta aitaren musikaz eta Jose Beñaran jaunaren letraz “San Juaneko gereziyak”.

Gure aitak, integristen pentsamendu politiku-sozial-erlijiosua erakutsi nahian, lau liburuxka argitaratu zituen bere gaztetan izen horiekintxe: “Sobre la organización de las Juventudes Integristas” (1911); “Las Juventudes Integristas y su labor interior” (1914); “El Espíritu Cristiano y el Integristismo” (1917); eta “Apuntes razonados sobre el Programa Integrista” (1923).

Lekuona apez jaunak aditzera ematen duenez, integrista gazteria buruzagitza uzterakoan (ezkondu beharrez), lantuak izan omen ziren, ez uzteko erregu eginaz, baina aitak bere ezina ulertarazi zien eta orduan Beñaran jauna hautatu zuten lehendakaritzat.

Beñaranek zioenez, gure aita D. Juan Olazabalen, hots alderdi integristako buruaren konfidantzako gizona omen zen, integristen artean haserrebideak sortzen hasi baino lehen. D. Juan Olazabalekin haserretzeko mutiburik haundiena, moral, bizimodu eta ohitura kontua izan omen zen.

Gure aitak esijitzen omen zuen integrista guztien bizimodua beren dotrinaren irudikoa izan zedila, hots, teoriak eta praktikak bat izan behar zutela integrista bezala agertu nahi zutenetan. D. Juan Olazabalek, ostera, bereizkuntza bat egin nahi zuen teoriaren eta praktikaren artean. Alegia, zorrotzak dotrinan, baina kristau bizimoduari halako zorrotasunik erantsi gabe, jendea neka eta aiena ez zedin, zeren bizimodu latza gutxi batzurentzat bakarrik baita eramangarri. Honetan ez zen konponketarik izan zorrotzen eta lasaien artean, eta orduan, Olazabalek, gure aita eta haren alderdikoak partititik bota zituen errebelizat salatuz. Uxatuok, “Centro de Actuación y Propaganda Católica” (CAPC) delako lagunartea irazan zuten (Donostiako Paseo de Colonen) eta asteroko bat atera “La Cruz” izenekoa 1928-garren urtean. Geroztik, talde honek, eskuin joera bizikoa izanarren, politika guduari utzi zion eta katolikutasun integraren alde borrokatzea izan zuten helburu nagusia.

## “LA CRUZ”EKO IRAZLE

Gure aitak “La Cruz” asterokoan egindako lana ikaragarrikoa izan zen. Hala ere ez zuen sekula firmatu bere izenez. Beti ez-izenak darabiltza,

hala nola “La Constancia”n, “El Pelayo”n, “El Integrista”n eta abar. “La Cruz”en erabili zituen ez-izenekin ez dugu zalantzarik batere, bere lan guztiak markatuak utzi baitzituen, baina bestetan badabiltzagu zenbait duda-muda. “La Cruz”en darabiltzan izengoitiak hoetxek dira: I.M.E., Hector, Heraclio, Hermógenes, Lisuarte, Pachico Pello, Lauco, Amarreco, Txomin Kirten, Amadis, Eloy, Eloy de Escoriza, Ignacio de Iciar, Ardián, Espladián, Rundfunk, Elisabet eta Nai det. Pérez Ormazabal jaunaren iritzian “Zortzico” ere segurutzat jo daiteke, nahiz eta bere markarik ez eraman. “La Constancia”n eta “El Pelayo”n segurutzat hauk jo ditzakegu: “El último de todos”, Lauco, Photo, I.M.E., N.D. (nai det), Nai det, Amarreco, Eloy de Escoriza, El Nuevo Censor, “El Propio Censor”. Pérez Ormazabal jaunak dioenez, “Zortzico” eta “Mutil” ere segurutzat jo daitezke. “Nerau” ere bera dela dirudi. “Chiqui”, “Echeveste” eta beste zenbait ez dira hain seguruak (hirugarren deitura Etxebeste zuen). “El Integrista”ko “Un amigo de X” ere segurua da, Beñaranek eta P. Ormazabalek diotenez.

“La Cruz”en, 1928-tik 1936-ra, hots, asteroko honen bizialdi zehar egindako lan oparoa bost sailetan bereiz dezakegu gaiei gagozkiela: Lizunke-riaz, Politikaz, Kristau Gogoaz, Euskalerriaz eta “Sobre el origen y parentesco del pueblo eúskaro y su idioma” izeneko artikulu saila.

“LIZUNKERIAZ” deritzan saila zati hauetan bereiz dezakegu: 1) Emakume mundukoiaz. 2) Zineaz eta teatruaz. 3) Ohituren moraltasunaz. 4) Liburu, eleberrri (nobela), aldizkari (errebista) eta albistariez (egunkariez). 5) Edergintza (arte) eta morala.

“POLITIKAZ” deritzana honela zati dezakegu: 1) Eliza, Legeriarekiko (estatuarekiko) eta Gizartearekiko (para la sociedad). 2) Alderdiak (partiduak), agintekerak (regímenes), agintariak eta buruzagi politikuak. 3) Integrista, intransjentzia eta bakar-agintea (diktadura). 4) Tolerantziak, libertateak, hauteskunde orokorraz (sufragio universal), demokraziaz, errepublikaz. 5) Sozialismua, komunismua, Rusia.

“KRISTAU GOGOAZ” ari dena bost sail hauetan bereiz dezakegu: 1) Kistau izpiritua eta katoliku goiburua (ideologia). 2) Katoliku ekintza. 3) Gizarte-gaiak. 4) Erlisioaren zer-ikusiak jakintzarekin eta ekonomiarekin. 5) Gizatasuna (humanismua).

“EUSKALERRIAZ” deritzakeguna hiru zatitan egin dezakegu: 1) Eskualdegoa (rejonalismua), Eusko-abertzaletasuna, Foruak, Araudia (estatutoa). 2) Euskara. 3) Zenbait gauzak.

Boskarren zatia deritzaiokegunak titulu hauxe darama: “Sobre el origen y parentesco del pueblo euskaro y su idioma”, 1935-garren urtean argitaratua, hamabost artikulutan, “Eloy” izenpean.

Galdera bat orain: demokrata ala absolutista zen gure aita? “La Cruz”eko artikuluetan argi eta garbi agertzen du bere nahitasuna gai honetan. Ez zen, inondik ere, gaurko demokrazien aldeko, baina halaber ez zegoen

absolutismoaren alde. Hauteskunde orokorra —sufragio universal—, deabruaren asmamenik txarrenetakoa zen beretzat, aldi hartako Aita Sainduak hala aldarrikatu baitzuten. Bestalde, absolutismoa ere ez zuen “berez” batere maite, baina Estatu baten egoera kaos batera, anarkia batera iritsiz gero, beharrezkoa irizten zion diktadurari; ez, ordea, betiko, gauzak zuzendu eta ordena sendotu artean baizik. Pentsabide honi jarraituz jarri zen Primo de Riveraren diktaduraren alde lehendabizi eta Francoren absolutismoaren alde gero. Baina beti aldarrikatu izan zuen diktadurak ez zuela gobernu sistema luzakor bat izan behar, baizik eta zigor pasakor bat, anarkiaren eta desordenaren hezigarri. Beraz, alderdi batetik, libertate neurritsu baten zalea zen, baina bestetik, Espainiako politikaren martxa ikusirik, diktadura beharrezkoa zela zeritzon. Beste hitzez, Frantziako iraultzak ekarri zuen “Liberté, Egalité, Fraternité” delako demokraziaren etsai porrokatua zen, Erlisioaren eta Eskualdegoaren (errejionalismoaren) etsai zen aldetik batez ere. Euskaldun demokrazia tradizionala zen bere ideala, gure Foruen izpiritu demokratikua alegia. Esan bezala, hauteskunde orokorra higuigarri zitzaion. Ostera, etxondo jabetasunak eman ohi duen boto eskubidea on zeritzon. Botodunak zer galdua eduki dezala zen bere pentsamoldea, zer galdurik ez duenak ez baitu ezer arriskatzen, nazio guztia hankaz gora joanarren.

Kristau izpirituari dagokion atalean berriz, zer salaketak bere alderdiko katolikuen kontra! Katolikurik gehienak izenez bakarrik direla esaten du non-nahi, baina barrutik materialismoa dariotela. Katoliku lagunabarretan komunismuaren beldur-ikara izugarri bat nabaitzen dela dio, euren ondasunak ken diezazkien beldurrez, baina ez da somatzen berengan inondikako kristau bertuterik. Jentilak bezala bizi dira ohitura lasaikerietan eta lagun hurkoaganako amodiorik ezean. Euren helburu bakarra dirua nola edo hala pilatu eta ahalik ondoena bizitzea dela dio, girstinoaren goiburua (ideala) mundu honetakoa izango bailitzen. Baina, horixe bai, kristauok eskubitiar zintzo agertzen dira beti, baibaitakite sobera beren interesak sustengatzeko Elizaren babesa mesedegarri zaiela. Baina konbenientziaz Elizaren alde ageri den girstinoak ez du Jaungoikoaren baitan konfidentzarik...

Ebanjelioaz honela dio: “Ebanjelioak irakurri dituenak igarriko dio munduan ez dela iratzi eta ez iratziko sekula horrelako libururik”... “Gainera, Ebanjelioa, iratzi zèn garaiari milaka urtetan aurreratu zitzaion liburua da. Haren ideiak ez dira mundu hartako denborakoak. Eta beste erlisio legediekin (kodigoekin) alderatzen baldin badugu, laster asko nabaitzen da Ebanjelioaren gehiagotasuna, ez baitu ipuin eta mitorik, ez eta izar teoria tajugabekorik edo hiri-leggedi (código civil) atzeratu baten agindurik. Izan ere, legedi horien egileek —Korana adigarri— ezin baitzioten itzul egin euren aldiko bizigiroari, eta Ebanjelioa berriz, aldi orotakoa da eta aro guztien gainetik dago. Sekula zahartzen ez den legedia da”.

Bi hitz orain tolerantziari buruz. Denok dakigu integristek lau haizetara oihukatzen zutela “katolikutasunaren intransijentzi saindua”. Gai honetaz honela dio: “Norekin behar dugu izan bizikide? Gure lagun hurko guztiekin,

onekin eta gaitzoeekin, eskubikoekin eta ezkerrekoekin, garitate legeak ez baitu inor baztertzen. Giristinoak ez dezake tolerantziarik ameti ideia txarrekiko, Elizak gaitz-etsirik dauzkan okerrekiko; batzuetan, ideioek eta okerrok sostentzen dituzten pertsonak gudukatu behar ditugu, baina beti zuzentasunari eta garitateari kalterik egiteke". Eta "ez min egiteko gogoz, baizik eta beste batzuk gerizatzeko (preservar) euren arimei egin diezaiketen kalteaz".

Badakigu, inork esan gabe, gaurko belaunaldi katolikuari (eta zer esanik ez, ez denari) gehiegizkoa irudituko zaiola, lizunkeria dela-eta sustengatzen zuen irizpide zorrotza. Honetaz esan dezakegu gure aitak hobekuntzarik haundiena (la máxima perfección) bilatzen zuela eta postura honetan jarrita bere ideiak txit goreskarriak dira. Eztabaidan jarri behar dena da Jaungoikozko suz irakiten dagoen "elite" baten ideala lagunabarrari esijitzea bidezkoa ote den ala "masa" honekin, D. Juan Olazabalek nahi zuen bezala, ulerkorra-goa, zabalagoa eta barkaberagoa izan behar ote den. Alegia, adigarri batez baliaturik esan dezakegu komentu batean eraman ohi den otoitzezko eta bertutezko bizimodu zorrotza guztiz goraiagarria dela, beti gizartearen mesedegarri eta behin ere ez kaltegarri. Baina, bihur ote dezakegu mundu guztia komentu? Hor dago koxka.

Euskalerrinari dagozkionetan alegia, bestetan bezain biziak eta ernegariak dira gure aitaren ideiak. Integristua, Euskalerrri barrutikoa behintzat, benetan eta zinez eskualdekoa (regionalista) zen, nahiz eta bere arikizunik funtsezkoena eskualdegoaren alde borrokatzea ez izan. Hau, bigarren edo hirugarren mailako auzia zen integrismuaren baitan eta honetxegatik ez ziren behin ere gailendu integristak gure eskubideak defendatzen, baina ezin ukatzkoa da, asko edo gutxi, fuerista zinezkoak eta euskararen aldekoak zirela.

Hala ere, gure aitak hotz bilatu zuen euskal-giroa integristen artean eta bera izan zen berotzailerik nagusia bai integrista gazterian eta bai "La Cruz"eko taldean (gogoan eduki astekari honek orrialde bat euskaraz zekarela beti).

Errepublika etorrita abertzaleak jo eta ke hasi zirenean izen bateko edo besteko autonomia Euskalerrriarentzat lortzeko, gure aita ez zegoen inondik ere lo egoteko. Barruan itsatsirik zeraman eskualdego (regionalismo) gogoak eraginik, ekin zion sendo eta kementsu Estatutoaren aldeko kanpainari, sobra ikusten baitzuen ez zegoela beste biderik gure herriak bere nortasuna salba zezan.

Errepublikaren lehendabiziko urtean, eusko-abertzaleen eta beldurraren eraginpean, eskubitiar partidu denak edo gehienak autonomista eta Estatutuzale (Lizarrako Araudia) agertu ziren, baina gerora, aurreneko "gorri" ikararen ondoren, sendotzen eta beren buruaren jabe egiten hasi zirenean, eskubitiarrek kendu zuten kareta eta Araudi berria laikoa zen aitzakian, gure libertate legedi honen etsairik amorratuena bihurtu ziren.

Baina nor eskubi alderditan "La Cruz"eko saileko integristak baino Jaungoikozale eta katoliku finago? Horra, bada, hauek, batzaz beste, ez zioten



oniritzi eskubitiarren Araudi kontrako posturari eta “La Cruz”etik Estatutoaren alde ekin zioten —nahiz eta ez abertzaleek bezain sutu—, partidu eskubitiarrak hainbeste ikaratu zituen Araudi laikoa, Euskalerrarentzat ez-ezik, erlisoarentzat ere mesedegarri zela aditzera emanaz.

“Jakinarean ganean jar dezagun —diotsa gure aitak ‘La Cruz’en 1933-ko Urriaren 29-an—, Araudia (Estatutoa), Jaungoikoak gizonaren eztabaidapean jarri dituen auzigaien artekoa dela.

“Zilegi da Estatutoaren alde botoa ematea (1); gure Jaun Apezpikuak hala adiarazi baitu.

“Ona al da Araudia? Txarra al da Araudia?”

“Autonomia agintekerak oro, bitez Lege-Zaharrak (Foruak), bedi Araudia, gure aburuz aurrerapen bat da, hobekuntza bat aurkezten du berez”.

Eta gero: “Erlisioari eta moralari dagokionez, berriz, uste dugu, Araudiak, berez, mesederik eta kalterik ez eginarren, euskaldun herriak aukeraturako agintariekin, goitu egin dezaketela apika (erlisioa eta moralak), eta sekula ez urritu, hauen erlisiozaletasuna gauza nabaria baita Peninsulako herri guztien artean. Araudia, nahiz eta gauza materialetan, zer eskutan erori, huraxeda”.

“El Debate” Madrilera egunkariak artikulu bat egin zuenean gure autonomia eskubidea atakaturik, aitak, besteren artean honela zioen “La Cruz”en: “Konponketa (alegia, Espainiak Gipuzkoarekin eta beste eusko estatuekin egin zuena) astun al zitzaien (Espainiari)? Ez zukeen Espainiak salatu baizik eta bi parteak konpromisutik libre gelditzen ziren. Baina indarrak baliatzea agintekera higuigarri bat bizkarreratzeko, Gaztelarren gizontasunean fidaturik, Gaztelarekin batu zenari egin liezaiokeen bidegabekeriarik haundiena eta eskergabekeriarik okaztagarriena da”.

Ondoren dehadar egiten du: “Abertzaletasuna ez zuen sortarazi Arana-Goirik; Cánovasek eta liberalismoak eman zioten sortze. Arana-Goiri ez zen izan, *gubernari haundiak* (“El Debate”k aipatu artikuluan Cánovasi deitzen zion bezala) Euskalerrian pilatu zituen sugaiak garretan jarri zituen txinparta baizik”.

Bihotz hunkigarri da, gure Foru eskubideen irudigarri bilbatutako ipuina Pérez eta Garagorriren artean. Bi pertsona hauek, Espainia eta Euskalerria aurkeztuz, itun bat, konponketa bat dagite etxe batean, laguntasun onean, elkarrekin bizitzeko. Baina Garagorrik, horretarako, baldintza hau jartzen du aurretik: bakoitzak norbere ondasunak goberna ditzala. Pérez, gataztaile eta

---

(1) Hau, eskubitiarrei erantzunaz diotsa, zeren, hauek ziotenez, katolikoari ez zitzaien zilegi estatutoaren alde botoa ematea eta sekula ez zioten barkatu D. Mateo Mujika Gasteizko apezpiku jaunari Estatutoaren aldeko adierazpen hau.

hondatzaile izaki ordea. Ez dizu aski berearekin, eta orduan, bortitz delarik, indarpean behartzen du Garagorri bion ondasunak berak gobernatzea. Pérezek, dio hitzez-hitzez gure aitak, “muturrekoka lurreratzen du Garagorri, ostikatzen du, zauritzen du, eta menderatua dakusanean, dokumentu bat firmarazten dio, haren ondasun guztien kontugintza, administrazioa, alegia, Pérezi eskuratuz”. Euskalerrriaren libertate eskubideaz zuen sentipena ezin daiteke garbiago agertu.

Honela dio beste artikulua batean eusko-abertzaleez: “Esanak badabilta Abertzaleek ez dutela maite Espainia. Gerta liteke honetaz, esanak baino askoz urriago izatea izanak; baina, baieztatu dezakegu inor ez dagoela behartua maitatzen, liberalismuaren etorreraz gero eduki dituen gobernuen bidez halako irain eta bidegabe haundiak Euskalerrriari egin dizkion nazio bat. Etsaiak maitatzeko eginbidea, obligazioa, pertsonarekiko da, baina ez sorterriekiko. Porta bitez ongi gobernu espainolak Euskalerrriarekin eta ikusiko dute nola hau esker-on irakinetan jarriko zaien, nahiz zuzenbidez dagokiona bakarrik eman”.

Beste mila adigarri atera genitzakeen, gure aitak Euskalerrriaren autonomi-eskubideaz, Araudiaz, abertzaletasunaz eta abar nola pentsatzen zuen aditzera emanaz, baina, biografia laburpen honetan ez da posible. Laster argitara nahi nukeen biografia osoan ikusi ahal izanen ditu guztiok gure irakurleak.

## INTEGRISTAK ETA DONOSTIAKO GORRIALDIA

Donostiako kuartelak errenditu bezain laster, hots, kalean tiro perillik gabe ibil zitekeenean, gure aita lanera joaten hasi zen Telefonu etxera normaliki. Beraz, ez zen gorrialdian ezkutatua egon.

“Nola portatu ziren ezkertiarrek gure aitarekin, 1936-garren urtean, gela hasi zenetik Franco eta Molaren tropak sartu ziren arte?, galdetu nion Gregorio Aizpurua jaunari, hainbeste urtetan gure aitaren langile zintzo eta leiala izandakoari. “Oso ondo —erantzun zidan honek—, Telefonu sailekoak beinepein”. Gogoan eduki behar da, “Comisaria de Comunicaciones”en buru bezala Jesus Larrañaga eta Ricardo Urdondo komunistak zirela telefonuaren kargudun. Bi jaun hauek errespetu eta estimu handian omen zuten gure aita eta behin ere ez omen zien haren kontra hitz txarrik entzun, nahiz eta sobera jakin gure aitak politikan zer ideiak zituen.

Gregorio Aizpurua jauna erantzukizun estuan jarri nuen, niretzat nahitanahiezkoa zen galdera bat egin nionean: alegia, bere ustez gure aitak detentua izateko arriskurik izan ote zuen. Egonalditxo bat eginda eta irriabartxo bat ezpainetan, baina zalantzarik egiteke, erantzun zidan, berak konfidantza oso-osoa zuela ez zutela atxilotuko. Izan ere, gure aita estimatzen eta maitatzen baitzuten Telefonuko enplegatu guztiek, eskubitiar, ezkertiar eta abertzaleak eta batzuk influentzia handi samarra zuten Errepublikako Goberna-

ritzan. Esate baterako, Consuelo Aranburu telefonista izandakoaren senarra, Eduardo Campoamor jauna, Cuencako gobernari izandakoa eta Gregorio Aizpurua berbera, arestian esan dugun bezala, Larrañagaren adiskide mina, eta hauek ernai zeuden, gure aitari zerbait gerta balekio, haren alde edozer gauza egiteko. “Zure aitak denei on egiten zien eta politikan ez zen nabarmentzen —esan zidan Gregoriok—; horregatik Telefonuan kolore orotakoek maite zuten”. Beraz, Telefonu barrukoan arteko salaketarik behintzat ezinezkoa zeritzon Gregorioren.

Beñaran jaunak esan zidan Larrañagaz: “Era un hombre sano del Pais”, eta ondoren kontatu zidan nola salbatu zuen Lorenzo Martínez Labayen, “La Cruz”en zuzendari izandakoa eta geroxeago fraide sartu zena Evorako Cartuxa de Scala de Coeli-n.

Beñaran jaunak esan zidanez, afusilatu bat izan zuten “La Cruz”eko sailekoek gorriengandik. Gorrotxategi zeritzan bat, baina ez Gorrotxategi integrista ezagunetakoa, baizik eta haiekin zer ikusirik ez zuena eta batere aktibista ez zena. Ez omen zuten, ordea, politikagatik hil, asunto pertsonalagatik baizik, bere etsai batek salatuta. Beste zenbait detentatuak izan ziren, hala nola Beñaran, Esnoz, Martínez Labayen, Luis Gorrotxategi (hau, bai, aktibista zen) eta beste; baina deklarazioak hartu eta kalera bidaldu zituzten.

## ZUZENTASUNA GAUZA GUZTIEN GAINETIK

1934-garren urtean, mekaniku nor-gehiagoka bat aluntziatu zuen Gipuzkoako Ahaldundiak “Instituto de Higiene”ko txofertzarako. Egia esan jestore radikalek konkurso gabe eman nahi izan zioten lantoki hau beren ideietako adiskide bati, baina gure aitaren oposizioari ezin buru eginik, ontzat eman zuten nor-gehiagoka egitea.

Hogei izan ziren izena emandakoak eta zazpi gutxiago azterketara aurkeztutakoak. Aitari maiz aditu nionez, azterpenik onena, alde handiz, Claudio Oliden zeritzan batek egin omen zuen. Baina, hala ere, diputatu radikalek setatsu omen zirauten lanpostua beren ideietako adiskideari eman nahian. Ahalegin guztiak egin zituzten gure aita beren nahikundera makurtarazteko, baina ez zuten lortu. Gure aitak argi eta garbi aditzera eman zien, berak ez zuela azterketaren akta firmatuko, lanpostua Olideni emateko ez bazen. Orduan, errepublikazale “demokratok” burua makurtu behar izan zuten, gure aitaren firmarik gabe ez baitzegoen deus egiterik.

Norbaitek pentsa dezake, ordea, gure aitak norbere interesez joka zeza-keela Olidenen alde eta ez zuzentasunaren izpirituz, alegia, delako Oliden jaunagatik interesatu zela nahiz adiskidetasunez, nahiz eskubitiar izan zite-keelako.

Honetaz esan beharra daukat gure aitak ez zuela ezagutu ere egiten Oli-dentarren senitartea eta ideia politikuei dagokienez, Inozentio Oliden semeak aitorturik dakit bere aita burutik oinetarainoko abertzalea zela. Gudateak

senitarte osoa Nafarroako Olaztin (Olazagutia) harrapatu omen zuen (emaztea hangoa baitzuen), eta Claudio, berehalaxe, bere sentimenduei jarraiki, Beasainera pasa omen zen mendiz eta Donostiako bere lantokian lotu omen zuen bere burua, gerratean hain premiazkoak zirèn zerbitzutan jarduteko. Halaxe egin zuen Bizkaiko kanpaina guztia eta bere familia Bilbora eraman ahal izan zuen Herriarteko Gurutze Gorriaren bitartez eta hemendik Frantziara igaro ziren gero. Bera preso hartu zuten eta denborarekin Francoren guda lostera inkorporatu. Gerla bukatuta etxeratu zen, baina, handik laster, ezagun batek salatuta, gartzelan eduki zuten hemezortzi hilabetez. Beraz, argi dago gure aitak ez zuela komenientziatzko alderdikeria hartu bere postura, alegia, eskubitiar bati, edo garai haietan esango zuketen bezala, "fasista" bati laguntzearren.

Gure aitaren asmo bakarra, gauza guztien gainetik justizia egitea izan zen, nahiz-eta jokabide honek ondoren kaltegarrienak ekarri behar. Irakur, bestela, gure aitak Claudio Oliden jaunari egindako eskutitz hau:

*San Sebastián, 10 diciembre 1934*

*Sr. D. Claudio Oliden*

*Presente*

*Mi querido amigo; mucho he agradecido el obsequio que tuvo la atención de remitirme el día 7. Así se lo manifesté a su hermana y se lo repito hoy. Siento únicamente que se haya creído usted obligado para conmigo, siendo así que yo no hice más que cumplir con un estricto deber de justicia, de faltar al cual me hubiese remordido la conciencia toda la vida. Siento también que haya sido usted tan espléndido, pues, aun suponiendo que yo fuese acreedor a agradecimiento, era excesivo el regalo. Desde luego, le ruego encarecidamente que este regalo sea el último, pues, ni quisiera serle a usted gravoso, ni es necesario ya que de sobra conozco sus buenos sentimientos que es lo que principalmente se agradece en los regalos.*

*Con este motivo queda de usted atento amigo y S.S.*

*q.e.s.m.*

*Ignacio M.<sup>a</sup> Echaide*

Horrelaxe egin zen Instituto de Higieneko lanpostuaren jabe Claudio Oliden, Ahaldundegiko jostoreen jauntxokeria guztien gainetik. Izendapena honela ageri da Diputazioko fixetan: Claudio Oliden Indart. Nombramiento: 13 septiembre 1934. Toma de posesión: 26 septiembre 1934. Cargo: Mecánico del Instituto de Higiene. Zorigaitzez, gutxi iraun zion karguak, Bizkaira joatearekin galdu beharra izan baitzuen. Esan beharrik ez da, gure aitak eratzten zituén azterpenaldi guztietan bezala, euskal-esamina premiazkoa zela.

Halaber, gure aitak parte hartzen zuen lantegietako bazkari orotan, ez zen faltatzen mahai-azkenetan bere ezpainetatik irtendako euskal-hitzaldi goxo bat. Hain zuzen, Inocencio Olidenek esan zidan ez zaiola behin ere ahaztuko Donostiako Banco de San Sebastiánnek 1960-garren urtean Arantzazun egin zuen bilera anaikor batean, zeinen bihotzez hitz egin zien euskaraz mahai-azkenetan. Izan ere, une guztiez baliatzen baitzekien bere barruak zerion euskal-amodioa kanpora iraultzeko. Gure aita garai hartan Banku horretako aholkari zen eta Oliden gaztea (1) orduan eta orain bertako enplegatua. Horra nola, lehendabizi Oliden zaharrak eta gero gazteak izan zuten gure aitarekin zer ikusia.

## GERLA ONDORENAK ETA ZAHARTZAROA

Gure anaiarteko gerlak Euskalerrria oinazetan irauli zuen, eta denok dakigunez, zigorrak ikaragarritzakoak izan ziren. Hemen gogoratu beharra daukagu gure aitak Telefonuko pertsekutatuen alde egin zuen lan bikaina. Gure biografia osoan xehetasun guztiz ari gaituzu, baina biografia laburtu honetan ez da posible eta bakar-bakarrik aipatuko dugu norekin egin zituen bere ahaleginak gartzelatik ateratzeko, herbestetik erakartzeko eta galdutako lanpostuaren ordezkokoak emateko.

**Andre Lorenza Aranburu (Errepublikazalea):** Telefonista ogibidez. Biz-pahiru urte Frantzian egon ondoren aterpeturik, Donostiara etorri eta lana aurkitu zion hiri honetako “Alfa” josteko makinaren dendan. Biografia osoan azaltzen da emakume honek eduki zuen kartazko har-emanaren gure aitarekin exiliatua egon zela bitartean.

**Maria Martínez Ordozgoiti (Abertzalea):** Telefonista ogibidez. Lanpostutik jaurtikia izan zen eta gure aitak aurkitu zion lantokia Donostiako Hotel María Cristinan.

**Luzia Martínez Ordozgoiti (Abertzalea):** Telefonista ogibidez. Mariaren ahizpa. Luzia, Maria bezala, presondegian eduki zuten eta Telefonutik bota. Espedientea egin ziotenean Telefonutik botatzeko, gure aitak Luziaren alde aparteko defentsa egin zuen, ordu laurden batean isildu gabe jardunaz. Orduan, ahaldun (diputatu) baten proposamenduz, erabakia hartu omen zuten gure aitari mandatalgo **garbituzalera** (comisión de expurgo) ez gehiago hotsegitea, bere mendeko enplegatuak buru-belarri defendatzen zituelako. Esan eta egin, ez zuten gehiago deitu eta jendea beren gisa “garbitu” zuten. 1942-ko Hazaroan lortu zuen berriz Telefonuan sartzea.

**Jenaro Mitxelena (Abertzalea):** “Jefe de Construcciones de la Red” (Sare eraikintza buruzagi). Oiartzuarra. Gerrateak Palenzian harrapatu zuen,

---

(1) Nik Oliden zaharra, Claudio alegia, ez nuen ezagutu, zeren mainada honekin har-emanean jarri nintzaneko, hilik baitzen.

hots, “zona nacional” zeritzatenean. Soltxaga gudaiburuak bere babesa eskaini zion, oso adiskide baitziren elkarrekin, baina hala ere 1936-ko Urrian atxilotu zuten eta afusilatua izateko arrisku haundian egon zen. Soltxaga frentean zegoelako eta edozein egunean hil zezaketelako, gure aitak eta haren familiak gudaiburuaren emaztearengana jo zuten (Pilar Lizasoain, gure aitarengana lehengusina) eta honek lortu zuen fiantza batekin kaleratzea. Heriotze seguru batetik libratu zuten. Ene aitaren biografian xehetasun guztiak dakartzat. Hala ere berriro atxilotu zuten eta hamabost hilabeteetan preso eduki. Oraingoan ere Soltxaga gudaiburuari esker libratu zen. “Comisión de expurgo” delakoak lantegitik bota zuten eta hiru urte luzetan ez zuten berriz onartu.

**Felipe Abascal (Sozialista):** Donostiako tranbian kobratzaile. Mutikotan Integrista Gazteriara joaten zen eta gure aitak Donostiako tranbian sartu zuen kobradore. Santanderren preso hartu zuten eta Donostiara ekarri ondoren, gerla-epai bat egin zioten eta heriotzera kondenatu. Norbaitek gure aitari abisatu zion gizon hura hiltzera zoazela. Aitak berekin egon nahi izan zuen, baina ez dut uste lortu zuenik. Zezaketen jendearekin hitz egin zuen, arren, salbatzeko ahaleginak egin zitatzela eskatuz. Dena izan zen alferrik. Batez ere, aitak esan zigunez, eskubitiar estremista baten erruz. Hau, buru-belarri saiatu omen zen Abascal gizajoa gauza guztien gainetik akaba zezaten eta haren alde zebiltzane (nire aitari eta), amorruez beterik honelatsu esan zion: “Con esta ralea de hombres hay que terminar de una vez para siempre”. Haren aitorleak esanik dakigu, Felipe aitortza on bat eginda hil zela.

Espainiako gerla amaitu, eta munduko legea jarraituz, atseginak baino atsekabeak gehiago ezagutuz urtetan aurrera doa. D. Constantino Aginagari 1960-ko Urtarrilaren 7-an egindako eskutitz batean honela dio: *“Me desea Vd. muchos años de vida y de tranquilidad y no hay, para qué decir, que yo para Vd. deseo lo mismo. Pero en lo que a mí atañe, prefiero la vida buena (“zuzena” esan nahi du eta ez ongi bizitzea) a la larga y en cuanto a la tranquilidad, nunca será mucha. Nacimos para luchar y en esa lucha, desagradable siempre, debemos procurar encontrar la paz, esa paz que acompaña a la conciencia tranquila y al cumplimiento del deber”*.

Aunitz sufrimenduren artean, ordea, pozaldiak ere ezagutu zituen gure aitak bere bizitzaren beheara beharrean. Batetik, 1940-an “Alfa” josteko makinetan Kontseilari izendatu zuten eta nonbait esanik gara langileen hobekuntzarako egin zituén ahaleginak; baita ere nola Eibarko batzarretan, “Alfa”n alegia, euskaraz mintzatzen zèn langile euskaldunen pozgarri eta 1945-ean Zarauzko “Muebles Alfa”ren Kontseilari izendatu zuten. Baina guztihonek baino poztasun haundiagoa eman ziola esango nuke Euskaltzaindian sartzeak. Euskal-Akademia 1942-ko beldur giroan, bere burua lurpetik atera nahian hasi bezain laster, euskaltzain oso izendatu zuten Epail/Martxoaren 26-an, Juan Carlos Guerrak utzitako hutsunea betetzeko, eta bere kargu berriaren jabe egin zen Ekainaren 24-an. Akademiako sarrerara hitzaldia “Desarrollo de las Conjugaciones Euskaras” liburu ederrean ikus daiteke, 507-gn.

paian izenburu honekin: “Jatorrizko euskeraren azterpenaldia” (Ensayo sobre el primitivo euskera). Gaztelaniaz egindako lan honetan atzizkitza eta aditza estudiatzen ditu bereiziki. Erantzuna Azkue jaunak egin zion.

Bi pozaldi hauen atzetik, bi atsekabe haundi heldu zitzaizkion, bat ustekabekoa eta bestea bideak zekarrena. Lehenbizikoa emaztearen galtzea, 1947-ko Irailaren 1-ean. Gure ama maitea gaizki operatutako bozio batek eraman zuen gauecik goizera, ordu batzuetako epean.

Bigarrena berez zetorren. “Compañía Telefónica Nacional”ekoak zain-zain zeuden opaespen-epea (plazo de concesión) noiz amaituko, beren hatzazpar luzeak gure Telefonuari botatzeko. Beste giro politiku batean, zalantzarik gabe, opaespenaren berrikuntza bat ardietsiko zen. Baina, 1949-garren urtean ezin zitekeen horrelako ametsik egin, zeren, Kontzieto Ekonomikua eta gure mikelete ahortzi ezinak kendu zizkigun agintekerak laguntza bete-betea ematen baitzion Espainiako Telefonitari. Gure aitaren oinazea eta mina ikusi dugu Aginaga jaunari egindako eskutitz batean, oihurik garratzenak eginaz aldi hartako Ahaldundiaren aurka, alegia, lagunarte hau osatzen zuten gizonek axolarik ez zutela geronen interesak defendatzeko.

Bi nahigabe astun hauen ondoren, bere bizitzako pozaldirik haundienezko bat ezagutu zuen, Euskaltzainburu izendatua izan zelarik, 1951-ko Hazilaren 3-an, orduraino buruzagi izandako Azkue tantaia hilda gero. Gure aitarentzat Euskaltzaindia izan zen bere zahartzaro bizitzaren betegarri, haurrak hazi, emaztea galdu eta Telefonutik ostiko polit batez —baina ostikoa beti ostiko— bota zutenaz gero. Euskaltzaindia izan zen bere atsekabe eta samintasunen eztigarri, eta batez ere ogi-lanaroa amaituz gero, berari eskaini zizkion gelditzen zitzaizkion kemenak oro.

Beste mugaldi pozgarri bat izan zen aitarentzat “Encomienda de Alfonso X el Sabio” eman ziotenekoa. Jose Maria Caballero Arzuaga jaunak, aldi hartan Gipuzkoako Ahaldundiko Lehendakari, 1953-ko Urriaren 8-an egin zion eskabide Espainiako Gobernariari, gure aita “Alfonso X el Sabio” izeneko ordenean onartua izateko. 1953-ko Abenduaren 14-an heldu zen “Ministerio de Educación Nacional”etik baiezkoa hitz hauen bitartez: “En atención a los méritos y circunstancias que concurren en D. Ignacio María de Echaide y Lizasoain, este Ministerio ha dispuesto concederle el ingreso en la Orden Civil de Alfonso X el Sabio con la categoría de Encomienda”.

Jose Maria Caballero jaunak erabaki zuen ezarkizun jaia Ahaldundegi-Jauregian egitea 1954-ko Jorrail/Apirilaren 9-an. Omenaldi aretoa bete-bete egin zen diputatuz, Ahaldundegiko ogipekoz eta Etxaide jaunaren senitartekoz eta adiskidez. Jaialdi honetan mintzatu ziren, aurrena Mariano Zirikiain jauna, Ahaldundegiko Irazkaria, gero Jose Maria Caballero jauna (Ahaldundi-Lehendakaria) eta azkenean Etxaide jauna. Gure aita hitz egiten hasi aintzinetik, Lehendakariak aipatutako Ordenari dagokion insignia ipini zion, ikusle-entzuleek txaloka ekiten zioten artean. Biografia osoan aitaren hiltaldia laburturik ematen dugu. Hemen, ordea, ez da posible.

Honela heldu zitzaion lan-uzte adina, 1954-ko Abenduaren lehendabizikoan, 70 urte zituelarik. Ez dut uste tristura haundia eman zionik lanaren utzi beharrak. Pozik ere ez, noski. Bere ilusioa telefonua zen eta hura kendurik zuen aspalditxoan. Orduan hartu zuen hartzeko nahigabea. Bestalde, jubilazioa atzemandu, pozbide bat gelditzen zitzaion, hots, euskarari eta Euskaltzaindiari bere indarrak oro eskaintzekoa, bizitza guztian, lanaren-lanez, izan ez zuen mugona. Baina, itxaropen goxo horietan zegoela, horra non etorri zitzaion ustekabeko ez-beharra.

## HANKA EBATEA ETA HERIOTZEA

Aspaldixko nabaitzen genion gure aitari itxura kaskarra eta osasunaren martxa txarra. Azken bolaran aurpegia hanpatu zitzaion, matrailak zeharo puztuak balitu bezala haizez edo urez. “Antrax” sustraituak ere bata bestearen ondoren atera zitzaizkion lepoan eta buruan, eta hauetako batek ikaragarriko zuloa utzi zion buruan sustraitik atera ziotenean. Denok konturatzen ginen ez zebilela ongi, baina medikuek ez zioten hainbesteko garrantsirik eman edo ez zioten igarri haren barruan sortzen ari zèn ekaitzari.

Eta halaxe, 1954-ko Abenduaren 8-an, arratsaldeko zazpi t'erdietan, berebiziko enbolia eraso batek jo zion hanka batera. Mari Karmen Aranburu nire ezkon-arrebak zioen, bere etxetik aitarengana korrika heldu zenean, atakeak jo eta gero, oinaze garrasiak jardinetik (“Aldatzain” izeneko “villan” bizi baitzen. “Aldatzain”ek bazuen bere istoria zeren frankistek izena kenarazi baitzioten) entzuten zirela, eta sufrimenduak isil-isilik burutzen inor gutxik bezala zekien. Arestian ikusi genuen bere “antrax” delakoekin nolako egonarriz eramaten zuen bere oinazea. Mari Karmenek esaten zidan harrigarria zela sufrimendurako zer izpiritua zuen. Hortik igarri nolako oinazeak pasa zituen lehendabiziko ordu haietan. López Gonzalo bere ohe-medikuak atenditu zuen berehalakoan eta aditzera eman zigun hil edo bizizko kasua zela. Hamarretan San Inazio klinikara eraman zuten eta zain bat ideki zioten gian (ingle), oinazea baretzeko alegia. Operazio hau hamarterdietatik hamaikak bitarte egin zioten. Goizeko ordubietan ez zioten pultsorik nabaitzen. Hotza omen zegoen, hilotz baten irudi eta kordegabe. Horrela zetzala, Aita Gordoia jesuita, haren arima zuzendaria heldu zen eta Olio Saindua eman zion. Une honetatik, mirari bat bailitzen, birpizten hasi zen eta irriabar gozo bat ezpaineratu omen zitzaion. Egunez-egun bizkortzen joan zen, baina, ezkerreko hankan, koaguluaz, odolak ez zion korritzen. Beraz, belaunetik behera, hanka bat igarra, hilda gelditu zitzaion eta indezio klase guztiak alferrikakoak izan ziren odolgoria (koagulua) beheratu ahal izateko. Medikuek itxaropen guztia galdu zuten hanka salbatzeko eta moztea erabaki zuten.

Hanka ebatea arrisku haundiko operazioa zen gure aitaren kasuan, zeren bihotza zartatua baitzuen eta 70urte lepo gainean. Baina, ez zegoen beste irteerarik. Franzisko Arriola Ondarrutar ebaketari euskaltzaleak operatu zuen Abenduaren 15-ean, ezkerreko hanka belaun gainetik moztuz. Jainkoari



esker bihotzak iraun eta ebakuntza ongi atera zen. Hilabete barru klinikatik atera ahal izan zen.

Jainko Jaunak zortzi urtez luzatu zion bizitza hanka moztearen bitartez eta ebakuntza aurretik baino askozaz hobeto ibili zen osasunez gerotzik. Operazioa eta heriotzea bitarteko urtetan Euskaltzaindiak parte hartu zuen euskal-biltzar eta jaialdi gehientsuenetara joan izan zen. Halaxe, beste aunitzen artean, Baserriren omenaldira Zarautzen, Lizardiren gorazarrez Tolosan egindakora, Sarako bertsolari jai batera, Orixeren Euskaltzaindiko sarreran Leitzara, Aita Olabideri egindako omenaldira Gasteizen, Mitxelenari bere jaioterriak egin zion omenaldira eta abar.

Eta horrela etorri zitzaion heriotzea ustekabean. Hil bezperan beti bezala oheratu zen, bere gorputzean ezer txarrik edo anormalik nabaitu gabe. Afaldu, errosarioa esan —bere bizitza guztian ez baitzion egunoroko errosario esateari huts egin—, eta etxekoei gabonak esanda ohean sartu zen. Goizeko zortzi t'erdia aldera mugitzeko ohitura izaten zuen bere zahartzaroan, baina biharamon goiz hartan, bederatziak jo, bederatzi t'erdia jo eta ez zela mugitzen ohartu ziren etxekoak. Kezkaturik eta larriturik, hamarrak laurden gutxitan ate-joka hasi zitzairen. Txintik ere ez. Orduan, etsi-etsi eginda logelan sartu ziren eta ohean zerraldo aurkitu zuten. Sendagileek kalkulatu zuten goizeko zazpirak aldera hil zela, bat-batean, ia ohartzeko, beste enbolia batek jota, oraingoz burura. Beraz, ez dugu uste azken-ats axanparik ezagutu zuenik. Konturatu orduko zerbait gertatzen zitzaioa, txantxangorri bat bezala hilda gelditu zen noski. Hala ez izatekotan, oihu bat, dehadar bat, laguntza eske bat egiteko modua izanen zuela baita gure ustea. Ez zuen Elizakorik hartu ahal izan, baina, bizpahiru egun aintzinetik aitortzen eta Jaunartzen izana zen. 1962-ko Hazaroaren hamalaua zen.

## EUSKAL LIBURUAK

“TRATADO DE SUBFIJACION EN EL IDIOMA EUSKARO”. Donostiako Baroja etxean inprimatua dago 1911-garren urtean, baina, Donostiako Integrista Gazteriari dedikatutako edizio honek, sufijazioaz gainera, prefijazioa eta konposizioa ere estudiatzen ditu. Bigarren edizioa lehen-dabizikoa baino askoz beteagoa da; Tolosan inprimatua dago López-Mendizabalanean 1932-garren urtean eta izen hau darama: “TRATADO DE SUFIJACION, PREFIJACION Y COMPOSICION EN EL IDIOMA EUSKARO”.

“TRATADO DE SINTAXIS EN EL IDIOMA EUSKARO”. Liburuxka hau, 144 orrialdekoa, Donostiako Barojarenean inprimatua dago 1912-garren urtean eta Liborio Ramery Zuzuarregiri eskainirik doakio, “Incansable en combatir por la verdad íntegra y celoso defensor de nuestros amados Fueros”.

Hitzaurrean dio, Donostiako “Juventud Integrista”n, 1910-1911-ko ikastaro hutsunea betetzeko sortzea eman ziola “Subfijación, prefijación y

composición en el idioma eúskaro” liburuari eta “Tratado de Sintaxis” hau berriz, 1911-1912 ikastaro hutsunearen betegarri sortua dela.

“EL VERBO VASCONGADO” (Estudio sintáctico y morfológico y desarrollo de las conjugaciones perifrástica, sintética, respetuosa y familiar). 260 horrialdeko liburu baliotsu hau, 1923-garren urtean argitaratu zuen Ricardo Leizaolaren Donostiako “Imprenta y Librería de San Ignacio” zeritzanean.

“SOBRE EL ORIGEN Y PARENTESCO DEL PUEBLO EUSKARO Y SU IDIOMA”. 1935-ko Urtarrilatik Maiatzara argitaratua Donostiako “La Cruz” asterokoan.

“DESARROLLO DE LAS CONJUGACIONES EUSKARAS PERIFRÁSTICAS Y SINTÉTICAS, RESPETUOSAS Y FAMILIARES”. Obra mardul eta bikain hau, Donostiako “Gráfico-Editora”n inprimatua dago 1944-garren urtean. Nire ustez hau izan zen euskara gaien gerla ondoren inprimatzen utzi zutèn lehenengo edo lehenengotako euskal-liburua, baina gogoan edukiz gazteleraz iratzia zela, gaia gramatikazkoa zuela eta egilea orduko agintarien konfidantza osokoa zela. Euskaraz iratzitako liburuak —eta neuk dakit zer lanak kostata—, ez baitziren argitaratu ahal izan 1950 baino lehenago (“Euskaldunak”, “Alostorrea”).

Esan daiteke, liburu erraldoi hau (524 orrialde baititu letra txipiz bezurik) “El Verbo Vascongado”ren osagarri bezala dela, alegia han teorian erakusten duena, hemen praktikan jartzen baitu. Liburu praktikua beraz hauxe, euskal-aditzaren erabidea zertxobait ezaguturik, hiztegi bat bezala erabiltzen baita, beharreakoa den aditz-jokoa instanpatean aurkituz.

“TELEFONOAREN SORTZE ETA AURRERAPENA”. Dena euskaraz emandako liburuxka honetaz, honela dio gure aitak, “Desarrollo de las Conjugaciones Euskaras”en, berak iratzitako liburuen berri ematen duen zerrendan: “Conferencia pronunciada en vascuence por el autor en el Salón-Teatro Novedades de San Sebastián el 27 de noviembre, última de la serie organizada por la Sociedad Euskal-Esnalea para otoño de 1927. Editada por la Sociedad Euskal-Esnalea. San Sebastián 1929. Treinta y cinco fotografías intercalados en el texto. 52 páginas”. Hitzaldi hau “Euskal-Esnalea” aldizkariak argitaratu zuen 1929-garren urtean, Ekain-Uztailako 306-307 zenbakian eta gero separata bezala atera. Hitzaldi honen berri aldi hartako “La Constancia” egunorokoak eman zuen.

## “EUN DUKAT”EN MUSIKA IRIZKIZUNA

Aldi hartako “La Constancia”k, D. Manuel Lekuonak ezarritako letraz goraipamen haundiak egin ondoren, honela dio “Eun Dukat”en musikaz: “Musikaz, berriz, zer esango dugu? Etxaiderekin daukagun adiskide lokarriak neurritsu izaten behartzen gaitu. Ezagutzen genituen haren lehenagoko beste emankizun batzuk eta kapaz irizten genion musika-horrialde etorridu-

nak (inspiratuak) sortzeko. Bart sendotu ahal izan genuen gure ustea. Aski litzateke horretarako, bigarren egintzako sarrera zoragarriak eta "Aztia"ren kantak eta dantzak merezi izan zuten txalo-jotzea gogoraztea.

"Etxaide jaunak, teknika berrizaleari atxikia baita, bere emankizunetan sortaritzen dituen motibuei, entzunago eta atseginago egin ohi diren gonbinazio sail zoragarriak, eta zenbaitetan bitxiak ere, erasten daki.

"Arsuaga bigolin jotzaile bikainak, bere ederlanez eta gustu goituaz aunitz lagundu zuen, egileak partituran jarri zituèn edertasunak distiratzten.

"Baina, aitor dezagun: ez ginen asebetarik irten ikuskizunetik.

"Kanta-antzegintza honen musika sesteto gisan antolatu behar da eta era horretan eman behar da berrero, gure konforme-eztasunaren arrazoia uler dadin. Aunitz musika eta edertasun gehiegi dago gorderik atzo ikusi genuen partituran, piano jotzaile baten behatz artetan preso gelditzeko, nahiz eta gure Arsuaga jatorra bezain bigolin jotzaile trebea laguntzaile eduki".

Xabier Bello Portuk, "Azienda Publikua"ren, "Eun dukat"en eta "San Juaneko gereziyak"en kritikak egin zizkidan, baina, zorigaitzez, hemen ezin ditzakegu eman beroien zabaltasunagatik.

## LIBURU TEKNIKUAK ETA INTEGRISTAK

"Sobre la organización de las Juventudes Integristas"; 63 orrialdedun liburua rustikan, D. Juan Olazabalen hitz-aurrearekin eta fotograbadu bat. Donostia, La Constancia"ren inprenta, 1911.

"Las Juventudes Integristas y su labor interior": 48 orrialdeko liburuxka. Raimundo Altunaren inprenta. Donostia, 1914.

"El Ingeniero Industrial y la Taquimetria". Planuak takimetru bidez altxatzeko estudio osoa. "Escuela Central de Ingenieros Industriales" en Ikasle Buletinean. Madrilen, 9, 10, eta 11 zenbakiak, 1916-ko Uztail-Agorril-Irailekoak,

"Los Cálculos económicos en la Técnica Industrial". Egilearen metodoa eta beronen aplikazioa argi-ingar bidalkizun bidearen kalkuluari (Método del autor y su aplicación al cálculo de una línea de conducción de energía eléctrica). Aipatu Buletinean, 19-gn. lum., Maiatza, 1917.

"El Espíritu Cristiano y el Integrismo". 98 orrialdeko liburua, Jose Maria González Etxabarrri katedratiku jaunaren hitz-aurrearekin. "Biblioteca Integrista"ko III-gn. volumena. Madrilen. Gráfica Excelsior", 1917.

"Cuentos contra el dinero". Donostiako "Cruz y Verdad"en, hamar egunoroko aldizkarian. 1918-ko Urriaren 10-rtik, 1919-ko Jorrail/Apirilaren 30-era.

“Apuntes sobre Telefonía”. 86 orrialdeko liburua 96 grabadukin. Donostia, Gipuzkoako Ahaldundiaren inprenta, 1921.

“Estadística y breves apuntes históricos de la Red Telefónica de Guipúzcoa”. 40 orrialdeko liburuxka planu batekin. Donostia, Urtarrila, 1922. Gipuzkoako Ahaldundiaren inprenta.

“Descripción, historia y estadística de la Red Telefónica de Guipúzcoa” (Description historique et statistique de Réseau des Téléphones de Guipúzcoa). Liburuxka bi hizkuntzatan, sei argazki eta planu bat. Marqués eta Lagunartearen inprenta, 1923, Ordizia.

“Apuntes razonados sobre el programa Integrista”. 64 orrialdeko liburuxka. Marqués eta Lagunartearen inprenta, 1923, Ordizia.

“Medidas eléctricas y mecánicas”. 128 orrialdeko liburua, 66 irudi eta 16 fotograbadu. R. Y. de Aldekoaren inprenta, 1924, Burgos.

“La telefonía automática en Guipúzcoa, al alcance de todos”. Gipuzkoako Ahaldundiak eta Donostiako Udaletxeak egiten dituzten instalazioen azalpena. 32 orrialdeko liburuxka, hiru irudi, sei fotograbadu eta planu bat hiru tintetan. Donostia, Ahaldundiaren inprenta, 1925.

“Apuntes sobre telefonía”. Bigarren edizioa, franko loditua. 144 orrialde, 149 irudi eta 10 fotograbadu. Rafael Y. de Aldekoaren inprenta, Burgos, 1925.

“Comunicaciones de Guipúzcoa”. Gipuzkoako korreu komunikabide guztiak dakartza: telegrafu, telefonu, autobide, trenbide, portu eta abar. 224 orrialde ditu, 14 fotograbadu eta lau mapa zenbait koloretan. Aldekoaren inprenta, Burgos, 1925.

“Programa Integrista explicado” 402 orrialdeko liburua. Aldekoaren inprenta, Burgos, 1925.

“Los sistemas modernos de telefonía automática”: Egileak Bilboko Injiniadore Industrialen Lagunartean egindako itzaldia. 52 orrialdeko liburuxka, 15 irudi eta 6 fotograbadu. Donostia, 1926, Gipuzkoako Ahaldundiaren inprentan.

“Disposiciones legislativas sobre telefonía”. 320 orrialdeko liburua, 1926.

“La Corriente Telefónica”. Telefonu bidalkizun problemei dagokien matematika estudioa, “corriente alterna” delakoaz sarrera modu bat daramala aurretik (Estudio matemático de los problemas relativos a la transmisión telefónica, precedido de una introducción sobre la corriente alterna). 464 orrialdeko liburua, 148 irudi eta zenbait tabula. Aldekoaren inprenta, Burgos, 1927.

“Medidas de equivalente y nivel de transmisión”. 30 orrialdeko liburuxka, 23 irudikin. Donostia, Gipuzkoako Ahaldundiaren inprenta, 1928.

“El sistema Ericson de Telefonía Automática”. I-go. Tomua. Sistemaren azalpena eta hiribarruko hizpideen erakuntza (Descripción del sistema y establecimiento de comunicaciones urbanas). 172 orrialdeko liburua, 17 irudi eta bi eskema orokor haundi kartera batean. Gipuzkoako Ahaldundiaren inprenta, 1928.

“Telefonoaren sortze eta aurrerapena”. Egileak egin hitzaldia, euskaraz. Donostiako Salón-Teatro Novedadesen, 1927-ko Hazilaren 27-an. “Euskal Esnaleak” argitaratua, Donostia, 1929. 52 orrialde eta 35 fotograbadu.

“Resumen descriptivo, Histórico y Estadístico acerca de la Red Telefónica de Guipúzcoa”. Sevillako “Exposición Ibero-Americana”k argitaratua. 32 orrialde, 6 fotograbadu, bi planu, 8 grafiku. Gipuzkoako Ahaldundegiko inprenta, 1929.

“El Eco en telefonía”. “Dyna” aldizkarian, Bilbo, Hazila, 1930.

“El sistema Ericson de Telefonía Automática”. II-gn. Tomua, 168 orrialde, 50 irudi eta 3 eskema haundi kartera batean. Gipuzkoako Ahaldundiaren inprenta, 1934.

“Memorias relativas a la Red Telefónica de Guipúzcoa”: 1912-tik 1934-  
-ra, bi urteok barne.

“Apéndice a la obra *La Corriente Telefónica*”. 144 orrialde eta 45 irudi. Gipuzkoako Ahaldundiaren inprentan, 1938.

“Estudios sobre la estructura y equipo de las Centrales Telefónicas Automáticas”. “Metalurgia y Electricidad” aldizkarian, 1939-ko Urtariletik, 1940-ko Epail-Martxoraino.

“Lecciones sobre Telefonía Automática”. 80 orrialdeko liburuxka eta 51 irudi. Madrilen, “Nuevas Gráficas” inprentan. Bilboko “Escuela de Ingenieros Industriales”ek argitaratua. Maiatza, 1942.

## INAZIO MARIA ETXAIDE'REN BIZITZAN (1884-1962) EGUNIK GOGOANGARRIENAK (1)

1884: Donostia'n jaiotzen da Abenduaren lehenengoan, Kale Nagusian, lehendabiziko lumeruan (Igentea kale-kantoiari, Parte zahar-berri mugamugan), Andre Mariaren Elizan bataiatua izanik biharamonean.

1895: Batxilleratua estudiatzen hasten da. Elbira Etxaide bere arreba-  
zinez, etzen iñungo ikastetxetan ibilli, arrazoi honetxegatik baitipat: Etxaide-

---

(1) Alfonso Irigoyen euskaltzaiñak eskatuta datuok **Euskera** aldizkarira igorri nituen (1961-62, Tomo VI-VII, 350<sup>gn.</sup> hor-ald.) gazteleraz Irigoyen jaunak hala nahi zuela ustez, baiñan berak euskerara aldatuta eman zituen bertan ikus daitekenez.

-Lizasoain senitarteak aldi hartan urte erdia Donostia'n egiten zuen eta beste erdia Bergara'n eta oztopo honegatik nahiago izan zuten klase partikularren bidez baliatu.

1900: Garagarrillean Batxilleratua bukatzen du eta Urrian ekiten dio Industrietako Injinadorien Eskolako sarrerari (2).

1901: Bilbo'ko Industri-Injinadore Eskolan sarrera egiten du.

1906: Urte hontako Urrian Industrietako Injinadore titulua lortzen du.

1907: Abuztuaren 29'an Gipuzkoako Ahaldundegi-Jauregian sartzen da, "Catastro Industrial" izeneko zerbitzuan.

1907: Euskera estudiatzen hasten da, berak diogenez, hutsaren urren-goia bakarrik baitzekien.

1909: Epaillaren 9'an, Gipuzkoa'ko Ahaldundegiko Industri-Injinadorea izendatua izan zen, izendapen horren barruan Probintzi-Telefonutzaren Zuzendaritza sartzen zalarik.

1909: Jorraillaren 8'an, Inazio Etxaide Etxebeste bere aita hiltzen da.

1909: Agorraren 13'an Integrista Gazteriako Lehendakari, berexia izan zen, "La Constancia"k dakarrenez (3), eta kargu hontan iraun zuen ezkontzaldiraiño gutxi-gora-bera.

1910: Abuztuaren 27'an "Donostia'ko Diruetxeko" Aholkari izendatu zuten. Kargu hontan bizi artean iraun zuen.

1910: Integrista Gazteriako euskal-erakustaldiak beregain hartzen ditu, Don Ramon Intzagarai apaiza lankide zuelarik.

1915: Jorraillaren 29'an Maria Dolores Itarte Alberdi'rekin ezkontzen da Zumarra'n, hots, emaztearen jaioterrian. Ezkontza hontatik hamar seme-alaba jaio ziren, zazpi gizonezko eta hiru emakumezko.

1918: "Elorriaga y Cia." izeneko ur-kontadore industrian parte hartzen du kapitaldun bazkide bezala, "socio-gestor" izendapenez. 1934'ko Hilbeltzaren 2'an saldu zuen bere negozio-parte, zenbait konforme-etzasunez.

1926: Telefonu automatikuaren eragille eta aintzindari bezala agertzen zaigu, Donostia'ko Telefonu Zuzendaritzarekin lankidetzan, Gipuzkoa'ko hiriburuaren hamabost kilometroko ingurua automatizatuz. Usurbil'ko Agiña, Andoain eta Oiartzun izan ziren automatizaziño hontaz baliatu ziren inguru-herritan apartatuena. Hauxen izan zen Peninsula'ko lehenen-

---

(2) Batxiller titulua Valladolid'en emana dago urte hontako Dagonillaren 16'an.

(3) "Euskera"n datu hau gaizki eman nuen; hemen, iturri arreren batetik hartuta noski, 1910'eko Garagarrillaren 14'an jarri bainuen.

automatizaziñoa. “La Constancia” egunerokoak 1926-6-15’ez dakar adelu-jaiaren berri.

1926: Agorraren 30’ean, lan bikain honen sarigarri, Lanaren Zillar-Domiña opa-esten zaio.

1928: Hilbeltzaren 25’ean argitara ateratzen da, Donostia’koa “La Cruz” asteroko katolikua. Gure aita beronen bazkide-fundatzaile eta lankide bizkor izan zen.

1928: Donostia’n etxea zabaltzen du “Legión Católica Española” lagunartek, gure aita bazkide fundatzaileen artean zegoalarik.

1930: Hilbeltzaren 14’an, Maria Pilar Lizasoain Minondo bere ama hiltzen zaio.

1932: Maiatzaren 15’ean, “Centro de Actuación y Propaganda Católica” (C.A.P.C.) zeritzan lagunartek etxe-ateak ideki zituen. Gure aita, beronen bazkide-fundatzaile eta lendakari-ordekoa izan zen.

1932: Donostia’ko “Editorial Católica”ren fundaziñoan parte hartzen du, kapitaldun bazkide bezala.

1940: Eibar’ko “Alfa” josteko makiñen Aholkari izendatua izan zen, bizi bitartean iraunik kargu hontan.

1942: Epailaren 26’an Euskaltzaindiak hotsegiña izan zen, Juan Carlos Guerra’k utzitako hutsunea betetzeko eta bere kargu-jabe egin zen Garagarri-llaren 24’an.

1945: “Muebles Alfa” izeneko lagunartearen Aholkari izendatzen dute. Kargu honi hil arteraiño eutsi zion.

1947: Agorraren lehendabizikoan, Maria Dolores Itarte Alberdi bere emaztea hiltzen da Donostia’n 54 urtez.

1949: Maiatzaren 9’an Gipuzkoa’ko Telefonuaren Zuzendaritza utzi beharrean arkitzen da, Espaiñiako “Compañía Telefónica Nacional” deritzana egin zelako gure telefonuaren arduraduna, urte hontako Jorraillaren 14’ko Ministerio Agindu baten bitartez.

1951: Azaroaren 3’an Euskaltzaindi’ko Lehendakari izendatzen dute.

1953: Abenduaren 14’an, Espaiñiako “Ministerio de Educación Nacional” delakoak, orduan Gipuzkoa’ko Ahaldudegiko Lehendakari zen Jose Maria Caballero Arzuaga’re eskabidez, “Orden Civil de Alfonso X el Sabio” lagunartean honartua izateko erabakia hartu zuen, “Encomienda” maillan, telefonu zientzian eta euskal-gaietan egin lanagatik.

1954: Abenduaren lehenengoan Ahaldudegiko Injinadoretzaren jubila-ziñoa irixten zaio, 70 urte betetzen dituelarik.

1954: Abenduaren 15<sup>ean</sup> ezkerreko anka belaun-gaiñetik mozten diote, enbolia baten ondorioz, Donostia<sup>ko</sup> San Inazio<sup>ren</sup> klinikan.

1962: Azaroaren 14<sup>an</sup>, Donostia<sup>n</sup> hiltzen da, Ategorrieta<sup>ko</sup> Aldatzain etxean, bigarren enbolia batez.

## ETXAIDETARREN ETORKIA

PERU ETXAIDDEKO: “Etxaide” oin-etxeko (Cabo de Armeria) jauna, Elizondo ingurutetan. Orain suntsitua da jauregi hau. Naparroa<sup>ko</sup> Gortetan zizun exerleku. Beaumontesa zen, iñolaz ere, zeren 1512<sup>gn.</sup> urteko Gorte-Batzarrean, Fernando Katolikua derizatena Naparroa<sup>ko</sup> erregetzat aitortu zuenetakoa izan baitzen, norbere Erreñua Gaztelarrei salduaz. Orain ba-da “Etxaide” jauregia edo gaztelua Ulzama-ko Olague<sup>n</sup>. Baiñan, ba-dirudi jau-regi hau gerokoa dela. Honen ondorengo izan zen:

PERU ETXAIDDEKO, hau ere “Etxaide” zeritzan oin-etxeko jauna. Lengoaren seme edo billoba izango zen noski. Ezin jakin. Maria Joan Arostegia<sup>rekin</sup> ezkondu zen. Hemendik bi adar sortzen zaizkigu, dakigunez:

### Martin Etxaideko:

“Etxaide” oin-etxeko jauna, Ursula Arizkun<sup>ekin</sup> ezkondua. Martin hau zen noski “Etxaide”<sup>ko</sup> seme nagusia, baiñan gu ez gara adar hontakoak, Ioane beronen anaiaren adarrekoak baizik.

Martin Etxaide bat izan zen —fexagatik lehenengo Peru Etxaideko<sup>ren</sup> seme izan zitekeen—, Amaiur<sup>ko</sup> gaztelua hartzeko dirua aurreratu ziona Conde de Miranda Errege-ordeari 1522<sup>ko</sup> Ekainean. Miguel de Orreaga<sup>k</sup> dio: “Echayde y Cruzat eran beaumonteses de mucha cuenta” (Amayur, II Tom. 44 p., Auñamendi, 1979).

IOANE ETXAIDDEKO, Arostegia zeritzan oin-etxeko jauna (Lekarotz<sup>en</sup>). Bi aldiz ezkondua; lehenengoz, Maria Joan Urtsua<sup>rekin</sup> eta bigarrenez Maria Juana Gortari<sup>rekin</sup>.

IOANE ETXAIDDE-AROSTEGIA GORTARI, jaió 1629<sup>ko</sup> Otsailla<sup>ren</sup> 2<sup>an</sup>. Ezkondu, 1671<sup>ko</sup> Abenduaren 6<sup>an</sup>, Arantza<sup>ko</sup> (Aranazko) Maria Bikuña<sup>rekin</sup>. Ezkontza hontatik sorturik bi adarren berri dakigu. Jerónimo Etxaide<sup>k</sup> jarraitzen dio gureari.

**Juan Jose Etxaide Bikuña**, 1698<sup>an</sup> Juana Mihura<sup>rekin</sup> ezkondua, Oieregi<sup>koa</sup> (Bertiz-Arana).

**Juan Jose Etxaide Mihura**, 1740<sup>an</sup> ezkondu zen Ana Maria Altzugarai<sup>ekin</sup>.

**Salvador, Juan Miguel eta Juan Antonio Etxaide Altzugarai**: “Informantes en la Hidalguía para el Valle de Bertiz-Arana existente en el Archivo de Elizondo, carpeta Lecároz, último número que dice 1775-Arostegua”.



**JERONIMO ETXAIDE BIKUNA**, jaio Arantza'n, 1696, Uztaillak 22. Ezkondu, 1721'eko Uztaillaren 25'ean, Maria Josefa Etxegoien Ajesta'rekin. Hemen ere ba-dakigu bi adarren berri. Jaun Bautista'k jarraitzen dio gureari.

**Rafael Etxaide Etxegoien**, jaio, 1723'gn. urtean. Ezkondu, 1749 garrean Maria Francisca Huarte'rekin.

**Jose Joakin Etxaide Huarte**, 1756'gn. urtean jaioa.

**JUAN BAUTISTA ETXAIDE ETXEGOIEN**, jaio, Arantza'n, 1728'ko Agorraren 16'an. Serafina Perugorria Ezpeleta'rekin ezkondu zen.

**FRANCISCO IGNACIO ETXAIDE PERUGORRIA**, jaio Arantza'n, 1762'ko Jorraillaren 18'an. Juana Maria Iparragirre Mayarekin ezkondu zen.

**JOSE FRANCISCO ETXAIDE IPARRAGIRRE**, jaio Arantzan, 1799'ko Otsaillaren 3'an. Bi aldiz ezkondu zen. Lehengoz, Maria Josefa Almandoz Mitxelena'rekin, Arantza'n, 1821'eko Urriaren 15'ean eta bigarrenez, Goizueta'ko Artikutza auzoan, 1841'eko Otsaillaren 22'an, Marzelina Etxebeste Sorondo'rekin. Hemendik bi adar sortzen zaizkigu:

**Demetria Etxaide Etxebeste**, Tolosa'ko Ursino Zabala Larreta-Azelain'ekin ezkondua.

**IGNAZIO ETXAIDE ETXEBESTE**, jaio Ziburu'n (Laphurdi), 1848'ko Otsaillaren 27'an eta hil 1909'ko Jorraillaren 8'an. Pilar Lizasoain Minondo'rekin ezkondu zen Lezo'ko Kristo'ren elizan 1879'ko Uztaillaren 8'an.

**IGNAZIO MARIA ETXAIDE LIZASOAIN**, jaio Donostia'n, 1884'ko Abenduaren lehenengoan. Maria Dolores Itarte Alberdi'rekin ezkondu zen 1915'eko Jorraillaren 29'an. Donostia'n hil zen 1962'ko Azaroaren 14'an.

---

OHARRA: Julio Altadill'ek, "Castillos Medievales de Nabarra" liburuan (Zabalkundea Sorta), III'gn. Tomuan, 43'gn. horrialdean Mondarrain (Itsasu-Laphurdi) mendiko gazteluan agindu zuten "alkaidez" edo buruzagiz mintzo delarik, honela dio: "Finalmente en 1390 hallamos en el cargo (de alcaide) a D. Yenegro Sánchez de Etxaide, señor de Etxaide". Ba-dirudi, beraz, Eneko Etxaide hau gure arbasoetakoa zela, "Etxaide" jauregiko nagusia baitzen, eza-gutzen ditugun lenengo Etxaide'k bezala.



## IGNACIO M.<sup>a</sup> ETXAIDEREN MENDEURRENA

*Donostia, 1984-XI-30*

*Ana M.<sup>o</sup> Echaide*

Beharrezkoa deritzat esatea zein pozik hartu nuen Euskaltzaindiak orain hilabete bat edo, egin zidan mandatua: gure aita izan zenaren oroimen bat edo beste agertzea; oroimen txiki, familia girokoak batez ere, giro honetan ezagutu bait nuen nik aita, eta beraren zahartzaroan gehienik. Era honetaz zerbait egin ba-dezaket hainbeste maite izan nuen eta oraindik hainbeste maite dudan aitaren alde, eskerrak Euskaltzaindia, eman didazun mandatuagatik.

Ez ditut hemen aipatu nahi aitari zor dizkiodan gauza garrantzitsuenak: bizitza —hamargarrena naiz senideen artean—, kristau fedea, heziketa —batez ere nire kasuan ama falta zitzaidalarik— etabar; baizik eta beraren izakera sendo eta xamurraren bidez hezurmuinetan sartu zizkidan ohitura eta zaletasun batzuk.

Ez zen gauza erreza, arratsaldean etxeratzen nintzalarik, aita zereginik gabe aurkitzea, zahartzaroan ere ez. Bazuen beti zerbait esku artean, eta zeregin bakoitza bere unean. Bazkalondoan, lokuluxka txiki bat, ordu eta erdi edo ordu pare batetan estudiatu, etxeko kontuak eraman, entxufe bat edo plantxa edo beste etxeko tresna bat ondatuta ba-zegoen konpondu; eta merendatu ondoan zerbait irakurri —ingelesez edo frantsesez askotan ohitura ez galtzearren—; edota neguko egun hotz edo euritsu askotan, kanpora ezin atera izan ba-zuen paseotxo bat egitera, beraren makilak hartu eta despatxoko ixkin batetik, ondoan genduen salaren beste ixkineraino, alde batetik bestera zebilen metro pila batzuk osatu arte.

Beraren pentsamoldean denbora galtzeko lekurik ez zegoen. Eta lan egin ere, benetan egiten zuen. Gogoan daukat oraindik norbaitek esan zidana aitaren matematika-liburu bat ikusita, orrialdeen ixkiñak bere eskuz notaz beteak zituen. “Hau da, hau, benetan estudiatzeko era. Ez gainetikan ikusi eta orria pasatzen duenarena”.

Musika zen beraren zaletasun haundienetakoa. Zazpi urteko neska koskorra nintzan, igande goiz batean Donostiako Orkestra Munizipalak, Ramón Usandizagaren zuzendaritzapean, eman zuen kontzertu batetara eraman ninduean. Zoraturik gelditu nintzen eta musika estudiatu nahi nuela esan nion.

Geroztik nere musika zaletasuna haunditzen saiatu zen. Zenbat aldiz piano ondora hurbiltzen zitzaidan eta nik tankerarik gabe jotzen nuena, berak zentzu berriz betetzen erakutsi zidan. Gauero, afalondoan, disko bat entzuteko ohitura zuen. Diskoen bildumaren zerrenda egina zuen eta orden hartan ipintzen zituen. Baina noiz ta behin tranpatxo bat ere egiten zuen, neri ezer esan gabe, bere gustokoak zituen musikaegileak entzutearren: Beethoven, Strauss, Grieg, Wagner, eta euskaldunen artean Arriaga eta Usandizaga. Beraren ondoan ikasi nuen musika ulertzen.

Mendizalea zen ere. Bihotzetik gaisotu arte asko ibilia. Nik 6 urtetan lagundu nuen beraren ibilaldietan; 6 urte nituela eraman ninduen Igaratzara. Gero berarekin egin nituen Gipuzkoako tontor aunitz: Biandiz, Uzturre, Adarra, Ernio, Txindoki, Izarraitz etabar. Tontorrera iritxitakoan, nik urte asko igaro arte entenditu ez nuen grina zeukan: bistan zeuden mendi, herri edo herrixka, bide edo ibai guztiei antz eman behar zien. Horretan ere seme alaba bat baino gehiago atera gara beraren grina berberarekin.

Ez da izan neretzat gauza erreza gure aitaren eguneroko ohituren artean, bat edo beste nabari araztea. Gauza arruntak deritzaizkit, garrantzitsuak badira ere gauza arruntak gizonaren bizitzan. Baina, gehiago luzatu ez nahian, bukatzeko, agertu nahi nuke beste xehetasun bat. Badakizue, noski, aitak, zahartzaroan, anka moztu ziotenetik, taxiak asko erabiltzen zituela kaleratzeko. Askotan laguntzen nuen nik ateraldi horietan. Behin, taxia utzitakoan, aitak taxistari, ohitura zuen bezela, eskerrak eman zizkionean, honek galdetu egin zion zergatik ematen zizkion eskerrak bere lana baizik ez bait zuen egin. Eta aitak erantzun zion, egunero jende askoren alde eskertu zegoela hainbeste lan —eginbeharrezkoak edo ez— egiten zituztelako bere alde. Batzutan, bere esker ona agertzea maite zuen erregalutxo baten bidez, norbaitek fabore bat edo lan berezi bat egiten zionean.

Zihur nago, ba, orain, goitik eskertu gure begira dagoela; eta nik, beraren asmoaz eta beraren hitzez jabetuz, esan nahi dizuet: Eskerrik asko Euskaltzaindia, egin didazun omenaldiagatik. Jainkoak bedeinka beza Euskaltzaindia eta euskaltzainak eta hor zareten lagun guztiak zuen esker onagatik!

## **GAI LABURRAK**



# ESTATU BATUETAKO IDAHO ESTATUKO EUSKARAREN AZTERKETA “B” TITULURAKO TESINA

*Jon Joseba Etxabe Jauregi*

## **Sarrera gisa**

Idahoko euskaldunen eta euskeraren egoera aztertzea izan da iker lan honen helburua. Euskarak ingelesarekin nahasian fenomeno linguistiko normalak sortu izan ditu eta ni guretzat bitxiak egiten zaizkigunak aztertzen saiatu naiz lan honetan.

Euskararen garapen eta bilakaera honetan, ezinbestekoa iruditu zait datu historikoak eta sozial prozedurak duten garrantzia aipatzea, egoera hobetoago ulertzeko azaletikez bada ere. Ez dago esan beharrik euskal kolonia bakoitzak eta Estatu Batuetakoak ere bere ezaugarri propioak dituztela. Ohituak gaude gaztelaniak eta frantsesak euskararengan duten eraginak aztertzen, baina ingelesarekin sortu diren fenomenotaz ezer gutxi idatzi izan da.

Lan hau han bizi izan nintzen egonaldi baten fruitua da. Itxaron dut, lan honek zerbait berria jasoko duela euskararentzat eta beste lan sakonagoentzat urrats bat izango delakoan geratzen naiz.

## **AURKIBIDEA**

Idaho hego-mendebaldeko euskaldunak

– Datu historiko batzu.

Erabilitako bibliografia eta artikuluak.

– Soziologia ikuspuntutik ohar batzu.

– Mailegu linguistikoen zerrenda.

– Personaiaren inguruan.

– Komunikabideen inguruan.

– Nekazaritzaren inguruan.

– Kirolaren inguruan.

– Jaiaren inguruan.

- Etxebizitzaren inguruan.
- Garraioen inguruan.
- Hiriaren inguruan.
- Gramatikaren beste fenomeno batzu.

## IDAHO HEGO-MENDEBALEKO EUSKALDUNAK

### Datu historiko batzuk

Idaho Estatuko hego-mendebaldeko zati hau, lurraldeari begiratuz gero, gutxi gora behera Euskal Herria baino hiru aldiz haundiago dela esan behar dugu. Bestalde, biztanlegoari dagokionez, ezin dezakegu gauza bera esan. Aipaturiko lurralde honek, berrehun mila biztanle besterik ez ditu, zeinetatik ehun eta hoge mila Boisen (Estatuko hiriburua) kokatzen dira. Hego-mendebaldeko herrialde honek, Boise inguruko kondaduak hartzen ditu bere barnean: Ada, Gem Canyon, Owyhee, Elmore, Gooding eta Lincoln kondaduak hain zuzen. Kondadu guzti hauetan euskaldunak aurkitzen ditugu. Idahoko euskal komunitate hau, Estatu Batuetako haundiena dela baieztatu dezakegu bildur haundirik gabe. Boiseko Euskal Etxeko datuen arabera hamar mila euskal jatorrizko pertsona bizi dira Idahoko zati honetan.

Estatu batuei gagozkiorarik, orokorrean esan dezakegu honako Estatu hauetan bizi direla euskaldunak: Idaho, Oregon, Nevada, Utah, Wyoming eta Californian batez ere. Dena dela beste lurralde batzuetan ere aurkitzen ditugu baina oso sakabaturik.

Emigrazioak, bere konplexutasunean elementu asko darama bere baitan eta hauetariko garrantzitsuenetako bat hizkuntzarena da, noski. Harrigarria gertatzen bazaigu ere, ohartu izan gara nola, Idahon eta bereziki Boise inguruan bizkaitarrak soilik bizi diren, edo ia erabat. Zehaztasun haundiagorako esan dezakegu gainera horko biztanleak Lekeitio, Gernika, Markina eta herri hauen inguruetakoa direla sortzez edo bestela odolez. Oregon, Utah eta Wyoming-en berriz, bizkaitarrak eta nafartarrak nahasten dira. Nevada eta Californian gauza bera gertatzen da nafartar eta iparraldekoen artean.

Beraz, eta hizkuntzara itzuliz, ondorioa bezala ater dezakegu euskalki desberdinak aurkitzen ditugula segun eta non ibiltzen garen.

Euskal emigranteen kantitateari buruz, esan mila bederatzirehun eta berrogeita-bost garren urtean Estatu Batuetako Euskal Ordezkaritzak, zeina Fifth Avenuen - New York-en kokatua zegoen, hamasei mila immigrante omen zeudela kalkulatzeko zuen (1). Hauetatik, bi mila bostehun eta hiru mila artean Idahon bizi edo lanean zeudela zioen. Gaur egun ez zaigu erreza jakitea zehaztasun osoarekin zenbat aurkitzen diren Estatu batuetan, zeren eta Euskal Ordezkaritza horrek ez bait du funtzionatzen. Dena dela, gutxi gora behera eta NABO (North American Basque Organization)ren onerizpenari jarraituz hoge eta hamabost mila euskaldun inguru bizi dira Estatu Batuetan.

Dirudienez lehendabiziko immigranteak itsasgizonak izan ziren. Datu batzuk baditugu nola Yudarte izeneko artzaia 1850. urtean San Francisco inguruan aurkitzen zen (2). Gizon hau Argentinatik etorria zen. Beranduago, Californiatik Nevada eta Oregon aldera euskaldun gehiago zabaltzen hasi ziren artzantza lanbide bezala



zutelarik (3, 4). Idahoko hego-sartalde honetara lehendabiziko euskaldunak urrearen bila etorriak ziren. Nevadan, artzai lanetan 1873.eko uztailean aurkitzen ditugu lehendabiziko euskaldunak (5). Idahon lehen euskalduna 1867an azaltzen da erregistro liburuak diotenez. Azkuenaga du bere abizena, bizkaitarra jatorriz eta artzai bezala lan egiten zuen (6). Gizon hau itsas gizona edo zehazkiago untxi bateko kapitaina omen zen eta Idahorantz abiatu zen orduko urre sukarrari jarraituz.

Geroztik, urtez urte, euskal inmigrazioa haunditzen doa. Bertan euskaldun belaunaldi berri bat ere sortzen da eta bertako gizartean murgildu eta asimilatzen doana (7). Gerla Mundialaren urteetan zehar emigrazioarentzat oztopo administratiiboak zorrotzu egin ziren eta orduztik kontrol gogorragoak aurkitu izan ditu Estatu Batuetan sartzeko. Gehienak artzaintzarako kontratuen bidez joan izan ohi dira hiru edo lau urteetarako. Urte batzuk igaro ondoren, asko ziren beren herrietara. Hala eta guztiz ere, beste jende gazte ugari, momentuko oportunitateak aprobetxatuz eta ekonomia abantailak ikusiz bertan geratzen saiatu ziren eta denboraren poderioz belaunaldi berri bat sortaraziz.

#### **Erabilitako bibliografia eta artikulak**

1. U.S. Bureau of Census, Sixteenth Census of the United States 1940. Population-Vol-II Part I and Part II. Washintong Government Printing Office 1943.

2. Altrocchi-Julia Cocley "Spanish Basques in California". Catholic World, CXIV January 1938.

3. Van Valkenburg, Peter "Shepherd Basques in California" Overland LXXXII August 1924.

4. Cressmen, L. S. and Yturri, A. "The Basques in Oregon" Commonwelsth Review XX, March 1938.

5. County Clerk's Office in Winnemucca-Nevada.

6. Gaiser, Joseph H. "The Basques of the Jordan Valley Area". Unpublished PH. U. dissertation. University of Southern California, 1945.

7. Sleszynski, Thaddeus. "The socond Generation of inmigrants in the Assimilation Process" Annales-XCIII January, 1921.

— De Uriarte, G. "Self-determination in Europe". New Statesman and Nation. XVI 1933.

— Harkness, I. B. "Basque Sttlement in Oregon". Oregon historical Quaterly XXXIV 1933.

— Silen SOR. "La historia de los Vascongados en el Oeste de los Estados Unidos. New York Las Novedades Inc. 1917.

— Wilcox, Mary S. "A Historical Study of the basque Race With Special Reference to the United States". Unpublished Master's Thesis, University of Utah 1934.

### Soziologia ikuspuntutik ohar batzu

Idaho hego-mendebaldeko inmigrazioari dagokionez, erabat bizkaitarra dela esan dezakegu salbuespen batzu at.

Lurralde honetako jendeak Markina, Lekeitio eta Gernikan dute beren nolabaiteko sorlekua. Beraz bizkaitar euskalkia entzungo dugu.

Idahon azaltzen den jendea baserri mundukoa da, nekazal mundukoa erabat. Han emigrazioak bete duen lana artzantzari lotuta egon da, hasiera batean behintzat. Erraz ulertu dezakegu nola jende honek ez zuen Kultur maila haundirik eta gainera ingeles hizkuntza ezjakiteak horrelako lanetara bultzatzen zituen. Euskalduna hara agertzean, tradizio edo ohitura horrekin aurkitzen zen eta bestaldetik azpiegitura bat osatua eta ondo antolatua aurkitzen zuen lan horretan —artzantzan alegia— aritzeko. Zer esanik ez dago artzai bizitza paraje horretan oso latza dela eta izugarritzko bakardadean eta inkomunikazioan murgiltzen duela pertsona bat. Sinesgaitza egiten da nola bertan urte asko daraman pertsona batek ia ingelesez hitzeggin ezin duen. Berehala uler daiteke arazo honen zergatia.

Bertara joan den jendea; adinari dagokionez, gaztaroan joan ziren portzentai haundi batetan.

Honela: % 62 hamabostetik hemeretzi urte bitarteko jendea zen. Beste % 27, Hogeitik Hogeitalau urte bitartekoak eta beraz ikusi dezakegunez, % 89 hamabostetik hogeitalau urte bitartekoak ziren han azaldu zirenean. Jende honek euskara du bere hizkuntza eta zehazkiago esanda bizkaiera euskalkitzat. Hau erabiltzen dute beren arteko harremanetarako, hau bait da benetan menderatzen duten hizkuntza bakarra nahiz eta hizkuntza honetan ere alfabetatu gabeak izan. Gehienak nola hala ere gaztelaniaz hitzegiten badakite oso maiz ez erabili arren; mexikar jendeekin ez baldin bada.

Hezkuntzari dagokionez, euskaldunen erdia baino gehiagok; % 65- hamar urte bete zituen arteko eskola dute. Beste multzo bat; % 16 hona etorri zirenean analfabetoak ziren. Beste ehuneko 17 bat hamalau urte arteko eskola dutela diote. Beste % 2 batek batxilerra edo unibertsitate mailako ikasketak eginak dituzte, hauek nahiz Estatu batuetan edo Euskal Herrian burutuak.

- % 16 Alfabetatu gabeak.
- % 65 Hamar urte arteko ikasketak.
- % 17 Hamalau urte arteko ikasketak.
- % 2 Batxiler edo unibertsitateko ikasketak.

Datu hauek nahiko adierazgarriak dira ikusteko maila kulturala. Kultur ezagueria batek garrantzi handia duela hizkuntza bat asimilatzeke ez dago esan beharrik, eta hemendik atera ditzakegu ondorioak aipaturiko beste faktoreei erantsiz, noski.

Inmigrante multzotik aparte, gaur egun, lehendabiziko eta bigarren belaunaldiak, hau da; bertan jaiotako jendeak, oso garrantzi handia du egoera soziolinguistiko hau aztertzerakoan. Euskal inmigrazioaren kolektibitateak mundu itxi bat sortu zuen bere inguruan eta honen arrazoiak hizkuntza eta integrazio oztopoak medio zirelarik. Gauza berdina gertatu zaio mexikatar komunitateari, adibide bezala ipintzearren. Alderantziz, anglosajoi, irlandar eta iparraldeko beste europarrak, nortzuk oso erraz gainditu dute hizkuntza eta asimilazio prozedura, gaur egun, beren identitatea multzo bezala galdurik dute. Dena dela gaur joera bat ikusten da Estatu Batuetan bakoitzak bere ezaugarriak berreskuratzeko asmoa.

Euskaldunen hertsitasun honek, komunitate honi belaunaldi arteko iraupena eta bizia ziurtatu dio. Fenomeno honek berarekin eraman izan ohi du, euskaldunen arteko harremanak hestua izatea. Honela, euskal multzo sendo bat toki berdinean topatu izan denean euskal etxeak sortu izan dituzte. Etxe hauen eginkizuna euskal kultura eta festak aurrera ateratzea izango da. Beste hitz batzutan, hauen helburua euskaldunak elkartzea besterik ez dute. Dantza, euskara eta kultur ikastaroak belaunaldi berriei nortasunaren euskarri bat eskeintzen die bakoitzaren nortasuna sendotu nahian. Denon ezaguna da ere Renoko unibertsitateak duen garrantzi eta eragina euskal kulturaren arloan.

Euskal inmigranteak, kopuru handi batetan, ezkontzak ere beren artean egin izan ohi dituzte kopuru handi batetan eta konprobaturik dagoenez familiaren bidez bakarrik dago ziurtatuta hizkuntza baten iraupena eta areago emigranteen kasuan. Euskaldun bat, amerikar batekin ezkondu izan ohi denean, ia erabat, salbuespen bitxi batzuetatik at, hoiene seme-alabak ez dute euskararik ikasi. Argigarri bezala esan nahi dut Ipar Ameriketara eta euskaldunen artean nola, nahiz eta askoz eta belaunaldi berriak bereziki hizkuntza galdu izan, ez dute horregatik euskal nortasunaren kontzientzia galdu. Hizkuntza ordezkaturia izan da euskal kultur kontzeptu zabal baten alde. Euskarak hizkuntza bezala sozial komunikaziorako papera galdu egin du Idahon, hizkuntzaren behar sozial hori ez dute nabaritzen gehienak behintzat. Horrela bitxikeri bezala ohartu izan naiz, nola dantza —euskal dantza— ikuskizun bihurtzen da gizarte guztiaren aurrean eta beren nortasunezko ezaugarri nagusienetako bat.

## MAILEGU LINGUSTIKOEN ZERRENDA

### Pertsonaiaren inguruan

Neska laguna [neska laguna]	Andregai	Girl-friend
Mutil laguna [mutilaguna]	Senar-gaia	Boy-friend
Adresa [adresa]	Helbidea	Adress

Que según el nomenclátor de los Municipios del País Vasco, preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 410 y denominado hasta ahora en la versión oficial de la Administración: Llodio, es en su versión académica vasca: *LAUDIO*.

Que es habitual en toponomástica que existan nombres de doble tradición, según lo utilicen hablantes euskaldunes/vascongados o erdaldunes/romanizados o castellanos. El problema estriba en este caso, que mientras el exónimo romance o castellano LLODIO ha tenido oficialidad, no lo ha podido tener el nombre euskaldun *LAUDIO*.

Que *LAUDIO* es la forma que aparece atestiguada el año 1095, además de *FLAUDIO*, misma fecha. Vide Lz. de Guereñu, “Pueblos alaveses”, *Boletín de la Institución Sancho El Sabio*, XIII (1969). (Doc. n.º 1).

Que *LAUDIO* es la forma usual en lengua vasca, sin diptongación y sin palatalización de la consonante inicial. Esta misma forma es la que aparece en todas las ediciones del conocido catecismo vasco de Llodio (vide anexo).

Que la forma usual vasca *LAUDIO* viene acompañada del patronímico *laudioarra*, “llodiano”, atestiguado, por ejemplo, en los escritos de J. Pablo Ulibarri (1775-1847), nacido a pocos kilómetros de Llodio. Vide *Gutun liburua*, Vitoria 1975, pág. 147.

Que tiene interés señalar la etimología del nombre, a partir de *Claudius*, según Meyer-Lübke, *Revista Internacional de Estudios Vascos* 14 (1923), 474. Probablemente se trataba de un posesor, o bien de una advocación hagiográfica, paralela a la que menciona Rafael Lapesa: “El *San Clodio* o *San Claudio*, mártir leonés bajo Diocleciano, es el mismo del Puerto de *San*

*Glorio*, ese puerto endiablado que media entre Potes y Riaño: *Glorio* no es sino una deformación de *Clodio*, relacionado con *gloria* por quienes habían olvidado su identidad con *Claudio*". Cfr. *Coloquio sobre toponimia*, Madrid 1973, 20.

Que la forma LAUDIO está documentada fundamentalmente en los libros religiosos, ya que únicamente la Iglesia daba cierta oficialidad a la lengua vasca. Se pueden encontrar numerosos testimonios de esta índole en los que aparecen siempre como versión euskérica LAUDIO o *Laudiyo*. (Se acompañan fotocopias de tres Doctrinas en la variedad dialectal del valle). (Docs. 2, 3 y 4).

Que Alfonso Irigoyen Etxebarria, académico de número y profesor de la Universidad de Deusto, en su ponencia sobre Antroponimia, presentada en el *Congreso de Estudios Históricos: Vizcaya en la Edad Media*, Bilbao, 1984, organizado por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y de próxima publicación, en sus epígrafes 11 y 16 habla del nombre de LAUDIO, aportando datos de interés para el informe que nos ocupa, por lo que se adjunta la transcripción que dirige a esta Comisión, de la que es miembro. (Doc. 5).

Que todo parece indicar que la evolución histórico-cronológica sería a partir de Claudius: 1. Flaudio; 2. *Laudio*; 3. Llodio, siendo por lo tanto históricamente anterior la versión euskérica que la castellana. Esta sería consecuencia de la palatalización de la "L" a la "LL" y del cierre del diptongo "au" en "o".

Que es habitual en nombres de ciudades importantes sobre todo relacionados con diversas culturas, tener varios nombres, como por ejemplo: Bordeus (nombre gascón occitano), Bordeaux (nombre francés), Bordele (nombre euskérico), Burdeos (nombre castellano), Burdigala (forma utilizada en la época romana); Santander y Gijón, que tienen además exónimos euskéricos conocidos sobre todo en los puertos vizcainos y guipuzcoanos, *Sanandere* y *Kixon* respectivamente: Londres, London; Köln, Colonia, Cologne; Madrile - Parise, exónimos vascos de las dos capitales estatales; etc. Resulta lógico por lo tanto, que las poblaciones más importantes del País Vasco tengan además de la denominación autóctona, que ahora se trata de oficializar, formas exónimas o de doble tradición como por ejemplo: Bilbo/Bilbao: Donostia/San Sebastián/Saint-Sebastien: Baiona/Bayonne/Bayona: Iruñea/Pamplona/Pampelune: Donibane-Garazi/Saint Jean-Pied-de-Port/San Juan de Pie de Puerto: Maule/Mauleón.

Que por todo ello esta Comisión entiende que ambas expresiones *Laudio* y *Llodio* son compatibles y de uso alternativo, que no ambivalentes, de lo que se deduce que así como Llodio era solamente oficial en su forma usual castellana, también ha de pasar *Laudio* a tener idéntico rango oficial en su uso euskérico, al pasar también la lengua vasca a ser lengua oficial, de acuerdo con el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, y concretamente, del artículo 10 de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euska-

ra, que trata de nomenclatura oficial de las entidades de población. En definitiva, procede oficializar también el nombre euskérico y respetando, además del rango, el orden cronológico, designar al municipio como LAUDIO/LLODIO.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido la presente en Bilbao, a diez de Abril de mil novecientos ochenta y cinco.

V.º B.º

*E. Knörr-Delegado y Presidente  
de la Comisión de Onomástica*



## EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

1984-X-26

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1984.eko Urriaren 26an egin du Euskaltzaindiak arratsaldeko 4etan bere hileroko batzarrea. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buru-orde, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, P. Salaburu eta J. San Martin euskaltzainak; J. A. Arana, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, P. Charritton, J. Etxaide, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak; J. L. Lizundia Idazkari-ordeak, Idazkari egiten duelarik.

J. M.<sup>a</sup> Satrustegi, P. Lafitte eta O. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohizko otoitzarekin hasi da batzarrea.

Irailako batzar agiria onartu da.

*Pierre Narbaitz* euskaltzain urgazlearen hil berriari buruz, nekrologika eman du Euskaltzainburu-ordeak, eta zenduaren idazlan eta ekintzak azaldu ditu. Lan hau P. Lafittek prestatua zen, baina ospitalean aurkitzen denez, J. Haritschelharrek irakurri du. Lafitteri eritasunetik sendatzea opa dio Batzarreak.

### a) Goizeko bilkuren eta b) dagozkien Batzordeen azalpena

1. *Argitalpen Batzordea*. 1984 urtean egindako Argitalpenen kontu eman da lehendabizi. Aurten Euskaltzaindiak 14 liburu argitaratu edo argitaratuko dituela adierazten du J. J. Zearreta, Ekonomi Eragileak. Argitalpen hauen ordainketa 19.143.060 pta. izango da.

Liburuen "stock" eta Gordailu arazoan berri ematen du R. M.<sup>a</sup> Arza, Gordailu eta Salmenten arduradunak, Ekonomi Batzordeburu eta Eragile diren E. Knörr eta J. J. Zearretarekin batera. Aurten, 28.927 liburu atera direla Gordailutik adierazten da. Une honetan Gordailuan 126.000 liburu inguruko "stock" a du Euskaltzaindiak eta bertatik kanpo, toki faltaz, zenbait inprimategitan, beste 33.000 inguru. Guzti honek egoeraren larritasuna adierazten duela azpimarratzen dute eta Ekonomi Batzordeak zenbait jestio egin ondoren, Etxebarri herrian dagoen 875 m<sup>2</sup> planta bat erostea proposatu eta onartu da.

Ondoren, 1984-85 urteetako Argitalpen guztien programaketa zehaztu eta finkatu da, bai *Euskera*, X. Biltzarreko txostenak barne direlarik, Euskararen Leku-

koak, IKER edo JAGON Sailekoak, Oinarrizko Euskara Batzordearenak eta Euskaltzaindiko Argitalpen solteak.

Bilera honetan, azkenik, Argitalpen Hitzarmena egile paratzaile guztiekin sinatzea proposatu eta onartu da.

2. *Gramatika Batzordea*. Azaroaren 9an bilduko dela adierazi du J. Haritschelhar Batzordeburu-ordeak, bertan aztertuko duelarik, besteak beste, X. Biltzarrean eztabaidatutako txostena argitaratzeko tratamendua.

3. *Etsamina Batzordearen* Idazkari den J. J. Zearretak joan den 20an, Iruñean egindako azterketaren kontu eman du. Oso harrera ona izan du Nafarroan, 306 lagun aurkeztu bai ziren, UNED eta Perito Eskolako geletan egin zen, beren Zuzendaritzan laguntza osoz. Beraiei eta etsaminetan lagundu zuten guztiei, gure eskerra agertzea eskatu du. Ontzat hartu da.

4. Euskaltzain osoen bilkuran, *euskaltzain ohorezkoak* izendatzea, Azaroko batzarrean erabakitzeke utzi zen.

5. *Mailegu berrien idazkeraz*, hain zuzen II. Jardunaldietan tratatutakoari buruz, Euskaltzainburuaren eta L. Mitxelena jaunaren zerrenda eta gutuna irakurtzen dira. Euskaltzain oso guztien artean banatzea erabaki da, hurrengokoan eginkizun dagoen lana sailkatzeke.

6. *Euskal Hiztegi Orokorraz* mintzatu da, hain zuzen berari buruzko Hitzarmenean eskatzen den Jarraipenerako Batzordeaz. Zuzendaritzaren izenean proposamen bat egiten du Euskaltzainburuak eta luzaz eztabaidatu ondoren, jaun hauek izendatzen dira: Patxi Altuna, Alfonso Irigoyen, Federico Krutwig eta Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi Idazkaria. Hau atzerritik denez, honen hutsunez, behar balitz, Juan San Martin Jagon Sailburua. Ondoko bezala, arazo ekonomikoen harremanetarako soilki, Juan Jose Zearreta, Ekonomi Eragilea.

7. Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz Euskaltzaindiak egiten dituen sariketarako epaimahaiak izendatzen dira. TORIBIO ALTZAGArako: Iñaki Beobide, Xabier Gereño eta Andu Lertxundi; ARRESE BEITIArako: Federico Krutwig, Juan M.<sup>a</sup> Lekuona eta Juan San Martin.

8. Datorren urteko *Aurrekontuak* aurkeztu ditu E. Knörr Diruzainak eta gai horretaz, 4 Diputazioetan, Eusko Jaurlaritzan eta Estatuko Hezkuntz eta Kultura Ministeritzetan egin diren jesticioen berri eman da. Orobat, Argitalpenen bileran tratatutako Gordailu berriaren erosketaz.

d) *Euskal pontizen zahar batzuk azterrikatuz* izeneko txostena irakurtzen du Jon Etxaide euskaltzain urgazle jaunak. Lau sailetan banatzen ditu aztertutako izen mordoak: 1. Kontsonantean amaitutako erdal-izenaren bukaeran erdaratik hartutako pontizenak. 2. Frantses pontizenaren azken “-e”, “-a” bihurtzen dutenak. 3. Erdal-izena kontsonantean hasten delarik, berau galtzen dutenak. 4. Erdal izenaren kontsonante bat “tx” bihurtzen dutenak.

Txosten interesgarri honen irakurketa amaitu ondoren, eztabaida labor bat egiten da.

e) Joakin Lizarraga Elkanokoaren *Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic* edizio kritikoaren aurkezpena egiten da azkenik. Lehendabizi, L. Villasante Euskaltzainburuak hitz laburrez egiten du sarrera bat eta ondoren, Euskararen Lekukoak bildumako 10.

ale honen paratzaile izan den A. Frantzisko Ondarra euskaltzain jaunak ematen ditu liburuaren azalpenak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkari-Ordea*  
*Jose Luis Lizundia*





Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1984.eko Azaroaren 30ean arratsaldeko 4-etan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Bildu dira: L. Villasante, buru, J. Haritschelhar, buruordea, P. Altuna, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzain osoak. J. A. Arana, J. M.<sup>a</sup> Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, R. Badiola, P. Charritton, A. M.<sup>a</sup> Etxaide, J. Etxaide, J. L. Goikoetxea, X. Kintana, M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Mujika. P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, J. M. Satrustegi idazkari dela. Goizeko batzarrean E. Knörr ere egon da.

Ezin etorria adierazi dutenak hauek dira: J. L. Davant, X. Diharce, J. Gorostiaga, J. Hiriart-Urruty, P. Lafitte, P. Larzabal, L. Mitxelena eta A. Zavala.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Aurreko batzar agiria onartu da.

Patxi Goenagak doktoradutzako bere tesia aurkeztu berri duela esan du Euskaltzainburuak, zorionak emanez.

### Goizeko batzarrearen berri

P. Altuna, F. Krutwig eta A. Irigoyen euskaltzainek izenpetutako izkribua irakurri da, Euskal Hiztegi Orokorrearen arazoa dela-eta Euskaltzaindikoko karguen berriztapena hurrengo batzar baterako uztea eskatuz. Eskaria ez da ontzat hartu.

*Kargu berritzea.* Bi urtetik egin ohi denez Euskaltzaindikoko karguen berritzea, Araudiak agintzen duen epe barnean zabaldua zen horretarako deia eta honako hamaika euskaltzain hauek etorri dira: P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, J. Haritschelhar, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegui eta L. Villasante.

Bozkatzeko ahala idatziz eman dute J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, Iratzeder, P. Lafitte eta P. Larzabal jaunek, Haritschelharri. J. Gorostiaga eta A. Zavalak, Villasanteri, L. Mitxelenak, Satrustegiri. Zortzi gomendio beraz.

Hemeretzi txarteletatik, 16 bai atera ditu L. Villasante, Euskaltzainburuak. Zuri 2, eta J. Gorostiagak boto bat. J. Haritschelhar, Buruordeak, 15 bai atera ditu, hiru zuri, eta J. Gorostiagak bat. Era berean, J. M. Satrustegi, Idazkariak, 15 bai izan

ditu, hiru zuri, eta J. Gorostiagak boto bat. E. Knörr, Diruzainak, 16 bai, bi zuri, eta J. Gorostiagak boto bakarra.

Gehiago osoarekin, lehen bozketan izendaturik gelditu da Zuzendaritza.

*Euskaltzain Ohorezkoak.* Zazpi euskaltzain ohorezko izendatu dira gero: Jacques Allieres, Balentin Enbeita, Iñaki Eizmendi "Basarri", Nils M. Holmer, Jesus M.<sup>a</sup> Leizaola, André Martinet eta Terence H. Wilbur jaunak.

### Zenbait batzorderen berri

Bertsolari batzordearen berri eman du J. San Martin jaunak. Erabaki nagusia, azken bileran, 1985-ean Bertsolari Txapelketa antolatzea izan dela, esan du. Horretarako, antolakizun batzordea alde batetik eta epai-mahaikoak bestetik, nor-beraren eginkizunetan bakarrik sartuko dira. Azken-aurreko gelditu zirenak aurrera pasatzen dira.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babesean Euskaltzaindiak eraturako sariketen erabakia aurkeztu dute epai-mahaikoek. Felipe Arrese-Beitia olerki sariaren irabazle, "Beldur naiz" izenburu edo adierazgarriz etorria. Toribio Alzaga Teatro saria "Andre Zuria" izeneko lanak jaso du.

Atlas Linguistikoari buruz hiru lankide ari direla galderak prestatzen, esan du Haritschelhar jaunak. Uztaritzeko jardunaldien ildotik, datorren otsailerako zerrenda egina izango omen dute. Lana ongi doa.

Maileguzko hitzei buruz hasia den lana aipatu du txosten labur batean euskaltzainburuak, jarraipena eskatzen duela agertuz. Zientzia eta teknika hitzek ez baino, eguneroko hizkuntzan plazaratzen direnek dute erantzunaren behar gorria. Horiek dute presa haundiena. Datorren hileko batzarrera erabaki gabe dauden pundu nagusien hautapena eta sailkapena ekartzeko gogoia eta asmoa agertu ditu.

Euskera agerkariaren 1984-1.alea zabaldu da. Bonaparte printzearen izkribu zerrenda eta N. Tauerren bildumarena ekartzen ditu, besteak beste.

### I. M. Etxaide zenaren mendeurrena

Arratsaldeko bostetan Gipuzkoako Foru Diputazioaren areto nagusian egin da I. M. Etxaide zenaren mendeurrena gogoan dela eraturako batzarre irekia.

X. Aizarna, Gipuzkoako Batzarre Nagusietako Burua, L. Villasante Euskaltzainburua, J. Haritschelhar eta J. M. Satrustegi jarri dira mahaiburuan.

Euskaltzainburua mintzatu da lehenik, Euskaltzaindiak I. M. Etxaiderekin duen zorra aitortuz. Gerra osteko une hartan bera buru zelarik hasi zen Euskaltzaindia lanean, antolatu ziren berriz Biltzarre nagusiak eta hasi zen euskara berpizten. Kristautasuna, telefonoa eta Euskaltzaindia zirela bere lan nagusiak, azpimarratu du hizlariak.

Jon Etxaide euskaltzain urgazle eta omenduaren semeak agertu du bere aitaren nortasuna, eta aztertu ditu haren sineste integrista, gipuzkoan telefonoa galtzeak sortu zizkion nahigabe eta kezkek, hala nola euskal liburu eta izkribuak. Lan luze eta zehaztasunez borobildua ekarri du.

Ana Mari Echaide, alaba txikiak, bere euskalzaletasunaren oroigarrietatik hasi eta aitarekin izandako harremanak aipatu ditu. Mendi tontor askotako ibilaldiak, musika saioak eta etxeko giroa agertu dira bere hitzaldi labur eta goxoan.

X. Aizarna Gipuzkoako Batzarre Nagusietako Buruak esan ditu azken hitzak. Poztu da Gipuzkoako Diputazioarekin hainbeste harreman izen zuen gizon ospetsuari egiten zaion omenaldiaz. Telefonoaren aurrerapena handia izan da benetan eta horretan lan egin zuen omenduak. Diputazioaren izenean zorionak eman dizkie seme alabei.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*



Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1984.eko Abenduaren 21ean arratsaldeko 4etan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. Caro Baroja, B. Enbeita, I. Eizmendi "Basarri" eta J. M. Leizaola euskaltzain oho-rezkoak. X. Aranburu, G. Barandiaran, J. Estornes Lasa, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, L. M. Mugika eta J. A. Retolaza, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, P. Lafitte, E. Larre eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Azaroko agiria onartu da.

### **Eguneko gaiak**

Orotariko Euskal Hiztegia dela-eta Zuzendaritzak izan dituen harremanen berri eman da. Euskaltzaindiaren hitzarmenean diren hutsuneak bideratzeko eraskin baten zirriborroa prestatu da. Arazo hau ez da, nola nahi ere, Jarraipen batzordearen egitekoa, Euskaltzainburugoaena baizik, eta J. San Martin izendatu da L. Mitxelenaekin harremanen jarraitzeko. Campion-Broussain S. A. elkargoaren eginkizuna da, azken finean, egileekin hitzarmena izenpetzea.

### **Mailegu berriak**

Euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren kezka larria agertu du mailegu hitz berrien arauak emateko hasia duen lanarekin. Premia haundikoa bezain presaduna ikusten du Landagoien hasitako lanari jarraipena ematea. Horretarako P. Salaburu euskaltzainari laguntza eskatu dio eta datozen hilabeteetako lanen sailkapena aurkeztu da.

Pello Salaburuk, beste hizkuntzetatik etxekotu nahi diren hitzen idazkera eta itxura aztertzeko, gaien sailkapena egin du bere txostenean. Sei multzo ikusten ditu, baina lautan bildu daitezke. Iaz lau erabaki hartu zirenez, aurtengo programaketan

lehen aldiko proposamenari bosgarrena deituko diogu, eta horren arabera beste guztiak Kontsonante multzoen arazoa da, noski, zailena.

Erabakigaiak aurkezteko batzordeak izendatu dira. V) Bi atal ditu eta P. Salaburu, M. Zalbide eta P. Goenaga arduratuko dira atal bien azterketaz. VI) Batzorde hau, A. Irigoyen, K. Rotaetxe eta L. M. Mugikak osatzen dute. VII) Zazpigarreneko, P. Altuna, F. Ondarra eta X. Kintana izendatu dira. VIII) Azkenekoz, zortzigarren multzoan diren bi atalez, J. Haritschelhar, E. Larre eta B. Oyhartzabal ariko dira.

Lanen epea: Bosgarren erabakigaiak Otsaileko batzarrean aurkeztuko da. Seigarrena, Apirilean. Zazpigarrena Maiatzean, eta zortzigarrena Ekainean.

### Beste gai batzu

Euskaltzainburua Madriden izan delarik, Lain Entralgo akademilariarekin mintzatu dela, aditzera eman du. Akademien arteko bilera prestatzen joateko aurretopaketa bat Urtarrilean Madriden egitea, eskatu zion Villasante jaunari. Eskaria idatziz bidaltzea hobe zela eta Euskaltzaindian jaso da Madridera joateko gomita. Akademien arteko lehen batzarrea Madriden egitea komeni da, Akademia zaharrena Espainiakoa baita. Euskaltzaindiari, era horretan, azkeneko txanda helduko litzaioke.

Caja de Ahorros Vizcainak gutun bat bidali digu Euskaltzaindiaren ordezkarik bere denbora bete duela eta izendapen berria eskatuz. X. Gereñok orain arte bezala jarraitzea erabaki da.

“Expolangues” izeneko hizkuntzen agerpena aipatu da gero. Entzundako asmo berri batzuren ardatza eta funtsa ez dirudi sendoegia denik. Euskaltzaindiak bere aldetik bideratuak ditu bere harremanak eta aurrera doa.

Vicente Aleixandre, olerkari eta erdal akademilaria hil berri denez, Espainiak Akademiari dolumina agertzea onartu da.

### Txostenak

J. Caro Baroja, euskaltzain ohorezkoak, Larramendiren hiztegiari buruz egin du bere txostena. Entzuleen aukietan zegoen X. Aizarna, Batzarre Nagusietako Buruari utzi dio une horretan bere aukia idazkariak. Larramendiren hiztegia usadiozkoa den ala uste bezain asmatua, ez dago hain garbi. Caro Barojak garbi aitortu du *Azkueta-Larramendi* delako auzian, bigarrenaren alde makurtzen dela bera. Gehienek uste duten baino lan hobea dela, esan du.

Larramendi langile haundi eta herrian xertatutako gizona, ikusten du txostengi-leak. Gaur eguneko Etnologi azterlarien aurrelari jatorra. Zenbat herrik nahi luke beretzat “Corografía” lanaren antzeko zerbait.

Txostenaren mamia, hiztegioko edukina asmakuntza hutsa den ala ez baldintzatzen datza. Garai bakoitzean badira herriak ibili ohi dituen esaldi eta hitz bereziak. Horietako batzu galdu izan dira eta lekuko daukagu biltzailearen lana. Adibide ederrik eman du bestalde. Azterketa zehatz baten beharra ikusten du arazo honetan Caro Barojak.

Elkarrizketa oparoa sortu du txostenak.

Datorren urteko egutegia aurkeztu du gero Idazkariordeak. X. M. Munibe, Peñafloredaren mendeurrena daukagu alde batetik. Langintzari buruz, Dialektologi jardunak Urtarrilean, eta geure Barne-jardunak Martxoan, P. Salabururen sarrerahitzaldiarekin batera Baztanen.

L. Villasante jaunak zorionak eman dizkie ohorezko berriei. Izendapen-agiria ematerakoan bertso batzurekin erantzun dute B. Enbeita eta Basarrik. J. M. Leizaola izan da gero bere esker ona agertu duena.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*





Gasteizen, San Antonio kaleko egoitza berrian, 1985.eko Urtarrilaren 25ean arratsaldeko 4etan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Bildu dira: L. Villasante, P. Altuna, E. Knörr, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. Apecechea, R. Badiola, I. Baztarrika, P. Goenaga, J. L. Goikoetxea, J. L. Lizundia, B. Oihartzabal, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe, M. M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren, J. M. Velez Mendizabal eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Dialektologi Jardunaldietarako agertu dira: A. Irigoyen, J. M. Etxebarria, Ch. Videgain eta G. Aurrekoetxea.

Ezin etorria adierazi dute: J. L. Davant, X. Diharce, J. Haritschelhar eta L. Mixelena jaunek.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Abenduko batzar agiria onartu da.

Bordeleko Unibertsitateak Ohorezko Doktore izendatzen du gaur J. Caro Baroja euskaltzain ohorezkoa eta zorionak ematea erabaki da.

## Goizeko bilkuraren berri

Goizeko gai nagusiak honela laburtu ditu idazkariak:

Orotariko euskal hiztegia aipatu da lehenik eta emandako urratsak baikortzat hartu dira.

Madriden, Urtarrilaren 17an, Akademien artean izandako elkarrizketen berri eman du J. San Martin jaunak. Topaketa ofiziala prestatzen joateko deia zenez, eskuarteko arazoak eztabaidatu zirela, esan du.

Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari eskatu zion, bere egunean, Hobekuntza delako Legearen itzulpen ofiziala. "Itzultzaile Eskolak" egin du lana eta P. Salaburu arduratuko da J. L. Lizundiarekin, gain begiratua emanez.

Euskaltzaindiak Nafarroako Museoa duen egoitzaz mintzatu da J. M. Satrustegi, hango Ordezkarria. Itxura denez, datorren otsailean hasiko dira Museoko obrak eta beste norabait atera beharko du Euskaltzaindiak. Hitzemandako egoitzan ez da

inolako lanik egin. Datorren asterako deia izana duela Diputaziotik, esan du. Orduan ikusiko da zer irtenbide dagoen.

Parisen datorren astean egitekoa den "Expolangues" Hizkuntzen agerpenerako prest dagoela dena gure aldetik, esan da. Eusko Jaurlaritzarekin batera egingo da aurtengo erakusketa.

### **Batzordeen berri**

1985eko Bertsolari txapelketa eratzeko, Zarautzen bildu da batzordea, J. San Martinek esan duenez. Antolatzaile batzordea izendatu dute: J. San Martin buru, A. Aranburu idazkari, J. M. Iriondo, J. M. Aranalde eta J. A. Arana Martija aholkulari. J. J. Zearreta diruzain. Plangintza orokorraren ildo nagusiak agertu dira. Deiak egin eta zerrendak ezarri ondoren esango da frogak non, noiz eta nola egingo diren. Beste aldi batean epai-mahaia izendatuko dute.

Gramatika batzordeak prest duela Iruñeko Biltzarrean aurkeztutako lana, aditza eman du. Finantziabidearen zain daude. Nafarroako Gobernuan jestioak bideraturik omen dauzkate.

### **Gasteizko egoitzaren aurkezpena**

Eguerdiko ordu batean, Alberto Ansola Arabako diputadua mahai buruan zegoela, Armando Llanos Eusko Ikaskuntzaren izenean, L. Villasante euskaltzainburua eta Antonio Ochoa Euskal Unibertsitateko Erretor-ordekidea mintzatu dira Arabako Foru Diputazioari esker ona agertzeko. Hitzaldi laburrak izan dira denak. Aipatutako hiru erakunde hauez bestalde, L. Mitxelenak zuzentzen duen *Orotariko euskal hiztegia* taldeak ere bertan izango ditu langelak. Etxe oso ederra da Ordezkaritza berriarena.

### **Txostena**

Odon Apraiz euskaltzain ohorezkoa zenari omenaldia eskaini dio gaur Euskaltzaindiak. Bertan zeuden Apraiztarrei eskerrak emanez hasi du E. Knörr, Arabako ordezkariak bere hitzaldia, mahai buruan zegoen margoa eskaini bait diote Euskaltzaindiari, Pantxo Cosio-k Odon Apraiz gazteari egindako irudi estimagarriarekin. E. Knörr jaunak gero, "In Memoriam" gozaro eta maitasunez mamitutako txostenean irakasle zenduaren bizia, ikasketak, maisu lana eta euskal sena agertu ditu. Eusko Ikaskuntzaren sorrerako bileretan parte hartu zuen Odonek Arantzazun. Euskaltzaindiaren diru laguntzarekin Ikasketak egin zituen atzerrian. Unamunorekin zuen adiskidetasuna ere aipatu du txostengileak, haren bibliografia aberatsa eta biziki umorea ahanzi gabe.

### **Azken ordukoak**

Zuzendaritza P. Lafitte euskaltzainkidea ikusten izan zela Urtarrilaren hiruan, jakinerazi du idazkariak. Baionako eritegian dago zangoetatik ezindurik. Egoera aski

larrian izan behar ditu eta medikuak ez dira ausartzen ebakuntzarik egiten. Buruz, bestela, beti bezain argi eta izpirituz lasai ikusi genuen.

Itzultzean, P. Larzabalen etxean sartu ginen. Esangura, eta ezpainek ez jarraitzen berak nahi bezala. Ikusten zen asko estimatu zuela bisita. Bere antzerkien berri ere eman zigun. Argitaratzen joatea komeni da.

Bezperan Aita Intza ikusten egon zela esan du J. M. Satrustegik. Euskaltzaindiak egiten dituen lanen berri galdetu zuen eta beregana iristen diren zurrumurruek argibidea nahi zuen.

Arratsalde honetan Dialektologia Jardunak hasten direnez, amaitutzat eman da batzarrea.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*



Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian egin du Euskaltzaindiak Otsaileko bere batzarrea. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschellar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, P. Salaburu, J. San Martin, eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. A. Arana, J. A. Arkotxa, P. Charritton, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, J. Fdez. Setien, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, J. L. Lizundia, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, hala nola J. M. Jimeno Jurio txostengilea.

J. Hiriart-Urruty, P. Lafitte, P. Larzabal eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin arratsaldeko 4etan hasi da batzarrea.

Urtarrileko batzar agiria onartu da.

### Goizeko bilkuraren berri

*Maileguzko hitzei buruzko V. erabakigaia* aurkeztu du P. Salaburuk. P. Goena eta M. Zalbide batzordekideekin batera prestatutako txostena orraztu dute euskaltzainek. Bi puntu nagusi datoz oraikoan: a) *Ozen + txistukari kontsonante multzoetan*, alde batetik, eta b) *Bi sudurkari*-koak, bestetik. Ohar guziak kontuan hartuz egin den izkribua aho batez onartu da. Batzar agiriari datxikola ematen da. Txomin Peillen jaunak igorritako gutuna irakurri du Idazkariak eta bere egunean aztertzeko utzi da.

*Bertsolari batzordea*. J. San Martin antolatzaile azpibatzerde buruak aurtengo Bertsolari Txapelketa-rako Epaimahai batzordea aurkeztu du. Bertan daude: J. M. Aranalde, A. Aranburu, J. M. Etxezarreta, A. Irigoyen, M. Itzaina, E. Larre, A. Muniategi, J. M.<sup>a</sup> Iriondo, J. M.<sup>a</sup> Lekuona, eta A. Zavala. Lehen ariketan beste hauek ere parte hartuko dute: Arantza Arruti, P. Aldama eta, hutsune gehigarri, P. Esnal. Txapelketako arautegia ere onartu da.

*Gramatika batzordeak* hurrengo hiru urteetarako lan egitasmoa aurkeztu du, honako atal berezi hauetan banatua: a) Eskuartekoen jarraipenez, perpaus bakunaren gramatika burutzea. b) Lanen epea mugatzeko egutegia. c) Parte har lezaketenen gehitzea eta, d) Kostuen aurrekontua.

Riezuko aita Jorjeri, igandean emango zaion “Manuel Lekuona” sarirako, F. Ondarra eta J. A. Arana izendatu dira Euskaltzaindiaren ordezkari.

Euskaltzainburugoak bezperan egindako bileran, bulego langileen alogerak iaz bezala Jaurlaritzakoekin parekatzen jarraitzeari oniritzia eman zion. Kargudunen laguntzak ere gaurkotuko dira.

Iruñean dugun ordezkari-tza laster utzi beharko dugula, jakinerazi diote agintariek J. M. Satrustegiri. Horretarako, Oliveto Kontearen kaleko egoitza berria epe laburrean egokituko dutela hitzeman diote.

Datorren hileko barne-jardunak eta P. Salabururen sarrera-hitzaldia dela eta Baztanen izandako harremanak aipatu ditu J. L. Lizundiak. Martxoaren 29 eta 30-ean Lekarozko ikastetxean egingo dira jardunaldiok, eta biharamunean, Arizkun, egingo du euskaltzain berriak bere sarrera-hitzaldia.

### **Txostenak**

*Expolangues.* Otsailaren 1-etik 5-era Parisen egindako Hizkuntzen Agerpenaz mintzatu da J. Haritschelhar. Iaz baino egokiago egin direla gauzak, eta datorren urtean euskarak hobeki behar duela agertu, esan du. Euskaltzaindiarekin batera han zegoela Eusko Jaurlaritza ere, aipatu du gero J. L. Lizundiak.

Berrogei bat mila jende ibili omen da erakustokian zehar eta zenbait jaun ospetsu aipatu dira haien artean. Hizkuntzei dagokien munduko erakusketarik garrantzitsuena izatera heldu omen da Pariskoa. J. A. Aranak euskal liburu eta argitalpenak atzerrira bultzatzeak duen garrantzia azpimarratu du. Bazen bertan euskal argitalteen ordezkari bat, eta gure liburuak Paris, London edo Berlinen antzeko hiriburuetan sartzea da azken helburua.

J. M. Jimeno Jurio jaunak Iruñerriko toki-izenez egin du, gero, bere txostena. Bilduma zehatz eta txalogarria egiten ari da aspaldian eta, aurkitutako altxorraren lekuko, euskarazko esames jatorren zerrenda aurkeztu du. Arretaz entzun zaio eta garrantzitsutzat hartu da bere lana.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*

Arizkunen, Baztango ibarrean, 1985. eko Martxoaren 31an ospatu du Euskaltzaindiak P. Salaburu euskaltzainaren sarrerako batzarre irekia eguerdiko 12etan. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, L. Mitxelena, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak, J. Riezu euskaltzain oho-rezkoa. J. Apezetxea, J. A. Arana, J. M. Aranalde, X. Aranburu, P. Arregi, J. Atxa, M. Azkarate, R. Badiola, P. Charritton, J. Estornes, A. M. Etxaide, J. M. Etxebarria, P. Goenaga, J. M. Iriondo, M. Izeta, X. Kintana, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, X. Lete, J. L. Lizundia, J. A. Mujika, M. J. Urmeneta eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Pilota plazan, Roman Felones Nafarroako Foru Gobernuko Hezkuntz eta Kultur kontseilaria, Felix Santiago Ustarroz Baztango alkateordea eta Juan Irigoyen Arizkongo alkate-zineztua eseri dira Euskaltzainburuarekin mahai nagusian. Alboan, P. Salaburu, L. Mitxelena eta J. M. Satrustegiren erdian.

Ustarroz, Baztango alkateordeak hitz labur batzurekin ongi-etorria eman die batzartuei.

Festaren zergatia eta esan-nahia euskaraz eta erdaraz aditzera eman ditu gero Euskaltzainburuak. Euskaltzaindiaren sorrera, historia, helburuak eta lanak ere aipatu ditu bere hitzaldian L. Villasante jaunak. Itxaropen hutsa ezik, emaitza ere bage-nuela Salaburu, aitortu du Euskaltzainburuak.

Idazkariak ospakizunari dagozkion araudiko puntuak irakurri ondoren, euskaltzain berriaren sartze sinbolikoa egin da J. Haritschelhar eta J. San Martin euskaltzainkideen eskutik. Arizkongo txistulariek "Aitorren hizkuntz zaharra" jo dute une horretan eta batzartuak zutituz eman zaio P. Salabururi ongi-etorria.

### Sarrera-hitzaldia

"Mario Bungeren hizkuntzalaritza" izenburuarekin aurkeztu du euskaltzain berriak bere sarrera-hitzaldia. Noam Chomsky hizkuntzalariaren teorien interpretazio pertsonala eztabaidagarria dela esan du Bungeren lanean. Chomskyren teoria aurkeztu eta kritikatu beharrean, Bungek berak hizkuntzalaritzari buruz dituen irizkiak agertzeko baliatzen omen du *Lingüística y Filosofía* izeneko liburua. Nola nahi

ere, Bungenen teoriak aztertzea ez baino, Chomsky-ri buruz harek esandakoen hutsak eta gaizki ulertzerik haundienak salatzea da bere helburua.

Txostenaren edukinean sartu aurretik, A. Irigaray euskaltzain zenaren aipamena egin du Salaburuk. Ez duela ezagutu uste bazuen ere, herriz-herri haur euskaldunen sariketa egin zelarik Irigaray ez ote zegoen berari agiria eman zioten gizonen artean, gogoratu du.

Koldo Mitxelena Iker sailburuak erantzun dio txostengileari. Honen merezimen-  
du eta ikas maila aipatu ondoren, gaurko hizkuntzalaritzako eskolen ildotik sortuta-  
ko bere aburu eta ohar mamitsuak jalkiz burutu du hitzaldia, zorionak emanez den-  
bora berean.

L. Villasantek euskaltzain agiria eskuratuz zoriondu du lagun berria. Idazkariak erakundearen domina ezarri dio gero.

Juan Migel Munarriz, Elizondoko Juradoaren eskutik opari bat jaso du azkenik.

Roman Felones, Nafarroako Hezkuntz eta Kultur Kontseilariak esan ditu azken hitzak. Ohoretzat hartu duela Nafarroak Salabururen izendapena, esan du. Nafarroako Gobernuak euskararen alde egin nahi duen lana aipatuz, gure kultura zaintzeko xedea aitortu du. Bere zorionaren ondoren euskal hitz labur batzu esan ditu.

Mikel Laboa kantariak bere euskal abestiekin parte hartu du jaialdian.

### **Beste bilkuren berri**

Bi urtetik behin egin ohi diren Barne Jardunaldiak egin ditu Lekarotzen Euskaltzaindiak. Batzordeetako arduradunekin batera, datozen urteetarako ekintzen egitaraua aztertzeko eta finkatzeko izan da aurreko bi egun horietan egindako lana.

Villasante, Salaburu eta Satrustegi Baztango alkate jauna ikusten egon ziren bere etxean, Euskaltzaindiak ohi duen eran. Bide batez, Baztango ikurra Arizkungo festan egongo zela hitz eman zien J. Iturralde jaunak, aurreko egunetako tirabirak horrela konponduz. Ikastolaren arazoak ere aipatu zituen bailarako alkateak eta konponbidera iritsi ziren bileran. Giro lasaian joan zen elkarrizketa.

Batzarre ondoren Arizkungo dantzariak saio bat eskaini dute herriko plazan.

Denbora berean Arizkungo artelari eta artesauen erakusketa irekirik egon da Parrokiako barne batean.

Eta besterik gabe, bazkari batekin amaitu da euskaltzain berriaren sarrerari buruz antolatutako festa.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*



Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, 1985.eko Apirilaren 26an egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea arratsaldeko 4etan. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, eta J. San Martin, euskaltzainak. J. A. Arana, X. Aranburu, M. Atxaga, P. Charritton, J. Etxaide, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, A. Zatarain, J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin eman zaio hasiera batzarreari.

Otsail eta Martxoko batzar agiri biak onartu dira.

E. Larre euskaltzainak P. Lafitte zenaren goratarrea egin du. Iruñeko Batzarean ikusi genuen azken aldiz hileroko batzarreetara hainbeste urtez ia hutsik egin gabe etorri zen euskaltzainkidea. Bere-berea zen gramatika gaiarekin amaitu zuen euskal munduan hain zabal eta luze egindako lana. Bertan agertu zuen bizi gosea eta izpiritu xorrotxa saio guzietan parte hartuz. Handik aurrera ez zuela ordu onik izan, esan du txostengileak. Lafitteren lanak ugariak dira eta oso zabala berak erabilitako gaien arloa: gramatika, politika, etnografia eta kazetaritza; baina, oroz gainetik apezka, esan du E. Larrek.

L. Villasantek gero, P. Lafitte jaunak utzitako hutsunea gertatu dela Euskaltzaindian, aditzera eman du. Araudiaren arabera, bi hilabeteko epea irekirik gelditzen da euskaltzaindian proposamena egiteko. Idatzirik eta hiru euskaltzainek izenpeturik egingo da aurkezpena. Uztaileko batzarrean egingo da hautapena.

### **Goizeko bileraren berri**

Goizeko gai nagusia mailegu berrietako VI. atala ikertzea zen. A. Irigoyen jaunak irakurri du, A. Rotaetxe eta L. M. Mugikarekin batera taxututako erabakigaiak: bi kontsonante oklusibo dituztela agertzen diren multzoena, alegia. Horretarako, orri bat banatu du zenbait oharrekin lanaren aurkezleak. Eztabaida luzerik sortu du arazoak. Labur esateko, idazkera edo erredakzioari buruz, aurreko erabakien ildotik joan behar genukeela aipatu da. Klasikoen ereduari jarrai zaiola esan du A. Irigoyenek, beste galdera bati erantzunez. Lehen puntuak aurkitu du P. Altunak kontraesan

antzeko istilu bat. *Adjektibo* baino gogokoago ikusten du berak *adjetibo* idazkera, hala nola subjektibo etab. Arazoa beste batzuren iritzian zera da, *adjetibo* hitz hori hartzekotan, ez ote litzatekeen mailegu zaharra bezala hartu behar. Nola nahi ere ez da kasu honetan adibidetzat ezarriko.

Gramatikalarien iritzia eta ortografiaz ari direnena bide desberdinetatik joateko arriskua agertu du F. Krutwig jaunak. Arriskurik balego, gramatikalariek beharko lukete amor eman, noski. *Orotariko euskal hiztegia* egiten ari direnek beren bidea daramate eta hori ez da Euskaltzaindiaren lana, L. Villasantek azaldu duen eran. Eztabaida luzearen ondoren eta zuzenketak ikusirik, proposamena ontzat eman da.

#### IV. Barne Jardunaldien kronika

Eguneko bigarren gaia Lekarozko Jardunaldien kronika irakurtzea izan da. Idazkariak egin du baina denbora gehiagorekin prestatu nahi zuela aditzera emanez. Hitzez hitz irakurri ondoren, P. Salaburu eta A. Irigoyen jaunek pasarte oso mugatu batzuren zehaztasun eta gehigarriak eskatu dituzte. Une batean elkarrizketa bizia eta tirabira bipilak sortu dira eskarien gaia dagokien pertsonen artean.

Jardunaldien kronika ez dela batzar agiri bat, aditzera eman du Euskaltzainburuak. Nolabait, bertan erabilitako puntu nagusien oroipena besterik ez da eta gaur irakurritakoa baino laburragorik egin izan da orain baino lehen. Idazkariordeak aditzera eman du azkenean, zehaztasunik nahi duenak aski duela Euskaltzaindiko artxi-boetara jotzea; han dira banatutako paper guzien kopiak, hala nola solasaldien mag-nefoi grabapenak.

Euskaltzaindiaren bestelako eginbehar askoren artean itanozko aditzaren formak finkatzea ere aipatu duelarik bere kronikan idazkariak, batzorde horretan barne egon nahia agertu du X. Kintanak.

#### Eskuarteko gaiak

Euskaltzainen goizeko bilkuran beste gai hauek ere erabili dira:

Akademiaren arteko topaketak Madrilen egitekoak dira datorren Maiatzaren 20an. J. San Martinek esan duenez, Espainiako Akademia izango da lehen batzarre honen antolatzaile, “Elebitasuna, diglosia eta hezkuntza” gaitzat harturik. Lau bat pertsona joango omen da elkargo bakoitzetik. Hori kontuan izanik, geure aldetik Euskaltzainburua, Idazkaria, Iker sailburua eta Jagon sailburua joatea erabaki da. Haue-takoren batek huts egin baleza E. Knörr izendatu da ordezkeri.

J. Caro Baroja, euskaltzain ohorezkoa, Espainiako Akademiak kideztat hartu du eta gertakizun hori dela bide, Euskaltzaindiaren poza eta zorianak berari adieraz-tea erabaki da.

Lekarotzen Euskaltzaindiak egin berri dituen “IV. Barne Jardunaldiak” direla eta, lagundu gaituzten erakunde, elkargo eta pertsonen gure esker ona agertzea onar-tu da.

Datorren hileko batzarrea Bilbon, maiatzaren 31an egingo da. Ahal balitz egoi-tza berriaren hitzarmena bertan izenpetzeko asmorik ere badago.

Iruñeko ordezkarietzako lanak ere aurreraturik daude eta, behar bada, datorren Ekaineko batzarreko amaiturik egongo dira.

### Batzordeen berri

*Bertsolariak.* Txapelketari buruz Lekarotzen hartutako erabakien berri eman du J. San Martinek. Bertsolarien elkarteari mahaiko edo juradokoen hirutatik bat berek aukeratzea eskaini zaiola esan du. Txapelketa honetan parte hartu nahi dutenek Maiatzaren 15erako eman behar dute izena.

*Argitalpenak.* Barne Jardunaldietan E. Knörr euskaltzainak aurkeztutako eskariari erantzunez, Toki-izenen bilduma berezi bat egiteko asmoa agertu zen batzordekideen artean. Jimeno Juriok Iruñerrian egin duen lanarekin hasiera eman geniezaioke, horretarako dirulaguntza lortu ondoren.

Eskualdeka nolabaiteko banaketa eginez, zenbait euskaltzainen jarlekua aske uztetari buruz, hala nola batzarreetara ez datozen euskaltzainen bozkatzeko eskubidea mugatzea nahiko luketenen eskariak, astirik ezean, beste aldi baterako utzi dira.

### Txostena

Amrosi Zatarain, euskaltzain urgazleak, *txori* eta *xori* bezalako bikote eta hirukoteez egin du bere txostena. Z, TX eta X hasieran dutenen jatorria TZ dela uste du. Adibidez, *Tzorik* emanak izango lirateke, *zori*, *xori* eta *txori*. Hipokoristiko eta beste-lakoen eragina aipatu du A. Irigoyenek, eta *txortren* iturburua *zori* —zorion hitzarena— dela ere esan da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburua*  
Fr. Luis Villasante

*Idazkaria*  
Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi



Bilbon, 1985.eko Maiatzaren 31an arratsaldeko 4etan, Plaza Barriko bere egoitzan bildu da Euskaltzaindia. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, X. Diharce, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. A. Arana, P. Arregi, R. Badiola, J. G. Etxebarria, K. Etxenagusia, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, X. Kintana, I. Laspiur, J. L. Lizundia, P. Uribarren eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, E. Knörr, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta F. Ondarrak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Apirileko batzar agiria onartu da.

Maiatzaren 20an Madrilen hizkuntz Akademien arteko bilkura egin zela, esan du idazkariak. Giro lasaian aurkeztu zen bertan Estatuko hizkuntza gutxienduen egoera. Valencia eta Mallorkako arazoa ere aipatu zen. Espainiako Erret-Akademiak ez zuen ezer berezirik aurkeztu. Azpimarratzekoa da Euskaltzainburuak irakurritako txosten funts haundikoa. La Coruñan egingo da datorren udazkenean bigarren batzarrea, gai zehatz batzu oinarritzat harturik. Barzelonan egin gogo da hirugarrena eta Euskal Herrian izango litzateke lehen txandaren amaiera. Beharrezkoak ikusten dira harreman hauek.

Lekarozko Barne Jardunaldietan aurkeztutako batzorde zerrendak birrestu dira.

Iruñeko bulego berria prest dagoela, esan du Satrustegik. Ekaineko batzarrea bertan egingo du Euskaltzaindiak, hilak 28, azken ostiralean. Mailegu hitzen lana burutzeko, bezpera arratsaldean euskaltzainak biltzea komeni da.

Donostiako ordezkaritza non ezar daitekeen ikusten izan dira J. Kortajarena Diputadurarekin, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta J. L. Lizundia. Orain arte Kirol arazoan bulegoa zegoen Prim kaleko bi solairu ikusten dira gaurkoz helduenak. Oso aldaketa gutxirekin egoki daitezke.

Campion-Broussain gure azpi-elkargoko idazkaritza bertan uzteko gogoia ageritu du, idatziz, J. M. Satrustegik. Datorren batzarrean astiro ikusteko utzi da eskaria.

**Euskera 1984 (2)** zenbakia aurkeztu eta banatu da batzartuen artean. Euskaltzainburoak 1983-1984 urteetako *Oroit-idazkia (Memoria)* azaldu du bestalde, gure aspaldiko hutsunea betetzen duen lana.

### Batzordeen berriak

*Hiztegitintza.* Lekarozko Barne Jardunaldietan esan bezala, hiztegitintza batzordeko idazkari den M. Zalbidek plangintza orokor baten egitura aurkeztu zion Euskaltzaindiari. Bost bat urteko epe laburrean burutzekoak ikusten dituen lanak hauek dira: Eskuarteko Hiztegi Nagusia amaitzea, lexikologiako irizpideen finkapena, hala nola, maileguzko hitzen idazkera, hitz elkartuen azterketa, erakartuen arazoa eta sintagma lexikala. Bilketa lanean, gaur erabiltzen diren hitzen bilduma egin behar litzateke, prosa arruntean nahiz irakaskintzan.

Geroko beste epe batean egiten joateko aurre-asmoetan sartzen ditu: hiztegi arau emalea, jakintzagai eta bizibide berezietako terminologia teknikoa, eta euskara ez dakitenei erakustean maiztasun-prestutasunezko hiztegia. Noizbait egin beharko da, gainera, euskalkien hiztegia ere.

Lan premiatsuenetatik edo helduen dauden gaietatik hasi daiteke ekintza hauen burutzen. Giza-baliabideak eta dirulaguntza kontuan eduki behar dira. Langaien aurreasmoa urteroko aurrekontuen epe egokian aurkeztu beharko zaie agintariei. Hune honetan Euskaltzaindiari dagokionez, lexikologi irizpideak finkatzen jarraitzea ikusten da beharrezkoena. Maileguzkoen ondoren hitz elkartuen zehaztapan lana hasi dezake.

*Bertsolari batzordea.* Aurtengo bertsolarien txapelketari buruz sortutako istiluen ondoren, bezperan batzordeak eztabaidatutako punduen berri eman du J. San Martin, antolakizun azpisailako idazkariak. Arduradunen proposamena entzun eta zenbait gauza zehaztu ondoren, hurrengo adierazpen hau banatzea onartu da:

“Aurtengo Bertsolari Txapelketa dela eta, zenbait iritzi desberdin hedatu da. Euskaltzaindiak prentsa-bidez ikasi duelarik bertsolari talde batek “txapelketa hobea” antolatu nahi duela, gaurko bileran hauxe erabaki du:

Nahiz Euskaltzaindia aspaldi honetan aritu den bertsolari txapelketak apailatzen, gerra aurrean Euskaltzaleen Elkarreak ekin zion bide beretik eta bertsolaritza indartu nahirik, bertsolari talde batek antolatzeko gogoia erakutsi duenez gero, Euskaltzaindiak ez du oraingoz txapelketarik eratuko.”

*Dialektologia.* Atlas-en batzordea atzo goizean bildu zela aditzera eman du J. Haritschelhar jaunak. Grabapenetako zati bereziak entzun eta aztertzen saiatu ziren, traskripzio lanerako iritziak bateratzeko asmoz. Lan interesgarri eta baliotsua gertatu omen zaie.

*Argitalpenak.* Batzordekide gehienak bertan zirenez, toki-izenen argitalpenei buruz mintzatu da idazkaria, eta proposamen bi aurkeztu ditu: 1) J. M. Jimeno Jurio-ren Iruñerriko bilketa lanen lehen alea, *Cendea de Zizur*, argitaratzeko diru laguntza lor daitekeela. 2) Era berean, E. Goyhenetche jaunak aspaldi burutua zuen *Onomastique du Nord du Pays Basque XI-XIV* mendeetako pertsona izenen lana kaleratzeko laguntza ere eskura genezakeela.

Finantziabidea lortu bezain laster lan hauek plazaratzen saiatzeko oniritzia eskatu zaio batzordeari. Begi onez ikusi da esandakoa.

### Euskaltzainen izendapenaz

Lekarotzen mahai gainean gelditutako eztabaida korapilatsu bat agertu da azkeanean. Euskaltzain ezinduen aulkiak izendapen berriekin bete beharko liratekeela, zioen eskariak. Villasanteren ustez, kontraesan bat dago ahalmen hori aitortzen duen Barne Erregeletako 39. artikulua eta hogeitalau euskaltzainen kopurua mugatzen duen Arautegiko artikulua artean. Hogeitabost izango lirateke une horretan izendatuak. Beste batzuk ez dute inolako kontraesanik sumatzen eta, iritziak iritzi, lege arazoa dago funtsean. Bigarren ikuspegi garrantzitsua, egoera honetan Euskaltzaindiari komeni ote litzaiokeen ala ez zorrotasunarekin horrelako jokabidea hartzea, izan da.

Aburuak elkarretaratu ez badira ere, garbi ikusitako ondoren bakarra, zera da: Euskaltzain batek bere kabuz kargua uzten duela benetan adieraziko balu, hutsunea legezkotzat eman lezake Euskaltzaindiak eta haren ordez euskaltzain berria aukeratu. Berdinak ezin du berdina baztertu, dio Euskaltzainburuak.

Bigarren istilua, batzarreetara ez datozen euskaltzainen botzari zegokion, eta ahalmena edo boterea mugatzea proposatzen zen. Ezin zaiela euskaltzainei berek nahi duten eran botoa emateko eskubiderik uka, esan da. Hauteskunde batean gai soil batentzat espreski emandako botza ezin da, noski, beste arloetan baliatu. Botza emailak orokorki edozein gauzatarako ematen duela aitortuko balu paperean, zalantzarik gabe horrela erabil dezake botere hori haren ahalmena dakarrenak.

Nola nahi ere, kasu bakoitzean ikusi beharko da idatziak daraman mezuaren zabalatasuna ala hertsidura.

### Txostenak

Gabriel Aresti zenaren hamargarren heriotz urtemuga gogoratu du gaur Bilboko egoitza berrian Euskaltzaindiak. J. San Martinek Arestiren poema itzulpenak aipatu ditu bere txostenean. 1954-ean hasi zen Aresti *Euzko Gogoan* idazten. Bi urteren buruan, *Egan*-en 1956.eko azken alean atera zuen bere lehen itzulpena. Santillanako Markesaren "La Serranilla" aipatu du, besteak beste, bere itzulpenen artean. Atzerriko olerkarien lanez interesaturik agertu zen eta txekoan itzulpenak Tauer jaunari eskatu zizkion. Quixote euskarara itzuli nahian ibili zen denbora batean, eta adiskideak ahalegindu ziren hori burutik kentzen. Originala gazteleraz dagoenez, nork irakurriko zuen gure artean euskaraz?

"Gabriel Aresti euskararen batasunaren eragile" izenburuarekin gertatu du X. Kintanak bere txostena. Euskaldunberriaren ikuspegitik hartu du lehenik olerkariaren nortasuna. Berea ez zuen hizkuntza, euskara alegia, berreskuratzea izan zela G. Arestiren helburua, esan du. Txostengilearen ustez, sormen hizkuntza ez da nahi eta ezpada amaren bularrekoa.

Bilboko giro arrotzean euskara ikasi eta egunero baliatzeko erabilpena bultzatzea, ero txalogarrien erueda deitu du. Baina batasunaren aldeko jokabidea izan zuen Arestik eraginkorra. Lehen urratsetan agertzen zaigu bere izena; *Batasuna-*

*ren kutxa* da arlo honetan bere ekintza zaratatsuen. Une batez c/z nahastuz eta abar idazkera anarkikoari ekin bazion, erreakzio baikor baten bultzatzeko izan omen zen. Baina, batasunaren izenean Bilbon bizkaierari bizkarra ematea izan zen, behar bada, bere buruarentzat erabakirik gogorrenetakoa.

J. A. Arana Martijak, azkenik, Arestiren olerki bat 350 hizkuntzataraz itzulia izan dela, esan du. F. Oroz Arizkuren irakasle nafarrak bultzatu du Tubingan itzulpen hau eta zenbait hizkuntzatan sortutako bitxikeriak aipatu ditu. Bibliaz landa egin den itzulpen lanik zabalena omen da hau. Dirudienez, azken berria beste hizkuntza batera itzuli delakoa dugu. 351 mintzaitan errepikatu da euskaldun batek plazartutako "Aitareten etxea".

Eta berri honekin amaitu da batzarrea eta Aresti zenaren goratarrea.

*Euskaltzainburua*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*



Iruñean, Conde Oliveto 2-2.eko ordezkari-tza berrian bere lehen batzarrea, 1985. eko Ekainaren 27an arratsaldeko seietan, egin du Euskaltzaindiak. Bildu dira: L. Villasante Euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. P. Andiazabal, J. Apezetxea, J. A. Arana, J. Atxa, J. M. Azpiroz, R. Badiola, M. Izeta, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, M. J. Urmeneta eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Aurreko batzar agiria onartu da.

### **Ordezkaritza berria**

Eguerdiko hamabietan egin da Nafarroako Ordezkaritza berriaren aurkezpena. R. Felones Kultura eta Hezkuntzako Sailburua, L. Villasante Euskaltzainburua, J. Iturbide "Principe de Viana" Elkargoko zuzendaria, J. M. Satrustegi idazkaria eta P. Altuna Gramatika batzordeburua eseri dira mahai aurrean. Nafarroako ordezkariak hitz bitan ongietorria eman ondoren batzartuei, L. Villasantek irakurri du agur eta esker oneko bere hitzaldia. Bi gertakari garrantzitsu bazirela eguneko gaietan, adierazi du; ordezkari-tza berrian sartzea eta Iruñeko Biltzarrean gramatikari buruz zabal-dutako txosten nagusiaren argitalpena, alegia. Bere egunean lau Diputazioek sortuta-ko elkargoa dela Euskaltzaindia, azpimarratu du, herrialdeak banaturik badaude ere Euskal Herriak hautsi gabe diruela agertuz. Egoitza berriagatik Nafarroako Go-bernuari eskerrak emanez amaitu du Euskaltzainburuak bere txostena.

P. Altuna mintzatu da gero Gramatika batzordearen izenean liburuaren aurkez-pena egiteko. Euskaltzaindiaren X. Biltzarrean onartutako lana, edozein hurrek mundura etortzeko behar duen bederlatzi hilabeterekin datorkigula esan ondoren, P. Lafitte lehen batzordeburuarentzat izan ditu oroitzapenik hoberenak. Perpau baku-naren lanaren ondok beste urratsa aurreprogramatzen ari direla esatean, bost bat urtera daukagun Larramendiren hirugarren jaiot-mendeurrena helburu adierazgarri-tzat eman du, lana amaitzen saiatzeko.

R. Felones baikor agertu da bere asmoetan. Euskaltzaindiaren lana ezagutzen duela eta elkarrekiko lanean Gobernuak daraman bidean aurrerapen baliotsua dela egoitza berriaren lorpena, esan du. Iruñeko Biltzarrean sortutako ezaupenak beste

lotura batzu sortu dituen bezala, harreman hauek indartuz joango direla uste du. Kultura eta Hezkuntza Sailak arreta eta begiramendurik onenez ikusten omen du Euskaltzaindiaren lan isila.

### Euskaltzainen bilkura

Arratsaldeko lauretan bildu dira euskaltzainak hileroko gaiei jarraipena eman nahirik. P. Lafitte zenaren hutsunea betetzeko irekia zen bi hilabeteko epea gaur amaitzen dela, aditzera eman du Euskaltzainburuak. Une horretaraino aurkeztutako izen bakarra, P. Charriton Baionako lankidearena izan da. Berau J. Haritschelhar, J. L. Davant eta J. San Martin euskaltzainek izenpetu dute.

*Maileguzko hitzak.* Eguneko gaietan lehena, mailegu berrietako VII.puntua da: hiru kontsonantezko multzoak bere baitan dituzten hitz maileguak euskaraz nola idatzi behar diren, alegia. P. Altuna, F. Ondarra eta X. Kintanak elkarrekin taxututako erabakigai eztabaidatu ondoren, Euskaltzaindiak honako adierazpen hau onartu du:

*Maileguzko hitzak: VII.puntua.* “Hitz mailegatuek jatorriz hiru kontsonantezko multzoa dutenean bere baitan, euskarak ere hiru kontsonanteak gordeko ditu: hala nola, *institutua, konstituzioa.*”

Ez, ordea, euskara idatzian aspaldidanik erabili diren hitzek hizkera arrunteko esanahia dutenean: esate baterako, *istant(e), sustantzia.*”

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren gutun bat jaso da, bizkaieraren idatzizko eredu bultzatzeko asmoz burutu duten, “Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan” izeneko lanarekin batera. Edukina aztertzea eta oharrak egitea eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Euskararen joskera arazoa ez dagokio soilki bizkaierari eta ez da batera erraza erabakiak hartzea. Gramatika batzordeari bidaliko zaio azter dezan. Horrela jakineraziko zaio Hezkuntza Sailburuari.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saileko Euskara-Arazoetarako Zuzendaritzak, bere aldetik, literaturgintzan diharduten idazleei laguntzak banatzeko epaimahai-ordezkari bat eskatu dio Euskaltzaindiari. A. Irigoyen jauna izendatu da.

Getxo-ko Udalak J. A. Agirre Lekube zenari buruz historia arloko ikerlan batentzat deia zabaldua duelarik, epaimahairako ordezkari bat eskatu du. Pello Salaburu izendatu da.

Bilboko Ateneoak J. M. Barandiaren euskaltzainari eskaintzen dion omenaldirako gomita jaso da. Omenaldi hori gaur eta hemen bilduak garen une berean izateko denez, ezinezkoa gertatu da inor joatea. Gutuna, bestalde, azken orduan jaso da. Erantzunean argi geldi bedi.

Beste batzuren artean, Itzultzaile Eskolako eskari bat ere iritsi da, bere ekintzek merezi diguten eritzia lortu nahian. Gutuna bidaltzea erabaki da.

### Batzordeen berri

*Gramatika.* Eguerdian plazaratu den Gramatikaren txostenak “Hizkuntza batzordea” dela dio egilea. Nehork ez daki aldaketa horren berririk. Inprimategiko

errua dateke. **Euskera** agerkarian agertzekoak diren X. Biltzarreko beste txostenentzat milioi erdi inguruko diru laguntza eskaini du Nafarroako Gobernuak. Batzorde lanen ordainketa aipatu da. Geroari begira, perpaus konposatuaren lanari hasiera eman omen zaio.

*Ekonomia.* Diru-kontuen balantzea aurkeztu du J. J. Zearretak. Dirudienez, azken aldi honetako egoera gaitzitu da eta atzerapenak berehala ordainduko dira. Batzorde honetan euskaltzain bakarra dagoenez besteren bat gehitzea eskatu dute bertan direnek. J. San Martin eta P. Salaburu izendatu dira.

Campion-Broussain azpi-elkargoko idazkari kargua uztea eskatu zuen J. M. Satrustegik Maiatzeko batzarrean. Eragozpenik ez dagoenez, C-B elkargotik kanpo gelditu da oraikoan. *Orotariko euskal hiztegia* aipatu da gero eta K. Mitxelenarekin hasitako harremanak aurrera omen doaz.

*Etsaminak.* Iruñean egin diren etsaminen berri eman du J. J. Zearretak. 261 etorri ziren azterketa idatzira eta hauetatik 91 heldu ziren ahozkorra. Beste probintziatarako hainbat aurkeztu ziren, Gipuzkoatik etorriak, batez ere. Hizkuntz Eskola Ofizialaren esku uzteko hartu zen erabakia aurtengoz ezinezkoa gertatu eta bion etsaminak batera egin behar izan ziren. Galdera soila orain, hau da: jarraitu behar al-du Euskaltzaindiak Nafarroan etsaminak egiten? Eta jarraitzekotan, nor arduratuko da horretaz? Lekarotzen desagertu zen batzordea, eta lagundu gaituzten pertsonak adiskide bezala etorri omen dira. Esker ona agertu behar zaie, noski.

Udazkeneko deiari buruz oraintxe hartu behar da erabakia. Eztabaida luze baten ondoren eta hartarako bideak badirela jakinik, ez gehiago euskararen azterketarik egitea erabaki da. Honako adierazpen hau zabaldu da batzarrea amaitu ondoren:

“Euskaltzaindiak, beste eginkizun askoren artean, euskararen azterketak ere antolatu izan ditu azken urte hauetan.

Gaur egun badira Euskal Herrian honelako gaitasun agiriak banatzen dituzten elkargo eta ikastetxeak eta, Euskaltzaindiaren ustez, behin-behineko ahalegin hark bete du bere egitekoa.

Euskaltzaindiak hartako diren erakundeen esku uzten du euskararen gaitasun agiriak ematea eta ez du aurrerantzean Nafarroan ere azterketarik gehiago egingo.”

*Azkue biblioteca.* J. A. Aranak azken aldi honetan sartutako liburuen zerrenda banatu du. Zer-nolako gaiak sartzen diren gure Bibliotekan, galdetu zaio. Euskara eta euskal kulturari dagozkionak, Linguistikakoak euskara zuzenean ez ukitu arren, eta Euskal Herriarekin zerikusirik dutenak, izan ohi direla gehienez erantzun du A. Irigoyenek. Liburuak eta aldizkariak nahas-mahas ikusten dituela zerrendan, esan du J. Haritschelhar-ek, eta ez ote lirakekeen berezi behar. Sarrera liburuaren zerrenda orokorra dela, erantzun dio liburuzainak, eta beste sailkapen batean egin behar litzatekeela banaketa. Munduan zehar banaturik dauden euskal idazkien baliapenerako zer egin behar den ikustea komeni denez, mikrofilma, mikrofitxa ala beste bidez lana egiten hasi behar den jakin behar da lehenik. Horren kostuen berri ere eskatu omen dute. Egoitza berrira liburuak aldatzeko lana zertan den, galdetu du norbaitek. Zama handia denez liburuena, etxearen egoera ikusi behar dela lehenik eta horren zain daudela, izan da arduradunen erantzuna.

*Onomastika.* Batzorde honek Bilbon egin berri duen bileraz mintzatu da J. L. Lizundia. “Orotako Izendegia” edo euskaldunen artean egunero erabili ohi diren izenen zerrenda egin beharra ikusten da: Emilia, Nicasio, nahiz, Dinamarca, Egipto bezalakoena, alegia. Euskal Herrian bertan ere, auzo, baserri, etxe-izen, ibai, mendi eta abarren bildumak ez dira eginak. Toki-izen eta paper zaharretako husketak jasoko dituen sorta berria aipatu da *Onomasticon Vasconiae* edo beste izen bat emango zaiolarik. Bilketa egiteko metodologia garrantzitsua da eta Jaurdunaldiren batzu ez lirateke gaizki etorriko, horretan saiatu diren kanpoko ikerleen esperientziaz, batez ere, jabetzeko. Erakundeetatik datozen galderak, deituren euskaratzeak sortzen dituen arazoak eta herri izenen aldatzeko dauden legeak, aipatu dira azkenean.

### **Txostenak**

“Baztango hiztegi ttipia” izenburuarekin, herriak erabili ohi dituen eguneroko hitz arruntak ekarri ditu Mariano Izeta, euskaltzain urgazleak. Horietako batzu Azkuek bildu ez zituenak, eta beste asko jasorik dauden arren, esaera berezi eta ahoskatze ez-ezagunak dituztenak.

J. M. Jimeno Jurio jauna santuen izenekin desagertu diren toki-izenek mintzatu da. *Ardoi/Santa Cruz, Zizurren; Murko/San Juan, Atondon; Abaxita/S. Gregorio, Asiainen; Zaia/Santa Engrazia, Egillorren. San Kris* eta *Santa Kris* ez da herri batean bakarrik agertzen. *San Costobaro* (Subiza), *Sandichusti* (Guendulain). Perdon mendateak, *Errentega* eta *Perdonantza bidea* hitzak ere gorde ditu agiri zaharretan.

Elkarrizketan, *Costobaro* eta *San Cristobal* iturri bereko hitzak izan daitezkeela, esan da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburu*  
*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*  
*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*

# **BATZAR TXOSTENAK**



## EUSKAL PONTIZEN ZAHAR BATZUK AZTARRIKATUZ

*Donostia, 1984-X-26*

*Yon Etxaide-Itharte*

Gure baratza eder bezain gutxi ezagutuan gorderik dauden zenbait euskal pontizen zahar aztertzea da iskribu honen asmoa. Saio honetan bildu eta komentatuko ditugun izenak honakook dira: 1. Kontsonantean amaitutako erdal-izenaren bukaeran -erdaratatik hartutako pontizenez bakarrik ari baikara hemen—“-a” edo “-e” bokala hartzen dutenak. 2. Frantsez pontizenaren azken “-e”, “-a” bihurtzen dutenak. 3. Erdal-izena kontsonantean hasten delarik, berau galtzen dutenak. 4. Erdal izenaren kontsonante bat “tx” bihurtzen dutenak, txipigarritasuna, adiskidegoa edo amultsutasuna aditzera eman nahian (1). Häs gaitezen, bada:

**ABRAHAME** (Abraham/Abrahan): Zuberoako pastoral baten izena (Kaniko eta Belxitina, 14 p.).

**ADAME** (Adam/Adan): Bernat Larregi, Testamentu zaharreko eta berriko historia, 18, 19, 20 eta abar paiak.

**ALFONSA** (frantses *Alphonse*-etik): Nafarroa Beherean eta agian Zuberoan eta Lapurdin erabiltzen da edo erabili izan da bederen. Gogorazegun Seigarren Merindadeko Lopez-en itzulpen-obra ernegarriak daraman izenburua: “*Alphonsa* Rodriguez Jesusen Konpañhako Aitaren Girishtinho perfektionearen praktikaren parte bat Heuzkarala itzulia”, Aviñon-en inprimatua 1782-gn. urtean (2).

---

(1) Badira pontizen batzuk “-txa” atzizkia hartzen dutenak, baina badirudi “-txo/-txu” atzizki txipigilearen aldakuntza bat besterik ez dela. Esaterako: Lopetxa Obako eta Perutxa Gaberia (1358), Iruñean. Agian, Martixa (gaur deitura bihurturik: Martija) beste aldakuntza bat da. Beraz, izenok, Lopetxo, Perutxo eta Martintxo bezala izanen lirateke (Alfonso Irigoyen: “*Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca*”, “*Euskera*” XXII, 1977, 592 p., uztail-abendua). Seinalagarri da pertsona berberik Lope eta Peru izena hartzen dutela dokumentu batean eta Lopetxa eta Perutxa beste batean.

(2) Mitxelenak (“*Sobre -a en nombres vascos de persona*”, “*Euskera*” IV, 1959, 5 p.), -a euskal-atzizkia (frantsesetik hartutako pontizenetan), frantses -e mutuaren ordeko bezala jotzen du, baina, dioenez, -e hori ez da beti mutua izan. Bestalde, dio -a euskal-atzizkia ez omen da batere zaharra (nada antiguo). Beraz, jakin beharra litzateke, euskaldunak noiz hasi ziren -a erabiltzen, alegia, frantses -e mututu baino lehenago ala geroago, hots, letra aldatzea ala osat-

ANDERE (Ander/Andrés?): Izen honi buruz honela diot neronek R. S. B. A. P. deritzanaren Boletinean (Cuadernos 3.º y 4.º, 1975, “Khantoren khantatzeko” irazlanean, 421 paian): “Referente a ‘Andere’, sabemos que todavía los pescadores bermeanos llaman a Santander ‘San Andere’, como lo atestigua el P. Imanol Berriatua: “Aolan deituten deutsoe Bermeotarrak Montañako uri nagusiari” (3).

Por otra parte tenemos el testimonio, muy valioso en este caso, de Ceferino Jemein, haciendo referencia a un islote frente a Sukarrieta (Pedernales). Dice Jemein en su “Biografía de Arana-Goiri’tar Sabin e Historia Gráfica del Nacionalismo Vasco”, Bilbao, 1935, p. 265: “Seguía Sabin pasando temporadas en Sukarrieta, y con el fin de fijar allí su residencia, compró, junto a la ermita de San Antonio, los terrenos pertenecientes al caserío “Albina”, propiedad de José María de Atxikallende, además de otros, como la isla de Deun Ander, conocida vulgarmente por Doniandere”. O sea, que el Sr. Jemein, que se toma la libertad de bautizar al mencionado islote con el nombre sabiniano de Deun Ander, reconoce que el auténtico nombre euskérico es DONIANDERE, es decir, Done Andere (San Andrés)”.

Bestalde, Balentin Aurre Apraiz (Aurraitz) olerkariak esaten zidan ingurueroek *Santi Andere* esaten diotela orain.

Hemen esanak irakurri ondoren, badirudi “Andere”k eta ondorenez “Ander”ek, “Andrés” behar duela izan, zalantzarik gabe. Baina, Santanderko historiak besterik esaten digu. Dionisio Ridruejo-k “Castilla Vieja-1” liburuan, 69-gn. paian honela dio: “..., una comunidad religiosa huida de la invasión sarracena obtuvo el privilegio de uno de los primeros Alfonsos asturianos, aún en el siglo VIII, para edificar aquí, donde ahora se alza la Catedral, un monasterio que andando el tiempo se transformó en abadía. En su iglesia recibieron culto las reliquias de dos mártires sacados de Calahorra: San Emeterio y San Celedonio. Del nombre del primero se dedujo el de Santander”. Latinez Emeterio *Hemetherius* da eta Andrés *Andréas*. Badirudi “Ander” errezago deriba daitekeela *Andréas*-tik *Hemetherius*-tik baino. *Emeter* behar ko luke izan *Ander*-en sorterroa, baina eratorpen zaila eta gogorra dirudi benetan. Deribazio hau samurtzeko Santander-ek lehenago eduki bide zuen forma osoago bat ezagutu beharko genuke.

J. M. Lakarrak (Vasconia Medieval, 46 p.) “Garcia don *Andere*” ematen digu Artaitzonan (Artaxona), XI-XII mendetako.

---

zea egin zuten, zeren, *Alphonse* hartu beharrean oinarritzat *Alphons* hartu baldin bazuten, letra osatzen baita —Jesusa (Jesus-a) izenean bezala—, eta ez aldatzen; eta jakina, orduan, frantsesetik hartutako izenok erregela honetan sartzen dira, hots, goian eman dugun lehenbizikoan. Honetaz, lau kasoak hirutara bihurtuko lirateke.

(3) Véase: “Euskal idazleen Lorategia” de Etxenagusia, 1965, pp. 85/86, o también, “Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco”, Literatura IV, pp. 249/250).



Aita Onaindiak —Aita B. Ataun-i jasorik— (Euskal Literatura-V, 397 p.) *Santindere* aldakera ematen du Sukarrietako *Santi Andere*-ren ordez. Esan daiteke, beraz, Santindere eta Santandere edo San Andere gauza berbera direla.

ANTSA: Sancha. *Ansa* deitura hedatua da gure artean. “Ansa”, Gaztelu-ko baserria (G). Luis Eleizalde: Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas, RIEV-XIII, 1922, 422 p.

ANTSO: Sancho. “*Anso Saonch*, que en castellano quiere decir Sancho Saez” (Mitxelena: “Apellidos vascos”, 3-gn, ediz, 49 p.). “Anso, Joane, Onsalu” (Mitxelena *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, 160 p.). “*Anso* Gaskuelo, *Anso* Olakarizketako” (Mitxelena: T. A. V., 35 p. “Anso Garziak gastelu ori emun ez” (Mitx. T. A. V. 97 p.). “Iaun *Anso* Mikeleiz” (Uterga 1221; J. M. Lakarra: *Vasconia Medieval*, 49 p. “*Anso* Iturriko” (Iriberry 1246: Lakarra, *Vasc. Med.*, 38 p.). “Iaun *Anso* Ortiz” (Larraga, XIII mendea; Lak. *Vasc. Med.*, 49 p.). Eleizalde, Listas Alfabéticas, RIEV-XIII, 1922, 422 p.: Ansaga (antso-aga), Elgetako soroa; Ansaran (antso-aran), Irungo baserria; Ansoetxe, Oñatiko baserria; Ansola, Elgoibarko baserria; Ansolope, Arabako Gazteluko tokia; Ansomendi, Mutrikuko baserria; Ansondo, Debako baserria; Ansorena, Astrain-go (N) etxea; Ansotegi, Donostiako baserria; Ansouri, Luyoko deitura (B); Ansuene, Donostiako baserria. Deiturak: Ansorena, Antsola, Antsotegi, Antsoain, Antsoalde, Antsorregi (Antso-torre-egi?) eta abar.

ANTSOA (el Sancho): Antsoategi, Elgetako bi baserriren izena (Eleizalde, Listas Alfabéticas, RIEV, 1922, 422 p.). Deitura: Ansuategi.

ANTSOKO (Sanchito): Ansokorena, Oroz-Beteluko etxea (N). (Benito Urtasun: *Toponimia de Oroz-Betelu*, *Fontes Linguae Vasconum*, 1971, 9 lum., 336 p.).

ANTXA (Sancha): *Maria Antxa*, 1366, Burgi, Erronkari ibarra; Alfonso Irigoyen: *Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca*, *Euskera XXII*, 1977, 582 p.

ANTXI: Markina-Etxebarriko toponimoa (A. Irigoyen, “Zeruko Argia”: “Yon Etxaideri erantzuna”, *Maiatza* 6, 1979, 828 lum.). Francisco ote? (Ikus Antxiko).

ANTXIA: deitura ezaguna. El Francisco ote? (Ikus Antxiko).

ANTXIKO (Francisco): Azkueren hiztegian agertzen da “liro” (triste) hitzean. Erronkariko Bidangozen jaso zuen: “Begiak liro zazkan atzo Peio-k, argi Antxiko-k” (Pedro tenia ayer tristes los ojos, Francisco alegres). Itzulpena ere Azkuerena da. Zorigaitzez ez du esaten nori jaso zion. “Particularidades del dialecto Roncalés” liburuan ere jartzen du adigarri hau Azkuek, “Vocabulario” deritzanean, 200-gn. paian, “triste” hitzean. “Antxiko”: Untzillara-Aramaioko baserria (Eleizalde: Listas Alfabéticas de voces toponomásticas vascas, RIEV-XIII, 1922, 422 p.). “Antxikorena” (Antxiko-rena) etxondo

Nafarroako Oroz-Betelun zegoen (gaur deuseztua). Ikus: Toponimia de Oroz-Betelu, "Fontes Linguae Vasconum", 1971, 9 lum., 335 p. Egilea: Benito Urtasun. Etxondo onetatik sortutako deiturarik ez ote? Badaiteke, baina Nafarroako telefonuko zerrenda-liburuan ez dut aurkitu ahal izan Antxikorena bat bakarrik. Honek ez du esan gura, ordea, patronimiko zoragarri honek deiturarik formatu ez duenik. Horrelakorik segurtatu baino lehen, Nafarroako egunkarien eskeletan, aluntziotan eta albisteetan azterketa sakon bat egin behar da, hala nola jaiotza eta heriotza agiritan edo beste dokumentutan. Gogoan har, Antso-k lehenbiziko kontsonantea ("S") galtzen duen bezala, Antxikok bi kontsonante ("FR") galtzen dituela.

ANTXO (Sancho): *Antxo Luzea*, Nafarroan, 1358 (Alfonso Irigoyen: Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca, 573 paia, Euskera, 1977). Pasai-Antxo ere hemendik etor daiteke. Aditzea dudanez, Pasaiaiko auzo honen izena "Antxo" izeneko baserri batetik omen dator.

ANTXOA (el Sancho): *Antxoarena* deitura ezaguna da.

ANTXOKA: Alfonso Irigoyenek dakar aipatu lanean. Gaur deitura da. Antxo-tik ote dator?

ARISTO (Calixto?): *Aristorena*, nafar deitura.

ARITZE/HARITZE (Félix): "Donna Haritçe, dona felitze. S. Felix", Sylvain Pouvreau: Les petites oeuvres basques, 9 p., J. Vinson (Hordago).

BALERIANA (Valerien/Valeriano): "Makrienek amoratu zuen Baleriana. Enperadore hunek kondenatu zituen heriotzerat aphezpiku, aphez eta diakre guziak". (Bernat Larregi, Testamen zaharreko eta berriko historia, II Tomoa, 342 p.

BASILA (Basile/Basilio). Etxahunen bertso batean (Khantoren khantatzeko, VII-gn. ahapaldia) ageri zaigu: "Basila Olibero, entzün dit batzarre/zük badüzüla bospasei amore".

BATITA/BATTITTA/BATISTA (Baptiste/Bautista): Zuberoan erabiltzen diren aldakerak, Peillenek aditzera ematen didanez.

BAZKOARE (Pascual): Bazkoareiz = Pascualiz (Mitxelena: Textos Arcaicos Vascos, Minotauro, 36 p.).

BEELZEBUBA (Belzébuth/Belcebú): "Erradak Beelzebuba/zer dabilan heben gaintik" (Junes Casenave Harigile, Ibañeta pastoral, 25 p., Jakin, 1978).

BENEDITUA (Benitua): ¿el Benedicto? Gaur deitura bezala ageri zaigu (Mitxelena: Apellidos Vascos, 153 p. 3-gn. ediz.).

BERONIKEA (la Verónica). "Izerdi, auts, odol beterik/Begi, ta aurpegi eukazan, / Beronikeak garbi ezkerro / Izaratxoan geldi zan (Añibarro, Esku Liburua, 191 p.).

DOMINIKA (Dominique/Domingo): Zuberoako izena. Jatorragoak dira noski eskualde hartan Domenixe eta gurean Domiku. "San Dominika": "Espainian sorthu zen San Dominika" (Bernat Larregi, Testamen zaharreko eta berriko historia, II Tom., 387 p.).

EDRIGU (Rodrigo): *Edrigu* de Villandran, egun eben eta biar an (Gari-bay, Cc 79 LIV. RIEV, XXVII tomoa, 615 p.).

ELISEA (Elysée/Eliseo): *Elisea* profetak (Joannes Etxeberri Ziburukoa, Manual Devotionezcoa, bigarren liburua, 59 p.). *Eliseak* ikusi zuen. *Eliseak* iragan zuen. (Bernat Larregi, Testamentu zaharreko eta berriko historia, I, 366 p. eta beste).

ELIZ (Félix) "Hau da orroitzapena Hitur Elizena": He aquí el recuerdo de Hitur Félix (Emeterio Sorazu, Antropología y religión, 242 p.).

ELIZABETE (Elisabeth/Isabel): "Andre-dona Elizabete Portugaleko", Zuberoako pastoral baten izena ("Kaniko eta Belxitina", 15 p.).

ERIZ (Felix?): Eriz Akutiz, Eriz Azeariz (1068), Sancio Eriziz (1027) (Mitzelena: Apellidos Vascos, 85 p.).

ERMIN (Fermin? Herminio?): *Erminea*, Izabako etxea. Ermin-enea?

ERNANDO (Fernando) Deiturak: Ernandorena, Ernandosoro, Ernandotegi.

ERRANDO (Fernando): Errando-haundi eta -txiki, Donostiako base-riak; Errandoena-etxebarri, Elgezabala-Mungiako baserria; Errandosoro-etxe eta -bentatxo, Tolosako baserriak; (Luis Eleizalde: Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas, RIEV-XIX, 1928, 77 p.). Errandonea (Errando-enea), nafar deitura.

ERRANDOA (el Fernando): Errandoa, Argiñarizko tokizena (N) (L. Eleizalde, Listas alfabéticas, RIEV-XIX, 1928, 77 p.).

ESTEBE (Esteban): Trazak badirudi latinezko Stéphan hitz-errotik har-tua dagoela, hots, *Estebane*, *Estebae*, *Estebe*. Zuberoako izen herrikoia, Pei-llenek dioenez. Donestehiri (done-estebe-hiri), Nafarroa behereko herri-izena. "Jundane Estebe Martira, Oihergiko patrua" ("Khantuz, khanta, khantore", 147 p.). Estebenea, Irungo baserria; Estebanea, Sarako deitura; Estebetxe, Sarako deitura (L. Eleizalde: Listas alfabéticas, RIEV-XIX, 1928, 86 p.). "Saul lehenbizikotarik zen Yaun-doni Esteberen heriotzea galdegin zuena" (Bernat Larregi, Testamentu zaharraren eta berriaren historia, II tomoa, 319 p., Hordago).

ESTEBEKO (Estebanito): Estebekorena, Urdazubiko deitura (Excomu-nión por el Abad de Urdax, Fontes, 1972, 12 lum., 372 p.).

EZTEBE (Esteban): Doneztebe (Santesteban), Nafarroako herria. Doneztebe, Zuberoa-Arbaillako hirixka. "Jaun-done Eztebe", Zuberoako

pastoral baten izena (Kaniko eta Belxitina, 15 p.). “Yaun-doni Eztebe, lehenbikoko Martira” (Bernat Larregi, II-gn, tomoa, 336 p.).

FABIENE (Fabien/Fabián): “San Fabiene eta San Sebastiene” (Bernat Larregi, Testamentu zahar eta berriko historia, II-gn. tomoa, 353 p.).

FRANTZISKUA/PRANTZISKUA (el Francisco): “Ni N. eure borondate gustirean boto egiten dot / eta prometietan dot/ Jaingoikoari / ta Andra/done M(aria) birjineari eta Sant Fra(nzi)skuari eta / zeruku sanktu eta sankta kustiai ta zuri aita goardetako erregela / terzera Sant *Franziskuaren* ordeakoa penitentziakoa aita sanktu Nikolao / laugarrenaren emona eta otorgadua eta aita santu Sist lau / garrenaren aprobada ta konfirmadua, bizi izaiteko obedenzian / eta pobrezan eta kastidadean” (L. Mitxelena, T. A. V., 143 p.).

L. Mitxelenak berriz honela dio (“Euskera” IV, 1959, *Sobre -a en nombres vascos de persona*, 5-10 paiak):

“Fray Ignacio Omaechevarría señaló por primera vez, que yo sepa, la expresión *aita sant Franciscuaren ordeacoa* en una fórmula de profesión de las Beatas de la Orden Tercera que data de la primera mitad del siglo XVI (B. R. S. B. A. P., 4, 1948, 310 p.). Y añadía un dato importante de la conservación de este arcaísmo: “Personas de Munitibar, de hace 50 años, decían de San Francisco y de él solamente: *Aita San Franziskua*: El Patriarca San Francisco”.

“Don Manuel de Lecuona —jarraitzen du Mitxelenak— gran conocedor de nuestra poesía popular, aportó valiosas precisiones. En un cantar sobre la vida de Santa Clara, sin duda antiguo, que se sigue cantando en Ondarroa, aparecen *Aita San Prantziskua* y *Jesusa bizija*. Además, para la extensión del fenómeno a Guipúzcoa, es importante lo que escribe al final de su nota: “Con respecto a la forma del nombre *Frantziskua*, aún conocemos nosotros en Lasarte persona, anciana de cerca de 80 años, que, corrientemente, a los “14 Padrenuestros de San Francisco” llama “*Aita San Prantziskuaren Aita-guriak*”.

Eta aurreraxeago honela dio Mitxelenak: “En las notas de Fr. J. Ruiz de Larrinaga a las cartas del P. Uriarte al príncipe Bonaparte, figura el título de una poesía de D. Eusebio M.<sup>a</sup> de Azkue, donde dice: *Bermeoco Aita San Franciscuaren Colegiyoco Misionista*”.

Manuel Lekuona apez jaun agurgarriak beste erakusgarri hau ematen digu “Santa Klararen kantak” deritzatenetan: *Aita San Prantziskua / Padri-no harturik, / Esposa izan zīñan / Ait'amen ixilik*. (M. Lekuona, Literatura Oral Vasca, Idaz-lan guztiak, 471 p.).

HARITZE: Ikus ARITZE/HARITZE.

IAKOBE/JAKOBE (Jacob(o)/Santiago): Sancho Iakobe (Lakarra: FLV, 167 p., 17 lum., 1974, “Documentos de Irache (1283) referente a Cirauqui”); Iakobe, idem. idem., 176 p.; Garcia Iakobe, idem. idem., 178 p.

“Ezagutu zuenean laster hiltzekoa zela, galdegin zuioten bere anaiei, *Jakobe*, bere aitak hari berari galdeturikako grazia bera: erran nahi da, othoitztu zituela hel-arazteaz haren hezurak Chanaango lurretarat” (Bernat Larregi, T. Z. eta B. H., Igo. Tomoa, 110 p.). Badirudi izenok latinezko “Iacob” (Jacob) izenetik hartuak daudela eta ez “Iacobus”etik (Jacobo/Santiago).

JAKUA (Jacob(o)/Santiago): “Jaudone *Jakua* apostoluak dioen beza-la” (Martin Duhalde, *Meditacioneac*, 56 p.). “Jaundone Petrik eta Jaundone Jakuak” (Idem. 368 p.). “Jaundone Jakuak dioena” (Idem. 395 p.). “Hordago” edizioaz ari naiz.

JAKUE (Jacob(o)/Santiago): “sanctum Jacobum (vocant) *Jaona domne Jakue*” (Aimery Picaud), Mitxelenak aipatua (Apellidos Vascos, 110 p.); *Maria Jakue* Zuazola, 1560 urtea (Luis Murugarren, *Nomenclator onomástico vasco*, B. R. S. B. A. P. 1977, 1-2, 249 p.); *Jaun-done Jakue Nagusia*, Zuberoako pastoral baten izena (Kaniko eta Beltxitina, 15 p.). Peillenek dioenez, orain Jakue izena galdurik da Zuberoan eta halaber ez dira ezagunak lehenagoko *Jakobe* eta *Jakube* aldakerak.

JAZINTOTXUA: “Baña *Jazintotxua* / zeuan enpeñaturik, / Durangon bear zala / asi lenegotik...”

“Entxunik Markiñarrak / *Jazintotxuari*, / utzi zioten laister / diferentziari...” (J. M. Leizaola, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura*, V Tomoa, 144 p.). Gaztelaniaz: el Jacintillo.

JESUSA (el Jesús): “*Jesusa*, Iaundone Periagaz” (L. Mitxelena: *Textos Arcaicos Vascos*, 144 p.).

J. M. Satrustegik “Romance vasco de la doncella guerrera” irazlanean (Fontes, 10 lum., Enero-Abril 1972, 79-81 paiak) honako bertso hau ezartzen du: Moja sartzera noa / Komentu batera, / *Jesusaren* esposa / Betiko izatera.

Manuel Lekuona jaunak beste ahapaldi hau ematen digu: Eskuan daruazun / Gauzaren andija / Kustorijo batian / JESUSA bizija (Santa Klararen kankak, *Literatura Oral vasca*, 471 p., Idaz-lan guztiak). Pedro Ignacio Barrutiak “Gabonetako ikuskizuna”n: “Laster jaioko da *Jesusa* niganik” (Teatro zaarra, Auspoa, 23 p.). Eta beste ahapaldi hau: Amorioak dakar zerutik / *Jesusa* zuen artera, / Bekatuaren poderiotik / Guztiok ataratzera (Teatro zaarra, Auspoa, 26 p.).

*Jesusa* izena dela-eta, honela dio Mitxelenak (sobre -a en nombres vascos de persona, *Euskera* IV, 1959, 6 p.): “Ultimamente ha vuelto sobre la cuestión D. Isaac López Mendizábal. Señala con razón que *Jesusaren bera- ren biotz maitetsuari* se encuentra en la misma portada de la conocida obra en verso *Jesu-Christo gure Jaunaren Passioa*, atribuida al jesuita vizcaíno P. Agustín Basterrechea (Bilbao, 1777). “En Tolosa —añade— era muy corriente cantar por Navidad aún hace pocos años, llevando por las calles los *nacimientos*, en esta forma: *Jesusaren jaiotza / eskutan artuta / ez gerade etorri / bidea galduta*”.

JOANE/JUANE (Juan): “Aren urrengo anaje (anaje) lastanak, Antso, *Joane, Onsalu*” (Escrituras de Andramendi, L. Mitxelena: T. A. V. 160 p.). Bizkaian oso herrikoi izan dela dirudi aresti arte, “Kirikiño”k bere “Abarrak” ipuin liburuan baitarabil. “Zerutar bat”: nire biotzeko *Juane*.

“Platica lelengoa, oerean (ohetik) xayquiteco goxean, ta ari dagocasan (dagozkion) gausena, esatari, Peru Xauna derechan (deritzan) vategas, vere osseyñ Alonsoen artean ta bere adisquide derechala (deritzala) *Joane* xauna; eta asso bategas (atso batekin).”

(Diálogos de Micoleta. “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”. Ibon Saratsola, Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, XVII, 1983, 187 paia).

F. Idoate: “Toponómastica del valle de Roncal”: Johane Beltza, Erronkari hirian; Johane Boronte, Garden (Erronkari). (A. Irigaraiak komentatua, B. R. S. B. A. P.-en, 1977, 3-4, 589 p.).

“Jaun-done Joane Bataiatzailea”, Zuberoako pastoral baten izena (Kaniko eta Belxitina, 15 p.). “Johane Periz de Laskoz”, 1366, Etxarri-Aranatz (A. Irigoyen, Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca, Euskera, 1977, 600 p.).

JOHAÑE/JUHAÑE (Juan): Zuberoako forma herrikoia, Txomin Peillenek dio: “*Juanes* eta *Johañe*: biak erabiltzen dira; lehena Basabürrian doto-reago da. Haurrekin: *Nuñes* erabiltzen da.”

JOSEPE/JOXEPE (Joseph/José): hain herrikoia den izen honek ez luke adigarri beharrik. Hala ere, horra batzuk: “Pello-Joxepe tabernan dela” herri kantu zoragarria. Eta “Josepe ekartzazu / sortatxo bat egur / haurra hotzez dago-ta / berotu dezagun”, Gabon-kanta. “Jesus, Maria ta Josepe, lagundu egidazue egun onetan” (Fr. P. A. Añibarro, Esku-liburua, 5 p. “Bi eta iru bider / Joxeppek jotzen du / Gizonak bentanara / Nekez irteten du” (M. Lekuona, Idazlan guztiak, Gabon misterioak Euskalerrian, 162 p., II tomoa). “Josepe”, Zuberoako pastoral baten izena (Kaniko eta Belxitina, 16 p.). “Birjina Ama Joseperekin” (Euskera, 1977, 1-2, 247 p.). “Josepe de Sara”, 1606 (Murugarren, Nomenclator onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1977, 1-2, 247 p.). “Jaun done Josepe zure senarraren izenean” (Liburu-ederra, 177 p., Kardaberaz/Duvoisin, Baiona, 1856). “Jakoben semeak (semeek) ezin eraman zuen (zuten) eren anai Joseperen ongia” (Juan Antonio Ubillos, Christau Dotriñ Berri-Ecarlea, 21 p., Tolosa, 1875. “Eba ederra Joseperekin / Belenen degu topatu” (M. Lekuona, Idazlan guztiak I. Gabon kantak, 439 p.). “Joxepe gizon ona / Arotza zera zu” (Idem., Olentzero eguneko kantak, 442 p.). “Josepek dirautzo / Maria Birjiñari” (Idem., Marijesiak, 452 p.).

LAZAROA (el Lázaro): “Abrats gaixtoa eta Lazaroa” (Leizarraga, Testamentu Berria, S. Luc. XVI Kap., 138 p.).

LEONE (Léon/León): “Othoitz egin zuten Leone hamairugarrenarentzat” (Arbelbide, “Erlisioena”, 180 p.). Autore honek non-nahi darabil Leone Aita Saindu izena.

LOPEIZA/LOPIZA (el López): Dirudienez pontizen bezala ageri zaigu Murugarrenen izen lerrokadan eta ez deitura bezala. Lopiza de Lasalde (1567): Lopeiza (1573) (Luis Murugarren, Nomenclátor Onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1-2, 1977, 248 p.).

MARTIA (el Martín) “Yaun-doni Martia” (Bernat Larregi: Testametu Zaharraren eta Berriaren Historia, II tom., 365 p. Bestalde, denok ezaguna dugu Martiarena (Martia-rena) deitura.

MARTIE (Martin): “Jandone Martie Erroya” = *Sanctus Martinus corvus*. Martin de Arles Andosillakoa, Lyon, 1510. J. M. Satrustegi: Anuario Julio Urquijo, XII-XIII, 1978/1979. Contribución al fondo de textos antiguos vascos, p. 229. “Martie Marra” (Mitxelena: T. A. V., 34 p.). “Martie de Serna (varón), 1565 (L. Murugarren: Nomenclátor onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1-2. 248 p.). “Martiarena” deitura hemendik ere badatorke, azken “-e” “-a” bihurtuz.

MARTINE (Martin): “Iondoni Martine” (Ithurry, Grammaire Basque, 410 p.). Martine-tik sortua da Martie, bokal arteko -n- galduz.

MATXIA (el Martín, amultsuki): Matxiarena deitura, hots, Matxiarena. Matxiandiarena deitura ere Matxia-tik etor daiteke. Baina biok, delako “Matxie” batetik ere etor daitezke.

MATXIN (Martín: amultsuki edo adiskideki): Matxin de Lausagarreta, 1499 (L. Murugarren, Nomenclátor..., B. R. S. B. A. P., 1977, 1-2, 249 p.). Matxin Jauregizar: “Protonotario de los Reyes Juan e Cathelina” (F. Idoate/A. Irigarai: Toponomástica del valle de Roncal, B. R. S. B. A. P., 1977, 3-4, 589 p.). Matxin de Arzu, Hondarribiako kalea. Deiturak edo tokizenak: Matxinbarrena, Matxinbenta, Matxinandiarena, Matxinea. Bada ere kantu bat hasten dena: “Ai zer gizon zurra dan Matxintxo gurea...”, eta esaera bat honela dioena: “Egoki Matxin-i mantua, ta ez afari gertua” (Refranes y Sentencias de 1596, n.º 160).

MATXINIKO (Matxin diminutiboan): Matxiniko de Galdona (varón), 1555 (L. Murugarren, Nomenclátor..., B. R. S. B. A. P., 1977, 1-2, 249 p.).

MIGELEIZA: pontizen bezala ageri da 1509-gn. urtean. (L. Murugarren: Nomenclátor onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1-2, 1977, 249 p.).

MIKELE (Miguel): Mikele Basoko (Mitxelena: Ap. Vasc.); Mikele Ostatuko (Mitxel., Ap. Vasc.); Iauñ Mikele Gomeza, Uterga, 1226 (Lakarra: Vasconia Medieval, 49 p.); Mikele Zuria, Arakil, 1257 (Lakarra, Vasc. Med., 50 p.); Mikele Gurtea, Olaindain-Girgillano, 1246 (Lak., V. M. 38 p.); Mikele Belza (Beltza), Mañeru, 1213 (Lak., V. M., 49 p.); Mikele Urdina (Libro Rubro, Iranzu –Lak., V. M., 43 p.); “Eneco Arceiz, filius Garcie Ortiz done Miqueleco”, Mañeru, 1229 (Mitxelena., Text. Arc. vasc., 36 p., Apellidos Vascos, 79 p.). Deiturak: Mikelerena Mikeleperitzena, Mikelarena (Mikelarena?), Mikelajauregi (Mikelejauregi?), Mikeleiz. Mitxelenak Garzia Mikeleiz dakar (T. A. V., 35 p.).

MIKELETO (Miguelin): Mikeletorena, deitura (Mítx., T. A. V., 35 p.).

MITXEL (Miguel): *Mítxel*, 1366, “en la cuenca de Pamplona” (A. Irigoyen: “Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca”, (Euskera, 1977, 599 p.). “Mikel”en ordezkoa amultsuki.

MITXELE (Miguel): Michele Aioroyz (Mítxelena, T. A. V., 34 p.): Michele de Loydi, 1551 (Murugarren, B. R. S. B. A. P., 1977, Nomenclátor onomástico vasco, 249 p.). “*Michele* eta haren aingeruak bataillatzen ziraden dragoinaren kontra” (Leizarraga, Apocalypsea, 445 p.). Seguru aski hemen “Míxele” irakurri behar da, Bidasoz bestekoa baita. “Mítxele”, “Mikele”ren ordezkoa da, amultsuki erabilirik.

MITXELKO (Miguelin): Bortzerrieta-Beran, 1366. (A. Irigoyen: “Algunas consideraciones sobre...”, *Euskera*, 1977, 599 p.). Diminutiboa.

MITXELTO (Miguelin): “Mítxeltorena”, Nafarroako deitura.

ONSALO/ONZALO (Gonzalo): Gaur deiturak (L. Mítxelena: Apellidos Vascos, 140 p.).

ONSALU/ONZALU (Gonzalo): Onsalu Onsaluch (= Gonzalo González): burua izanik Onzalu Onzalutx (burua ysanic Onsalu Onsaluch). Badirudi “s”ok “z” irakurri behar direla. “Anso, Joane, Onsalu” (Sancho, Juan, Gonzalo), hots “Sancho y Joan y Gonça(lo)”, itzulpenak dioenez. (L. Mítxelena: T. A. V., Escrituras de Andramendi, 159/160 pk. Badirudi *Antso*, *Joane*, *Onzalu* dela irakurkizunik bidezkoena.

ORTI (Fortunio, Fortuño, Ortuño): Orti Arotza, Artajona (Lakarra, Vasconia Medieval, 46 p.; Orti Erroko, Orti Mendigorriko, Orti Belza (Beltza), Orti Eiulduna: Artajona (Lakarra, Vasc. Med., 47 p.); Iaun Orti Ataondoko, Iaun Orti Belza (Beltza), Iaun Orti de Loza, Iaun Orti Ortiz: Larraga (Lakarra, V. M., 49 p.); Iratxe: Orti Arregurengo, Orti Erro, Orti Lorka, Orti Ordinsso, Sandor Ortirena, 1283 (Lakarra, V. M., 39 p.); Orti Zuria de Lizassoain (Becerro antiguo de Leire, R. Ciérvide, Fontes n.º 26, 1977, 283 p.); Iaun Orti Sudurra, Uterga, 1221 (Lakarra, V. M., 49 p.) Sandor Ortirena, Iratxe 1283 (Lakarra, Fontes, 167 p., 1974); Orti Iriarteko, Iratxe (Idem., idem., 175 p.; Orti Gutia (= Txipia), Tajonar, 1107 (Becerro Leire, Lakarra: V. M., 32 p.); Orti Mutila, Orreaga 1284 (Lakarra, V. M., 45 p.); Orti Elizariako, Guece 1229, eta Orti Maineruko, Mañeru 1230 (Lakarra, V. M., 50 p.). Textos Arcaicos Vascos (L. Mítxelena): Orti Sanoiz Ostatuko, 33 p.; Orti Zalduna, 33 p.; Orti Zuarondoko, 34 p.; Orti Enekoiz, 34 p.; Orti Bela, 34 p.; Orti Usoa, 34 p.; Orti Arabarra, 34 p.; Orti Mutila, 37 p. Apellidos Vascos (Mítxelena): “Lope Iaun Ortire(n) semea” (147 p.); Orti Usadorreko, Iratxe 1226 (161 p.).

PANTXOA (el Francisco?): “Peio eta Pantxoa”, gaurko lapurtar euskal kantariak. Ez dakit izen hau Bidasoz bestaldean zabaldua dagoen ala ez. Gure artean, amultsuki, *Pantxo* erabili ohi da.



PAULE (Paul/Paulo/Pablo): Zuberotarrez *Paul = Phaule* (Louis Gèze: (Éléments de Grammaire Basque, 41 p.). Idem., 21 p.: Phauletan konfidantxa badüt. Idem. 21 p.: Phaulen gañen da haurra. “Kaniko eta Belxitinan” ere ageri da, hots Jakes Oihenarten pasturaleko ahapaldi batean: Amoina egitiak eztü / Seküla ihur praubetu; / Jondane Phaulek erraiten dü; / Ezta behar dü-datü.

PEDROA (el Pedro): bada “Pedroarena” deitura franko zabaldua Nafarroan (ikus, esaterako, “Umeen deia” aldizkariaren bilduma liburua, 499 p.).

PERIA (el Pedro): “Jesusa, Iaundone Peria gaz (con San Pedro)”. (Mixelena: T. A. V., 144 p.).

PERUA (el Pedro): *Peruarena*, deitura zabaldua. Hala ere “Perurena” zabalduago.

PETRIA (El Pedro): Bada “Petriarena” deitura, Ernanin bederen. Hala ere “Petrirena” askoz zabalduago dago.

PIERRA (Pierre/Pedro): Zuberoan oso zabaldua, “baina Pierra bezin hedatuak dira Pheti(r)i eta Phetti(r)i txipigarria eta Pette ere bai”, dio Txomin Peillenek. Gainera, Mitxelenak dioenez, frantsez *-e-ren ordez -a* darabilten euskal-pontizenok ez dira ez zaharrak eta ez jatorrak (no representa nada antiguo ni castizo en vasco).

PILATE (Pilate/Pilatos): Ilki zedin bada Pilate hetara kanpora (Leizarraga, Testamentu Berria, 200 p., 29 berseta, Hordago). Sar zedin bada berriz Pretoriora Pilate (Idem., 200 p., 33 berseta). Handik harat bazabilan Pilate, hura largatu nahiz (Idem. 201 p., 12 berseta).

SALBATORE (Salvador): Salvatore auzoa Beasainen. Salvatore ermita Nafarroa beheko Garazin. Kantuak honela dio: Salvatore gora da Garazi aldian; Ni ere han nündüzün igaran astian, / Deboziona gabe bai senthorlian, / Ene gazte lagünak han beitziradian. Euskaraz Igokunde jaiari esaten zaio horrela. Osorik *Jaun done Salvatore*. Barkoxeko elizari ere Salvatore deritza.

SATANASA (Satanás): “Naasteko dantzari esaten deutsee Eleizako Santubak..., diabruaren txirrintolia, Satanasaren saria, demoninuen jokua (Fray Bartolomé de Santa Teresa, Euskal Errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz ozpinduba, 86 p.). Aitortu beharrean gara hau ez dela pontizena inondik ere, baina bai izen propioa.

SEBASTIENE (Sébastien/Sebastián): San Fabiene eta San Sebastiene (Bernat Larregi, Testamentu zahar eta berriaren historia, 353 p.).

TARTARUA (el Tártaro): “Hi hor eta ni hemen” beti oyuka eta Tartaruak beti segitzen dio.

Han itotzen da Tartarua (Fontes Linguae Vasconum, 1975, 20 lum., 276 p.). A. Irigaray/Charles Videgain: Leyendas vascas de W. Webster.

**TXANDRES:** Andrés (amultsuki). Azkuerentzat: José Andrés, Bizkaian (“Tx” bokal aurretik).

**TXANTON:** Anton (amultsuki). Azkuerentzat: José Antonio, Bizkaian. Txanton Piperrri opera ezaguna (“Tx” bokal aurretik).

**TXANTXO** (Juantxo?): Chanco de Ybarra (1717). Luis Murugarren: Nomenclátor onomástico vasco, B. R. S. B. A. P., 1-2, 1977, 246 p.

**TXARIAKO** (Ciriaco?): Chariaco de Galardi (1549). L. Murugarren, idem., idem., 246 p.

**TXARTIN** (Martín?): Chartin de Marquina (varón), 1503. L. Murugarren, aipatu lana, 246 p.

**TXARTINA** (Martina?): Chartina de Çaldua (Zaldua), 1562. Luis Murugarren, aipatu lana, 246 p.

**TXATXI** (Graxi = Engracia?): Chachi de Mendiaras (1548). Badakigu Zuberoan Graxi-ri (Engracia), Xaxi esaten zaiola amultsuki. Hauxe da nire itzulpenaren arrazoi bakarra (L. Murugarren, aip. lana, 246 p.).

**TXERGORI** (Gregorio?): bar baten izena Plaentxian (Soraluze).

**TXERU** (Peru, amultsuki): “Txeru kartzelan dago” kanta zaharra.

**TXERRAN** (Errando/Ernando/Fernando): amultsuki, adiskideki edo diminutibo bezala erabilia. Mitxelenak, Apellidos Vascos-en (99 p.) honela dio: “El dim. *Cherran* (*Cherran de Gamboa* fue muerto en una pelea de banderizos cerca de Bilbao, en 1440), sirve hoy para designar al “diablo” en una zona del dialecto vizcaíno y en guip. de Iciar: *txarran*, *txarren*. Hay otras denominaciones del diablo humorísticas, al menos en su origen, como *Matxin*, *Patxi*, etc.”. Gogora dezagun Apaolatzaren “Patxiko Txerren”, Truebaren “El Judas de la Casa” itzultzeko.

**TXOME** (amultsuki): Tomé? Chome de Vidaurre (1499). L. Murugarren: Nomenclátor..., B. R. S. B. A. P., 1-2, 1977.

**TXOMENTXO:** Chomencho de Miramontes (doncella, 1566). L. Murugarren: “Txome”ren ondoan. “Dominica”ren diminutiboa ote?

**TXOMIN** (Domiku edo Domingo, amultsuki): Chomin González (1503); Chomincho de Zavala (1576). L. Murugarren, aipatu lanean eta paian.

**TXOPE** (Lope, amultsuki): *Txoperena* deitura ezaguna da. “Txopekua” (Txope-koa), Oñatiko jatetxe ezaguna. ”Txopenea”, Azpirozko (N) baserria. Daitekeena: Txopeitia (Txope-beitia?). Txopitea, Txopeitiaren metatesis izan daiteke.

**TXOPEIZA** (Lopeiza, amultsuki, Txope-iz-a): nahiz eta gaztelaniako López edo “el López”en kide izan, pontizen bezala ageri zaigu, antza danez: Chopeyza de Iriarte (1562). Luis Murugarren, aipatu lanean. 246 paia.

TXOPINO (Domiku/Domingo, amultsuki). Erdi Garaian oso zabaldua. Txopino de Anuzibai, Bizkaia.

TXORDON (Ordoño): Autso Txordon artz orri ta nik iñes daida (ten Ordoño a esse Osso y yo haré huyda (Refranes y Sentencias de 1596, n.º 422) (“Tx” bokal aurretik).

TXURDINA (Saturnina?): Churdina de La Parada (1572). (Murugarren, aipatu lanean eta aldizkarian, 246 p.).

Badira Murugarrenen lerrokadan beste izen batzuk “tx”kin hasten direnak, baina, ezin antzeman zaienak zein izen izan daitezkeen, hala nola Charia, Chara (Clara?), Charimartiz eta Chata (hau gaztelaniazko chato/chata ez bada). Charia, Alfonso Irigoienen ustez: Maria.

UNTXALO: gaur deitura, baina noizpait “Gonzalo” izan bide zen.

URTI (Fortunio, Fortuño, Ortuño): Mitxelenak honela dio “Apellidos Vascos”en, 142 p.: “La equivalencia *Orti* = *Fortunius* ha sido siempre, a lo que se ve, un secreto a voces entre historiadores. Garibay, RIEV 4 (1910), 405 s., escribe: “Es esto tan cierto, que oy dia para nombrar a uno Ortuño o Fortuño de Mendoza, han de dezir en la deuida congruidad de la Lengua Bascongada *Hurti Mendozako*, y para llamar a otro Ortuño de Guebara diran *Hurti Guebaraco*, porque Hurti es Ortuño...”. Honeraino Mitxelenak Gari baien ahoz. Bada karrika bat Usurbilen (G) Urtinea, Urti-enea izan daitekeena. Eta Urtiain/Urtain ez ote datoz “Urti” tik? Baietz esango nuke.

URTUNIO (Fortunio): Urtunio de Morasteriovide (1503). L. Murugarren, aipatu lanean eta aldizkarian, 250 p.

YAUNI (Juan/Joane): “Arte hartan Magdalenak bathu (aurkitu) zituen Yaun-doni Petri eta Yaun-doni Yauni” (Bernat Larregi, Testamentu zahararren eta berriaren historia, II tom., 286 p. (e ordez, i osatzen).

ZATHORDINA (Saturnino/Saturnin): “Çathornina. S. Sernin” (Sylvain Pouvreau/Julien Vinson: Les petits oeuvres basques de S. P., 9 p., Hordago, Donostia).

---

OHARRA: Lan honen lehendabiziko probak zuzenduta gero ALFONSA izenaren adigarriok bildu ditut Jusef Egiategiren “Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia” liburutik: “*Alfonsa* gaztiak, *Alfonsa* Handiren primia” (primua, oinordekoa), 179 p.; “Jakin nahiz ere zerbait *Alfonsa* Handiaz”, 180 p.; “Othoitü nian non zen Errege *Alfonsa* erran leizadan”, 180 p. (Euskaltzaindia, Bilbao, 1983).

Esan dugu, Bizkaian bederen, izen herrikoia izan dela JOANE/JUANE aresti arte, Kirikiñok bere “Abarrak” liburuan darabilelako. Horra, bada, joan den mendeko Dámaso M.<sup>a</sup> Bernaolakoak, behin behintzat badarabil bere “Pasiño Santuaren contaera” delakoan, hots, 7-gn. orrialdean: “Zucendu zen bere icasla Pedro eta *Joane* gana eta esan eutsen”: Baina liburu hau ez zen argitaratu 1905 arte, Durangon, Roberto Soloaga-ren Moldeztegian. ERECHIA izeneko sarrera atalean, liburua argitaratzeko baimena emanaz, “Bitoriano Apezburutzaco Ordezcarí” delakoak honela izenpetzen du: “Bitorian Aberillaren, 6 garrenean eta 1905 garren urtean. - *Joane* R. Cenarruzabeiticoa”. Beraz, 1905 garren urtean bizi-bizirik zegoen *Joane* izena Bizkaian. Eta orain galdetzen dut: ez ote dago oraindik bizirik zenbait baserritan?



## TOPONIMIA EN IRUÑERRIA: SISTEMAS DE DENOMINACION Y LOCALIZACION

Donostia/San Sebastián 1985-II-22

J. M. Jimeno Jurio

De acuerdo con los límites señalados por el Fuero General de Navarra (Lib. III, Tít. V, Cap. X), la Cuenca o Tierra de Pamplona (Iruñerria) está constituida por las cendeas y valles que rodean la ciudad. Desde la prehistoria, la población, diseminada por multitud de pueblecitos, fue vascohablante hasta la segunda mitad del siglo XIX, con algunos vecinos que ni hablaban ni entendían otra lengua, de que hay testimonios abundantes.

El suelo estuvo distribuido en tres sectores productivos: bosque (*oian*), pastos (*larre, euntze, soto*) y cultivos. A las actividades agropecuarias comunes añadieron los habitantes de la Cuenca occidental la explotación de canteras de yesos y areniscas (*arrobia, arrobieta*), la obtención de sal por desecación en eras (*gesal, getze*) y la fabricación de teja y ladrillo en tejeras (*teileri*).

Como en otras partes del País, el minifundio caracterizó la propiedad rural desde muy antiguo y la hacienda de cada casa estaba diseminada por diferentes parajes, circunstancias que forzaron unos mecanismos para denominar los parajes en cada pueblo y localizar en ellos las fincas de cada dueño.

### 1. Topónimos básicos

Forman un bloque primario de topónimos los nombres comunes de los elementos geomorfológicos (orónimos, hidrónimos, fitónimos y otros) que configuran el territorio local, como los montes (*mendi*), cerros (= *munio*), peñas (= *aitz*), monte arbolado (= *oian*); las fuentes (= *iturri*), regatas (= *erreka*), balsas (= *idoi*), lagunas (= *more*), pozos (= *butzu, putzu*); los encinares (= *artadi*), bojerales (= *ezpeldi*), espinares (*elordi, elorri*), (alamedas y otras especies como el roble (= *aritz*), olmos (= *zugar*), fresno (= *lizar*) y algunos frutales (*urriz, urrizdi, urrizti; itxaur, gerezi, bikudi*).

Otros denuncian la calidad del suelo (*bustin, kaskailu, legar*) o su destino (*alor, ardantze, euntze, fazeria, larre, sario, soto*), la existencia de viales (*bide, kamio, senda*) o de construcciones de distinta índole (*eliza, ermita, gaztelu, dorre, errota, teilari, korte, borda, gurutze, zubi*).

Estos y otros nombres fundamentales, que normalmente van acompañados de sufijos (-a; -ak; -ain; -eta; -keta), dieron lugar a otros compuestos, que constituyen la inmensa mayoría en Iruñerria.

## 2. Topónimos compuestos

Los datos que voy a ofrecer, en los que respeto la ortografía con que aparecen en los textos originales, datan esencialmente de los siglos XVI al XVIII y están extractados de sendos trabajos dedicados a las cendeas de Olza, Zizur y Galar, donde constan detalladamente fechas y fuentes de procedencia. La esperanza de su publicación nos ahorra acompañar aquí cada una de las citas con un prolijo aparato crítico.

Son abundantes los topónimos formados por dos o más conceptos.

### 2.1. Dos conceptos

Constituyen los topónimos más frecuentes del grupo los formados por un sustantivo básico y otro elemento, que puede ser otro sustantivo, un adjetivo o una posposición de carácter adverbial. Veamos unos ejemplos:

#### 2.1.1. Dos sustantivos

a) El básico, precedido por otro elemento singularizador que a veces es el nombre de la casa propietaria o, en el caso de viales, el término “ad quem” u otro:

*Tipula barazea* (Astráin), *Capana gunea* (Eriete), *Aingueru iturria* (Izu), *Quisu labeta* (Astráin, Esparza), *Eli corte* (Zariquiegui), *Arrano mendia* (Zizur Menor), *Asari zuloa* (Ororbia, Paternain), *Adarren zelaia* (Lizasoain), *Guruze alorra* (Gazolaz), *Talle eunzea* (frecuente) o “prado tallazón” (Salinas); *Apez ardanzea* (Sagüés). *Guemberen arrobieta*, *Lucasen barazea*, *Domingoren ichaurra*, *Loperenaren larraina* (Astráin).

En el caso de viales suele preceder el nombre del término “ad quem” (*nora*) o el del usuario principal: *Estellerri bidea* (Orcoyen), *Gares bidea* (Astráin), *Urriz o Urristi bidea* (Astráin, Undiano), *Irun o Iruin bidea* (casi todos los pueblos), *Tutera camio* (Esquiroz), *Undio senda* (Astráin), *Mercatu bidea* (Asiáin); *Mandazai bidea* (Eriete y otros), *Morisco bidea* (Gazolaz y otros), *Chacur bidea* (Sagüés).

Las regatas, sobre todo de largo recorrido, suelen recibir varios nombres, adoptados del paraje o pueblo por los que atraviesan.

ESTEKATU: (lotu: atar). Ongi *estekatu* gero... Zoko guziak ongi *estekatuak*.

ESTRAKA: (bide meharra, extua, estrata: vericuetto). *Estraka* hortatik barna gan zen. *Estraka* hoi zikine dago. *Estraka* hortatik barrena joan zen. *Estraka* hori zikiña dago.

ESKARTZELA: (morralla: especie de morral). Yatekoak *eskartzelan* gain tugu. *Eskartzela* berrie dut. Jatekoak *eskartzelan* eramango ditugu.

ESKUIN, ESKUÑE: (eskubi: derecha). *Eskuin* aldera gan zen. *Eskuñeko* begie ona dut.

EXKAXIE: (auldua, gosez atakatua, flakia: hambre). Ai zer *exkaxie* daukaten. *Exkaxiekin* auldue nago.

EZAUPIDE: (ezaupide: medio de conocer). Herriko bestak *ezaupideak* egiteko aproposa.

- EZARIEN: (pixkaka pixkaka bidean kurrizkeko: poco a poco por camino cómodo). Bide hortatik *ezarien ezarien* yoanen gara.
- EZKIBELA: (motz, musin: arisco). Gure mutikoa arras *ezkibela* dugu. Arront *ezkibela*.
- EZKILDORRE, EZKILDORREA: (kanpantorre: torre del campanario). *Ezkildorrean* izan ginen. *Ezkildorretik* ikuspegi ona.
- EZKILE, EZKILLE: (zeñu, kanpae, kanpaia: campana). Dorreko *ezkil* horrek soñu oxena. *Ezkilek* yo dituzte.
- EZONGI: (ondo eza: indispuesto). Gure aitetxi *ezongi* eta goatzean sartu zen. Gure aitona *ezongi* eta ohean sartu zen.
- EZTAZEREN, EZTA ZEREN: (ez horregatik: no hay de qué, de nada). Milesker! *Ezta zeren*. Eskermile *eztazeren*.
- EZPONDA: (pendoitiz: talud). *Ezponda* hortatik goiti gan ginen. *Ezponda* hortatik gora joan ginen.
- EZTILE: (putzu txikia: un charco). Urie in du, badire *eztilek*. *Eztil* haundiak ere. Euria egin du badira *Eztilak*.
- EZTIKI: (legun: suavemente). *Eztiki* mintzatu zitzaion. Zein *eztiki* mintzaten den.
- EDIA: (edia: para atar las vacas o bueyes al yugo). *Ediakin* ongi lotu. *Edia* arront ondatue dago.
- EZTENA: (zizta ziztailu: aguijón). Liztorrak *eztena* sartu zion. *Ezten* bat dauket bihotzean.
- EZTERA-ARRIE, EZTERA-HARRIE: (zorrozteko harria: piedra para afilar). *Eztera-harriekin* ederki zorrozten dugu aizkora.
- EZINDUE: (elbarri bezala: imposibilitado). Nere osaba *ezindue* dago. Arras *ezindue*.
- ERENEGU: (erenegun: anteayer). *Erenegu* hil zen. *Ereneguko* gertakizune tristia izan da.
- ETZIDAMU: (etziaramu: traspasado mañana). *Etzidamu* ezkontzen da Periko. *Etzidamu* besta ederra.
- ETZIAGO: (etziidamu, etziaramu: traspasado mañana). *Etziago* gure herriko bestak. *Etziago* egun ederra.
- EZI: (ezi: domar). Ongi azie eta gaizki *ezie*. *Ezi* dugu gure zaldi gaztea. Gure osaba Ameriketara ibilie zaldi *ezten*.
- ERBIUNIDIA, ERBI-UNIDEA: (erbiñude: comadreja). *Erbiunidiak* atsiki egin zion. *Erbi-unidea* gaixtoa da.
- EGATZA: (erlatz, tellatu-erlax: alero). Gure tellatuak *egatza* ederra dauke. *Egatz* ederra.
- ERKIN: (beia erkin: síntomas de parto). Beia *erkin* dago. Baitugu bizpauru *erkin*.
- ESKALABURU: (eskalaburu: rellano de la escalera). Aitetxi *eskalaburu*en beti pause. *Eskalaburu* zabalak.
- ESKU-ZARTA: (esku-zarta, txalo: palmas, aplauso). *Esku-zarta* aunitz pilotarien ohoretan. Denak *eskuzartaka*.
- ERTEIZU, ERTEUTE, ERTEUT: (esaten duzu, esaten dute, esaten dut: dices, dicen, digo). Gaizki *erteizu*. Hoiek ongi *erteute*. Nik ere ongi *erteut*.
- ERRABERO: (errabero: leche recién ordeñada). *Errabero* goxoa gure bei gorriena. *Erraberoa* maite dut.
- EZPELDIE: (ezpeldoi: bojedal). Oiz-ko *ezpeldie* ederra da. *Ezpeldie* haundie.
- ESKUARGI: (eskuargi: linterna). Gau ilunetan, bide hoietan ibiltzeko, *eskuargi* on bat behar.

## -F-

- FARA: (kalostra: tranca de puerta). Ateko *fara* autsi zaiku). Ateko *fara* hautsi zaigu.
- FARANDA: (eskudel: baranda, barandilla). *Faranda* edertra dugu. *Farandik* gabe gaizki ginauden.
- FARFALLA, FARFAILA: (nordazko: despreciativo). Neska *farfaila* duk hori. Yende hoiekin ez nahasi.
- FARDELA: (gaizki apaindua eta ez garbia: persona desaseada). Hau neskatiko *far-dela!* Zein *fardelela* zaren!
- FEREKA: (laztana: caricia). Maite dut zure *fereka*. Maiteki *ferekatu* zuen.
- FERRETA: (pegarra: herrada, cántaro). *Ferreta* urez betea dago. Etxean badugu *ferreta* bat.
- FERRA: (perra: herradura). Zaldi horrek *ferra* bat galdu du.
- FERRATEIA: (perrategia: donde se hacen herraduras). Aita *ferrateian* dago. Goazen *ferrateire*.
- FERRATZALE: (*perratzale: herrador*). *Ferratzale* ona dugu. Gaurko egunean *ferratzale* guti.
- FERRATU: (perratu: herrar). *Ferratu* behar dugu behorra. Beiak ez ditugu *ferratzen*.
- FIERRA: (*gizon zalla: hombre curtido y fuerte. Persona fiel*). Hori gizon *fierra* da. Yende *fierra* nekatzen ez dena.
- FILDE: (trapuzar, baita ere konfiantza gutikoa: colgajo, trapos). Zu beti *filde* dario-la. Mutiko *filde* horrek ez du gauz onik.
- FINEZIE, FINEZIE: (fin jokatu: ser recto y sin trampas). Yokatuko zara *finezien* bertzenaz kuskoi zu. *Fiñezien* beti. Yokatuko zara *finezien* bestela ikusiko duzu.
- FIRUKE: (gauza mehea: una cosa simple, endeble). Hau haize *firuke!*. Hau gauza *firuke* duk.
- FITE, FITEKKO: (laster: agudo, pronto). Zato *fite*. Torri *fite*. *Fitexko* torri zara. *Fite* hautsi zaiku.
- FIZUA: (ona, yende fina: persona buena, muy formal). Mutiko *fizua* eta ona. Mutil *fizua* eta maitagarria.
- FRANKO: (frango: bastante). Besta *franko* gure herrian. *Franko* poliki kolpatue. Sosa *franko*.
- FRINKETU: (oina lurrean non jarri: pisar en el suelo). Kasu non *frinketze*-izun zangoa. Leku txarrean *frinketu* nuen zengoa. Kontuz non *frinketzen* duzun oina.
- FELDERA: (*molde-gabe, baldar: desmanado*). Zein *feldera* zaren. Hau mutiko *feldera*.
- FURRINDA: (aserre-hizi: furia, furor). Anbateko *furrinda* dugu bazter hoietan. *Furrinda* ederra.
- FUNTSE, FUNTSA: (funtsa, fundamentu: fundamento). *Funtse* guti hemen. *Funtsik* gabeko gizona.
- FUNTSEZKO: (yende formal, zuzena: persona formal). *Funtsezko* gizona dugu Pello Mari. *Funtsezko* arrazoñak.
- FUNTSEAN: (erabat: en resumen). *Funtsean* zer egin dugu aurtan? *Funtsean* deus ez.
- FUTRE: (putre: buitre). *Futre* aunitz erroitz hoietan. *Futreak* behar dire.
- FITSIK: (ezer ez: nada). Eztugu *fitsik* in. Hemen ezta *fitsik*. Ez dugu *fitsik* egin.
- FRANS-AIZIA: (Frantzi aldetik datorren haizea. Viento que viene de Francia). *Frans aizia* zein hotza den. *Frans aiziak* abarriketzen gaitu.

FALFARA: (traketsa, panparroi: informal). Kasu gizon *falfara* horrekin. Zu ere aski *falfara* zara.

—G—

GALBINE: (ezkillaren mihia: badajo). Ezkil horrek *galbine* hautsie du. Gareak *galbine* falta du.

GALAZI: (galdu arazi: hacer perder). Etorri gara zuri lana *galaztera*. Denbora *galazi*.

GAITZIRU: (lau kantoneko negurria: cuartal). Erosi dut *gaitziru* bat banabar. *Gaitziru* batekin aski dut.

GAITZES, GAITSETSA, GAITZETSA: (gaitzets: aborrecer). Bei horrek *gaitzets* du bere umea. Gaitsetsa.

GALDIN: (galde egin, galdetu: preguntar). *Galdin* zion. Zer *galdin* datzu? *Galdiozu* zerbait. Galdetu zion. Zer galdetu dizu? Galdetu iozu zerbait.

GALDEMODU: (galdemodu: una pregunta). Galdera. *Galdemodu* bat in behar datzut. Zer *galdemodu*? Galdera bat egin behar dizut.

GALDURRU: (Gallur: tallo de la flor del maíz). Arto hoiek *galdurru* ederrakin daude. *Galdurru* guzie yana.

GALALDI BET: (galtzeko arrixkua edo: la ocasión en que se pierde una cosa). Erosiko dut, *galaldi batendako* izango dut. GALALDI BET. Erosiko dut, *galaldi* batendako izango dut.

GALGA: (gurdiaren galga: gramil). Orgaren *galga* ondatue dago.

GAN, GUAN, GOAN: (joan: ir). *Gan* zaite hemendik. Etxera *gan* zen. *Guan* zen. *Goan* zen.

GANGARABILE: (Gongoila: ganglio). Gure mutikoa *gangarabilekin* daukegu. *Gangarabilek* gaixtuak.

GANTZUTU: (ihurtzi: untar). Urinekin ongi *gantzutu*.

GANTZA: (koipe, urin, gantz: manteca, grasa). Zerri gizenak *gantza* franko. *Gantza* aunitz.

GANTXIGOR: (gantzar, txantxigor: cimarrón). *Gantxigor* opillek zein goxuak diren. *Gantxigorrak*.

GALTZERDIMOTZ: (Galtzerdi haundiak ardi ileakin eginak: polainas de lana). Gure artzañak *galtzerdimotz* ederrak itentu. Gure artzainak *galtzerdimotz* ederrak egiten ditu.

GANBELA: (aska: pesebre). *Ganbela* berrie in dugu. *Ganbela* berrie eta ongi ine. *Ganbela* berria egin dugu. *Ganbela* berria eta ongi egin.

GALEA, GATALEA: (eramalea: llevador, el que lleva). Nere osaba kontrabandoan ibili zelaik mando *galea* zen.

GAN DUT: (eramán dut: he llevado). *Gan dut* astoa ferratzera. *Gan dut* nere sosa Bankora.

GANGO DUT: (joan gogo dut: tengo intención de ir). *Gango dut* Iruñera. *Gango* nuen ta enitzen gan. Joan gogo dut Iruñera. Joan gogo nuen eta ez nintzan joan.

GARAGARTZAROA: (garagarrilla, ekaina: junio). *Garagartzaroa* maite dut, eguna luze eta gaua labur.

GARE. GOARE. GOALE: (zintzarri: cencerro) Yoare. *Gareakin* ibiltzen dire gure behorrak. *Gare* haundiak.

GAREGILE: (Yoare egile: cencerrero). Nik badut osaba bat *garegile*. Gartzaingo *garegilea*.

- GARGERERO, GARGOITIK: (onezkero: desde ahora). *Gargero* torri izein de. *Gargoitik* hemen dago. *Gargero* etorri izanen da.
- GARIZIME, GARIZUMA: (Garizima: cuaresma). *Garizime* aizia hotza da. *Garizime* luzea da.
- GARRATOA, GARROTOA: (auzolana bezala: ayuda al vecino). Herriak *garrotoan* ekarri du eskolako egurre. *Garratoa*.
- GARDINGE, GARTINGE: (kardanga: rancio). Txinger *gardinge* txarra da. *Gardingetu* zaiku zingerra. Urdai *gardinga* txarra da. *Gardingatu* zaigu urdaia.
- GARRAIO, GARRAIATU: (Garraio: acarreo). Egur *garraian* ibiliak gara. *Garraiatu* dugu.
- GASNA: (gazta: queso). *Gasna* onak Etxeberriko bordan. *Gasna* zarrak inder haundie. *Gasna* zaharrak indar haundia.
- GASNOLA: (gasnak ezartzeko ola: tabla donde se colocan los quesos). *Gasnolan* patuitut gasnak. *Gasnolan* paratu ditut gasnak.
- GATZURE, GAZURE: (gatzure, gazur: suero). Atzo *gazurez* ase ginen. *Gazure* gustetzen zait.
- GATALEA, GALEA: (eramalea: el que lleva). Badugu *gatalea*. Gure *gatalea* Martintxo da.
- GATEAR: (Joatekotan eta abiatu bainan ez joan: a punto de ir). *Gatear* in ginen eta azkenean ez ginen batre gan. *Gatear* egin ginuen eta azkenean ez ginen joan.
- GATEKOTAN, GOATEKOTAN: (Joatekotan: que pensaba ir). Egon nintzen *gatekotan*. Beti *gatekotan* ta beñere ez gaten. Egon nintzan *joatekotan*. Beti *joatekotan* ta beñere ez joaten.
- GATZAGIE: (Gatzagia: cuajo). Non utzi dugu *gatzagie*? *Gatzagie* hemen dago.
- GATZUNTZI: (gatzaren ontzia: salero). *Gatzuntzie* betea dago. *Gatzuntzi* polite dugu.
- GAZTANERI (gaztainadi: castañal). *Gaztañeri* hortan bildu ditugu gaztañak.
- GAZTANBERA: (mamia: cuajada). Gaur dugu *gaztanbera* yatea. *Gaztanbera* gogotik yaten dut.
- GAZTELAIZE: (ego-oxezki edo ego-sartalde haizea: viento suroeste). *Gaztelaiizeak* maten dio. *Gaztelaiize* hunekin urie. *Gaztelaiizeak* ematen dio. *Gaztelaiize* honekin euria.
- GAZTIETU, GAZTIGETU: (jakin-erazi: avisar). Gure berri ona *gaztietu* osabari. *Gaztietu* diogu.
- GERNU, GERNUE: (pixa: orina). *Gernu* zikine eritasunaren seinale. *Gernue* neketan.
- GERNU-DEBEKUE: (pixik ezin egin: próstata). *Gernu-debekuek* atakutzen du gizona. *Gernu-debekue*.
- GERREN: (kerren, burdintzi: asador, varilla para asar). Zingerra *gerrenian* zein onaden. *Gerren* ederra dugu.
- GERRONTZE, GERRAUNTZE: (gerria: riñones, cintura). *Gerrontzea* loditu zaitu. A zer *gerrauntze* lodie.
- GESALA: (gesala: liquido de la carne). Aragi puske horren *gesala* haundie da.
- GIBELALDE: (atzeko alde: la parte de atrás). Zer duzu *gibelaldean*? Etxearen *gibelalde* hortan dago.
- GIBELATU, GIBELDU: (atzeratu: atrasar). Erleju hunek *gibelatzen* du. *Gibeldu* iten da. *Gibelatu*. Ordulari honek atzeratzen du. Atzeratu egiten da.
- GIBELAT, GIBELERA: (atzera: atrás, tras). Etzazule *gibelat* in. Gan zaitte *gibelera*.
- GIBELEAN: (atzean, baita ere gibelean: detrás, también en el higado). *Gibelean* dago. *Gibelean* gelditu zen. *Gibelean* min du.

- GIBELKA: (atzeraka: para atrás, reculando). *Gibelka* ez, zu segi aitzinet. Zu *gibelka* ai zara. Atzeraka ez, zu segi aurrera. Zu atzeraka ari zara.
- GILTXAURRE, GILTXAUR: (intxaurra: nuez). Gure etxeko *giltxaurrek* zein onak diren. *Giltxaur* onak.
- GILTXAURDI: (intxausti, intxaurdi: nogeral). Elizondon bada leku bat *Giltxaurdi* deitzen diotena.
- GILTXURRINE: (gilzurrin: riñón). *Giltxurrinek* arras ondatuek dauzke.
- GIRBIÑE: (alde-azpi: reverso). Ohial hunen *girbiñe* hau da. Hau *girbiñe* eta hau aurkie.
- GIBELURDIN: (oindo, onyo, ziza mota bat: clase de hongo). Bildu ditut bi onyo beltz eta lau *gibelurdin*.
- GIRGILLIERIE: (bitxikeriak: adornos extravagantes del vestido). Hainbertze *girgilleri* zertako? Hau *girgillerie*.
- GIZASEME: (gizonezkoa: hombre). *Gizaseme* ederra nere alabaren senarra.
- GIZONKETARI: (neska, gizonak maite dituena: mujer que le gustan los hombres). Gure hauzoko neska hau *gizonketarie* da. *Gizonketarie* bai.
- GIZELUR: (Lur negurria, Baztanen erabiltzen dena: peonada). Nere landak baditu zortzi *gizelur*. *Gizelurrak* 374 m<sup>2</sup>.
- GOATZE, GOATZEA: (ohea: cama). Neguan *goatzea* zein goxoa den. Afaldu eta *goatzera*.
- GOATZESTALKI: (ohe ganeko estalkia: sobrecama). *Goatzestalki* ederra dugu. *Goatzestalkie*.
- GOAKI NAIZ: (banoa, banijua: me voy). Oraintxen *goaki naiz*. *Goaki naiz* etxera.
- GOIBEL, GOIBELDU: (odei: nube). *Goibel* dago. *Goibeldu du*. Badire *goibelak*.
- GORGAIN: (zaburu, kulunka: columpio). *Gorgain* bat erosi dugu. Haurrendako *gorgoña*.
- GORGONETAN: (kulunkaka: columpiándose). Gure haur hoiek *gorgoñetan* dabilte. *Gorgoñetan*.
- GOITI: (gora: arriba). *Zazi goitire*. *Goitien* dago. Zu beti *goiti*. *Goiti* orma. Zoaz gora. Goian dago. Zu beti gora. Goien jela.
- GOITIGALE: (goragale: ganas de vomitar). *Goitigaleakin* nago. *Goitigale* izigerrie.
- GOITIKE: (goraka, goitika: vomitando). Gure haurre *goitike* aizena da. Egun guzien *goitike*. Gure haurra *goitika* ari izana da.
- GORAPEN: (ilgora: creciente). Etzi *gorapen*. Mutil luzea, *gorapenean* sortu izein de. Mutil luzea, ilgoran sortua izango da.
- GORAINZI: (eskumuñak: recuerdos). *Goraintziek* osabari. Baztan aldetik milaka *goraintzi*.
- GOSALITZINE: (gosaldu aurrean: antes de almorzar). *Gosalaitzinean* aurpeia garbitu. *Gosalaitzin* beti gose.
- GORKI: (oso, arras: txit. muy). *Gorki* polite da. *Gorki* ongi dago.
- GURI, GURIE: (bigun, baita ere gurin: blando: también mantequilla). Zein *guri* dagon goatze hau. Etxean iten dugu *gurie*. Zein bigun dagon ohe hau. Etxean egiten dugu gurina.
- GUTIZIA, GUTIZIE: (gogoa: codicia). Badauket bada gauza horren *gutizia*. Anbateko *gutizie*.
- GOITIAR, GAINDAR: (mendian bizi dena: el que vive en caserío en el monte). Gaur *goitiar* aunitz herrian. *Gaindarrak* etorri dire.
- GOARRAPIA: (tellatu azpian: entre la pared y el tejado). *Goarrapian* altxatu nuen.
- GAINDEIA: (sabaian beste sorallu bat tellatu ondoan: un piso del desván). *Gaindeian* baitugu hainbertze gauza.

- GANGABILE: (baiarte, anda: camilla, parihuela). *Gangabilen* ekarri ginuen ongarrie. *Gangabile* beti eskuhar.
- GOIBERRA: (zerua goibel itsusiekin: cielo nublado y muy feo). *Goiberra* eta isusi, erauntsi gaixto bat inen du. *Goiberra* ilune.
- GAZAITE, GATZAITE: (Aitabitxi, aitaponteko: padrino). Patxiko nere *gazaite* da. Maite dut nere *gazaite*.
- GALDUR-AGA: (gaztain kaskoa usteko aga llaburre: palo para vaciar castaño). *Galdur-aga* behar izaten dugu gaztain kaskoa ongi usteko.
- GARRAIARIEK: (Hila eramaten dutenak: los que llevan el difunto). *Garraiariek* etorri dire. *Garraiariek* auzoko lagunak dire.
- GIBELONDOA: (Lan haundia egin duena: cuando uno hace un arranque fuerte). Gaurko eskure gizon hunek *gibelondo* ederra yo du.
- GOITIXAGOTTO: (pixka pixka bat gorago: un poquitin más arriba). Goazen goitixagotto. Borda zarra *goitixagotto* dago.

## -I-

- IBILKARI: (ibiltzale: andarin). Gazte hau *ibilkari* ona da. Ni ere *ibilkarie* naiz.
- IDEZARRI, IRIZARRI, IRAZARRI: (esnatu: despertar). *Idezarri* da gure haurre. Denak *idezarri* dire.
- IDIKO: (idiako, zezengai: novillo). *Idiko* ederra dugu etxean: *Idiko* horrek sosak balio du.
- IDOR: (legor: seco). Lurre *idor* dago. *Idortu* dire bazterrak.
- IDORTEA: (legortea: sequía). *Idorteak* ondatu ditu bazterrak. *Idorte* haundie.
- IDORRA: (hitz gutikoa eta betillun: persona antipática o algo así). Zein *idorra* den gizon hori. Yende *idorra* gure barride hoiek.
- IDURI: (irudi: parecer). *Iduri* du mozkorra dagola. *Iduritzen* zait. *Iduritu* zait.
- IDURIE: (ikatz xehea: carbón menudo). *Idurie* ezta iketz ona. Ikatzaren ordez *idurie*.
- IGEZKIE: (irazki, iragazki: colador). *Igezkie* behar dugu. Hemen dago *igezkie*.
- IGEN, IGAN: (igo: subir). *Igen* da tellaturaño. *Igen* zaite goitire. *Igen* da.
- IGEL, IEL: (igel: celo de la yegua). Gure behorra *igel* dago. Behorra *iel*.
- IGITU: (mugitu: mover). Belarrak *igitu*. *Igitu* ongi gero! *Igitu* ditugu.
- IGORRI: (biali, bidali: mandar). *Igorri* dugu zure etxera. Zure gauzak oñik *igortzeakoak*. *Igorri!* Zure gauzak oraindik *igortzeakoak*.
- IKERERIE: (lur ikara: temblor de tierra). Bartatsean *ikererie* izan dugu. *Ikereriekin* izitu gara.
- ILERGIBETE: (illargi betea: luna llena). Gaur *ilergibete*. *Ilergibeteain* ondotik berapen. Illargi betearen ondotik ilbera.
- ILERGIBERRI: (illargi berria: luna nueva). Etzi *ilergiberri*. Ondotik gorapen.
- ILER BIRIBILE: (illar, illar-berde: guisante). *Iler-biribile* erin dugu. *Iler-biribile* etzaigu sortu.
- ILINTXE: (ikatzza ongi egosi gabea: carbón mal cocido). *Ilintxe* iketz txarra da. *Ilintxe* eztu iñork nai.
- ILOA: (illoba: sobrino). Nere *iloa*. arras abile da. *Iloak* baitut pileka.
- ILOBITSIE, ILOBITSI: (billoba: nieto). *Ilobitsi* aunitz gure aitetxik. *Ilobitsiek* maite ditu.
- ILLORTU, ILORTU: (umea galdu: abortar). Beia *ilortu* da. Behorra ere *illortu*. Biek *ilortu*.

- ILORRA: (umea galdu duena: que ha abortado). Bei *ilorra* kendu behar dugu. Bei *ilorra* da.
- IL-URREN, HIL-URREN: (hil zorian: a punto de morir). *Il-urren* dago. Osaba *hil-urren* dago.
- ILUN-EZKILE: (ilunabarreko ezkila: toque de campana al oscurecer). *Ilun-ezkilek* yo du. *Ilun-ezkileko* denak etxera.
- ILUPE: (fundamentu gabea: persona sin fundamento). Hau yende *ilupe!* Mugi zaitte, zein *ilupe* zaren.
- INGURUKERIE: (zirimola, sorgin-aize: remolino de viento). *Ingurukeriek* iretze meta guziek gan zazkun. *Ingurukeriak* iretze meta guziak eraman zizkigun.
- INGUME: (amets txarra, amesgaizto: pesadilla). Gure aita zenak *ingume* gaixtuak izaten zituen.
- INGUME: (ameskeria, txakur-amets: fantasma en forma de gato y muerde al que está dormido). *Ingume* atsikiekin irizarri naiz. *Ingumeri* beldur. *Ingume* ozkadurakin esnatu naiz.
- INGURUKO-MINE: (ertitz, beazko: panadizo). *Inguruko mine* gaixtua da. *Inguruko mine* sendatu zait.
- INTZILERIE: (eiztaria, ihizilaria: cazador). Urriko ilebetean *intzileriek* espantu franko.
- INGRISTIEK: (keñuak: mimica). Gure mutikoak zein ongi itentuen osabain *ingristiek*. Gure mutikoak zein ongi egiten dituen osabaren *ingristiek*.
- IZILERIE, IZILARIE: (eiztaria: cazador). Gaur Belaten baziren ehun *izilari*. *Izilari* aunitz.
- IÑARROSI: (astindu: sacudir). *Iñarrosi ongi zaku zikin hori*. *Bazterrak iñarrosi* ditugu.
- IÑAUTE: (iñauteriak: carnaval). *Iñautetan* sekuleko bestak iten tugu. Aurten *iñaute* ederrak. *Iñauterietan* sekulako festak egiten ditugu.
- IÑAURKIE: (iñaurkin: cama del ganado). Iretzea *iñaurki* ona da. Badugu *iñaurkie* pileka.
- IÑAUS: (irausi: celo de la marrana). Urdama *iñaus*, eta horren *iñausaldien* kasu.
- IÑE: (iñe: junco). Mendi zoko hoietan *iñe* auserki. *Iñe* dagon tokien bada ura.
- IÑERA: (ainara, enara: golondrina). Torri dire *iñerak*. *Iñerak* egaztin onak dire. Etorri dira ainarak. Ainarak egazti onak dira.
- IÑERRA. INARRA: (igarra: seco, sin grasa). Hunek eztu urinik dena *iñerra* da. *Iñarra* gantzik gabea.
- IÑERTU, INARTU: (igartu: secarse). Lore hoiek *iñertu* dire. Sagarrondo hau ere *iñertue*.
- IÑERIKEN, INERIKE: (igerikan: nadando). *Iñeriken* atra zen putzutik. Ongi daki *iñeriken*.
- IÑEZTURE: (tximista: rayo que no cae a tierra). *Iñeztureka* ai du. *Iñeztureka* eta ortoska.. Tximistaka ari du. Tximistaka eta trumoika.
- IPERRA, IPARRA: (iparra: norte). *Iper* aizia hotza da. *Iperretik* maten dio.
- IPER-LANO, IPER-LAÑO: (ipar aldeko lañoa: niebla de viento norte). *Iper-lanoak* sartu dire. *Iper-lañoa* txarra da mendian.
- IRETZE: (garoa: helecho). *Iretze* ederrak gure mendietan. *Iretzeak* lana mateute. Garo ederrak gure mendietan. *Iretzeak* lanak ematen dute.
- IRELEKU: (iretze leku, garo leku: helechal). *Ireleku* ona dugu. Gure *irelekuen* badi-ra haritzak.
- IREZELAI: (garo zelai, iratze leku: helechal). Baztanen *irezelai* ederrak. Banaie *irezelaire*. Banao *irezelaira*.



- IRETZE-META: (garo meta: montón de helecho). *Iretze meta* ederra gure etxe ondoan. *Iretze meta* aunitz.
- IRETSI: (irentsi, irentzi: tragar). *Iretsi* nuen hezur bat. Ez dut *iresten* ahal.
- IRIKIN, IRIKITEN, IRIKINE: (irakin: hervir). *Irikin* du esneak. Esnea *irikiten*. Esnea *irikine*.
- IRINDEIA: (irindegia: lugar donde se amasa la harina). Ama *irindeian* dago. *Irindei* ederra dugu.
- IRIZARRI, IRAZARRI, IDEZARRI: (esnatu: despertar). Aitetxi aixtion *irizarri* da. Haurrek ere *irizarri* dire.
- IROSKITUE: (gehiegi irakinez zopak: de tanto hervir hecho una pasta). Hainbertze irikinez zopak *iroskituek*. *Iroskitu* zaizkigu.
- IROSKA, ITOSKA: (iresle: tragón, glotón que come a punto de ahogarse). *Iroska* yana du dena. *Iroska* yana ito-urren.
- IRUZKI, IDUZKI: (eguzki: sol). *Iruzki* goxo dugu. *Iduzki* denean itzala goxo.
- IRUZKIAIZE: (Eguzki haize: Viento del este). *Iruzkiaize* hunek urie karko du. Eguzki haize honek euria ekarriko du.
- IRUZKIPEDIA: (eguzkiaren menpean dagona, eguzkialde: soleado). Gure etxea *iruzkipeian* dago. Gure lurrak *iruzkipeian*.
- IRRI: (parra: risa). *Irri* ederrak in gintuen. Zu beti *irriz*. Ez *irrik* in. *Irri* ederrak egin genituen. Ez *irrik* egin.
- IRRI-MURRITZE: (irri-par: sonrisa). *Irrimurriz* bat eginik gan zitzaikun.
- IRRINGERRIE, IRINGARRIE: (parragarria: que hace reir). *Irringarrie* zaude zapel haundik horrekin. *Irringerrie*.
- IRRI-SOLAS, IRRISOLAS: (hitz-gozo, hitz-bitxi: chistes). *Irrisolasetan* pasa ginuen atsalde guzie. *Irrisolas*. *Irrisolasetan* pasa ginuen arratsalde guzia.
- IRRIZU, IRRIZUE: (parra aisa egiten duena: dado a la risa). Hau neska *irrizue*, beti *irriz*. Denak *irrizuek* zate. Denak *irrizuek* zarete.
- IRRISTETU: (txirrist egin, lerratu: resbalar). *Irristetu* eta erori nintzen. Etzaitela *irristetu*.
- IRRISTERIE: (txirrist aisa egiten den tokia: sitio resbaladizo). Hau *irristerie*, zutik ezin egon. *Irristeri* haundie.
- IRRISTEKORRA: (txirrist eginkorra: sitio resbaladizo). Kasuman leku hau arras *irristekorra* da.
- ISETSA: (isatsa: escoba). Zoko hoiek *isetsakin* garbitu. *Isets* berrie erosi dut.
- ITALEA: (egilea: el que hace). Nere osaba arrastelu *italea* da. da. *Italea* non dago?
- ITIA, EITIA: (antza: parecido). Horrek badu bere aitain *itia*. Osabain *itia* ere. Horrek badu bere aitaren antza. Osabaren antza ere.
- ITEXURE, ITEZURE: (ituxura: gotera). Etxe zarrak *itexure* franko. *Itezure* aunitz.
- ITOSKA (IROSKA): (iresle, dena batean jan: tragón, comer sin respirar). *Itoska* yan zuen, ito-urren. *Itoska* atsik hartu gabe. *Itoska* jan zuen ito-zorian. *Itoska* arnasik hartu gabe.
- ITO-URREN: (ito-zorian: a punto de ahogarse). *Ito-urren* aurkitu ginuen. Hezur bat iretsi eta *ito-urren*.
- ITZEA: (iltzea: clavo). *Itze* bat sartu dut. *Itzetu* ongi atea. *Itzea* sartu dut.
- ITZ-DEBEKUE, HITZ DEBEKUE (hitz DEBEKUE (hitz tartamudo). Neska polita bainan *hitz-debeku* horrek ondatzen du.
- ITZILIPURDI: (eroriko haundi bat: volatin). Ipurdiz-gora ere bai. Anbateko *itzilipurdie* in zuen. Dena *itzilipurdiketu* dugu.
- ITZUNTZI HITZUNTZI: (berritsu: parlanchin). Zein *itzuntzie* zaren. Hau neskati-ko *hitzuntzi*.

- IXKILINE:** (iskilinba: alfiler). *Ixkilinekin* ziztetu nion. *Izkilin* zorrotza. *Ixkiline*.  
**IXTU, HISTU, ISTU:** (kolorez aldatu edo ilundu: borrarre). Ez da sekulan ene gogotik *histuko* zure itxura. *Histu* da.  
**IXTEKOLOKA:** (istarkloka: a horcajadas). *Ixtekoloka* gelditu zen. Hau *ixtekoloka* dago.  
**IZERDI-URETAN:** (izerdi-patsetan: sudando mucho). *Izerdi-uretan* ginauden. Egun guzian *izerdi-uretan*.  
**IZIKORRA:** (izukor, aisa izutzen dana: asustadizo). Hau gizon *izikorra!* Mutiko gazte hau arras *izikorra* da.  
**IZITU:** (izutu: amedrentar). *Etzaitela izitu*. Gure haurra *izitzen* da. *Izitu* zara.  
**IZIALDURE:** (izualdia: susto). Anbateko *izialdure* hartu nuen. *Izialdure* sartu zitzaizten.  
**IZIALDI:** (izualdi: susto). Hartu nuen *izialdiakin* eritu nintzen. Anbateko *izialdie*.  
**IZPIKUE:** (ernea, abilla: muy listo). Hau neskatiko *izpikue!* Yende *izpikue* dugu hemen.  
**IZOKINE, IZOKINA:** (izokia: salmón). Bidasoko ugaldean badira *izokinek*. *Izokin* aunitz Bidasoan.  
**IZUA, IZOA:** (izeba: tía). Nere *izua* erixko dago. *Izoa* Fantxike bizkor dabile. *Izoa* ona da. Nere izeba gaiso dago. *Izeba* Pantxike bizkor dabil.  
**IZILARIE, IZILERIE:** (eiztaria: cazador). Gaur Belaten baziren ehun *izilari*. Nere aita *izilarie* da.  
**ILOA, ILOA** (billoba: nieto, también sobrino y sobrina). *Iloak* maite du amatxi. *Illoa* Almandozera goana.  
**ILOBA TTIPI, ILOBA TTIPI:** (Illoba-txiki: sobrino-nieto). Nere *ilobatipia* zein ona den. *Iloba ttipi* aunitz ditut.  
**IRALKIA:** (iretze ebakitzeko tresna, iratzea garoa da: herramienta para cortar helecho). Gure aitetxik *iralkiakin* ebakitzen zuen iretzea. *Iralkia* Sunbillan hartua.  
**IZEKUNDE (GIZEKUNDE):** (Iñaute aitzineko ortzegun bat: jueves de septuagésima). *Izekunde* egunean gizonak besta egiten omen zuten. *Gizekunde* ere erraten da. *Gizekunde* eta *Izekunde*.  
**IRRINAZI, IRRINAZTEN:** (parra eginarazi, irri eginarazi, eginarazten: hacer reír). Nola *irrinazten* duen yendea. Yendea *irrinazi* pailasoen lana.  
**IZTI ZORRIE:** (izti zorria: golondrino que sale en la ingle). *izti zorrie* atra zait. Zein gaixtua den *izti zorrie*.  
**IRRILDE:** (Irrilde: Camino muy en cuesta para tirar la leña hasta la carretera). *Irrilde* hortatik botatzen dugu egurre bide zabaleraño.  
**ILUN EZKILLE:** (iluntzean jotzen den danda: toque de campana al oscurecer). *Ilun ezkille* yotzen dutelaik denak etxera.  
**IZKIRRITTUA:** (zartadura: esguince). Zangoa *izkirritua* daukat. *Izkirritua*. Sunbillan hartua).

## -JY-

- JA!** (ezer ez dela: que no es nada, que no hay nada). Zu *Ja* ez zara. Han etzen *Ja* ere. Eztugu *Ja* in.  
**YABILDU:** (jabetu: adueñarse). Gure gauzetaz *yabildu* da. Gure etxeaz ere *yabildu*.  
**YANIZA, YANIZE:** (jateko gogo haundia: apetito voraz). Mutiko hoién *yaniza!* Ezin ase, hau *yaniza!*  
**YAKITATE:** (jakinduria: sabiduría, que sabe mucho). Gure apezak badu *yakitate*. *Yakitate* aundiko yauna.  
**YANLEKU:** (jantokia: comedor). Ostatu hortan *yanleku* ederra. *Yanleku* berrie da.

- YARRAIKI: (jarraitu: seguir). *Yarraiki* geren bidetik. *Yarraiki* horri. Ezin *yarrai-kiz*.
- YARRAIKIE: (beti jarraitzen duena atsitu gabe: que sigue siempre sin descanso). Gizon *yarraikie*. Lanean aspertu gabe mutil *yarraikie* Josetxo.
- YARRALKIE: (esertoki: sitio para sentarse, banco). *Yarraiki* zabalak gure Herriko Etxean. *Yarraiki* onak dire.
- YAUNA, YAUNE: (jauna: señor). Beti badire *Jaunaren Yaunak*. Bai *yauna* bai. Gure *Jaune*.
- YAUNTZI: (jantzi: vestido). *Yauntzi* berriekin, zein ongi. *Yauntzi* zarrak bota.
- YAUTSI: (jetsi: bajar). *Yautsi* zaite hortik. *Yautsiko* gara. *Yautsi* ziren.
- YAUZI (jauzte: salto). *Yauzi* ederra egin zuen. Zu beti *yauzike*. *Zazpi yauzi* (dantza bat).
- YAUREGI: (jauregi: palacio). *Yauregi* ederrak gure eskualdean. *Yauregia* etxearen izena.
- YAZ: (igaz, ihaz, iaz: el año pasado). *Yaz* gan ginen. *Yazko* bestak onak ziren. *Yaz* gaizki aurten ongi.
- YASAN: (jasan: soportar). Ainbertze neke *ysanak*. Nekeak *ysan*. *Yasan* ditugu.
- YASANGARRI, YASANKORRA: (jasangarri: soportable). Aurtengo negue *ysan-garrie* izan da. *Yasankorra* eta ona.
- YAKITUZ: (gehiegi gastatu gabe, kontuz: gastando poco a poco). *Yakituz* sobera gastatu *gabe*. *Yakituz* *yakituz* behar dugu.
- YAUS, YAUSERE (DEUS): (ezer, ezerrez: nada). Hau *yaus* ezta. Ezta *yausere* ikusten. Ez zatan *yaus* erran.
- YENDAKI: (ahaide: pariente). Zu nere *yendakie* zara. Hemen baitugu ainbertze *yendaki*.
- YENDEA: (jendea: gente). *Yende* aunitz herriko bestetan. *Yendea* pileka ferietan.
- YENDEREN YENDE: (ahaide bezala: contrapariante). Hoiiek nere *yenderen yende*.
- YELOSKOR: (jeloskor: celoso). Nere senarra arront *yeloskorra* da. *Yeloskor*.
- YIPONA: (txamarra: chaqueta). *Yipon* berrie erosi dut. Hemen nere *yipona*.
- YORIE: (iraunkorra: duradero). Egur *yorie* dugu. Zein *yorie* den. Belar pille yori dago.
- YORITU: (iraunazi: hacerle durar). Esnea ur pixka bat emanta *yoritzen* da. *Yoritu* egiten da.
- YORRA, YORRATU: (jorra, jorratu: escardar). *Yorra* bat arbi bat, *bi yorra* bi arbi. Ongi *yorratu*.
- YORRAIA: (aitzur txikia: azada pequeñita para escardar). Porruek *yorraia*kin eta tipulek ere *yorraia*kin yorratu.
- YOSTAGURE: (jostatzeko gogo: ganas de jugar). Gure mutiko hoién *yostagure!* Gaur denak *yostagure*.
- YOSTUNE: (jostuna: costurera). Gure izua *yostune* da. *Yostunek* langileak dire.
- YOSTAKIN, YOSTAKINE (jostatzale: que le gusta jugar, divertirse). Zu beti *yostakin*. Neskatico hau *yostakine* da.
- YOSTETA: (josteta: juego diversión). *Yosteta maite* dut. Hemen bada non *yosta* beti yostetan.
- YOSTORRATZA: (josteko orratza: aguja de coser). *Yostorratza* ona duzu. *Yostorratz* horrekin lan ona.
- YAKA, YAKADUNE: (soñekoa: vestido, chaqueta). Yaun haundia: Señor. Pazazu *yaka*. *Yakadunek* yaun aundiak dire. Jar zazu *yaka*.
- YANOSOA, YANIZE: (yateko gogo: ematen duena: cosa apetitosa). Haragi hau *yanize* dago. *Yanosoa* dago.

## -K-

- KABILLE, KABILE: (kabilla: clavija del eje de la rueda). *Kabile* autsi zaiku. *Kabile* ondatue dago.
- KAFA, KAFATU, KAFKA: (atzaparkatu: escarbar, escarbo). Behorra *kafka* eta nola *kafatu* duen. Hemen behorrain *kafa*.
- KAIERO: (beti galtzen, beti zanpatua: siempre perdedor). Gu beti *kaiero*. Orai ere gu *kaiero*.
- KAKA-GIZON: (gizon exkaxa, ergela: hombre despreciable). Zu *kaka-gizon* bat zara. Ago xilik arraio *kaka-gizon!*
- KAKILE: (kakalia: ganas de evacuar). *Kakileak* nago. Arront *kakiletue*. Zu beti *kakile*.
- KAKUNTZI: (kakatzu: cagon). Zein *kakuntzie* den haur hori. Arraio *kakuntzi!*
- KALITSE: (garitxa, kalitxa: verruga). Anbateko *kalitse* atra zait. *Kalitse* susie. Anbateko *kalitse* atera zait. *Kalitse* itsusia.
- KALIMURRITZE: (ille motx motxa: pelo muy cortado, rapado). *Kalimurritz* eta bonetik gabe hoztuko zara. *Kalimurritz* zein susi.
- KALAKA: (tresna bat, Landan jartzen dena txoriak iziazteko: aparato). Gure landako *kalakak* ederki iziazten tu xoriek. Anbateko *kalaka*.
- KAIKU, KAIKUTTO: (kaiku, kaiku txikia: cuezo o tazón de madera, cuezo pequeño). *Kaiku* egile ona Erratzun. *Kaiku* bat gaztanbera. *Kaikutto* bat.
- KALAPITE: (zarata: bulla, "follón"). Atzoko *kalapite* izigerrie izan zen. Anbateko *kalapite*.
- KAKOLA: (belarra lotzeko tresna: un aparato para atar fajos de hierba). Belarra *kakoletan* eta soinke sabaire. *Kakola* ederrak ditugu.
- KALOSTRA: (kalostira: balaustrada). *Kalostira* horrekin segur gara. *Kalostira* berrie dugu.
- KAFIE: (kabia, kabiya: nido). Kardelinak hortxe du *kafie*. Arrano *kafiek* erroitz hoietan.
- KAMANTZA: (artzai ohea: cama de pastor). Gure artzañak *kamantza* ederra du. *Kamantza* hortan lo.
- KAMUSTU: (puska kendu: quitar pedazo, desafilat). Aizkora *kamustu* zaiku. Aitzur *kamutse*. *Kamustu* dugu zorra.
- KAMUTSE: (kamutsa: desafilado). Zein *kamutse* den nabal hori. Arras *kamutse*, zorroztu behar da.
- KAKAMARRO: (kakalardo: escarabajo). *Kakamarro* bat ikusi dut. Hor badire hainbertze *kakamarro*.
- KAKA-URRIN, KAKURRIN: (kaka usaia: olor a mierda). Puf! Hau *kaka urrine!* Hemen bada *kakurrin* haundie.
- KARRAKAILDUE: (ondatua, zahartua: persona estropeada, envejecida). Gure gizona arront *karrakaildue* dago. *Karrakail* dabile.
- KAMAMILE: (kamamilla: manzanilla). *Kamamile* arras ona da. Saioako *kamamile* hoberena.
- KANABITE: (aiztoa: cuchillo). *Kanabite* hau zein zorrotza den. *Kanabite* ona da.
- KANTTOINKE: (kantonka: de canto). *Kanttoinke* gelditu zen. Denak *kanttoinke* daude.
- KARAKA, KARAKAKA: (karaka: cacareo). Hau ollo *karaka!* Denak *karakaka*, hau *kalapite!*
- KARAKARI: (ollo karakaria: cacareador). Ollo *karakari* hori hil behar dugu. *Karakariek* direla gure olloak.

- KARRAKA: (tresna bat: es un aparato que hace ruido). Aste Sainduaren Donabere-tan yotzen den tresna, *karraka* deitzen da.
- KARTOLA: (asta-saski: asientos que se colocan sobre las caballerías). Gure abreak *kartola* berrie du.
- KARRAKATU: (karraskatu: raspar). *Karrakatu* ongi sorallu hori.
- KARRIKE, KARRIKA: (kalea: calle). Gure herriko *karrikek* garbiek dire. *Karrike* luzea.
- KASKABILE: (koskabilo: cascabel). *Kaskabilez* betea dago. *Kaskabil* ederrak.
- KASKALLU: (arkosko: cascajo). Bide hortan *kaskallu* aunitz bota dute.
- KASKOA: (gallurra: cima). Saioako *kaskoan* bada elurre. Auzako *kaskoa* ederki ageri da.
- KASU: (kontu: cuidado). *Kasu* horrekin! *Kasu* minik hartu gabe.
- KARIO: (garesti: caro). *Urrea kario* dago. Bazkari *karioa* eta guti yan.
- KARIOTU: (garestitu: encarecer). *Urrea kariotu* da. Gauza guziak *kariotzen* eta beti goiti.
- KAPRESTU: (mandoari jartzen zaiona: lo que llevan las caballerías). Abre horrek *kaprestu* ederra dauke. *Kaprestu* berrie.
- KAPARRA: (uli gaixtua: una especie de insecto). Garrapata. Lotu zitzaion *kaparra* bezala. *Kaparra* gaixtua da.
- KALERIE: (balkoi luzea: balcón largo, galería). Gure amatxi *kalerien* egoten da. *Kalerien* iruzki hartzen.
- KAUSITU: (aurkitu: hallar, encontrar). *Kausitu* dugu. Ursuan difuntua Santanan *kausitua*.
- KATTALINGORRI: (kattalingorri: insecto especial). *Kattalingorri* aunitz gure baratzean.
- KATAZKA: (indarka: esfuerzo). *Katazka* ederrak in gintuen. Hemen beti *katazkan*. *Katazka* ederrak egin genituen.
- KATXETA: (tatxet: tachuela). *Katxetakin* itzetu ginuen. *Katxeta* zorrotzak ditugu.
- KARDELIN, KARDELINA: (kardantxilo: jilguero). *Kardelinek* zein ongi kanta-tzen duten. *Kardeline* xori ona.
- KASKI, KASKIEK: (lasto eta belar izpi lodiak idortuak: rastrojos). Baba *kaski* hoiek erre behar dire. Patata *kaskiek* ere bai.
- KATADERA: (jar-leku: silla, asiento). Yarri zaite *kataderan*. *Katadera-dantza* badugu Baztanen.
- KATTALIN-EZURRE: (txorkatill-egurra: hueso del tobillo). *Kattalin-egurra* autsi zuen. *Kattalin-egurra* ongi dut.
- KAPABLE: (gauza, gai: capaz). Etzara hortako *kapable*. Gizon *kapablea* eta aski azkarra.
- KAZKARABARRA, KASKABARRA: (kaskabarra: granizo). A zer *kazkarabar* erauntsie in duen. *Kazkararra* eta aunitz.
- KAKELU-ZOROA: (erdi ergela edo zoroa: medio tonto). Ago xilik arraio *kakelu-zoroa!* *Kakelu-zoro* zikine!
- KAZPELA: (kaxola, lurrontzi: cazuela). *Kazpela* bete dugu. *Kazpel* hortaik yan.
- KERETA, GERETA: (langa bezalakoa: especie de portillo). *Kereta* berrie dugu bei-tiko belaian. *Kereta* haundie da.
- KERIZU: (geriza: resguardo, amparo). Hemen ongi, *kerizuen* goxo goxo. *Kerizu* ona dugu.
- KERTXOLA: (eskorta, sarobe: corral). Sartzizu ardiak *kertxolan*. Ardiak *kertxolan* bildu.

- KERREN: (burdin ziri: asador). Zingerra *kerrean* errea zein ona den. *Kerren* ona dugu.
- KEXU, KEXATU: (kejo: inquieto). Yendea *kexu* dago. Arras *kexatuek* denak.
- KIDERRA: (kirtena: mango). Aitzur *kiderra* autsi zait. Zartaña *kiderretik* beti.
- KILIKETU: (kilikatu: hacer cosquillas). *Kiliketu* ginion ederki. Zu beti *kiliketzen*.
- KILIKE: (kilika: movedizo, cosquilloso). Zein *kilike* zaren. Ortz hau franko *kilike* dauket.
- KILIKORRA: (kilika, kilikor, kili-kilitsu: cosquilloso). Hau neska *kilikorra*. Gure etxean denak *kilikorrek*.
- KILKERRA: (kirkirra: grillo). Belai hortan *kilker* aunitz. *Kilkerrak* kantari.
- KIRETSA: (mingaitz, samin: amargo). Zein *kiretsa* dagon kafea. *Kirets* eta hotza.
- KIME: (kuma, kima: orin). Gure zaldiaren *kime* zein polite den. *Kime* xurie.
- KIMETU: (adarburutu, soildu: podar). Sagarrondoa *kimetu* behar dugu. Eztuzu ongi *kimetu*.
- KIRIKEKA: (kuku, kirikaka: acechando). *Kirikeka* zagon. Nik ere *kiriketu* nuen.
- KIRIKETAN: (josteta bat: juego “a escondites”). Haur hoiek *kiriketan* ai dire: Haur denboran *kiriketan*.
- KISU, KISUA: (kare: cal). *Kisue* ona da. Gure landa *kisutu* dugu. *Kisu* aunitz.
- KISUARRIE: (kararri: piedra caliza). Mendi zoko hortan bada *kisuarrie*. *Kisuarri* ona.
- KISULABE: (karobia: calera, calero). Baztango *kisulabeak* ondatu dire. Gure etxeko *kisulabea*.
- KIRELLA: (ank-ezur: cadera). *Kirella* autsie du. *Kirella* autsie dauket. *Kirella* ondatue.
- KITOA: (ijittoa: gitano). *Kito* aunitz gure herrian. Hau *kitoteia!* *Kitoak* pileka.
- KIXKELURRINE: (kixkal usaia: olor a quemado). Hemen bada *kixkelurrine*. Zer erre da hemen! Hau *Kixkelurrine!*
- KIXKELIE: (kixkalia: quemado). *Kixkeli* zaiku ogie. Arront *kixkelie* dago.
- KIXKUR, KIZKUR, KIXKURRE: (ille kizkur: rizado). Ile *kizkurre* eta beltz beltza. *Kixkur* eta polite.
- KOKINE: (jenio txarrekoa: de mal genio). Zein *kokine* den andre hori. *Kokine* eta gaixtua.
- KOLOKA: (ollo-loka, kolka: clueca). Baitugu etxean lau *ollo-koloka*.
- KOLOKA: (mugitzen dena: movedizo). Zein *koloka* dagon katadera hau. *Koloka* eta autsie.
- KOMEKATU: (Jaunartu: comulgar). Gaur denak *komekatzera*. *Komekatu* zara? *Komekatu* behar dugu.
- KOLATU: (kolatu: ponerse tísicas las ovejas). Gure ardiek *kolatu* dire. Gehienak *kolatuek*.
- KOKATU: (jarri: posarse). Yendea ezin *kokatuz*. *Kokatu* dire, bazen lekue.
- KOKALUX: (kokalux: toserina). Gure haurre *kokaluxekin* daukegu. *Kokalux* horrek lanak matentu. *Kokalux* horrek lanak ematen ditu.
- KOJOINA, KOJOÑA, KOFOIN: (kofoin, erlauntza: colmena). *Kofoin* berrie dugu. *Kofoinak* kalerien dauzkegu.
- KOLLA, KOLLATU: (kolla: agua que empieza a helarse). Ur hunek badu *kolla*. Putzu hau *kollatue*.
- KONTIN: (eutsi: contener). *Kontin* hemendik. *Kontin* zazu ongi.
- KOROPILO: (korapillo: nudo). *Koropilo* hau ez dut laxatzen ahal. *Koropiloa* laxatu dut.

- KORTXELA (KERTXOLA): (bildotstegi: corral para las ovejas). *Kortxelan* bildu ditugu ardiak. Kortxela eta kertxola.
- KORROKA: (aizea agotik: erupto ruidoso). Etzazule holako korrokik in. Zu beti *korrok* eta puzker.
- KOSKO: (arto-kosko: caña del maíz). Arto *koskoak* bildu eta erre. Arto *kosko* hok zein lodiek diren.
- KUNKURRE: (txuntxur: giboso). Gizon hau arras *kunkurre* da. Zu ere *kunkurtzen* ai zara.
- KURRUNKE: (zurrunka: roncar). Gure gizonak *zurrunke* haundiek itentu. Beti *kurrunkeka*. Gure gizonak zurrunka haundiak egiten ditu.
- KURRINKE: (kurrinka: gruñido del cerdo). Zerri hoiak beti *kurrinkeka*. Zer *kurrinkek* iten tuzten. Zer kurrinkak egiten dituzten.
- KUTERMA (GUTERMA): (aserre: riñendo y discutiendo). Zu beti *kuterman*. Andre kokine beti *kuterma* eta aserre.
- KUXETA, KUTXETA: (kutxare: cuchara). Zilerrezko *kutxetakin* yan ginuen. *Kuxeta* onak.
- KUKUSU: (arkakuso: pulga). Gure etxean badire hainbertze *kukusu*. *Kukusu* gaixtuak.
- KULLUA, KULLO: (lilai, kullo: rueca). Dantzarien botilleroak bonetan daramana. *Kullua* aspaldiko gauza. Gure dantzariak honetan *kullua*.
- KUTSETU, KUTSEKORRA: (kutsua hartu, kutsatu: contagiar, contagioso). *Kutsetu* zara. Gaitz hau *kutsekorra* da.
- KULUNKA: (mugitzen dena: que se columpia o que se mueve). *Arrikulunka*, mugitzen den arri haundia Baztanen dago.
- KUKULINE: (oilar kukula: cresta del gallo). Gure ollarrak *kukuline* polite du. *Kukulin* gorrie.
- KUXINE: (sahardea bezalakoa: especie de horcón). *Kuxine* kisolabean ibili ginuen. *Kuxinekin* lan ederra eginik.
- KUKULUE (GALDURRUE): (gallur: cresta del maíz). *Kukulue* bildu behar dugu. Goitixko dago *kukulue*.
- KUXTETU: (ilea apaindu: arreglar el pelo). Ilea *kuxtetu*. Zato illa *kuxtetzera*. (Almandoz).
- KATAOTA: (il-oe: camilla o especie de ataúd). *Kataotan* ekarri ginuen. Bordetako defuntuak *kataotan* ekartzen dituzte.
- KARANTZA: (aurpegiaren itxura: fisonomía, aspecto). *Karantzatik* zautu dut, aitain *karantza* bera. *Karantzatik* ezagutu dut, aitaren *karantza* bera.
- KETAN: (gauzak garraian: acarreo de cosas). Gu beti *ketan*. *Ketan* ari dire. *Ketan* lan ederra egin ginuen.
- KULUXKE, KULUXKA: (kuluxka, lo-kuluxka: cabezada (de sueño)). *Kuluxke* bat in ta segi aitzinet. Bazkalondoan *lo-kuluxka*.
- KAPUSIA: (soñekoa, ardi ileakin eгина: prenda hecha con lana de oveja). Gure amatxik *kapusiak* egiten zituen. *Kapusia* Sunbillan hartua.
- KORDOTXA: (buruko, ardi ileakin eгина: prenda de lana para la cabeza). Amatxik *kordotxak* ere egiten zituen. *Kordotxa* Sunbillan hartua.
- KAKOTXA, MAKOTXA: (kakoa: terrazas de palo para desgranar castañas). *Kakotxakin* ederki egiten dugu morkotsen biltzea.
- KETATUE: (negarti: llorón). Zein *ketatue* den haur hau. Niger-untzi ta *ketatue*.
- KASKOSOIL: (burusoil: calvo). Gazte nintzelarik ile ederra, zahartu ta ondoan *kaskosoil*.

- KADARTZUE: (kadartsu, kazarzo: hiladillo, galón de tela). *Kadartzue* hemen duzu. Tori *kadartzue*.
- KASKEZUR: (kaska-ezurra, buru-ezurra: hueso de la cabeza). Erori eta *kaskezurre* autsi. *Kaskezurre*ño bete naiz.
- KEDARRA, KEDAR: (kelarra, kelar: hollín). *Kedarrakin* zikindu nintzen. *Kedarra* zikine da.
- KRISKETA, KLISKETA: (krisketa: pestillo). Ate horrek *krisketa* berrie du. *Kriske*ta hau eztago ongi.
- KARTOL, KARTOLA: (gasnak egiteko erabiltzen den zurezko tresna). (Tabla que se usa para prensar los quesos). Gasnak ongi egiteko *kartol* ona behar da. *Kartola* bagozkoa.
- KAKOL, KAKOLA: (kakolak abre gañeko bastan paratzen diren egur makurrak izaten dira egurrak eramateko). (Ganchos de madera que llevan las acémilas para llevar carga). Kakolak paratu ditugu eta egurrez bete.
- KAKOLDUE: (kakola hitza erabiltzen da aunitz gisetara). (La palabra kakola también se emplea para cosas torcidas). Nola kakoldu den gure gizona, arront kakoldue dago. Hoiek zango kakolak!
- KASKA, KASKETAKO: (kaska, kasketako: golpe, golpetazo). Man diot *kaska* bat erlejuer. Anbateko *kasketakoa* hartu du.
- KALAKA: (elezu, ixiltzen ez dena: parlanchín, hablador). Hau gizon *kalaka!* aspergarrie da, zein kalaka den gizona.
- KABILLE: (kabile: clavija del timón del carro). Kabile atzaten bada lardaia austen da.
- KOLLA: (ongi ormatua: gran helada). Kolla haundie, putzu hau ormatu da. (Almandoz-en hartua).
- KORDOTXA: (Aizkora kiderraren punta makurre: la punta del mango del hacha). Kordotxa ongi ine. Aizkoraren kiderrak kordotxa behar du.

## —L—

- LABATZA, LAGATZA: (sukaldeko burdina: Llar, fogón). Pazine *labatzatik* dilinden.
- LAKET, LAKETU: (laketu: hallarse, estar a gusto). *Laketu* duzu hemen? *Laket* dut hemen egotea.
- LAKA: (errotariaren saria: pago de la molienda). Errotazañak *laka* kentzen du. *Laka* du bere saria.
- LANBRO: (euri-lauso: borroso). Zein *lanbro* dagon. Kristelak *lanbrotu* dire.
- LANABES, LANABESA: (laneko tresna: herramienta de trabajo). *Lanabesak* hartu eta banoaie lanera. *Lanabes* onak ditut.
- LANKARRA: (euri xehea: llovizna). Xirimiri. *Uri-lankarra* ari du. Goiti *lankarra* eta hemen ateri.
- LANTZURDE: (ezetasuna, mukutse: humedad). Mendi zoko hoietan bazen *lantzurde* haundie. Mendi kaskoetan gehiago.
- LAPASTU: (esnea galtzen delarik: cortarse la leche). Esne hau nola *lapastu* zaikun.
- LAKAÑE: (ausarta jenio bizia beti aserre: mal genio, hurraño). Hau andre *lakañe*, beti aserre. Zein *lakañe* den!
- LAPATINE, LAPATIN: (belar gaixto bat: una mala hierba). Gure landa, dena *lapatinez* beten dago.
- LARDERIE: (lardería: intimidación). Haur hoiek *larderie* pixka bat behar lukete. *Larderie* sartu.



LARDAIA: (gurdiak daukana: una pieza del carro) (timón del carro). Orgari *lar daia* autsi zaio.

LARRAÑA: (larraña: era). *Larraña* garbitu behar dugu. *Larrain-karrike* Arizkunen.

LARRAPUTIKE, LARRAPUTITE: (larrapote: saltamontes, langosta). Gure belaia *larraputikez* betea. *Larraputite* aunitz.

LARRASKA: (arbolak eta sasia: cerrado de árboles y zarzas). Gure *larraskan* sube haundi bat ikusi dut. *Larraska* zikine.

LARRAZKENA: (Urri-Azaroa: otoño). *Larrazkena* dugu sasoñik hoberena. *Larrazken* ederra dugu.

LARRUTU: (larrutu: despellejar). Erori ta belaune *larrutu*. Besoa ere *larrutue* dauket.

LASTAIRE: (lasto kamantza: lecho de paja). *Lastaire* hortan etzan zaite. *Lastaire* hau idor dago. *Lastaire* arto xuritondoakin egiten zen koltxoari ere erraten zaio.

LASTEBIDE: (bide-txigor, labur-bide: atajo). *Lasterbide* hortatik ixtanpatez han gara. *Lasterbide* ona.

LAUSOA: (izitzen dena edo zain dardara: nervioso). Gure behorra *lausoa* da. Arront *lausoa*.

LAUSOA, LAUSOAK: (mendi zokoetan elurra pillatua: ventisqueros). Mendi zoko hoietan *elur-lausoak* badire. *Lauso* haundiak.

LAUETANOGEI: (larogei: ochenta). *Lauetanogei* urtetan hil zen. *Lauetanogei* egun goatzean.

LAXO, LAZO: (lasai: flojo, suelto). Hau *laxo* dago. Aski *lazo*. *Laxo* utzi dute.

LAXATU: (lasaitu: aflojar, soltar). *Laxatu* koropiloa. Soka *laxatu* zitzaion. *Laxa* zazu ongi.

LAZOTASUNE: (nagitasuna: negligencia). *Lazotasunek* galtzen zaitu. *Lazotasune* txarra da.

LEGORRA: (aterbe: albergue). Pilota plazai man diogu *legorra*. Orai badugu *legorra*.

LENGUSINE: (lengusua (andrea): prima). *Lengusine* torri zaiku. *Lengusinekin* ezkondu zen.

LEKUTU: (alde-egin: ausentarse). *Lekutu* dire denak. Yendea *lekutu* da. *Lekutu* zaitte hemendik.

LETAINE, LITEÑA: (letagiña: colmillo). *Letaine* autsi zait. *Liteña* luzea eta zorrota.

LEKUKO: (tokiko: testigo). Zu zara *lekuko*. Behar dugu *lekuko* bat. *Lekuko* bat behar.

LEPAZAKI: (lepo lodia: cuello gordo). Anbateko *lepazakie* du. Horren *lepazakie!*

LERA: (lera: rastra, trineo). Iretzea *leran* kartzen dugu. *Lera* berrie dugu.

LERAFERRA: (leraperra: especie de eski para la rastra). *Leraferrak* Arlako errekan iten tugu. *Leraferra* onak. *Leraferrak* Arlako errekan egiten ditugu.

LERTZUE: (zolda, zikinkeria: mugre, porqueria pegada). Untzi hok badute *lertzue*. *Lertzue* in zaio.

LERRO: (errenkada: hilera). Yarri zaitetze *lerroan*. *Lerro* luzea dugu hau.

LELOKERI, LELOKERIE: (ergelkeri: bobada). Zu beti *lelokeri* hoiekin. Hoi *lelokerie* duk. Hori *lelokerie* duk.

LERRINE, LEHER INE: (leher egina, arras nekatua: agotado). *Lerrine* nago. *Leher* inen. *Lerrinek* gaude.

LEGARRA: (legarra, are: arena). Ugelde bazter hoietan bada *legarra*. *Legar* ona.

- LEUNE, LEGUNE: (leguna: suave). Aurpei *leune* duzu. Zein *leun* mintzatzen zaren.
- LEZTA, LEZTENA: (orratz haundia: aguja muy grande). *Leztakin* yosi zuen. *Leztenakin* lan haundia egiten da.
- LEKU-MOSPELA, NOSPELA: (Toki hotza, zokoa eta eguzkirik sartzen ez dena: sitio sombrío). *Leku mospela* dugu hau. *Leku mospel* hoietan beti hotzak.
- LIKITSE: (lizun, zikin: puerco, inmundo). Gizon *likitse* beti maltzurkerien. *Likitse* eta gaixtua.
- LINGE: (loi-putzu, zingira: terreno pantanoso). Kasu *linge* hortan sartu gabe. *Linge* hortan sartu nintzen.
- LITENĀA (LETAINE): (letagiña: colmillo). Otsoain *liteñak* zorrotzak dire. Basurdeain *liteñak* ere.
- LIXU, LIXUE: (lixuba, zurigarbi: colada de ropa). *Lixue* in behar dugu. *Lixue* astero iten dugu.
- LIZTOR, LIZTORRA: (erlakiztain: avispa). Kasu *liztor* horrekin. *Liztorren* atsikie txarra da.
- LOGI, LOGIE: (loi, loa: barro, fango, lodo). *Logi* haundiek bide bazterretan. Zapatak *logiz* beteak.
- LOKARTU: (loak hartu: dormirse). Gure haurre *lokartu* de. *Lokartu* nintzen.
- LOGALE: (logura: ganas de dormir). *Logaleak* niok. Gau-pasan ibilia eta gaur *logale*. *Logaletue*.
- LOMOKER: (gaizki esnatua: mal despierto). Gure haurre *lomoker* dago. *Lomoker* zagona iritzarri zaiku.
- LOARIN: (aisa esnatzen dena: que se despierta fácilmente). Gure haurrek *Loarine* du. *Loarin* aise iritzartzen dena.
- LOPISU: (nekez esnatzen dena: sueño pesado). *Lopisu* batek hartu eta gau guzian iritzarri gabe.
- LO-KULUXKA: (lo-kuluxka: dar cabezadas) de sueño. *Lo-kuluxka* bat eginik arras arindu nintzen.
- LOTPIDE: (lotzeko bidea: agarradero, recurso). Badugu *lotpide* ederra. *Lotpide* ona denendako.
- LORE-UNTZI: (lore-ontzi: florero). *Lore-untzi* hortan lore politenak.
- LUME: (luma: pluma). Olo hoiek *lume* gorriak dituzte. *Lume* gorri.
- LUZERNA: (luzerna: alfalfa). Gure landan *luzerna* ederra dugu. *Luzerna* ona.
- LUR-IKERA: (lur-ikara: temblor de tierra). Bartatsean anbateko *lur-ikera* izan dugu.
- LUGERRIE: (luberria, lur-berri: roturación). Hogei gizalurreko *lugerrie*. Lugerri ederra ehun gizelur.
- LINBRESA: (minbresa: milindre). Zu arras *linbresa* zara. *Linbresa* eta *Minbresa*.
- LIMITI: (gozo-zale: laminero). Gure artean *limiti* aunitz badire.
- LIMITIKERI, LIMINKERIE: (gozokeria: lamineria). *Liminkeri* hoiek ez dire arras onak.
- LUKANA: (lukana: ventanilla del tejado). *Lukanatik* atratzen gara tellature. *Lukana* ttalla da.
- LAUXINGE: (Agur beroak eta maitagarriak. Saludos muy efusivos). Zu beti *lauxingeka*. *Lauxinge* beroak.
- LORTXINGE: (Lortxinge: claros del sol entre nubes). Ziar aizetik atsaldetan *lortxingetzen* du.
- LLAGURRE: (laburra: corto). Beso *llagurrek* ditu.

## M

- MAIBURU: (maiburu: cabecera de la mesa). Yarri zaita *maiburuen*. *Maiburue* maite dut.
- MAINGU: (erren: cojo). Gizon hori *maingue* da. *Maingu* nago.
- MAINGUKE: (erren egin: cojeando). *Mainguke* etorri nintzen. *Mainguke* gan zen.
- MAINGUTU: (erren gelditu: quedarse cojo). *Maingutu* zaiku eta ezin ibili. Zahartu eta *maingutu*.
- MAINGUERIE: (ankamin: glosopeda). Gure beiak *maingueriekin*. *Mainguerie* kutsekorra da.
- MAINKERRA, MAINGERRA: (besamotz: manco). *Mainkerra* da. *Mainker* hori pilotari ona duk.
- MAI, MAIKETU, MAILKETU: (belar lerroa: hilera de hierba). Belar *mai* hau makur dago. *Maiketu* ongi.
- MAINDIRE: (oe izara: sábana de la cama). *Maindire* onak ditugu. *Maindire* berriak.
- MAINUNTZIE: (negarti: llorón). Zein *mainuntzie* den zuen haurre.
- MAIPE, MAIPETIK XIXTU: (maipe, maipetik txistu jan gabe: silbando debajo de la mesa sin comer). Sar zaita *maipean*. *Maipetik xixtu* yan gabe.
- MAI-OHIAL: (mai-ohial: mantel). Igandetan *mai-ohial* berriakin bazkaltzen dugu.
- MAIOLATU: (haurra zapiekin inguratu: envolver en pañales). *Maiolatu* ongi haurre. Xatar garbiekin *maiolatu*.
- MAIZ, MAIZKI: (sarritan: frecuentemente). Amatxin etxera *maiz* gaten gara. Bolai huntan *maizki*.
- MAKOTE, MAKOTEA: (nakazarien lanabesa: herramienta de trabajo para labranza). *Makoteakin* aitzen gara. *Makote* berrie erosi dugu.
- MAKUR, MAKURTU: (oker, okertu: torcido, torcerse) kontratiempo, ezbeharra. Marra hori *makur* dago. *Makurtu* dugu. Etxean badugu *makurre*.
- MAKURKE: (okerka ibili: andar oblicuamente, torcidamente). Etzaitela ibili *makurke*. Zu beti *Makurke*.
- MAKURBIDE: (okerbide: ocasión de hacer mal). *Makurbide* hortan sartu gabe bakean egon gaitezen.
- MAKURKERI: (okerkeri: engaño, perversidad). *Makurkeri* hoiek eztut batre maite. *Makurkeri* hoiek ez ditut batere maite.
- MALATZA, MALATSA: (gasna egiteko tresna: batidor). *Malatza* ardi-bordan utzie dut.
- MALTZU, MALTZO, MALTZATU: (garo mukuru: montón de helecho). Iretze *maltzuek* hemen. *Maltzatu* ongi.
- MALASKIE: (gasna egiteko tresna bat: objeto para hacer quesos). Kartzazu *malaskie*. *Malaskie* behar dut.
- MALTERTZIO: (kaltea, galtze haundia: destrozos, pérdidas). Uberroak *maltertzio* haundiek in tu. *Maltertzio* izigerriek.
- MAMUSTI: (betillun: antipático, serio). Zein *mamusti* den gizon hori. *Mamusti* ergela.
- MAMURRU: (zomorro: insecto, bicho). Hemen badire hainbertze *mamurru*. *Mamurru*ek pileka.
- MALKAR: (aldapatsu: terreno escabroso). Leku *malkarra* gure borda aldea. *Malkar* eta aski zakar.
- MALLUKE: (mallua, mailu: martillo). *Mallukekin* itzetu. *Malluke* berrie erosi dugu.
- MANDULI: (mando uli: mosca de mulo). *Manduliek* pileka hemen. Abre hoiek *manduliz* beteak.

- MANERREX: (aisa ematen duena: generoso). Amatxi bezala ama ere *manerrex*. *Manerrex* eta bihotz ona.
- MANTSO: (berandu: despacio, tarde). Zu beti *mantso*. Zein *mantso* torri zaten (etorri zareten).
- MANU-GAIXTO: (gaizki ezia, biurria: desobediente, mal acostumbrado). *Manu gaixtokoa* zara. *Manu gaixto* eta alferra.
- MANATU: (agindu: ordenar, mandar). Nork *manatu* dio? *Manatu* diote eta egin beharko.
- MAKETSА: (gauza makurra, persona ere zahartu eta makurtua: torcido). Ortz *maketsak* dituzu. Hau gizon *maketsa!* *Makestu* zaiku.
- MAMITU: (mamitu: engordar el fruto). Artoak ari dire *mamitzen*. Ederki *mamitu* dire.
- MARMURIEN: (marmario: refunfuñando). Zer ai zara hor beti *marmurien*. *Marmurien* eta zernai erranka.
- MARAURIE, MAURIE: (marrubia: fresa). Gure baratzeko *marauriek* onak dire. Arizkunen *mauriek*.
- MARI-MUTIKO: (mutilen antzeko neska: chica hombruna). Gure neskatiko hau arras *mari-mutikoa* da. Arront *marimutiko*.
- MARRAKUKU: (talo ta gasna guria: queso con torta de maiz (talo)). Amatik *marrakuku* onak iten tu (egiten ditu) *Marrakuku* onak.
- MARRANTA, MARRANTATUE: (karranka: ronquera, ronco). *Marrantatue* nago. Arront *marranta*. *Marrantatue*.
- MARTOTXA: (masusta: zarzamora). *Martotxak* gustetzen zaizkit. Sasi hortan badire *martotxak*.
- MARRAKA: (marraka: balido). Ardi *marraka* franko gure ardi-bordan.
- MARRUSKETU: (marruskatu: cepillar la madera). *Marrusketu* ongi sorallue. Ongi *marrusketue* dago.
- MARRUSKETA: (marrusketa: cepillo). Zurgin horrek *marrusketa* ona dauke. *Marrusketa* berrie.
- MARRUME: (marruma: bramido). Haur hau beti *marrumeka*. *Marrumaundi*.
- MARRO: (ahari: carnero). *Marro* ederra dugu. *Marro* hau ez dugu aise salduko.
- MATAXA: (mataza: madeja). Har zazu *mataxa*. *Mataxa* nahasi da.
- MATELEKO: (belarrondoko: sopapo). Main detzut *mateleko* bat. Anbateko *mateleko* haundie. Emango dizut *mateleko* bat.
- MATELEZURRE: (masail-ezur: mandibula). *Matelezurre* hautsi zioten. *Matelezu-rre* seko koloreak berde.
- MATSOKO: (masmordo: racimo de uva). *Matsoko* ederra yan nuen. Tori *matsoko* hau.
- MATSONDO: (matsondo: cepa). *Matsondo* ederrak Irulegin. *Matsondo* hoiek ongi zaindu.
- MATSBITZE: (matsbiltze: vendimia). Aste huntan Erribera aldean *matsbiltze*. *Matsbiltzea* ederra da.
- MATXAKARANA: (basaran: endrino, sirve para hacer pacharán). Sasi hori *matxakaranaz* betea dago.
- MAUKAS, MAUKUTSIK: (makutsik: en mangas de camisa). *Maukas* gan ginen. Hotz hunekin *maukas* as-asa.
- MAXUKREA: (masusta: mora, zarzamora). Zein goxoak diren *maxukreak*. Alman-dozen *martotxak*.
- MAZADURE: (mailatu, zapaldua: abolladura). Auto berriari anbateko *mazadure* egin diote. *Mazadure* haundie.

- MAZATU: (mailatu: abollar). Hau *mazatue* dago. Pitxerra *mazatu* dute.
- MAZELA: (masail, matela: carrillo). *Mazela* aunpetu zaio. A zer *purdi-mazelak!*
- MAZTEKI, EMAZTEKI: (andrea: mujer). *Mazteki* ederra gure hauzoko Luixe. A zer *maztekie!*
- MEARRA, MEHARRA: (estua, estrecho). Zein *mearra* den gizon hori. Bide *mearra*.
- MEARTU, MEHARTU: (meartu: estrechar). *Meartu* dute bidea. *Meartu* eta ondatu ere.
- MELEKA-MELEKA: (gogorik gabe jan: comer sin ganas). Zu beti *meleka meleka* ezin yanez.
- MERLA HARRIE, MERLA ARRIE: (arri klasea: piedra especial de tierra calcárea). Mendi zoko hortan badugu *merla arrie*.
- MENBRENA: (aula, indar gabea: delgado, débil). Mutil *menbrena*. *Menbrena* eta deusetako balio eztuena.
- MENDA BELARRA: (belar klasea: una clase de hierba). Gure belai bazterretan *menda belar* franko.
- MENDEKU: (apentza: venganza). *Mendekuz* hil zuen gizon bat. *Mendekue* gauza txarra.
- MENDRE, MENDRATU: (mendre, mendratu: débil, debilitar). *Mendratu* zaizkigu indarrak.
- MEREZIMENDU: (merezitu: mérito). Lan ederra egin duzu, baduzu *merezimendu*.
- METAZIRI: (metaziri: palo que sujeta la meta). *Metaziri* ederrak egin ditugu. *Metaziri* horiek irauten dute.
- MEZU, MEZUE, MEZUA: (mezu: aviso, mensaje). *Mezue* hartu dugu. *Mezu* ona delaik nonbaitor.
- MEZULARI: (mezulari: mensajero). *Mezularie* torri zaiku. Berri onak karri tu. *Mezulari* ona. *Mezularia* etorri zaigu. Berri onak ekarri ditu.
- MILIKATU, MILIKETU: (milizkatu: lamer). Beiak *milikatzen* du bere umea. Yin-koak in ta *miliketzekoa*.
- MIGE: (bei gaztea: vaca joven). *Mige* gorrie saldu dugu. Lau bei ta bi *mige* etxean.
- MINBERATUE: (minberatua: dolorido). Besoa arront *minberatue* dauket. Lepoa ere *minberatue*.
- MINBRESA (LINBRESA): (minbresa: milindre). Zein *minbresak* zaten. Arront *minbresa* zara. Zein *minbresak* zaretan.
- MINDEITZE: (mindegi, mintegi: vivero). *Mindeitze* hortan haritz ederrak. *Mindeitze* ona dugu.
- MIREKULLU: (miraria: milagro). Zer *mirekullu* da hau. Hau *mirekullu* haundie dugu.
- MINTZO-DEBEKUE: (hitz-totel: tartamudez). *Mintzo-debeku* haundie du. *Mintzo-debekue* txarra da.
- MINTZAIRA: (hizkuntza: lenguaje, modo de hablar). Gure *mintzaira* eskuara da. Euskara gure *mintzaira*.
- MINSUR: (min sor, min gor: dolor sordo). Badut holako *minsur* bat hemen. *Minsur* hau etzait gaten. *Minsur* hau etzait joaten.
- MIXTO, MIXTOA: (poxpoloa: cerilla). *Mixto* bat piztu nuen. *Mixtoak* non tuzu?
- MIN-BIZIE: (min-bizia: cáncer). *Minbiziekin* dago. *Minbiziek* ez du sendabiderik.
- MIAURIE: (miaurri, miauldi: grano de castaña). *Miauri* hoiek biltzue. *Miauriek* hunet. *Miauriek* honara.
- MAUKERDI: (maukerdi: mangoito). *Maukerdi* politek tuzu. *Maukerdi* berriek.

- MOKOKA, MOKOKARI: (aserre: riñendo, camorrista). Zu beti *mokoka*. Zein *mokokarie* den gure hauzoko Koxpa.
- MOKORRA: (jenio txerrekoa: mal genio). Hori andre *mokorra!* *Mokorra* ta *mokorra*.
- MOKOMEAR, MOKOMEHAR: (aurpegi mehea edo flakoa: cara flaca). Hau neska *mokomearra!* *Mokomear* eta susie. *Mokomear* eta itsusia.
- MORDOXKA: (mordoxka: grupo, ramillete, conjunto pequeño). Hemen baduzu *mordoxka* bat. *Mordoxka* bat ekarri dut.
- MORKOTSA: (lokots, morkots: erizo de la castaña). *Morkotsak* ziztetzen du. *Morkots* aunitz eta hutsek.
- MOSPELA: (itzala, eguzkirik gabeko lekua: sitio sombrío). Hau leku *mospela* da. Zoko *mospel* hortan hotz.
- MOSPEL: (ospel, azgordin: sabañón). Neguen *mospelak* atakatzen naute. *Mospel* susiek izeten tut *Mospel* itsusiak izaten ditut.
- MOTZONDO: (mozkin, errondo: tocón). *Motzondo* hoiek kendu trabatik. *Motzondo* haundiek dire.
- MOZKOR-ARRAIL: (Hor ikusi dut gizon bat mozkor-arraildue. Mozkor-arrail). (zearo mozkortuta: completamente borracho).
- MUGARRIZTETU: (mugarriak ezarri: poner límites o mugas). *Mugarritzetu* tugu hauzoko landak. Ongi *mugarritzetuek*.
- MUKU, MUKUTU: (zerue goibeldu: nublado, nublarse). Gaur *muku* dugu. *Mukutu* du. Gaur iruzkik gabe *muku*.
- MUITE-BELARRA: (behar kalse bat: una clase de hierba). Gure baratzea *muitebelarrez* betea.
- MUKURU: (pilla, moltzo: montón). *Mukuru* ederra egin dugu. Anbateko *mukurue*.
- MUKURUTU: (pilla egin: hacer montón). Belarra *mukurutu* behar dugu. Ongi *mukurutu*.
- MUKUE: (txoriak iziazteko mamua: espanta-pájaros). Landan patuko dugu *Mukue* xoriek iziazteko. Landan jarriko dugu *mukue* txoriak iziazteko.
- MUKUTSE: (lantzurde, izotza: escarcha). Gaur mendi zoko hoietan bazen *mukutse*. Mendi kaskoetan ere bai.
- MULTZU: (mordo, pilla: grupo). *Multzu* ederra bildu dugu. Denak *multzuen* torri gara.
- MULTSUE: (ohial edo trapu bat, zerbait garbitzeko: trapo para limpiar). *Multsuekin* garbi zazu. Hau garbitzeko *multsue* behar dugu.
- MURRITZ, MURRIZTU: (murriz, murriztu: corto, también pelo rapado). Gona *murrizak*. *Kali-murriz*. *Ilea murriztu*.
- MUTILE: (morroi: mozo, criado). Etxean behar dugu *mutile*. Herriko *mutile*.
- MUTURKETU: (oztopatu, beaztopatu: tropezar). *Muturketu* nintzen ta lurrera erori. Kasu *muturketu* gabe.
- MUTURREKO: (muturreko: bozal de bestia). Zakur horrek behar luke *muturrekoa*. *Muturreko* ona.
- MUSU: (apa, pa, laztan: beso) (aurpegia ere bai: también cara). *Musu* bat eman nion. Zein *musugorri* zaren.
- MUXKIN, MUXKINE: (negarti: llorón). *Muxkin* dago gure hurre. Haur *muxkine*.
- MUXTURRE: (ogiaeren muturra: la punta del pan). *Muxturre* neretako. Zein goxoa den *muxturre*.
- MIZPIRE: (mizpira: nispero) nispola, mizpola. Aurten baitugu hainbertze *mizpire*. *Mizpire* goxoa da.

- MARAGURIE: (marrubia: fresa). Baztanen hiru gisetara erabiltzen da: Maragurie. Maraurie. Maurie.
- MUSITU: (urdindu: enmohecer). Zinger-azpiek *musitu* zaizkigu. Urdindu zaizkigu. *Musitu*.
- MAUKE: (mauka: manga). Ator hunek *mauke* llagurrek ditu. Bertze hunek *mauke* luzeak.
- MEZPERA: (bezpera: vispera). Santio *mezporean* denak kontent. Lenago *mezperezara* gaten ginen.
- MINKERRA: (mikatz: amargo, avinagrado). Ardo *minkerra* zein txarra den.
- MOLDEGABEA: (moldegabea: torpe). Zein *moldegabea* zaren. Gizon *moldegabe* hunek eztu deus inen.
- MOLDEGABEKERIE: (moldegabekeria: torpeza). Zer ari zara holako *moldegabekerien*.
- MILIN, MILINE: (minbresa: milindre). Hau yende *milinel* Zein *milinek* zaten (zarenten).
- MANTELINE: (manteliña: mantilla). Lenago, andreak elizen *mantelinekin*. Amatzik *mantelin* polite du.
- MAXADORIA: (imutu: embudo). Lan hau *maxadoriakin* inen dugu. *Maxadoria* hemen duzu.
- MORROTU: (morrotu: enfermarse el nabo y las berzas por el calor). Azak *norrotu* zaizkigu. Arbiek ere *norrotu*.
- MAIRE: (Maire: mesa o artesa para amasar el pan). Zurginek *maire* berrie in daku. Zurginak *maire* berria egin digu.
- MAUKAS, MAUNKUTSIK: (maukutsik: en mangas de camisa). Denbora ederrakin denak *maunkas*. Zu *maunkutsik* ibiltzen zara.
- MURTZURINKE: (Negarti, muxkin, beti erdi nigarrez: lloriquear). Haur hau beti *murtzurinke* dago.
- MATOÑA: (gasna, moldian prensatu gabe: queso sin terminar de hacer). Moldian prensatu gabe dagon gasna, *Matoña* deitzen da.

## -N-

- NABALA: (labana: navaja). *Nabal* zorrotza. *Nabala* galdu dut. *Nabala* beti zorrotz.
- NABAIKARIE: (aserratzen denean nabalakin jokatzten dena: navajero). Gizon gaixtua eta *nabalkarie*. Kasu *nabalkariekin*.
- NABARMEN, NABARMENDU: (nabarmen, nabarmendu: sobresaliente, raro. Escandalizar). Zein *nabarmen* egon zaren. Etzaitela hola *nabarmendu*.
- NABAR: (nabar: pardo). Bei *nabarra* saldu behar dugu. Bei *nabar* hori ederra da.
- NABAITU, NABARITU, NABARI: (ohartu, somatu: advertir). *Nabaitu* dut asots bat. Ezta deus *nabari*.
- NARDATZU: (nazka ematen duena: que da asco). Zein *nardatzue* zaren. *Nardatzu* zikine!
- NARDAGARRI: (nazkagarri: asqueroso). Gizon hori *nardagarrie* da. Yende *nardagarrie*.
- NARDA, NARDATU: (nazka: asco). *Nardatu* nintzen. *Narda* maten datazu.
- NASTALE: (naspillari, herri-nasle: revoltoso). Gazte hoiek zein *nastaleak* diren. Mutil *nastale* eta artoa.
- NAHASMENDU: (naspilla: embrollo, enredo). Gure herrian badugu *nahasmendu* franko.

- NASTURIE: (naspilla: embrollo, enredo). Gure herrian maiz *nasturie*. *Nasturie* eta aserreak.
- NASI, NASIE: (nastu: revuelto) revolver. *Nasi* ongi salda. Gure gizona *nasie* dago. eri eta *nasie*.
- NEKAZALGOA: (nekazaritza: labranza). Nere osaba *nekazalgoan* ari da. *Nekazalgoa* lan gogorra.
- NESKATIKO: (nexka-koxkor, neskatilla: niña). Baitugu etxean bi mutiko eta lau *neskatiko*. *Neskatiko* onak.
- NOIZPEINKE, NOIZPEINKA: (noizian bein: de vez en cuando). *Noizpeinke* gaten gara. *Noizpeinka* gan izan gara.
- NOIZBAITERE: (noizbait: por fin, alguna vez). *Noizbaitere* torri de. *Noizbaitere* akitu dugu.
- NOR-GEHIAGOKA: (zein-gehiagoka: quien puede más, competición). Aiko gara *nor-gehiagoka*. *Nor-gehiagoka* aizenak gara. Ariko gara *nor-gehiagoka*. *Nor-gehiagoka* ari izanak gara.
- NAIKERIE, NAHAIKERIE: (nahi izatea, naia, asmoa: deseo). Badut zerbait egiteko *naikerie*. *Naikerie* badugu.
- NEGAL: (igel: rana). Erreka hortan *negal* aunitz. *Negalak* pileka.
- NEGALA: (negal, erregosi: erupción de la cara, herpe). *Negala* gaitze txarra. *Negala* sendatzeko Harpeko Saindue.
- NEKETAN: (neketan, gaizki dabillega: a duras penas, dificultosamente). Gu beti *neketan*. *Neketan* gabilte. Denak *neketan*.
- NEKEZ: (nekez: fatigosamente). *Nekez* torko gara. Bestetan torko zate? Aurten *nekez*. *Nekez* etorriko gara. Festetan etorriko zarete? Aurten *nekez*.
- NESKATO: (neskame: sirvienta, criada). Nere ama Arotzanean egon zen *neskato*. *Neskatoa* behar dugu.
- NEKOS, NEKOSOA: (nekos, nekoso: difícil, fatigoso). Lan *nekoso* da hau. *Nekoso* eta gaixtoa.
- NERABE, NERABIA: (mirabe, serbitzari: sirvienta, criado). Etxebereko *nerabia* hemen dago. Zu beti hoién *nerabe*.
- NIGER, NIGERRA: (negar, negarra: llanto, lloro). Beti *nigerra* begietan. *Nigerrez* torri zen. Zenbat *niger*.
- NIGER-UNTZI: (negarti: llorón). Gure hurre *zein niger-untzie* den. *Niger-untzi* haundie.
- NOLABAITERE, NOLAPAITERE: (nolabait: de algún modo). *Nolapaitere* in inuen. *Nolapaitere* moldatu dugu.

—N—

ÑIÑIRIKOA: (begiaren ninia: niña del ojo). *Ñiñirikoan* arantza bat sartu zitzaienten. *Ñiñirikoa* ondatu.

—O—

- OALIA: (oalia, zerri jana: comida para el cerdo). Prestatu duzu *oalia* zerriendako? *Oalia* ongi egine.
- OHARKETA: (oharketa: observación). *Oharketa* bat eginez xuxenduko dugu gure afera.
- OHARKABE, OHARKABEAN: (oharkabe, oharkabe: descuido). Etsaia oharkabean etorriko da. *Oharkabe* gertatue.



- OBERENA, HOBERENA:** (onena: el mejor). Hau denetan *hoberena*. Kirol Taldea *Oberena*.  
**OBEKI, HOBEKI:** (obeto: mejor). Zu bizi zara ni baño *hobeki*. Amatxi *obeki* dago.  
**OIHANA:** (basoa: bosque). Iratiko *oihana* haundie da. *Oihan-gizonak* lanean ari dira.  
**ODOLGURI:** (ubeldura: cardenal). Besoa *odolguriz* betea dauket. *Odolguri* haundiek.  
**OKAKA:** (goragale, okaka: náusea, a punto de vomitar). *Okaka* hasi zen. Gizon nardatzu hori ikusita *okaka* hasi naiz.  
**OKO:** (masmordo: racimo de uva). *Mats-oko* bat yan dut. *Mats-oko* ederrak erosi ditugu.  
**OLIODURE:** (azken-igurtzi: extremaunción). *Oliodurek* man tioletze. Hil-urren dago *oliodurek* hartuta. *Oliodurak* eman ditioletze. Hil-zorian dago *oliodurak* hartu ditu.  
**OK, HOK, HOKEN, OKEN:** (hauek, hauen: estos). *Ok* dire nere adiskideak. *Oken* laguna naiz. *Hoken* etxea urrun.  
**OKERRA:** (begi-bakarra: tuerto). *Okerra* naiz. *Oker* hobe itsu baño.  
**OLLANDA:** (ollo gaztea: polla). Bi *ollanda* erosi behar ditugu. Bi *ollanda* eta ollas-ko bat.  
**OLLAKIE:** (ollo aragia: carne de gallina). Gaur *ollakie* bazkaltzeko. Gure etxean *ollakie* yaten da.  
**OLLOKERIE:** (ollokeria: cobardía). Hau *ollokerie* in dugune. Hau baño *ollokeri* haundiagokoik. Hau *ollokeria* egin duguna. Hau baño *ollokeri* haundiagokorik.  
**OLLO-KARAKA:** (karaka, karkara: cacareo de gallinas). *Olo-karaka* hunekin aspertu naiz. Hau *ollo-karaka*.  
**ONDORIO:** (ondorio: consecuencia). Mozkorkeriek *ondorio* txarra. Atzoko ibilal-diak *ondorio* haundie.  
**ONGARRIE, ONGARRITU:** (zimaurre, gorotz: estiércol, fiemo). Abre *ongarriek* badu indarra. *Ongarritu* behar dugu belaia.  
**ONBORRA:** (enborra: tronco de árbol viejo). *Onbor-sue* aragie erretzeko arront ona da. *Onborra* badugu.  
**ONBORTUE:** (gogortua ezin mugituz dabillena: persona de poca agilidad). Arras *onbortue* nago. Arront *onbortue*. Zahartu ta *onbortu*.  
**ONDARRA:** (azkena, sobratutakoa: residuo, también el último). Zu beti *ondarra*. Gaur dugu *ondar* egune. *Ondarrak* bildu.  
**ONDARREAN:** (azkenean: por último). *Ondarrean* gaizki egin dugu. *Ondarrean* zer gertatuko da.  
**ONDARREKO:** (azkeneko: final, último). *Ondarreko* partida irabazi. *Ondarreko* lan hori gaizki.  
**OMARTU:** (ohartu: notar). *Omartu* naiz bai. *Omartu* ginen ongi. *Omartu* eta ohartu.  
**OÑAZTURE (IÑEZTURE):** (tximista: relámpago o rayo que no cae a la tierra). *Oñaztureka* ai de. *Oñazture* haundiek. *Oñazturekin* izitu.  
**OÑAZKA:** (oin-errestu: pisada). Hemen gizon baten *oñazkak*. *Oñazka* hoiei yar-raiki.  
**OÑIK, OÑO, OINO, OÑIKEN:** (oraindik, oraindikan: todavía). *Oñik* ezta torri. *Oñiken* ez. *Oño* goiz da. *Oño* goiz de.  
**OÑOKOAN:** (oraindiano, orainarte: todavía). *Oñokoan* etzaiku deus gertatu. Bada zer bait? *Oñokoan* ez.

- ORAKUNDE: (ostegun gizen: jueves gordo). *Orakunde* egunean Baztango haurren besta. *Orakunde* eguna.
- ORAKATU: (loitu, liztatu: enlodar). *Kakakin orakatu* ginen. *Kakaz orakatu*. *Orakatu* zioten.
- ORAI, ORAIBEREAN: (orain: ahora). *Orai* ongi nago. *Orai berean* etorri da. *Orai* hemen dago.
- ORAIKO: (oraingo: de ahora). *Oraiko* gazteak besta maite. Hau *oraikoa* da.
- ORANTZA: (orantza: levadura). *Orantza* behar dugu ogia egiteko. *Orantza* hau ezta ona.
- ORDAINZKA: (ordainzka, ordañez eman: prestar dinero sin interés). *Ordainzka* eman nion. Adiskideei beti *ordainzka*.
- ORDOTSA: (ordotz: cerdo macho). Zerri *ordotsa* gizendu eta saldu: Baitugu bi *ordots*.
- ORGA: (gurdia: carro). *Orga* bidea ondatuo dago. Badugu *orga* berrie.
- ORGATTOA: (orgatxo, gurdiska: carretilla). *Orgattoakin* zenbat lan egiten duguñ. *Orgatto* polite dugu.
- ORE-MAIA: (ora-mai: amasadera). Gure *ore-maia bezalakoik* guti. Irindeian dugu *ore-maia*.
- ORMA, ORMATUE: (jela, jelatua: hielo, helado, congelado). Gaur *orma* in du. Dena *ormatue* dago. Neguen *orma* franko.
- ORMA-BELTZA: (Goibel dagolarik ormatzen badu: Helada con nublado). Gaur *orma-beltza* eta anbatekoa. *Orma-beltza* gaixtua da.
- ORTOTSA: (trumoia: trueno). Bartatsean anbateko *ortotsak*. *Ortots* haundiek.
- ORTOSKA, ORTOSTU: (trumoika: tronando, tronar). *Ortoske* ai du. *Ortostu* behar du. Gau guzien *ortoska*.
- ORIXKO. ORIXTE: (orixko, orixta: amarillo (diminutivo)). Koloreak *orixko*, etzaude ongi. Ator *orixte* erosi dut.
- OROITU: (oroitu: acordarse). *Oroitu* zaite. *Oroitu nintzen*. Enitzen batre *oroitu*.
- OROITZAPENA: (oroigarri: recuerdo). Egun hartako *oroitzapena* bihotzean dauket.
- ORTZADARRA: (Erromako zubia: arco iris). *Ortzadarra* zein polite den. *Ortzadarrak* dirdiretzen du.
- ORTZEGUNE: (osteguna: jueves). *Ortzegunean* besta dugu. Gaur *ortzegune*. *Ortzegun* Saindu.
- ORTZILERIA, ORTZIRALA: (ostirala: viernes). *Ortzilerian* torko gara. *Ortzileria* eta *ortzegune*.
- ORTOTSIK, ORTOTZIK, ORTOXIK: (oinutsik: descalzo). *Ortotzik* torri ginen. Legatera *ortotsik* gan nintzen.
- ORDOKI: (leku zelaia: llanura, sitio llano). *Ordoki* ederra etxea egiteko. *Ordoki* hortan eginen dugu.
- ORRAXA: (orraz, peine). Tori *orraxa* eta orrextatu zaite. Urrezko *orraxa*.
- ORREXTATU: (orraztu: peinar). *Orrextatu* zaite ongi. Neska hau zein ongi *orrextatzen* den.
- ORREXTAIRE: (orrazkera: peinado). *Orrextaire* polite duzu. Zure *orrextaire* fransa da.
- ORRAT, HORRAT: (horrera: ahi). Zazi *horrat*. *Horrat* gan zen. *Horrat* torri de. Zoaz horrera. Horrera joan zen. Horrera etorri da.
- ORRENBERTZE: (orrenbeste: una cantidad como esa, tanto). Anaiak sos aunitz du eta nik bertze *orrenbertze*.

- ORROKA: (orroka: mugido de bestias, mugiendo). Bi mendien artean bei bat *orroka*. *Orroka* haundiek.
- OSASUNEZ GABETUE: (osasunez gabetua: que no tiene salud). Gure aitetxi xaharra *osasunez gabetue* eta ezindue.
- OSIÑE, OSINE, OSIN: (putzu: pozo, remolino en el río). *Osiñen* sartu eta ito. Kasu *osiñekin* etzaitela hor sartu.
- OTAMENA: (goiz goizik belaian egiten den otordu ttipia: desayuno). Belaian egin ginuen *otamena*. *Otamen* goxoa.
- OTAN. HOTAN. HOKETAN: (hauetan: en éstos). Egun *hotan* gaizki nabile. Leku *hoketan* ezta gauza onik.
- OTATXA: (ote erre ondoko abarrak: tallo de argoma quemado). *Otatxa* zama ederra ekarri dugu. Badugu *otatxa* pileka.
- OTE. OTEA: (otea: argoma). Gure mendi hoiak *otez* beteak. *Otea* auserki, mendia zikin.
- OTSESKIE, OTSESKIRE, IKUSI: (otseskia: línea de los montes, perfil, silueta). Kontrabandistek karabinerua *otseskire* ikusi zuen.
- OZARRA: (tzarra: malo). Gizon hori ona delaik asertzen denean *ozarra* da. *Ozarra* bai.
- OZARTU: (asarretu, sutu: embravecerse). Gure erretora gaur predikuen *ozartu* da.
- OZKA, OXKA: (koska, pikotx: miesca). *Oxka* bat egin dut. *Ozkatu* behar dut. *Oxkaz* bete dago.
- OZPINE: (ozpin, arlatx: vinagre). *Ozpine* ez dut batre maite. Litxue olio ta ozpiñekin.
- OZPINDU, OZPINDUE: (ozpindua: avinagrado). Ardo hau *ozpindu* zaiku. Ardoa *ozpintzen* delaik tzarra da.
- OZENA, OXENA: (ozena: sonoro). Ezkil *ozena* gure erleju zaharrak. Zein *oxena* den.
- OZIE: (ozie: germen). Landako artoak *ozie* atra dute.
- OPORRA: (oporra: cuenco). Esnea-*oporran* hartu dut. Sotoko *oporra*.
- OLLOTUE: (uzkur, ollo-busti: acobardado o algo así). Gure gizona *ollotue* dago. Hemen denak *ollotuek*.
- OZKITU: (ozkitu: producirse dentera). Etzazule hola in, *ozkitzen* nau. *Ozkitu* eta izitu.
- OTASKA, OTAXKA: (otaska: mesa o tablón en que se maja argoma). *Otaska* ederra dugu ezta aise autsiko.
- ORRAXAXEA, ORRAXA-XEA: (orraxa-xea: peine menudo). *Orraxa xea*kin orrextatu nintzen. *Orraxa-xea* ez dut maite.
- OLLO ERROILEA: (ollo erroilea: gallina que pone huevos). *Olo* horrek arroltzea mokoan dauke. *Olo erroilea* ollo ona.
- OSTOBERATXA: (arto osto idorra: hoja de maíz seca). Gure astoak *ostoberatxa* maite du. *Ostoberatxa* ona da.
- OIHAN-GIZON: (Baso-gizon: trabajador del bosque). *Oihan-gizonak* neguan etxera etortzen dira.
- ODOLEZTATU: (odoleztatu: ensangrentar). Atorra *odoleztatue* dauke. Bazter guziak *odoleztatuek*.
- OLIOZTATUE, OLIOZTATU: (olioztatu: aceitar). Erlojue *olioztatu* dut. Maxinari hoiak *olioztatu*.
- OLLAR-DANTZA: (ollar-dantza (beste bat): danza del gallo (una fiesta). Orakunde egunean Erratzun *ollar-dantza*.

- OGI-YORRA: (gari-jorra: escarda del trigo). Gaur goizean *ogi-yorran* ari izanak gara.
- OLA-ATORRA: (ola-atorra: camión de oficiales de ferrería). Aspaldiko denboretan oletan *ola-atorra* erabiltzen zen.
- OL-AIZTUR: (ol-aiztur: cruce de tablones que se ponen a secar). Ol hoiekin *ol-aiztur* ederra egin dugu.
- OLKIA: (oltza: tarima). Etxean paratu dugu *olkia*. Haritz *olkia*. (Sunbillan hartua.)

## -P-

- PADERA: (danbolin: tamboril para asar castañas). Gaztañak *paderan* erreak goxoak dire. *Padera* ona dugu.
- PALASTA, PALASTATU: (palasta, palastatu: chapotear, caída del agua de una vasija). Haur hoiek urean *palastan*. Esne *palasta*. Ur *palasta*.
- PANPALINE: (txilintxa: campanilla). Xakur hoi *panpalinekin* dabile. *Panpaline* polite du.
- PAPOGORRI: (txori klasea: clase de pájaro). Harizti hortan *papogorri* aunitz. Xori polite *papogorrie*.
- PARATU, PATU: (ipini, ezarri, jarri: poner). *Paratu* ongi. *Patu* ongi. *Pazazu* ongi. Ongi *patu* dut.
- PANPARROTUE: (panparrotua: optimista). Bazkalondoan denak *panparrotuek*. Atzo *panparrotu* ginuen.
- PAPARTZA: (futs-gabeko, papartz: informal). Hau ezta gezurre ta *papartza* baizik. Hau gizon *papartza*.
- PARRASTA: (parrasta: cantidad). Uri *parrasta* ederra in zakun. Sos *parrasta* bat bota ginuen.
- PARTZUAR: (elkarte: socio, consorcio). Bi lagun hoiek *partzuar* ari dire. *Partzuar* biek.
- PARTZUARGO, PARTZUERGO: (elkartea: sociedad, participación). *Partzuergo* hortan sartua nago. *Partzuergoan* sartu nintzen.
- PATASKA, PATASKATU: (naspil, matasa: mezclanza). Anbateko *pataska* egin ginuen. Arront *pataskatue* utzi dugu.
- PATTARRA: (anisa: anis fuerte “mata ratas”). Atso horrek *pattarra* maite du. Goi-zetan *pattarra*.
- PAUSE, PAUSA: (geldi-aldia: descanso). Hau da gure *pausa-lekua*. Hemen *pause*, gero berriz kurri.
- PAUSATU, PAUSETU: (gelditu, geratu: descansar). Oihan hortan badire uso *pau-satuak*. *Pausetu* dire hor.
- PAUSO, PAUSU: (pasa-bide bat: escalones de piedra para paso). *Pausu* hortaik ibiltzen gara. *Pausu* hori gure etxekoa da.
- PAXA: (gerriko: faja). Pilotariet *paxa* gorriekin. Ni *paxa* urdinekin.
- PAZIN, PAZINE: (pertz: caldero). *Pazin* haundi batean egosi ginuen. Anbateko *pazine*.
- PELENDIA: (purtzil, zital: despreciable). Etzaitela neska *pelenda* horrekin ibili. Neska *pelenda* duk.
- PEREKA, PEREKATU: (laztan, laztandu: caricia, acariciar). Maite dut zure *pereka*. Maiteki *perekatu* zuen.
- PERTOLA: (arrantzan erabiltzen dena: butrino). Gu beti *pertolua*kin arrantzan. *Pertola* ona dugu.
- PERREXILE: (perrezil: perejil). *Perrexil* ederra gure baratzean. *Perrexile* ona da.

- PETATZU: (petatzu: remiendo). Galtzak ongi *patatzatuek*. Zenbat *petatzu!*
- PEZOIN: (pezoin: como vallado que sostiene un terreno). *Pezoin* hortan muturketu eta erori. *Pezoin*ez inguratue.
- PINTER, PINTERRAK: (txinpartak: chispas). *Su-pinterrak* sartu ziren etxean. *Pinter* hoiekin izitu.
- PINPIRRINDUE: (edana baina alai: un poco bebido y alegre). Atzo ederki *pinpirrindu* ginen. Gure gizona *pinpirrindue*.
- PIPER-OPIL: (piper-opil: un bizcocho especial). Gure amatxi *piper-opil* goxoak itentut. *Piper-opilek*. Gure amonak *piper-opil* goxoak egiten ditu.
- PIPER-EGIN: (piper-egin: hacer calva, faltar a la escuela). Gaur gure mutikoak *piper in du*. Eskolatik *piper*. Gaur gure mutikoak *piper* egin du.
- PIPIE: (pipia: polilla). Hau *pipiek* yana. Arront *pipietue* dago.
- PILE: (pilla: montón). Zu beti sos *piletzen*. Anbateko *pile*. Sosa *pileka*.
- PILOTA, PILLOTA: (pelota). *Pilotan* aiko gara. *Pillota* gogorra. *Pilotari* ona.
- PIKEROA: (zital: picaro). Zein *pikeroa* zaren. Yende *pikeroa* hemen.
- PIKETU: (ebaki, moztu: cortar). Gaur belar *piketzer*a. Belarra *piketu*. *Piketu* dugu.
- PIKORRA: (ale bihi: grano de legumbre). Olloei arto *pikorra* maten dabegu. Hemen banabar *pikor* bat. Olloei arto *pikorra* ematen diegu.
- PINPINE: (garbi eta apain: limpio y bien presentado). Zein *pinpine* dagon gure neskatikoa. *Pinpine* dago.
- PITERRA, PITARRA: (sagardo clasea: clase de sidra). Agerrean badute *piterra*. Gaztañak yan eta *piterra* edan. Gaztaña yan eta *pitarra* edan.
- PITTIKE: (auntzika pitika: cabrito). Badugu *pittike* bat etxean. Gaur ostatuan *pittike* yatea.
- PIRO: (ahate: pato). Gure hauzoan badire hainbertze *piro*. *Piro* aunitz.
- PITSE: (mitsa, pits: hilacha). Zu beti *pitsez* betea. Hemen *pitse* bat.
- PITSEK ATRA: (arikatu, litsatu: deshilarchar). *Pitsek atratzen* ari naiz. *Pitsek atratzen* ari dire.
- PITXERRA: (pegarra: cántaro). Karrak *pitxer* bat ur. *Pitxerra* urez betea.
- PIXETOKI: (pixatoki: vejiga). Zerri horrek *pixatoki* haundie zuen. *Pixetokien* harriek.
- PIXILIA, PIXILETU: (pixalia: ganas de orinar). *Pixiliak* niok. Arront *pixiletue*. Hurre *pixiliak* dago.
- PIZUNTZI: (pixontzi: orinal). Non dago *pizuntzie?* *Pizuntzie* pixez betea dago.
- PIZURRIN: (pix usaia: olor a orina). Hau *pizurrine!* Etxe huntan bada *pizurrian* bat...
- PONPOXA: (ongi apaindua: bien aseada). Hau neska *ponpoxa!* Neska *ponpoxak* badirela hemen!
- PORROKATU: (desegin: deshacer). *Porrokatu* dugu etxea. Autoa ere *porrokatu* ginuen.
- POTTOKOA, POTTOKA: (zalditxo, potro: caballito). Baditugu bi *pottoko* etxean eta sei *pottoka* mendian.
- POTTIKOKA, POTIKOKA: (potikoka: a gatas). Mendi kasko hortara *potikoka* igen ginen. *Potikoka* beti goiti.
- POZOÑA: (pozoña: veneno). *Pozoña* eman zion. Urek *pozoindu* dituzte. Hau *pozoña* da.
- PULUNPE: (pulunpa: cencerro grande). *Pulunpe* haundi hoiek anbateko asotsa atratzen dute.
- PURTZIL, PURTZILE: (purtzil: despreciable). Etzaitela neska *purtzil* horrekin ibili. Hau neska *purtzile!*

- PUTZURRIN: (putz usai: olor a pedo). Puf! Hau *puzurrine*, nork in du? Zikine!  
Bada *putzurin* bat.
- PUTRUNE: (uzkur: cobarde). Nere lagune ezta gizon *putrone*. Hau yende *putrone!*
- PUTUTSE: (pututse: torpe). Hau esku *pututsek!* Esku *pututs* hoiekin eztuzu deus inen. Esku *putus* hoiekin ez duzu ezer egingo.
- PURDIE: (ipurdia: culo, trasero). Main dezut *purdien* ostiko bat. Zer ai zara hor *purdie* agerien. Emango dizut ipurdian ostiko bat.
- PURDI-MAZELA: (ipur-mamia, ipur mazel: nalga). Lodi dago gure neskatikoa, anbateko purdi-mazelak ditu.
- PURDI-KONKOR: (ipurdi-konkor: hueso inferior de la columna vertebral). *Purdi konkorrean* min hartu zuen. *Purdi konkorrean* kaska bat hartu.
- PURDI-LAZO: (puzkerti: pedorro). Zein *purdi-lazo* zaren! Gaie hemendik *purdi-lazo* zikine!
- PURRUSTEKA: (purrustaka: en abundancia). Sosa *purrusteka* bota zuten. Urie *purrusteka* ari du.
- PUXENTA: (ongi apaindua: bien aseada). A zer neskatiko *puxenta!* Badirela hemen neska *puxentak!*
- PREXITU, PREXITUE: (prejitu, prejitua: freir, frito). Arroltze *prexitue* zein ona den. Patata *prexituek* ere onak dire.
- PROPIE: (polita edo ederra: hermoso). Zer neska *propie* den Maritxu! Haur hau zein *propie* den!
- PALLASTRA: (anda, baiarte: parihuela o parecido). *Pallastrakin* ongarriketan. *Pallastra* aspaldikoa da. Baztanen, “pallastra”, “ballatria”, “ballartia” eta “gangabile” berdintsuak dira. Bi gizonen artean edozein gauza eramateko, ongarric, arbie eta gehiago ere. “Kataotak” badauka bertze eginkizun bat. Hau yendea eramateko erabiltzen da. Mendian norbaitek min hartu duela edo hilak edo defuntoak ekartzeko erabiltzen dena.
- PUTZIKE, PUTZIKETU: (putzikatu, putzikaka: quitar a pedacitos). *Putzike* ta *putzike* zu beti *putzikeka*. Nork *putziketu* du hau?
- PIXTIKULARRA: (auzi-gizon: especie de abogado). Yoanen gara *pixtikularretara*. *Pixtikularra* hemen dago. (Sunbillan hartua.)
- PITTET, PITTE BAT: (pixkat, pixka bat: poquito, un poquito). Kartzu *pittet*. Maindetzut *pitte bat*. Nai duzu *pitte bat?* Emango dizut pixka bat.
- PUZTERKA, PUZTER: (asto, zaldi eta mando ostikoak: coces, dando coces). Gure astoa beti *puzterka*. Anbateko *puzterrak*. *Puzterkari*.
- PUTUTXE, PUTUTX: (untxarta: hurón). Oihan hortan badire ainbertze *pututs*. *Pututxek* izitzen naute.
- PINTTERDIE: (Auzolanetan ematen den tragoa: Trago y bocadillo que da el pueblo al que trabaja en auzolan). . *Pintterdie* deitzen zaio, auzolanetan herriak ematen duen otorduei. Auzolanean ematen duten *pintterdie* zein ona den.

—S—

- SABAI, SABAIA: (sapai, ganbara desván). *Sabaia* belarrez betea daukegu. *Sabai* haundie dugu.
- SAHARDE, SARDE: (sarde: palo largo con dos púas, horquilla de dos puntas). *Sahardeakin* egin ginuen lana. Har zazu *sahardea*.
- SAIESKA, SAIETS: (saieska, saiets: de soslayo, costado). *Saieska* ibili ginen. *Saie-tsean* yo zion. *Saiets* hortan.

- SAIESKI: (saietseko aragie: carne de costado). Xerri pusketaik, *saieskie* hoberena. *Saieski* ona yan dugu.
- SAHATSA: (saratsa: sauce). Erreka ondoko *sahatsa* moztu dugu.
- SAIETS HEZURRE: (saiets hezurra: hueso del costado). *Saiets hezurre* hautsi zitzaion.
- SAGARROIA: (trikua: erizo). Baratzean ikusi dut *sagarroia*. *Sagarroi* haundi bat.
- SAKAIL, SAKI: (zauri: herida). *Sakail* haundie egin zioten. *Saki* hori sendatzea kostako zaio.
- SAILKE, SAILKETU: (sailka, sailkatu: por grupos, agrupar). Yarri zaitetze *sailke*. *Sailketu* yendea.
- SALIA, SAHALIA: (segalera: donde se hecha la hierba en la cuadra). *Salia* hautsi zaiku. *Sahalia* konpondu behar dugu.
- SALBATORE: (Igokunde: Ascensión). *Salbatoretan* Iruriteko bestak. Bier *Salbatorre*. *Bihar* *Salbatore*.
- SALMENTA: (salmenta: venta). *Salmenta* guti aurtengo ferietan. Gaur *salmenta* ederra.
- SAMATSA: (iretze mukuru: montón de helecho). *Samatsa* pile bat in dugu. *Samatsa* hoiek bildu.
- SAMURTU: (aserratu, sumindua: enfadado). Aita *samurtu* zaiku. *Samur* nerekin.
- SAINDU: (santu: santo). Aste *Sainduan* besta. Bakotxak bere *sainduari* otoitz.
- SAINGE, SAINGEKA: (zaunka: ladrar, ladrando). Zakurre *sainge* ai da. Zakur hoi beti *saingeka*.
- SAINGETU: (saingatu: ladrar, que ha ladrado). Zakur horrek *saingetu* du. *Saingetzen* du atsetan.
- SANPIROLL, SANPIROLLA: (odolki lodi lodia: morcilla muy gorda). Gaur *sanpiroll* yatea. *Sanpirollak* badu yateko aunitz.
- SAPELARRA: (belar clase bat: una clase de hierba). Gure baratzean *sapelarra* pileka.
- SAPA: (sargoi, sargori: nublado y calor, pesado). Gaur *sapa* dago. Denbora zakarra hau *sapa!*
- SARDA: (trapu zakar bat: trapo de tejido muy burdo). *Sardakin* garbitu ginuen. Sorallue garbitzeko *sarda* ona.
- SARGOI, SARGORI (SAPA): (sargoi, sargoñi: pesado, calor). *Sargoi* dago, izerdie heldu da. Egun hotan beti *sargoi*.
- SAROI, SAROIA: (saroi: majada, borda con prado). Gure *sarioan* bildu ginuen. *Saroi* hortan ederki egoten gara.
- SARRI ARTIO: (gero arte: hasta luego). *Sarri artio* berehala etorriko naiz. *Sarri artio* ama.
- SARRI: (gero: luego). *Sarri* torriko naiz. Torri zaitte *sarrixago*.
- SASITU: (sasitu: cubrirse de zarzas). Bazterrak *sasitu* zaizkigu, dena *sasiek* hartuek.
- SASOIN: (sasoi: sazón, época, tiempo). *Sasoin* hunten uri aunitz. *Sasoin* du lanak?
- SASOÑEAN: (sasoi: que está fuerte, pletórico). Gure gizona *sasoñean* dago. Gazte hoién sasoña!
- SASITIK LEKURE: (esaera bat: es un dicho). *Sasitik lekure* gan nintzen.
- SATARRA: (beien eritasune: una enfermedad de las vacas). Bei gorrie *satarrakin* daukegu. *Satarra* sartu zaiku.
- SATOR MUKURU: (sator mukuru: topera, montón de tierra que hacen los topos). Gure belaian badire hainbertze *sator mukuru*. *Sator mukuru* aunitz.
- SATURDINE: (xagua, soro-xagu: ratón campesino). Gure landan hil tugu lau *saturdin*. *Saturdinek* pileka.

- SEGA KUTXUE, SEGA KOTXUE: (sega poto: un pote lleno de agua donde se lleva la piedra de afilar). *Sega-kotxue* beti gerrontzian. *Sega-kotxue* hemen dut.
- SEGA POTO, SEGA-OPORRA: (sega-kotxu: pote lleno de agua donde meten los segadores la piedra de afilar. *Sega-oporra* beti gerrontzian. *Sega-potoa* hemen dut.
- SEGA POTO, SEGA-OPORRA: (sega-kotxu: pote lleno de agua donde meten los segadores la piedra de afilar. *Sega-oporra* belaian utzie dut. *Sega-potoa* ondatu zait.
- SEGA-KIDER: (sega kirtena: mango de la guadaña). *Sega-kiderra* hautsi zitzaiten. *Sega-kider* berrie behar dut.
- SEGA-XANGO: (sega-xango: pieza de la guadaña por la que se une al mango). *Sega-xango* hau eztago ongi. *Sega-xangoa* konpondu behar da.
- SEGALERA: (segalera: donde se hecha la hierba en la cuadra). Beiteiko *segalera* arras ongi egine dago. *Segalera berrie*.
- SEGA-MALLU: (sega-mallu: martillo para adelgazar el corte de la guadaña). *Sega-mallu* ona dut. *Sega-mallu* hunekin lan ederra iten dut.
- SEGARRI: (segarri: piedra para afilar la guadaña). *Segarri* hau bezalakoik iñon ez. *Segarri* ona.
- SEGURANTZA: (segurantzaz: seguridad). Zurekin ez dut batre *segurantzik*. *Segurantzaz* guti.
- SEGURTE FIO NAIZ: (seguru aski bezala: aseguraria). *Segur ta fio naiz* bera han dagola.
- SEURIK: (segurik: sin duda). Kostako zaiku mile pezta *seurik*. Bai *seurik*.
- SEME BITXI: (semebitxi: ahijado). Maite dut nere *semebitxi* ederra.
- SEMEDER: (San Primo egunari deitzen zaio: día de San Primo). *Semeder* eguneko urie, berrogei eguneko urie.
- SIXTE, XIXTE: (ziztatu: pinchazo). Orratzakin *sixte* in nion. *Xixtetu* nion. *Sixte* haundie.
- SIÑESTE, SINESTE: (siñiste: creencia). Hortan *siñeste* haundie dugu. *Siñesten* dugu. *Sinetsi* dut.
- SOHORRERIE, SOGORRERIE: (gorreri: sordera). *Sorreriek* ez du gauz onik. *Sohorreri* horrekin beti gaizki.
- SORRA, SOHORRA, SOGORRA: (gorra: sordo). Zein *sorra* zaren. *Sohortu* zara. Hemen denak *sogorrak*.
- SORALLUE: (sorailu: piso de una habitación, tarima). Gur etxeak *sorallu* ona du. *Aspaldiko sorallue*.
- SOINBURU: (bizkar gaina: hombro). Gipona *soinburuen* zaraman. *Soinburuen* dakarra.
- SOBERA, SOBERATU: (gehiegi: demasiado, sobrado). Hau *sobera* duzu. *Soberatuko* zaiku. *Soberaxko* guretako.
- SOBERAKINE: (gehiegikeria: sobras). *Soberakinek* aspertzen dute. *Soberakinek* bota.
- SORGIN-AFARI: (sorgin afari, gau erdiko afaria: cena de media noche). Goizeko hiruetan egin ginuen *sorgin afari* ederra.
- SORGIN SALDA: (sorgin salda: caldo de brujas). Zugarramurdin *sorgin-salda* hartu ginuen.
- SORKIZUN: (iturburu, sortzen den lekua: nacedero, manantial). Herriko iturriak hortxe dauke *sorkizune*.
- SOLAS: (hitzegin: hablar, conversación). *Solas* goxoak maite ditut. *Solasean* ari gara. *Solas* onak.



- SOLASTURI: (berritsu, eletzu: hablador). Bazkalondoan denak *solasturi*. Zein *solasturie* zaren.
- SOLASALDI: (hizketaldi, hitzaldi: charla). *Solasaldi* ederra egin dugu. Yende solasturiek *solasaldi* luzeak.
- SOSA: (dirua: dinero). *Sosa* denek maite. *Sosik* gabe deusez. Bakea ta bi *sos*.
- SOSDUNE: (diru duna: que tiene dinero). Nere osaba *sosdune* da. Hemen *sosdun* aunitz.
- SOINKE: (bizkarka: a hombros). *Soinke* egin ginuen lana. *Soinke* aitu ginen.
- SONBOR-AITZURRE: (haitzur haundia luberriak egiteko: azadón para roturaciones). *Sonbor aitzurrekin* atra ginuen lugerrie. *Sonbor aitzurre* pisue da.
- SORLEKU: (jaio den lekua: sitio de nacimiento). Maite dut nere *sorlekua*. Nere *sorlekuan* bizi naiz.
- SORTETXE: (jaio den etxea: casa donde ha nacido). Nere *sortetxea* berritu dute. Nere andrearen *sortetxea*.
- SORTERRI: (jaio den herria: pueblo donde ha nacido). Nere *sorterrian* hil nai nuke. *Sorterri*tik urrun bizi da.
- SORO: (belarra: césped, segundo corte de hierba). Belarrak onak eta *soroak* hobeak. *Pilota-soro* aunitz hemen.
- SOLASBIDE, SOLASPIDE: (solasbide: motivo de habladurias). Gure hauzoan gertatu denakin *solasbide* franko bazterretan.
- SOBRANIA: (nabarmena bezala: exagerado o algo asi). Neska hori *sobrania* da. Bertze hoiek ere *sobraniak*.
- SORAIO SORAIOA: (soraio: cerdo atacado de cisticerco). Zerri *soraioa* atra zaiku. *Soraioa* gaixtoa da.
- SUKERRA: (sukarra: fiebre, calentura). Gure hurre *sukerrakin* daukegu. *Suker* haundie.
- SUTOPILE: (gari iriñakin egiten den taloa: talo hecho con harina de trigo). *Sutopil* goxoak yan tugu. *Sutopilek* gaur yateko.
- SUGERRIE: (sua egiteko: combustible para hacer fuego). Hemen badugu *sugerr*i franko. *Sugerr*ie behar da.
- SUFLIA: (bizkorra, ederra: robusto). Mutil *sufli*a gure Martintxo. *Sufli*a eta aski ona.
- SUKIL, SUKIL-ONBORRA: (sukil-enbor: tronco que arde en el hogar). Onbor hunek *sukilteko* balio du. *Sukil-onbor* yorie.
- SUKIL-LEKUE: (sukil-tokia: sitio donde se coloca el tronco en el hogar). *Sukilteku*en ederki kokatu da onborra.
- SUMANDILE: (sugandilla: lagartija). Pareta zar hoietan *sumandilek* pileka.
- SUMUSKERRA: (musker, suge-musker: lagarto). *Sumuskerra* sartu zitzaikun etxe barnera.
- SUMETU: (somatu: barruntar). *Sumetu* ginuen han zerbait bazela. Ez dut deus *sumetu*.
- SUNSUNE-SUNSUNA: (ergel, jende iluna: bobalicón). Zein *sunsune* den andre hori. Yende *sunsun* hoiekin kasu.
- SUSPERRA: (sutsu, susper: fogoso, ardiente). Bero izigerrie *susperra* zagon.
- SUSERA: (susara: celo de la vaca). Gure bei gorrie *susera* dago.
- SUNTSITU: (desegin: deshacer). Etxea *suntsitu* zuten. Bazter guziek *suntsituek*.
- SENDABIDE: (sendabide: remedio). Eritasan horrek eztu *sendabide*ik. *Sendabide* ona da.
- SAKELA: (sakela: bolsillo). *Sakelean* badut ziloa. *Sakel* haundie eta sos guti.

- SAKELUTZ: (sakelutz: bolsillo vacío, sin dinero). Gure herrian gizon bati deitzen zioten *sakelutz*.
- SUGURRE (SUDURRE): (sudurra: nariz). *Sugurraundi* aunitz hemen. *Sugurre* aunpetu zaizu.
- SASTORRA: (ausarta, denetan sartzen dena: atrevido). Hau mutiko *sastorra!* Zein *sastorra* zaren!

## -T-

- TALOBURDINE, TALOBURDINE: (taloburdina: pieza de hierro para asar tortas de maíz). *Taloburdinekin* aitzen gara. Taloburdin ona dugu.
- TALOMANTENUE: (talomantenu: pieza curva de madera para asar talos). *Talomantenu* ona dugu taloak erretzeko. Talomantenu.
- TANATUE: (tanatua: caerse el vello a los animales, las plumas a las aves). Badugu ollo lepo *tanatue*. Ardi *tanatuek* ere badire.
- TANTAIA: (tantaia: árbol bravio, tronco de árbol sin ramas). Bertizko oihanean *tantai* ederrak. Haritz *tantaia*k.
- TANTIKETU: (ez dela mugitzen: que no se mueve). Mugitzeko erran eta ez *tantiketutu* ere. Ez *tantiketzen!*
- TARATILU, TARATELU: (zuloak egiteko tresna: herramienta para agujerear). *Taratilu* horrekin ziletu dugu maia. *Taratelu* ederra.
- TARTALLA: (arrote: desarrapado). Zein *tartalla* zaren. Hau yende *tartalla!*
- TARRAPATAKA: (arrapaladan: a tropezones). *Tarrapataka* gan ginen. *Tarrapataka* etorri ere.
- TARRATA, TARRATATU: (zarrast, zarrasta, urratu: rasgar, rasgón). Anbateko *tarrata* in datate atorran. Dena *tarratatue*.
- TARRATARI: (puzkerti: pedorro). *Tarratari* zikine gaie hemendik! Hau mutiko *tarratarie!*
- TTALLA, TTARRA: (txikia: pequeño). Gizon *ttallak* espantu haundiek. *Ttarra* eta *tzarra*.
- TTARTU, (TTIPITU): (txikitu: empequeñecerse). Gure gizona *ttartzen* ai de. *Ttartzten* eta zahartzen. Gure gizona *ttartzen* ari da.
- TTANTTA: (ardo: vino). Andre horri *ttantta* gustatzen zaio. *Ttantta* du maite.
- TTANTTA-GOXUA: (ardo goxoa: vino dulce). Amatxin etxean *ttantta goxua* hartu ginuen.
- TELLERINE, TELLARINE: (teilagille: tejero). Nere lengusue *tellerine* da. “*Tellarin*” Baztango dantza Bat.
- TEKU: (teku: deju). Ardo hunek badu *tekue*. *Teku* hau arras txarra da.
- TELEKA: (aspergarr: latoso, pelma). Hau gizon *teleka!* Beti *teleka* horrekin.
- TEMATZU, TEMAZU: (setatsu: temoso). Hau neskatiko *tematzue!* *Tematzu* eta berekoia. Zein *temazue* zaren. *Temazu* eta gaixtoa.
- TENORE: (ordua, garaia: tiempo, hora). *Tenore* txarrean etorri zara. Bazkaltzeko *tenorea* da.
- TENTUMOTX: (muxkin, nigarti: llorón). Gure hurre *tentumotx* dugu. Arront *tentumotx*.
- TETELA: (tetela: ceceoso). Hau gizon *tetela!* *Teteletu* zaiku gizona. *Teteldu*.
- TILISTETU: (Untzi batera ura bota eta astindu. Agitar el agua en una vasija). *Tilistetu ongi untzi hori*. *Tilistetu* eta ur zikine bota.
- TITIDORRA: (titilegorra, ao-gozagarr: chupete). Haur hunek *titidorra* maite du. *Titidorra* hautsi du.
- TIRRIE, TIRRIETU: (tirria: anhelo). Neska hortaz arras *tirrietue* nago. Hau *tirrie!*

- TIPUL-AZKAIA, TIPULAZKAI: (tipulazkai: cebolla que se planta para simiente). Baitugu *tipulazkaia*k Maiatzian yateko. *Tipulazkai* onak.
- TTIPIE: (txikia: pequeño). Neska *ttipie* bai, baño ernea. *Ttipittoa* da.
- TTIPITU: (txikitu, laburtu: achicar, empequeñecer). Gizon hori *ttipitu* da. Zorrak *ttipitzen* ari dire.
- TTILITTE, TILITE: (gustorik gabeko yanaria edo edaria: comida sin sustancia). Salda hau arront *ttilitte* da. Salda *ttilitte*.
- TOLOTA: (arrautz ustela: huevo podrido). Arroltze tolotak usein txarra du. Arroltze *tolota*.
- TOTORIKO, TTOTORIKO: (kokoriko: en cucullas). Yarri zaite *ttotoriko*. *Totoriko* yarri ginen.
- TTOTTOLATUE: (ergeldua, zozotua: atontado, sin fundamento). Gure osaba arront *ttottolatue* dago.
- TTAUTTE: (tragosko bat egin: hechar un trago, beber algo). Amatxin etxean *ttautte* in ginuen. *Ttautte* goxua.
- TUTULU: (tutulu: moño). Neskatik horrek zer *tutulu* polite duen. *Tutulu*.
- TUPINE: (estu, tinko, lur gogorra: tupido). Gure landako lurre *tupin tupine* dago. Arras *tupine*.
- TUTUE: (tutu, turuta: corneta). Yotzak *tutue*. *Tutue* yo dute. Hemen *tutularie*.
- TTUE: (listu: txistu, saliva). *Ttue* bota zion aurpeire. Ez *ttuik* bota.
- TUPINE: (ontzi clase bat: marmita olla de metal con tapa). *Tupine* ederra izebain etxean.
- TTUTTURRU: (mendi gallur zorrotza: cúspide de montaña, pináculo). *Ttutturru* hartan izan ginen. Gorasko dago *ttutturru* hure.
- TRAKETSA: (zarpail: grosero). Yende *traketsa* bazter hoketan. Zein *traketsa* zaren.
- TRAPA: (ardien gaitza: jadeo de ovejas). Gure artaldean *trapa* sartu zaiku. *Trapa* txarra da.
- TRIGUNE: (eskalaburu: tribuna). Gure etxeak *trigune* ederra du. Etxe gibelean *trigune*.
- TROSTAN: (trosta, trostan, draka-draka: al trote). *Trostan* etorri ginen. Zaldiz eta *trostan*.
- TZARRA: (gaixtoa, gaizkin: malo). Gizon hori arras *tzarra* da. *Tzarra* eta maltzur-re.
- TAPIE, TAPITU: (tapitu: tupido, espeso). Uri erauntsi hoiek lurrek *tapitu* dazku. Lur *tapie*.
- TIRRINTE: (tirrin, txirrin: timbre). Despertadore hunek *tirrintik* eztu yotzen. *Tirrintek* yo du.
- TRIPUS TRAPUS: (lana presaka eta nolanai egina: hacer algo sin orden). Lan hau *tripus-trapus* ine. Zu beti *tripus-trapus*.
- TRAGAZA: (otea xatzeko tresna: herramienta para triturar argoma). *Tragaza* hunekin otea ederki xatzen dugu, xe xea inik. *Tragaza* Sunbillan hartua.
- TRALLUKE: (garia erauzteko tresna: palo con el que se desgrana el trigo). *Tralluke* tresna zaharrenetako bat da. Gure gazte denboran ogie erauzteko beti *trallukekin*.

—TX—

TXANTXIGORRA: (Txantxigor: cimarrón). *Txantxigorrak* zein goxoak diren. *Txantxigor* onak.

TXALMA: (txalma: albarda ligera). Zaldi horrek *txalma* berrie behar du.

- TXINGA: (arrantzako sare bat: red para pescar). *Txingakin* arpatu gintuen arrañak. *Txinga* ona da.
- TXINGER-AZPI: (urdai-azpi: jamón). *Txinger-azpi* ederrak gure etxean.
- TXINGERRA (ZINGERRA): (urdaia: tocino). Zerri gazteain *txingerra* ona da. *Txinger* onak.
- TXINGER-URIN: (urdai koipe: grasa de tocino). *Txinger-urinekin* prexistu dugu.
- TXINGURIE, TXUNGURIE: (txingure: yunque). Herriko arotzak lau ehun kiloko *txingurie* saldu du.
- TXINGIL: (txingil: a la pata coja). *Txingilke* gan ginen. *Txingilke* aunitz nekatzen da.
- TXITA, TXITE, TXITO: (txita: polluelo). Baitugu hainbertze *txito*. Hil zaizkigu lau *txita*.
- TXIPA, TXIPE: (arrai klase bat: una clase de pez de río). Baztango ugeldean badire *txipek* pileka.
- TXISTORRA: (txistorra, lukainka: longaniza). Hemengo *txistorrak* badu erreliste. Hemen *txistor* onak.
- TXIÑURRIE: (txiñurria: hormiga). Yendea bildu zen *txiñurrie* bezala. *Txiñurri* aunitz.
- TXOKOTA: (txokota: eje del fruto). Sagarra yan eta *txokota* bota. *Txokota* ez yan.
- TXOKOTO: (Elizondoko karrika bat: Un lugar de Elizondo). Orai *txokoton* bizi naiz. *Txokoto* Elizondon dago.
- TXULUBITE: (txistu edo txulubita: silbo, txistu o flauta). Hauzoko mutiko horrek *txulubite* yotzen du.
- TXUNGUR: (urdai-azpiko ezurra: hueso del jamón). Banabarra *txungurrekin* ego-sie zein ona den. *Txungur* ona.
- TXARRANTXA: (txarrantxa: objeto para limpiar el ganado). Beiak *txarrantxakin* garbitzen ditugu. *Txarrantxa* ona.

## -U-

- UBELA: (ubala: correa). Erleju hunek *ubel* berrie behar du. *Ubela* ondatu zait.
- UBELDURE: (ubeldura: cardenal). Anbateko *ubeldure* duzu. Gorputze *ubeldurez* betea.
- UBER: (zikin: sucio). Zureak eder eta bertzenak *uber*.
- UBERROA: (ur zikinak: riada sucia). *Uberroak* kalte haundiak egin ditu. *Uberro* haundia.
- UGELDE, UGALDE: (ibaia: río). *Ugeldea* berratu da. "Baztan" *ugaldean* arrain onak.
- UFESTUE: (zikin, likits: hediondo). Yende *ufestue* bazter hoketan. Denak *ufestuek*.
- UFRELLA: (abail: honda). *Ufrellakin* arrie tiretu ta il zuen Dabidek Goliat.
- ULIBELTZA: (eulibeltza: mosca negra). Kasu zinger-azpi horrekin *ulibeltzak* ukitu ez dezan.
- ULI, ULIE: (euli, elbi: mosca). Etxe huntan *uli* aunitz. Zein *ulie* zaren. *Uliek* udan.
- ULITXE: (eltxo: mosquito). *Ulitxek* pileka bide hortan. Zoko hoietan *ulitxe* aunitz.
- UKITU: (ikutu: tocar). *Ukitu* baizik ez nion in. Hau *ukitu* gabe dago. *Ukitze*.
- UKONDOA: (ukalondoa: codo). *Ukondoa* urbil eta musuik ezin man. *Ukondoa* makur.
- UKUMILE: (ukabilla: puño). *Ukumile* haundie eta eskumutur mehea. *Ukumilekin* yo.

- UMERRIE: (bildots hilla: cordero muerto). Aurten *umerrie* merke. *Umerrie* erosi dugu. *Umerrie* ona da.
- UMETU: (umatze: echar crías). Ardi guziak *umetu* zaizkigu. Urdama ere *umetu*.
- UMEKOR: (umekor: que produce muchas crías). Etxe hortan denak *umekor*.
- UNIDEA: (iñudea: nodriza). Gure lengusua *unideakin* azi zuten. *Unide* azkarra.
- UNTZI: (ontzi: vasija). *Untziek* ongi garbitu. *Untzi* hortan sartu dut.
- UNTZITU, UNTZIE: (joaldia: zurrar). *Untzituko* zaitut. Anbateko *untzie* hartu ziken.
- UNERAÑO: (honeraño: hasta aquí). *Uneraño* etorri zen. *Uneraño* egin dugu.
- UNET, UNAT, HUNAT: (honera, honara: hacia aquí). Zato *hunet*. Ator *hunat*. Torri *hunet*. *Hunetakoan* karri.
- UNEXAGOTTO: (onexago: un poco más aquí). Torri zaitte *hunexagotto*. Hor ez, *hunexagotto*.
- URBIL: (urre, gertu: cerca). *Urbil* dago gure heriotza. Bestak *urbil* eta soñularik ez.
- URBILDU: (urreratu: acercar). *Urbildu* zaitte gehiago. *Urbildu* zaitezte.
- URBILEGI: (urbilegi: demasiado cerca). Pixke bat urrunxago, hau *urbilegi* dago. Hoi ere *urbilegi*.
En Ordériz, lugar de la cendea de Iza donde en 1729 “ningún vecino entendía la lengua castellana” (32), el catastro de 1945 recoge seis topónimos: “*Camino de la iglesia, Fuente, Monte, Muga de Ariz, San Bartolomé y Soto*”. Es un ejemplo preocupante de lo que ocurre en buena parte de Navarra. El olvido de la lengua supone la pérdida irreparable de un tesoro con el que nuestro pueblo debió contribuir a la cultura universal. El hecho debe ser un estímulo para que todos, autoridades, instituciones y pueblo, trabajemos por la conservación, recuperación y expansión de la lengua más vieja de Europa.

---

(32) Archivo Diocesano de Pamplona. Car. 1786, n.º 21, f. 19.



**BERRIAK**



## “ERIZKIZUNDI IRUKOITZA”REN AURKEZTAPENEAN (Bilbon, Diputazioko jauregian, 1984, Irailak 4)

Euskaltzainburuaren hitzak

*Fr. Luis Villasante*

Patxi Zurikarai, Bizkaiko Diputazioko Kultur arduraduna.

Euskaltzainkideak.

Jaun-Andreak.

Zinez egun handia da hau eta handia gaur ospatzen dugun gertaera, hots, Erizkizundi Irukoitzaren argitarapena. Hainbeste urtez itzalpean egon ondoren, noizbait ateratzen da argi zabalera, Ana Mari Etxaide euskaltzain urgazlearen nekeei eta Bizkaiko Diputazioaren diru laguntzari esker. Gure “Iker” bilduman toki hautatu bat izango du beti azterketa lan honek. Argitarapen honekin zor bat kitatzen du gaurko Euskaltzaindiak, lehen urteetakoari ohore emanez eta berarekin zubia eginez. Bai. Egun handia da hau, zinez poz hartzekoa.

Inoiz edo sarri botatzen digute arpegitara euskaldunoi ez dugula sekulan lan seriozik egin euskara den bezala ezagutzeko eta aztertzeko. Euskararen ikerketan piz-oihaletan daudela, alegia. Nik ez dut ukatuko ahapaldi horretan egon daitekeen egi puxka. Baina gauzak nola izan diren gure artean ere jakin beharra dago. Ez da egon ikastetxe nagusirik eta ez laguntza handirik lan hauek bultzatzeko. Hala ere, orain arte ezer egin ez dela dioenak ez du egia esaten; ez, behintzat, egia osoa. Eta hau da notatzekoa: askotan kanpotarrak izan direla bultzatzaileak. Izen batzuk gogoratu besterik ez dago: Landucci, Humboldt, Bonaparte, Vinson, Schuchardt, eta abar.

Baina gaur aurkeztatzen dugun lana etxekoek egin izan da. Bai. Gaur Euskaltzaindiak atsegin haundiz aurkeztatzen du euskara den bezala ezagutzeko orain dela 60 urte bururutako tresna garrantzitsu bat: *Erizkizundi Irukoitza* du izena, ezen Azkue berak hala bataiatu zuen.

Orain dela 60 urte egin, baina orain arte argia ikusi gabe egona. Berriz ere diot. Bihotz-bihotzetik eskerrak eman beharrean naiz Ana Mari Etxaideri lan hau prestatzen hartu duen nekeagatik eta Bizkaiko Diputazioari argitarapena egiteko eman duen laguntzagatik.

Azken egunok arte ez dut liburua ikusteko aukerarik izan. Gaingiroki bakarrik ikusi ahal izan dut. Ana Mari Etxaideri uzten diot, beraz, hedatuki eta xeheki liburua-  
ren berri emateko kargua. Nik bakarrik esango dut zergatik eta zertarako prestatu zuten Azkuek lan hau eta guti gorabehera zer den ere bai, baina ur sakonetan sartu

gabe, zeren ez baitut astirik izan liburua behar bezala aztertzeko. Eta, azkenik liburuan ageri diren inkestatzaile eta inkestatu batzuen gainean zerbait esango dut, hortarako gaietan naizela uste dut eta.

Ana Mari Etxaidek sarreran ongi dioenez, Euskaltzaindi jaioberriak haste-hastetik izan zuen euskararen batasunaren kezka. Eta, hain zuzen, horregatik, hartu beharko ziren erabakietarako oinarri sendo eta fidagarri bat edukitzeko, agindu zuen Azkuek inkesta hau. Inkesta honek hiru atal ditu. Horregatik Hirukoitza deritzo. Lehen partea Fonetikari buruz, bigarrena Morfologiari buruz, hirugarrena Hiztegiari buruz. Beraz, Atlas bezalako bat da, orain 60 urte egina. Zoritxarrez, bitarte horretan inkestatzaile batzuen koadernoak galdu edo desagertu egin dira. Baina salbatu dena ere ez da gutxi izan.

\* \* \*

Frantziskotarra naizen aldetik, inkestatzaile baten eta inkestatu batzuen gainean xehetasunak eman ditzaket.

Inkestatzaileen artean agertzen da bat A. M. letrekin izendatua.

Nik lehendik ere banekien —segur aski Aita Pedro Arangureni entzunik— Aita Aingeru Madariaga ibili zela Erizkizundirako gaiak biltzen. Eta horra non agertzen zaigun. Aingeru Madariaga bermeotarra zen, 1893an jaioa. 1963an Oñatiko Bidaurretan hil zen. Ameriketara ere egin zituen urte batzuk, bi txandatan edo alditan, gainera. Aita Imanol Berriatuari ere lagundu zion euskal lanetan Foruan eta Bermeon zegoenean. Euskal olerkaria zen. Erizkizundirako bilketak egin ziren urteetan Arantzazun zegoen irakasle.

Aita Aingeru Madariagak inkestatu zituenen izenak, adina eta sorlekua ere badatoz Erizkizundian. Gehienak fraideak dira.

Azkuek inkestatzaileei emandako oharretan esaten zen inkesta egiteko aukeratu behar zirela, ahal dela, beren herriko euskara huts-hutsik zekitenak. Gutxi edo bat ere eskolatu gabeak eta beren herritik sekula irten gabeak baziren, hobe. Horregatik, segur aski, galderak egiteko batez ere fraide legoak, karrerarik ez zutenak, hartu zituen Aingeru Madariagak; baina ez beti, ezen Mezakoak ere badira, eta garai hartan Arantzazun ikasketak egiten ari ziren ikasleak ere bai.

Inkestatu batzuen berriak edo albisteak ematera noa, bada:

— Juan Bautista Madariaga, fraide legoa, Kortezubiko alkate izana. Entzun dudanez, seme-alaba denak fraide eta moja joan zitzaizkion, eta alargundu zenean bera ere fraide sartu zen. Uste dut Arantzazun hil zela. Nik ez nuen ezagutu.

— Francisco Uribesalgo. Mondragoeko semea. Fraide legoa. Gaixozaina izan zen. Nik 15 urte nituenean gaixorik egon nintzen Foruko Kolejioan eta berak zaindu ninduen. 1946. urtean hil zen.

— Salvador Lopez, Arabako Billerlekoa. Legoa. Sastre ofizioa izan zuen Arantzazun. Nik ez dut ezagutu.

— Miguel Elkano Lazterra, nafarra, Juslapeña edo Txulapaingoa. Legoa. Arantzazun bizi zen. Nik ez dut ezagutu.

— Jose Francisco Arsuaga. Fraide Legoa. Lazkaoko semea. Urte askotan Arantzazuko mataderiaren ardura izan du. Oraindik bizi da eta Arantzazun dago.

– Marcelino Idoyaga. Foruko semea. Mezakoa. Oraindik bizi da. Arantzazun dago.

– Gabriel Satrustegui. Fraide legoa. Nafarra, Garzarongo semea. Urte askotan Oñatiko Bidaurretan egon zen. Ezagutu nuen. Entzuna dudanez, Oñatiko emakumeek esaten zuten: Nork ulertu horren euskara, “biñagriari” ere *ozpina* deitzen dio eta? 1949an hil zen.

– Rufino Mondragon. Aramaiokoa. Legoa. 1963an hil zen. Anitz urtez ezagutu nuen.

– Agustin Madariaga, Bermeokoa. Legoa. Ez dut ezagutu. Bermeoko komentuan bizi zen.

– Jose M.<sup>a</sup> Ormazabal. Anoetako semea. Arantzazun ikasketak egiten egona. Urte askotan Lazkaoko udaletxean sekretario edo idazkari izan da. Arantzazuko Ama Birjinaren Nobenara urtero etortzen da.

– Francisco Gandarias. Aiangezko semea. Mezakoa. Berak eman zidan neri habitua. 1959an hil zen,

– Benito Mendia. Mezakoa. Zarauzko semea. Probintzial eta irakasle izana. 1983an hil zen.

– Pedro Rufino Aranguren. Mezakoa. Brinkoláko semea. Arantzazuko zuzendari izana. Zarauzko komentuan bizi da. Euskaltzaindiko **Euskera** aldizkarian baditu lanak.

– Celestino Zabala. Errezilgo semea. Mezakoa. Zarauzko komentuan bizi da.

Ikusten duzue, Aita Aingeru Madariagak Arantzazuko komentuan bertan aurkitu zituen hainbeste lekutako euskararen testiguak.

Aipatu ditudanen artean batzuk irakasle eta kargudunak izanak dira. Baina kontuan eduki behar da Erizkizundirako gaiak bildu zirenean gaztetxoak zirela, 19 urteko edo, Arantzazun ikasle zebiltzan eta nork bere jaioterriko kutsu eta hautsak galdu gabe gordeko zituzten.

\* \* \*

Señoras, Señores:

Tengo la inmensa satisfacción y el honor de presentar al público, convenientemente editado, enriquecido con notas e ilustrado con Mapas, el *Erizkizundi Irukoitza* o *Triple Cuestionario* —fonético, morfológico y léxico— que, programado por Azkue, fue realizado por diversos encuestadores a lo largo y ancho del país de habla vasca. La encuesta se llevó a cabo entre 1922 y 1925.

Debo dar las gracias a la Srta. Ana Mari Echaide, miembro correspondiente de la Academia y profesora de la Universidad de Navarra, por esta su magnífica contribución a los estudios vascos. Con su labor tesonera y paciente y con los Mapas ilustrativos ha conseguido poner al alcance general una panorámica de primer orden para conocer la realidad del euskara y de sus variedades hace 60 años.

Con esta publicación, que viene a enriquecer la colección “Iker”, la Academia de hoy rinde un tributo de honor a los iniciadores de la institución, salda una deuda con ellos, tiende un puente de empalme y rescata del olvido esta amplia y generosa

iniciativa de investigación que, con todas sus limitaciones —que seguramente las tiene—, no dejará de ser un instrumento de trabajo precioso para gramáticos, lexicógrafos, lingüistas y tratadistas del euskara.

A veces se dice por ahí en tono de reproche que los vascos no hemos sido capaces de hacer ningún trabajo serio para el conocimiento e investigación científica de la realidad del euskara. No seré yo quien niegue lo que puede haber de verdad en semejante reproche. Pero para ser justos hay que hacerse cargo de cuál ha sido la situación del país en los siglos pasados: sin centros de estudios superiores ni ayudas sustanciales para estos empeños ni conciencia del valor de estas actividades. Curiosamente muchas veces han sido los extraños al país los impulsores o Mecenases. Piénsese en los nombres de Landucci, Humboldt, Bonaparte, Vinson, Schuchardt, etc.

Pero tampoco han faltado iniciativas y realizaciones notables, llevadas a cabo por los autóctonos. Y entre éstas una de las más memorables es precisamente el *Erizkizundi*, especie de Atlas del euskara, realizado hace 60 años y que ahora ve la luz pública por primera vez, al menos de forma completa y satisfactoria (pues solo unos resúmenes, a todas luces insuficientes, aparecieron en la revista **Euskera**).

No estará de más señalar la razón por la que Azkue dispuso que se realizaran estas encuestas. Quería disponer de un banco de datos fidedignos a la hora de tomar decisiones para la unificación del euskara literario. Puede parecer chocante que se hiciera un Atlas con este fin un tanto pragmático y de otro plano, pero así fue.

No voy a meterme en honduras, pues no he tenido materialmente tiempo para conocer un poco a fondo el libro. Cedo la palabra a Ana Mari Echaide que con mucho más conocimiento de causa nos informará ampliamente.

A mí sólo me resta agradecer viva y cordialmente a la Excm. Diputación Foral de Vizcaya por su ayuda, sin la cual no hubiéramos podido editar el libro.

## JOAKIN LIZARRAGAREN “ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO ITZGAIAC” LIBURUAREN AURKEZPENEAN

*Donostian, 1984, Urriak 26*

*Fr. Luis Villasante*

Jaun-Andreak:

Gaur kaleratzen den honekin “Euskararen Lekukoak” liburu-bildumak bere X. zenbakia jo du. Liburuak “Ongui iltzen laguntzeco itzgaiac” du titulua, eta Joakin Lizarraga, Elkanoko apaizarena da. Argitarapen hau ospatzeko bildu gara gaur hemen.

Badira sei urte Euskaltzaindiak liburu-sorta honi hasiera eman ziola. Eta hain zuzen, lehen zenbakia ere Lizarraga Elkanokoari eskainia izan zen. Baita IX.a eta oraingo hau ere hari berari eskainiak dira.

Zer dela eta erabaki ote zuen Euskaltzaindiak liburu-bilduma hau sortzea eta bultzatzea? Ez ote daude lehendik ere gure artean euskarazko liburuen sortak? Kulis-ka Sorta, Auspoa, Gero, Jakin, Lur, Herria, Hordago, Labayru, Aurrezki Kutxeta-koak eta abar... Bai, noski. Eta guztiei geure esker ona zor diegu. Baina halarik ere, idazle zahar askoren lanak eskuragaitz izan ohi dira gehienetan, edizio berrien, gaurkotuen eta ongi eginen faltaz, eta hori huts nabaria da, zeren euskara sustraitik eta euskalki guztietan ezagutzeko hor baitira iturriak.

Gure liburu-bilduma honen hasierak ez dira errazak izan. Begien bistan da edizio hauek ez dituztela beren kostuak ordaintzen, ez direla gehiegi saltzen. Besteak beste, diru arazoa ere hor da, beraz.

Orain arte 10 agertu direla esan dut. Hona hemen zein autoreri eskainia izan den bakoitza. Lehena Lizarraga Elkanokoari, bigarrena Dextepareri, hirugarrena Etxeberrri Ziburukoari, laugarrena (bi tomotan) Mendibururi, boskarrena Lapeyreri, seigarrena Egiategiri, zazpigarrena Belapeyreri, zortzigarrena Gasteluçar-i, bederatzigarrena Lizarraga Elkanokoari, eta hamargarrena ere hari berari. Beste batzuk bide-tan daude, noski. Esan behar dut, gainera, liburu bakoitzaren argitarapena ez dela egiten hartako batzordeak banan-banan aztertu eta baimena eman arte.

Nik espero dut bilduma hau tarrotuz eta handituz doan neurrian, tresna guztiz baliotsua bilakatuko dela. Ikasle, irakasle eta, hitz batean esateko, euskara sustraitik menderatu nahi dutenentzat, hor izango da harrobi bat paregabea eta ezin utzizkoa.

Baina gatozen harira; gaur ospatzen hari garen liburuari buruz zerbait esatera, alegia. Lizarraga Elkanokoaren lana, gaur lehenbiziko aldiz argia ikusten duena, dugu begien aurrean. Edizioaren prestatzailea Aita Francisco Ondarra, euskaltzaina.

Zinez esan behar dut edizio kritiko bat guztiz ereduzkoa paratu digula prestatzaileak. Hirurogei orrialdedun sarrera aberats-aberatsa ematen digu aurreko aldean. Bertan idazle honek darabilen euskararen gramatika goitik behera aztertzen eta azaltzen zaigu: idazkera, fonetika, morfologia, joskera. Gero atzekaldean baditu beste hirurogei eta hamar orrialde autore honen hiztegiari, aditz-jokoei eta abar eskainiak.

Egia esan, laguntza honekin guztiz erraz uler daiteke autore hau eta bai beronen euskalkian idatzitako beste testuak ere. Jakina denez, Lizarraga Elkanokoak darabilen euskalkia goi nafar hegoaldekoa dugu.

Hain zuzen, euskalki hau zer-nolakoa den —edo zen— jakiteko, Lizarraga Elkanokoak dugu iturririk edo lekukorik aberatsena. Gure bilduman jadanik agertu diren liburuak ikusi eta, esan dezakegu euskalki hura argi eta garbi sortaldekoa dela eta lapurdieratik oso hurbil dagoela, nahiz eta berezitasun batzuk izan, bestalde.

Liburuaren edukina. Liburu honetan dagoena ez dira predikuak edo sermoiak, zenbaitek lehen kolpean usteko lukeen bezala. Apaiz jainkotiar eta gartsu haiek berebiziko axolarekin hartzen zuten gaixoei atenditzeko eta laguntzeko kargua. Eta horretarako berariazko liburu bat egin zuen Lizarraga Elkanokoak, gaur arte argitara gabe egon bada ere. “Itzgaiac” dio tituluak, esan nahi baita, apunteak, materialak. Beraz, esku liburu edo gida bat da, apaizentzat egina, gaixoei egin behar duten lanaren lagungarritzat. Gaixoei egin behar zaizkien ikustaldiak, esan behar zaizkien hitzak, exortuak, sakramentuak hartzeko nola prestatu behar diren, nola ongi hiltzen lagundu, eta abar: zeregin guzti horietarako gaiak eskaintzen ditu.

Egia esan, gure euskal literaturan bada lehendik ere horrelako lanik. Aita Kardaberazek badu gai hontaz liburu bat. Jose Kruz Etxeberrria frantziskotar oiartzuarak ere bai beste bat. Beharbada, ongi legoke hiruon artean egon daitezkeen harremanak eta aldeak aztertzea, baina ni ez naiz lan horretan sartuko.

Neri ez zait gelditzen Aita Ondarrari gogotik eta bihotzetik zorionak ematea beste lanik. “Bai, zorionak, txaloak eta eskerrak zuri, gure bilduma edizio ongi egingidako honekin ohoratu baituzu!

Eta zerorri uzten dizut hitza, liburuari buruz berariaz mintza zakizkigun”.



# **JOAKIN LIZARRAGA ELKANOKOAREN “ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO ITZGAIAC” LIBURUAREN AURKEZPENA**

*Donostia, 1984-X-26*

*Frantzisko Ondarra*

Euskaltzaindiak sortutako EUSKARAREN LEKUKOAK izeneko bilduman hamargarren tokia hartzen du orain aurkezten ari garen liburuak. Honen aurrekoa ere Lizagarrena da; baita bildumari hasiera eman ziona ere. Ez dezala, ordea, inork pentsa argitalpen hauekin Elkanoko Bikarioaren uzta agortu denik; hau hastapena besterik ez da, hain ugariak direlarik beraren lanak.

## **Eskuidatzia**

Eskuizkribua Damaso Aitak aurkitua da, beste birekin batera. Elkanon aurkitu zituen, 1920. urtean, Migelena deitu Lizarragarren sortetxean. Kodize eder bat da, larruz ederki josia, 150 × 110 mm. luzera-zabaleran. Guztira, 318 orrialde ditu, aitzineko aldetik bakarrik zenbatuak; 50. orriaren atzetik beste bat, guk 50 bis bataiatzen duguna, itsasi duela autoreak. Ez dago orrialderik bat ere idatzi gabe, eta den-denak daude bete-beterik, gure bikarioak egin ohi duen bezala. “Azquenic eguina” 1807. urtean da; beraz, beste erredaktziorik ere izan zuen.

## **Edukina**

Izenburuak berak aditzera ematen duen bezala, eriei ongi hiltzen laguntzeko gaiak dira: ezindurik ohean datzan eriarri zer esan izateko behar orduan “Apez-Aitac”. Hasieran eta bukaeran zenbait orrialde latinezko pasartez betetzen dira, eskritura sagratuetatik eta sanduetatik bereziak. Berak dioen bezala, “Latinez parátuac dire berárias, ez alá errateco eriarri, ez, baicic oroigarritáco memoriarén amóres, obéqui alá oroitzecó errannaidénas”.

Liburuaren helburua hau da: Prestatu eria Elizako sakramentuak hartzera, horretarako begien aurrean ipintzen zaizkiola Jaungoikoak egin dizkion faboreak; lagundu eritasuna ongi eramaten eta mogitu bizitza sekulakoa desiratzera, hiltzea ontzat hartzen duela eta Jainkoaren beldur humil konfiatua daukala.

Bihotz zabal eta biguna erakusten digu Lizarragak. Ez du eria Jaungoikoaren haserre eta infernuko tormentuekin mehatxatzen, ez dizkio bere bekatuak gogora ekartzen; baizik eta gogorazten dizkio, batez ere, Harek, gizon eginik eta gurutzean hil arteraino, gizonarengatik jasan zituen neke-penak. Horrela eriarri konfiantza nahi dio eman, ez beldurra.

### Gure argitalpena

Gure edizione honetan ahalegindu gara, eskuidatziaren idazkera ahalik eta zehatzena ematen: letrak, azentua, etab. Hala ere, hartan hain sarri agertzen diren hitz laburtuak deseginik idazten ditugu, aldi bakoitzean adierazten dugula hori egin dugula. Besteak beste, hau izan da gure arrazoibidea desegin ditugun laburpenen berririk zehatzena emateko: azentuaren arazoan ere baliagarri izan dadin orain arte gorderik zegoen testu hau.

Lizarragaren testuak 183 orrialde betetzen ditu edizione honetan. Beraren aurretik *Sarrera* labur bat eta *Gramatika* laburpen gisako bat ipini ditugu, idazkera, morfologia eta sintaxia ukitzen ditugula bertan. Hau egin dugu, sinestaturik liburu honetako gramatika fenomenoak Lizarragaren gramatika baten adibide jatorrak direla, eta kontuan harturik testuaren laburra. Ez dugu dudarik egiten, gauza asko eztabai-dagarri gertatuko direla, eta beharbada ausartegiak izan garela.

Testuaren ondotik *Hiztegia* dator, aurkitu ditugun hitz guztiak sartzen ditugula, askotan beren erabilera ere ematen dela.

*Aditz-jokoak* datoz hurrengo. Aurkitu ditugun guztiak, beren ondoan Euskaltzaindiak onaturik dituen adizkiak jartzen direla. Noizean behin beren testu-ingurua ere ematen da, esangura hobeto uler dadin.

Azkenik, *Bibliografia* azaltzen da: Lizarragaren eskuidatzen zerrenda, argitaratutako lanak, eta berari eta beraren euskalkiari buruzko lanak.

## 1985. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Donostia, 1984-XII-21  
Jose Luis Lizundia  
Idazkari-ordea

Urtero bezala, arduratu naiz datorren urterako batzar egutegiaz txosten bat prestatzen. Bestetan legez, A. Luis Villasante eta A. Santi Onaindiaren euskal literaturaren liburuez baliatu naiz eta baita Jon Bilbaoren bibliografiaz ere. Bestalde, kontutan izan dut Zuzendaritzak, Ekainean, Hondarribian egindako bileran aztertu zuen programaketa ere.

Ez dago heldu den urtean mendeurren askorik, garrantzitsuak behinik behin, ospagarritzat bi jo zituen Zuzendaritzak, bata, Frantzisko Xabier Munibe Peñafloredako Kondearena eta bestea, Juan Abelino Barriolarena.

Bestalde, beste eginkizun batzuk ere kontutan izan behar genituen, hala nola: Gasteizko Ordezkaritza berriaren inauguraketa, gaur egin behar zena, baina atzeratu zaiguna; Pello Salaburu euskaltzain berriaren sarrera; urtero egiten ditugun Dialektologi Jardunaldiak; bi urtean behin, programatuta ditugun Barne Jardunaldiak; hiru urterik hiru urtera, antolatzen dugun Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa; Euskaltzaindiaren Egoitza berriaren atontzea; etab.

Goazen bada, banan banan zehazten:

— Xabier M.<sup>a</sup> Munibe Peñafloredako Kondea, 1785.eko Urtarrilaren 13an hil zen. Gizon honen ospea, batez ere, “Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País”-en sortzaile izatek dator, nahiz eta herrigizon famatua izan, Azkoitiko alkate, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ahaldua, Diputazioko Batzar Nagusietako Ahaldua, Diputazioko Diputatu Nagusi, etab. Euskararekin ere badu zer ikusia, opera bat frantsesetik itzuli zuen eta beste baten *Gabon sariak* izenekoaren egiletzat jotzen da. Beraren lanik ospetsuentzat *El borracho burlado* dugu. Berak sortu zuen elkarrean arautegian, euskara hizkuntz nazional bezala azaltzen da, gaztelerarekin batera, lehendabizikoz gure artean. “Bascongada”koek hitz egin dute Euskaltzainburuarekin eta Intxausti jauregian, gure ospakizuneko batzar bat egitea proposatu digute, agian, udazkenerantz, zeren eta jauregi hori berriztatu behar bai dute eta Urtarrilean ez baita prest egongo. Egutegiaren txandaketa kontutan izanik, Urriaren azken ostiralean egitea proposatzen dugu.

— Juan Abelino Barriola, Donostian jaio zen 1885.eko Azaroaren 11an. Euskal idazle hau antzerkigile izan zen batez ere. Hara hemen lanik aipagarrienak:

- 1) *Meza Berriya* (Donostia, 1909).
- 2) *Aldiz, aldiz!* (Donostia, 1911).

- 3) *Zulo madarikatuak* (Donostia, 1911).
- 4) *Zori gaiztoko eguna* (Donostia, 1911).
- 5) *Lagun txar bat* (Donostia).
- 6) *Gai dagonaren indarra* (Antzerti, 1934).
- 7) *Maitasunak* (Argitaratu gabe).
- 8) *Brokoliyo ta Zozorro*.
- 9) *Go-argi* (Donostia, 1935).

Barriola idazle honek merezi du Euskaltzaindiaren oroimena eta bestetan ere inoiz egin dugunez, hileroko batzar bat aprobetxatuz egingo diogu gure omenaldia. Beraz, Azaroko azken ostiralean, goizeko laneko batzarraren ondoren, arratsaldekoan ospatzea proposatzen dugu.

— Dialektologi Jardunaldiak egitea, nolabait 1980an asmatu zen, Berako batzarretan. Handik harrezkero, urtero, egin dugu herrialdez herrialde. Lehendabizikoak, Deban; II.ak, Donaixti-Ibarren; III.ak, Markina-Xemeinen eta IV.ak, aurtan, Uztarritzen. Azkenengoak, Atlas Linguistikoaren inguruan egin dira eta honen lan taldea, lanean hasia baita, beraiekin kontsultatu ondoren, eta baita buru den Haritschelharrekin, heldu den urtekoak Araban egitea pentsatu dugu, hain zuzen, bertako Ordezkaritza inauguratuz. Beraz, Otsailean baino lehen Jardunaldi hauek egitea nahi dituztenez, prezeski Batzordeko kontseiluearekin, Urtarrileko azken ostiral eta larunbatean Gasteizen programatzen ditugu V. Dialektologi Jardunaldiak.

— Pello Salaburu euskaltzain berriaren sarrera egiteko dago eta hasiera batetan berarekin kontatuta, urte hasieran egitea pentsatu genuen. Harrezkero, Urtarrilean Gasteizen batzartzeko ginela eta, Martxora pasatzea proposatu genion. Beraz, Martxoko azken igande goizez, Baztango Arizkun bere jaioterrian, egitea proposatzen dugu.

Honekin batera, bi urtean behin egiten ditugun Barne Jardunaldiak antolatu beharra dugu. II.ak hain zuzen, Loiolan egin ziren, Azpeitian, Patxi Altunak sarrera egiten zuela aprobetxatuz. Eta dakizuen bezala, lehendabizikoak, 1979an Bizkaiko Foruan eta III.ak, 1983an Arabako Angoston egin ziren. Batzordeak berriztatzea, urte bitarako izendatzen bai dira eta Euskaltzaindiak dituen egitekoak, erdi epera edo epe laburrera bederen, aztertzea, zehaztea eta planifikatzea, Jardunaldi hauetan tratatu beharko ditugu. IV. Barne Jardunaldi hauek Nafarroan egingo genituzke beraz eta Baztanen hain zuzen, Martxoaren azken ostiral eta larunbatean.

— Barne Erregelari 13. artikulua batzarre arruntak Donostian, gehienen erosotasunagatik egiten ez direnean, Euskaltzaindiaren Egoitza nagusian, bat edo batzuk egitea komeni dela dio eta baita beste herrialdeetan bana bederen. Beraz, Donostiarekin egutegia txandakatzea kontutan izanik, Maiatzekoa Bilbon egitea proposatzen dugu, Plaza Barriko Egoitzan jadanik sarturik izango garena uste izanik, alegia, batzar aretoa eta bulegoak hara pasaturik eta agian, Bibliotekaren zati on bat. Beste data egoki bat Uztaila izan daiteke edo hil honetakoa, Iparraldean egin eta hain zuzen, Baionan, aspaldian hiriburu honetan ez bai dugu egin, nahiz eta bai Milafrantz. Uztarrilean, Donaixti-Ibarre, etab.

— Gasteizen aipatu dugu, nola datorren urtean tokatzen den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa antolatzea, hiru urterik behin egiten baita. Hori dela eta, joan

den hileko batzarre bezperan, bilera bat izan genuen Bertsolaritza Batzordeko antolatzaile azpibatordearekin, Jagon Sailburu eta Euskaltzaindiko eragileok. Bertan aztertu ziren zenbait puntu, hala nola, bertsolariekin harremanetan hasi beharra, bertsolari berrientzako lehen selekzioa nola egin, Txapelketak zenbat fasetan bahatu, etab. Honen berri eman zen azken batzarrean eta agirian duzue laburturik. Euskaltzaindiaren batzar egutegiari zuzenean ez badagokio ere, ekitaldi hauek noiz eta non egiteaz, ze proposamen atera zen esatea bidezko derizkiot. Azkena, Abenduaren erdiruntz Donostiako Balda pilotalekuan egitea ikusten zen; semifinalak ordea, bata, Durangon, Liburu Azoka egunetan eta bestea, Gipuzkoako herri batetan. Aurreko faseetan, bat edo beste, Nafarroan eta Iparraldean egitea ere ikusten zen, baina bai kasu hauetan eta besteetan, tokiak aurkitzeko aurreko Txapelketako esperientziak kontutan izanik, bai tokiaren erraztasun eta erosotasuna, zaletasun edo giroa, etab.

Egutegi zehatza finkatu baino lehen, ez nituzke 1986 urtekoak aipatu gabe utzi nahi zeren eta arestian esandako Zuzendaritza bileran ikusi bai ziren. Aita Donostia, Jose Indalezio Zinkunegi, Aita Buenaventura Oiregi eta Pierre Topet "Etxaun" izango ditugu orduan gogoan. Bestalde, Hondarribian aurreratu bezala, 1886an Durangoko "Fiestas euskaras" edo "Jaialdi euskerazkoak" deitu zirenen mendeurrena da eta hiri horretan, besteak beste, Euskal Akademiaren proiektua saritu zen. Oraintsu, XIX. Liburu eta Disko Azoka dela eta, Durangoko alkate, Udal Kultur batzordeko zinegotzi eta Gerediaga Elkarteko buruzagiekin hitz egin nuen horretaz, eta esan zidaten, batzorde bat izendatzekotan direla eta pozik ikusiko luketela Euskaltzaindiak Kongreso edo Symposium bat antolatzea bertan. Ni oroitu nintzen, nola Zuzendaritzako bilera hartan aipatu genuen, euskal azentuari buruz, Biltzar edo Jardunaldi batzuk antolatzea 1986an eta hain zuzen, giza komunikabideek gai horretan duten garrantziagatik, Durango izan zitekeela toki aproposa.

Azkenik, azpimarratu behar da txosten hau ez dela Euskaltzaindiko lanen plangintza, ez eta bilera guztiak hartzen dituen ere, bilkuren egutegi (calendario de sesiones) soila baizik. Batzorde guztiek bere bilerak izango dituzte eta bakoitza bere lanetan aritu: Hiztegigintza, Gramatika, Dialektologia —honek Atlas Linguistikoa—, Onomastika, Argitalpenak, Oinarrizko Euskara, Etsaminak, etab. Bestalde, Martxo-ko Barne Jardunaldietan Euskaltzaindiak datorren urte eta hurrengoetarako plangintza zehaztuko du.

Beraz, guztiau kontutan izanik 1985. urterako, hurrengo egutegi hau proposatzen dut:

- |                             |  |
|-----------------------------|--|
| Urtarrilaren 25 eta 26an,   | V. Dialektologi Jardunaldiak eta hileroko batzarra Gasteizen, Arabako Ordezkaritza inauguratuz batera. |
| Otsailaren 22an,            | Hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.   |
| Martxoaren 29, 30 eta 31an, | Pello Salabururen sarrera batzarra eta IV. Barne Jardunaldiak, Baztanen.                               |
| Apirilaren 26an,            | Hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.   |
| Maiatzaren 31an,            | Hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Bilbon, Euskaltzaindiaren Egoitza berrian.             |
| Ekainaren 28an,             | Hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.   |

- Uztailaren 26an, Hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Baionan.
- Irailaren 27an, Hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.
- Urriaren 25ean, Hileroko batzarra eta ospakizunezkoa, Xabier M.<sup>a</sup> Munibe Peñafloidako Kondearen omenez, Azkoitiko Insausti jauregian.
- Azaroaren 29an, Hileroko goizeko arrunta eta arratsaldeko irekia, Donostian. Egun honetan ospatuko da Juan Abelino Barriolaren mendeurrena.
- Abenduaren 20an, Hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Bilbon edo Donostian.

## GASTEIZEN, SAN ANTONIO KALEKO ORDEZKARITZA ZABALTZEAN

*Urtarrilak 25, 1985*

*Fr. L. Villasante*

Jaun-Andreak:

Eusko Ikaskuntza eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Erretorgoarekin batean ospatzen du gaur Euskaltzaindiak Arabako bere Ordezkaritza edo etxe berrian sar-tzea. Etxe berria edo, nahi baduzue, etxe aldaketa, lehen, orain dela hiru urte Vicente Goikoetxea kalean zabaldu zenaren ordezkari utzi digutena.

Zilegi izan bekit orduan, egoitza hura zabaldu zen egunean esan nituen hitz ba-zuk honera aldatzea: "Euskaltzaindia Euskal Herriko lau Diputazioek sortua da. Ezin hautsizko lokarriak ditu, beraz, Diputazio horiekin. Gu orai ere horretan gau-de. Diputazioen itzalpean egin nahi dugu geure lana. Arabako Diputazioak eman diz-kigun bulego berri eta eder hauekin lotura horiek sendotu besterik ez dira egingo. Emaizta honengatik Euskaltzaindiak bere esker ona agertu nahi dio Arabako Diputa-zioari" (1).

Eta zertarako dira Euskaltzaindiak Euskal Herriko hiriburuetan dituen Ordez-karitza edo bulego hauek? Esan beharrik ez dago: Euskaltzaindiari dagozkionetan eskualde bakoitzean lan egiteko; argitasun edo laguntza eske datozenei erantzuteko, heldu diren eskabide edo galderen kontu hartzeko.

Hortaz gainera, Gasteizko Ordezkaritza honetan jarria du Euskaltzaindiak bere Hiztegi Batzordearen kokalekua, eta joan deneko urteetan fitxagintzan eta abar hasia da jadanik.

Gehiago oraindik. Euskaltzaindiaren aginduz eta gure komunitate autonomoko Jaurlaritza eta hiru Diputazioen laguntzaz Koldo Mitxelena eta Ibon Sarasola jaunak egiten ari diren Euskal Hiztegi Orokor horrek ere hemen, etxe honetan, izango du bere lantegia. Hiztegi hau, uste dugunez, euskara sustraitik aztertu eta menderatu nahi dutenentzat iturri ezin utzizkoa gertatuko da. Langintza haundi horri emango dio, bada, ostatu etxe honek. Bihar, etzi eta etzidamu esan ahal izango da Gasteizko San Antonio kaleko 41. etxe hartarik irten zela obra haundi hau.

Gainerakoan, Arabako Diputazioari eskerrak ematea beste lanik ez zait geldi-zen, eta halaxe egiten dut, bihotz-bihotzez gainera.

---

(1) Cf. *Euskera* (1982), 712.

Señoras, señores:

En unión con la Sociedad de Estudios Vascos y el Rectorado de la Universidad del País Vasco, la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia celebra hoy la inauguración de los nuevos locales de su sede o Delegación de Vitoria-Gasteiz. En realidad se trata solamente de cambio de lugar. Efectivamente, la Delegación que se inauguró ahora hace casi tres años en la calle Vicente Goicoechea pasa a este hermoso edificio de la calle San Antonio, n.º 41.

Me permitiréis que vuelva a repetir algo de lo que dije entonces al inaugurar la sede en la citada calle Vicente Goicoechea:

“En calidad de Presidente de Euskaltzaindia, me limitaré a recordar brevemente los lazos con los que la Academia de la Lengua Vasca ha estado en todo momento, desde su fundación, vinculada a esta provincia de Alava y a su Diputación Foral. Euskaltzaindia fue fundada, como es sabido, en 1918-1919, por las cuatro Diputaciones de nuestro país, o sea, de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. Las cuatro de mancomún se comprometieron a darle su respaldo, reconocimiento y ayuda. Y por lo que respecta a la de Alava podemos decir, y debemos decir, que aun en años difíciles para nuestra Institución, la Diputación de esta Provincia se ha señalado por su particular atención y ayuda a la Academia.

Euskaltzaindia, por su parte, siempre ha procurado mantenerse en esta línea fundacional u originaria; queremos decir, que su propósito, lo mismo antes que ahora, es mantener y aun robustecer, si cabe, sus lazos de dependencia con las mencionadas Diputaciones. Por ello mismo, las Delegaciones que en las capitales del país tenemos, queremos que, a poder ser, estén ubicadas en locales de la respectiva Diputación” (1).

Y bien, dirá tal vez alguien, ¿para qué son estas Delegaciones? ¿Qué se va a hacer en ellas?

Respondiendo a estas preguntas, dije también entonces:

“El primer trabajo de las Delegaciones de Euskaltzaindia es atender en ellas al despacho de las consultas y asuntos relacionados con la lengua vasca, provenientes de la respectiva provincia o región. Al frente, como director responsable de cada Delegación, Euskaltzaindia pone a un académico de número que a poder ser resida en el lugar donde está ubicada la Delegación. En nuestro caso el director responsable de la Delegación de Alava es el académico de número Sr. Enrique Knörr.”

Aparte de esto, la Academia ha establecido o fijado precisamente en esta Delegación de Alava la oficina, laboratorio o despacho central de su Comisión de Diccionario. Ya en la sede de la calle Vicente Goicoechea se inició la adquisición de material bibliográfico, la confección del fichero, etc.

Pero hay más. Ahora la nueva sede de San Antonio 41 va a albergar también en su seno la oficina que bajo la dirección de los Sres. Luis Michelena e Ibon Sarasola trabaja en el Diccionario General Vasco, por encargo de la Academia y con la ayuda del Gobierno Vasco y de las tres Diputaciones de nuestra Comunidad autónoma. Este Diccionario General Vasco constituirá —así lo creemos— una fuente y un instru-

---

(2) Cf. *Euskera* (1982), 712-713.



mento indispensable para el progreso de los estudios euskéricos. Esperamos, pues, que en el futuro se podrá decir con orgullo: “Esta gran obra salió de aquella casa de la calle San Antonio n.º 41 de Vitoria-Gasteiz”.

A mi, señoras, señores, no me queda otra cosa sino dar las gracias de todo corazón a la Excm. Diputación Foral de Alava.



## V. DIALEKTOLOGI JARDUNALDIAK

Gasteiz, 1985, Urtarrilak 25-26

Fr. L. Villasante

### Euskaltzainburuaren hasiera-hitzak

Adiskideak:

Nik bezin ongi dakizue Euskal Herriko Atlas honen asmoa, asmo guztiz zaharra dela, zaharraren zaharraz zahar okitua kasik, baina orain arte, laguntzarik eta aukerarik izan ez delako, burutu gabe dagoena.

Orain badirudi Eusko Jaurlaritzak eskeinutako laguntzarekin lehenbiziko aldiz izango dugula lan haundi honi buru emateko parada. Hortaz, Euskaltzaindia konprometitua dago buru-belarri arazo honetan.

Egia da, lehenago ere, bakoitzak bere erara eta bere garaiko premia, baliabide eta ikuspuntuaren arabera, Bonaparte Printzeak lehenik, eta Azkuek gero, burutu zituztela euskararen Atlas edo zerbait holako dei daitezkeen lanak. Azkueren aginduz egin zenak *Erizkizundi Irukoitza* du izena eta Ana Mari Etxaideren ardurari eta Bizkaiko Diputazioaren laguntzari esker, argitaraberri du Euskaltzaindiak.

Lan horiek beren garairako onak ziren eta orain ere mesede egin diezagukete, noski; baina ez dira aski. Gaurko erizpideekin eta tresnekin egin daitezkeen bezalako Atlasa nahi eta behar eta merezi du gure herriak.

Lan honen garrantziaz jabetzeko, aski da gertakari honi ohartzea: Euskal Herria hizkuntza guztiz bereziaren jabe da, inguruko hizkuntzekin ahaidetasunik ez duen hizkuntzaren jabe, alegia. Eta bai etxe barnekoek eta bai arrotzek ere jakin nahi baldin badute hizkuntza hau zer-nolako den bere egiturari, bere muinean, bere zabaleroan eta errealitateak dituen ñabarduretan, behar-beharrezkoa dugu honelako lan bat. Eta orain egiten ez badugu, agian bihar beranduegi izanen da.

Bai, beranduegi, zeren gaurko komunikabide eta hartu-eman ugariekin, tokian tokiko hizkerak nahasteko eta berezitasun asko eta asko galtzeko zorian baitaude. Esate baterako, ni bizi naizen Arantzazuko auzoan garbi ikusten da hau. Oñati aldeko euskara bizkaitartzat jotzen da, baina berezitasun asko ditu. Gaur, ordea, berezitasun horiek galduaz doaz, edo erdararen edo gipuzkeraren edo euskara batuaren faboretan. Inoiz esan du Mitxelenak Oñatiko euskarak behiala Araban egiten zenarekin duela, agian, antzik gehiena.

\* \* \*

Ezagutze edo jakite huts-soilaz landara, ba ote du beste helbururik gure Atlas honek? Mitxelena Debako Jardunaldietan gogoratu zigunez (1), Azkuek eragindako Atlasak bazuen helburu nagusi eta jakin bat, argi eta garbi aitortua. Azkue berak hitz hauekin adierazi zuen: "Erizkizundi irukoitza. Euskaltzaindiak bere erabakiak errotsuago izan ditezen erriari aurkezturiko irutzuk erizkizun".

Beraz, garbi dago. Batasunerako hartu behar ziren erabakiak ongi oinarrituak egon zitezten, egiten zen Erizkizundi hura. Azkueren deskargutan esan behar da hark ez ziola behin ere Atlas izena eman bere Erizkizundiari. Berak inkesta bat egin nahi zuen, xede jakin batekin pentsatua. Datu fidagarriak bildu nahi zituen, alegia, gero batasunerako erabakiak hartzen zirenean, handik moldatuko zen euskara standard hori herriko hizkera bizitik ahalik eta hurbilen egon zedin.

Zernahi gizaz, esan behar dugu orain Euskaltzaindiak egin nahi duen Atlasak ez duela horrelako ez bestelako helbururik. Euskararen errealtatea ezagutu, den bezalakoxea atxeman eta jaso, ahalik eta zehazkiena: besterik ez, hori da gure xedea. Jakina, horrek ez du esan nahi gure bilakuntzen ondorioak, gero, bai batasunerako, eta bai gutien uste diren beste alor edo zereginetarako ere ez direla baliagarri izango. Bai, izango dira, noski. Baina guk, daueneko, ezagutze huts-soila dugu xede eta helburu.

Langintza hau, bestalde, zaila da, ez da nolanahe egitekoa; ongi egingo baldin bada —eta bestela, ez egitea hobe—, prestakuntza luze eta arduratsua eskatzen du. Eta zinez, nahiko luzea izan da orain arte Euskaltzaindiak eskeini dion prestaeragaraia. Boskarren Jardunaldiak deitzen ditugu oraingo hauek. Horrek esan nahi du beste lau egin izan direla aurretik. Lehenbizikoak Deban egin ziren 1981ean (2). Bigarrenak Donaisti-Ibarren 1982an (3). Hirugarrenak Markina-Xemeinen 1983an (4). Eta laugarrenak Uztaritzen 1984ean.

Lan korapilotsu eta aitzingibel askotakoa da Atlasarena. Ongi prestatuko bazen, korapilo asko askatu eta hari-mutur asko lotu beharra zegoen. Baina alderdi denak edo gehienak lau Jardunaldiotan aztertu eta eztabaidatu dira. Orain boskarren Jardunaldiei ematen diegu hasiera. Eta nik uste dut oraingo hauekin bukatuko dela prestakuntza-garaia deitu dugun hau.

Gure kasuan, euskararen kasuan esan nahi dut, Atlas ganorazko eta behar bezalako bat egin nahi bada, garrantzi handieneko puntua Galdekizunarena da —nik uste, eta besteak beste—. Aukerako Galdekizuna, ongi pentsatua eta alde aurretik egin edukitzea, alegia. Honen arrazoia garbi dago: euskara mintzaira bat gutziz berezia izanik, beste hizkuntzetarako egin diren Galdekizunak askotan ez digute balio. Erantzunetan euskararen funtsa edo egitura berezi hori agertuko baldin bada, galderak ere erantzun horiek sortarazteko egokiak behar dute izan; hots, euskararen egitura kontutan hartuz asmatutako galderak.

Aste honen hasieran egona da Gotzon Aurrekoetxea Arantzazun enekin eta Atlasa prestatzen ari den batzordeñoari buruz berriak ekarri zizkidan, beren artean egindako bileren agiriak, eta abar. Berak esan zidanez, Galdekizuna honela dago sail-

(1) "Sobre las necesidades de una exploración lingüística de Euskal Herria", *Euskera* (1981), 873.

(2) "Euskaltzaindiaren I Dialektologi Ikastaroa", *Euskera* (1981), 917.

(3) "Dialektologiako Jardunaldiak Donaisti-Ibarren", *Euskera* (1982), 677.

(4) "Dialektologia barne Jardunaldiak", *Euskera* (1984), 399.

katua: Fonetika-Fonologiari buruz 57 galdera. Izenen Morfologiari buruz 862 galdera. Aditzen Morfologiari buruz 294 galdera. Zenbait arazo morfosintaktikori buruz 41 galdera. Guztira 3.567 galdera amankomunak. Ba omen dira, horietaz landara, beste 230 espezifikoak deitzen dituztenak.

Hau Galdekizunari buruz. Beste arazo bat, axola handikoa berau ere, da, nik uste, euskararen eremuan inkestak egiteko zein puntu edo toki behar diren hautatu. Hizkera bereziak dituzten bazterrak, ene ustez, aparteko modu batean kontutan hartzeak dira. Ni ez naiz inor hori erabakitzeke, baina gorago esan dudan arrazoiagatik, agian Oñati aldea ez da baztertu behar. Eta hura bezala, egongo dira beste batzuk, noski.

Beste puntu bat da traskribaketa egiteko sistema batbera benok erabiltzea.

Eta, azkenik, inkestatzaileak behar diren bezalakoak edukitzea. Behar den trebetasun eta jakintzaz hornituak, alegia.

Baina guzti hori zorionean badugu jadanik.

Muga hontaraino heltzeko prestakuntza luze eta zaila behar izan da: egon dira tirabirak, atzera-aurrerak, eritzien elkar aurkezteak, beste hizkuntzen Atlasetarik ere neurri bateko ikasbide eta jarraibide hartzea, euskararen barneko funtsa eta berezitasunak non diren jakiteko azterketak, etab. Bidea luze izan da eta aldapatsu, baina noizbait gainditu dira oztopo denak edo gehienak.

Lehen esan dudanez, Boskarren Jardunaldiei ematen diegu gaur hasiera.

Jardunaldi hauetan, batzordeak prestatutako Galdekizuna aurkezten zaigu, guk azter dezagun. Arestian esan dut zein axola handikoa den Galdekizuna Atlas on bat, eta bereziki euskararen Atlas on bat, egiteko. Badakit pertsona trebe eta jakintsu direnak ibili direla tartean. Hala ere, Jardunaldi hauetan Galdekizun hori aztertu behar dugu. Nik uste dut aztertu ezezik, onartu ere egingo dela, beharbada ohar batzuekin. Eta azkenik, egon daitezkeen oharrek kontutan hartu ondoren, Otsaileko batzarrean birretsia emango litzaioke Galdekizunari. Ikusten duzue, bada, gaur eta bihar egingo ditugun bilerokin urrats handi bat emango dela.

\* \* \*

Bukatzeke, Mitxelenak Deban esan zituen hitz batzuk honera aldatuko ditut:

“Janzkera eta orrazkeretan ez ezik, gure sail honetan ere bolarak izaten dira. Badirudi, gainera, eta hau da okerrena, ez direla hizkuntz-atlasak, ezta norberaren hizkuntzarenak direnean ere, inoiz izan ziren bezain tentagarri gazte jendearentzat. Lanbide horrek ez du, bada, langilea multzoka eta samaldaka erakarriko. Uste dut, halaz guztiz, eta espero dut ez diogula gurean deiari entzungor egingo. Euskarari, eta euskarari ez ezik baita euskaldunen eta Euskal herriaren izen onari ere, horrenbeste zor diogula esango nuke. Gu bakarrik baikara inguru hauetan biluzgorri eta lotsagarri gelditzen garenak sail horretan. Eta lotsaizunik ez balego ere, gogoan eduki behar genuke zenbat aurreraziko lukeen obra horrek hizkuntzaren ezaguera, burutan aterako bagenu inoiz edo behin. Eta orain da garaia, geroxeago igarora izango duguna, non zer eta nola esaten den ongi erabakirik uzteko. Halabiz” (5).

(5) Cf. **Euskera** (1981), 881.

Mitxelenak esan digunez, lan hau egungo gazteentzat hain tentagarri ez bada ere, duen axolagatik eta etorkizunerako ekarriko dituen ondorioengatik gogoz eta gartsuki hartzeko modukoa dela uste dut. Inkestatzaile multzoa egotea ere beharbada ez da on eta ez desiragarri. Lana aguroago egingo litzateke, bai, baina kalitate eta batasunaren kaltetan.

Dena den, lanean hasteko prest zaudeten inkestatzaileei eta agian oraindik etorriko diren berriei, eta orain arteko prestaera neketsua burutzen lagundu duten guztiei, *Eskerrik asko!* Euskaltzaindiaren izenean.

## V. DIALEKTOLOGI JARDUNALDIAK

*Gasteiz, 1985-I-25/26*

*G. Aurrekoetxea*

Gasteizen Euskaltzaindiak duen Ordezkaritza berriaren iraugurapena dela eta “Atlas linguistikoaren galdekizunari buruzko proposamenaren azken azterketa eta onarpena”z iharduteko Euskaltzain, atlaserako Batzorde Aholkularikide eta Batzorde Teknikokideok bildu gara Gasteizen Urtarrilaren 25 eta 26 an.

Etorri direnak: L. Villasante, J. Haristchelhar, P. Altuna, A. Irigoien, E. Knörr, L. Mitxelena, P. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, eta J. M. Satrustegi euskaltzainak; A. M. Echaide, B. Oiharzabal eta K. Rotaetxe, urgazle eta aholkulariak; G. Aurrekoetxea, J. M. Etxebarria eta X. Videgain lanaren aurkeztaile; eta B. Amundarain grabatzaile lanetan.

\* \* \*

Urtarrilaren 25eko arratsaldeko 5etan Euskaltzainburuaren sarrera hitzekin ematen diegu hasiera bilerei.

Orain arte aurrera eraman ezin izan den asmo zaharra dela euskararen atlasa esanez hasten du bere hitzaldia. Arlo honetan gure Herrian aitzindari izan ditugun L. L. Bonaparte eta R. M. Azkueren lanak aipatzen ditu. Ondoren atlasaren helburua “euskararen errealitatea ezagutu, den bezalakoxea atxeman eta jaso, ahalik eta zehazkiena” dela azpimarratuz.

A. Villasanteren ustez V. Jardunaldi hauekin amaiera ematen zaie prestakuntza saioei. Galdekizunaren egokitasuna, inkesta puntuak eta abar aipatu ondoren L. Mitxelenak Debako jardunaldietan atlasaren premiaz esandako hitzak bere eginez bukatzen du.

\* \* \*

IV eta V. jardunaldien artean egindako lanen kontu eman du G. Aurrekoetxeak ondoren. Zertan aritu izan diren denboraldi honetan, izan dituzten arazoak, bakoitza zein dedikazioz aritu den, lan-sistema eta aurkezten den galdekizunaren ezaugarri garrantzitsuenak aipatzen ditu.

Ondoren B. Oiharzabalek G. Rebuschik Uztaritzerako prestatu zuen lana zertan den galdetzen du. Erantzunez galdekizuneko “zenbait arazo morfosintaktiko” atalean kokatzen dela esaten zaio, eta bere garaian aztertuko delakoan bertan behera uzten da.

L. Villasantek galdekizunarekin hasteko berriz ematen dio hitza G. Aurrekoezeari fonetika-fonologia atalaren aurkezpena egin dezan.

Atal honek Uztaritzen aurkeztu zen txostena du oinarri. Han agertzen ziren fenomenoak, batzu lexikoaz baliatuz aztertuko dira, beste batzu morfologian; multzo handi bat kanpoan utzi da; eta gutxiengo bat fonetika-fonologia atalean galdetuko da. Atal honek beraz, bi fenomeno multzo aztertzen ditu: i eta u bokal edo bokalerdiak ondoko silabako a letran duten eragina, eta euskaran ematen diren sandhi batzu. Guztitara 51 galdera.

Bestalde, testuinguruez ahal denik eta hitz hedatuena bilatu dituztela, esaldi baten barruan kokatu (errezago egiteko lekukoari) eta fenomeno bakoitza lortzeko, inkestazailerari lagungarri gertatuko zaiolakoan, 3/4 galdera jarri dituztela esanez amaitzen du.

Aurkezpen-azalpenaren ondoren eztabaidara jotzen da. Bi ohar orokor egiten dira. Alde batetik galdekizunaren atal honetako zenbait galderatan fonetika eta morfologia nahastu egiten direla eta bereiztu beharra legokeela. Eta bestetik zenbait fenomenotan sistematizazio falta ematen dela.

Bi ohar orokor horien ondoren fenomenoz fenomeno aztertzen da txosten osoa, zenbait testuinguru aldatu eta berriak ezarriz.

\* \* \*

“Izen Morfologia” atalaren aurkezpena J.M. Etxebarriak egiten du. Izen morfologia “Morfosintaxia” atalaren lehen zatia da, bigarrena “Aditz morfologia” eta hirugarrena “Zenbait arazo morfosintaktiko” direlarik. Izen morfologia atal hau bi zatitan bananduta dago: izenaren deklinabidea eta gainontzeko guztia. Lehen zatiak 491 galdera ditu, bigarrenak 371. Osotara 862 izanik.

Izenaren deklinabidean bost bokal, diptongo (kasu bat) eta kontsonantez (kasu bat baino ez) amaitutako izenena burutu da, bakoitza mugagabe, singular eta plurala, eta leku-denborazko kasuetan bizidun/bizigabe bereiztuz.

Gainontzekoen morfologian konparaketa, partitiboa, zenbakiak, erakusleak (hiru graduen deklinabide osoa), indefinituak, izenordainak (ni, gu eta zuek-en deklinabide osoa), eta galdekari eta berauen eratorriak (nor, zer, zein, non, nola...; edozer, edonon, ...; norbait, zerbait, nonbait, ...; inor, ezer, inon, ...).

Kasuak eta bestelakoak errepresentatzeko erabili den nomenklatura, galdekizunaren egitura, deklinabide kasuen ordena, kasu bakoitzean testuinguru berdintsuak erabiltzea, deklinabidean hitzaren amaiera bakoitzarentzat hitz altxorra, e. a. aipatzen dira aurkezpenean. Elkarrizketa-eztabaidan galdekizunaren atal hau bere osotasunean hartuz murriztearen aldeko eta dagoen dagoenean uztearen aldekoen artean eztabaidatxo bat sortzen da, gehiengoa ez murriztearen aldeko agertuz.

Bestalde, askotan esaldi osoa itzularaztea ez dela nahitaezko, ez egoki, aipatzen da, ulergarritasuna kentzen ez den bitartean batik bat. Kasu hauetan aski dela euskaraz agertzea nahi duguna bakarrik galdetzea.

Ondoren testuinguruak aztertzeari ekiten zaio ordenarik gabe, handik eta hemendik; alde batetik gaztelerazko esaldiak zuzenduz eta bestetik testuinguruen esa-



nahia, zenbait kasutan euskaltzain bati baino gehiagori barregarri iruditzen zaizkion esaldiak komentatuz.

Iluntzeko 9ak aldera ematen zaio amaiera ekitaldiari.

\* \* \*

Urtarrilaren 26ko goizeko 9,30etan jarraiera ematen zaio izen morfologiari, elkarrizketa J. M. Etxebarriak gidatzen duelarik. Honako honetan 372. enetik aurre-rantz aritzen gara. Zati honetan distributibo bat (“hiruna mila pezeta”..), “haren/bere-”, “denak” izenaren ondoren, eta neurrietan “bost litro ardo baino gehiago edan du” ala “bost litro baino ardo gehiago edan du” edo horrelako esaldiren bat sartzea onartzen da.

\* \* \*

10'15 ean aditzaren morfologia hartzen da aztergai. Aurkezpena X. Videgainek egiten du. Aldez aurretik atal honetan sortu den adostasun eza utzi nahi du agerian. Aukeratu den sistemaren ezaugarriak eta nomenklatura azaltzen ditu, orain arte ez baita gehiegi erabilia izan gure artean. Sistema berriaren azalpena bukatu bezain laster eztabaidatxo bat sortzen da sistematizazio zaharra utzi eta berria hartzeko izan diren arrazoiez, eta proposatzen den sistemaren zenbait ezaugarri. Eztabaidan jende askok hartzen du parte, azkenez L. Villasantek mozten duelarik.

Atal honek aditz neutro eta alokutiboa barne hartzen ditu; aditz laguntzaile (lehen eta bigarren laguntzailea) eta trinkoa: guztitara 294 aditz forma.

Aditz defektiboen hutsuneaz galdetzen delarik, egileek puntu honetan izan zuten eztabaida luzea komentatzen da.

11'50 ean aurkezpena amaitu orduan atsedenaldira bat hartzen da, 12'15 ean elkarrizketa-eztabaidari hasiera emateko. Elkarrizketa hau J. Haritschelharrek gidatzen du. Eta berean testuinguruak egokitzeari ekiten zaio alde batetik; eta bestetik, zenbait zuzenketa proposatzen dira, hala nola “-iro-” ren ordez “-iro”; berdin -eza, -di; alokutiboetan ia zukako formarik erabiltzen den galdetu beharko litzatekeela adierazten du L. Mitxelenak.

Ordu bietarako hamar minutu falta direla ematen diogu amaiera goizeko ekitaldiari.

Arratsaldeko 4etan “Zenbait arazo morfosintaktiko atala aurkezten du X. Videgainek. Perpaus bakuna baino ez duela aztertzen esanez hasi du bere azalpena, eztabaidagarria dela jakin arren; honen ondorioz ez dela ez nominalizatorik ezta perpausa txertatueterako erabiltzen den juntagailurik galdetzen. Perpaus bakunean mugatzearen arrazoietan azpimarragarriena: menpeko esaldietako juntagailuek galdera bidez jasotzeko duten zailtasuna aipatzen du.

Atal honetan galdetzen diren fenomenoaren artean hauek aipa daitezke: aditz bazturen erregimena; “ikusi diot” eta horrelakoak; behar nahi, ahal, ezin, gehi aditz irangaitza; ari, ibili, ihardun, egon...; galdegaia; alokutiborik erabiltzen den galdera eta txertatuetan... Guztitara 41 galdera.

Ondorengo elkarrizketan zenbait fenomeno sartu ala sartu ez eztabaidatzen da (ahantzi + aditza -t(z)en/-t(z)ea; asko + k; etorri zatoz; egin daroa; -t(z)eke...). Kon-

trolezko galderak egin beharra dagoela, bestalde, konprobatzeko; eta testuinguru zenbaitzuren egokitzapena aztertzen da.

\* \* \*

Lexikoaren aurkezpena J. M. Etxebarriak egiten du. Aurkezten denaren oinarria Uztaritzen X. Videgainek aurkeztutako txostena dela esanez hasten da. Han bertan entzun ziren oharrei jarraituz moztu beharrez ia erdian gelditu delarik. Hala ere mozketan ez dela arrazoi linguistikorik aurkitu aipatzen du, extralinguistikoak baino. Eta mozketan honetan Uztaritzeko txostenak zeuzkan 30 gaiak mantendu egin direla. Guztitara 2.368 galdera, amankomunak, toki guztietan galdetuko direnak, eta 249 galdera espezifikoko, zenbait tokitan baino ez direnak galdetuko; guztitara 2.617 galdera.

Aurkezpena amaitu ondoren elkarrizketa zabaltzen da J. Haritschelharren gidaritzapean.

Elkarrizketa honetan zenbait puntu ezberdin ukitzen dira. Batzuren ustez lexiko atal hau oso zaila da eta ondo burutzeko oso inkesta-egile trebea izan behar da.

Halaber, atal honen luzeeraz kezkatuak murriztearen aldekoak ere azaltzen dira, eta zenbait hitz arrunt atal honetatik morfologiara pasatzearen aldeko. Puntu honetan egileek beraien artean ere eztabaidatua izan dela adierazten dute, baina galdetikuzun osoan mantentzen den erizpidea hobetsi dutela, hots, fenomeno bakoitzak bere galdera izan dezala, maiz galdera batek bi atentziogune dituenean biak kontutan hartu beharrik zaildu egiten duelako inkesta-egilearen lana.

Itzulpenaren arazoak (“moule” hitzean adibidez), lekukoari adierazteko hitz zailak eta beste zenbait puntu ere aipatzen da.

\* \* \*

“Beste gai batzu” titulupean ondoko hauek plazaratzen ditu G. Aurrekoetxeak:

1. Atala atalka ala dena batera burutu? Hau da, ala lehenbizi dena jaso eta atalez atal argitaratu ala atal bat jaso eta argitaratu, beste bat jaso-argitaratu... amaitu arte?

Atalka egitearen alde eta kontra zenbait arrazoi azaldu ondoren era honetan egitearen alde agertzen da taldearen izenean.

Aho batez onartzen da atalka egitea, elkarrizketa labur baten ondoren.

Beraz, lexikoari dagokionez era honetan bananduko da:

I atala: 1-4 gaiak.

II atala: 5-7 gaiak.

III atala: 8-17 gaiak.

IV atala: 18-30 gaiak.

2. “Galdera fitxa” aurkezten du zenbaki bakoitzean zer joango litzatekeen azalduz.

3. Inkesta-puntuaren proposamena. Mapa eta herrien zerrenda batez azaltzen da.

Aholkulariak oharrak igortzeko gelditzen dira.

4. “Testu-libreak”: Lekuko bakoitzarekin 15 minututako testu libre bat grabatzeak merezi duen ala ez.

L. Mitxelenak baietz erantzuten du eta galdekizunaren amaieran egitea proposatzen. Hala egitea erabakitzen da.

5. Azentuaren arazoa. Aurkezpenean G. Aurrekoetxeak beraien ustetan markatu behar dela adierazten du.

L. Mitxelenak baietz esaten du, gauza inpresionista (lehenbiziko maila) baino ez bada ere. Hala ere nola markatu behar den horretan ez da adostasun osoa lortu.

L. Mitxelenak azkenez proposamen bat egiten du: “Zinta batzu hartu eta egin saio bat; markatzen joan lanean ibiliko direnak eta beste batzu” erizpideak bateratzeko.

\* \* \*

Bilerok amaitzeko J. Haristchelharrek egiten ditu azken hitzak eskerrak emanez guztiei eta batez ere aholkulariei eman duten laguntzagatik.



## **“EXPOLANGUES” HIZKUNTZEN ETA NAZIOARTEKO KOMUNIKABIDEEN III. ARETOA**

*1985.eko Otsailaren 22an*

*J. L. Lizundia*

1984.urtean EXPOLANGUES delako Erakusketan parte hartu zuen Euskaltzaindiak, soilik bere izenean, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren diru babesak gehien bat laguntzen zuelarik.


Aurtengorako ere deia egin ziguten Paristik, eskeintza hau Jean Haritschelharren izenean zetorrelarik. Urriaren hasieran Euskaltzainburo-ordeak, horretaz, gutun bat zuzenean idatzi zion Joseba Arregi, orduko Kultura Saileko Kontseilariari eta hil horren 10ean bilera bat egin genuen, Bilbon, Haritschelhar berak, Jose Antonio Aranak, Rosa Mari Arzak, Juan Jose Zearretak eta bostok, antolakizuneko lehen pausak emateko. Urriaren 19an, Euskaltzainburoak sinaturiko eskabide ofizial bat egin zitzaion Joseba Arregi jaunari, Jaurlaritzaren babesa eskatuz batetik, eta gurekin batera elkarrekin Parisera joatea eskatuaz. Horren ondoren, abenduaren 7an, bilera bat izan genuen Lakuan, Haritschelhar, Arana, Zearreta eta laurok, Euskaltzaindiaren antolatzaile bezala eta Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal, Martin Ugalde, Eneko Oregi eta Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga, Jaurlaritzatik, bertan zirelarik. Hemen finkatu genituen bi Erakundeon arteko partaidetzak. Guzti honen kontu eman zen, Durangon egindako Zuzendaritzako batzarrean eta Abenduko hileroko batzarrean. Harez gero, zenbait antolakizun bilera egin ziren, bai Arbieton eta bai Lakuan, prestakuntza lanak burutzeko.

Euskaltzainditik Erakusketaren hasiera bezperarako, alegia, Urtarrilaren 30erako, Jose Antonio Arana eta biok joan ginen, standa aurretiaz prestatzeko. Biharamunean hasten zen Azoka eta han ziren, J. Haritschelhar, Euskaltzaindiaren arduraduna. Jaurlaritzatik, Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal, Kultura Saileko Kontseilari-ordea; Martin Ugalde, Sail bereko Euskararen Arazoetarako Zuzendaria eta sekretaria bi, Maite Sukia eta Maite Segurola etorri ziren. Igandean, Jose Antonio itzuli zen beroni txanda egitera, Rosa Mari Arza joan zelarik. Rosa Marik eta biok desmontatu genuen standa biharamunean eta berrigorri “Transports Gondrand” etxearen bidez Irunera merkantzia.

Ia 300 stand zeuden, 5 iladatan kokaturik, 450 Erakunde edo Elkarteren izenean. Euskaltzaindia A-68 zenbakidun standean zegoen, beraz, lehen kalean. Agian, iaz hobeto zegoen B iladan, B-C kalea erdirengoa bai zen. Urtarrilaren 31an, goizeko 10etan zabaldu zen EXPOLANGUES eta Otsailaren 5ean, arratsaldeko 7etan itxi. Egun guztietan, eguerdian hertsu gabe, ordutegi hori zuen, salbu astelehenean, egun honetan, gaueko 9ak arte egon bai zen irekirik.

Aurten bi aldiz alokatu genuen batzar edo mahainguru aretoa. Lehendabizi, Urtarrilaren 31an, arratsaldeko 5 t'erdietan, bertan parte harturik: Jean Haritschelhar eta Martin Ugaldek, azaldu zuten gaia: "La langue basque (situation et perspectives)" izanik. Otsailaren 4ean, goizeko 11 t'erdietan, izan zen bigarren mahaingurua: "La langue basque dans l'enseignement" gaiaz eta parte hartzen zutelarik, J. Haritschelharrengandik aparte, Itziar Idiazabal, Jaurilaritzako Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren Zuzendaria eta Mikel Zalbide, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzu Burua. Honetaz, zehatzago mintza daiteke Haritschelhar jauna bera ere.

200.000 lagun baino gehiago pasatu omen ziren 5 egunetan Azokatik, iaz baino doblea, diotenez. Bisitari asko izan genituen egun horietan, mota guztietakoak, hala nola: ostiralean, Aina Moll, Kataluñako Generalitateko "Directora de Política Lingüística"; larunbatean, Joan Raventos, Espainiako Enbajadorea Parisen; astelehenean, Jean-Pierre van Deth jauna EXPOLANGUESen Zuzendari Nagusia eta asteartean, ez zuzenean gure stand aurretik, baina bai ondotik, Jean-Pierre Chevenement jauna, Hezkuntzako Ministraria. Gure standera hurbiltzen zirenetatik, asko, hizkuntz irakaskuntzan interesatuak ziren; beti bezala, euskararen bere berezitasunagatik kezkatuak edo arduratuak; euskararen egoera sozio-linguistikoa eta juridikoaren berri jakin nahi zutenak, bai Hezkuntza aldetik, eta bai Administrazio aldetik; beste hizkuntza txiki edo berezietakoak, gurearen berri edo harremanekin interesatuak, hala nola, armeniarak, korearrak, bretoiak, hebraiarrak, ozitaniarrak, bereberak, turkiarrrak, Yugoslaviarrak, Westhock-eko flamendarrak eta abar, noski, beti bezala, katalanekin izan genituen harremanik gehien. Azpimarratzekoa da Pariseko Euskal Etxekoekin harreman ugari izan genituela eta baita ere laguntza, batez ere, Allande Boutin eta Olivier Girygandik. UNESCOkoekin ere harremana izan genuen, hain zuzen, han agertu bai zen, lehendabiziz, UNESCOren Albistaria euskaraz.



Komunikabideekin aski harreman izan genituen. Euskal Telebista bertan izan zen, Velez de Mendizabal, Haritschelhar eta niri elkarrizketak eginaz eta Martin Ugaldere mahaingurua hartuaz, baita ere, Erakusketaren bista ugari hartuaz eta Zuzendari Nagusiari ere, elkarrizketa bat eginaz. TV3koek ere han egon ziren eta baita “Radio Nacional de España”ko eta Baionako “Radio France”koak ere agertu ziren. Hemendik, batez ere, Euskadi Irratia arduratu zen informazioaz, Paris inguruan bizi diren Frantziako minorien “Radio Pays” delakokoak ere elkarrizketa bat egin zizun.

Gure standa iaz baino askoz hobeto egon zela esango nuke, liburu gutxiagorekin, grafiko ugariagorekin, eta abar. Hala eta guztiz ere, badago zer hobetu, batez ere, bai guk, bai Velez de Mendizabal eta bai Martin Ugalderek uste dugulako HABE eta EITB egon beharko liratekeela. Stand handiago batetan, batez ere, HABEK izango luke xede berezi eta garrantzitsu bat hizkuntzaren irakaskuntzaz, zer erakutsi eta zer ikasi duelarik, batek idatzi zigun bezala. Honetaz esan behar da, orri batzuk jarri genituela bakoitzak bere kritika edo atxikimenduak agertzeko, interesgarri izanik askok jarritakoak. Jaurlaritza eta Euskaltzaindiaren koedizioz, euskarari buruzko folleto asko banatu ziren. Euskarazkoa, Euskaltzainburuarena izanik; frantsesezkoa, Pierre Lafitterena; gaztelaniazkoa, Antonio Tovarrena eta ingelesezkoa, Luis Mitxelenarena. Gure standean telebista bideoarekin jartzea interesgarri izan zen: *Tasio*, *Arrantza*, *Bertsolaritzaren historia*, *To be or no to be*, *Dallas*, zenbait dokumental eta informatibo eman ziren, besteak beste. Kultura Sailekoen eta gure ustez, datorren urterako lehenagotik hasi behar da prestaketa, xedeak zehatzago finkatuaz eta agian, Euskaltzaindiak stand handiago batetan, laurdena aski izanik. Gure aparte ere baziren euskal liburuak, Espainiako standean, hain zuzen, INLEK guri erosiak.

“EXPOLANGUES” orokorki: esan behar da geroago eta gehiago, Erakusketa hau munduko hizkuntzen Feriari garrantzitsuena bihurtzera doala, jadanik ez bada; euskarak hor egon behar du, beste hizkuntza txikiekin batera, baina baita ere beste hizkuntza nagusien ondoan. Baina batez ere, hizkuntzen irakaskintzari murgildua da eta presezki, horretaz informatikak gero eta gehiago duen presentzia nabarmena da ageri.

Euskaltzaindiaren Bibliotekarentzat ere liburu eta dokumentazio interesgarriak ekarri ziren, baina agian, erosketa ugariago eta planifikatuagoa egin beharko litzateke EXPOLANGUESen bertan eta batez ere, Biblioteka Nazionalean kopiak eta abar gureganatu. Guzti honetaz, nik baino zehatzago hitz egin dezake Jose Antonio Aranak.



*Eskumatatik ezkerretara: Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiko Idazkariordea; Joan Raven-tós, Espainiako Enbaxadorea, Parisen, eta beronen bi diplomazi laguntzaile.*





## LEKAROZKO IV. BARNE JARDUNALDIAK

*J. M. Satrustegi  
Idazkaria*

Lekarotzen egin zituen Euskaltzaindiak 1985.eko Apirilaren 29 eta 30ean bere IV. *Barne Jardunaldiak*. Bileretara etorri ziren: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, G. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu eta J. San Martin euskaltzainak, J. A. Arana Biblioteka batzordeko idazkaria, R. Badiola Argitalpen batzordekoa, J. M. Etxebarria Dialektologiakoa, P. Goenaga Gramatikakoa, J. L. Lizundia idazkari-orde eta Onomastika batzordeko idazkaria, M. Zalbide Hiztegigintzakoa, J. J. Zearreta Ekonomia eta Etsaminetakoa, I. Unzurrunzaga Oinarrizko Euskara batzordeko idazkaria.

J. L. Davant eta L. Mitxelena euskaltzainek, hala nola A. Aranburu Bertsolari-tza batzordeko idazkariak, ezin etorria adierazi zuten.

### Martxoaren 29

#### Euskaltzainburuaren agurra

Bi urtetik behin egin ohi ditugun bilkura hauei *Barne-Jardunaldiak* deitzen diegula esanez hasi zen. Euskaltzaindiak hartu duen zabalkundea ikusirik erantzunkizun haundia du, eta aurreko hiru Jardunaldien gai nagusi edo helburuak aipatu ondoren, laugarren honen aztergaia akademi lanak antolatu eta bi urterako plangintza zehaztea dela, esan zuen. Eskuarteko ekintza nagusiok aipatu zituen. Hitz eratorriak eta konposatuak, euskal azentua, tokako aditz batua, Orotariko Euskal Hiztegia, Gramatika, Euskal Atlas, Herri eta eskualdeetako lan monografikoak etab. Hileroko batzarreetan ez ote genituzkeen Hiztegi hiritartuaz txostenak aurkeztu behar ere aipatu zuen. Azkenekoz, bost urteren buruan izango dugun Larramendiren mendeurrena dela eta, orduko Gramatika lanak amaitzeko biderik ba ote dagokeen itaunarekin amaitu zuen.

Batzordeen txostenak aztertzen hasi aurretik eskuartean edukitzeko material batzu banatu ziren. Hauen artean azpimarra daiteke Jaurlearitzako Hizkuntz Politikarako idazkariak bidalitako gutuna. Epe erdi eta luzerako ekintzen aurre-plangintza eskatzen zaio bertan Euskaltzaindiari.

#### I. JAGON Saileko batzorde lanak

J. San Martin Jagon Sailburua moderatzaile dela, egin zen batzordeen goizeko aurkezpena.

*Literatura.* F. Krutwig, batzorde buruak gutun bat zabaldu zuen lehenik, aldizkari baten beharra azalduz. Literatur ikertza egin nahi luketela agertzera eman eta burumuina bi alde dagoenez, alderdi bakoitzaren emaitza bereziarekin, literatur tes-tuak zein aldetara makurtzen diren ikusi nahi da. Urteka bana daiteke: lehen urtean Axularren estilistika, adibidez. Leizarragaren Biblia itzulpena denez, Grekoa kontuan hartu behar da.

Horretarako zenbait lankideren laguntza baiezturik omen dago. Finantziabidea beste batzordeen antzera antolatzea eskatu zuen. Pello Salaburuk Biologia oso espe-zializatuaren arazoak ikusten dizkiola ihardetsi zion, plangintza zehatzago bat ekarri behar litzatekeela esanez. J. M., Satrustegik proposamen bat egin zuen: asmoa mugatu eta zehatzago finkatzeko urte baterako laguntza batzordeari Euskaltzaindiak emate-a, alegia, denbora horretan lortutako esperientzia baikorra balitz, diru laguntza bereziaren eskaria agintariei zuzentzeko. Proposamen bien bozketa egin zen gero. P. Salabururen eskariak lau BAI eta zortzi EZ izan zituen. Bigarren bidea bederatzi BAI eta hiru ZURI-rekin onartu zen.

*Bertsolaritza.* A. Zavala batzordeburua eta A. Aranburu idazkaria etorri ez direnez, J. San Martin Bertsolari Txapelketako antolakizun azpi-batzordeko buruak eman zuen arazo batzuren berri.

Bertsolariek epai mahaiko erdiak berek izendatzea eskatu omen zuten, eta Euskaltzaindiak ordurako finkatua zuenez epaileen zerrenda, ez omen zitzaien eskaria onartu. J. San Martinek proposatzen duena zera da, hamar direnez izendatuak, bertsolariei beste bost berek izendatzeko eskubidea ematea.

Une horretan beste istilu bat sortu zen: Juradukua ez dena, nahiz botorik ez izan, ez dedila han egon eskatu zuen A. Irigoyenek. Azkeneko bertsolari txapelketan nor-baitzu egon omen ziren. Bertsolarien txapelketa antolakizuneko azpibatzaordebu-ruak erantzun zion bera han egotearen arrazoiak azalduz. Dena dela, Euskaltzain-diaren esku utzi zuen arazoa.

Koordinaketa kontuan izanik, J. San Martin epai mahaikoekin egotea komeni den ala ez, bozkatu zen azkenean. Bederatzi BAI, bi EZ eta ZURI bat, atera ziren. A. Irigoyenek epai mahaikoen zerrendatik bere izena kentzea eskatu zuen eta horrela egin zen.

Egoera berri honetan Euskaltzaindiak izendatuak bederatzi dira eta, horren ara-bera, bertsolariek beste hiru izendatzea aipatu zen. Ezin bestean, kopuruaren hiruta-tik bat izenda lezakete. Horrela onartu zuten batzartuek.

Lehen faserako epailegai, Arantza Arruti, Pello M.<sup>a</sup> Aldama eta Juan Inazio Intxaurrega aurkeztu zituen J. San Martinek. Aho batez onartu ziren.

*Etsaminak.* J. J. Zearreta mintzatu zen lehenik egoera orokorraren berri emanez. J. M. Satrustegik Nafarroako arazoa aipatu zuen. Gipuzkoatik gero eta gehiago datoz Iruñean azterketa egitera. Horrek zama larria sortzen dio ordezkarietara eta Euskaltzaindiari. Nolabait eginkizuna Nafarroako Gobernuaren gain uztea izango litzateke irtenbide bat. Euskararen Negoziatua Nafarroako Gobernuarena da; Hiz-kuntza Eskola berriz Zaragozako Unibertsitatearen gain dago. Bion artean, Hiz-kuntza Eskolak bere gain hartzea hobe izango litzatekeela, zioen Satrustegik. Oraikoz, segurtamen gehiago dago hauen gaitasun agiriarekin. Etsaminen batzordea arazoa bideratzen ahaleginduko da eta, bide batez, J. M. Satrustegiri eskubidea eman zi-tzaion Nafarroako arduradunekin konponbide on bat lortzen saiatzeko.

*Erakundeetako azterketek*, bestalde, lan asko ematen dute. Hasieran azterketa osoan egon behar izaten zen; azken aldi honetan euskal gaiak bakarrik arduratu behar izaten da. Irtenbidea bilatu behar zaio honi ere. J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta zenbait Erakunde ofizialekin izandako harremanez mintzatu ziren. Nola nahi ere itzultzaileen etsaminetara eta Udaletara joaten jarraitu beharko omen da orain, eta batzorde suntsikor bezala beste pare bat urtez uztea gomendatu zuten. Horretan gelditu zen.

*Oinarrizko euskara*. I. Unzurrunzaga batzorde idazkariak aurkeztu zuen lan eta egitasmoen egoera. Ipuinak prestatzen ari dira eta ingelesetik itzuli omen dituzte beste batzu. Laster kaleratuko omen dira. Amurizak bi liburu argitaratu ditu eta hirugarren bat prestatzen ari dela, esan zuen. "Hitz Egin" metodoaren irudiak eta itxura ere egokitzen ari omen dira.

Beste batzutan ere sortu izan den kezka mahairatu zen gero: ea Euskaltzaindiari dagokion, alegia, horrelako lanak aurrera eramatea. Eztabaidatxo baten ondoren, zuzenean Euskaltzaindiari ez badagokio ere, aspaldi jasotako ekintza dela, esan zen. Ez zaigu ezer gostatzen eta dirua dakarkio Euskaltzaindiari. Ez litzateke itxura oneko gauza bat-batean beste arrazoirik gabe bazterrean uztea. Azken finean, dirulaguntza ematen duen Iberduerori eta oinarrizko euskararen beharrei dagokie erabakia hartzea.

Eguerdian amaitu zen, pundu honetara iristean, goizeko saioa.

## II. Egituren batzordea

*Argitalpenak*. Bazkal ondoko saioa hiru t'erdietan hasi zen Goizeko gai batzuren aipamena eginik, R. Badiolak argitalpenei buruz ekarri zuen txostena irakurri zen. Hiru ataletan banaturik zegoen lana: a) Politika editoriala, b) Argitalpenetarako azpiegitura, eta c) Batzordearen berritzea eta egokitzea.

Euskera agerkariak zioen, 1956-1968. garren urteetako aleek ez dutela gerra aurrekoen arrakastarik, berauen kopurua mila aletakoa izan zelarik.

Argitalpenari egokitasuna eta kalitatea edukinatik eta kanpoko itxuratik dator kiola, esan zuen Euskaltzainburuak; gure argitalpenak ez direla nahi bezain txukun agertzen azpimarratuz. Erredakzio-bururen bat behar ote genukeen ere aipatu zuen. Norbaitek zioen, ez ote genukeen zenbait gauza makinaz jota kaleratu behar. Zalditik astora jaitea dela, ihardetsi zion Villasantek. E. Knörr, bere aldetik, kezkatu agertu zen. Eskutan zuen gure liburuska baten antzeko gauzak banatu ezin ikusten ditu. Argitaletxeen zabarkeria aipatu zen. Lan ona egiten duten editorialak ere badirela Euskal Herrian, esan zuen. P. Altunak eta E. Knörrek, azken zuzenketak egiteko prest zeudela aditzera eman zuten. J. San Martin maketazioaz arduratuko da.

Atsedendaldi bat hartu zuten batzartuek.

*"Azkue Biblioteka"*. J. A. Arana bibliotekari ordeak, arratsaldeko zazpi t'erdietan, irakurri zuen bere txostena. Ez zela batzordearen bilkurarik egiten, esan zuen, Burua oso lanpeturik dabilelako. Bere proposamena zehatza da: bileretara joango den batzordeburu, euskaltzain oso bat izendatzea. Bibliotekari efektibo euskaltzain oso nahiz urgazle bat izan daiteke. Diru kopuru bat aurre-kontuetan sartuz, ordainketak hileru egitea eskatu zuen. Langilegoa: fitzak, klasifikapen eta bestelako lan ezin dela oraino langileekin bete. Horretarako hirugarren pertsona baten beharra ikusten zuen.

J. M. Satrustegik erantzun zion ezin garela langilegoa gehitzen hasi. Nolabait "Azkue Biblioteka" zerbitzu publiko bilakatu nahi bada, bertan lan egiten duten pertsonak erakunde publikoen eskuetara joan beharko dutela. F. Krutwig-ek zioen, gure Biblioteka partikularra zela, ez publikoa. A. Irigoyenen ustez, publikoa bai, baina mugatua: espezializatuentzat bakarrik.

Langile berririk ezin dugula hartu, aho batez onartu zen. Bertan lan egiten dutenak nolabait Erakunde publikoen ekintzetan sarrerazteko eskaintza zehatza egin diezaiekegu. Bibliotekaria nor izango den, batzordeak berriztatzean ikusiko zela esan zen.

*Ekonomia.* Azken orduan, E. Knörr diruzainak aurkeztu zuen bere txostena. Diru lorpenen zailtasuna eta emandako urratsen berri eman zuen lehenik. Oroitidazkiaren beharra aipatu zuen. Langileak ikerkuntza eta herri administralgokoekin parekatu dira. Denbora eta ardura Euskaltzaindiari eskaintzen diotenen gopuruak ere aipatu ziren.

Etorkizunari buruz, ez baikor, baina bai itxaropentsu agertu zen, Euskal Herrian nahiz Madrilan burutzen ari ziren elkarriketekin.

J. J. Zearreta mintzatu zen gero, eta Eusko Jaurilaritzako langileen eredia jarraitu dutela soldata kontuan, esan zuen. Kargudunen asignazio deritzan diru laguntza-aren aurkezpena egin zuen gero. P. Salaburuk beste batzordeetako lan orduak eta kargudunenak zergatik ez ziren berdin ordaintzen, galdetu zuen. Kargudunen kasuan ez dela ordu mugatuen ordaintza bakarrik egiten batzorde lan orduetan bezala, erantzun zion; lan programatuz bestalde, egunero eta edozein ordutan nornahiri erantzuteko eta noranahi joateko lotura badu karguak, eta hori kontuan izan dutela alegia. Karguari dagokion ardura bat da, lanorduez bestalde. Ez da, gainera, ekintza horietan duen beste soldata baten gehigarri, zenbait erakundetako karguekin gertatu ohi den bezala; asignazio soila du eta kargua uztearekin kentzen zaio. Nola nahi ere, kontuetan agertzea eskatu zuen P. Salaburuk.

Besterik gabe, amaitutzat eman zen eguneko egitaraua.

### Martxoaren 30

#### III. IKER Saila

Goizeko bederatzitan t'erdietan bildu ziren batzarkideak Lekarozko Ikastetxean. L. Villasante, J. M. Satrustegi eta P. Salaburu, Baztango alkate den Julio Iturralde agurtzera joan ziren etxera, goiz hartan kanpora joateko asmoa zuela adierazi baitziren.

*Hiztegigintza.* Txosten mardula aurkeztu zuen batzorde horretako idazkari den M. Zalbidek. Datorren 1984-1986 epealdirako egitaraua aipatzean, ekintza nagusiok atera zituen: Egiten ari diren *Orotariko euskal hiztegia*; Eguneroko hiztegi arrunta jasotzea; Hiztegi teknikoa ere hor dago eta jakin beharra behintzat; Maileguzkoena ari da; Hiztegi hiritar arau emailea, oraikoz hasi gabe dagoena. Behar hauek hobeki aztertzeke eta finkatzeko egun osoko Jardunaldi berezi bat antolatzea erabaki zen.

*Onomastika.* Toki izenei buruz gogoeta bat aurkeztu zuen E. Knörr jaunak. Ez du uste egun Euskaltzaindiak Euskal Herriko toponimia atlasa egiteko biderik duenik, baina toponimiazko monografiak argitaratzeko bilduma berezi bat hastea, proposatu zuen. Egungo toki-izen eta toponimia zaharrez osotuko litzateke. Hasi aurretik Euskaltzaindiak erabateko irizpideak aztertu, finkatu eta ezagutaraziko litzuke.

J. M. Satrustegik Pertsona Izendegiaz hitz batzu esan zituen. Egunero agertu ohi diren izen berrien bilduma egiten du. Ugari baina ez beti txalogarriak. Izen aldatze eta Juzgaduetako galderek ere jarraitzen dute. Zabaldundea eman behar zaio liburuskari.

J. L. Lizundia, bestalde, Udalen eta herriska nahiz auzo gotorren aldetik izenak aldatzeko diren eskariez mintzatu zen. Diputazio eta beste elkargo batzuk ere argibiderik eskatzen dute. Erantzunak emateko prozedura agertu zuen gero. Erdi Aroko izen bilketan egin behar litzatekeen lana aipatu zuen A. Irigoyenek.

*Gramatika.* Eskuarteko lanen egitasmoaz batzordeak burututako txostena azaldu zuen P. Goenagak: Iruñeko batzarrean zalantzan gelditutako puntuak zehaztea; perpaus bakunaz bestalde perpaus elkartuarekin lanean hastea, etab. Egutegia finkatu zuen. Asmoak aurrera eramatekotan beste bi pertsona liberaturen beharra ikusten zuen. Alan King eta M. Pilar Lasarteren izenak aipatu ziren bertan, horretarako diru laguntzarik lortuko balitz. 1990erako amaitu omen daiteke gramatika lan hau.

Honekin amaitu zen eguerdi aurreko saioa.

*Dialektologia.* J. M. Etxebarriak arratsaldeko ordu bietan hasi zuen bere aurkezpena. *Atlasari* buruz, lexikoaz galdera posibleak prestatu behar dira. Galderak egiteko perifrasiak ere bai. *Fonetikan* hitz bakoitzaren traskribapena era berean denek lana egin dezaten. Alfabeto fonetikoa etab. Bigarren urratsa, Uztailetik aurrera, galderak hartu eta euskalkiz-euskalki bospat herritan saioa egitea izango da. Horrekin jakin dezakete zenbat denboran egingo den irailetik aurrera hasiko duten lehen tomoa. Hiru bat itaunlariren beharra ikusten zuten. Bulego eta artxiboa ere aipatu ziren.

#### IV. Bestelakoak

Atsedenaldiaren ondoren, batzordeen berriztapen aurre-zerrenda egin zen.

*IKER Saila. Hiztegegintza:* L. Mitxelena buru , I. Sarasola buruorde, M. Zalbide idazkari, R. Badiola idazkariorde, X. Kintana, L. M. Mujika, eta Tx. Peillen.

*Gramatika.* P. Altuna buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Goenaga idazkari, L. Akesolo, Alan King, M. Azkarate, J. M. Larrarte, M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte, J. A. Mugika, B. Oyhartzabal, K. Rotaetxe eta P. Salaburu.

*Dialektologia.* F. Ondarra buru, J. Haritschelhar buruorde, J. M. Etxebarria idazkari, G. Aurrekoetxea, A. M. Etxaide, A. Irigoyen, B. Oyhartzabal, R. M. Pagola, K. Rotaetxe eta Ch. Videgain.

*Onomastika:* E. Knörr buru, L. Mitxelena buruorde, J. L. Lizundia idazkari, P. Charriton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi.

*JAGON Saila. Literatura:* F. Krutwig buru, A. Irigoyen buruorde, Manu Ertzi-lla idazkari, J. L. Goikoetxea, D. Landart, J. Lavin, M. Morris eta M. Sansinenea.

*Bertsolaritza:* A. Zavala buru, J. San Martin buruorde, A. Aranburu idazkari, J. M. Aranalde, E. Larre, J. M. Etxezarreta, J. M. Iriondo, M. Itzaina, J. M. Lekuona eta A. Muniategi. (Bilboko Maiatzeko batzarrean Batzorde honen izena aldatu zen, *Herri Literatura* eramango du aurrerantzean).

*Oinarritzko euskara:* J. San Martin buru, I. Unzurrunzaga idazkari, N. Agirre, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, J. L. Goikoetxea eta P. Uribarren.

*Azterketak:* A. Irigoyen buru, J. M. Satrustegi buruorde, J. J. Zearreta eta A. Iñigo.

### **Egiturazko batzordeak**

*Argitalpenak:* L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J. M. Satrustegi idazkari, E. Knörr diruzain, P. Altuna, A. Irigoyen, F. Krutwig, L. Mitxelena, J. San Martin eta Ricardo Badiola.

*Biblioteka:* A. Irigoyen buru, J. A. Arana idazkari, X. Kintana, J. San Martin eta J. J. Zearreta.

*Ekonomia:* E. Knörr buru J. J. Zearreta eragile, X. Gereño kontulari eta J. M. Velez de Mendizabal. (Iruñeko Ekaineko batzarrean beste Batzordekide bi izendatu ziren: Pello Salaburu eta Juan San Martin).

### **Azken orduko gaiak**

Euskararen ahozkatzeaz Jardunaldiren batzu egitea komenigarri ikusten zen. Behar bada, Durangon Euskal Jaien mendeurrenkari, 1986an egin daitezke.

Euskaltzainburuak sarrerako agurrean aipatu zituen hitz eratorri eta konposatuez ez zen erabaki zehatzik hartu, baina zerbait programatu beharko dela esan zen. Hitanozko aditzaren formak ere zintzilika daudela gogorazi zuen Euskaltzainburuak.

Idazkari-ordeak Akademi batzarretako lanbidea eraberritzeaz txostena ekarri zuen. Hiztegegintzako egitasmoekin loturik dagoenez, gerorako uztea erabaki zen. Euskaltzain urgazleen izendatzea ere urtean zehar ikusteko geratu zen.

P. Salburu eta F. Krutwig jaunek, Arautegiko 4.artikuluak dioena behar bezala garatzeko, Barne-Erregeletako 40.artikuluari eraskin bat ezartzea eskatu zuten. Lurralde edo euskalkien gutiengo bat finkatzea eskatzen zuten, beste euskaltzainen hutsunea aske geldituz. Eztatbaida, orrazketa eta proposamen berriak ere sortu ziren, baina ez zen ezer erabaki.

P. Salaburu eta E. Knörr jaunek izenpeturik beste idazki bat ere aurkeztu zen azken uanean. Zintzo-zintzo batzarreetara datozen euskaltzainei eta oso bakan edo inoiz ez datozenei tratu bera emateari garrantzizko erabakiak hartzerakoan, ez zertzelata batere ongi agertu zuten. Hori bideratzeko asmoz Barne Erregeletan berek aurkeztutako artikulu bat sartzea proposatzen zuten. Hurrengo baterako utzi zen gaia.

Eguraldi oso ona izan genuen eta giro baketsuan eztabaidatu ziren gai guziak.

Baztan ibarreko Ikastola une larrian aurkitzen denez, Udalaren aurrean arartekotza eskatu zioten Ikastolako gurasoek Euskaltzaindiari. L. Villasante, P. Salburu eta J. M. Satrustegi joan zirelarik Julio Iturralde alkatea agurtzera, berehala atera zen gaia eta konponbide bat aurkitu zela iduri zuen. Iritzi aski berdinerara heldu ziren behintzat.

Ostatuz, Baztan izeneko hotelean egon zen Euskaltzaindia, eta erraztasun guziki aurkitu zituen Lekarozko aita Kaputxinoen aldetik beren ikastetxean Jardunak egiteko.

Forua, Loiola eta Angosto izenei loturik gelditzen da Euskaltzaindiaren azken urteetako historian Lekarotz.

## ENCUENTRO ENTRE LA REAL ACADEMIA ESPAÑOLA, LA REAL ACADEMIA GALLEGA, EL INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS Y EUSKALTZAINDIA / REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Madrid, 20 de mayo de 1985

Fr. Luis Villasante

*Existía un viejo proyecto o deseo de establecer reuniones periódicas entre las Academias de las diversas lenguas de España para estudiar los problemas de interés común y buscar una mutua colaboración y coordinación. Este deseo se ha materializado en una primera reunión tenida el 20 de mayo de 1985 en la sede de la Real Academia Española. Por Euskaltzaindia acudieron el Presidente, el Secretario, los académicos Sres. E. Knörr, J. San Martín. Del Institut acudieron los Sres. Badia Margarit, Carbonell, etc. De la Academia Gallega el Sr. Sabell, Piñeiro, etc. Por la Real Academia Española los Sres. Lain Entralgo, Zamora Vicente, A. Tovar, Lázaro Carreter, etc. Se hizo un repaso a los problemas que la convivencia de las diversas lenguas suscita y al modo de abordar y resolver dichos problemas. Todos estuvieron de acuerdo en la conveniencia de institucionalizar estas reuniones. Se decidió también que la próxima tenga lugar en Santiago de Compostela. La reunión terminó con un almuerzo ofrecido por la Real Academia Española.*

*El Presidente de Euskaltzaindia leyó en la sesión las siguientes palabras de saludo.*

### **Palabras del Presidente de Euskaltzaindia**

Queridos compañeros y colegas de afanes y fatigas en las diversas Academias de las lenguas de España:

No quisiera incurrir en una vulgaridad al decir que éste es un día histórico. Lo digo sintiéndolo y teniendo conciencia de la verdad de lo que digo. Los que hemos venido del País Vasco somos conscientes de lo transcendental de este paso. Creo que es la primera vez que se celebra un acto de este género y a este nivel. Y creo sinceramente que estas reuniones, si llegan a madurar y a consolidarse, están llamadas a producir grandes frutos para bien de todos. Frutos en el sentido de una mayor coordinación en el trabajo de las diversas Academias, frutos de una mayor comunicación de bienes, de comprensión, de respeto, de convivencia y afecto, de apoyo mutuo y de una eficaz defensa de los intereses que nos son comunes.

Debo ante todo dar las gracias a la Real Academia Española por habernos recibido en su casa y haber hecho posible este encuentro de las otras lenguas de España con aquélla que por antonomasia todos llamamos española. Pienso, como he dicho, que el hecho de hoy, si de algún modo se regulariza, constituye un verdadero aconte-

cimiento y presagio venturoso. Quiero recordar en estos momentos que ya en los primeros años de existencia de nuestra Academia dos preclaros miembros de ella, D. Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue y D. Julio de Urquijo, fueron nombrados académicos de número de la Española.

Y paso sin más al tema de este primer Encuentro: “Bilingüismo, diglosia, educación”. Apenas podré hacer más que arañarlo. Los otros compañeros de nuestra Academia lo abordarán también desde ángulos diversos. Aun así solo podremos desbrozarlo. Pero tal vez para un primer encuentro sea suficiente.

\* \* \*

Sin duda, entre todas las lenguas de España el euskara o vascuence es el que presenta unas características que hacen de él un caso un tanto o un mucho singular. Alguna vez he dicho yo que esta singularidad constituye, a la vez que su debilidad, también su fuerza. Como introducción al tema parece obligado decir algo sobre esto.

La singularidad de esta lengua es su debilidad, pues al ser por su estructura, origen, etc., muy distinta de todas las del entorno, esto le crea serias dificultades para subsistir. D. Antonio Tovar, aquí presente, escribió una obra *El euskera y sus parientes*, pero él mismo se cuida de advertir que no se trata de parentesco genealógico, sino de parentesco, por así decir, por afinidad, o sea, por contactos geográficos e históricos prolongados. La vasca es también, sin duda, la lengua que de las cuatro cuenta con menos hablantes (600.000 se suele decir) y cuyo territorio se ha ido reduciendo y estrechando cada vez más. Aun dentro del llamado País Vasco existen amplias zonas donde desde antiguo la población no conoce esta lengua y otras zonas en que la ha perdido en épocas documentalmente constatables y próximas a nosotros. Por usar unas designaciones que han sido divulgadas por el señor Julio Caro Baroja, mientras el llamado “ager vasconum” se romanizó en época temprana, el “saltus vasconum” por el contrario, mantuvo la lengua de la estirpe, y la dualidad ha seguido hasta hoy.

También parece innegable —y esto lo ha señalado repetidas veces D. Ramón Menéndez Pidal— que un cierto parentesco, diríamos genealógico, se da precisamente entre el castellano y el vascuence, debido sin duda a que los vascones tuvieron gran parte en la creación de Castilla y del romance castellano, y al romanizarse traspasaron a su nueva lengua no poco de su herencia atávica; pero, en fin, se trata más bien de coincidencias de sustrato.

De todos modos, como decíamos, el “saltus vasconum” mantuvo la lengua, pero la mantuvo en un estado, por así decir, natural y silvestre, ya que para los usos nobles, oficiales, etc., parecía obligado el latín, y, más tarde, los romances. Parece también claro que los Fueros ayudaron mucho a la conservación de la lengua, por cuanto dificultaban grandemente el asentamiento de inmigrantes en el país (aparte de que tampoco éste poseía riquezas que pudieran excitar la codicia de los extraños).

El Renacimiento, que en principio quería ser una vuelta a las lenguas sabias y cultas de la antigüedad, paradójicamente contribuyó a un despertar del sentimiento del valor de las lenguas populares hasta entonces poco o nada tomadas en consideración, y es ahora cuando, con el favor de los nuevos vientos que corren, aparecerá el primer libro vasco *Linguae Vasconum Primitiae*, de Dechepare (1545). El hecho de que los Protestantes adopten las lenguas populares para sus actos de culto, etc., influirá, sin duda, para que también la Iglesia Católica, desde Trento al menos, preste atención a ellas, de lo que también saldrá beneficiado el euskara. Pero pese a todo, no



cambiará la tónica general de la lengua, que sigue viviendo en un estado un tanto selvático, con poco cultivo, sin acceso a la escuela, etc.

Al producirse en la época actual la industrialización y la inmigración en dosis masivas, su misma supervivencia queda seriamente amenazada, pues se trata de contacto de dos lenguas que no están en el mismo plano, ni tienen igualdad de oportunidades: la una, lengua poderosa de cultura, muy extendida en el mundo, con grandes medios para su difusión, aprendizaje, etc., y la otra enteramente desvalida y que arrastra una cierta o considerable dosis de inadaptación para servir de vehículo a la compleja civilización moderna. Su naturaleza alógena, por así decir, le crea una dificultad o repugnancia para compartir, sin más, las riquezas del patrimonio común románico; esta repugnancia se ve agrandada por un cierto sentimiento purista exacerbado; sentimiento que a veces por reacción hace ir al otro extremo, pero entonces el remedio puede ser peor que la enfermedad, puesto que la lengua misma podría desintegrarse; por otra parte, al vasco le pasa que no tiene, como los romances, otra lengua de su familia de la que pudiera beneficiarse. Añádase que aun dentro de su pequeña extensión se halla dividida en variedades dialectales y que su mismo cultivo literario ha estado marcado con este signo dialectal. Todo esto es lo que llamaríamos su debilidad.

Pero hemos dicho que la naturaleza un tanto alógena del euskara constituye, a la par que su debilidad, también su fuerza. En efecto, el hecho de que el euskara sea tan distinto o diferente contribuye a meter al vasco por los ojos la singularidad u originalidad de su etnia; dicho con otras palabras, hace que vea en el idioma algo así como el espejo de su identidad como pueblo. De aquí que adquiera conciencia del valor que para él representa este idioma, que quiera conservarlo y aprenderlo, si lo ha perdido. A veces leemos en la prensa comentarios jocosos ante razonamientos que parecen irracionales; así, por ejemplo, la salida de aquél que protestaba porque ya desde antes de nacer se le había privado de su lengua materna. Seguramente este razonamiento es disparatado; pero hay en él un fondo de verdad, y de todos modos revela un sentimiento que merece ser respetado y tomado en cuenta. Muchas veces este sentimiento de la lengua está más vivo en los vascos que no hablan ni conocen su idioma, pero le prestan su adhesión y afecto. El fenómeno del *euskaldun berri*, del vasco-hablante que ha aprendido la lengua en edad adulta es nuevo y es reflejo de lo que venimos diciendo.

En este estado de cosas surge la preocupación de que hay que hacer algo por salvar de la catástrofe este patrimonio heredado desde la más remota antigüedad, pero seriamente amenazado. Se lanza la idea de que hay que crear una Academia que se ocupe de regular las cosas de esta lengua. El primero que la lanzó al público parece que fue Aizquibel, un azcoitiano, pero que vivía en Toledo, y lo hizo en un libro que apareció precisamente aquí en Madrid en 1856.

Pero pasarán muchos años hasta que la idea se plasme en la realidad. Fue justamente en 1918 cuando las cuatro Diputaciones del país —Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya— acuerdan de mancomún crear esta Academia, respaldarla, sostenerla, etc., y en 1976 S. M. Juan Carlos I, en Consejo de Ministros celebrado en Barcelona, firmará el Decreto por el que le otorga reconocimiento pleno como institución pública.

Hay que confesar humildemente que nuestra Academia tiene ante sí una tarea ingente y que el resultado o desenlace final es incierto. Alguna vez ha dicho Michele-

na que nuestros antepasados nos dejaron en herencia una carga excesiva para nuestros hombros. Muchas veces la Academia ha tenido que encargarse de tareas de suplencia, es decir, de cosas que en una situación normal no tendría por qué hacerlas ella, pero que eran urgentes o inaplazables, y al no haber otro que las pudiera hacer, tenía que apechugar con ellas. Tómese nota de que el País tampoco ha tenido Universidad hasta ahora.

\* \* \*

Con la autonomía surge algo nuevo, totalmente inédito, que abre perspectivas insospechadas hasta el presente. Desgraciadamente se desata al mismo tiempo una ola de violencia que —aparte de la quiebra de valores morales que supone—, como ha dicho el Sr. Ardanza, a nadie hace más daño que a los propios vascos, enrarece el ambiente, endurece las posturas y hace difícil la discusión y solución serena de los problemas.

La Constitución en su artículo 3 n.º 2 dice: “Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos”.

Todo esto, como es obvio, abre unas perspectivas nuevas y venturosas también para el euskara. Pero hace falta que toda España tome conciencia de esta realidad, comprenda y acepte que también las otras lenguas son un bien de España. Con frecuencia se comprueba la desinformación que continúa existiendo. Precisamente, con el fin de contribuir a superar esta desinformación, D. Guillermo Díaz Plaja solicitó mi colaboración y no dudé en prestársela para un libro que publicó con noticias de autores y trozos de textos de la literatura vasca, destinado a los estudiantes de BUP. La información sobre las otras lenguas de España es imperiosamente necesaria y fuerza es confesar que los propios vascos hemos hecho poco para ofrecerla.

Creo haber leído u oído que existen personas bilingües, pero no países bilingües. A mí me parece evidente que en nuestro caso este bilingüismo del país, no ya solo de las personas, resulta innegable.

En estos últimos años se ha extendido y ha tenido una cierta fortuna entre nosotros la palabra “diglosia” para expresar lo que allí sucede. No creo que el significado propio de esta palabra sea precisamente el que con ella se suele querer expresar cuando allí se menciona este término. Me parece que cuando allí se dice “diglosia” se suele querer decir contacto o superposición de dos lenguas en un mismo territorio, pero de dos lenguas que no se hallan en el mismo plano ni en posesión de las mismas virtualidades, oportunidades, etc., y cuando esto ocurre, claro está, la que se halla en situación de inferioridad, sale perdedora de la confrontación.

Ante un tal estado de cosas, si se quiere el salvamento del euskara, es claro que debe dotársele a éste de medios, que, en una sociedad como la actual, resultan indispensables, y que además se fortalezca, equipe y capacite a la lengua misma para que sea instrumento hábil para el rodaje. Para todo esto se requiere evidentemente tiempo. Creo que mucho se está haciendo.

Y toda esta labor habrá que hacerla respetando las reglas del juego marcadas en la Constitución, aunque algunos artículos tal vez no nos gusten y otros sí, y respetando por encima de todo los derechos del hombre, no de un hombre abstracto o ideal, sino del hombre concreto de carne y hueso, que, como dijo el Concilio, es la única

criatura terrestre a la que Dios ha amado por sí misma (G S n.º 24). Lo que quiere decir que nada, ni la lengua, se debe poner por encima de él.

Creo que con esta exposición muy a grandes rasgos se da una primera idea del contexto vasco. Parecía necesario conocer dicho contexto antes de descender a los puntos particulares que tocarán mis compañeros de Academia aquí presentes.



# **BILBOKO EUSKALDUNEN AFARIAK**

## **MEMORIA**

*1984 Urtia 6/1985 Maiatza 4*

*Xabier Gereño*

### **I. HELBURUAK**

Irakaskintzaren munduan euskarak aurrerapen handiak egin ditu, bai erabiltzen diren sistimetan eta bai ikaslegoaren kopuruan.

Lehenago ikastolak eta gero alfabetatze kanpainak. Geroago euskaltegiak eta ondoren euskararen irakaskuntza maila guztietako eskola eta ikastetxeetan.

Alor horretan, irakaskuntzarenean, euskara aurrera doa.

Baina, nahikoa ote da hori Euskal Herria euskalduntzeko?

Ez. Hori lehen urratsa da. Beharrezkoa. Ezinbestekoa. Hortik euskaldun berriak sortzen dira, baina gero euskara hori erabili egin behar da.

Bilbo-n, adibidez, euskaldunen kopurua asko hazi da azken urteotan, baina kalean, dendetan, bulegoetan, ez da lehen baino euskara gehiagorik entzuten. Euskarak ez du presentziarik kalean.

Euskara kalera ateratzen laguntzeko sortu ziren **BILBOKO EUSKALDUNEN AFARI** hauek.

Hilero behin, afari hauetan, Bilboko euskaldunek biltzeko aukera bat daukate. Elkar ezagutzeko eta euskara praktikatzeko. Eta aukera hau, bereziki, mesedegarria zaie euskaldun berriei.

Baina **BILBOKO EUSKALDUNEN AFARIEN** lana ez da horretara mugatu behar, jantoki batean hilean behin euskaraz egitera. Zabalagora jo nahi genuke. Eta horregatik, afariatatik aparte, kanpora begira, beste ekintza mota biri ekin diegu. Alde batetik, milaka tira pegatu ditugu Bilboko kaleetan euskararen erabileraren alde, eta bestetik, gure hiriko denda, bulego eta erakunde publikoei bititak egiten ari gaitzaizkie beraien enplegatu euskaldunak identifikatzeko, bezero euskaldunek jakin dezaten nortzurekin mintzatu daitezkeen lasai euskaraz.

Ondorengo kapituluetan zehaztuko ditugu zabalago zeregin hauek.

### **II. AFARIAK**

Orain arte zortzi egin dira, honela:

1. 1984 Urtia 6, Iruña Kafetegian. Afalostean, mahaikideen arteko debatea eduki genuen, Bilbon euskara kalera nola atera eztabaidatzeko.

2. 1984 Azaroa 10, Anboto restaurantean. Afalosteko ekintza bezala, aurreko hileko eztabaidaren jarraipena erabili genuen, gai bera aztertuz.

3. 1984 Abendua 1, Albia restaurantean. Afalosteko ekintza, Algortako Bertsolari Eskola-ko partaideen jardunaldia.

4. 1985 Urtarrila 12, Albia-n. Elurte handia zegoenez, akordeolari bat eraman genuen jendea berotzeko, Manolo Legina.

5. 1985 Otsaila 2, Albia-n. Afalosteko ekintza; mahai ingurua. Gaia: "Israel": hizkuntzak, kulturak eta bizimodua. Hizlariak: Ricardo Badiola, Xabier Kintana eta Imanol Unzurrunzaga.

6. 1985 Martxo 2, Albia-n. Afalostean, Pello Telleria-ren hitzaldia "Quechua" hizkuntzari buruz. Gero, Mungiako Bertsolari Eskola-ko partaideen ekitaldia.

7. 1985 Apirila 13, Albia-n. Afalostean: Rafa Salzedo-ren hitzaldia Txekoeslovakia-ri buruz. Gero, bertsolariak: Basilio Pujana eta Faustino Etxebarria, betera-nak.

8. 1985 Maiatza 4, Albia-n. Afalostean: Joxe Borja-ren hitzaldia Austria-Hungria Inperioari buruz. Gero, Durangaldeko Bertsolari Eskola-ko partaideen kan-taldia.

Afari guzti hauen berezitasunak hauek izan dira:

a) Gaueko 9etan hasi eta ordu bata aldera amaitu. Afalosteko ekitaldia hama-rak eta erdietan hasten da.

b) Prezioa beti mantendu da 800 pezetatan. Hamarrak eta erdietan jantzikoko atak zabaltzen dira afaltzera etorri ez direnentzat, jendeari aukera zabalago bat emateagatik.

c) Edozein adinetako jendea, edozein ideologitakoa eta edozein kultur mailatako jendea etortzen da. Zorionez, orain arte behintzat, ez da mahaikideen artean inolako eztabaida latzik sortu. Giroa oso atsegina izan da.

d) Jendea bildu ahal izateko, publizitatea honela egiten da:

a) Hirurehun bat karta, postaz bidaliak.

b) Mila programa, Bizkaiko Aurrezki Kutxak dohan fotokopiatuak, etxeeta-ko buzoietan eta kotxeen parabisetan jarriak.

c) Hirurehun mural, Bizkaiko Aurrezki Kutxak dohan eginak. Mural hauek ormetan jartzeagatik ordaindu egiten da.

d) Euskaltegiak, Hizkuntz Eskola, Unibertsitateak, etab. bisitatu, muralak eta programak eramanez.

e) Ajentziak, egunkariak, irrtiak, telebista, etab., mugitu erazi.

### III. KALEAN

Afarietatik kanpo, hau egin dugu:

Bizkaiko Aurrezki Kutxak 6.000 tira egin dizkigu, guk emandako testu hauekin:

**BILBOKO KALEETAN EUSKARAZ**

**DENDETAN EROSKETAK EUSKARAZ**

**TABERNETAN ESKARIAK EUSKARAZ**

## BULEGOETAN GESTIOAK EUSKARAZ ZERGEN DEKLARAZIOAK EUSKARAZ

Tira hauek Bilboko kaleetan pegatu ditugu, bereziki argi faroletan. Bilbo osorako nahikoa ez zenez, Deustu eta Abando auzategiak aukeratu genituen, haietan euskaldunen kopurua handia delako. Euriaren ondorioz busti eta pegamendua galtzen delako, edo apurtzen dituztelako, hutsuneak sortzen direnean berriro ere betetzen ditugu. Lan hau ordaindu egiten da.

Bisita batzu ere egin ditugu, enpresa eta bulego handitan, enplegatu euskaldunak behar bezala identifikaturik egon daitezen, bezeroak haietara joan eta lasaiki euskaraz norekin mintzatu daitezkeen jakin dezaten.

Hauek izan dira bisitatu ditugunak:

Camara de Comercio (Gorordo jaunarekin).

El Corte Inglés, S. A. (Mochales jaunarekin).

Casco Viejo (Jon Aldaiturriaga-rekin).

Banco de Bilbao (Zuzendari errejionalarekin).

Banco de Vizcaya

Caja de Ahorros Municipal de Bilbao.

Caja Laboral Popular.

etab.

Denen artean, euskararen aldeko lanean, Bizkaiko Aurrezki Kutxa izan da hoberena. Plan bat eratu du, oso ona, bere enplegatuak euskalduntzeko. Besteek ondo hartu gaituzte, baina astiroago doaz.

## IV. DATU EKONOMIKOAK

Orain arte erabili dugun dirua Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa izan da: 300.000 pezeta.

Diru horren zati bat erabili dugu afalosteko ekintzetan eta afarietarako publizitatean: muralak pegatu, programak postaz bidali, hizlarien eta bertsolarien afariak ordaindu, hizlarietarako opariak egin eta bertsolariei dirua ordaindu, etab.

Beste zati bat, euskararen aldeko tirak kaleetan pegatzen erabili dugu: lana ordaindu, pegatzeko materialea erosi.

Kontu korrante bat zabaldua daukagu Bilboko Euskaldunen Afarien izenean. Han sartu genuen 300.000 pezetatako diru laguntza, eta taloiez egiten ditugu ordainketak. Ordainketen konprobanteak numeraturik gordetzen ditugu.

Gure egoera ekonomikoa gaur hau da:

Zortzi afarien gastuak .....	159.447	pezeta
Tirak kalean pegatzea .....	102.500	pezeta
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>261.947</b>	<b>pezeta</b>
Diputazioaren laguntza .....	300.000	pezeta
Banku Gipuzkoano-n daukaguna .....	38.053	pezeta

Gure asmoa afari hauekin aurrera jarraitzea da, baita kalera begira egindako ekintzekin.

Dirua ondo begiratzen ahalegindu gara, asko ez zegoenez. Horregatik ez ditugu ekarri urruneko pertsonaia distiragarriak, garestiegia zelako hori gure ekonomia eskasarentzat. Ba dakigu pertsonaia horiek ekartzea mesedegarria izango litzatekeela afarientzat, jende gehiago hurbilduko litzatekeelako. Baina hori eta guzti ere, nahiko dexente joan da gauza. Mahaikideen kopurua, ehun/berrehun, zifra horien bitartean ibili da.

Tirak pegatzen ere auzategi bakar bi aukeratu behar izan ditugu, gehiagorako ez zegoelako dirurik. Pentsatu izan dugu hobe zela bi auzategi ondo landu, han hemenka anarkikoki ibili beharrean.

Orain, dirua amaitzear dagoenez eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiarengana berriro joateko momentua heldu denez, Memoria hau prestatu dugu, orain arte egin dugunaren kontuak emateko.



## NAFARROAKO D-MAILA AZTERKETAK

*Iruñea, 1985-VI-14/21*

Euskaltzaindiak Lekarotzen bildurik, orain arte Euskararen Gaitasun Agiria –D-MAILA– eskuratzeko Nafarroan egiten izan diren azterketak bertako Hizkuntz Eskola Ofizialaren esku uztea erabaki zuen.

Esku aldaketa hau egiteko batzordeño bat izendatu zen, azterketak egin eta zuzentzeko zegoena ezabatuz.

Hizkuntz Eskolakoekin harremanetan jarri ondoren konturatu ginen aurtengoz esku aldaketa hori ezinezkoa gertatuko zitzaigukeela, beraiek matrikulaldia itxia baitzuten.

Honen ondorioz berriro arduratu behar izan du Euskaltzaindiak matrikula, azterketa eta zuzenketaz.

Hona hemen laburki zenbait zehaztasun eta ondorio:

### A) Azterketa Idatzia

Hizkuntz Eskolan egin zen Ekainaren 14ean. Aurkeztu ziren azterketariak: 261. Azterketa egitera eta zaintzera etorri zirenak: A. Irigoyen, P. Arregi, G. Aurrekoetxea, J. L. Goikoetxea, X. Kintana eta bulegotik L. Alberdi, G. Insausti, R. Orbe eta J. J. Zearreta.

Zuzenketak egin zituztenak:

P. Altuna - 20, P. Arregi - 20, G. Aurrekoetxea - 20, M. Azkarate - 20.

P. Goenaga - 20, J. L. Goikoetxea - 20, A. Irigoyen - 20, X. Kintana - 20, I. Unzurrunzaga - 20 eta J. J. Zearreta - 81.

### B) Ahozko Azterketa

Hizkuntz Eskolan egin zen Ekainaren 21ean.

Azterketara deituak 92 lagun.

Azterketa egitera etorri zirenak:

A. Irigoyen, P. Arregi, J. Fdez. Setien, J. L. Goikoetxea, J. B. Jauregi, X. Kintana, P. Uribarren eta L. Alberdi, G. Insausti eta J. J. Zearreta.

**ONDORIOAK**

1. Azterketa egiteko izena eman zutenen kopurua aurreko urteetakoa bezalakoa izan da, nahiz eta matrikulatu ahal izateko, nafarra izatea, Nafarroan ikasten izatea edo eta bertan enpadronatua egotea eskatu.

Bestalde beste probintzietako hainbat aurkeztu ziren, batez ere Gipuzkoatik etorriak.

2. Udazkenean ere honelako zerbait gertatuko zaigu deialdia egiten bada.

3. Udazkenean matrikula arazoa ere izango dugu, Nafarroako Hizkuntz Eskolako matrikulaldia urte guztirako baita eta orain ezin du inork izenik eman, horretarako epea aspaldian amaitu baitzen.

4. Irailean edo Urrian azterketa egin behar bada, azterketa arazoaz nor arduratu den, nortzuk joango diren eta nortzuk zuzenduko dituzten erabaki behar da.

5. Azterketa egunean azterketa egitera eta zaintzera etorri behar zuten irakasleak aurkitzeko eta, batez ere, azterketak zuzentzeko, eragozpen haundiak izan ditugu.

Bi dira arrazoin nagusienak:

A) Honetarako zegoen Batzordea, Lekarotzen ezabaturik utzi zen eta orain inork ez du bere gain honelako ardurarik. Etorri direnak, adiskide bezala eskatu zaie-lako izan da, hala aitortu dutenez. Bestalde, kontutan hartu behar da azterketak arratsaldeetan egin direla eta amaitu ondoren etxeratu baino lehen gaueko 11/12 jotzen zizkiela.

B) Gehienak Institutoetako Katedradun edo Ondokoak dira eta garai honetan azterketez gainditurik dabilta.

Bi arrazoin hauek Iraila/Urrian ere izango dituztenez, azterketak egingo badira, orain hartu beharko dira erabakiak.

C) Ekainaren 14 eta 21ean lankide izan ditugun adiskideei gure izenean Euskaltzaindiak bere esker ona helerazi diezaiela erregutzen dizuegu horretan aritu gare-nok.

## D MAILADUNEN ZERRENDA

*Iruñea, 1985-VI-14*

- 6.017. Alkiza Llorca, Lourdes.
- 6.018. Almandoz Berrondo, Xabier.
- 6.019. Alonso Gil, Jolanda.
- 6.020. Altxu Juanikorena, Jone.
- 6.021. Alvarez Plagaro, M.<sup>a</sup> Teresa.
- 6.022. Aranburu Arregi, Leire.
- 6.023. Areskurrinaga goitia, Benedicta.
- 6.024. Arpon Fernández, Ana Rosa.
- 6.025. Arretxea Espelosin, M.<sup>a</sup> Victoria.
- 6.026. Azpillaga Ariztimuño, Bernardo.
- 6.027. Azpiroz Lasarte, Uxue.
- 6.028. Azpiroz Rekondo, Amaia.
- 6.029. Balzategi Etxeguren, M.<sup>a</sup> Carmen
- 6.030. Barron Pérez, M.<sup>a</sup> Jesús.
- 6.031. Basurto Arana, Beatriz.
- 6.032. Benito Iza, Ignacio.
- 6.033. Beraza Muro, M.<sup>a</sup> Begoña.
- 6.034. Cabodevilla Lusarreta, Juan Jesús.
- 6.035. Cabrera Ucerro, Alicia M.<sup>a</sup>.
- 6.036. Corral Alesanco, Milagros.
- 6.037. Dapena Cagigas, Isabel.
- 6.038. Domeño Zaro, Mikel.
- 6.039. Eceolaza Villanueva, Pedro.
- 6.040. Eraso Thetschel, Mercedes.
- 6.041. Etxarri Osinaga, Eva.
- 6.042. Etxeberria Sueskun, M.<sup>a</sup> Teresa.
- 6.043. Fernández Anero, Jolanda.
- 6.044. Fuentes Nieto, Gabi.
- 6.045. Gabiola Ondarra, Amaia.
- 6.046. Gago Prestamero, Cristina.
- 6.047. Galparsoro Jáuregi, Marcelino.
- 6.048. Garcia Bosque, M.<sup>a</sup> Soledad.
- 6.049. Garcia Hernández, Adoración.
- 6.051. Garcia de Amézaga Olano, M.<sup>a</sup> Nieves.
- 6.052. Gato Aranburu, José M.<sup>a</sup>.
- 6.053. Goikoetxea Garralda, M.<sup>a</sup> Angeles.

- 6.054. Goldaracena Vazquez, Ana.
- 6.055. González Blanco, Concepción.
- 6.056. Gorostieta Irigoien, Lourdes.
- 6.057. Guridi Zumalde, Amelia.
- 6.058. Heras García, M.<sup>a</sup> Lourdes.
- 6.059. Izargarai Fernández, M.<sup>a</sup> Amaia.
- 6.060. Jáuregi Flores, Juan M.<sup>a</sup>.
- 6.061. Lasa Díez, Alicia.
- 6.062. Lasa Díez, Elena.
- 6.063. Lasarte Bildarraz, Elena.
- 6.064. Legarra Sarasin, Martin.
- 6.065. Lizarraga Lazkano, M.<sup>a</sup> Angeles.
- 6.066. Lomas Zugasti, M.<sup>a</sup> Victoria.
- 6.067. Longa García, Josefina.
- 6.068. Mahabe Capellán, M.<sup>a</sup> Pilar.
- 6.069. Martínez de Arbulo Mendez, Lourdes.
- 6.070. Martínez de Lahidalga Monte, José Angel.
- 6.071. Mujika Anton, Miguel Javier.
- 6.072. Murugarren Rodrigo, Imanol.
- 6.073. Olaiz Goñi, Patxi.
- 6.074. Ondarra Erdocia, Jesús.
- 6.075. Orte Jiménez, Amparo.
- 6.076. Pérez Arancón, Amado.
- 6.077. Pérez García, M.<sup>a</sup> Lourdes.
- 6.078. Preciado Eza, Luis Carlos.
- 6.079. Ruiz Sukilbide, Benjamin.
- 6.080. Saldías Altxu, Ana Teresa.
- 6.081. Sanz Etxeberria, Itziar.
- 6.082. Sanz Gonzalo, M.<sup>a</sup> Paz.
- 6.083. Sarasua Gaztelumendi, Belén.
- 6.084. Soria Pitillas, Jolanda.
- 6.085. Tejedor García, Alfonso.
- 6.086. Txoperena Mendigutxia, Oskar.
- 6.087. Urriza Uharte, Martin.
- 6.088. Varela Vazquez, M.<sup>a</sup> Pilar.
- 6.089. Vazquez Berastegi, Félix Jesús.
- 6.090. Vegas Barrón, Rosa Nieves.
- 6.091. Velasco Ortega, Mikel Todor.
- 6.092. Violet Arandia, M.<sup>a</sup> Pilar.
- 6.093. Yarnoz Yaben, Aingeru.
- 6.094. Zalba de Esteban, Juana.
- 6.095. Zorrilla López, Juan José.
- 6.096. Zugasti Arbizu, Natividad.

## IRUÑEKO ORDEZKARITZA ZABALTZEAN

*Ekainak 27, 1985*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren hitzak**

Roman Felones, Hezkuntza eta Kultura Kontseilari jauia. Javier Iturbide, Principe de Vianako Zuzendari jauna.

Jaun-Andreak:

Bi gertakari, zein baino zein pozgarriagoek, erakarri dute gaur Euskaltzaindia honera. Bata da Iruñeko Ordezkaritza berriaren zabaltzea, eta bestea Euskaltzaindiko Gramatikaren plazaratzea. Hitz bana esango dut 'aburzki bakoitzari buruz.

Euskaltzaindia, guztiok dakiten bezala, Euskal Herriko lau Diputazioek sortua da, hots, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek sortua. Eta esan beharrik ez dago: haiengandik hartua du euskal gauzak nolazpait arautu eta gidatzeko kargua.

Bere sortze egunetik Euskaltzaindiak Bilbon du etxea, eta batzarreak, gehiengotan behintzat, Donostian egiten ditu.

Ongi dakigu, ordea —eta hala esan nuen Bilboko etxe berrian sarrera egin genuenean— Euskal Herri hau, nahiz eta herri bat izan, nola dagoen gatzatua edo mamitua; nola, alegia, nortasun berezia duten lurralde historikoz osatua den. Hori dela eta, segur, Euskaltzaindiak ere, urteak joan eta urteak etorri, beste hiriburuetan Ordezkaritzak jartzeko beharra somatu du, baina Euskaltzaindiaren batasuna inondik eta inola ere zatitu gabé

Nafarroako Ordezkaritzaz denaz bezanbatean, urrats batzuk eman ziren orain dela sei-zazpi urte, eta orduan probisionalki, hartako lekua bilatu arte, Nafarroako Museoa eman ziguten toki bat, eta, jakin dudanez, ez da bat ere txarra izan kokaleku hori, zeren eta hortik Nafarroako gure Ordezkaritza neurri handi batean ezagutua eta baliatua izan baita. Baina, jakina, noizbait egotezko eta berariazko tokia behar genuen, eta hauxe eskaini digu Nafarroako Gobernuak. Eskerrak, bada, berari.

Aurtemein esan dut: Euskaltzaindia Euskal Herriko lau Diputazioek sortua da. Ezin hautsizko lokarriak ditu horiekin. Gu orain ere horretan gaude. Diputazioen itzalpean egin nahi dugu geure lana. Nafarroako Diputazioak utzi dizkigun bulego berri eta eder hauekin lotura horiek sendotu besterik ez dira egingo. Emaizta honengatik Euskaltzaindiak bere ezagutza eta esker ona agertu nahi dizkio Nafarroako Diputazio edo Gobernuari.

Eta zertarako dira Euskaltzaindiak Euskal Herriko hiriburuetan jartzen dituen Ordezkaritza edo bulego hauek?, galde lezake norbaitek. Erantzuna ez da asmatzen zaila: Euskaltzaindiari dagokionetan eskualde bakoitzean lan egiteko; argitasun eta laguntza-eske datozenei erantzuteko, heldu diren eskabide edo galderen kontu hartze-ko.

Egun ospatzen den beste gertakaria beste maila batekoa da, baina ez monta tti-piagokoa: gaur kaleratzen da Euskaltzaindiaren Gramatika, Nafarroako Agintaritzaren diru-laguntzaz argitaratua berau ere. Joan den Iraileko Biltzarrean izan zen jadanik aurkeztua, eztabaidatua eta bai onartua ere, eta gaur jalgitzen da plazara. Egun handia benetan. Euskararen aldeko lanen kondairan mugarri antzo geldituko da gailen eta nabarmen gaurko egun hau.

Euskaltzaindiko Gramatika-batzordeari eskerrak errendatu nahi dizkiot biziki euskararen normalkuntzarako tresna baliotsu hau moldatzen hain oparo, hain sendo, hain ongi eta hain gogotik lan egin duelako.

\* \* \*

Señoras, señores:

Dos acontecimientos, a cual más halagüeños y venturosos, motivan este acto o sesión pública, que hoy celebra aquí en Pamplona la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia. El uno es la inauguración solemne de la Delegación de ésta en Navarra. Dicha Delegación estará desde hoy ubicada en estos locales de la calle Conde Oliveto 2, 2.º, cedidos para este fin por la Excma. Diputación Foral de Navarra. El otro hecho es la presentación o lanzamiento al público de la Gramática del euskara común, elaborada por la Comisión de Gramática de la Academia y que fue ya presentada y refrendada por ésta en el Congreso que se celebró también aquí en Pamplona en setiembre del año pasado.

Me limitaré a decir unas breves palabras sobre cada uno de estos dos hechos, a cual más faustos y memorables.

Desde 1979 (véase *Euskera* de ese año, p. 498), aunque a título provisional y en precario, Euskaltzaindia ha tenido su Delegación en el Museo de Navarra. Las soluciones provisionales, como es sabido, muchas veces se prolongan más de lo previsto, y algo de esto ha sucedido en este caso. De todas formas, creo que ello no ha resultado desventajoso para la Academia, sino todo lo contrario, pues siendo el Museo de Navarra un lugar tan concurrido o visitado, el estar la Delegación allí durante tanto tiempo ha servido para que ésta fuera ampliamente conocida y solicitados sus servicios, que es lo que en definitiva queremos.

De todas formas, había que poner fin a aquella precariedad, había que llegar a disponer de unos locales propios, y esto se ha conseguido finalmente con estas dependencias que la Diputación o Gobierno de Navarra nos ha facilitado.

Como es sabido, la Real Academia de la Lengua Vasca es una institución de carácter público, que fue fundada por las cuatro Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya para velar por la lengua vasca y dar orientaciones en orden a su normalización y cultivo. Dichas Diputaciones son las que la sostienen, y la Academia en todo momento ha reconocido esta su vinculación originaria a las Diputaciones del país.

Repetiré aquí lo que dije cuando se inauguró la Delegación de la Academia en Alava: “Euskaltzaindia, por su parte, siempre ha procurado mantenerse en esta línea fundacional u originaria; queremos decir, que su propósito, lo mismo antes que ahora, es mantener y aun robustecer, si cabe, sus lazos con las mencionadas Diputaciones. Por ello mismo, las Delegaciones que en las capitales del país tenemos, queremos que, a poder ser, estén ubicadas en locales de la respectiva Diputación”.

“Y bien, dirá tal vez alguien, ¿para qué son estas Delegaciones? ¿Qué se va a hacer en ellas?”

El primer trabajo de las Delegaciones de Euskaltzaindia es atender en ellas al despacho de las consultas y asuntos relacionados con la lengua vasca, provenientes de la respectiva provincia o territorio. Al frente, como Director responsable de cada Delegación, Euskaltzaindia pone a un académico de número. En nuestro caso el Director responsable de la Delegación de Navarra es el académico de número y Secretario de Euskaltzaindia Sr. José M.<sup>a</sup> Satrustegui.

A mí no me resta sino rendir gracias a la Excma. Diputación o/y Gobierno de Navarra por estos hermosos locales que ha puesto a disposición de Euskaltzaindia.

El otro hecho, no menos fausto y venturoso, que hoy celebramos, es la publicación de la Gramática del euskara común, obra de la Comisión de Gramática de la Academia, que se presentó ya en el Congreso del pasado setiembre y que lleva el refrendo de la Academia “ad experimentum”. No es todavía una Gramática completa, pero sí abarca una gran parte de ella. También esta obra sale a luz con el mecenazgo del Gobierno de Navarra.

Sinceramente creo que con esta obra se da un paso decisivo para la normalización de la lengua vasca. Y aunque, como hemos dicho, no es todavía una gramática completa, esperamos que en un plazo corto la Comisión de Gramática, cuyo trabajo queremos alabar y agradecer vivamente, llegará a coronar esta gran obra.

Debo decir que es para mí motivo de gran satisfacción participar en este acto de hoy. A sesenta y más años de distancia de la fundación de la Academia empieza ésta a ver convertido en realidad su sueño de ofrecer la Gramática de la lengua vasca común, supradialectal. La empresa no era fácil. Dice Azkue en el Prólogo de su Morfología: “Apenas creada la Academia de Lengua Vasca, los que de ella tenemos el honor de formar parte venimos oyendo repetidamente: ¿Cuándo nos darán Uds. un Compendio de Gramática Vasca?”

La cosa no era fácil, decimos, porque el estado de la lengua misma y de los estudios sobre ella no permitía augurar una solución pronta del problema, que reuniera las debidas garantías de madurez y de acierto. Han tenido que preceder muchos trabajos de los mismos señores académicos anteriores, a quienes somos deudores: Azkue, Campión, Urquijo, Altube, Broussain, Lafon, Lafitte... Afortunadamente, hoy contamos con un plantel de jóvenes investigadores y profesores que hacían posible la materialización del proyecto. El acto de hoy constituye un hito o piedra miliaria en la historia de los esfuerzos por la normalización de la lengua vasca. La edición ha sido patrocinada por el Gobierno de Navarra, al que damos gracias por ello.

Pero en torno al libro que hoy sale a la luz pública informará más al detalle un miembro de la propia Comisión de Gramática de la Academia, al que yo cedo la palabra.





## PRESENTACION DE LA NUEVA DELEGACION DE EUSKALTZAINDIA EN NAVARRA

*Pamplona, 27 de Junio de 1985*

*Román Felones,  
Consejero de Cultura del Gobierno de Navarra.*

Sr. Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca,

Sres. Académicos,

Sras. y Sres.,

Amigos todos:

Al inaugurar la sede de la R. A. L. V./Euskaltzaindia en Pamplona damos un paso más en la línea de colaboración que el Gobierno de Navarra tiene voluntad de mantener en relación a la Academia. Como testigo activo de esa continuada colaboración me complace participar con ustedes de este acto y del motivo que lo origina. Sé que la fijación de una sede estable en Pamplona era una vieja aspiración de la Academia, pero también una necesidad de índole práctica que hasta ahora no había tenido sino soluciones más o menos provisionales. A partir de ahora, la parte del trabajo de la Academia que corresponde desempeñar desde Pamplona se verá facilitada y ojalá también incrementada.

El Gobierno de Navarra ha tratado y sigue tratando de apoyar la tarea de Euskaltzaindia en éste y otros sentidos. La celebración del pasado Congreso en Pamplona fue ocasión de estrechar unos lazos que, si bien eran ya tradición, necesitaban de un nuevo impulso para afianzarse en beneficio de esa última finalidad cultural que dirige los pasos tanto de la Academia como de nuestro Departamento de Educación y Cultura. La experiencia de algunos proyectos conjuntos llevados a cabo desde entonces, nos permite hablar hoy de algo más que una relación entre instituciones. Creo que este acto puede ser una buena ocasión para corroborar la existencia de esa otra colaboración activa que estoy seguro de que continuará con nuevos proyectos.

El Departamento de Educación y Cultura sigue el trabajo de la Academia con interés y respeto. Todos los que de un modo u otro estamos obligados a defender la lengua vasca y promover su recuperación, hemos confiado a la Academia el cuidado de esos aspectos que los poderes públicos no pueden atender pero que constituyen el fundamento de una auténtica defensa de

la lengua: la investigación, el estudio, el callado trabajo propio de la institución académica. Muy difícilmente las medidas de carácter económico, administrativo y normativo que el poder público pueda adoptar darán resultado si el objeto de las mismas —en este caso, nuestra lengua vasca— no es cuidado y enaltecido en su dimensión de bien cultural, de idioma, de instrumento comunicativo. La labor, ya dilatada, de la Real Academia de la Lengua Vasca en este ámbito seguirá contando con todo nuestro apoyo porque en buena parte de ella depende el futuro del euskera.

## **JOSE ANTONIO ARDANZA LEHENDAKARIARI EUSKALTZAINDIK IKUSTALDIA**

*1985-III-13*

Euskaltzaindiaren izenean, Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua; Endrike Knörr, Diruzaina; Juan San Martin, Jagon Sailburua; Jose Luis Lizundia, Idazkari-ordea eta Juan Jose Zearreta, Ekonomi Eragilea jaunak, Ajuria-Enean izan ziren Lehendakari berria agurtzen.

Ikustaldia amaitu ondoren, Aita Villasantek berak azaldu zuenez, Erakundeetan eta, batez ere Eusko Jaurlaritza eta Foru Diputazioetan, kargu aldaketak gertatzen direnean, Euskaltzaindik ohitura du, Agintari berriei bisita bat egitea.

Gure Erakundearen helburuak eta lantzen ari garen gai nagusienak aipatu ziren: OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA, GRAMATIKA, ATLAS LINGUISTIKOA, TOPONIMIA.

Bestalde eta, zor denez, Euskaltzaindiaren zerbitzuak ere eskaini zitzaizkion.

Eta azkenik, Eusko Jaurlaritza eta Foru Diputazioak direnez Euskaltzaindiaren diru-hornitzaile nagusienak, aurtengo Aurrekontuak ere atera ziren elkar-hizketan. Euskal Erakundeen Aurrekontuak prest omen daude onartzeko, baina, bien bitartean, Euskaltzaindik ohizko diru-behar batzu ditu, eskuarteko lanak aurrera eraman ahal izateko. Diru-premia hau larria da, eta hala jakin-erazi zitzaion Lehendakariari.

J. A. Ardanza Lehendakariak harrera ezin hobea egin zien Euskaltzaindik aurkeztu zizkion egitasmoei eta bere laguntza eskaini ere.



Euskaltzaindiak, 1985-III-13, Jose Antonio Ardanza Lehendakari berriari egindako ikustaldian: *Eskumatatik ezkerretara*: Jose Antonio Ardanza, *Lehendakaria*; Jose Luis Lizundia, *Idazkari-ordea*; Fr. Luis Villasante, *Euskaltzainburua*; Endrike Knörr, *Diruzaina* eta Juan San Martin, *Jagon Sailburua*.

# HILBERRIAK

## PIERRE NARBAITZ (1910-1984)

### **Pierre Narbaitz kalonjea galdu du Euskal-Herriak (\*)**

Abuztuaren 16-an, Kanbo-ko "Arditeia" deitu apez zaharren artategian Pierre-Pascal Narbaitz jaun kalonjea itzali zaiku eritasun luze baten ondotik.

Azkarate bere sort-herrian ukan ditu ehorzte ederrak: Jaun apezpikua eta Hiriart-Urruty bikario jenerala lagun, bildu dira 20 apez segurik eta Hiriart-Urruty jaunak egin du egunari zoakon prediku ederra.

Narbaitz jauna sortu zen 1910-eko Martxoaren 25-ean. Gazterik senditu zuen apezgorako deia.

Hortako eskolak egin zituen Belok-en (1923-1926). Uztaritzeko semenario ttian (1926-1928) eta Baionako semenario handian (1928-1934).

### **Bikario jenerala**

Apeztua izan zen 1934-eko Uztailean eta urte bat iragan zuen Uztaritzeko semenarioan erakasle.

1935-ean eta urte bat iragan zuen Uztaritzeko semenarioan erakasle.

1935-ean Jaun apezpikuak igorri zuen Tolosarat grado-keta, eta bi urteren buruan itzuli zen bi lizentzia irabazirik: letretakoa eta filosofiakoa.

Baionarat izendatu zuten apezgai handien eskolatzerat. Haren ikasle ohiek diotenaz aire fresko bat ekarri zuen etxe hortarat, erakaspén berrienak eta sakonenak ere gogo guzien menerat ekartzen zituela argiturik eta erresturik.

Hain hartze on eta jakitate handiko apezga Mgr. Vanstermerghe-k nahi ukan zuen apezpikutegirat hurbildu eta hasteko Diosesako astekaria haren eskuetan ezarri zuen, geroxago (1943) gainerat emaiten zuela Obren buru.

1945-ean Mgr Terrier-ek ohorezko kalonje izendatu zuen eta 1952-an bikario jeneral.

---

(\*) *Herria* aldizkariaren 1766 zenbakitik jasoa, hots: 1984.eko Abuztuaren 30ekotik.

Mgr Gouyon-ek atxiki zuen gradu hortan. Mgr Vincent jin zenean Narbaitz jaun kalonjeak galdu zuen bikario jeneral kargutik ateratzea eta ohorezko bikario jeneral tituluarekin ereman du 1964-etik hil-artinoko denbora, Luzaiden bizi zelarik bere arrebaren etxean, baina izkiriburuzko lanari sekulan ez bezala lotua.



### Gizonaren jitea

Orok goresten zuten Narbaitz jaunaren izpiritu argi, bizi eta sakona, orotara idekia, gauza berrien ez lotsa. Aitortzen ere zuten jendekina zela, mintza-erretxa: begia niriñir, ezpaina irrisu, eskua zabalik prest zagon nor nahiren errezebitzera, ele goxo ederrez kausitzen ziolarik.

Borondate eskasik ez zuen. Izaitekotz bere hari atxikia eta, hartaratzeko jokolarri ona. Baina erran zahar batek diona: zuhaitz handiak itzal gehiago egiten du ixkilinbak baino, nahiz hunek ere bere heinekoa egiten.

Zer nahi den, ez da alferrik egona bere mendean. Hiru apezpiku lagundu ditu diosesako ohiduren oraikotzen, bereziki parrokien eta eskola girixtinoen egituretan.

Kultura nasaiekoa baitzen, nahi ginituzke aipatu haren gogo-bihotzetarik jalgi lan andana bat. Hiru sailetan banatuko ditugu: 1. Erlisioea; 2. Musika; 3. Historia.

### Erlisioe alorrean

Apeza izanez, ez gira harritu behar, ager-arazi baitzuten lau euskal Elizako liburu; hainitz predikatu du, bereziki okasione handietan: beila, biltzar, ehorzte-meza;

Saran Axular goretsi du, Baionan Aita Teillard de Chardin-en alde mintzatu da hiruzpalau aldiz, Irratian euskaraz frango luzaz larunbatetan eman ditu predikuak.

Izkiribuz bizi saindu batzu ezagut-arazi ditu, hala nola Jesusena, *Liburu ederrena* izeneko liburuan; San Frantses Jatsukoarena, euskaraz eta frantsesez; Loiolako Iñakirena “Gure herria” aldizkarian; Mixel Garicoits agerkari hortan berean.

Euskal liturgiari buruz, nola ez du sustatu euskararen usaia: hari zor diozkagu zenbait euskarazko. Prefazio eta *Gure Aita* batua. Harek asmatu du musikazko *Meza laburra*, eta hitz eta aire moldatu dotzen-erdi bat kantika. Ahantz gabe armonizazione andana bat.

*Kattalinen gogoetak* ezin ahantziak ditugu, liburu hortan mintzarazten baitzuen etxekandere euskaldun bat zentzu, fede eta bihotz handirekin. Hain ederra estimatu zuten mugaz haindikoek ere, nun Aita Villasantek Gipuzkoako mintzairean itzuli baitzuen eta arrakesta gaitza egin baitzioten.

*Etxea* izeneko emazteen aldizkari katolikoa ere gidatu izan du ezin hobeki, dena zentzu eta goxorekin. Beste aldian aipatuko dugu aldiz P. Narbaitzen musika lana.

## Historia

Bere hogoi azken urtetan Narbaitz jaun kalonjeak arta eta sukar berezi batekin nahi ukan ditu ikertu eta argitarat eman gure euskaldun arbasoen berriak.

1962-an izkiriatu zuen *Euskaldunen ohorea*.

1970: *La bataille de Ronceveaux*.

1973: *Nola eta norekin hasi zen Nafarroako erreinua?*

1975: *Le matin basque*, liburu handi bat 518 orrialde (25 × 20 cm). Euskaldunen historia kondatzen du Jesusu sortu aintzineko hamekagarren mendetik, ondoko bederatzigarren menderaino. Frantziako Akademiak primatu du obra eder hori.

1978: *Nabarra*, 652 orrialde (22 × 15 cm). Liburu gotor hunek kondatzen du zer izana den Nafarroa bere erreegen mendetan 824-etik 1515-a arte. Hau ere lan aberatsa.

## Azken hitza

Dugun erran bertze asko ixtudio barreatu dituela Narbaitz jaunak aldizkarietan. Zenbait bere izen deiturez sinatuak, baina andana bat izen ordez: P. Arradoy, P. Navarre, Ttuntun, Dorré. Euskara biziki, goxoki zerabilan eta Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen. Euskaltzain oso ere izan zen izendatua, baina errefusatu zuen ez zuela astirik biltzarretarat jarraikitzeko.

Hitz batez handizki ohoratu du Eliza eta Euskalherria. Otoitz bana zor diogu euskaldunok.

*Pierre Lafitte*





**IN MEMORIAM ODON APRAIZ BUESA  
(1896-1984)**

Adinak abaildua, eritasunak iharrosia eta azkenean lurreratua, Irailak 12, 1984, hil zen Gasteizen Odon Apraiz Buesa euskaltzain ohorezkoa, laro-geitazortzi urterekin. Hiru hilabete lehenago eramana zuten bere ilobaren “La Esperanza” erietxera. Larritasunetik aterea, aski sendatua, “Alava” erietxera aldatu zuten. Bertan, guztiz ongi zegoela zirudienean, gaizkitu zen hogeitsu egunen buruan eta argi-haste batean itzali zitzaigun maisu zaharra eta adiskide ona.

Maisu zaharra, bai, eta zinez esan dezakegu Odon Apraizek ere ez zuela bere arrazaz ukatu. Haur eta mutikoaren kultur-minak azkurri ugari aurkitu zuen etxen, lehenik. Aita zuen Fermin Odon Apraiz Saenz del Burgo (1851-1919), Filosofian Dotorea, Gasteizko alkatea, *El Anunciador Vitoriano* egunkarian arduraduna eta idazlea ere. Osabak, berriz, Ramon (1845-1926), mediku burutsua, eta Julian (1848-1910), kateraduna eta Cervantesen ikerle eta miresle ezaguna.



Zortzi haurride izan zituen Odonek: zaharrena Angel (1885-1956), Unibertsitate-kateraduna eta Eusko Ikaskuntzaren idazkaria, eta gazteena Emilio (1906-1975), arkitektoa. Boskarrena izan zen Odon (1896an sortua) eta ondoren zuen Ricardo (1899-1968), “El Licenciado Rompelanzas” zezenketa-idazlea eta Numanciako Museo-burua, orobat Luis (1903-1935), medikua, Parisko Olinpia Jokoetarako hautagai.

Lehen ikasketak Gasteizko Maristetan egin zituen Odonek. Maizenik kontatu duena zuzendariagandiko errieta hura izan zen:

– Euskaraz egiteko debekua ez duzu errespetatzen, Apraiz jauna.

Odonek, ordea, euskaraz ez jakin. Egiten zuen gauza bakarra *Bizkaitarra*, *Gipuzkoarra* eta gainerako agerkari abertzaleak ikasleei helaraztea zen. Hasia zen, bai, euskaraz ikasten, hamalau urterekin, eta hain zuzen ere Azkueren ikasle batena omen zen *El euskara ó baskuenze en 120 lecciones* liburuaz. Salamancan jarraitu zuen hizkuntza ikasten, lagunekin, baina bultzada handiena 1913ko udan etorri zen: Unibertsitateko lehen urtea gainditzegatik, aitzak zer sari nahi zuen galde egin eta semea, non gogoia, han zangoa, Aramaioa joan zen. “Goiko Errota” baserria eta Aramaio guztia ongi iltzatuak gelditu ziren betiko haren oroimenean.

Apraiz ez zen, zalantzarik gabe, ikasle eredugarri horietakoa. Berak aitortzen zuenez, Salamancan, hamabietako eskola baino lehen, postaz zetorkion *Euzkadi* hartu eta klasean irakurtzen zuen, irakasleak ezin ikus zezakeen tokian. Ikasle argia, nolana ere, baina bestelako interes asko izaki, logika liburua kafesnearen zipristinez zikindua zuen, ikasgaiak gosal garaian arrapaladan prestatzen zituelako.

Salamancako egonaldiaz gainera, Deustuan izan zen Apraiz ikasle. Orduko Arana Goiri-zaletu zenak *Euzkadi* egunkaria, Konpainiako ikasle-egoitzan debekatua, erosten zuen eta Garate atezainak sartzen uzten. Baina euskal ikerketan haren sabindar isuria moztua gertatu zen halako batean, Rufo Mendizabal jesulagun helenista ospetsuak hitz hauek esan zizkionean:

– Hara, Apraiz: euskal filologian gauza bakar batek balio du, Julio de Urquijok eta haren *Revista Internacionalek*.

Hitzok mingarri izan bazitzaizkion ere, Odon gazteak iritzi eta gomen-dioaren zuzentasuna onartu zuen.

Kondaira aldera makurtua, Madrilen doktoratu zen 1917an, “Euskal Herria Frantziako Iraultzaren garaian (1793-1795)” lanaz. Lan hau, sarritan esaten zuenez, beldurrak eraginik eduki zuen argitara gabe.

1917ko uda hartan, berriki gogoratu zuen bezala, Apraizek Eusko ikaskuntza sorrarazteko bilkuretan parte hartu zuen, Arantzazun, Eleizalde, “Kizkitza”, Ixaka Lz. Mendizabal, F. Belaustegigoitia eta beste zenbaitekin. Hurrengo urtean, jakina, ez zuen Oñatiko Batzarrea huts egin.

Haren izena, orduko, ezaguna zen: 1917an bertan argitaratua zuen Bilboko *Idearium* aldizkarian Vinson-en lanaren itzulpena, “Contribución a la obra de la bibliografía vasca. Revista general de los estudios vascos de 1906 a 1912”, nahiz moldiztegi huts askorekin. Ez zen hura, ordea, Odonen lehen fruitua: kazetaritzan haren hasikinak alde batera utzirik (eta oroz gain Salamancatik, hamasei urterekin, Arana Goiriren urtemugakari ospakizunez *Bizkaitarra* astekarira bidali zuen berria, 1916an, hogei urterekin, beraz), bibliografía ukitua zuen, “Una labor necesaria. La bibliografía vasca” Gasteizko *Ateneo* aldizkarian. Gutxi bezala jabetzen zen Apraiz bibliografiaren premiaz, eta gehiegikerian erortzeko beldurrik gabe esan daiteke urteetako bere grina izan zuela alor hori.

*Revista Internacionalean* 1920an argitaratu zuen “Un caso de fonética histórica estudiado en la toponimia alavesa. La alternancia *l > r*” lanari Vinson-ek “savant” iritzi zion eta berau akuilu izan zitzaion ikerle gazteari.

Irakurle porrokatua zen, liburu zein aldizkari, hau azpimarratzen, hura mozten eta gordetzen, eta behin bere anaia Angelek hau esan zion:

– Debieras poner en tu tarjeta: “Odón de Apraiz. Lector de periódicos”.

Irakurle porrokatua ez ezik, idazle joria zen, *Euzkadi* egunkarian batez ere: haren izengoitia astean bizpahiru aldiz agertzea ez zen bakan gertatzen.

Euskaltzaindia sortu berrian, Urriak 26, 1919, Odon Apraiz urgazle izendatu zuten, beste anitzekin batera (haien artean Altube, “Kirikiño”, Oleaga, Zamarripa, Lekuona, “Orixe”, Daranatz, Etxepare, Lacombe, Gavel, Menéndez Pidal, Saroihandi), eta gogotsu ekin zion lanari. Euskalkien ikerketarako haren jaidurari zegozkiokeen ikastaldiak hartu zituen bi urtez, 1920-22, Euskaltzaindiaren diru-laguntzaz, Parisen eta Zürichen, baita Italiako iparraldean praktikak egin, faxismoaren itsasgoraren garaian. Orduko maisutzak eta adiskidantzak ere ez zituen Odonek ahantziko: Lacombe-z hunkiturik mintzo zen Euskaltzaindian, Baionako batzarre batean, duela zenbait urte, eta Scheuermaier, Steiger, Saroihandi eta abarren oroitzapena ongi txertatua zeukan gogoan barrena.

Ikastaldion ondoren, Erizkizundi Hirukoitzean (utz dezagun orain ematen zitzaion irri-deitura) langile aspergaitza izan zen Apraiz. Horra Ekialdean beteriko liburuskak (gehienetan bizikletaz herriz herri ibilirik), baita Deba Arrokoak ere. Odonen zehaztasuna eta zorroztasuna noraino iristen ziren biziki garbi darakuste lanok. Bizpahiru liburuskak, haatik, ez zen ematera ausartu: ez zuen uste osotoro fidagarriak zirenik. Jakitearen legeak, izan ere, begiratzen zituen Odonek, eta munduan barrena korritzen zuten usadioak hedatzea nahi zuen. Horrexegatik harritzen zen “Orixe”-ren hartaz:

– Nire aitaren semea ez da mapak egiteko sortu.

Jakina, Arabako euskararen egoera ezagutzen zuen hobekienik, eta horixe hartu zuen gaitzat, Gasteizko Aurrezki Kutxak 1950an antolaturiko iker-

lehiaketan saria irabazteko: *El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria (1850-1950)*. Saria gorabehera, lana argitara gabe gelditu zen 26 urtez, izotzaldia pasa arte.

Orobat ezaguna da 1955eko artikulua, “El vascuence en Alava a través de los siglos”, haren mapa eta guzti.

Lanbidezko irakaskuntzari 1926an ekin zion Odonek, aurrenik Barcelonako Unibertsitatean (1926-1933), Eibarko Institutuan (1933-1935) gero, hurrena La Lagunakoan (1935-1942), Reuskoan (1943-1950) eta Gasteizkoan azkenik, zahar-saritu arte, 1966an.

Herritik urrun izan arren, Apraiz ez zen euskaldungoaz ahanzten: horra artikulua, hitzaldiak eta ekintzak. Baina, horrekin batera, bizi-herrira moldakoi, tokian tokiko gaiak ukitu zituen maiz, ahoz zein izkribuz.

Euskararen ikerkuntza ez ezik, hizkuntzaren jagoteagatik axolatzen zen. Eusko Ikaskuntzaren babespean sorturiko *Baraibar Taldean* Odonen izena eta kemena ageri dira, esaterako. Errepublikari sorberriaren garaian, telegrama bat bidali zion Apraizek euskarazko bere ikasleekin Kataluniatik Marcelino Domingo ministrariari, Euskal Herrirako elebitasuna eskatuz. Gasteizko beste kultur ekintzetan beti edo gehienetan aurkitzen dugu Apraiz, hala nola *Cinco* aldizkari surrealistan, zeinetan Albertiren “Un fantasma recorre Europa” olerkiaren euskal itzulpena argitaratu zuen. Ez zitzaion arrotz, ez, herriaren eta euskal kulturaren duintasuna. Gogora dezagun, labur beharrez, Ernesto Giménez Caballeroren aurka idatzia. Orduan gorri zena, gero zuri, edo nahi baduzue, urdin bihurtua, Barandiaranez eta *Anuario de Eusko Folklorez* trufatua zen. Apraizek *El Sol* egunkarian bertan eraso zion ezin ederkiago.

Horra non Apraizen izaeraren ezaugarri nabarmena: maisu eta adiskideenganako atxikimendua. Ez da erraza Baraibarren hilberri sentikor hura baino hoberik aurkitzen, adibidez, eta lehen aipatu dudanez, batzuk oraindik gogoan dukezue zein hunkiturik mintzo zen Lacombe-z Baionan.

Jakina, Odon harro zegoen zenbait adiskidetasunez, hala nola Unamunorenaz. Salamancako Erretoreak ez zion alferrik agur egiten Madrileko Ate-neoan, bere konpainiaren erditik:

—¡Hola, Apraiz!

Hain goi-mailako konpainia ez, agian, baina bertako *Café Zahara*-n biltzen ziren euskaldun ikasle-irakasleak. Talde arrai hartan Apraizek bazuen bere izengoiti hantua: “Otón I, Emperador de las Vasconias y de la Bureba”.

Umorea umore, Odon ez zen atzean gelditzen, ezta epai-mahaian ere. Ezaguna da haren ateraldia, ikasle batek Viriato espainiarra eta katolikoa zela esan zuenean:

— Sí, y también afiliado a la Falange y las J.O.N.S., ¿verdad?

Halaber idatziz, Odon ez zen umorearekin zekena. Ikus, adibidez, “La fundación de Vitoria. ¿Leovigildo o Sancho de Navarra?” artikulua (bidena-bar, zenbait kondairagilek eta kondairagile-gaik hobeko dute artikulua hori irakurri, *Victoriacum* eta ingurukoak harrotu baino lehen). Jakina, inoiz edo behin ziria ezin izan zitekeen nabarmenegia, esaterako, “Miles gloriosus” aipamena Primo de Rivera diktadoreari egoztean.

Eta epai-mahaiak solasera (bakar-solasera, badakit) etorri direnez gero, esan dezagun, *De mortuis* hari kalte egin gabe, hortxe zuela Apraizek, izatekotan, misoginia. Hots, uste zuen, zuzen nahiz oker beste kontu bat da, akademia arrazoinak ez zirenak tartekatzen zirela emakume-epailariengan. Hortik lekora, gure mutil-zaharrari ez zitzaizkion andereak gaitzi. Canariasen ezkontzeko zorian izan zen eta gero, denbora luzean, andere katalan batekin eduki zuen harremana.

Liberal familian sortua, baina liberal foruzalean (horrelako askazia bazen, noski, gure arteko batzuek eta besteek nahi ez badute ere), erakargarri ziztaion politika: hamalau urterekin *Centro Vascoko* kidea zen (Oriente, hau da, egun Posta kalean), eta PNV utzi zuen Aiara aldean karlistekiko hitzarmen baten berri jakin zuenean.

*Acción Nacionalista Vascan* sorreratik bertatik ikusten dugu Odon Apraiz, Ortueta, Garate eta anitz gogaide bezala. Testuak ontzen zituen (hala nola oinarrizko agiriak eta erlijioaren irakasteak) eta Eibarren bizi zenean Erdiko Deba Arroko ordezkari aritu zen.

Libertaltasuna zela medio, galduriko parabisu hartan, ongi konpontzen ziren Gasteizen ANVkoak-eta errepublikazaleekin. Behin, *Alava Republica*-naren ale oso bat Odonek bakarrik eginik kaleratu zen.

Nazioarteko eremua ere begiratzen zuen Apraizek, euskaldunen arazoa haizatzeko. Ekintza horren lekukoak dira, besteak beste, Joan Estelrich-ekiko (1896-1958) gutuneria, Genèveko Nazioen Elkartearen inguruan.

Alfer lana litzateke hemen Apraizen bibliografia, ezta hautapen bat ere, aipatzen hastea. Isidor Baztarrikak egina du sail hori, 1981an argitaratu zen omenaldi-liburuan (1). Euskaltzaindiak bere gorazarrea eskainia zion 1976an, eta zortzi urte lehenago euskaltzain ohorezko izendatu.

Euskal Herriko Adiskideek 1974ean izendatu zuten ohorezko bazkide, ets Eusko Ikaskuntzak, berriz, “Manuel Lekuona” Saria eman iaz, bizi guztiko haren lana haintzat harturik. Lan hau, noski, hobeki isladatuko da Odonen argitaragabeak plazaratuko direnean. Horra gure nahia: Apraizen heriotzaren urtemugan eskura izatea.

---

(1) *Homenaje a Odon de Apraiz. Odon Apraizi omenaldia*. Arabako Diputazioa, Gasteiz, 1981.

Buka dezagun, ordea. Bego gure artean, biziro maite zuen Euskaltzaindian, beti eta nonnahi defendatu zuen Euskal Herrian, haren oroitzapena. Izan bekigu eredu haren nortasuna: ikerle zehatza eta jagole nekaezina. Eta, agian oroz gain egunotan, atxik dezagun behin eta berriz aldarrikatzen zuena: *jarraipenaren sena*, ez bait gara euskaldunok umezurtz hizkuntzan ez kondairan. Gu baino lehen izan dira gertakariak, jakin beharrekoak, eta gu baino lehen egin dira lanak, ezagutu beharrekoak.

Betiko atsedena har dezala euskalari eta euskaltzale handiak.

*Endrike Knörr*  
25-1-1985

## PIARRES LAFITTE JOAN ZAIKU

(1901-1985)

Bere langile haundienetarik bat galdu du Euskaltzaindiak: 1985 urte hontako Otsailaren 23-an eman zuen azken hatsa Baionako Ospitalean, bere ondoan zuela Pierre Andiazabal euskaltzain urgazlea. Berak ezagutza argi zaukala, azkeneraino jarraiki gintzaizkon Euskaltzaindiko kideak, Hiriart-Urruty, Diharce, Haritschelhar eta Baionatik hurbilenik ginenak bai-eta, azken asteetan, bisita batez, Euskaltzaindiaren zuzendaritza.

Gogoan dute Euskaltzaindikoek non ikusi duten azkenik, bere betiko urratsetan, Piarres Lafitte: Iruñean, 1984-ko Irailaren 25-etik 29-ra, hango bereko Hizkuntz-Eskolan egin zen Euskaltzaindiaren hamargarren biltzarrean. Lafitten gauza zen hain zuzen aste hartan erabiltzeko gaia: gramatika batzordearen buru bera, han behar zituen batzorde horrek zenbait denboraz erabili lanak eskaini edo presentatu. Eta egun horien hautua, Arturo Campionek bere gramatika atera zuenaren mendeburua.

Lafittek han ere agertu zituen betiko bizi gosea eta izpiritu xorrotxa ez ditugu ahantziko: urratsa laburtua bazuen ere eta bilkura batzuetan haren burua noiztenka erortzen izana gatik, izpiritua zalu, eta galde bat ere ez da harekin egundaino hutsean erori. Gainerat, ikastez eta ikustez ezin ase: gostarik gosta, ikasgai eta lanez kanpoko ateraldi eta ikusgarrietan burutik buru parte hartu zuen, ala Iruñeko arratsetan ala Leire ta Aralarko ibilaldietan, aste hartan guzian.



Horien guzien ondorioa zuena ala bizi luze ongi bete baten gaididura, irailaren 29 hãrtako lehen gauetik landa ez zuen onik izan, etxerat-eta; ondoko ortziraletan ospitalean sartu zen infarctus batekin eta nola bururatu den hori badakizue. Hau ere on duzue jakitea: infarctusaren zeinu berezien artategitik atera-ta, biharamunean bere ospitaleko ganbarako bulegoan lanean hasia hatxeman zuela medikuak, deusik pasatu ez balitz bezala. Eta nik, Lafittek, HERRIA astekaria asko urtez egiten ikasi dudanak, hau erran dezaket: enekin dauzkatala Lafittek ospitaletik astekari horrendako, han idatzirik, igorri dizkidan hamasei orrialde artikulu, letra, ixtorio-mixerio, mediku-solas edo irri-solasak, laguntza gisa edo, berak zioen bezala, “xoko baten betetzeko”.

Hemen bizi luze hortako lan gaitzari behako orokor bat eman behar-eta, nola has eta zer bidetarik ibil? Batetik, hobe litake erraitea ezin ongi bururatzeko lanari lotzea dela holakoa. Bestetik, zerbait garbi erran beharrez, hobe nuke naski *Iker 2* libururat igortzea euskalzalea: han, Lafitten omenaldiz 1983-an egin obra hartan, aurki ditazke, hastapenean, gure kalonje zenaren biografi pondu batzu eta haren lan ezagutuenean zerrenda luzea, euskal gai gehienez, bai euskaraz eta bai frantsesez, dela liburu, artikulu, mintzaldi, bertsu, antzerki, ipui, argitaldi ala kazetalaritza. Hots, gauza guti Lafittek nolazbait hunkitu ez duenik.

Ez naiz eginak diren lanen kopiatzen arizan, eta, bestalde, goizegi delakotz orain Lafittek utzi dokumentu metaren ikertzeko, doala hemen gainez gain gure jakintsun xaharra azken urteetan Uztaritzetik eta Euskaltzaindira, edo Pastoralara edo Antzerki, bertsu-saio, mintzaldi, besta eta ikasaldietara besotik lagundu duenaren azken behako maitekorra.

Gutiz barka, hona aipatu nahi genuzkeen pondu larrienak:

- Hiru Probintzietako umea.
- Kazetalaria.
- Euskararen kutxa.
- Kantu biltzaile ta moldatzailea.
- Jakintza guziez gosea.
- Bizi guziko erakaslea.
- Politikan ere...
- Orozgainetik apezka.

## HIRU PROBINTZIETAKO UMEA

Nongo seme zen xuxen P. Lafitte? Nahastekoa ere bada. Aita Baigorri-Buztinagan sortua zuen, ofizios mugetako guarda. Ama, Marie Viela Uztariztarra. Piarres sortzen da Luhuson 1901.ko Maiatzaren 21-an. Amaren osasun eskasez, amañotan ezarriko dute Senpereko andere baten esku, gero amaren burasoetan Uztaritze Buztingorrian. Laster Urruña-Buztingorrian izanen dira, aita Herburu eta Oletarako aldakuntza izanik. Baina zortzi urtetako aitarik eta amarik gabe da, hauk 1909-an biak zendurik. Eta amaren anaia baten etxean emana, Itorrotzen.



Burasoetan suerte guti, bere osasunean ez hanbat, beharko ote da bederen Lafit-familiaren hiru "buztin-etxeetan" zerbait seinale ikusi? Baigorri Buztingatik, Uztaritze Buztingorri eta Urruña Buztingorriat ibiliko den familia horri ez ote zaio nonbait deus iraukorrik lotuko? Burasoak iragankor, egia-erran, hain gazterik joanak, baina horra haien semea, buztina bezalakoa, itxura txarren gatik. Bestalde, burasoz hain goizik gabetuak ez ote du Euskal-Herri osoa ukanen buraso, bederen Iparraldekoa, hiru probintziak haur haurretik jastaturik... berak egun batez haundizki zerbitzatuko dituen artean?

Zerbitzu ametsak pizten zaizko bihotz horri hain zuzen: Belokeko apezskolarat sartzen da 1912-an. Zazpi urteren buruan, baxiller da eta semenario handian on hartua da, Baionan. Hemen du hastetik ustegabeko zerbitzu mota aurkituko: euskararen bidea, Mgr Saint Pierre euskalzale apezpikugaia gidari. Ordu arte, batzuen eta besteren meneko ibilia, erran behar da biarnesa duela parte haundi batean bere etxe-koekin entzuna. Hobe funtsean, zeren mintzaira hori ere aberastasun bat gehiago izanen baitu hain ontsa egin buru on horrek. Hain zuzen urte bat osoa emaiten ahalko dio euskarari, bere ixtudioetako abantzuari esker.

23 urtetan apez, Frantziako Tolosarat doa lizentzia egiterat. Eta 1926-an sartuko da Uztaritzeko semenarioan erakasle, hantxet eremanen baititu bere azken eritasunerainoko urteak kasik oro. Asko gauza eginez, egia-erran: bosgarrena eta aleman erakaskuntza, hirugarrena eta erlisionea, grekoa eta literatura frantsesa, eta beti euskara konduaren gaineko, bestaldeko lan mota ainitz ahantzi gabe: kazetalaritza ainitz burutarik eta asko gisatara, gerla denboran soldadu altxatua eta bestalde aipatu behar dugun egitekorik zernahi. Apezpikuak kalonje egin zuen 1961-an. Frantziako "Centre National de la Recherche Générale" sailean, zahar arrandaino. Euskaltzaindiak urgazle hartu zuen 1928-an eta Euskaltzain Oso 1949-an. Azkenik, "Doctor honoris causa" egin zuen Euskal-Herriko Unibertsitateak Leioan 1982-an.

Hemen ikusten da hiru Probintzietarik 7-etara ere zabaldua zela aspaldian P. Lafitte.

## KAZETALARIA

Gizonak baditu bere egitekoak, beharrak edo zorteak manatuzkoak. Baditu ere bere jitezko deiak. Lehenak eta bigarrenak alde bererat balinbadoatzi hobe! Holakoa da zenbait biziren suerea. Baina ainitzek bigarren hori egin behar, lehen hartarik bazterkatuz eta ebaska eta konduaren gaineko bezala. P. Lafittek, ez da dudarik, egin zuen bat eta bestearen batasuna bere bizian aspaldi hontan. Baina hastean ez ote ditu bi sailak elgarren berririk gabe erabili, bat behar zelakotz eta bestea laket zitzaio-lakotz? Nolazbait ere, bat egunazkoa eta bestea gauazkoa bezala?

Bazuen-eta Lafittek betidanik kazetalaritzarako dei bat bere baitan! Zerbait holako senditzen ote zuen Itorrotzen 10 urtetan Eskualduna astekaria eliza-atean saltzen zuenekotz, edo, geroxago Arnegin, hango apezaren etxerat bakantzetan joiten zelarik? Hain segur ere geroxago zitzaiokeen dei hori bere baitan sortu, Beloken zirelarik, eskolan, hasi baitziren, bereziki Donapaukeko Vogel batekin, ikasleen kazeta bat sortzen. Denbora jin, denbora joan, apeztu ondoan, hasiko dira dei berezi horren lehen fruituak agertzen: batean Baionako kazeta baten artikulua batek zuen ihardespun edo polemika ttintta batez ere tentatuko, bestean gazte batzu zituen bere bidean aurkituko kazeta bat, ordukotz doi bat ausarta, sortu nahi eta idazleak bilatzen.

Hor zituen ere, eta haiek hurbilenak, euskaldun agerkariak, hobeki erraiteko, *Eskualduna* zen orduan bakarra; euskaraz zelakotz hau, ez zitaken Lafitte alde besterik izan eta ikasi zuen goizik, *Saint Pierre* bere erakaslearekin, hartan idazten. Baina gose bat ere uzten zion apez gazteari *Eskualdunak* idaietan: errepublika, sindikalismoa, langile elkargoak, herria eta herrizaletasuna goretsiko, eskola ofizial edo berdin pribatuko euskararen itotzaileak kritikatu, gazteak akulatuko zituen kazeta baten asmoa ere bazakarkien Lafittek bere baitan eta hola zen *Aintzina* sortu, denbora berean abertzaile kotsu batekin.

Egia-erran, 1940.eko gerlak aintzinauren ditu gauzak. Lehenik *Eskualduna*, fruitu onduegi bat bezala, eroriko delakotz. Eta 1944-an, Euskal-Herria bere agerkariak gabeturik egonen delakotz. Orduan, berak joko du P. Lafitten orenak. Baziren bai, denak funtsean, astekari haren ordain bat nahi zutenak. Baina Milafrangako apeztexean bildu ziren apez eta laiko haien artean ez baitzen bat izan holako lan baten-tzat bere burua gai edo aski kuraios zaukanik, Lafitten ganat etorri ziren Uztaritzerat *Saint Pierre*, *Oxobi*, *Leon Leon*, *Zerbitzari*, *Dassance* eta besteak. Nork erran orduan 40 urteren lana hartzen zuela Lafittek bere gain? Iragan udazkenean, azaroaren 17-an, Gerezietan ospatu genituen, Euskalzaileen Biltzarraren Egunean Herria astekariaren 40 urteak. Damurik, P. Lafitte gaitzak hartua baigenuen ordukotz, eta bere Kanboko eritegitik zuen bakarrik bihotzez parte hartu.

Nork konda eta nork neur lezake zer izan den P. Lafitten 40 urte horietako lana? Zer ez dio zor Euskarak? Aste guziz, gai guziez, munduko berri mota guziez nor mintzatuko zen euskaraz, Herria izan ez balitz? Eta zer ez dio zor gure herriaren berritzaileak? Utzirik lehenengo zaharkeriak eta geldikeria bat, beti arizan baita Herria oraingo moldeen berritzeari, gure denboraren on hartzeari eta geroko leihoen zabalteari, euskara halaber berrituz, ortografia freskatuz, gauza guzietan, ahalaz, biharko bideak gogoan, baina sekulan atzokoa ukatu gabe. Azkenik, diogun ez duela Herriaren buruzagiak bere sendimenduen erroa eta zurkaitza egundaino gorde, ebanjelioa, baina denbora berean bakoitzaren errespetu osoan eta orenen libertatea zainduz.

## EUSKARAREN KUTXA

Kutxa edo eltxetsi batean zer egiten da? Aurkituak oro barnerat botatzen. Ez da kutxa gauzen erakusteko aintzindegi bat: biltzeko eta gordetzeko tegi bat baizik.

P. Lafitte ikusten zuenak holako zerbait zela erran zezakeen. Beste guziak beren jakitatea eta aiseria erakutsi beharrez ari ziren tokian ere, hura ixil zegoen hamarretarik bederatzietan. Aldiz bere etxerat argibide baten galdez etortzen zitzaionarekin, ezin atertua: orduan kutxaren barnean baitzinezten biak sartuak, hantxet ar zintazketen hura eta zu, iker eta iker, jasta eta goza, ontasunaren mamian sartuak zineztenaz geroz.

Gainerateko denboran, bakartasunean zen gure ikerlea loriatzen: bil eta bil, eta bota beti kutxaren barnerat. Hortako zuen irakurtzeko errabia hura. Eritasunaren garratzenean eta pairamenean minenean entzun dugu erraiten: "Ez dut begirik hertsi gauaz baina irakurtzen ari bainintzan, ez dut sofritu". Irakurtzea, kutxarat biltzea, hori P. Lafitten droga, moxkortzeraino, loak eta pairamenak ahanzteraino. Horra nola dituen denak irakurri, oro ezagutu, guziak ikasi.

Fruituak hor dauzkagu, guzien eskuko: *Hiztegiak*, Lhande ala Tournier-enak, Aranart eta beste laguntzaileak aipatuz, ez baitzuen Lafittek bere izenaren agertzeko axolarik.

Eta hor *Gramatika*, bere ezagutza guzien ondorioa hura ere, hiruetan agertua, eta oraino berriki. Ezagutza horiek, erran behar da, ez zituen liburutetan gakoak giltzatuak. Zenbat aldiz ez gaitu loriatu, eta ondarreraino, galdea egin bezain sarri, erantzuna han baitzuen prest presta, eta xehetasun guziekin gainera. Loriatu, eta guri baliatu ere, gure alferkeria eta bilatzeko nagia hainbestetan fagoratu baititu, hain errexa zelakotz iturrirat joaitea, berari galdegitea.

Holakoa zen bera. Aitortu izan digu, bekatu bat bezala naski, edo ez dakit harentzat bizio bilakatua ote zen jakiteko gose hori, hots, aitortu izan digu denbora batez osoan bazakiela hiztegia. Badakigu behintzat herri bateko eseratik beste batekorat aise pasatzen zela eta bereziki xuberotarra eta beste batzu errexki idazten zituela.

Literaturan aldiz ez du gezurra Haritschelharrek, diolarik: "*Liburutegi bat osoa zaukan kaskoan*".

## KANTU XAHAR ETA BERRI

Iparralde hontako kantuez ez ditake gutiago erran. Denbora batez ikusi ditugu *L. Dassance* eta biak kantu xaharrez mintzo eta mintzo. Kantu xahar guti bide zen haiek biek ezagutzen ez zutenik. Hor ere berdin berdina zen Lafitten memoria. On zen erraiteko kantu bakoitza noizkoa zen, nongoa, nortsurena eta ororen doiñu edo aireak bazazkien. Hola zuten *Kantuz* egina, Paul *Echemendyk* notetan ezarrit P. Lafittek eman doiñuak.

Aise zituzten beraz argitaratu: *Kantuz* lehena, eta *Errepikan*, eta *Charamela* eta *Kantu Kanta Khantore*, hau, oraino berriz argitaratzeko asmotan zagoena.

Halere ez zen kantu xaharrekin egoitekoa. Bertsularitzari betitik interesatu izan da. Bazuen berak gostu berezi bat bertsulari herrikoiendako: zirtoa zalu eta pindarra zariola, gostukoa zuen Ahetzeko Mattin, eta zaukan lehengo bertsulariak holakoak zirela. Ez uste izan bizkitartean ez zuela bertsularitza landua eta ongi murriztua maite. Berak idatzi du *Koblarien Legea* liburutua eta zerbait egin ere Herria-ren bidez eta bestela bertsularitzaren alde. *P. Ithurralden Kantuak* eta bertsu asko idatzi du berak eta denbora batez bertsutan ere entsaiatu izan da.

*Herria* kazeta egitean ere, hainbeste urtez, nork daki zenbat bertsu agertu duen bere kazetan. Bazaukan ez zirela denak balio haundikoak baina lagundu izan ditu, berak makurrak xuxenduz, nahi zuenak ikasi. Ezen, hortan ere, beste guzietan bezala, izan da orozgainetik erakasle eta gidari.

Azkenik, erran behar da hemen, bertsularien historiaz ere berdin jakintsun zela. Mende honen hastapeneko bertsulariak, eta aintzineko mendekoak ere bazazkien nor ziren P. Lafittek: bai Lapurdiko, bai Baxenabarreko eta bai Xuberokoak, bereziki kabalkada, galarrotsak eta tobera-mustren historiarekin batean, ez baita errex denbora haietako bertsularien hatzak aurkitzea.

## JAKINTZA GUZIEN ALDEKOA

Ez da jakintza guzien aldeko ez denik hain segur. Baina P. Lafittentzat gehiago erran nahi dugu titulu hori emanaz. Erran ditake ez zuela beretzat, zuen izpirituarekin, ez jakintza ez gai bat ere baztertzen.

Euskal-Herrikoek bazaukaten haren baitan leku berezia: *teatro* eta *pastoralak*, *libertimenduak*, *zirtzilak* eta besteak ezagutzen zituen. Bereziki *Xuberoan* ere omen handia zaukan Pastoralaren ezagutzan. Ez du ahalaz bat ere hutsegin. Eta Antzerkiak, berak ere idatzi ditu euskaraz parrasta bat, bai-eta frantsesez ere.

Eta gure herriaren historiaz zer erran? Ez zaukala bere burua historizale, hori egia. Baina holako izpiritu bat ez zagokeen gurea den guziari barnatik behatu gabe. Horiek hola, literaturaren ixtorioan zoan beti barnago, harek ez zakienik ez baitzen. Baina zuhurki mintzo, xuxen jakin nahi duten guziak bezala. Hala-nola etimologia-solasetan ez zen sekulan aire-buruka mintzatuko. Nahiago zuen segurtatu, eta bilatu aintzineko mendeetan nola eta zer sentsutara erabilia zen holako hitza.

Beraz P. Lafitten jakintzagurak ez zuen mugarik. Lehenik, bazauzkan bere hautzuko gaiak: *greko* mintzaira, beti ikasten ari zuela baitzion, eta *aleman* mintzaira eta filosofi gaiak eta teologi gaiak eta, hots, denak.

Aste guziz, Baionan Herria eginik etortzen zelarik, behar zuen egin bere liburutegietako itzulia, halaber Euskaltzaindiaren hilabeteko biltzarretik etxerakoan, jasan ahala liburu ekarriko baitzuen, eta ez zokoan ezartzeko baina lehen-bai-lehen zinez irakurtzeko eta ikertzeko.

Bestalde, herrian edo bere mintzairan ez izanez behar edo nahiko zituen guziak, ez zen beldur besteetarat hedatzeko ere. Behar bazen Alemaniatic ekar-araziko zuen gramatika liburu berri bat, edo espanyolezkoak bururik buru irakurriko zituen, alta ez zuelarik berak espanyolez erraiteko maneran, hitz egiten.

Izpiritu ezin mugatua, bere bizilagunek zenbat aldiz ez dute ikusi telebixtaren aintzinean, rugbiko partida bati so, edo antzerki, edo josteta bati, denetan denek zer-bait badutelakoan hartzeko.

## BIZI GUZIA ERAKASTEN

Jakitatea bil eta bil ari zen izpiritu hori norentzat ari ote zen? Ez beretzat naski. Lehenik, ez baitzuen bere buruaz den gutieneko axolarik. Kanpotik ageri zuen hori: zenbat aldiz ez dute bere ikasleek eskolarat edo mintzaldi baten egiterat etortzen ikusi... bere oinetako haundiak nolazbait emanak, soineko bat erdi herrestan edo infrentzuz ezarria ez bazen, eta biloak edo bizarra... nolazbait? Baina zer munta zuen horrek, beharrenaren aldean?

Eta beharrena hau: bere irakasgaia xilo-milo gordeenetaraino berak ezagutzea lehenik, arrazoinamenduaren itzuli-mitzuliak oro eta koropilo-xilixtre guziak ikertuak izaita, berak, gero ikasleari, errespetu haundienean, jakinbeharrak eta beren baitako galdeen erantzun osoenak eskutan ezartzeko. Egien eskuratzeko moldea bestalde. Hori dio Mixel Itzainak: "Mila ixtorioz loratzen zuen bere erakaspena Lafittek eta ikaslea iratzar-arazten. Bertzalde bere jakitatea orratzetik hari bezala ateratzen zaukun, azpiko mailak berez gainekorat igortzen baginitu bezala".

Beharrena ere, erakaslearen eta ikaslearen arteko maitasun lokarri batzuz josia den maixugoa; hau dio gorago aipatu ikasle ohiak, Jean Hiriart bere lagun batekin: "Erakaslearen jakitatea errexago doa ikaslearen gogo barnerat, bien arteko hartu emanak goxotasun eta konfiantzakzkoak badira. Lafitten eta gure artekoak holakoak ziren. Ez zen haundikeriarik sendi gure erakasle maitearen aldetik".

Horra nola arizan den P. Lafitte bere bizi osoan izan duen ofizio bakarrean, 60 urtez: bai bere eskolierekin, bere mintzaldien edo beste erakasketen bidez, edo tesisa batentzat edo ikerketa batzuen gainetik etortzen zitzaizkon hainbeste gazte edo nor-nahirekin, ala irakurleekin ere... kazetalaritza, artikulua edo liburuak ez baititu nehoiz jakitate hantura bat bezala senditu, baizik adixkidetasun apalenean egin zerbitzu bat bezala. Zinez, erakasteko sortua zela erran ditake holako gizonaz.

## POLITIKAN ERE...!

R. Kanblong urgazleak aipatu eta erakutsi izan ditu *Ager* eta *Herria* aldizkarietan, zertsu izan diren P. Lafitten politikako egintza eta hautu larrienak. Ez baita bere bizian jakitate maila hotzean geldituko zen gizona izan. Izpirituz bezala bihotzez denari interesatzen zen gizon hori, nola egon alabaina biziko eta munduko guduka bideetarik urrun? Jada aipatua dugu, hasteko eta bat, nola *Aintzina* errebixtan, eta muimendu antzeko hortan, zabaldu dituen lagun batzuekin bide berri batzu gure herriarentzat: abertzaletasuna, kooperatiba idaiak, eta, batetik bestera, europear federalisma baten idekidurak hortik hasiko zaizkigu iparralde hortan, bai-eta Lafitten politika entseguak ere frantses kontserbatismo baten zaintzaile zauden Euskal-Herriko gizonekin. Bide hortarik du segituko bere saila Lafittek, kristau demokrazian barna, haatik euskaldungoari hor bere lekua eginez, hegoaldeko P.N.V.raino, alderdi hortan bereziki adixkideak eginez, bai-eta euskaldunen aintz berexgo eta gure arteko bortizkeria deitoratzeraino.

Idaia eta hautuekin, obrak! Espainiako iraultzan eta haren ondorioz ukanen ditu hango anaiekin kurutzamenduak: *Martin Lekuona* eta *Aitzol* ongi ezagutuko ditu eta beste asko ere bai: *Euskaldunen haurrei* ongietorriaren bideak idekiko dizkiete iparraldean iraultzatik lekora Mgr Mathieu, Inchausti eta beste lagunekin, eta beste sail batzuetan (kazetalaritza, kultura) lankide eta laguntza fornitzale izanen dituen Manu de la Sota eta Telesforo de Monzonekin.

Frantses politikan eginak ahantzi gabe: gerla denboran erresistentzian parte du P. Lafittek, gerla ondoan aldiz J. Etcheverry-Aintchart, Jean Errecart, Mixel Labeguerie lagunduko ditu beren entseguetan. Gero, bortitzago batzu ausartago eta ausartegi ere agertuko direlarik haren arabera, P. Lafitte beti leial eta gutienez ixil baina nekez kontra mintzo, hauk ere herriaren alde ari diren ber, salburik bortizkeria itsu eta bidegabe batzu kondenatuz halere ahoan bilorik gabe.

## ELIZA GIZONA

Gizona erran behar genuke lehenik. Aski oldartzearekin bere bizitasunak izaki nornahik bezala, gaineratekoan konpainia gizon hobereana. Ixilik egoiten zakiena, ixiltasuna urrezkoa dela baitzeraukan baina, halako konpainian, jostakin eta arrailanta. Irria zinez maite, ezin ixildua ariko zen irri karkailaz antzerki baten aintzinean, izpiritu goxoa erakusten zuela, eta kasik haurra bezain lañoa. Ez dituzte segur ahanztziko harekilakoek kalonjearen urteburuak eta besta egunak. Deus ez zitzaion sobera hola-koen markatzeko, halakoa baitzuen xahar horrek anaitasun eta grazia bere lagun xahar eta gazteenekin berdin. Azken hauen alderat ixurki berezi bat bazuen, beti izpiritua gazte atxikitzen jakin izan duen apez horrek.

Baina ordu dugu apezaz mintzatzeko. Badut ustea, lehen lehenik hortarik hastea nahiko ote zukeen berak. Apez zaukan alabaina orozgaintetik bere burua. Hori konprenitu ez duenak ez dezake bizi hori esplika. Zorokeria litake erraitea euskararen gizona zela P. Lafitte bakar bakarrik. Hau jakin behar da: apez egin zela gazte hura lehenik. Eta euskarari lotu zela Euskal-Herrian apez izaiteko. Eta beti lehenik apez senditu duela bere burua, Uztaritzeko semenarioan, apezgai zirenen eta ez zirenen izpirituen moldatzaile suhar. Eta ere, kezka horrekin berarekin duela, biziaren ondarrerat, "Idek eta zabal bihotzak" liburuttoa idatzi, erakutsi nahiz oraingo euskalzale gazte ainitzi kristau fedearen balioa eta indarra.

Argi hortan, bestela ikusten da P. Lafitten bizitza. Apez bezala izan da erakasle, beti fedearen gatza ezarriz birbiraka bere erakaskuntzan, apez bezala kazetalaria bere bizitza guzian eta, ororen haseran bere apeztasunaren kezkak dio euskara bera aurki arazi. Ohore zitzaion berari bere kristau eta apeztasuna. Halaber, ohore zaioke elizari holako apez bat eman baitio euskal jakintzari.

*Emile Larre*

**EUSKALTZAINDIAREN  
AURKITEGIA**





**EGOITZA/SEDE**

Arbieto, 3  
48008 BILBO  
Tf. 94-415 81 55  
Arduraduna: Jose Luis Lizundia.

**AZKUE BIBLIOTEKA**

Ribera, 6  
48005 BILBO  
Tf. 94-415 27 45  
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

**GORDAILUA/ALMACEN**

Carretera Bilbao-San Sebastián, s/n. Km. 4,5  
Edificio Saga - 1.ª planta  
ETXEBARRI (Bizkaia)  
Tf. 94-4406258  
Arduraduna: Rosa M.ª Arza

**ORDEZKARITZAK/DELEGACIONES****ARABA/ALAVA**

San Antonio, 41  
01005 VITORIA/GASTEIZ  
Tf. 945-23 36 48  
Ordezkarria: Endrike Knörr

**GIPUZKOA/GUIPUZCOA**

Txurruka, 7-2.  
20004 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN  
Tf. 943-42 80 50  
Ordezkarria: Juan San Martin

**NAFARROA/NAVARRA**

Conde Oliveto, 2-2.  
31002 IRUÑEA/PAMPLONA  
Tf. 948-22 34 71  
Ordezkarria: Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi

**IPARRALDEA/PAYS BASQUE NORD**

15 rue Port Neuf  
64100 BAIONA  
Tf. 07/3359-25 64 26  
Ordezkarria: Jean Haritschelhar

**EUSKALTZAINBURUGOA/CARGOS ACADEMICOS Y EJECUTIVOS**

Euskaltzainburua/Presidente: Fr. Luis Villasante.

Buruordea/Vicepresidente: Jean Haritschelhar.

Idazkarria/Secretario: Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi.

Diruzaina/Tesorero: Endrike Knörr.

Iker Sailburua/Presidente Sección Investigación: Luis Mitxelena.

Jagon Sailburua/Presidente Sección Tutelar: Juan San Martin.

Bibliotekaria/Bibliotecario: Alfonso Irigoyen.

Idazkariordea/Vicesecretario: Jose Luis Lizundia.

Bibliotekariordea/Vicebibliotecario: Jose Antonio Arana Martija.

Ekonomi Eragilea/Gestor Económico: Juan Jose Zearreta.

Argitalpenen Eragilea/Ejecutivo de Publicaciones: Ricardo Badiola Uriarte.

## **EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN BI URTETARAKO ORGANIGRAMA (\*)**

### **I. EGITURAZKO BATZORDEAK/COMISIONES ESTRUCTURALES**

#### **I.1. Argitalpenen Batzordea/Comisión de Publicaciones**

Euskaltzainburua/Presidente de la R. A. L. V.: Luis Villasante.

Euskaltzainburuordea/Vicepresidente de la R. A. L. V.: Jean Haritschelhar.

Idazkaria/Secretario: Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi.

Diruzaina/Tesorero: Endrike Knörr.

Bibliotekaria/Bibliotecario: Alfonso Irigoyen.

*Iker* Sailburua/Presidente Sección Investigación: Luis Mitxelena.

*Jagon* Sailburua/Presidente Sección Tutelar y Divulgación: Juan San Martin.

Euskaltzainak/Académicos: Patxi Altuna.

Federico Krutwig.

Eragilea/Ejecutivo: Ricardo Badiola Uriarte.

#### **I.2. "Azkué Biblioteka" Batzordea/Comisión "Azkué Biblioteka"**

Burua/Presidente: Alfonso Irigoyen.

Bibliotekariordea/Vicebibliotecario: Jose Antonio Arana Martija.

Kideak/Vocales: Xabier Kintana

Juan San Martin

Juan Jose Zearreta

---

(\*) Lekarozko Barne Jardunaldietan 1985-IV-29/30 aurkeztua eta Bilbon, 1985-V-31an birretzia/Presentado en las Jornadas Internas de Lecaroz y ratificado en Bilbao el 31 de Mayo de 1985.

**I.3. Ekonomia Batzordea/Comisión de Economía**

Burua/Presidente: Endrike Knörr.

Idazkaria/Secretario: Juan Jose Zearreta.

Kideak/Vocales: Xabier Gereño.

Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal

**II. IKER SAILA/SECCION DE INVESTIGACION****II.1. Hiztegiintza Batzordea/Comisión de Diccionarios**

Burua/Presidente: Luis Mitxelena.

Buruordea/Vicepresidente: Ibon Sarasola.

Idazkaria/Secretario: Mikel Zalbide.

Idazkariordea/Vicesecretario: Ricardo Badiola Uriarte.

Kideak/Vocales: Xabier Kintana

Luis M.<sup>a</sup> Mujika

Txomin Peillen

**II.2. Gramatika Batzordea/Comisión de Gramática**

Burua/Presidente: Patxi Altuna.

Idazkaria/Secretario: Patxi Goenaga.

Idazkariordea/Vicesecretaria: M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte.

Kideak/Vocales: Lino Akesofo

Miren Azkarate

Alan King

Jose M.<sup>a</sup> Larrarte

Jose A. Mujika

Beñat Oyartzabal

Karmele Rotaetxe

Pello Salaburu

**II.3. Dialektologi Batzordea/Comisión de Dialectología**

Burua/Presidente: Frantzisko Ondarra.

Buruordea/Vicepresidente: Jean Haritschelhar.

Idazkaria/Secretario: Jose M.<sup>a</sup> Etxebarria.

Kideak/Vocales: Gotzon Aurrekoetxea

Ana M.<sup>a</sup> Echaide  
 Alfonso Irigoyen  
 Beñat Oyartzabal  
 Rosa Miren Pagola  
 Karmele Rotaetxe  
 Charles Videgain

#### **II.4. Onomastika Batzordea/Comisión de Onomástica**

Burua/Presidente: Endrike Knörr.  
 Buruordea/Vicepresidente: Luis Mitxelena.  
 Idazkaria/Secretario: Jose Luis Lizundia.  
 Kideak/Vocales: Pierre Xarritton  
 Jean Louis Davant  
 Alfonso Irigoyen  
 Emile Larre  
 Juan San Martin  
 Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi

#### **II.5. Maileguzkoen Batzordea/Comisión de Préstamos Lingüísticos (Batzorde suntsikorra)/(Comisión a extinguir)**

5.1.VII. Zerrendakoa/VII lista: P. Altuna, F. Ondarra, X. Kintana.  
 5.2.VIII. Zerrendakoa/VIII lista: J. Harischelhar, E. Larre, B. Oyartzabal.

### **III. JAGON SAILA/SECCION TUTELAR Y DE DIVULGACION**

#### **III.1. Literatura Batzordea/Comisión de Literatura**

Burua/Presidente: Federico Krutwig.  
 Buruordea/Vicepresidente: Alfonso Irigoyen.  
 Idazkaria/Secretario: Manu Ertzilla.  
 Kideak/Comisionados: Juan Luis Goikoetxea  
 Jesus Lavin  
 Michael Morris  
 Martin Sansinenea eta  
 Iparraldeko bat izendatu gabe

**III.2. Herri literatura Batzordea/Comisión de Bersolarismo**

Burua/Presidente: Antonio Zavala.

Buruordea/Vicepresidente: Juan San Martin.

Idazkaria/Secretario: Antton Aranburu.

Kideak/Vocales: Jose M.<sup>a</sup> Aranalde

Jesus M.<sup>a</sup> Etxezarreta

Jose Mari Iriondo

Mitxel Itçaina

Emile Larre

Juan M.<sup>a</sup> Lekuona

Abel Muniategi

**III.3. Azterketen Batzordea/Comisión de Exámenes**

(Batzorde suntsikorra)/(Comisión a extinguir)

Burua/Presidente: Alfonso Irigoyen.

Buruordea/Vicepresidente: Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi.

Idazkaria/Secretario: Juan Jose Zearreta.

Kidea/Vocal: Andres Iñigo.

**III.4. Oinarrizko Euskararako Batzordea/Comisión de Euskara básico**

(Batzorde suntsikorra)/(Comisión a extinguir)

Burua/Presidente: Juan San Martin.

Idazkaria/Secretario: Imanol Unzurrunzaga.

Kideak/Vocales: Norberto Agirre

Gotzon Aurrekoetxea

Ricardo Badiola

Juan Luis Goikoetxea

Patxi Uribarren

## EUSKALTZAIN OSOAK/ACADEMICOS DE NUMERO

1. Patxi Altuna, E. U. T. G. Mundaiz, Apdo. 1359, 20080 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-273100.
2. Jose Miguel Barandiaran, "Sara", ATAUN (Gipuzkoa), 943-881252.
3. Jean Louis Davant, École d'Agriculture du Pays Basque, rue de l'Ursuya, 64240 HASPARREN (France), 296020.
4. Xabier Diharce, Abbaye Nôtre Dame de Belloc, 64240 HASPARREN (France).
5. Eusebio Erkiaga, Rodríguez Arias, 31-4. ezk., 48011 BILBO, 94-4417206.
6. Juan Gorostiaga, Convento Trinitarios, Avda. San Martin, 6 GETXO (Bizkaia) 94-4692441.
7. Jean Haritschelhar, "Elorrieta", 24 rout de Lamigotte, 64600 ANGLET (France), 590808/038506.
8. Jean Hiriart-Urruty, Vicaire Général, Evèchè, 16 rue des Gouverneurs, 64100 BAYONNE (France).
9. Damaso Inza, PP. Capuchinos, Errotazar, 42, 31014 IRUÑEA/PAMPLONA.
10. Alfonso Irigoyen, Trenbideko Etorbidea, 2-5.º B, 48013 BILBO, 94-4422770.
11. Endrike Knörr, Mateo Múgica, 8-2º C, 01009 VITORIA/GASTEIZ, 945-223803/233648.
12. Federico Krutwig, Villa Pilartxo, 5-1.º E, ZARAUTZ (Gipuzkoa).
13. Antonio M.ª Labayen, San Francisco, 35-pral. TOLOSA (Gipuzkoa).
14. Emile Larre, Curé - Irisarry, 64780 OSSES (France), 376067.
15. Pierre Larzabal, Curé de Socoa, 64 CIBOURE (France).
16. Manuel Lekuona, Sacerdote, OIARTZUN (Gipuzkoa).
17. Luis Mitxelena, Avda. Madrid, 11-esc. dcha. 1.º dcha. 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
18. Francisco Ondarra, Colegio de LEKAROZ (Baztan) (Nafarroa), 948-580000.
19. Pello Salaburu, Sarriena, 153, LEIOA (Bizkaia), 94-4642124.
20. Juan San Martin, Bidasoa ibiltokia, 4 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) 943-641435/428050.
21. Jose M.ª Satrustegi, URDIAIN (Burunda) (Navarra) 948-562906/223471.
22. Luis Villasante, Santuario de Aránzazu, ONATI (Gipuzkoa) 943-780951.

23. Pierre Xarritton, 3 impasse Port Neuf, 64100 BAYONNE (France) 598127.
24. Antonio Zavala, PP. Jesuitas, XABIER (Nafarroa), 948-884000.

### EUSKALTZAIN OHOREZKOAK/ACADEMICOS DE HONOR

1. Jacques Allières, 25 route d'Espagne, "L'Orangerie", 31300 TOULOUSE (France).
2. Julio Caro Baroja, "Itzea", N.º Alzate, BERA (Nafarroa).
3. Balentin Enbeita, Areatza auzunea, MUXIKA (Bizkaia).
4. Iñaki Eizmendi "Basarri", Ntra. Sra. del Pilar, 10, ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-841537.
5. Justo Garate, San Lorenzo, 444. MENDOZA 5500 (Argentina) 243897.
6. Nils M. Holmer, Freninge 22:22, S-270 33 Vollsjö, SUEZIA.
7. Bedita Larrakoetxea, Canónigos Regulares, Pio Mortara, 1, ONATI (Gipuzkoa) 943-780311.
8. Jesus M.ª Leizaola, Pio Baroja, 2-3, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
9. Gerardo Lopez de Guereñu, San Vicente de Paul, 8, 01001, VITORIA/GASTEIZ, 945-254614.
10. André Martinet, 10 Avenue de la Gare, 92330, SCEAUX (France).
11. Santiago Onaindia, PP. Carmelitas, Larrea, ZORNOTZA (Bizkaia), 94-6730088.
12. Jorge de Riezu, LEKAROS (Baztan) (Nafarroa) 948-580000.
13. Antonio Tovar, Principe de Vergara, 111, Dupl. 6.ª dcha. 28002, MADRID, 91-2612150 ( †).
14. Terence Harrison Wilbur, Department of Germanic Languages, University of California, LOS ANGELES, California, 90024 (USA).



## **EUSKALTZAIN URGAZLEAK / ACADEMICOS CORRESPONDIENTES**

- Jesus Acha, Avda. Sancho el Fuerte, 96 "Irrintzi", 31011 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-257021.
- Mikel Achaga, DEIA, Carlos I, 3-bajo, 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-462488.
- M.<sup>a</sup> Dolores Aguirre, Urbietta, 5-2.º, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-424303.
- Eugenio Aguirreche, B.º Zamalbide, Iglesia, ERRENTERIA (Gipuzkoa) 943-510442.
- Gexan Alfaro, Librairie Zabal, 52 rue Panecau, 64100 BAYONNE (France), 594390.
- Jose Luis Alvarez Enparanza "Txillardegi", Sancho el Sabio, 26-9.º D, 20010 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-450687.
- Xabier Amuriza, Legarreibi, 1-2.º dcha., ZORNOTZA (Bizkaia), 94-6732142.
- Pierre Andiazabal, Grand Séminaire, Avenue Darrigrand, 64100 BAYONNE (France).
- Marcelino Andrinua, PP. Pasionistas. Euba. ZORNOTZA (Bizkaia).
- Juan Apezetxea, Avda. de Guipúzcoa, 5 "Villa Antonia", 31012 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-254063.

\*\*\*

- Lino Aquesolo, PP. Carmelitas, 48004 BEGOÑA-BILBO, 94-4124343.
- Jose Antonio Arana Martija, Karmelo Etxegarai, 6, GERNIKA (Bizkaia), 94-4152745.
- Jose M.<sup>a</sup> Aranalde, Párroco de Añorga, 20009 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
- Xabier Aranburu, Miracruz, 28-A-4.º dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-279704.
- Jose Antonio Arcocha, Sorgintxulo, 2-12.º C, ERRENTERIA (Gipuzkoa).
- Adolfo Arejita, Dtor. Arcilza, 47-2.º dcha., 48010 BILBO, 94-4436209.
- Jesus M.<sup>a</sup> Arenaza, Gran Vía, 82-2.º izda., 48011 BILBO, 94-4414181.
- Begoña Arregi, Paseo Miqueletes, 4-6.º B, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-216206.
- Francisca Arregi, Matia, 58-3.º, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-212532.

\*\*\*

- Miren Azkarate, Sancho el Sabio, 26-6.º D, 20010 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-467585.
- Jose M.ª Azpiroz, Dermitaleria, 3-1.º dcha., 31001 IRUÑEA/PAMPLONA.
- Jose Azurmendi, Avda. Ategorrieta, 23-2.º, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-277346.
- Ricardo Badiola, Bidezabal, 3-2.º C, GETXO (Bizkaia), 94-4600511.
- Gaizka Barandiaran, Col. San Ignacio. Apdo. 3059, 20080 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-289500.
- Federico de Barrenengoa, Pl. Plácido Careaga, 12-5.º izda., 48014 BILBO, 94-4353819.
- Iñaki Barriola, "Isturín", P.º Ayete, 20009 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-211673.
- Serafin Basauri, Txirio kale, 1-3.º, EIBAR (Gipuzkoa), 943-713590.
- Jose Basterretxea, Sangüesa, 13-1.º izda., 31003 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-236696.
- Isidro Baztarrika, PP. Benedictinos, Santuario de ESTIBALIZ (Araba), 945-211149.

\* \* \*

- Alessandro Baussani, Facoltà di Lettere e Filosofia-Università degli Studi di Roma, 000100 ROMA (Italia).
- Juan Jose Beloqui, Villa Nere-kaiola, Ategorroeta (Intxaurren, s/n), 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
- Iñaki Beobide, Narrica, 31-3.º, 20003 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-420982.
- Juliana Berrojalbiz, Rodriguez Arias, 39, 48011 BILBO, 94-4437943.
- Pedro Berrondo, Gral. Lersundi, 6 ent. izda., 20007 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-461857.
- Antonio Barrueta, Pio XII, 16-6.º B, 01004 VITORIA/GASTEIZ, 945-251284.
- Milagros Bidegain, Sancho-enea, 9 ERRETERIA (Gipuzkoa).
- Antonio Bilbao, Apdo. 28, SANTURTZI (Bizkaia).
- Jon Bilbao, "Osabene" Torrebarria, 5, GETXO (Bizkaia), 94-4604283.
- Felix Bilbao, PP. Franciscanos, FORUA-GERNIKA (Bizkaia), 94-6852001.

\* \* \*

- Joseph Camino, 15, rue des Prébendés, 64100 BAYONNE (France), 59-591782.
- Jacinto Carrasquedo, Secundino Esnaola, 7-6.º, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
- Junes Casenave-Harigile, Apez Etxia presbyterè, ALCAY 64470 TARDETS-SORHOLUS (France).
- Jorge Cortes Izal, Monasterio Velate, 5-7.º, 31011 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-255759.
- Jean Pierre Curutchet, 64 HELETTE (France).
- Pedro Diez de Ulzurrun, San Anton, 43, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA.
- Jean Baptiste Dirassar, Lotissement Arrantzaleak CIBOURE, 64500 SAINT-JEAN-DE LUZ (France) 59-260595.
- Pierre Duny Pêtre, Maison Hégnitua, 4-Chemin d'Olhonce, 64220 SAINT-JEAN PIED-DE-PORT (France).

- Kepa Enbeita, Auzo-lana de Abornicano, S. A. ABORNICANO (Urcabustaiz) (Araba), 945-430032.
- Karmele Esnal, Zabaleta, 50-7.º D, 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-280915.
- Bernardo Estornes, Secundino Esnaola, 13-3.º izda., 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
- Jose Estornes, Hernani, 1-7.º, 20014 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-428225.
- Eñaut Etchamendy, Professeur Agronome, Sain-Palais, 64120 BEYRIE-SUR-JOYEUSE (France).
- Jean Baptiste Etcharren, chemein Kurutxamendi, 64220 St. JEAN-PIED-DE-PORT (France), 59-371735.
- P. Etcheandi, Abbaye Nôtre Dame de Belloc, 64670 URT (France).
- Jacques Etcheverry, 2 Alles Bouflers, 64100 BAYONNE (France).
- Jean Baptiste Etcheverry, Aumonier, 64100 BAYONNE (France).
- Jose M.ª Etxaburu, Villa Ongi-etorri, B.º Amute, HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-643002.
- Yon Etxaide, Paseo de Colón, 34-4.º izda., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-277818.
- Ana M.ª Echaide, Trav. Bayona, 1-2.º G, 31011 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-260880.

\*\*\*

- Juan Angel Etxebarria, Elejalde, 23-1.º dcha. FORUA-GERNIKA (Bizkaia).
- Jose M.ª Etxebarria, Karmeldegia, Alto de Zorroaga, s/n, 20014 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-463002.
- Peter Etxebarria, Residente 1855, Sierra Lange L., RENO Nevada U. S. A.
- Patxi Etxebarria, Sta. Maria Parish, P. O. Box 495, ILOILO CITY (Filipinas).
- Carmelo Etxenagusia, Monasterio del Refugio, Zabalbide, 104, 48006 BILBO, 94-4472500.
- Eutasio Etxezarreta, Urdaneta, 10-Apdo. 59, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-428745.
- Patrik Farrell (Darragh, 41 Nutley Lane, DUBLIN (Irlanda), 692641.
- Jaxinto Fernandez Setien, Orkolaga, 12-3.º, HERNANI (Gipuzkoa).
- Victoriano Gandiaga, PP. Franciscanos, Santuario de Aránzazu, OÑATI (Gipuzkoa), 943-781302.
- Marcelino Garde, Presbítero, RIPODAS (Nafarroa).

\*\*\*

- Jose Garmendia, "Instituto Ruiz Gijón", Paseo de Consolación, s/n, UTRERA (Sevilla), 954-861620.
- Juan Garmendia Larrañaga, Mayor, 1, TOLOSA (Gipuzkoa), 943-670929.
- Juan Garmendia "Zeleta", Marqués de Murrieta, 35-4.º E, 26005 LOGROÑO, 941-214644.
- Salvador Garmendia, Mugica-enea, ANOETA (Gipuzkoa), 943-652539-661539.
- Xabier Gereño, Avda. del Ejército, 18-3.º dcha., 48014 BILBO, 94-4355263.
- Patxi Goenaga, Avendaño, 21-4.º C, 01008 VITORIA/GASTEIZ, 945-246771.
- Juan Luis Goikoetxea, Médico Municipal Pedro Cortés, 3-9.º A., 48006 BILBO, 94-4247009.

Manex Goienetxe, 14 Avenue Lafontaine, 64100 BAYONNE (France), 59-634444.  
 Bernard Goity, Evèchè, rue des Gouverneurs, 64100 BAYONNE (France).  
 Paul Gilsou, abbé, Parioisse du Gros-Caillou, PARIS-7.  
 Marcelin Hegiaphal, Pastoralier Cheraute par, 64130 MAULEON (France).  
 Mariano Iceta, ELIZONDO (Nafarroa), 948-580755.  
 Roger Idiart, Curè de Sauguis-st. Etienne, 64470 TARDETS (France), 285165.  
 Arantza Idiazabal, Tolarieta, 6-1.º dcha., OIARTZUN (Gipuzkoa).  
 Joseba Intxausti, Avda. Ategorrieta, 23-2.º, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-271713.  
 Jose Angel Irigaray, Secundino Esnaola, 11-1.º, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.  
 Jose M.ª Iriondo, Avda. de Navarra, Eguzki Lore, 2-3.º B, ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-834351.  
 Michel Itcaina, Secretaire de Mairie, 64250 CAMBO (France), 297255.  
 Fermin Ixurko, ALDAZ (Nafarroa), 948-504282.  
 Ramuntxo Kanblong, Route des Pins, 64600 ANGLET (France), 038369.

\*\*\*

Jaime Kerexeta, Presbitero, San Roque, 24, ELORRIO (Bizkaia), 94-6820012.  
 Xabier Kintana, Torre Gorostizaga, 4-4.º B, 48004 BILBAO, 94-4123555.  
 Jon Kortazar, Goiko kale, 31, MUNDAKA (Bizkaia).  
 Daniel Landart, Villa "Heleta", 64100 MOUGUERRE (France), 315457.  
 Mikel Lasa, San Juan, 14-4.º E, 20003 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-421557.  
 Jose Manuel Lasarte, Presbitero, UHARTE-ARAKIL (Nafarroa), 948-474008.

\*\*\*

M.ª Pilar Lasarte, Portuene, 10-3.º izda., 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-215015.  
 Imanol Laspiur, Aldatze, 3-2.º izda., EIBAR (Gipuzkoa), 943-713288.  
 Juan M.ª Lekuona, Seminario Diocesano, DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-213911.  
 Gabriel Lertxundi, Abbaye Nôtre Dame de Belloc, Urt, 64240 HASPARREN (France) 59-296555.  
 Anjel Lertxundi, Villa Teresita, s/n, ZARAUTZ (Gipuzkoa).  
 Juan Antonio Letamendia, Murrua, 22-1.º izda., HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-643514.  
 Xabier Lete, Plaza San Juan, 20, URNIETA (Gipuzkoa), 943-551849.  
 Jose Luis Lizundia, Bruno Mauricio Zabala, 22-2.º F, DURANGO (Bizkaia), 94-6814109.  
 Jose Antonio Loidi, Farmacia, Paseo de Colón, 93, IRUN (Gipuzkoa), 943-612678.  
 Peli Martin Latorre, M. Iradier, 9-4.º izda., 01006 VITORIA/GASTEIZ, 945-232959.

\*\*\*

Xabier Mendiguren, Doctor Delgado, 8-4.º C, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-272951.

- Fernando Mendizabal, Camino Zarategi, 18-2.º B, 20015 INTXAURRONDO-DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
- Marie Jeanne Minaberry, Journaliste, 64480 USTARITZ (France).
- Justo Mocoeroa, PP. Escolapios, Alda. Recalde, 1, 48009 BILBO.
- Luis M.ª Mujika, Zabaleta, 49-4.º dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
- Jose Antonio Mujika, Plaza del Cedro, 3-9, esk., Bidebieta, 1, 20016 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-392528.
- Beñat Oyhartzabal, Bordaberria, 1, rue Hondritz de Haut, 64600 ANGLER (France).
- Jesus Oleaga, Elcano, 18-entlo. dcha., 48008 BILBO, 94-4436957.
- Ignacio Omaechevarria, Franciscanos, Paseo Zorrilla, 27, 47007 VALLADOLID, 983-233026.
- Josu Oregi, Paseo Urdangarin, BERGARA (Gipuzkoa), 943-761561.

\*\*\*

- Karlos Otegi, Gaztelu, 9-2.º D, ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-834692.
- Txomin Peillen, Ibarburu, Sainte Engrace, 64560 LICQ-ATHEREY, 59-286244.
- Pedro Pujana, Virgen de Begoña, 41, 48006 BILBO.
- Jose Antonio Retolaza, Orueta, 1-3.º, 48009 BILBO, 94-4234573.
- Rudolf de Rijk, Newtonstraat 69 II, 1098 HA, AMSTERDAM (Holanda), 20-935650.
- Karmele Rotaetxe, Pl. Bombero Echaniz, 4-6.º izda., 48010 BILBO, 94-4314033.
- Manuel M.ª Ruiz Urrestarazu, Adriano VI, 22-7.º izda., 01008 VITORIA/GASTEIZ.
- Ramon Saizarbitoria, Peña y Goñi, 1-6.º dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-287990.
- Jose M.ª Sanchez Carrion, Instituto Español de Portobello, 317 A PORTOBELLO, LONDON W-10.
- Pedro Sancristoval, Postas, 41-6.º, 01004 VITORIA/GASTEIZ, 945-277682.
- Carlos Santamaria, Buen Pastor, 13, 20005 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-415297.
- Ibon Sarasola, P.º Duque de Mandas, 37-1.º, 20012 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-283340.
- Jose Ignacio Tellechea, Usandizaga, 27-5.º izda., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-280062.
- Francisco Tirapu, Pl. San José, 1, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA.
- Juan M.ª Torrealday, Ategorrieta, 23-2.º, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-271713.
- Martin Ugalde, Almirante Juan Allondo, Villa Carolina, A-4.º dcha., HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-641505.
- Patxi Uribarren, Carmelo de Begoña, 10, 48004 BILBO, 94-4124343.
- Miguel Javier Urmeneta, P.º de Sarasate, 5, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA.
- Ignacio Urquijo, MARKINA-MUNIBE (Bizkaia), 94-6866031.

\*\*\*

- Arantza Urretavizcaya, Avda. Madrid, 8-9.º A, 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Tomas Athurry, Professeur, Grand-Seminaire, Avenue Jean Darrigrand, 64100 BAYONNE (France), 59-633340.

Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal, Naparroa etorbidea, 9-3.º, ARRASATE (Gipuzkoa). Charles Videgain, 23 Vieille Boucherie, 64100 BAYONNE (France), 59-591536.

Pedro Yrizar, Lagasca, 54, 28001 MADRID, 91-2766393.

Julen Yurre, Seminario Menor Capuchino, Avda. de Felix Arano, 3, ALSASUA (Nafarroa), 948-560026.

Patxi Zabaleta, Amaia, 2-C 1.º, 31002 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-232976.

Mikel Zalbide, Carlos I, 13-9.º D, 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-465462.

Gabriel Zapiain, Padre Larroca, 7, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Ambrosi Zatarain, Zubieta, 40-2.º, 20007 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-421236.

\*\*\*

Juan Jose Zearreta, Andrandi auzunea, 7-3.º, ZORNOTZA (Bizkaia), 94-6731520.

Manuel Ziarsolo, Arabella, 62-3.º izda., 48007 BEGOÑA-BILBO.

Agustin Zubikarai, Sabin Arana, 4-4.º, ONDARROA (Bizkaia), 94-6830287.

Jose Miguel Zumalabe, Urbieta, 56-1.º, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-459597.

**EUSKERA XXIX**  
**(1984,2)**

**ZUZENKETAK / FE DE ERRATAS**

Orrialdea	Lerroa	Esaten du	Esan behar du
615.	15.	Imperatif	Impératif
616.	1-2.	<i>Bas-Navarrais Oriental:</i> dezaan (1), (neri), dezauzun (zuri), dezakon (hari), dezaukiun (2) (guri), dezauzien (zuei), dezeen (haiei).	<i>Haut-Navarrais Méridional:</i> zadan (neri), zazun (zuri), zon (hari), zagun (guri), zazen (zuei), dezeen (haiei).  <i>Bas-Navarrais Oriental:</i> dezaan (1) (neri), dezauzun (zuri), dezakon (hari), dezaukiun (2) (guri), dezauzien (zuei), dezeen (haiei).
623.	16.	1907'ko Agorrilean (Abuztuan). Gipuzkoako...	1907'ko Agorrilean (Abuztuan), Gipuzkoako...
627.	21.	“hik egin hezaioke (*hizaioke),	“hik egin hezaioke (=hizaioke).
643.	3.	24. Bertatik ken...	124. Bertatik ken...
646.	8.	Jainkoak egunon dizula, gabon Jainkoak diela, on egin dizuela, bejondigula et. ab.	Jainkoak egunon dizula, gabon Jainkoak diela, on (egin) dizuela, bejondigula et. ab.
652.	31.	eman DIOZAGUN BADA GUK MUSU AINBESTE ATSEGINTASUN EMATEN DIGUN Salbadoreari (385);	— eman DIOZAGUN bada guk musu ainbeste atsegintasun ematen digun Salbadoreari (385);
660.	24-25.	Arestian ikusi dugu <i>bezote=bizato</i> (haiek galdegin <i>bizaiote</i> itxuari)	—Arestian ikusi dugu <i>bezote=bizatote</i> (haiek galdegin <i>bizaiote</i> itxuari).
662.	15-16.	jaun galant eta adiskido on oiei	jaun galant eta adiskide on oiei
667.	27-28.	Berala konbertitu ez (zen).	Berala konbertitu ze (zen).
667.	29.	Suzenditu DIZAKEZU zuri	Suzeditu DIZAKEZU zuri

Orrialdea	Lerroa	Esaten du	Esan behar du
670.	45.	Barka DRAZKIGUZU gu-rezorrak	Barka DRAZKIGUZU gu-re zorrak
676.	23.	gerlaren jasaiteko behar dituzten ergiak eta laguntzak!	gerlaren jasaiteko behar dituzten argiak eta laguntzak!
678.	10.	Jainkoak DIZULA egun on. (Indikatiboko adizkera subjuntibo bezala erabilia. Subjuntiboko "dezazula"ri dagokio, gipuzkeraz "dizaizula").	Jainkoak DIZULA egun on. (Subjuntiboko adizkera -eza-aditz-erroa erabili gabe. Autorearen aditz sistemako "dezazula"ri dagokio. Gipuzkeraz "diza(i)zula". Batura "diezazula".
694.	22-23.	Abis galthazaler ere (2) DIZEGÜN egin gure gisa (=dizaiegun, diezaiegun).	Abis galthazaler ere (2) DIZEGÜN egin gure gisa (=dizaiegun, diezaiegun).  132/340. Erran <i>Izadan</i> ene haurra (=zaidan/iezadan)
695.	3.	Erran IZADAZÜT zük (1) ere	Erran IZADAZÜT zük (1) ere
695.	12.	Baiñan hontan Zuberotarrek dute hitza (201/325):	Baiñan hontan Zuberotarrek dute hitza. (201/325):
695.	17.	... jar DIEZAZUN...	... jar DIEZAZÜN...
698.	5-6.	, eta grazia perseberatzeko, eta hon edu.kiteko.	, eta grazia perseberatzeko, eta hon edükiteko...
698.	32.	(= zizkiguzu/iezazkiguzu)	(= zaizkiguzu/iezazkiguzu)
714.	22.	hain miseri-kordioz denaz gerroz,	hain miseri-kordios denaz gerroz,
716.	21.	Barkhe DIETZAGUTZU gure zorrak	Barkha DIETZAGUTZU gure zorrak
717.	17-18.	... gabe nezakenik (162).	... gabe nezakenik (162). (= dizazazula/dizaidazula).



## AURKIBIDEA 1985

ARANA MARTIJA, J. A.: G. Arestiren “Nere Aitaren etxea defendituko dut” 350 hizkuntzetara itzulia .....	549-551
AURREKOETXEA, Gotzon: V. Dialektologi Jardunaldiak .....	649-653
BRETTSCHEIDER, Gunter: Kasoak euskararen eta beste hizkuntzetan .....	253-261
DZIDZIGURI, Sh.: El fenómeno de paralelos sinonímicos y los geminados semánticos (en el georgiano, vasco, etc.) .....	435-438
ECHAIDE, Ana M. <sup>a</sup> : Ignacio M. <sup>a</sup> Etxaideren mendeurrena .....	373-374
EGUZKITZA, Andolin: Aditz modalak euskaraz .....	215-221
ETXABE JAUREGI, Jon Joseba: Estatu Batuetako Idaho estatuko euskararen azterketa .....	377-387
ETXAIDE ITHARTE, Yon: Inazio M. <sup>a</sup> Etxaide Lizasoainen bizitza eta lanak .....	345-371
Euskal pontizen zahar batzuk aztarrikatuz .....	513-525
<b>EUSKALTZAINDIA/Real Academia de la Lengua Vasca:</b>	
X. Biltzarreko Adierazpena .....	267
Maileguzko hitzak:	
• V. puntua: Hitz amaierak .....	465
• VI. puntua .....	466
• VII. puntua .....	467
Cesión en precario: Bizkaiko Foru Aldundiak Euskaltzaindiari utzia .	469-477
Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak: 1984-IX .....	271-272
• X, XI, XII, , 1985-I, II, III, IV, V, VI .....	479-510
Herri-izenei buruzko diktamenak: Llodio/Laudio .....	475-477
Nafarroako D maila azterketak .....	675-676
D mailadunen zerrenda .....	677-678
Euskaltzaindiaren aurkitzea .....	705-720
Jose Antonio Ardanza Lehendakariari Euskaltzaindiak ikustaldia ....	685-686
FELONES, Roman: Presentación de la Nueva Delegación de Euskaltzaindia en Navarra .....	683-684
GEREÑO, Xabier: Bilboko euskaldunen afariak .....	671-674

GRANJA, Fco. J.: La gramática de Arturo Campion y Luis Luciano Bonaparte .....	31-49
IRIGOYEN, Alfonso: Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabeko koez .....	129-139
ITURRIOZ, J. L.: La función de -A y de -TA a la luz de la dimensión de individuación .....	175-213
IZETA, Mariano: Baztango hiztegi tipia .....	553-618
JIMENO JURIO, J. M. <sup>a</sup> : Toponimia de Iruñerria: sistemas de denominación y localización .....	527-532
Sustitución de topónimos por hagiónimos en Navarra .....	619-626
KINTANA, Xabier: Gabriel Aresti: Bilboko euskalduna eta batasunaren eragilea .....	541-547
KNÖRR, Endrike: In memoriam Odon Apraiz Buesa .....	691-696
LAFITTE, Piarres: Pierre Narbaitz .....	687-689
LARRE, Emile: Piarres Lafitte joan zaiku .....	697-704
LIZUNDIA, Jose Luis: 1985.urterako Euskaltzaindiaren batzar egutegia "Expolangues" hizkuntzen eta nazioarteko komunikabideen III. aretoa .....	637-640
	655-657
LOPEZ GARCIA, Angel: La utilidad de un modelo topológico para el estudio gramatical del vasco .....	235-243
MITXELENA, Luis: Campionen 'gramatica' eta beste .....	63-70
Pello Salabururen Euskaltzaindian sartzea .....	331-339
Mailegu berrien idazkera .....	457-459
MORVAY, Károly: La flexión nominal vasca .....	445-453
ONDARRA, Fco.: Joakin Lizarraga Elkanokoaren <i>Ongui iltzen la-guntzeco itzgiaic</i> liburuaren aurkezpena .....	635-636
OROZ ARIZKUREN, Patxi: Coincidencia formal y excepción gramatical .....	245-252
OYHARTZABAL, Beñat: Behako bat ezezko esaldieri .....	103-115
PAGOLA, Rosa Miren: Euskararen egoera soziala eta ofiziala Nafarroan .....	51-60
PICABEA, M. <sup>a</sup> Luisa: Expresiones temporales en el habla coloquial del valle de Erro .....	227-232

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA (ikus EUSKALTZAINDIA)	
REBUSCHI, Georges: Positions, configurations et classes syntaxiques. Aspects de la construction de la phrase simple en basque .....	117-128
Théorie du liage et langues non-configurationnelles: quelques données du basque navarro-labourdin .....	389-433
SALABURU, Pello: Mario Bunge-ren hizkuntzalaritza .....	297-330
SAN MARTIN, Juan: Gabriel Arestik beste hizkuntzetatik egin zituen poesi itzulpenak .....	535-539
SATRUSTEGI, Jose M. <sup>a</sup> : Lekarozko IV. Barne Jardunaldiak .....	659-664
STURUA, Natela: Concerning the category of definiteness-indefiniteness in Basque .....	151-155
TAMURA, Suzuko: Hitzen ordena erabiltzeko faktoreak .....	71-101
TRASK, R.: -ko atzizkia euskaraz .....	165-173
TXANTURIA, P. O.: Modu-denborazko euskal sistemaren atal bat (potentzialak) .....	223-226
URRALBURU, Gabriel: Apertura del Décimo Congreso de la Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA .....	19-21
VILLASANTE, Luis: Euskaltzaindiaren X. Biltzarra .....	23-30
Pello Salaburu Euskaltzaindian sartzea .....	287-296
Ignacio M. <sup>a</sup> Etxaide jaunaren mendeurrena .....	343-344
Maileguzko hitzen arazoari segida emateaz .....	461-463
Arestiren oroitzapenetan .....	533
<i>Erizkizundi Irukoitzaren</i> aurkeztapenean .....	629-632
<i>Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic</i> liburuaren aurkeztapenean .....	633-634
Gasteizen, San Antonio kaleko ordezkari-tza zabaltzean .....	641-643
V. Dialektologi Jardunaldiak .....	645-648
Encuentro entre la Real Academia Española, la Real Academia Gallega, el Institut d'Estudis Catalans y Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca .....	665-678
Iruñeko Ordezkari-tza zabaltzean .....	679-681
ZYTSAR, Y. VI.: Euskal deklinabidea .....	159-163
Sobre los geminados semánticos de A. Tovar .....	439-444

